GENTZA-BEAŔEAN



Urestarazu'tar Andoni

«UMANDI»

Uŕestarazu'taŕ Andoni
«UMANDI»

GENTZA-BEAŔEAN



KARDABERAZ BILDUMA - 36

Edita: Editorial ESET
Imprime: Gráficas ESET - Seminario Vitoria
I. S. B. N.: 84-7167-107-7
Depósito Legal: VI 450 - 1985

Aitzin-Solas

Gure elertiaren soloan nire aitzuŕa zertxobait erabiltzeko ausarturik, lan ontatik sortu zaidan idazti au aurkeztea erabaki dut, irakurle euzkaldunaren gogozkoa izan dedin yoranez beterik.

Elebeŕi baten antza du; bere egikera gure Eŕi'ko bazteŕ batean ageŕerazten dut, geyena, ta bertan jokatzen duten giza-lagunak, geyenak ere, euzkaldunak dira. Giroa, beraz, txit euzkalduna, nire naimenean bederen; gure esakun, esakera, atsotitz, ipuin, alegi ta euzkal-oikuntza batzuk, oŕialdeetan barna agertzen diralarik.

Iru gai berezi, edo elburu esan nai baldin bada, bilbatu gurazan ditut ongi zeaztuta egipen osoaren zeaŕ: gentza, gure Eŕi'aren bizi-arazo nagusia ta gizonen arteko lankidetasun-asmoa, gurean eta nun-nai soŕ ditezken ezberdintasun eta eztabaidaetarako erabil diteken alkartzeko bide onena bezela. Egitan, iru elburu oyek alkaŕekiko bilduak ikus ditzakegu, gure euzkal-bizia atontzeko ari egokiena bezela izateko nayean.

Bearbada, amets utsa baño besterik ez, ortan? Ba-liteke, baña naimen ona beñepein ageŕeraziko duen ametsa; ta, noiz edo noiz, ametsak ere geroko egipen onen asiera edo izan ditezke. Izango alda oŕela nirea, Euzkadi gure abeŕiarentzat!

Nire leŕoak josteko darabildan euzkerak eŕikoya izan nai du, edo jatoŕa izan diteken aren urbil bederik ibiltzea, gure euzkalki guztien jokaeraetan dantzatzen, guziak nireak eta ororenak diralarik; eta oŕengatik ain zuzen, egokia izan diteken batasunerako, guziak ere aintzakotzat artu ta erabīli beaŕ dirala ustean.

Eztugu aiztu beaŕ, aldamenean dauzkagun erderak bai ta beren gogo-lantzeak ere, gure izkuntza ta gure gogo-bizirako, betidanik, aurkakoak izan dirala, ta gerorako be oŕela jaŕaituko dirala izaten, gurean, izkeran eta gure biziera jatoŕean, kalte aundiak metatu dizkigutelarik. Alakotz, ezinbestekoa izango zaigu oyetan alik eta gar-

bitasun aundiena egiteko gure alegin beiñenak erabiltzea; erderaetatik kalte ta eritasuna eltzen bazaizkigu, euzkeratik bakaŕik elduko zaigu osasuna.

Gure Eŕi'aren gogo-lantzea eratu, zaindu ta zabaltzea baitezpadakoa izango zaigu beti, oŕela gure gogoari elikatura egokiena emango diogula eskieŕ izanik. Gure Eŕia, egitan, Euzkal-Eŕi bezela bizi-izateko, ta ortan bere eskubide, beaŕ eta elburua ikusteko diralarik, noski, gero ta euzkaldunago izatean, ots, euzkaldun-senaz jokatzean aurkitzeko beti bide egokiena. Enurarik ez ortaz, eta oŕengatik gure alegiñak erabiltzeko norabidea argi baño argiago aurkezten zaigu, nire iritzi apalean bederen.

Asmo oyekin batera gure elertiaren baratzean gogo-landare txiki bat landatu nai-izan dut, ia igali gozo ta egokien iturburua izan ote diteken gogoaz. Ene poza oŕelaxe izango balitz!

EGILEA

Amamio'ren deya

Uŕatu zan eguna, menderen bidean igarotako guzien antzo; ortaz beŕirik ez, baña alaz ere, egun-uŕatze guziak bezela, egun beŕiaren asiera zan eta oŕengatik goiztiriak oro ere beŕiaren margoz apaindurik esnatzen ziran.

Asierak ondorioak eskatzen ditu, ondorio gabe asierarik ez da ongi ulertzen; zerbait egitekotan nunbait ala nolabait asi egin beaŕ, eta egiterakoan asiera dugu beaŕa, aŕetaz begiratu beaŕ dan asiera, maiz asiera nolako ta ondorioa alako izango baita.

Goiz-argitzean eguna asten zaigu, goize ta aŕatsaldea iragartzen zaizkigularik, eguna nola izango dugun erakusten; eta egunak, saŕi, aldakoŕak izanaŕen, beren asieran ematen zayen bidean barna zabaltzen, edatzen eta amaitzen dira, geyenetan.

Egunak aldiaren loreak ditugu, beŕi zabaltzean, aldi-landarean muskilduta, azkoŕian altxuma; goizondoan, aŕastirian, beren lore-osto ta oŕatz diran orduak, aldi-olaetan langai, biŕi-betean ideki ta opariz emanak; eta ilunabaŕean, gau-aldian, oŕi ta lili zimeldutako araiz amaitzeko, zaŕak biurturik.

Eguna, gizonari eskeiñitako lore oparotsu berezia beti, ta gizonak xurgatu egin beaŕ an aurki dezaken uriña, eztia; ez ala ere erlamandoak bezela, bere onurako bakaŕik, berekoya ari-izateko; askoz gutxiago listoŕ biuŕi batek egingo lukenez, uriña giriña, ta giriña txaŕ, biurtzeko xedeaz; erle langileak dagienez baizik, erleak bezelaxe, etekiña bere lagunentzat izateko eran eta bearbada giza-lagunentzat ere; orori azkuŕi ta gozoki eskeintzeko. Oŕela, ain zuzen, dagokio gizonari egun-lorean xurgatu ta lanegin, zimeldu ta amaitu baño len, berarentzat, bere etxekoentzat eta urkoentzat be, alik eta etekin edeŕena ateratzeko alegiñetan. Zoriontsua benetan, bere biziaren zeaŕ egun-lore guzietan erle bikaña izatea jakin eta iritxi duen gizona. Erle-gizona, maitasun eta gentzaren alegin eta eginkizunetan eredu yaukala.

Aldi-lore beŕia zan, beraz, emen gogoratzen dugun eguna ere; auŕekoetan gentzarik ez Amamio'n; gudaren izkiīu ta istiīu ikus eta entzun ziran alboko baztereetan. Eŕialdearen zeaŕ eŕigoitaŕ eta eŕiberataŕak, alkaŕen aurkako oso gorbizturik zeukaten goŕotoaren bidez, izu, odol eta eriotza, ereintzen, ixurtzen eta burutzen ari ziran; ekaitzaren antzo, alde guzietan barna igaroten, atzean ikara, su ta negaŕ-malkoak uzten. Lenago uŕun xamaŕ ibiīirik, Amamio'runtz urbiltzen ziran eŕigoitaŕak, eta ayen ospea ain izigaŕia zalarik, amamiotaŕak ere laŕi ta estu.

Auŕegunean eŕian sartuko ziralakoan zegozen guziak, baña ustekabean —nundik eldu ziran iñork oartzeke— eŕiberataŕen ostea bidera irten zitzayen ayei, ta egundoko erasoaldia egin ere. Gau arte izkiīuak jokatu zuten gogoŕ, istiīu ikaragaŕian. Muño baten gañean kokaturik zegoen Amamio eŕia, ta bere biztanleak usteko etzan ikuskizun bildurgaŕiaren lekukoak izan ziran beaŕen-beaŕez.

Iñoiz etzuen iñork jakin gudaldi artan garaiīea nor izan zan. Egunarekin ikustea amaitu zan, ez ala ere entzutea, entzun beaŕ-izan baitziran, gau luze artan, zinkurin, gaŕazi ta elka ari ziran zaurituen deadaŕak. Eŕiraño eldu al-izan ziranek, etxez-etxe ate-joka; emengo onek, ito beaŕean, ura eskatzen; ango arek, berarentzat eta landan etzanik geratu ziran bere lagunentzat, sorospide ta laguntzaren biīa.

Eŕitaŕek, biotz-ikuturik, etzioten iñori ezer ukatu; etxeetako ateak zabaldurik, eskari bat ere etzan geratu erantzun on bat jaso gabe. Andereak, etxeetaraño eldu ziranak atotsi zituzten, zauriak garbitzen eta loturatzen; ura, arno ta etxean zeukatena eskeintzen; etzan-lekuak gertutzen. Gizonek, zuziak eskuetan eta angelak sorbaldetan, igitu eziñean zegozen guda-landako beste zaurituak biltzen eta etxeetara eramaten. Amamiotaŕek elukete beren bizi osoan gau itun ura iñoiz aiztuko. Beren etxe guziak gexotegiak biurtuta geratu ziran gau iīun artan. Etzuten begiratu zauritua eŕigoitaŕ ala eŕiberataŕ ote zan, gizona izan zan orduan zainduta soi ik, gizonaganako adeyaz.

Nun zegozen ala nora joan ziran erasoaldi artan bizirik eta jausi gabe geratu ziranak? Amamiotaŕek etzuten ori iñoiz jakin, eta uŕengo eguna, asieran aipatu dugun eguna nabarmenki uŕatu zan berentzat.

Lan edeŕa gau ta egun ayetan amamiotaŕek burutu zutena. Zauriturik zegozenen bat ere etzan landan lagatu ez eta aterperik ukan gabe. Eŕia, txiki zalarik, eritegi aundi bat biurtu zan, etxerik geratu

ezpaitzan, bi, iru, ta launa ere beaŕean, gerizatu ta lagundu gabe. Bein bakoitzarentzat etzangu egokia —oe, gosna, matela naiz lastaya izan— ezaŕi ta adelatuta atondu zalarik, emakumeek artu zituzten beren gain etzandakoai beaŕa zutena emateko lana ta zegokien axola guzia gordetzea. Neskatxak emakumeak laguntzen eta auŕak alde guzietatik begiluze, beren adimen nasigabeentzat ain aŕigaŕia baitzan gau eta egun ayetan ikusi ta entzun beaŕ-izan zutena.

Gabeko lana guztiz nekegaŕia izan bazan ere, bizientzakoa gerturik utzi ta bereala, gizonek, alkaŕen leyaz, landan iīak geratu ziranen gorpuak iīobiratu zituzten iīeŕian eta gero ildako zaldiak landan bertan lurperatu ere. Azkaŕ eta arin ibiīiaŕen, egunaren lenengo argi-xintaekin, an goyan, sai, aztore, bele ta oskilasoak, saŕaski ta aragi ustelaren usai ta kiratsak erakaŕita, bira aundietako egaketaz agertu ziran, eta gizonak beren lana amaitu baño lenago, kua-kua ta kaŕazkadaka, abereen gorpuenganaturik, an asi ziran asekaitz egundoko oŕitsaz ustiatzeko gogoaz. Gizonek makiīaka, gogoŕ eta gogoŕ, egazti basati ayek uxatzeko, lana izan zuten, il-ondoko guziak luŕaz estalita utzi arte; ta orduan bakaŕik ayenatu ziran txori beltz ayek, aitzen gañetik eta beren kabietaruntz ala beste norabait.

Eguna uŕatu ondoren, laisteŕ, erasoaldiarena amaitu zan, ta egun iīundu baño len aren lenengo ondorioak ere, beaŕ aundienetakoak bederen, buruturik geratu be. Etzanik zegozen gizonak, ayeneka ta inka beren etzatokietan, geyago ala gutxiago, guziak mindurik, batzuk beren oñazeak jasan eziñean, beste batzuk sukaŕez dardaŕ, nun zegozen jakin gabe, zer gerta zitzayen ongi oartzeke, gurenda lagunena izan ote zanentz ere bat edo bat kezkaz; zutitu nayean, ameskaitzen pean, egaŕiz geyenak, eska, aŕenka, zinkurika, deadarka, ..., biraoka ere bai batzuen batzuk. Igitu nai ta indarge, mintza gura ta itz egokirik ez, oldozten abiatu ta konorte gutxi. Naste, iīun eta laño, biotz gogoŕ eta buru setati ayengan. Oŕa burututako gertaketa ituna!

Nekezko giro artan, emakumeak, neskatxak batik bat, izu, laŕi ta bilduŕ; alan eta guztiz be, ero ta zoro, alots eta zakaŕ ayen alde, al zuten guzia betetzeko alegiñetan. Auŕak ate ta leyo guzietara, ikaraturik ere baña ikus eta entzuteko tiŕiaz, ausarta zebilzten; eta sein, ume ta ume-goŕiak negaŕ eta gaŕaxika. Eŕiko agintariak oro zuzendu nai ta gizonak, ayen lagun zeregiñetan aiduru buru-belaŕi. Arte edeŕa auŕeko gabaren laŕialditik egunaren egonaldiraño, istiīu-otsatik ardura ixiīaraño, goŕoto ankeŕetik maitasun biozperaño. Ordu gutxitan eta

barano medaŕean, gizonak bere baitan dituen txaŕena ta onena agertu ziran Amamio'ko egoiliaŕen eta buŕukalarien begien auŕean, bakoitzarengandik bata ala bestea zeriolarik. Erasoaldia amaitu ondoren eta lenengo ondorio ta beaŕ aundienak buruturik, onela zegozen eŕian geratu ziranak: eŕitaŕak, biozpera ta onginai; aŕotzak, ayeŕ eta gaiztoturik. Eŕiko apaizak oartu zuenez, kinka artan, gizonarengan soŕ ditezken erabateko jokerak, alkaŕen aurka, ageri-agerian erakutsi ziran; norberarengan ere, askotan, oŕelakoxeak dagoz atemateko, bakoitzaren barnean izkuturik, baña agertzeko zorian ere maiz.

Dana dala, egun artan, erasoaldian ibiĪi ziranak, listoŕen antzo, urin gaŕatz eta edentsua eman zuten; amamiotaŕek, ostera, bai maitasunezko ezti gozoa jaso ta eman zutena!

Zeintzuk izateko, gau eta egun ayetan gertatutakoen jaŕaipenak? Nolako ote, auŕez-auŕe zegozen lera ta iŕika ayen ondorengoak? Zein izango zan, alkaŕen mokoka ari-izateko an nabarmendurik agertu ziran jokabideen eginkizunak aitzurkatzeko luketen gerokoa? Nork auŕetik esan!

Amamio'ko etxe apal batean, erasoaldian jausitako bi gazte zegozen. Etxeko gela oberenean, etxekoek lastaira bana, izara, burko ta burusiekin gertu zizkieten, eta an ikusten ziran gazte biak arnas-estu ta atsanka, biek buruan artutako dangadek zaurituta. Etxekoandereak sendagiĪeari lagundu egin zion zauri ayek garbitzen eta lenengo sendaketak egiten, bai ta gero buru ayetan beaŕak ziran loturak apaintzen.

Etxekoandereak artan mirabe zuen alabak, zearo biotz-eragiña ta zaustadaturik, amari buruz:

—Zergatik, ama, gizonak alkaŕen etsai?, zer dala-ta asaŕe ta mutuŕ-joka ibiĪi? Ez ote dituzte gizajo auek beren guraso, aŕeba ta anai?, zertarako alkaŕen goŕoto ta tiŕili?

—Alabatxo —amak erantzuten— ez diñagu iñoiz ulertuko gizasemeen jokera; auen amaren gomuta, bai, zetorkidan barnera. Ura, negaŕ eta negaŕ, bakaŕik etxean; semeak, beŕiz, uŕun eta buŕuka latzean. Semea nunbait il ote dunan, ura beti bilduŕ; semearen biotza, gogoŕ eta zakuŕ.

Etxaguna bere gogoetan kardabaz beterik zegoen, aldamenean zeukan semeaz oartzeke; onek urduri, aitari:

—Aita, ezin burutik kendu atzoko gertaria; alkaŕen aurka jo ta ke, gizon ayen su ta kemena! Baña ez dut ikusten buŕuka artan, on

izateko, nun aŕapakaria, ta bakoitzak nai-izango luke berarentzat onena.

—Aŕapakaria norentzat? —aitak yardesten— zalantzik ez, Mari Gaizto ta abeŕiaren etsayentzat; auxe beaŕ duk, seme, gogoan ongi artu: Zoritxaŕ aundia dik gure Eŕi'ak, aspaldidanik kaltegaŕi ta ororentzat; alkaŕen goŕoto, oŕa zorigaizto, ez adi oŕ iñoiz sartu. Anai gaituk gizonok, ta guretzat lendabizi euzkaldunok.

—Kalean entzun dut, arotzak esanda —semeak diño— bart gure gañean Mari Gaizto egan zebiĪela; iĪuntzean, argi goŕixka motel bat bezela, aruntz onuntz ortzean; eta entzuten ziralarik urubi ta kaŕaska, izango bailiran ontz eta bela. Egia guzi ori, aita?, niretzat siñiskaitza baita.

—Apota'ko atsoai entzun zieat, neba, gurean oso zaŕa dukala Mari Gaizto izeba; odolkeri ta saŕaskietan atsegin dikana, seme zitian beleentzat an gertutzeko jana.

—Ene seme, ene alaba —aitak ebazten— Mari Gaizto duzute goŕotoaren izen; eta bere seme-alabak, alkaŕenganako eŕa dutenak.

—Ene auŕideak —amak— ez begitan artu iñor, izan gaitezen beti maitasunera emankoŕ. Ikus bi gizajo auek, atzo anayen aurkako buŕukan, ayeŕ eta ankeŕ, ziuŕ, biek; gaur biak berdin, iltzeko ote kenkan.

—Ilko al dira, ama? —alabak estu—. Yainkoa'k nai dezala biak sendatu.

—Etzekiñat, alaba, geuk bederen lagundu beaŕ zitiñagu; izanaŕen kardaba, geron eginbidea bete beaŕ diñagu.

—Gizonok —semeak galde— eŕigoitaŕ ote biok?, ala eŕiberataŕen alde?

—Ezin jakin oraindik, mutil —aitak ebagiten— egoteko duk bilduŕik, agian alkaŕen etsai izaten. Gure eŕi onen gentza ez genian atzo galdu, beren buŕuka eskeŕ ez uan iñor ona izkiĪuz sartu. Orain, beŕiz, baŕuan aunitz zegozkik, eta bat ere ilko ezpalitzak emen bederik!

—Oŕela izan bedi —amak— baña zuzpertzean ez ote digute beren ezin-ikusia erakutsiko gurean, eta gure gentza edeŕa jaŕiko naspiĪean?

—Izan liteke ori, bai —aitak— gizon auek beren ayerkuntza ezuŕetaraño daramatenez antza. Udalan itzegin dute oŕezaz eta gerturik dagoz ezer gerta ez dedin ausaz.

—Aita, ama!, begira!, asi dira oyek bira ta bira.

Oŕelaxe zan; zaurituak, lo-gaitz batetik esnatuko bailiran, burua jaso nai bide zuten, eta beren besoak indarka zerabilzkiten, janzkiak aldentzen eta jeikitzeko edo alegiñetan. Ba-zirudien biei oldaŕ berak eragin ziela, unealdi berean ere biengan yarduten.

Mutil eta neskatīla atzeraka, ayengan ikusten zituzten begi-oil eta xixtak izuturik; barneko suak edo eraginda, begi ayetatik guzia eŕe beaŕ zuten txinpart goriak jalgitzen ziralarik eta, oŕengatik apika, beren soara etzan auŕean zeukatena ikustekoa bezela, zorapen eta līurapen zitzaizkien iñungo mamu ta kokoengan irudikeriak edo ikusten zituena baizik.

Aitak eta amak, ayengana erdurik, ba-zuten lana zaurituen ekiñaldiak eztitzeko alegiñetan; sukaŕak jo-ta zegozen biak, gero ta gorago zijoan su arek gorputzak dardaŕ eta otzikara zituen, eta gogoak zoraldi ikaragaŕi batean galdurik. Oŕela, odol-beroz soñak eraginda eta zentzun gabeko bulkoak gogoak naasiturik zeuzkatela ikusirik, guraso ayek artega zegozen gizajo ayengan zer gerta liteken bilduŕez.

Sendagīleak esan zuenez, jausitako ayen zauriak etziran erio-ekarle, baña alaz ere kezka ematekoa zan ayen egokera ituna. Ausaz ura zan sukaŕaren unealdi laŕiena, ta berandu gabe igaroko zalakoan zegozen estu ta kexu.

Indarka jaŕaitzen zuten gizajo ayek, anka ta besoak gora-bera ta ezkeŕ-eskuira, baldaŕez igiten; izerdi-patsetan gorputzak, itzul-mitzulka buruak..., eŕukaŕi benetan ayen zori-gabeko itxura.

Aoak biuŕiturik, aduŕa zerien ezpain artetik, eta mingaña legorturik ezer esateko ezgai. Egaŕiz egoteko beaŕean, sukaŕak aunditzen zien beren egaŕia, ta amak nolabait eztitu nayean urontzia aoari urbiltzen zionean, edan-miñez edontziko ur guzia uŕupatu nai zuten zanga-zanga.

Edandako uragaitik ala indarka ibīliaz areago auldurik, anka ta besoak geldirik geratu zitzaizkien alkaŕen ondoren; ba-zirudien beren igiera ta zirkiñak antzeko ziralarik, bien egokera gutxi gorabera berdin zala, bien izakera ta biek jasandakoa ere berdintsu edo zirala. Orobat baŕukoa, berealakoan, nola edo ala, mingaña apuŕ bat askaturik, adieraziko luketen bezela.

Arnas-otsa atsanka entzuten zitzayen eta alako marmarioa ere, batzuetan zerbait edo esateko beaŕean. Zuŕubuŕuka azkenez, zintzuŕ-otsak zegizkitelarik, guraso ta seme-alaba adi-adi, ayengandik beŕiren bat jakiteko gurariz. Amak, aŕetaz, ur-tanta batzuk botatzen zizkien

erdi idekita zeukaten aoan eta zorigabekoak, antsiz beterik, ezpañak miñaz milizkatzen zituzten.

Alako batean batek: —Ura, ura!— doi-doya deadaŕa nai-izan zuen abots motelaz. —Tori, gizajo ori! —amak— ba-duzu barnean sua gori. —Au egaŕi —besteak berdintsu— itotzeko nago ni. Amak —zeuk ere eutsi!, ta biokentzat on bedi.

Ba-zirudien, orduan, nolabait pixkaka baretzen ari zirala. Buru, beso ta ankak, jausita, geldirik geratu zitzaizkien azkenez; ez luzarorako, alabaña; aurki asi ziran beŕiro, besoak goruntz eta eskuak estutzen, zerbait atziturik izango bailuten; eta mozkoŕ-mintzoz zakaŕ asi ziran, alkaŕen leyan, beren biotz gogoŕetan zeramaten eŕa itz gordiñetan azaltzen; bi gogo īlun ayengan, ayerkunde berak, bizi-bizirik zegoela ematen zuen, eta oŕek eraginda an bota zituzten astakeriai, etxagunak gero, onela deitu zien zuzenki: goŕoto-bikondea. Umeentzat izu ta ikara, amarentzat laboŕi ta biotz-min eta aitarentzat uŕikaltasun, neke ta kardaba.

Ona emen, zutik zegozen lau gizakume ayek, etzanda zeuzkaten bi buŕukalari ayengandik entzun beaŕ-izan zuten goŕoto-eztanda ikaragaŕia:

Batek:

Jo ezak, mutil, ...
eskuin-ezkeŕ, ...
erabil makil, ...
gogoŕ, ankeŕ, ...
Gurea diagu, ...
oso gurenda, ...
zanpatu augu, ...
oro leŕenda, ...

Besteak:

Ireak egin dik ...
alpeŕik gaŕazi, ...
ago oraindik, ...
nolabait bizi, ...
Astiro itoten, ...
nai aut ikusi, ...
arnasa gal-azten, ...
eten, zapart, jausi ...

Amak —Yosu!, zer ote dago auen barnean? Noren aurka ari dira biotzean?

Aitak —Eŕa-suaz kizkaltzen beren burua; alkaŕen aurka noski, amets zorua.

Batek:

Zuena guzi, ...
geron eskuok, ...

Besteak:

Eup!, eŕiberataŕak, ...
auŕera, aintziña, ...

eŕauts aurki, ...
egiña zegok, ...
Eŕigoitaŕak bai, ...
nagusi beti, ...
gure arerioai, ...
lepoan autsi, ...

jo ta ke! gure auŕak, ...
dana ein iriña, ...
Koldaŕa, jo atzera, ...
ez barka etsairi, ...
biotza oŕ, atera, ...
odola ixuri, ...

Mutiīak —Gizon auek zer dira baña? Lokumak jo-ta, biak alkaŕen aña?

Neskatiīak —Ez ote dira auek kristauak? Bildurgaŕi benetan beren soarak.

Batek:

Gogoratzen ote, ...
eŕien zeaŕ, ...
etxe ta eŕete, ...
txinpart, su ta gaŕ?, ...
Atsoak negaŕ, ...
auŕak kaŕasi, ...
eta gizatzaŕ, ...
oro kixkali?, ...

Besteak:

Basetxetan barna, ...
genbilzkianean, ...
oñatz eta aztarna, ...
utzirik atzean, ...
Kortak garbiturik, ...
guretzat bei, ergi, ...
neskak izuturik, ...
gizonak igesi, ...

Aitak —Oŕa biŕintzale alenak! Su ta izu emaiīe, ta lapuŕetak.

Amak — Ume ta neska eŕukaŕiak! Yauna! eŕugabeen jasan beaŕak!

Lipaŕ batean ixiīik geratu ziran guziak. Arnasa laŕi beti etzandakoengan. Izu-laboŕi auŕak. Uŕikaldurik ama. Guziari so aita. Zer ote andik aterako?


Itz-erdizka asi ziran beŕiz buŕukalariak, barnean zeukatena lekorera edo botatzeko beaŕean. Beren itzak etziran oso biribiltzen, gero ta motelago esaten eta zaīak ulertzeko; ta sukaŕa zan beti igi ta mintzatzeko indaŕa ematen ziena. Ona emen beste itz-iŕada:

Batek:

Jo burua, ...
uŕa sabela, ...
motz lepua, ...
gantz dariela, ...

Besteak:

Apena dukan edeŕ, ...
buŕukalaria, ...
oi! etsayentzat ayeŕ, ...
zakaŕ, ilgaŕia, ...



Zutik iñor, ...
ez eta bizi, ...
beti gogoŕ, ...
geuk irabazi, ...

Saŕaskia duk oro, ...
ayeneka nun-nai, ...
odol-gale aboro, ...
egazka gabirai, ...

Neskatiłak —Bai negargaŕia goŕotorako bizi! Besteak iltzeko apeta izigaŕi!

Mutiłak —Onelako gizonekin gentza ezin! Eŕa ta erail besterik ezpaitakite egin!

Batek:

Ez aut barkatuko, ...
anayak erail, ...
bai, izkidalako, ...
axe giza-sail, ...
Zoŕa enekiko, ...
jasoko diat, ...
baten ordez biko, ...
yaurti bizi at, ...

Besteak:

Auŕentzat ezti edeŕ, ...
gizonentzat odol, ...
ayerkunde etsaier, ...
biotzean borbol, ...
Guraso, sendi, eŕi, ...
baño txit geyago, ...
maite diat nik ori, ...
suntzi areago, ...

Amak —Orixe ankerkeri! Ez ote dute amarik? Nola, baña, oŕen ameskeri?

Aitak —Goŕotoaren zitua dugu ori; gure Eŕi'an ainbeste zabaldu zaigun eŕa goŕi.

Batek:

Begitan arturik, ...
kuku etsairi, ...
ez bedi bizirik, ...
gera sorkari, ...
Gorpuen gañean, ...
dantz-egitea, ...
itses-egunean, ...
geu goratzea, ...

Besteak:

Gentzarik ez gurean, ...
etsaya bizirik, ...
oŕ izanen artean, ...
eta lurpeturik, ...
Oyekin egiteko, ...
alkartzerik ezin, ...
gu gera izateko, ...
bakaŕ eta goitin, ...

Mutiłak —Orobat biek. Asmo bera biengan. Batek goŕoto ta ayerkunde bestek.

Neskatiłak —Ene biotza itun eta dardaŕ. Maitasunik ez oyentzat eta guziz zakaŕ.

Noizpait bertso bera ura amaitu zan eta koblari ayek nekez edo aspeŕ ixildu ere.

Gero, egun batzuk igaro ziran, eta, naiz guk dazazkigun bi zaurituak, naiz Amamio'n babes aurkitu zuten besteak, geyenak, lenengo egun txaŕak jasan ondoren, zearo sendaturik egoteko eguna urbiltzen zitzayela ikusi al-izan zuten, azkenez, eta laisteŕ bakoitza bere eŕira itzultzeko ordua ere. Guk goŕoto-abestia entzun genuen etxean zegozen biak alkaŕen etsai izanik, beste oŕenbeste gertatu zan beste etxe batzuetan ere; ta ayengan alkaŕenganako zegoen eŕa ain sakon eta gorbizturik zeukatela oarturik, Amamio'ko agintariak neuŕi bereziak artu beaŕ-izan zituzten ankeŕ alu ayek, zuzpertzerakoan, alkaŕen aurka beŕiro asi ez zitezen.

Geuk aipatutako etxean, etxagunaren kemen guziak jokatu beaŕ-izan zuen, bi zorigabeko ayek, alkaŕen beŕi artu zutenean, buŕukan ez sartzeko.

—Entzun, gazteok! —esan zien orduan— sendatzen ari zerate, ta emengo erasoaldian zuek eta zuen lagunak alkaŕi egindako zauriak isteko zorian dagoz; barne-barnetik nai-izango nuke, zuen gogoetan dauzkazutenak noizpait sendaturik ere ikus zenitzaketela; ba-dakit, jakin, ala ere biar goizerako izango eztala ori. Eŕi ontaruntz zentozten guda-xedeaz, eŕiberataŕak eta eŕigoitaŕok berdin, erasoaldia sortu auŕetik, eta zuen buŕukaren eskeŕ, etziran guganaño eldu zuen taldeengandik gureganatuko zitzaizkigukean elkaitzak. Aŕezkero gertatutakoa auxe duzute: erasoaldian iñor etzan garaiłe geratu; aŕatsean iłak eta zaurituak ugari landan baŕeyaturik, besteak alde-egin zuten bakoitzak al-izan zuen bezela. Goizeko iŕintzi ta eupadak gaberako el, intziri ta min-oyuka biurtu ziran; ara erasoaldiaren ondorioa. Geron aldetik, eŕi ontako guziok batera, iłak lurperatu genituen eta zaurituak gure etxeetan jaso, zauriak sendatzeko ta orduan beaŕ zenuten guzioi sorosteko. Ez dugu ortarako begiratu eŕigoitaŕ ala eŕiberataŕ ote ziñaten, eta guzientzat berdin izan dira gure ajola ta begiramenak oro. Oŕela izan dala biok ikusi al-izan duzute emen, eta eŕi guzian orobat gertatu da, guretzat zuek, guziok, gu bezela, euzkaldunak zeratelako, ots, anayak. Beraz, oŕengatik eta guziagatik, gauza bat bakaŕik eskatzen dizuegu, ta onez-onean egin nai ezpaduzute, geuk araziko dizuegu gogoŕ: emen egongo zeraten bitartean alkaŕenganako zuen

eŕaz zearo aiztuta egon zaiteztela. Ez diguzute zuen alde egin dugunagatik eskeŕik eman beaŕ, guk geron eginbidea betetzea baño besterik egin ezpaitugu; baña ez dugu nai liskaŕik gurean eta zuei ere ez dizuegu utziko oŕelakorik sortzea. Alakotz, egon zaitezte lasai, emen egongo zeratenean beaŕ duzuten guzia, ziuŕ ukanen duzutela. Ta ibiltzeko zuen indaŕ guzien jabe izan zaiteztenean, nai-izango duzutenera joateko yarei utziko zaituztegu.

Buŕukalariak etzuten ezer erantzun; ziri-mara ta gogoanbeartsu zegozen; alkaŕ begiratu gabe ta, jeiki al-izan ziranetik alkaŕen aurka ezer egin ezin zezaketelarik, bakoitzari egoteko eskeiñi zioten gelara, astiro-astiro ta bekoki astun joan ziran, etxeko jaun eta andereari buruz bai ta umeenganako ere lotsoŕ. Biotz gogoŕeko gizonak izanik ere, etxe artan aurkitu zituzten abegi on, begirapen eta zainketak, berengan nolabaiteko zaŕastada egin baitzuten. Etzuen batek besteak baño geyago ta ez gutxiago jaso, ta etxe artakoentzat ba-zirudien biak anayak zirala. Ta gozatu al-izan zuten guziaz gogoraturik edo, gerorako gorde zuen bakoitzak bere baitan alkaŕenganako zeukaten ayerkundezko guzia.

Etxeko jaunak, gentza-kezkaz okiturik, bere seme ta alabarengan, barnean zeraman lera bera soŕerazteko nayean, buŕukalariekiko bere etxean jazotzen zan guziaren lekuko izan zitezela gura zuen. Eta orduan ere aldamenean zeuzkalarik, onela mintzo zitzayen:

—Gizajo auek beren goŕoto-eyeran ari dira bakoitzaren eŕa-iriña eotzen; zorigabeko benetan; ez dute zuzen begiratzen, eta beren soara, begi-zeaŕ eta begi ilunez, sayeska edo beruntz doakie beti berez. Bai biziera itungaŕi auena; zer ote auentzat pozgaŕi?

—Baña ez al dute auek amarik? —etxekoandereak itzegiten— ez anai, aŕeba edo semerik?; ez ote dago oyen biotzean maitasunerako tokirik?; beren baitan guzia goŕotarako bakaŕik?

—Bilduŕez nago ni —alabak— oyen auŕean saŕi, batzuetan baitirudi mokoka nai dutela asi.

—Neretzat —semeak— oyentzako tamalgaŕiena, auxe apika, beren giriñaren azpian oŕen jopu izatea.

—Bete dezagun geuk —aitak— geron eginbidea, ta oyentzat ere izan bedi gure biotza maitasunez betea.

Egunen bidean, sendatutakoak asi ziran bi, iru edo launaka alde-egiten, sendotzen ari ziran arauz. Amamio'ko agintariek oŕela egiteko erabaki zuten, eta ayen artean, eŕitik at beste buŕukaldirik

soŕ etzedin, eŕigoitaŕ ziranak Aratz'en atzetik Urbia ta Oñate'runtz bialtzen zituzten, eŕiko mendigoizale batzuek arako bide erdirako bederik laguntzen, Oltza'ko saroberaño gutxienez; eta eŕiberataŕak, Mentoste baŕena ta Lasarte auŕetik, Agurain eta Abendaño'runtz, Aitzkomendi'ko aŕipilleraño lagundurik izateko. Oŕela, beren bideetan alkaŕengandik uŕundurik, ezin ayen arteko liskaŕik izan.

Guk ikusi ta entzun genituen buŕukalariai ere, indaŕak oso berenganaturik, joateko ordua eldu zitzayen. Eta auŕeko egunean, berak zegozen etxeko etxagunak, bere emazte, seme ta alaba alboan zeuzkalarik, onela itzegin zien biei azken aguŕaren antzo:

—Zuek zerate, ukan zenuten zoritxaŕaren ondotik, gure eŕi ontan geratzen zeraten azkenak, aldameneko beste etxe batean dagozen beste biekin. Laurok biar goizean irtengo zerate emendik, eta uste dugu guregandik, gero, gomuta txaŕik izan gabe gutzaz oroitu al-izango duzutela. Zerok eta geu, guziok, Eŕi baten semeak gera, anayak beraz gure artean. Orixe da eŕi ontan dugun oñaŕi-asmoa, ta oŕengatik ain zuzen alegiñak egin ditugu, zuen erasoaldiagatik guregana eldu beaŕ-izan zenuten guziok berdin atotsi ta zaintzeko. Ene ustez gure eginbidea beterik utzi dugu, ta zerok, oro, lekuko izan zaitezkete. Gerturik egon, bada, biar egingo duzuten ibilaldirako; beste lagun guziak auŕeko egunetan taldeka joan dira ta zuek ere ayen atzetik joango zerate, ayek artutako bideetan barna.

Baña —etxagunak jaŕaitzen— geyago egin nai-izan dugu emen jazotakoaz geyenik ustiatzeko xedeaz; eta gure endore ta ziñegotziek, eŕiko gizon eta emakume guzien iritzia bereziki galdetu ondoren, zuen bi taldeen buruzagiai dei bero bat bialtzea erabaki dute. Dei ori emen egondako zuen lagun guziei irakuŕi diete ta zuen nagusiei idatzita biali ere. Niri dagokit orain zuei irakurtzea; entzun ezaidazute, otoi, al dezakezuten aŕeta aundienaz.

Eŕigoitaŕ eta eŕiberataŕen buruzagiai Amamio'ren Deya:

Urte asko ta luzeen bidean ari zerate talde oyetako guziok alkaŕen aurkako guda ikaragaŕian lotuta. Zeintzuk dira oŕela jokatzeko batzuek eta besteok dauzkazuten zioak?; zeintzuk ote zuen elburuak? Ez dakigu oŕezaz ezer, eta ez gera oyen beŕi izateko alegiñetan sartuko. Baña bi egipen itun auek agertzen zaizkigu garbi: zerok alkaŕenganako duzuten goŕoto izugaŕia, orixe lenengoa; ta auxe bigaŕena: zuen goŕoto oŕek eraginda, aran, mendi ta bidean zeaŕ, eŕiz-eŕi zabiltzate buŕuka ta mokokaldietan, bazteŕ guzietara guda

eramaten. Etzerate iñoren eta ezeren aurean gelditzen eta indarkeri ta gogorkeria ditugu zuen egipen guzien ezaugarri. Oyetxek kari dirala, gure Eri guzia izupean murgildurik bizi da, egunero zuen bilduŕ eta egokera laŕi onen amaya ikusteko itxaropenik gabe. Giro latz ontan ezin Eŕi'ari dagokionaren alde ezer egin, eta zuen taldeetan sartu nai ez dutenak, etxetik alde egin beaŕ dute ta erbestera doazkigu. Ondorioaz gure Eŕia gero ta txiro ta makalago, eriotzaren bidean abiaturik dago. Ez da ori, alaz ere, auengaŕia dan bakaŕa. Egoaldean eta Ipaŕaldean lateŕi aundi bi ditugu, biak indartsu ta gure Eŕi'aren gose; ta berentzako mugonaren zai dagoz gure luŕ guzia berenganatzeko iŕitsaz beterik. Alegia, zerok, zentzun gabeko zuen guda gogoŕ oŕen bitartez oyentzako abagunea gertutzen ari zerate.

Zuek eta gu guziok, euzkaldunak gera; guziok ere gure Euzkal-Eŕi au biotzez maite dugu; ezin izan diteke maitasun ori goŕoto ta eŕa guziak baño indartsuago? Ikus dezagun danok ebazkizuna garbi: Eŕi'arenganako maitasunak bat egin gaitzake, ta guziok bat izanik, arerio guzien aurka Eŕi'aren bizi ta azkatasunari eutsi al genizayeke. Alkaŕenganako goŕotoaz, beŕiz, aitzitik, gure Euzkal-Eŕi'aren ondamena baño besterik ez dugu lortuko.

Joan dan iĺean Amamio'ren landetan, zuen arteko erasoaldi lazgaŕi bat atsekabez beterik ikusi genuen. Egun guzian buŕuka bildurgaŕian yardun zenuten. Gaua eldu zan eta iñor garaiĺe. Bizirik geratu ziranetik, batzuk, zaurituta, landan erorita geratu ziran iĺen ondoan, eta besteak, beren buruaren jabe zegozenak, bakoitzak artu al-izan zuen bidetik, baŕeyatu ziran zearo, eta iñork etzekien noruntz.

Ots, ezin izan diteke erasoaldi ortan gertatu zaizuena, iragarpen edo zantzu bat? Zuen arteko guda ankeŕ eta ikaragaŕi ori ez ote da, azkenez, oŕela ere amaituko? Geron gardiz amai ori argienik agertzen da ikusteko; ezin izan diteke besterik, gañera, zuen aldetik onezkoak egiteko asmoa ontzat artzen ezpaduzute. Baña, begira!, amai oŕen ondorioak txaŕenetakoak izango dira, zalantzik ez ortaz; eta zuen ezin-ikusi, eŕa, liskaŕ eta lipiztaen bidez, gure bazteŕ guziak zitaldu ta edendurik dagozelako, ondorio oyek gure Eŕi guziak jasan beaŕ-izango ditu.

Areago! Gure Eŕia, guzion abeŕia, bere bizia galtzeko zorian egon diteke, euzkaldun guziok, oŕezaz oarturik, ororen biziari eusteko gertutzen ezpagera. Gogora ezazute, otoi, zuŕ eta aŕetaz, len esan dizuegunaz, gure Eŕi'ak gañean duen zemaz, gure auzokoen iŕitsaz,

gure abeŕiari ortik el dakioken zoritxaŕ izugaŕiaz, betiko bere eriotza, ausaz.

Zuentzat zail izanaŕen, ez gure deyaren aurean goŕik egin, ez zalantzetan ibiĺi guziontzat ain beaŕa dan erabakia artzeko. Amamio eŕi onek, pakean bizi dan eta bizi nai duen eŕi onek, ororentzako orixe bera opa duelarik, kartsuki ta biotz-baŕenetik eskatzen dizue; ta dei ontan ageŕerazten dituen xedeetarako, bere laguntza osoa emateko gerturik dagokizue.

Ixil-ixiĺik entzun zuten bi buŕukalari ayek etxagunak irakuŕi ziena, baña ayen arpegian unkigaŕi izan liteken ezer ez, eta beti bezin mukeŕ geratu ziran. Ayen biotza, eiki, aŕi biurturik zegoen eta gogorkerietarako bakaŕik edo gerturik.

—Zoazte orain lotara —esan zien etxeko jaunak—; biar goiz, bakoitza bere aldetik, alde egingo duzute emendik eta bide luzean barna gure gazteak lagunduko zaituztee; gero, zerok jaŕaitzeko.

—Ama naizenezkero —etxekoandereak— zerbait esan nai dizuet nik ere. Emen egon zeraten bitartean, semeak izan baiziñaten, zaintzeko alegindu naiz eta nire seme-alaba auei ortaz laguntzeko agindu diet. Zuek gogoratuko duzute xede ori bete dugun ala ez. Bide luzea duzute orain egiteko; baña alde batetik Arantzazu baŕena igaro beaŕ-izango du batek, eta Estibalitz'etik urbil besteak. Oroi ezazute toki edeŕ oyetan, bakoitzak bere amaz, eta biok, antxe, leku bietan dagozen Miren Neskuts'aren irudiek adierazten duten ororen Ama dugunaz. Bi izen oyekin agertu zan ororen Ama Neskutsa, ain zuzen pakearen bidea idekitzeko; ez gaitezen, beraz, itsuki bidekatu, ta ongienik ibil zaiteztela barnetik opa dizuet.

—Nik neuk —eŕan zuen alabak— zuen alde otoi-egingo dut kartsuki, beti bizi zaitezketen ongi.

—Eta nik —semeak— zuetzaz gogoratuko dut ene bizi guzian, eta ene ustez zuek ere orobat eginen duzute gutzaz, agian.

—Eskaŕik asko —esan zuen batek doi-doya—. Gabon besteak ozta-ozta. Bakoitza bere gelaruntz, biak abiaturik.

—Eztakit —esan zuen amak orduan— gizon zakaŕ auen biotza iñoiz aldatuko ote dan. Purdentzi Deuna edo beaŕ-izango genuke, beŕiro emen, orpoz-orpo ari zaizkigun oyen biotz eŕeta yabaltzeko.

Etzuen iñork etxean lo aundirik egin gau artan; ia iĺebetean ikusi, entzun eta jasan beaŕ-izan zuten guzia, beren buruetan metaturik biraka ari zitzayen guziei amaitzerakoan; ezin oŕengatik orduan lo-

tarorik egon. Bai gau luzea, benetan, ura, joateko ta geratzeko zegozenentzat, noizpait, alaz ere, amaitu beaŕ zana; ta egun beŕiaren argi-uŕatzearekin batera, guziak iraduz oya oztutzeko. Alkaŕekin gosaldu zuten bereala guziek, etxagunak oŕela nai-ta; etxekoandereak biderako bana bidaztiai eman zien. Ate-joka aurki, bidazti ayen laguntzaīleak, eta... amaya. Etxekoek aguŕ beroa egin zieten biei ta auek, etxeko jaun-andereak eskeiñi zieten bostekoa erdizka estutzen eta auŕen burua pitin bat perekaturik, aguŕ eta eskeŕik aunitz esan zieten guziei. Argi oartzen zan, beren azken itzak beren burua indarturik oguzi zituztela; ta besterik gabe, beren laguntzaīeai jaŕai zieten, berentzat ain aterpe edeŕa izan zitzaien etxe artatik alde-egiten.

—Amaitu zaigu gaurkotz —esan zien orduan etxagunak bere sendikoai— gure Eŕi'ak jasan beaŕ duen ezbeaŕak gure etxe ondora ta gure etxe ontara ere ekaŕi digun naigabea. Lendik, guganaño eltzen ziran beŕiek adierazten zigutenari buruz kezkaz beterik banengoen, emen bertan ikusi ta entzun dugunaz kardabaturik nauzute oso. Ain auengaŕia bada ere, ez ditugu begiak itxi beaŕ; eta zer dakuskegu?: bazteŕ guzietan barna, gaur, gure Eŕia goŕotoaren lege zitalaren pean bizi dala, biotz geyenak, oŕengatik, txit gorbizturik dagozela. Zorigabeko, benetan, gure Eŕia! Urbil ote bere azken egunak? Nunbaitetik argia ikusi nai-izango nuke, baña guzia iīun agertzen da. Ororen buruzagi izan litezkenak itsututa dagoz beren ayerkundeari bakaŕik itsatsita; eŕi-xea, nora joan diteke zuzendaririk gabe? Gizuren argiren bat Yainkoa'k emango baligu...! Aski da, barkatu; goazen gure zeregiñetara ta eutsi dizaizkiegun, guziaren gain, gure siñismena ta itxaropenari. Ta beterik izan dediīa beti Yauna'ren naya.

Oŕela geratu zan Amamio eŕi guzia, kexutasunez beterik. Elgea mendaitzetik Urbasa'runtz, odei beltzak edatzen ikusten ziran. Odei ayek zeramaten bidean, Mari gaiztoak omen zebiltzaten saŕi, zorigaitzak nun-nai zabaltzen; askorentzat odei beltz guziak beste ainbeste Mari gaizto ziran, eta sorginkerietaz siñismenik etzutenek ere, ezin odei beltz ayek begi onez begiratu; al eta ezin, ayen azpian beti kardaba ta artega, guziak ziri-mara. Ibituko al litzake iñoiz, kezka guzi ayek soŕerazten zuten barne-miña? Gozatuko al likete, egunen batean, euzkaldunek beren biotzetan ain beaŕa zitzayen gentza? Amamio'ren deyak oyartzunik ote nunbait?

Gogorapen, asmo ta gogo ametsak

Urteak, geldi eziñean, auŕera zijoazen, beren ordu ta egunekin, biziaren epeak betetzen, arautasunez eta jaŕaitasunez, iraduz ibiltzeke baña bakoitzak ezertan utzik egin gabe, eltzean eta itzaltzean, beren edatze guzian berdin, neuŕi berekoa oro, zeinbera auŕekoaren atzetik lotua ta bere uŕengoak oŕelaxe jaŕaitua; iñork eztakiela noiz amaituko dan aldi-katearen estunkideak diralarik. Aldiaren neuŕiak izanik, aldiak dituen lege orokaŕak jaŕi dieten bidetik iñolaz ere aldatu barik, alda-eziña dan izadiaren antolabidean.

Urte oyetako baten egun edeŕ eta zoragaŕian gagoz, udabeŕi ta udak alkaŕi muin-egiten dioten egunetako batean, garagaŕil eguzki-begikoaren egunean. Itxaropenari guztiz idekita zegoela zirudien egun aren goizea; sortaldean, Burunda'ko mendien gañetik eguzkia goruntz zijoan bere eguneroko ibiīaldian egurasteko abiaturik; etzegoen goize artan ari itzal egiteko odeirik. Eta izadi guzia erne agertzen zan, egun arek eskeintzen zuen edertasun guzia gozatzeko kiŕi ta egaŕiaz. Mota guziko landareak, txirpietan asi ta zugatz adartsuenetaraño muskildurik oro, beren altxumaen bidez, barnetik ideki nai zutela zirudien, egun zoragaŕiari emaitza oparoa aurkezten. Isteko lerarik ez iñun. Eltxo, mamu ta zomoŕoak nun-nai buŕunbaka, sasi ta txapaŕ guzien zeaŕ eta jaki-biīa usnaka. Txinduŕiak, lekaide zintzoen antzo, giroa ustiatzen zuten zearo, beren lagun-etxea zan txiñuŕitegira, aspertzeke, aletxo, pikoŕ eta bedaŕ-izpiak eten gabeko loŕetan eramaten. Oyek bezin langiīeak diran erleak, apikotxuetara leyatsu ta keŕ-keŕ eldurik, lili oyen kukuluetan aurkitzen zuten gun gozoa miīika-miīika xurgatzen, ain elikatura edeŕa zayen eztiaz erlauntzetan biurtzeko; gizonentzat ere eredu bikaña, izadiaren aberastasunetik norberarentzako etekiñak jaso ta onurazko gayetan aldatzeko. Erleak bezela, baña ardurabako, tximeleta ta pinpiriñak, beren egatxoetan margo politenak nabari-erazi al zutelako aŕo ta zuntzunik, lorez-lore zebilzten, oyetan zegoen opariarekiko ajola gabe

antza; berak margo edeŕez jantzita izanik, oŕengatik edo burgoi ta kaskarin, loretan ikusten zituzten beste margo edeŕek erakaŕita, ayetara zijoazten eta bakoitzean lipartxo batean bakaŕik gelditurik, margoakatik senidetzat arturik edo, apatxo bat eman nai-izango bailieten. Zomoŕo ayek eta beste mamutz asko ixiĪean ageŕerazten zuten geyenak bizirako beren kiŕika. Etzebiltzen oŕela txoriak; auek, urtezaroaren indaŕak eraginda, bira-biraka ta itzuli-mitzuli, naiz luŕ gañean tatez naiz adaŕez-adaŕ eta aide garbiaren zeaŕ egaz, aspertzeke ari ziran beren txioka ta txiuntakaz, iskanbil eta txiŕipoŕoz, besteen eta goizeko ixiltasuna uŕatzen, baña izadiaren esnatzean alaitasun atsegiña baŕayatzen, guzia pozarazteko gogo orokaŕ batek bultzaturik bezela. Guzia zan argi goize artan, eta bero ta bizi, goitik zetozen argi ta beroz, nunbaitetik zebiĪen aize xuri batek giroturik; landara zijoazen gizon eta abereak, txori, zomoŕo ta landare guziak, oro, argiturik, beroturik eta gozaturik, bizi-betean murgiltzen ari ziran, gogoz, alai ta yoranez beterik. Izadia, bere osotasunean, eragozteko eziña zan bizi-oldaŕ indartsu ta aŕigaŕi batek eraginda, yalgitzen eta zabaltzen zan oparo, naroki, gelditzeko etzan indaŕ altsu ta yauzkoŕaz, soŕ-oldaŕ osoaz; oŕela, goizeko lenengo ordu ayetan guzia argi, bero, ats eta bizia zan; eta luŕa, giro ta egurats ayetan, bere yoritasun betean guziz emankoŕa agertzen eta umotzen zan.

Burnibideko geltokitik Amamio'runtz luzatzen zan bidean zijoala, gizon gazte bat, ibilkera zalu ta azkaŕak zaloi nabari-erazten ziolarik, an agertzen zan adorez beterik auŕeratzen. Orduko egurats edeŕa, as-giro egokia ta legun zebiĪen aize gozoa, aren barnean irakiten edo zebiltzaten asmo ta ametsekin, batera zetozela esan genezake, lekore ta barnetik alkaŕenganako bilduta, gazte aren ederbegi bikaña gaindiko arauz osotzeko bezela. Baikoŕ eta gogotsu zijoan etxeruntz ura, len, urte luzeak zirala, Amamio'ko etxe batean auŕ ezagutu genuena. Baña nork igaŕi aldi bateko ume koskoŕa ain gizon garaturik izatera elduko zala? Eta oŕela zan, gizon bete-betea egiña; izatasuna, gizatasuna, tai gabeko edatzean, arian-ezarian, arengan ere azkortu ziran, eta bere auŕekoen garaz mamitu zan gizon beŕia. Bidezkoa zan gazte arek bere baitan zeraman baikortasun aundia; urte batzuen zeaŕ egindako ikasketak egun ayetan amaitu zitzaizkion, bein-betiko bere bizibidean asteko ta luzaroan egositako asmoak betetzeko aldiaren atarian zegoen. Gurasoengandik artutako zaletasunaz edo, luŕa maite zuen arek biotz-barnetik; luŕean ikusten zituen len-bizia,

asiera ta, urtez-urte, garai egokietan, ororen biziak beaŕ zituen etekin bereziak zabal eta oparotsuki ematen; emankoŕa benetan luŕa, gizonarentzako egoitza maitagaŕia, baratz gelgaŕia, gizonek, alu alenak!, ainbestetan elkoŕ biurtuta uzten zutena. Etekin gozoekin batera edertasunaz apaindurik agertzen zan luŕa gizonaren zentzumen guziak atsegiñez betetzean. Aren ustez luŕa, guzia zan gizonarentzat; bizirik, norberaren eta ororen biziari eusteko beaŕ zana ematen; iĪik, bere altzoan, azken maite-besarkadaz gordetzeko.

Mikel, gure gaztea, ogibidea aukeratzeko garaya eldu zitzayonean etzan aikolo-maikolo ta ezmezean ibiĪi, ta bere endagandik zetorkion dei bizia izango bailitzayon, zalantzik gabe, lugintzari lotu zion bere burua. Pozgaŕia izan zan gurasoentzat erabaki ura ta, egiazko aberastasunik gabe, lanaren bidez lortu al-izan zituzten obariak, goiko ikasketa bereziak egin zitzan, gogoz eta itxaropenez okiturik, semearen asmoetarako adelatu zituzten. Bost urteetakoak ziran ikasketa ayek uŕuneko uri aundi batean egiteko; ta ara joan zan gure ikaslea, opoŕaldietan bakaŕik etxera itzultzeko.

Uri artako argi diztiratsu ta erakarkoŕak etzioten gure gazteari xaki aundirik egin, luŕaren deyak edo beti beregan indartsuki eragiten zuelako, ta opoŕaldi bakoitzean, etxera ta sendiarengana bakaŕik ez, luŕera bereziki itzultzen zala zirudion eta, ikusten dugun goize artan bezela, beti zegien oñez bide ura luŕaren abegi ta txera beroaz gozatzeko iŕikaz. Etzuen iñun estaltzen bere zaletasun ura ta bere ikaskideek luŕ-miñez josia zegoela esaten zioten.

Alkaŕen antzeko ziran, beraz, Mikel'en itzultze guziak, baña ikusten dugun azken ortan, bizibidean sartzeko azkena zalako ta ikasteko urteetan lortutako zurtasunagatik, sakonago zerabilzkien, barneko eyeran, bere oldozkun eta gogoetak; auŕean agertzen zitzayon bizi beŕian, betetzeko erantzukizun aundiak oartzen zituen, eta, zintzozuŕian, batzuetan nolabaiteko larderiaz mindurik zerabilkion barnea; etzan, alaz ere, luzarorako izaten, zerbait egiteko deitua bezela ikusten baitzuen bere burua, ta, eginkizunak edozeintzuk izan, aurki bizkortzen zan, auŕeruntz adorez beterik jaŕaitzeko.

Egitan maite zuen gazte arek Amamio'rako bide ura oñez egitea. Alde batetik gerorako asmo ta xedeak bein eta beŕiro bere baitan irabiotzeko aukera onenetakoa antxe bertan aurkitzen zuelako; baña bestetik lengo gogorapenak bertan ere beŕizten zitzaizkiola-ta. Auŕa

zalarik etxean eta eŕian jazotako guziaren gomuta burni gorituaz iraŕitako bezela zeraman bere gogoan bizi-bizia, batez ere eŕiaren ondoan, ain zuzen orduan berak zearkatzen zituen landa ayetan izuturik ikusi beaŕ-izan zuen erasoaldi ikaragaŕi ura, bai ta egun aren gabaz eta uŕengo egunetan eŕi osoan eta bere etxean bereziki ikusi ta entzundakoa, miīa bizitan aiztuko elitzayokena. Orain beŕiz, an bertan, luŕetik eta eguratsetik zetorkion edertasunaz gozatu al zuen, eta bide ondoan zegoen muño txiki batera igotzea ere atsegiña zitzayon; an «amalau zugatzeko» deitzen zioten aldaparen erdi aldeko toki itzaltsu batean gelditzen zan beti, unealdi batzuetan inguruko guzia batera, bildurik bezela, begiratzeko ta bide batez bere oldozkunak ere zedaŕitzeko edo beaŕez.

Bere eŕiarekiko aurzarotik zetozkion oroipenetan, kideko etziran bi azpegiko ikusten zituen uŕun geratu ziran egun ayetan bizi beaŕ-izan zituen jasokunak. Batean landa ayetan izan zan goŕoto-erasoaldi izugaŕia ta oŕen ondoren eŕiaren babesean geratu ziran zaurituen gorabera guziak ikusten zituen; orduan eta gero ere, koskortzean eta gizon garaturik izan arteko urteetan barna gero ta gutxiago ulertzen zuen alkaŕen aurkako anayen eŕakundea nola mamitu ta gogortu al-izan zan, eta bere ondorioak noraño eldu ta gorbiztu ere; siñisgaitza berarentzat benetan, berbera lekuko izan ezpalitz. Baña bestean aŕo aipatzen zuen beti bere eŕia, bere baitan eta nun-nai; eŕialde guziaren zeaŕ ainbat zabaldu zan goŕoto-buŕuka orokaŕ artan sartu gabe geratu zalako, eŕiko guzien erabakiaz, eta ongi gogoratzen zuen, etxean eta kalean, guda bera ta guda soŕerazi zuen goŕotoa, guziek nola deitoratzen zituztela. Bai ta erasoaldi artatik biziaz baña zauriturik irten ziran gizajo guzti ayek, etxe danetan atotsita, nola egon ziran zaindu ta elikaturik, guztiz osatuta egon arte. Alde on artako oroipen guzi ayek, legun eta gozoro irabiatzen zituen bere baitan, baña batik bat eŕak eztitzeko ta guda amaitzeko gogoaz, bere eŕiak egin zuen deyaren gogorapenaz iīaŕaindurik zegoen; orduan egindakoa zala-ta, bere eŕi ura goi-goyan agertzen zitzayon, besteen jokera auengaŕi artatik gero eldu ziran ezbeaŕak ongi ta garaiz ikusi al-izan zituelako ta gentzaren alde egin zuen danagatik; batez ere gero ain omen aundia irabaziko zuen Amamio'ren deya, gau iīunean agertzen diran izaŕ diztiratsuen antzo onesten zuena.

Dei ura, zoritxaŕez, eman zanean eta gerorako ere alpeŕik egiña geratu zan, eta alkaŕen aurka, jo ta ke, ain zakaŕ zebilzten talde biak

auŕera jo zuten beren goŕotoan murgildurik eta eldu zitzayen deyari buruz mukeŕ, beste erantzunik etzioten eman nai. Erasoaldiak, erailketak, sualdiak, bortxak, kutsaketak, ebaskeriak, lapurketak eta saŕaskia, alkaŕekin gertatzen ziran gizon ankeŕ eta basati ayek igarotzean eta beren atzetik uzten zuten uzta negargaŕiaz. Alkaŕi gañeratu nai zioten talde biek, ortarako edozein bide artzeko gerturik; eta beren indaŕ eta eskuartez, nai zutena lortzea eziña edo oso zaīa agertzen zitzayelarik, azkenez, eŕiberataŕek, lendik aŕemanetan asi ziran egoaldeko Eŕi aundi bati laguntza eskatu zioten; ain zuzen oŕen zai zegozen Eŕi artan, eta, berandu gabe, bereala, egiazko gudarozte aundi bat atondu zuten beren adiskideak laguntzeko. Pozik zegozen eŕiberataŕak artu zuten bayezko erantzunaz eta laguntza aren bidez beren elbururaño aurki elduko ziralakoan. Baña eŕigoitaŕak etzegozen lotan eta beren aldetik orobat egin zuten ipaŕaldean zeuzkaten beste Eŕi bateko adiskideengana sorospidearen biīa erduten.

Ego ta ipaŕaldetik, beraz, Euzkaleŕi'aren goŕe zegozenak, aldi berean, idekirik aurkitu zituzten bertan sartzeko ate guziak, eta alkaŕen aurkako gure taldekoek, bakoitzak bere aldera begiratzen, gaizkatzaīe bezela artu zituzten erbesteetako gudarozteak. Noski, asieran bi gudarozte ayek ere alkaŕen arerio bezela jokatu zuten, eta bakoitzak bere adiskideak ziran euzkal-taldekoak laguntzeko zetoŕela esaten, eŕiz-eŕi zijoazen oyuka, garaiīe, ta beren atzean, ain beaŕa zan zuzentzari eusteko, beren erakundeak atondurik uzten zituzten; asieratik eta beren Eŕi'an egongo bailiran. Argi ageŕerazten zuten beren xedeak zeintzuk ziran, oŕela jokatzean; baña euzkaldun buŕukalariak, eŕakundez itsuturik, ontzat artu zuten jokera ura, bide ona iruditu baitzitzayen beren etsayak agintaritza-mota guztietatik at yaurtitzeko ta, bide batez, berak sartu ziran, banaka batzuk, erakunde beŕi ayetan, an ere erbesteko beren lagunai laguntza aundiena emateko xedeaz, eta, gero, guda amaiturik, agintza guzia beren eskuetan geratuko zalakoan, erbestekoak beren etxera itzuliko lirakenean; oŕela beren etsayak zearo ta betiko zapalduta uzteko asmoz.

Uste guzi ayek, ordea, azkenez ustel. Erbesteko gudarozte ayek, alkaŕen aurka erasoaldi batzuetan ibiīi ondoren, Aloña ta Udala'ren artean zegoen landa aundi ta zabal batera eldu ziran bein, bakoitza bere aldetik eta auŕez-auŕe jartzeko; eta iñungo erasoaldi ikaragaŕian sartzeko gerturik zegozela zirudienean, ara buŕukarteko turutak, alde bietan batera, gogoŕ jotzen asi zirala, ta laisterka gudarozte bakoi-

tzaren buruzagi nagusiak, zaldiz eta leyatsu, beren gudarien artetik irten eta landa erdian alkarturik, guzien aurean alkar besarkatu zutela, burukalariak oro laborìz eta txunditurik uzten.

Gero, berealaxe, idatzita zeramaten itunbena, auretik atonduta zegoen pake-itunbena, alde bietakoek izenpetu zuten an bertan, eta oren urengo gudari guziai lenengoz eta ondoren erietan barna mezulariak igorita, orori egindakoa jakin-erazi zieten. Arituta geratu ziran guziak, iñundik ere sumatzeko etzan gertakari aren aurean, baña naiz gudariak naiz eritarak gudaz odolez eta ezbearez ain nekaturik zegozela-ta, ontzat artu zuten egindakoa, gentza ta atsedena izateko zegozten irikaz eta bearez.

Zer gertatu zan? Gizonen arteko eztabaida ta gudaetan betidanik erabili dan azpikerizko jokua. Gudarozteak burukan ari ziran bitartean, ipar eta egoaldeko jaurlariak, maltzurkeriz, beren itunbena antolatu zuten asmo polit auetaz: gentza egin, lenengoz, ongi baitzekiten ori guzien aldetik ontzat artuko zala; gero, urte batzuetarako ta, ziñotenez, Euzkaleri guzian gentza ura sendoturik uzteko, iparaldeko erkietan, alde ayetatik sartutako gudaroztearen zati bat geratzea, ta orobat beste erkietan egoaldetik eldutakoaren beste zati bat; orela, Euzkaleria ayei zegozkien bi eri-aldez bereziturik, bi zati aundi ayetan bakoitzak bere jaurleak imiñiko zituen, beti noski euzkaldunai bear zuten laguntza emateko aitzakiz, ta alde batekoak bestearen arazoetan ez sartzeko, onartutako zati ayen artean beren muga berezia jariko lukete.

Eran, idatzi, izenpetu ta ekin. Erigoitar eta eriberatarak, beren gibelean egositako itunben aren bari artu zutenean, asare bizian jari ziran, atzipeturik izan zirala ikusirik, eta etzuten iñola ere ontzat artu nai-izan itunben ura. Erbestekoen aurka jotzeko ere beren artean alkartzeko uratsetan ibili ziran urduri; baña ain zala zan alkartze ura lortu balute ere, berandu zan; erbesteko jaurlaritza ta gudarozteak jaun eta jabe geratu ziran Euzkaleri'an, eta aurki, aiko-maikotan sartu gabe, bakoitzak bere menpean zeukan euzkal-lura, euzkal-erkiak, beren laterietakoak bezela jari-erazi zituzten. Eta beren erabakiak burutu ta ondorioak ere ontzat arerazteko, alkaren ondoren, beren jaurgoaren mota guziko erakundeak berealaxe jari zituzten. Orela, arezkero, euzkalduna zan guzia, uruñaturik lenengoz eta gebendurik azkenez geratu zan; eta gizasemeak ipar eta egoaldeko beste Eri ayen izenak eramateko bearturik izan ziran indarez.

Erbesteko legeak, beraz, Euzkaleri'an agintzeko, ta, ayei eskeŕ, beren sakela geitzeko bakarik iritsaz beteta bizi ziran sasi-euzkaldun batzuek, len ororenak ziran meatze ta beste aberaski batzuk berenganatzeko, lege ayek jari zituzten baldintzak betetzean bizkor ibili ziran; eta lege ayen babesean orixe iritxi zutenetik, erbestekoen adiskide ta laguntzale aundienak izan ziran, Euzkaleri osoan ayen aginpidea sendoro tinkotzeko.

Beste zerbait eldu zan xede ayek ongienik laguntzeko. Europa'n zear mamitzen zijoan gertaldi berezia Euzkaleri'raño ere zabaldu zan; menastak ontzeko ta oren ondorioaz metalak batik bat obeki erabiltzeko era beriak, yakintzaren eskeŕ antolatutako bide beriak ere aurkiturik, nun-nai lantegi ta ola aundiak atontzen asi ziran, eta gurean ere alaber. Bere begien aurean zeuzkan Mikel'ek, Amamio ondoan, Araya'n, egur-ikatzen bidez burnia urtzeko jari ziran labe aundiak, len an zegozen mendi-olaen ordez; bertan zeuzkaten ur-jauste edera, Zirauntza'koa, ta Intusi'ko baso zabala, areitz eta pagoz ugari; lenengoa tximist-indarez biurtzeko ta bigarenetik ezinbestekoa zan ikatza ateratzeko; bera zijoazen zugatz ederenak, beren ordez ezer landatu gabe, ta argi ikusten zan laister zer gertatuko zan, zugazti oparotsu ura zearo ayenatuko zala ta mendia mendi-tipila geratuko. Araba'ren aureko legeak zuurki agintzen zutena, ots, zugatz bat ebakitzen zanean beste iru gazte landatu bear zirala, aiztuta zegoen ugazabaen iritsak estalita; ta garbi agertzen zan lege aren egokitasuna, basoen aberastasunak aurerantzean beti berdin iraun zezan. Lege berien arauz, etzitzayon orelakoari so-egiten, bakoitzak al zuen guziaz ustiatu, ta gerokoa... gerokoentzat. Eri'arentzat ura, egunero urezko arautza eruten zuen olloaren ipuya, egipen biurturik.


Euzkaldunak, ekiteko jayo izanik, ezin geldirik egon, zala berentzat begira geratzea; orela bide ura ontzat artu zuten eta, beren oldarmenak bultzaturik, bazter guzietan beren lantegiak jaso zituzten, bakoitzaren onurari bakarik begiratzen; bost ajola ayentzat Eri'aren biziera, oiturak, legeak, izkuntza ta euzkal-gogoari zegokion guzia. Oso aipagaria, ori egiztatzeko, Bizkaya'ren sartaldean jazotakoa. Ango meatzen jabe beriek langileak bear-izan zituzten ugari, ta lana ordaintzeko egunaria ain txikia jari zutelako, euzkaldunak alde-egin zuten andik, beren giza-duintasunerako lan-sari ura iraingari zutelako. Ugazabak orduan erbestetik eraman zuten bear ainbat, eta orela, epe laburean, euzkal-alderdi ura erdalduna biurtu zan osotoro, Euz-

kaleŕi'arentzako kalte izugaŕi arengatik iñork ezer esan gabe; alegia, orduko euzkaldunen artean euzkal-zentzumena guziz kamusturik geratu zalako. Nabaria zan, alaz ere, an gertatu zana, ta gero, lantegiak eŕuz zabaltzean, Euzkaleŕi guzian beste ainbeste gertatuko zalakoan egotea bidezkoa, noski.

Len aundikiek, alkaŕenganako goŕotoak eraginda, beren Eŕi'arenganako ajolik gabe jokatu zuten, alde guzietara beren jokera zitalaren ondorioak zabalerazten, eta orotan malko, odol-ixurtze, eŕa ta itxesa soŕerazi ta uzteko. Oraingoan aundikiak berak beste bide bat artu zuten beren buruaren alde bakaŕik begiratzeko; berekoikeriz beteta, berentzat Eŕia etzan ezer; oŕela, berak izan dira beti, len eta orain, erbesteko agintarientzako lagun onenak. Naiz agintari oyek naiz euzkal-jauntxoak, auek ayen moŕoizuŕian, geldi-eziña zan auŕerapidea goraki aipatzen zuten, beren egipenai oñaŕi sendoa emateko nayean. Eta eŕitaŕak, eŕi-xea, bide ayetara eramanak izan ziran. Alegia, bidezkoa zan oŕela jokatzea; alde guzietan, beko maĪetan dagozenak goyan dabiltzanei so-egiten ari zaizkie ayen ainbat izateko nayean, ala gutxienez ayen antzo jokatzeko tiŕiaz; oŕela dabil semea aitarenganako, oŕela baseŕitaŕa uritaŕari buruz, oŕela moŕoi ta neskamea ugazabaekiko, norbera beti bera baño geyago ikusten duena ereduz artzeko gogoaz; orokaŕa dugu jokera ori, askotan oartzeke jazoten bada ere. Gurean be, aundikiak beren egipenen bidez, norabideak jartzen zituzten eta etzan aŕitzeko, eŕitaŕak, geyenak, beti atzipeturik, ayen bidean berean abiatu ta joatea.

Asmo guzi oyek Mikel'en barnean birundaka; ikasteko uŕutira joan beaŕ-izan zuenetik, bere ikasketaen artean ere, irabiatzen zituenak, eta etxera itzultzen zan bakoitzean txit areago. Urte gutxietan barna ta txiki-txikitatik amaika jazokunen lekuko izan beaŕ-izan zuelako, barne-barnean zeramazkien bere Eŕi'ari zegozkion gorabera guziak, eta jazokun ayetako batzuk ain lazgaŕi ta erdiragaŕi izan ziralarik, gizon garatua zan gazte aren biotzean su biziaz iraŕita bezela bizi ziran bere egintza guzietarako indaŕ aundienaz eragiten. Alakotz, Eŕi'aren bizi guzian gertatutako ta gertatzen ari ziran jazokunak eten gabe ta sakon aztertzen zituen, oyek azaltzeko zioak nun zegozen ikusteko xedeaz eta jazotako guziaren ondorioak noraño el litezken sumatu ta ateman nayean. Eta biotz-erdian bizi zitzayon Eŕi'aren ebazkizun osoa.

Etzan bera bakaŕik zera guzi ortaz kexu zegoena. Ain zuzen ikas-



ten ari-izan zan uri aundian bera bezela ikasteko ara joan ziran beste euzkaldunak ezagutu zituen, geyago ala gutxiago, kexukide zituenak. Eta ayen artean iru ziran besteak baño arduradunago, berarekin batera zetozenak euzkal-arazo geyenetan: Sabin, bizkaitarra, yakinutsa ikasten zuena; Eneko, gipuzkoarra, sendakintzaz ari zana, ta Xabier, napartarra, lege-gizon eta edestilari izan nai zuena. Laurek, Errí'tik urun beren ikasketak egiteagatik alkar ezagutu zuten, ongi ezagutu ere, ta beren artean alkarrenganako adiskidetasuna sortu zan ezagutu ta batera, gero ta geyago sendotu zana ta urrengoko urteen bidean egiazko anaitasuna biurturik izan zitzayena. Ba-zirudien laurengan antzeko zerbait berdin kokatu ta yardun zuena, ta bein Sabin'ek oarrerazi zuenez, euzkal-gogoa izan zan ura, alkarganatzeko bide egokiena.

Beren ikasketak utzi zieten astia, batez ere jai-egunetan eta jai-egun aurreko arratseetan, gogoz alkartzen ziran, eta beren bilkura ayetan, gazteen artean erabiltzen diran gayetaz ziarduten besteen antzo, baña beren Errí'az batik bat; orixe zan berentzat gai beiñena, ezinbestekoa; esan zitekean ortarako bakarrik alkartzen zirala, ta Errí'tik urruti artan, erdi oituraz erdi eginbidez, ortarako lendik xede berezirik gabe, bilera ayetara zijoazen laurak arau edo lege bat bete beharrizango bailuten.

Errí'aren auzia bere osotasunean eta azpegi guzietatik begira ta aztertu nai zuten. Izkuntzaren galtzea garrantzi aundienetakoa zan ayentzat, eta ulerkaitza berentzat euzkaldunek euzkera uzteko zuten erraztasuna; jaun eta jabe jarri ziran erbestekoek alegin berezienak zegizkiten euzkeraren galtze ura laguntzeko ta gero ta aundiago egiteko; ori gure gazte ayei arritzeko etzitzayelarik. Sabin'ek ziñoenez, euzkal-gogoari eusten ziona izkuntza zan eta berak bakarrik egin lezake ura; arerioek ongi ikusten zutena, ta orrengatik ain zuzen, lenengo egunetik, berak jarri zituzten ikastola guzien ateak zearo itxita geratu ziran euzkerarentzat; eta beren erakunde guzietan berdin, erdera zan onartzeko izkuntza bakarra; etzan guzi ori oindiño aski, ta ongi atondutako zabalkundea alde guzietatik eta txoko guzietara zeramaten, euzkera ezertarako etzan gauza zarra zala isituki adierazten, aurrerakuntzaren oztopoa ta guzien onurako zearo ezabaturik geratu bearr zana. Ulertzekoa zan Sabin'entzat euzkaldunen arerioak orrelaxe jokatzea, euzkaldunak berenganatzeko ori ezinbestekoa zitzayelako, ta indarrez eta marokeriz len beren agintza jartzea lortu bazuten, bearrezkoa zan ayen-

tzat Errí guzia erdalduntzea, beren errialdearen edadura gureaz sendoki aunditu ta tinkotzeko. Argi zegozen asmo ta bideak arazo artan; baña ulertzeko eziña zuen Sabin'ek, euzkaldunak ain garbi agertzen zan jokera ura ez ikustea ta, aitzitik, askok ere laguntzea. Zergatik, galdetzen zion arek bere buruari, euzkaldunek, edestian barna, beren biziari zegozkien arazoetan beti ain itxuturik jokatu? Eta oraingoan ere geyenak orrelaxe jarraitzen zuten, beren egunetan eta beren aurka egindako ainbeste bidegabekeriak ikusi nai gabe.

Bere asmo ta kezkak bere adiskideai jakin-erazten zizkien sarri Sabin'ek, eta oyetzaz oldozteko ta sakontzeko eskatzen ere. Azken urteko egun batean onela itzegin zien: —Entzun ezaidazute, arren, gaur esan bearr dizuedana, iñork irakasi ez didana ta, argi ikusteko, lan luze ta aundiaren bidez ateman dudana; baña gaur orrezaz zalantzik ez nigan: Gure Erria, berez eta egiazki, enderri bat da; izatez, ezin ikus diteke beragan gure auzokoak diran beste Errí'enganako aidetasunik. Ludi ontako Errí guziak gizadiaren bizian barna sortu dira; batzuekiko ori nola izan dan jakin diteke, beste batzuei buruz ez; ta gurea iñork eztaki nun eta nola sortu zan, baña orr dago aspaldi-aspaldidanik, bere izkuntza ta bere bizi berezietaz. Edestiak ematen dituen lenengo berrien artean gure Errí'ari dagokiona da bat, gaurko lurra beraren gañean zegoelarik; eta bertan jarraitu du beti yarei, anayen artean izandako gudaengatik, orain urte gutxi gure auzokoek menperaturik geratu arte. Orrengatik ain zuzen, gure Erria iltzer dagoela ikusi bearr dugu.

Gogoz entzun zioten bere adiskideek adierazpen borobil ura. Ezin esan dezakegu txunditurik geratu zirala, bai alarik ere nolabait arrituta; ezaguna etzuten atsegin bereziaz entzun zuten Sabin'ek esandako guzia, baña bide batez oi-gabekoa zan ura berentzat. Orrengatik etzuen iñork orduan ezer erantzun; ixil eta oldozkorr irurak, entzundakoa beren baitan ausnartzen ari zirala adieraztean. Asti-une luzetxoan orrela zegozelarik, Sabin'ek urratu zuen ixiltasun ura onela: —Ba-nekien nik esandakoaz arrituta geratuko ziñatela ta ba-dakust ortaz okerr-egin enuela; noski, nire iritziari buruz zuen aburuak ezagutu nai-izango nuke, baña ez da bearr orrezaz oraintxe bertan zuen aldetik ezer esatea. Alaz ere, ongi ezagutzen zaituztedalako, ba-dakit ongi ere gure Erria nola maite duzuten, eta orrengatik nik esan dizuedanaz astiro ta zeatzez oldoztu dezazutela biotzez eskatzen dizuet. Gure Erria bere bizi guziaren kinka txarrenean bizi da gaur eta bearrezkoa

zaigu guzioi beraren alde begiratu ta ekitea. Ongi baderitzaizue, gai oŕezaz yardun dezakegu gure uŕengo bilkuretan, ia gure arlo gaŕantzidun ori ongienik nola begizta dezakegun eta bearbada oŕekiko nola yardun beaŕ dugun ikusi ta erabakitzeko.

Ontzat artu zuten guziek asmo ori, ta besterik esan gabe, kardaba sakonaz, alkaŕengandik aldendu ziran egun artan, bakoitzak bere gañean bete-beaŕ aztuna artu bailuken.

Ongi gogoratzen zituen Mikel'ek egun ayetako oldozkunak, azterketak, enurak eta eztabaidak; bere ikasketarako etziran oso egokiak izan Sabin'ek esandakoak, bere baitan eten gabe birundaka zebilzkiolarik; zaĪa zitzayon beste gayaz ari-izatea, ta bere ikastaróko egun batzuk zearo galdu zituen. Bere adiskidearen itz ayek zirikatuta, bere aurtzaroan ikusitakoaz eta uŕengo urteetan Eŕi'an gertatutakoaz indaŕago gogoratzen zuen eta guziak Sabin'ek esandakoari oñaŕi gotoŕa ematen ziotela zeritzayon. Egia zan auzokoek Euzkaleŕi'an maŕoz sartu ta beren gudarozteak baztereak oro menperatu zituztenean, bertan jaun eta jabe geratu zirala; baña norena zan eŕua?, ez ote ziran izan gudarozte ayek euzkaldunak berak deituta?, eta euzkaldunak asko ez ote zuten ontzat artu erbestekoak egindakoa, arerio zituzten beste anayak zapaldurik ikusteko? Oŕela jokaturik ez ote zuten euzkaldunek beren nortasuna betiko zokoratu ta beren eskubidea galdu? Beraz, zer egin liteke orain? Etzuen ukatzen Sabin'en itzetan agertzen zan egia, baña egi aren ondorioak noraño eldu litezken? Amamio'k garaiz egin zuen deyak erantzun egokiak jaso al-izan balitu! Eta dei artan zegozen asmoak, Sabin'ek ageŕerazitakoekin batera zetozen bere iduriko.

Burutapen ayek bere adiskideai jakin-erazi zizkien aiduru, ta kexutasunez beterik agertu zitzayen ayei; baña besteak ere etziran oso naretsu azaldu. Xabier'ek Napaŕoa'n ikusten zuen eŕu aundia; erdiaroan indaŕ aundiko Lateŕia izan zan bera bakaŕik eta etzuen jakin al-izan bere indaŕ ura euzkaldun guziekin bat egiteko ustiatu; oŕela egin balu, euzkaldunak bat izanik, ederkienik lortu zezaketean guzien azkatasuna gordetzea. Egitzat artzen zuen Sabin'en asmoa, baña Eŕi'ari buruz berandu edo egiña.

Eneko'ren aburuz Gipuzkoa'n agertu bide ziran, beste erkietan baño lenago, erbestekoenganako lera ta apeta; arbuyatu ta nardatu bide zituzten gipuzkoaŕak beren anayak ziran beste euzkaldunak, eta

oyenganako gogoanbeartsu edo beren burua obeto gordetzeko asmoz, erbestekoekin ibiĪi ziran alpaldidanik lenengoak elkarbidean; alaz ere, bere ustez, jokera ori etzan bakaŕik gipuzkoaŕena izan, eta geroxeago beste euzkaldunak ere, geyago ala gutxiago, ogen berbera egin zuten. Eneko'k ere Sabin'en asmoa egiazkotzat artzeko zala aitortu zuen, baña oso zaĪa iruditzen zitzayon artatik asi-ta ezer egitea.

Irurek, oŕela, beren erantzuna eman zutenean, Sabin'ek esan zien: —Pozik entzun dizuet esan duzuten guzia, ta niretzat gaŕantzi aundienetakoa ikustekoa dut nire asmoaren mamiaz laurok bat gerala, ots, gure Eŕia egiazko endeŕia dala; ene ustez guziok ere ontara gatoz bat, gure Eŕi'ak gaur indarkerizko bidegabekeri aundia jasatzen duela, ta oŕengatik Eŕi bezela bere bizia betirako galtzeko zorian dagoela. Zuk, Mikel, Amamio'ren deya gogoratu duzu ta egia esan ere, gure Eŕi'aren egokera bestelakoa izango zitzakeala erantzun egokiak jaso balitu; baña gure esaera zaŕaz gogoratu beaŕ, «balitzko olak burnirik ez» arezaz. Zuretzat, Xabier, berandu edo da gure Eŕi'aren alde lan egokia egiteko, ta zuri, Eneko, zaĪa deritzaizu ezer egitea. Ene ustez, oŕela zedaŕitu ditzakegu gaur lauron gogapenak: laurok batera gatoz oñaŕian eta ortik soŕ diteken ondorioa ez dugu berdin ikusten. Beraz, ongi baderitzaizue, arlo ontaz aztertzen jaŕaitzeko xedea izan diteke gureganako oraintxe aŕ dezakegu erabaki bakaŕa.

Bai, ontzat artu zuten laurok erabaki ura ta ongi gogoratzen zituen Mikel'ek aŕezkero ukan zituzten bilkura guzietan gai oŕezaz ari-izan zirala alkaŕen leyan gora ta bera guziak begiratzen. Sabin'ek sutsu ematen zituen beti bere asmo, uste ta aburupen guziak, eta bere egibideak besteai ain argi agertzen zizkielarik, azkenez aren irizkide izateko irabazi zituen bere lagunak. Eta auŕeruntz begiratzean, ikusi ta egiteko beaŕa izango litzaken guzitarako bi oñaŕi auek onartu zituzten ezinbesteko: bat, egipena zan, Euzkaleŕi'aren egipena, aspaldi-aspaldidanik berea zan luŕ berean bizi-izatea; bestea, lenengoa bezin argi, Euzkaleŕi'ak bere izaeraz bizi-izateko zeukan eskubide osoa. Gero, egipen eta eskubide oyek oñaŕiz jaŕirik, euzkal-biziari eusteko zer egin beaŕ zan aztertu ta erabakitzeko agertzen zitzayen beaŕenezko ondorioa bezela.

Ortan etzetozen laurak batera. Xabier'entzat indaŕ-bidea zan ganorazko ta beaŕena; bere bein-betiko adierazpidea bakana zan, Euzkaleŕia indaŕez izan zan menperatua ta indaŕez ere azkatu beaŕ zuen bere burua; ori zan arentzat uko-eziña, egokiena ta bide bakaŕa, ta

etzuen besterik begiratu nai. Eneko zuuŕagoa zan, nabaritzekoa zeukan Euzkaleŕia menperatzeko, indaŕa baño lenago ta eraginkoŕago, azpikeria, artezi ta aŕetaz, erabīlita izan zala; oŕengatik ere, baña egokiago iruditzen zitzayolako, igurdizi ta zuurtasunaz jokatzea zan berarentzat bide egokiena. Mikel'ek, bide bakaŕa artzea ta izan litezken besteak auŕetik alboratzea zentzunezkoa etzala bayezten zuen eta bere ustez izan edo soŕerazi litzaketen bide guziak begira ta ausnartzekoak ziran; ala ere, indaŕezkoak baño pakezkoak autatzeko zituen lenengoz eta berezienik beñago.

—Zure aburukidea natzaizu, Mikel —esan zion Sabin'ek arabaŕak bere iritzia eman zuenean—. Gure Eŕi'aren alde jokatzeko, biderik asko izan ditezke ta, nire ustez, ez dugu utzi beaŕ bat ere ibīli gabe; beraz, guziak begiratu beaŕ ditugu, bakoitza noiz eta nola ibilgaŕi izan dakiguken ikusteko. Baña, ene ustez, bideak aztertu ta autatzea baño lenago dan zerbait dago, nire gardiz gaŕantzi aundienekoa duguna. Ba-dakizute oñaŕizko nire bayetza zein dan: Euzkaleŕia endeŕi bat da, egitan, euzkaldun guzien abeŕia, ta abeŕi bakaŕa. Ortik asi beaŕ da guzia; ortaz gu, laurok, burutara emana dugu asmo ori bete-betean, baña gure eŕitaŕak zer?, jakin ere eztakite geyenek beren zeindasuna nolakoa dan. Eŕia zapaldu zigutenek eskoletan auŕai ta beste bide guzien bitartez guziei, arabaŕ, napartaŕ, gipuzkoaŕ eta bizkaitaŕak, gure egoaldean dagoen Eŕia, angoen eta gure abeŕia dala artez eta isituki irakasten ari zaizkigularik, aintzakotzat artu gaituzte beren edadura sendoenik tinkotzeko asmoz. Orobat egiten dute Laburdi, Benapaŕoa ta Zubero'n ipaŕaldeko auzokoek; eta zoritxaŕez gero ta geyago, euzkaldunak berak ontzat artzen ari dira antolaketa beŕi ori, ta gaur oŕelakoak ditugu asko, beren burua erbestekoen izenaz deitzen dutenak; ez dute oindiño euzkaldun izena uŕuñatzen, nai ere ez, eta euzkeraz mintzatzen jaŕaitzen dute; baña muga aindikoek ipaŕaldeko izen aŕotza ontzat artzen dute berentzat, eta muga unaindikoek berdin egoaldekoena; oŕela, euzkaldunok bi zatitan erdibiturik gagoz, alkaŕenganako aŕotzak izango baikiñan. Jakiña, oŕela jaŕaitu ezkero, gure izkuntza zearo galduko da ta oŕengatik bereziki bi aldeetako euzkaldunak ez dute ikusiko, azkenez, beren artean senidetasunik, eta gure Eŕia betiko suntziturik geratuko da.

—Alakotz, —jaŕaitu zuen Sabin'ek— osasun-bidean abiaturik, gure lenengo lana Eŕia iratzartzea izan beaŕ da, bere nortasuna zein dan ezagun dezan eta bere biziari eusteko zer egin beaŕ duen erakutsi

beaŕ diogu. Ez dugu ortarako lan makala egiteko ta urteetan barna yardutean elduko gera, ausaz, elburu ori burutzera. Gure zapaltzaleak beren xedeetan ari zaizkigu setaz, artez eta beren aurka iñor aurkitzeke; onezkero zaŕ batzuk geratzen dira soīlik gure Eŕi'aren lengo bizi ta egokeraz gogoratzen dutenak, baña besteak, geyen-geyenak, guziak ez esateko, berez zer diran jakiteke bizi dira ta beren burua erbestekoena bezela begiratzen dute. Txunditzekoa da urte gutxitan nola irabazi dituen okeŕak gure eŕitaŕak. Alaz ere, egia aitortu beaŕ dugu ta egokera dagoen bezela ikusi; ta ortik asi beaŕ-izango dugu egia gure bazteŕetan ezagun-erazteko ta, bide batez, gerorako, azkatasuneruntz joateko bide egokiak atontzeko.

Batera etoŕi ziran berarekin bere lagunak, eta ekiteko gerturik zegozela —Eneko'k oaŕerazi zuenez— emateko uŕatsak ziran aztertu beaŕ zituztenak; bere ustez egitarau bat atontzekoa zan berentzat, eta oŕela egin beaŕ zan guzirako.

Asmo ortaz, uŕengoko beste bīlera batean, onelaxe itzegin zuen Sabin'ek: —Orain arte erabīli ditugun asmoak ausnartzen ari-izan natzaizue, ta ona, laburki, ene ustez atondu genezaken egitaraua: Lenengoz zabalkundea dugu gure bazteŕ guzietara elerazteko, gure eŕitaŕ guziek, berak eta ororen batasuna dan gure Eŕia, zer diran jakin dezaten. Izkuntza dugu oŕen ondoren begiratzeko, ta lenengoa bezela au ere guzioi dagokigu auŕeruntz eramatea; alaz ere, zuk, Eneko, ongi baderitzaizu, elizti bat gertutzeko alegin zenezake, aurki dezakezun laguntzaren bidez, bai ta euzkerari dagozkion beste azpegiak ere. Zuk, Mikel, zure ogibideari dagokionez, gure baseŕitaŕen bizi ta lana nola obetu litezken aztertu zenezake; baseŕitaŕak gure izkuntza ta oiturak iñork baño obeto gorde egin dutelako, ene ustez, guzion eskeŕona ta laguntza eukitzeko ondoenik irabazi dute. Zuk, Xabier, euzkal-eskubide berezia ikas zenezake ondo ta lengoko gure erakundeak gaurko egunetarako nola ustiatu genitzaken begiratu. Ene aldetik, eta au ere zuei ondo iruditu ezkero, eŕiketa ta lagunarteko gayak zainduko ditut. Bide batez, guziok ikusi beaŕ dugu ia ipaŕaldeko gure anayekin ere aŕemanetan sartzeko bideak aurkitzeko xedeaz, zer egin dezakegun.

Laisteŕ —jaŕaitu zuen Sabin'ek— gure ikasketak amaiturik izango ditugu; alegiñak egin beaŕ, gero, gure Eŕi'an bertan bizi-izateko, bakoitzak toki bat bereganatzeko, ta orixe izan beaŕ-izango litzake euzkaldun guzien elburu bat. An, Euzkaleŕi'an, laurok guztiz alkar-

turik bizi beaŕ dugu; ortarako, beaŕ danean alkaŕi idatziko diogu ta urtean lau bideŕ gutxienez, toki berezi batean bildu beaŕ-izango dugu alkaŕekin, gure arazo guzien auŕerapena ikusteko ta beaŕak izango diran erabakiak artzeko. Biltzeko tokia Mikel'en eŕia izan liteke, lenengo bilkurarako bederen, aren deyaren gomutaz eta omenez. Nere gain, nai baduzute, biltzeko deya egitea, baña zuek ere berbera egiteko, beaŕa irudiko zaizuenean.

Bere eŕirako bidean, asmo ta xede guzi oyek zerabilzkien Mikel'ek barnean eta erdi atsegiñez erdi ikaskide miñez, ongi gogoratzen zuen, egun gutxi auŕetik, an, uŕutian, izan zuten lau adiskideen aguŕ-biīera. Bertan, laburzki, beren bizirako egitaraua begiratu zuten beŕiro, ta gogoz ontzat arturik, alkaŕi ta abeŕiaren biziari eusteko alegintzen ari-izango zirala, zin-egin zioten alkaŕi.

Etzuen argi ikusten Mikel'ek zin-egite ura nola bete al-izango lukenik, baña adorez beterik zijoan ori egiteko gogoaz. Eta Amamio'ren auŕean ortarako asmoak, bere ogibidearenak, beren gurasoenekoak eta an bere zai zegoen Aintzane, ezkontzeko itza emana zion neska mazalari buruzkoak ere, barnean zebilzkion alkaŕen ondoren birundaka. Aldiz gañean eginkizun geyegi iruditzen zitzaizkion auŕean betetzeko zeuzkanak, baña katazka aundirik gabe kolokaldi ayek gaintzen zituen. Bere bizi beŕiaren atarian zegoen unealdi artan aundituta nabaritzen zuen bere baitan kordoka ura, ta bere ikaskideai eman zien itzaz gogoratu beaŕ-izan zuen gogoŕ eta bere kemen guziari dei-egitea ere, bere buruari auŕeruntz! sendo batez oyu-egiteko.

Bere Eŕi'aren biziak guztiz eraso ta iñaŕosita ikusten zuen Mikel'ek bere burua umezaroaren lenengo egunetatik. Barne-barnean zeramazkien lenengo oroipenak, ain zuzen orduan zegoen toki artan bertan ikusi al-izan zuen anayak ziran euzkaldun ayen alkaŕen aurkako erasoaldia, orobat bere eŕi ta etxean ikusi ta entzundako guzia; bai ta gurasoengan eta eŕiko zaŕ eta agintariengan ain sakon eta mingaŕi ikusi al-izan zituen kezka, laŕitasun eta estutasuna, aurki berarenak egin zituenak. Amaika bider irakuŕi zuen aŕezkero bere eŕikoek alkaŕen ain arerio ziran talde bi ayei egin zieten deya. Bizi-bizirik agertzen zitzayon beti dei aren poto-egiteak bere gurasoai ekaŕi zien samintasuna, ta deitoragaŕitzat zeukan oso dei artan sumaturik izan ziran ezbeaŕak, berandu gabe, abeŕiaren zeaŕ zabaltzea; benetan igarleak izan ziran Amamio'taŕak zoritxaŕez.

Min ematen zioten Mikel'i, elkaitz aundi ayen auŕean, bere eŕi-

taŕak ageŕerazten zituzten epelkeri ta sorayokeriak; ba-zirudien ezinbestekoa zala geyenentzat abeŕiaren ondamendia, ta amoŕuz ikusten zuen, saŕi, Eŕi'aren zoritxaŕak aipatzen ziranean, askoren ezpañetan zozo-iŕi doloŕa, gogo txaldanak egiña zala erakusten zuena. Txit jausita ikusten zuen Mikel'ek bere Eŕia ta eziña iruditzen zitzayon ura berpiztea, maiz. Alaz ere berak etzuen ontzat artzen egokera itun ura; Eŕi'an indaŕ eta almenak zegozela ere oartzen zuen, ez-axol arek estalita; bizi edeŕ baten iturburuak bezela iruditzen zitzaizkion Eŕi'aren gaitasunak, eta artegaz bizi-izan zan bere aurtzaro ta gaztezaroan barna, asieran batik bat guzia bere barnean iīun eta uleŕeziña zitzayolarik.

Oŕela, Eŕi'tik uŕun ezagutu zituen beste ikasle ayekin alkarbidean sartu ta bereala, guzia argitzen ari zitzayon; saŕi barne- barnean zerbaiterako bereziki jayoa bezela ikusten zuen bere burua, ta Amamio'ren deya, berari zuzen egiña izango bailitzan, eragiīetzat zeukan. Oŕengatik edo, bidezko ta baitezpadakoa izan zitzayon bere adiskideekin egindako itunbenean keŕ-keŕ sartzea.

Egiteko aundia zegoela sumatzen zuen, burutzeko zaīa, baña eginbide ertsienaz onartu zuen biotz-biotzez. Etzuen ikusten nola bete al-izango luken bere eginbeaŕ ura; dana dala bere buruari ere zin-egin zion ortarako alegin aundienak egiteko, ta jokatze ortatik el lekizkien ezbeaŕ eta zoritxaŕ guziak ere jasateko.

Pake-zalea zan Mikel gogotik eta jokatze artan buŕukatu egin beaŕ-izango zuela oartzen zuen; eta alkaŕen aurkakoak ziran jokera ayetan barna igari egiteko beaŕa atematean, alako kezka mingotzak iīun-arazi zuen gure gaztearen biotza. Gizadi guzia, bere Eŕia batez ere, gentza-beaŕean aurkitzen zirala argi ikusten zuen, eta gentza oŕen egiīe bat ere izatea gogozkoa zitzayon barne-muñetan. Bestetik, euzkal-biziaren alde jokatzea beaŕ eta ezinbestekoa zuen, eta bizi oŕen arerioen aurka bipilki gudakatzea naitanayezkoa zan euzkaldunentzat, eriotzara burua makurtzea nai ezpazuten eta beren eskubideari eutsi nai-izan ezkero.

Mikel'en baitan ori izango zan bere bizi guzirako jasan beaŕ-izango zuen barne-buŕuka, gentzarako leyak eta Eŕi'aren aldeko guda egiteak alkaŕekiko ta eten gabe eraman beaŕ zutena. Zaīagoa egiten zion azpegi oŕek Mikel'i bere ekintza, ta bere bizian barna maiz etsipenaren samintasunak kosk-egingo zion biotz-erdian. Auŕetik ikusten

zuen Mikel'ek guzi ori, baña kemenez bete nai zuen bere burua, iñoiz atzerakadarik ez egiteko xedeaz.

Amets, keska, asmo, susmo, naimen, xede ta urduritasun guzti ayek bere barnean birundaka zebilzkiotelarik, bizi beŕiaren atarian zegoela, Mikel Amamio'n bein-betiko kokatzera abiatu zan garagaŕiīaren egun argi ta zoragaŕi aren goizean.

Maitasunak

Mikel'ek opoŕaldietaz etxera zetoŕen beti bezela, lenengo gaua lo-betean egin zuen azken ontan ere. Lo-egiteko beaŕ aundian zetoŕela zirudien, uŕutian ikasten igarotako egunetan aski egin ezpalu bezela. Alaz ere, beraren ustez etzan oŕelakorik; berak gogoratzen zuenez toki guzietan gorputzaren beaŕ ori beti ongi ta naiko bete zuelako; ekandu onekoa izanik, etxean bezela, etxetik uŕun ere ordu onean oeratzen zan eta goiz xamaŕ jeikitzen ere; uri aundietako yardunbide ta lasaikeriak iguingaŕi izan zitzaizkion lenengo egunetik eta azken egunerarte. Beraz etzan lo-egiteko beaŕa bere etxean igarotzen zan lenengo gauan ain lokunbaturik geratzeko eragiten zuena. Beste zerbait zebilīen aren baitan zera ortaz. Uŕutian beti ametsa zan berarentzat etxearen gomuta, eŕi-miñez eta etxe-miñez bizi zan egunero, iñun aurkitzen ezpaitzuen bere gurasoen etxean gozatzeko zeukan pakea, atsedena; bere izaeran eŕotik zeraman atsikita etxerako gogo bizia, bere ikastaroetan egunean-egunean aunditzen zitzayona. Oŕengatik amak gertutzen zion oean sartzen zan lenengo gauan, ain luzaroan iŕikitutako unealdi artan, bere biziaren elburu berezienera eltzen zala iruditzen zitzayon, eta atsedenez beterik oartzen zuen bere burua. Ikasten ari-izan zan urte guzietan orixe gertatzen zitzayon, eta ikasle bezela azkena zan gau artan txit areago.

—Ba-nago beŕiz emen —esan zuen berekiko— beste urteetan lez eta gañera gaurgero emendik geyago alde ez egiteko xedeaz.

Asmo ta gogo oyetaz, bada, bere gorputza lo-zoŕoan murgildurik geratu zan, eta bere gogoa, gorputzarekin bat izateko loturik zeukan lokaŕia loaz askaturik izango bailitzan, amets utsezko bazteŕetara egan itzuri zan, sorgiña baten antzo, amets eta liīuraldien zeaŕ. Oŕela, gorputzarentzako lo-aldia gogoarentzat amets-aldia, ta biak, ordu batzuetarako, alkaŕengandik yarei edo geratzen zirala zirudien.

Alkartu ziran beŕiro Mikel'en gorputz eta gogoa, esnatu zanean. Goizea, auŕeratua zegoen orduko, ta gure mutīla, oŕezaz oarturik, jau-

zi batez jeiki zan eta leyora jo zuen yoranez; eta zena zen zabaldurik, landara zuzendu zuen bere so-era, luŕ ura, bere luŕa, gosez ikus eta gozatzeko iŕikaz. Oitura zan ori ere arengan, eta azterketa bat egingo bailuen, an, auŕean, ortze-muga zegiten Entzia mendaitzaren goi-leŕoak igi-eziñezkoan begiratzen zituen atsegiñez; orobat eskui-aldean Mentoste muruak eta ezkeŕ-aldean Leze'ko aitzak eta Burunda'rako estutzen zan ibaŕa; berebat Zirauntza ibai apartsua, Araitz' peko iturburuan jayotzen zana, Burunda'runtz eten gabe ta leyatsu beti zijoana ta len amoaŕayentzat bizi-toki luze, zabal eta ozgiro zana; gero, lantegi beŕietatik artzen zituen gasa, eŕauts eta zieŕen bidez, bizi-eziñekoa biurturik. Edeŕ zegoen, Mikel'en auŕean, goize artan, Azpaŕen'eko luŕ zabala, ta gogo-gogoz mutuŕ batetik besterañoko begiramenez gozatzeko iŕikaz, gosari edeŕenetakoa zitzayon mutīlari. Alarik ere, eŕigoi ta eŕiberataŕak an bertan burutu zuten mandakeri izugaŕia, aren oroimenean beŕitu zan eta luŕetik zetorkion gentza-edertasunean itun-lañoaz ere begiratu beaŕ. Zertarako —galdetzen zion Mikel'ek bere buruari— adimen eta biotza gizonarengan, alkaŕenganako maitasunez ari ez izateko? Ta laño ura bere gogoaren beroaz uŕatu nai zuen biziki, bere luŕaren edertasunean bera zan guzia mur-giltzeko.

Maiz, baña urtero etxera itzultzen zanean areago, an, leyo artan, līluraturik bezela luzaroan egotea gertatzen zitzayon, eta oŕela zegoen goize artan ere, apika besteetan baño luzetxoago. Luŕ edeŕa gurea —ziñoen— nola zure gañean gizonak alkaŕenganako goŕotoz ibīli al-izan diran! Eta aurtzaroko gomuta lazgaŕia beŕiz ere bere baitan nabaritu beaŕ, aiztu eziñezko gomuta.

Dan, dan!, norbaitek deika atean; ideki ta ara Maḏalen berari buruz:

— Egun on mutil, ongi lo-egin al duk?; berandutxo abīela uste diat, onezkero eguzkiak bide luzetxoa egin baitik. Ama zai daukak gosaria gerturik.

—Egun on Maḏalen, ba-noakin, baŕukoa ere zeredozer eskatzen baitzebilkin. Ba-zekiñat oea ozteko berandu natxebīenala, baña beti gertatzen zaidan ori uŕundik etxera natxetoŕenean; etxeko oea, ala giroa, ala ongi oartzen ez diñadan beaŕa...; ba-zegokin zertxobait lo-tan luzaroan lotzen naukanana.

Garbitzeko ta bizaŕa kentzeko beaŕa arin bete zuen Mikel'ek, eta

ara nun datoŕen zurubitik beruntz jauzika, sukaldean sartzen eta amari alaiki:

—Barkatu ama zure seme alpeŕ oni, berandu nabil bai, baña uste dut zuk ere ortaz eŕua ba-duzula.

Amak: —Nik ortaz eŕua?, oŕelakorik entzun beaŕ ere!

Mikel'ek: —Bai ama, oea ain ongi gertutzen didazu-ta ..., nai ta nai ez, an loa berealaxe nereganatzen da ta uzkuŕ nigandik joateko goizean. Erbestetik natoŕenean, orixe gertatzen zait, lenengo egunean batez ere. Baña zuk lo-egin al duzu ongi?, ta aita nun dabil, soloan edo alako nunbait, ezta?

Amak: —Bai, Kukuma aldera joan duk, an zebilzkian beyak ikus-tera. Guk ere ondo lo-egin diagu, ez len bezin ongi ala ere; urteak auŕera zijoazkiguk, eta gu ez gaituk atzo goizeko bildotsak; ezin zaŕak, gazte ta umeak bezin ongi lo-egin. Baña, tira, aŕ zak ire gosaria, lotan ere gosea esnatzen baituk eta ziuŕ nauk dagoaneko gosebera agoki-guala.

Mikel'ek: —Ala duzu, ama, ba-dut, egitan, gosaltzeko gogoa, ta ukanen ezpanu ere, emen ipiñi dizkidazun janariak ikusita, jangaŕ aundienari ere jateko gogo biziena sortuko litzayoke. Ara gerezi goŕi-goŕiak... ortukoak ezta?, eta guriña, zeroŕek egiña noski, ta eztia, etxeko erleek landuta, kafe-esnea, aŕautzak eta opīlak; geyen-geyena etxekoa, etxean egin eta gertua, ta oŕengatik, ain zuzen, gozoena. Nun etxe ta etxekoa bezin oberik?

—Iñun ez, eta orain ulertzen dut ongienik uŕutian ain saŕi sortzen zitzaidan etxe-miña. Baña nundik asiko naiz?, guzietatik txastatu nai dut eta.

Egun guzietako goseti batek ez zukean irentsiko gosari ura Mi-kel'ek bezin gogotik; eta amaitzerakoan, amari buruz:

—Auxe da, ama, niretzat ongienik egotea; mizkeriegiz ere ari zera niganako, gaur onen alpeŕa zaizun seme onekiko. Aurki asi beaŕ-izango dut lanean gogoŕ, nolabait eskeŕona bezela agertzeko.

Amak: —Ez mintzatu oindiño lanaz, eldu beŕia aiz eta; elduko zaik ordu ori bai, baña bitartean egon lasai. Orain, Maḏalen eta biok bazkaria gertutzen diagun artean, oa aitaren bīla beste zeregiñik ez-paduk, arek ere pozik ikusiko au Kukuma'ko zugadian; gañera goizea zoragaŕia duk egurastean ibiltzeko, ta bide batez bazkaltzeko gogoak ere egingo dituk.

Mikel'ek: —Izpidean zagoz ama, beti bezela, ta atsegiña izango da, bai, niretzat baso aldera joatea. Ba-noa, beraz, eta aurki arte.

Umandi mendiaren pean, Kukuma aran txiki ta estua edatzen zan, areitzez ongi ornitua, beraren zeaŕ ur gardenezko latsa xiŕipaka zijoala; ango luŕa, latsaren uertzetan batik bat, goroldiotua agertzen zan tarteka, bere bizi-indaŕaren ondorioaz, eta mendirako aldapetan ba-zegozen sasiak, masustak ugari ematen zituztenak; basakaranak ere azgurenak ziran bazteŕ artan, beren basaran miñak emateko. Amaika bideŕ ibīli zan Mikel alderdi artan, auŕa zalarik eta lagunekin; masusta ta basaranak jaten, kukuŕoak biltzen, gero elizaren atarian jolasteko, mitxaŕoak zugatz- zuloetatik keaz irten-erazten, oyen gantza osakai ona omen zalarik, ala latsean zanguŕutxoak artzen. Ba-zegoen bizia txoko artan, eta Mikel'entzat auŕ-gogorapenak eŕuz zetorzkion gero, ara zijoanetan. Orobat orain, aipatu dugun goize līluragaŕi artan, aitaren bīla zijoanean.

Laisteŕ aurkitu zuen aita, kerizpean eserita, txakuŕa aldamenean eta bospasei bei inguruan; txakuŕak, txikia zalarik, etzuen gure mutīla ezagutu ta zaunka asi zitzayon usainka ta berealaxe, ta oŕela oartu zuen aitak bere semea zetorkiola.

Mikel'ek: —Egun on!, aita, abaroan ongi?

Aita'k: —Bai, ongi, ta beaŕa abaroa bīlatzea, gaur goizetik baitzetoŕek beroa. Ona Txuriko!, ez al dituk etxekoak ezagutu beaŕ ala? Udaran sartzen ari gaituk eta gorde egin beaŕ diagu geron burua eguzki-galdatik, eguerdia baño lenagotik ere. Ta i nola abil, ongi lo-egin al duk? Enian uste mendira oindiño etoŕiko intzala. Amak edo esan dikik alde ontara etoŕi naukala.

Mikel'ek: —Bai, goxaldu ondoren berak esan dit ori, ta zugana etortzeko ere, bazkaria gertutzen bitartean; eta pozik etoŕi nauzu, zu ikusteko ta txoko edeŕ ontan egurastera; ba-dakizu mendizalea naizela, ta urtebete joan zait kaleetan bizi-izaten eta basorik ikusteke.

Aitak: —Ni ere ezin bizi nindekek uri aundietan; gutxitan egon nauk Gasteiz'en eta Iruña'n, bein bakaŕik Bilbao'n eta iru bider Donostia'n; eta arnas artu eziñean ibīli ninduan beti; toki oyetan noski, ainbeste giza-lagun bizi ditukanezkero ta ainbeste lantegi ta mota guziko keaz, aizea zikinduta zegok eta menditaŕen biriketan kaŕaka baten antzo. Askoz obeto gaituk emen, beti aize garbia artzen.

Mikel'ek: —Egia diñozu ta ongi oartzen dut nik ori, naiz ikastera joan naizen uri aundi artan egiten nituen lenengo egunetan,

naiz ona itzulita lendabizikoetan ere; emen beti iruditzen zait birikak aunditzen zaizkidala. Beste ainbeste zio izango ezpanu ere, lasaī ta oparo arnas-artzeko, gogotik maite dut nik mendi ta luŕean bertan bizi-izatea.

Ta gure mutīlak, zabal-zabalik besoak, osorik betetzen zituen birikak arnasaldi luzeetan. Pozik begiratzen zuen aitak osasunez beterik ikustean eta, batez ere, semearen gogoetak berarenak antzo zijoazela oartzean. Mikel ikastera joateko etxetik irten zanean, bilduŕ geratu zan aita, ongi baitzekien, giro batzuetan, gazteak bidekatzeko zori txaŕean saŕ ditezkela, ta semea uŕutian egondako aldi luzean barna eziña izan zitzaion bilduŕ ura gañeratzea; gaur, ostera, aren ikaspenak amaituta zegozelarik, lasai egoteko unealdia eldu zitzayon, mutīla, berak nai zuen bezela, gizondu zala ikusi-ta.

—Mikel'ek orduan aitari: Nola dabil eŕi auetako bizia? Amamio'n ez bide da asko aldatu, baña Araya ortan bai, entzun dudanez, oŕ jaŕi dituzten lantegi beŕiak dirala bide; lan asko omen dago ta eŕia gizasemez aunditu da.

—Aita'k: Oŕela duk bai, baña oŕ ere guzia ez dok ogi ta uŕe; oŕ beste toki aunitzetan bezela, gure oitura ta gure legeari gibela eman zietek, ta oŕ zegokik Intusi baso edeŕa muskiltzen ari ditukala; txondoŕetan eŕuz eŕetzen ditek eguŕa lantegian beaŕ diteken ikatza egiteko; baña ortarako zugatz bat botatzean ez ditek beste bat landatzen, are gutxiago gure lengo legeak agintzen zian lez beaŕak ituan iru ebakitakoaren ordez jaŕi. Oŕela mendi ori muŕizturik geratuko zaiguk, aurki gero. Ondo gogoratzen diat, ni txikia ninduanean, eŕi auetako gizonek iiziketan yardun beaŕ ziteala, baso ta mendi oyetako basa-piztiak kalitzeko, ain ugari itualarik, dana uŕa ta etxabereak jaten zitiztealako.

—Mikel'ek: Astakeria da, nere ustez, oŕelaxe jokatzea; ari diran era ortaz bein mendiko zugatz guziak bota ezkero, oŕ ezpaitago beste etekiñik jasotzeko, uŕutira joan beaŕ-izango dute ikatz-bīla; ta zuk esan duzunez zugatz bat uzkaltzean beste bi edo iru gazte landatuko balituzte, orko aberastasuna elitzake amaituko. Baña eŕiak ezin egin al dezake ezer ergelkeri oŕen aurka? Egitan mendia eŕiarena da, ots, guziena, ta ez dut ikusten gizon batek edo bazkun batek zergatik ustiatu beaŕ duen aberastasun ori berarentzat bakaŕik.

—Aita'k: Izpidean ago, ta oŕelaxe uan len, Araba'k jaŕita zeuzkaan legeak lege ituanean; orain baŕiz, erbestekoek berenak aŕerazi

zizkigutek eta txit ezegokiak izanaŕen, oyetxek onartu beaŕ zitiagu, indaŕez; oŕela, ororena zan mendietako aberastasuna, zugatza, oyen eskeŕ batentzat bakaŕik ustiatzen duk. Oŕa zer irabazi diagun.

—Mikel'ek: Eta ez du iñork ezer esaten bidegabekeri oŕen aurka?

—Aita'k: Zaŕen artean ba-zegokik ala nolako asaŕea lengo aberastasunaz gogoratzen baititek eta ondamendira nola goazkikan ikustean. Baña gazteak paŕe zegitek ergelki, ta txoraturik zebilzkik ola ta lantegi beŕiak ditukala kari. Ke usu bota dezatekan ke-bideak beaŕ zitiagula ziñotek itsu. Aintzina jo-egin beaŕ eta, oŕa oyen bide okeŕa.

—Mikel'ek: Baña, ene ustez, aintzina jo-egin beaŕ bada, ta orixe bidezkotzat artzeko izanik ere, bidezkoa baño beaŕezkoago izan beaŕ edonorentzat bere guraso ta bere auŕekoek zer egin duten begiratzea; Eŕi'aren bizia ez da gure egunetan asi, bizi ori beti jaŕaipena baita, atzetik etortzen eta auŕeruntz joaten eten gabe, ta oŕengatik erokeria dirudi len gertatu ta egindakoa zearo baztertu auŕera jotzeko. Eŕia guzion artean osotzen dugu, orain bizi geranok, gure auŕetik joan ziranak eta gure ondoren izango diranak ere, ta ororen alkartasunari so-egitea ezinbestekoa deritzait.

—Aita'k: Egia diñok, baña norberekeria duk orain agintzen dikana, ta ba-zirudik atzeŕitik ekaŕi zizkigutean lege ta oiturak norberekeria eŕoz arturik egiñak ditukala; gaurkoa gaurkoentzat, atzokoa igarota zegok eta biarkoa, bost ajola, biarkoentzat; beraz, ustiatu dezaagun gaurko lorea, besterik begiratu gabe.

—Mikel'ek: Giro txaŕa emen oartzen dudana, oso aztun eta kaltegaŕi, gure Eŕi'ak beaŕ duenerako. Nik beñepein beste asmoak darabilzkit buruan, eta ene ustez beaŕezkoenak badira ere ez dut ikusten garbi asmo oyen bidez nola ezer burutu ditekenik.

—Aita'k: Zeintzuk ote ire asmo oyek? Jakin nai-izango nitikek esateko baldin badituk bederen.

—Mikel'ek: Bai noski ta, izan ere, ba-dut zuei mintzatzeko gogoa; geyago, ezinbestekoa zait zuekin, etxekoekin, oyekiko yardutea.

—Aita'k: Begiluzea nauk, seme, oso; baña bazkaltzera joateko ordua eldua diagu; nai baduk bazkal-ondoan itzegin dezakeagu lasai.

—Mikel'ek: Bai aita, txit ondo deritzait; goazen orain etxeruntz.

Ori esanda, alkaŕekin abiatu ziran aita ta semea, alkaŕen ondoan, eguerdiko galdan bero-beroturik eta ixiĪik biak, aita semeak esan-

dakoari kexu, ta semea luzaroan mamitutako xedeai buruz lenengo uŕatsa edo emateko atarian zegoela ikustean, eta oyen gaŕantzia atemanik ondorioekiko kexuago.

Astiro zijoazen; bide-zigoŕa goxo-goxo, mendia gañeratzeko, goruntz luzatzen zan eta estu-estu zalako, aita auŕeratua ta semea atzetik; biak, beroagatik eta aldapa gora zijoazelako, ala asti zegoelarik, ala beren biziaren bidegurutz batera eltzen ari zirala biotzak ematen zielarik, ortaraño eltzeko ezmezean edo, astiro; iradurik ez aitagan, leirik ere ez semearengan etxeratzeko. Alarik ere, noizpait an agertu ziran, ama ta alaba zai zegozen atari auŕean, aurpegia beroaz goŕiturik eta izerditsu.

—Ama'k: Zer bada?, jateko gogorik ez, ala? Zai daukagu bazkaria ta..., baña zer duzute?, ba-dirudi ezbeaŕen bat izan duzutela; oyetxek arpegi iĪunak! Norbaitek arazo gogoŕen bat soŕerazi dizuela esan liteke, ala bion artean izan duzutela, ala...

—Mikel'ek iŕiñoaz: Ez ama, gogoŕik ezer ez, nola oŕelakorik aitarekin? Gaŕantziduna dan zerbaiteaz ari-izan gera, ori bai, iŕi-baŕeka erabil ezin ditekena, ta zu ta Maāalen ere jakitun izango zerate, noski, ta aurki.

—Maāalen'ek: Mutil, zer duk ori?, jakin-gura natzaik oso.

—Aita'k: Gaŕantzidun izateak ez du esan nai arazo bat ayeruz edo laŕitasunez artu beaŕ dala. Bizi ontan edonori el dakioke ezinbestez erabakiren bat artzeko unealdia, ta ori bide da oraingoa Mikel'ena. Bazkal-ondoan itzegingo digula agindu dit eta beaŕezkoa zaigu bazkaltzea berari gero entzuteko ere.

—Ama'k: Ongi dago guzi ori ta mayeratu gaitezen bereala; gaurko gure bazkari au begiluzeen bazkaria izango da, alegia; baña ez utzi aŕen, oŕengatik, sapayari zoŕ zayona ondo bete gabe.

—Mikel'ek: Bai ama, ta gogoz, ni beñepein jateko tiŕiaz nago; uste dut basoan egindako ibiĪalditxoa gosebera izateko egokia izan zaidala oso.

Eseri ziran laurak etxekoandereak maya onetsi ondoren, eta barazki-zukuaren auŕean luŕin gozoa usnaturik, Mikel'ek:

—Eztakit zer duten amak dagizkien zukuak, baña iñun ez dut oyek bezelakorik txastatu al-izan, eta uŕutiko nire bazkaltze guzietan oyekiko amets beti; gozo dago zuku au, ama, aotik ezin uztekoa, benetan.

—Ama'k: Jateko gogoak ematen ziok janariari gozotasun aun-

diena, ta etxe ontan, Yainkoa'ri eskeŕ, egunerokoa diagu gogo on ori.

—Maĩalen'ek: Noski, gogoak berea egiten du, baña ez da ori naikoa, ta sukaldari onak dagiena, askotan, gogorik gabe ere atsegiñez jaten da; ta gure ama, Mikel, eŕi guzian ospe aundikoa diagu ortaz ere.

—Ama'k: Ene auŕak lotsatu egin beaŕ nauzute zuen itz goxoetaz; jan zazute gogotik besterik begiratu gabe.

—Aita'k: Ez, ezin jan eta edaten bakaŕik ari-izan; mayaren egiazko gatza sukaldariaren eskuetatik zetorkigun emakumea, ta ire eskuak ortarako ere beti izan ditun oparotsu, yaukal eta zabal-zabalak.

—Ama'k: Nai al duzute guziok ixiĩik egon eta sukaldaria pakean utzi? Sabela ez da elez asetzen, janariaz baizik; ekin beraz, mayan dagoenaz ortarako, ta utzi beste ajolik gerorako.

Ekin zioten, bai, laurek etxekoandereak gerturik zeukan janari guziari, gazteak batez ere, eta gurasoak atsegiñez beterik begira zegozen beren seme-alabaren gogo bikaña. Besteren zai, urduri, egon ezpalira...!

Kafia agertu zan azkenez, beste edari batzuek lagunduta, guzia gogoz ere txastatuz eta guziaz ao-gozatzen. Bazkaltzekoan amaren aolkua jaŕaitzeko edo, etzuten itz askorik egin, baña azkenekoa artzerakoan neuŕiz-landako ixiltasunak, sukaldean zegoen guzia, naiz notin naiz beste, inguratu zuen. Sendikoek beren arteko zerbait sortu ala jazo beaŕ zala sumatzen zutela zirudien, itxaroten zutenari buruz kezkaturik.

Noizpait amaitu beaŕ egokera ura ta, azkenik, aitak uŕatu zuen laŕegizkoa biurtzen ari zan ixiltasun ura.

—Aita'k: Uste dut ongi bete egin dugula, amak jaŕi diguna bazkaltzen, gorputza elikatzeko genuen beaŕa, ta... egokia zeritzaidak, Mikel, unealdi gozo au ustiatzea basoan agindu didakenaz beste ainbeste egiteko. Uste diat batera etoŕiko aizela nirekin ortaz.

—Mikel'ek: Bai aita, ortarako nagokizue, ta ba-dut ene aldetik ere, aspaldi xamaŕetik nai dudan bezela, zuei ene barnea azaltzeko gogo bizia.

Ori esanda, Mikel'ek burua makurtu zuen pizkat, ixil, asiera biĩatzen ari-izango balitz bezela, baña bereala, besteak adi-adi zegozelarik, onela jaŕaitu zuen:

—Eztakit nolako itzak erabiĩi zuenganako nire eskeŕona adierazteko; ontzat artu zenuten nire ikasketak egiteko artu nuen bidea ta

ongienik lagundu nauzute ikasketa oyek burutzeko beaŕak izan dituzudan urteetan barna.

—Orain, ikaspenak amaitu ondoren, beste erabakiak artu beaŕ gerorako; egitan erabaki oyek artuta dauzkadala esan beaŕ dizuet eta zuen aldetik onartzea nai-izango nuke barne-barnetik. Ona emen ene asmoak zeintzuk dituzuten:

—Ongi dakizutenez etxe ta luŕa maite ditut, betidanik bai, baña gero ta geyago nere ustez. Ain zuzen, oŕengatik autatu nuen ikasteko nire norabidea. Bidezkoa da, beraz, gerorako ere nire biziari norabide ori bera ematea. Alakotz, etxean geratu nai-izango nuke nekazaritzan lanegiteko, baña bi xede berezi auetaz: Lenengoa etxeari berari dagokio; lugintza dala-ta, azken aldi auetan auŕerapenik asko egin dira bazteŕetan eta auŕerapen oyek emen ere jaŕi nai-izango nituke. Bestea, auxe: aldameneko eŕietan barna orobat egin-eraztea; gauza oso egokia izango litzake, ene ustez, Azpaŕena'ko eŕi guzikoen artean elkargo aundi bat egitea, erosketa ta salketak guzien onurako obeki burutzeko ta abereak geitzeko; nekazaritzan, ortuetan, beste landare batzuk saŕ ote ditezken begiratzea; igali-zugatzak ere geitzea; ta naiz abereengandik naiz zugatz eta ortuetatik lortuko liraken etekiñak, lantegi berezi batean edo batzuetan bearbada umao-egitea. Baña ori gerorako asmoa izan beaŕ; lenengoz etxekoa da ikusteko ta emen ondorio onak lortu ezkero, besteekiko gero ari-izango nintzake; ala ere bitartean asmoa adiskide batzuei jakin-erazi nizayeke.

—Aita'k: Ongi zeritzaidak esan dukan guzia, batez ere etxean geratu ta yarduteko artu digukan erabakia; onenetakoa ori guretzat. Alarik ere, oaŕ batzuk egin beaŕ dizkiadala uste diat. Ire ikasketak buruturik ikaspen-agiri berezia lortu duk eta ori atea bezela izan dakikek, esate baterako, Araba'ko Aldundegi' an ala oŕelako beste goiko toki on batean sartzeko, ta, ausaz, geroari buruz bide egokia aurki ezakek ire bizia auŕera eramateko.

—Ona emen beste oaŕ bat, ire bigaŕen asmoari buruz: Azpaŕena-'ko lugiñai bide beŕiak erakustea ta oyekin elkargoa egitea, benetan, asmo edeŕa duk, eta ire gogo ona ongienik erakusten digu xede ortaz ere. Baña gure eŕitaŕak ondo ezagutzen zitiat eta, ene iduriko, zaĩa izango zayok edonori belaŕ ortatik sorta aundirik egitea. Ez dizkiat ametsak eten nai, noski, baña nire iritzia iri jakin-eraztea eginbidea bezela izan beaŕ niretzat.

—Mikel'ek: Bidezkoa da ori ta nire aldetik zure ta amaren aol-

kuak beti onartuko ditut, eta oyen eske etoŕiko natzaizue beaŕak izango zaizkidan unealdi guzietan. Gaurkotz pozgaŕia da niretzat nire asmo ta erabakiak ontzat artzen dituzutela ikustea; ongi baderitzaizue guzi oyetaz yardungo dugu gerokoan ere.

—Orain beaŕ-beaŕa zait beste asmo bateaz zuei mintzatzea. Bearbada, azaldutako beste asmoak baño gaŕantzidunagoa edo da, dagoaneko buruausteak eman dizkit-eta; ez gutxi alajaña.

Ori esanda ixildu zan Mikel, eta bere baitan asmo, xede, naimen eta kezkak bildurik eta itzul-mitzulka edo zebilzkiolako, argi agertzen zan mutiīari nundik edo nola astea benetan zaīa zitzayola.

Besteak, ama batez ere, estu ta urduri; ixiltasun ura aztuna guzientzat; artegatasunez beterik zegozela iñork etzuen, alaz ere, aoa zabaldu nai ezer galdetzeko; apika etziran ausartzen ixiltasuna uŕatzeko, ta zai, zai zegozen laŕi, Mikel'ek esateko zeukanaren zai.

Bere gurasoen eta aŕebaren estutasunaz oarturik, bere burua indaŕez eragin zuen Mikel'ek eta asi zan nolabait mintzatzen.

—Mikel'ek: Uŕutian ikasten ari-izan naizen bitartean ezagunak egin ditut, beaŕezkoa zanez; ez gutxi ta, oyen artean, iru dira niretzat, ez bakaŕik ezagun, adiskide miñak baizik biurtu zaizkidanak, Sabin, Eneko ta Xabier; bizkaitaŕa lenengoa, gipuzkoaŕa bigaŕena ta napartaŕa irugaŕena; orain baño len ere oyetaz itzegin dizuet, beraz ba-duzute lendik ere adiskide oyen beŕiren bat.

—Astero, bein edo bi bideŕ gutxienez, alkartzen giñan eta gure ikaspenai buruz eta inguruan ateman genuen biziarekiko itzegiten genuen ajola aundirik gabe. Baña egun batean gure Euzkaleŕi'aren arazoa sortu zan gure solas ayetan gai berezia bezela. Sabin izan zan oŕezaz mintzatzen asi zana; eiki, bere baitan eta luzaroan mamitu ziran asmo batzuk, geyegi edo nonbait berarentzat bakaŕik gordetzea ta beaŕa izan bide zitzaion beste noribait esatea, ta guri egotzi zigun bere zama guzia.

—Gure Eŕi'aren egokera txaŕa biotzean sartutako entenga bat bezela zeraman Sabin'ek. Amamio'ren deyaz gogo beroz ari oi zan mintzatzen su ta gaŕ; eta bere egunean euzkaldunen aldetik erantzun ona izan balu, etzukean gure abeŕiak bere azkatasuna galduko, aren ustez. Euzkal-bizia il zorian ikusten zuen arek eta galbide oŕen auŕean bipil atera beaŕ-izango lirake guziak bizi oŕi eusteko.

—Aŕezkero gure bilkura guzietan ori izan genuen itzegiteko gai berezia. Ene ustez laurok geratu giñan asmo oŕek atzituta; Sabin'ek

esandakoari ez genion besteok aurkitzen yardokitzeko ezer, eta niri txikitan emen ikusi ta entzundakoa indaŕez berpiztu zitzaidan barnean. Ezinbestekoa iruditzen zitzaigun lauroi gure Eŕi-aren alde ekiteko beaŕa, ta eginbide ertsia bezela onartu genuen ori guretzat. Ortaz batera etoŕi giñan laisteŕ, eta xede oŕezaz eman beaŕ-izango genituken uŕatsak azterkatzen asi giñan; asierako lana onelaxe sailkatu genuen guretzat: Sabin'ek gizarte-auzia ta eŕiketa artu zituen berarentzako gayak bezela, Eneko'k izkuntza, Xabier'ek edestia ta eskubidea ta nik nekazaritza ta basetxen arazoa, autatutako nire bizibideari ongienik zegozkionak, eta len aipatu dizuedan nire erabakiari indaŕa eman dio xede oŕek.

—Eta gure ikasketak amaitzerakoan, bakoitza bere bizi-lekura joan ondoren, urtean iru edo lau bideŕ alkartzeko geratu giñan, guzien lanak nola zijoazen begiratzeko ta gure jokerari bideak, bide beŕiak edo, aurkitzeko xedeaz.

—Azkenez, alkaŕengandik aldentzeko orduan...

Beŕiz ixildu zan Mikel, jakin-erazi nai zuena bere entzuleengan zauzkada ta erasan aundikoa izango zala uste zuelarik eta bere gurasoai kardaba ta buruauste emateko izango zalako. Besteak ari so ta urduri.

—...Ene ustez oso uŕats gaŕantziduna eman genuen geroko gure bizi guzirako: ...gure Eŕi'aren alde ta bere azkatasuna lortzeko alegiñetan eten gabe ari-izatea, alkaŕi zin-egin genion.

Ixiltasuna beŕiro. Mikel'i barnean zeramana bein bota zuelarik alako gentza bigun bat edatu zitzayon barne osoan, eta besteen itzen zai geratu zan. Gurasoak eta aŕeba auziari bakoitzak bere aldetik itzuli-mitzulika, iritzia emateko gai izango ezpailiran. Mikel'i ixil-egote ura mende bat irudi.

—Aita'k azkenez: Ez duk erabaki makala artu duzutena, ondorio aundikoa izango zaizuena. Ez dikiat oŕen aurka ezer esango. Egia eŕaiteko, alde batetik, poza ematen didak funts gabeko arazoetan ez abiīela ta gure Eŕi'arenganako maitasunez okiturik agoela ikusten diadalako; baña bestetik zuen zin-egite ori betetzeko bide zakaŕ, lazgaŕi, zail eta neketsuan barna, beti galtzorian edo, ibiīi beaŕ-izango duzutelako, lenengo poza samintzen zaidak zearo.

—Ama'k: Enatzaik ni ere aurka jaŕiko ontzat artzen baitiat Eŕi'arenganako maitasuna guzioi eukitzea zegokiguala, baña egingaŕi al

duk egin nai duzutena? Eŕitaŕen laguntza guzia beaŕ-izango zenukete eukitzea xede ortaz edozer egiteko; ta gaur gure Eŕi'an, zoritxaŕez, norberaren burua ukatzeko gogo gutxi zegok; beraz, bilduŕ nauk zuen lanak alpeŕik egiñak izango ditualakoan, eta batez ere alde ortatik soŕ ditezkean ezbeaŕ eta kalte guziak jasotzeko zuek soiīlik izango zeratelako.

—Maḏalen'ek: Barkatu Mikel, nik ere zerbait esatea; begikoak zaizkidak zuen asmoak, naiz eta ortaz, egia esateko, ene aldetik argitasunik aski ez ikusi; baña nire ustez ba-zegok iretzat beste arazo bat aiztutzeko ez dukana; ezkontzeko asmotan abil ibiīli ere, ta amak esan dian bezela, zuen jokeraengatik ezbeaŕak eldu ezkero ire emaztea izango zaikanak ere jasan beaŕ-izango zitik; beraz ez aiz izango i bakaŕik ziñak eta miñak ikusteko.

—Mikel'ek: Ez uste-izan, Maḏalen, oŕezaz gogoratzea aiztu zaidanala; egitan oindiño ez zionat Agurtzane'ri auzi oni buruz ezer esan, baña gaur bertan egingo diñat ori ta guzia ontzat artuko zidanala ustekoa dun; alaz ere ez zionat indaŕik egingo ta azkatasun aundienean utziko diñat berak ere erabakitzeko; artu beaŕ diñagun bidea ez dun eroso izango ta bertan sartzeko bakoitzari zetorkion zirt edo zart egitea. Alkaŕekin ari zerate biok ikastolan orain ere ta laisteŕ ara joanen aizelakoan natxegon; beraz esan ezayon gero bere biīa joango natzayonala, ta gauza aundirik egiteko baldin ezpadin emen erabiīli diñagun ebazkizunaz itzegingo zionat. Zein orduan amaitzen duzute zuen lana ikastolan?

—Maḏalen'ek: Bostetan; esango zioat ire mezua, baña ebazkizuna aipatu gabe; ori iri zegokik egitea, ene ustez.

—Mikel'ek: Bai Maḏalen oŕela dun eta eskeŕik aunitz.

Ori entzunda, Maḏalen jeiki zan alde-egiteko asmoz, bere nebak esateko zeukan guzia amaitu zalakoan. Baña:

—Mikel'ek: Ago Maḏalen apuŕ baten, oindiño zerbait gañeratzeko baitiñat.

—Ama'k: Baña mutil, geyago al duk gizajo oŕek? Esandakoa ez duk makala, ta oraindik geyago? Ire bizia zail eta galbidezkoa egiteko asmotan ari aizela esango nikek.

—Mikel'ek: Barkatu ama, baña ene eginbidea bete beaŕ dut. Esan dizkizuedan asmoak dirala-ta, zuek ere igaŕi duzute, gure Eŕia zapaltzen ari diranen aurka, nai ta nai ez, buŕukatu egin beaŕ-izango

dugu, beren aldetik gure eskubideak onartzeko gerturik iñoiz izango ez diralako. Okeŕ egon nai-izango nuke, baña ene ustez ortaz guziok aburukide gera.

Gure mutiīla, orduan, lipaŕ batean begiak itxi ta burua makurturik, arpegi iīunez eta barneko laŕitasunak astinduta bezela agertzen zan. Orok ixil eta kexu, ia arnas artzeke, luzeena iruditzen zitzayen egon-aldi ura egarian. Jaso zuen burua Mikel'ek azkenez eta onela asi zan gogo-gogoz mintzatzen:

—Astakeria dala, benetan, gizonak gogoŕ eta goŕotoz alkaŕen aurka buŕukatzea; ulertzekoa ez dan jokera ituna; gizon guziei dagokien zorigabeko ayuŕia; menderatzeko eziña dirudiena, gizadiak asieratik eta beti oŕela jokatu duelako. Eta gizonak ba-du bere adimena, bizidunek izan dezaketen doai bikañena; alpeŕik ala ere adimendun izatea, beko giriñek ain saŕi gañeratu ta menderatzen baitute.

—Gentza lortzea ta lasai bizi al-izatea nai-izango nituke, bai gure Eŕi'arentzat bai ta beste Eŕi ta gizon guzientzat ere. Barne-barnean gogait-egiten zait gizonen arteko indarkeriz ari-izateko edozein buŕuka. Aspaldin emen, erasoaldi izugaŕi ura zala-ta, ikusi ta entzun beaŕ-izan genuena, ene baitan sakon sarturik daramat, eta ura ta bera bezelako buŕukak ain ankerkeriz eta ergelkeriz beteta ikusten ditudalako txit nardagaŕi zait, zearo, emen edo an aren antzeko soŕ diteken edozer.

—Alaz guziz ere, gure Eŕi'aren alde, bere biziari eusteko alegindu beaŕ badugu, zaīa ta eziña ere deritzait buŕukatzean sartu gabe ezer onik iristea. Enaiz bilduŕ buŕuka ortan yarduteko, ta ortik el dakizkidaken ezbeaŕak jasateko ere; baña ene baitan beaŕ ortaz jokatzeko erabakia artu nuen asieratik guda bizia dut nigan jokera bi oyen artean: buŕuka-beaŕa ta gentzarako yorana, ta batzuetan aztunegia zait ene barneko guda ori.

—Maḏalen'ek: Eztuk ez makala iregan eratu dukan bizia, gizajoa. Irekin emen jaŕaitzea nai-izango nikek guzi oŕezaz irekin yarduteko, baña ordua duk nire ikastolara joateko ta, egitan, berandu natxebiīek; barkatu beraz alde-egitea ta gero arte.

Gurasoekin geratu zan bakaŕik Mikel, eta irurengan zorigaitz baten zema pean zegozela ustean, mutiīak esandakoa biraka zebilkien loŕ eta minkoŕ; beŕiz ere ixiltasunean bildu ziran babesa baten biīa edo.

Mikel'ek, bere barneko guzia agerian jartzeko beaŕean noski, asi zan beŕiro mintzatzen, bere itzai doñu maitekoŕena eman nai zielarik:

—Barka ezaidazute, otoi, nire itzen bidez eman dizuedan naigabea; baña aita ta ama zaituztedanezkero ta ene biotz guziaz maite bazaituztet ere, ezinbesteko ta eginbide bezala iruditu zait baŕuko guzia dagoen bezela zuei erakustea.

—Aita'k: Ongi egin duk, Mikel, eta, esan digukanagatik, eztuk damurik ukan beaŕ gu naigabeturik egonaŕen. Txit obea duk gure artean ezkutapenik ez izatea, alkaŕi min ez emateagatik esan beaŕ dukana ixil gordetzea baño.

—Ama'k: Gogoŕak dituk, seme, artu ditukan erabakiak, eta ikaratzeko edo, oyetatik soŕ ditezkean ondorioak ekaŕ dizaizkiketean ezbeaŕak. Ori, noski, geroko auzia da, ta orain niri min aundiena ematen zidakana ire baitan daramakan guda ori duk. Onak ditukan bi biozkada, Eŕi'arenganako ta gentzarako maitasunak iregan alkaŕen aurka ikusi beaŕ dituk alkarturik egon ordez. Jakiña, eŕua gure arerioena duk, baña jasan ik jasan beaŕ duk, indaŕez jaŕi-erazi zigutean egokera itun onek erakaŕitako ondorio iguin eta gogaikaŕiaz.

—Aita'k: Oŕelaxe duk bai. Dagoaneko ba-duk gaur ire gain jasoteko biotz-miña; biarko ere atsekabeak elduko zaizkikala uste beaŕ; eta azpegi bi oyen auŕean atzera jo-egiten ezpaduk, benetan biotz aundiko gizona izango aiz.

—Mikel'ek: Baña gure beaŕa ta gure eskubidea oŕen argi dagozelarik, zergatik ez yardun gure menperatzaīleak eta guziok alkaŕekin, asmo ta gogo onen bidez arazoari pakezko aterabidea biīatzeko?

—Aita'k: Ori izango ukek onena, baña maltzurkeriz sartu zitzaizkigukan gure arerioek, euzkalduna dukan guzia ezabatu nai ditek eta beren elburu bakaŕa gure Eŕia suntzitzea dukala esango litzakek. Euzkera ontzat ez artzean, ikastoletan eta ororentzako arazoetatik baztertu ditek. Eta txaŕena auxe: euzkaldunen arteko asko ta askok jokera ori ontzat artzen zigutek. Euzkal-biziaren aurkako egindakoa ain aundia dukalarik, gizon jatoŕ batzuk, ba-dakik, alegiñetan sartu dituk, Moraza, Egaña ta oyen lagunak. Etsayengana biotz aundiz eta zindoki joan ere; ayen lege-etxeetan bipil itzegin ditek gure Eŕi'aren eskubidea argi, garbi ta zeatzez aurkezten, ta betidanik gureak izan ditukan lege, oitura ta gure biziarenganako, guziengatik izateko beaŕa dukan lotsa eskatzen. Alpeŕik ayek, gogo onez eta arerioen endeŕikoak izateko asmoa ontzat arturik, ain gizonki gure auzia aurkeztea; beren lepotik paŕe-egin zietekan, eta ain ankerkeriz jaŕi zigutekan indaŕ-legea areago aŕerazi zigutek. Beraz, ziuŕ egon gaitezkek, gure menperatzaīleak, zoritxaŕez, gureganako onez-onean iñoiz jokatzea nai-izango ez ditekala. Ortan aurkituko duzute oztopo aundia, bai ta guretaŕen ajolagabekerian ere.

—Mikel'ek: Batera zatoz, aita, Sabin'ekin ortaz. Ari ta beste adiskideai maiz itzegin nien gentza-bideetan barna ibiltzeko nire gogoa; ontzat artzen zidaten gogo ori, baña auŕean ditugunak nolakoak diran gogoraturik eziña iruditzen zitzayen pakezko jokera. Ta ortan bakaŕik laurok zearo batera ez gentozela uste dut. Alaz ere, ene aldetik egiñal aundienak bete nai-izango nituke uŕatsak bide oŕen zeaŕ emateko.

—Ama'k: Uste diat gaurkotz naikoa diagula, ta gañera Aintzane'rengana joateko ere ordua eldu zaik. Eiki auŕerantzean be gai onezaz ari beaŕ-izango diagu eta ziuŕ egon aiteke ire gurasoengandik beti laguntza aundiena izango dukala, maitasunarekin batera.

—Mikel'ek: (biotz ukiturik) — Eskaŕik aunitz ama; eztakizu nolako lasaitasuna ematen didaten zure itzak. Eta ba-noa; Aintzane'ren yardespena nolakoa dan esango dizuet. Aguŕ beraz eta gero arte.

Biotz indarturik atera zan Mikel etxetik eta adorez beteta zijoan emaztegayarengana. Egitan, egun artako bere uŕatsak emateko zegoenean zaīagoa iruditzen zitzayon Aintzane'ri buruz ari-izatea gurasoenganako baño; naiz auek naiz neskatīa ongi ezagutuaŕen, oyen artean ba-zegoen oso bereizgaŕia zan ezberdintasuna. Bere asmo, xede ta egindako ziña ere, gerorako ziran bereziki ta gerokoan itxaroteko ziran ondorioak ere. Oŕela, biziaren bidean bidezkoa danez gurasoak elukete noski jasan beaŕ-izango izan litezken ondorio txaŕak, oyek gertatutakoan iīak edo izango lirakelako; baña neskatīa, bere emaztea izatera eldu ezkero, guzia izango zuen jasateko. Ontzat artuko ote zuen Aintzane'k ori?; berarentzat, Mikel'entzat, zuzen al zan neskatīari oŕelakorik eskeintzea?, ez ote litzake izango geyegi eskatzea? Alegia ziñaz beartu baño askoz lenago asi zan emaztegayarekin aŕemanetan eta zin-egin zuenean Eŕi'aren beaŕaz bakaŕik oroitu zuen, oraingo ta geroko sendiaz gogoratzeke. Gero bai, ala beaŕik, eta orain guzia zeukan bere baitan tartekaturik. Ezinbestekoa zitzayon, alakotz, etxekoai ta Aintzane'ri barnean zeramana garbiki erakustea.

Lenengoekiko bete egin zuen bere eginbidea ta, ikusi dugunez, ongienik; gurasoen erantzuna berak uste-izan zuen baño obea izan zitzayon; nolakoa izango zan neskatīlarena? Ba-zuen Mikel'ek oŕezaz ere bere itxaropena, baña barnetik sortzen zitzayon ala nolako zalantza etzan menperatzeko eŕaz. Eta alkaŕen aurkako zituen biotzondo oyekin eldu zan bere zai zegoen neskatīlarenganaño.

—Mikel'ek: Aŕatsalde on, Aintzane!; berandu ote natxebīlen?

—Aintzane'k: Ez, oraintxe amaitu diagu ikastolako lana; ire aŕebak orain etoŕi nai uala esan zidak eta oŕengatik geratu nauk emen.

—Mikel'ek: Ederki; ta ba al dun egiteko beaŕ aundirik?; oŕela izan ezkero, biarko edo beste egun baterako utzi genezaken alkaŕekin egotekoa; baña al badun oraintxe bete dezakenagu ori, ni beñepein gogo aundiaz natxetoŕen alkaŕi mintza gakizkionan.

—Aintzane'k: Ez, ez, Mikel, orain egiteko niana biar edo etzirako uztea berdin; gañera Maḍalen'i eskatu zioat etxe ondotik igarotzean amari beranduago joango nauala esan dizayoan, ain zuzen, irekin egoteagatik.

—Mikel'ek: Orduan, nai badun, amalau zugatzetaraño joan gaitezken. Eguraldia edeŕa zegokigun, beroa gutxitu zaigun eta pizkat ibiltzeko asgiro zegokin.

Neskatīlak bayetz esanda, aurki, Mikel'ek esandako tokiruntz zijoan bidean barna abiatu ziran gazteak, alkaŕekin ibiltzeak ematen zien pozaz beterik.

Aŕatsalde ura, bene-benetan, zoragaŕia zan. Eguzkia oindiño ortzean zeaŕ zijoan, egunak jaŕita zitzayon mugaruntz urbiltzen ala ere, ta oŕengatik bere izpiak zearka egotzi beaŕ zituen bero aundirik eman eziñean; eta izadi guzia, galdak auŕeko orduetan geldi-arazita bezela lo-zoŕoan egon ondoren, egunean bigaŕenez esnatzen antzo. Txori, tximeleta, eltxo ta mamoŕo guziak, nun-nai ugariturik lez, biziari beren oldaŕa ematen zioten bakoitzaren bizi-alaitasunaz. Eta mota guziko landareak ere goizean aña ernemindurik oso.

Gure gazteak, alkaŕen ondoan joateagatik, zoriontsu zijoazen giro atsegingaŕi artan; neskatīla bere zorionean murgilduta bete-betean; ez ainbeste mutīla, bere lagunari esateko zeukanaz kexu; alai ta pozik ikusten zuen Mikel'ek neskatīla, ta barneko zerbaitek alaitasun eta poztasun ayek jaulki-erazi beaŕ eta, agian, bere itzen bidez puzkaturik utziko zituela salatzen zion; uste artaz, biotz erdian mindurik,

alako zalantza latzak dardaratzen zuen gogoŕ bere baŕena. Barneko egokera ura berarentzat bakaŕik gorde nai-izanaŕen, arpegian ere nolabait azaltzen zitzayon; eta mutīlari, bere baitan, neskatil yaukal aren zorion eta bizia ere uŕatu beaŕ zituela iruditzen zitzayon. Oŕela, itzak bere ezpañetan uŕi ta muŕi.

Neskatīlak zeredozer oartu zuen bere senargayarengan eta emakumeak izan oi duten igarmen bereziak bereala zerbait usma-erazi zion. Alaz ere, etzion Mikel'i usmatze ori agirian erakutsi nai, ta arian-ezarian asi zan mintzatzen, mutīla itzegiteko geyegi indartu gabe.

—Aintzane'k: Ta, Mikel, mintzatzeko gogorik ez? Noski, giro edeŕ ontan ba-zirudik itzik beaŕ eztukala aŕatsalde onen līluraz gozatzeko ta nik ere ez diat aoa idekitzeko gogo aundirik. Alabaña ez gaituk egongo ibīlalditxo ontan zearo muturik..., ezin ene ustez.

—Mikel'ek: Egia diñon, Aintzane, batzuetan itzak ez ditun ezer gure barneko atsegin edo atsekabeaz oaŕerazteko, biotza berez mintzatzen baita, ots gabeko bere itz berezien etoŕiz. Līluragaŕia diñagu giro edeŕ au, līluragaŕia dun areago niretzat i ene aldamenean ikustea; ori ongi adierazteko itz egokirik ez, ori berez mintzatzen dun eztiki. Alan eta guztiz be, irekin luzaro itzegiteko gogoaz natxegon eta xede ortaz eskatu dikiñat gaur irekin egoteko, gaurkoa bakaŕik ez dunan xedeaz. Ara, gure amalau zugatzetaraño eldu gaitun; nai badun ementxe eseri gaitezken, auŕean zitiñagun gure luŕ-lau edeŕak begiratzen.

Ezer erantzun gabe neskatīla mutīlaren ondoan eseri zan, belaŕi zabal, eta entzun beaŕ zuenekiko urduri, Mikel'en arpegian goibeltasunezko azpegia ikustean. Etzan mutīla bereala asi, gurasoen auŕean bezela, itz egokien bīla zebīlela esan liteke ta, bere emaztegayari iñoiz amaitzeko etzala iruditu zitzaion ixīlaldi labuŕ baten ondoren, onela asi zan mintzatzen itz etenen bidez, aukerakoak izateko nai zuelarik.

—Mikel'ek: Ba-dakin, Aintzane, aurten nire ikasketak amaitu zitiñadala ta nire bizi beŕiaren atarian natxegonala. Bizi ori bein-betikoa izatea nai-izango niken eta beaŕezkoa niretzat bizia bera ta bere ingurukoa izango dun guzia zintzoki begiratzea: i, gurasoak, aŕeba, etxea, lana, Eŕia..., guzi-guzia. Ba-zitiñat ene asmoak luzaroan ausnartuta eta eginbidea diñat nire sendikoai ta iri ere oro jakin-eraztea. Gaur bertan guraso ta Maḍalen'i itzegin zienat, orain ire

txanda dun, eta uste diñat ontzat artuko didanala oŕela mintzatzea. Ona, bada, ene baŕuko guzia iregana irauli nai diñadana.

Eta mutīlak gurasoai esandakoa berbera irakurtzean, neskatīlari aurkeztu zizkion bere gogo, asmo, amets eta xedeak. Mintzatzen zan bitartean uŕutira so zegien eta bere itzak gero ta indartsuki ta tinkotuago zerizkion. Eŕi'aren zorigaiztoko egokeraz yarduten asi zanean ba-zirudien, emaztegayaz aztuta edo, aidean eta luŕ gañean irudimenezko ikuskaria agertzen zitzayola ta gerokoa maŕa xuxen eta zeatzen bidez ikusten zuelarik.

Neskatīlak mutīlaren arpegian zituen begiak tinkoturik; begira-begira zegokion, txintik atera gabe, eta iŕikaz entzuten zuen guzia bereganatzean, bere biotza ariñagotzen zitzayola oarturik, eutsi nai ta eziñean. Erantzun beaŕ-izango zuela buruak eman gabe, orduko zaŕastadan kokaturik zegoela-ta, beste ezertara abiatzeko gogorik ez beregan.

—Mikel'ek: Uste dezaken, Aintzane, ene asmo auek inguru-minguruka ibīli zaizkidanala azken aldi auetan, batez ere nire ziña eman ondoren. Noski i ta gurasoakaz gogoratzean, amaika bideŕ galdetu zionat ene buruari ia zentzutasunez jokatu ote niñan. Iñola ere zuei miñik, kardaba ta laŕitasunik emateko nai gabe nentxegonala, ene baitan aztunegia zitzaidanan aŕankurak, buruausteak ugari soŕerazten zizkidanan, nai ta nai ez ezinbestekoa unala ikustean. Eta gaur ere ortan natxegon; nola iri nire ziñagatik el dakigukenan galbidezko gerokoa eskeiñi? Ene ustez ori geyegi eskatzea dun, Aintzane. Baña eziña dun niretzat emandako itza jatea; beraz..., naiz eta ene biotza mīla pusketan ondaturik geratu beaŕ badun ere, azke utzi beaŕ aut..., eta orixe egiteko gerturik etoŕi natzain gaur igana. Ez izan kezkarik, aŕen, nik esandakoagatik ene bidean sartzea geyegizko ala ezegoki iruditzen bazain; ba-liteken iretzat beste bide obea ire zai zegokinala..., ta ziuŕ izan aiteke itzaz iñoiz aiztuko ez...

—Aintzane'k: Ixil, Mikel, Yainkoa'aŕen! Zer esan nai duk?, zer ...

Eta itza eten zitzaion neskatīlari ezpañetan; biotz erdian ikuturik, bere begiak malkoz bete zitzaizkion eta burua makurtu zuen senargayaren bulaŕean, asayaz eta zinkurika. Malko ayen auŕean mutīlak ere biotz-zaŕastada bere baitan, eta neskatīla besarkatuz itz etenaka:

—Mikel'ek: Barkatu Aintzane, ..., negaŕ-eragin dikiñat, ..., barkatu ero ta buru gogoŕ oni; bare adi, otoi, ez negaŕ-egin, gentza beaŕean gagozkin-eta, ...

Bere estualdian ere pizkortu guraz, alako baten agondu zan neskatīla; burua jaso zuen eta bere asaldura indaŕez-indaŕ gañeratu nayean, biotzari utzi zion astiro mintzatzen.

—Aintzane'k: Ez, Mikel; euk ez didak negaŕ-eragin, ez; baña ire azken itzak entzunik, min-miñean alako latz-ikara izan diat, nire biotz-ametsak, ain gogoz eundu zitiadan amets edeŕak, bat-batean galbidean ikusita; oŕek zartatu zidak ene barne guzia ta negaŕa soŕerazi; ez ..., ik ez didak negaŕ-eragin, ez, ...

Ixildu zan apuŕ batean neskatīla, arnas artzeko edo, ta bere malkoak txukatu ondoren nolabait nareturik, onela jaŕaitu zuen:

—Aintzane'k: Ez, Mikel; ik ez didak miñik egin eta nire aldetik eskeŕak eman beaŕ dizkiat ire asmo, xede, kezka ta kardabak jakin-erazi dizkidaalako. Gure Eŕi'ari buruz ari-izan aizenean ene aitaren gomuta gogoŕ beŕitu zaidak ene baitan; amaika bider entzun bainiokan ari gure Eŕi'aren egokera itunagatik deitoratzen, eta berari entzun ondoren beti galdetzen niokan nire buruari Eŕi'aren alde zer egin ote nezakekan; naiz eta lana gogokoa izan, asmo oŕek eraman natxiok umeentzako irakasle izatera. Beraz, Mikel, oŕetxengatik eta ene biotz guziaz maite audalako, ire aldetik beste eragozpenik ezpaduk, gerturik natxegok, oraintxetik, bizi guzirako ire emazte ta lagun ona izateko, ta egunen bidean el dakizkigukean ezbeaŕ guziak jasateko, naiz biziak berak ekaŕi naiz gure Eŕi'aren alde jokatzeagatik sortu.

—Mikel'ek: Ene laztana, eziña izango zaidan beti, ire itzak ematen zidatenan gogo-gentza nolako aundi ta atsegiña dunan adieraztea, ez eta bide batez nola zeukanadan biotza iganako eskeŕonez betea. Len gurasoak eman zidatenan poza ik beŕitu didan orain, zuen erantzunak kidekoak izanik. Eta gure maitasuna guziz indarturik zeukanagula esan beaŕ.

—Aintzane'k: Orixe nai diat, Mikel, ene biotz guziaz; oŕelaxe izan beaŕ, gañera, el dakigukean guziari buru emateko. Baña uste al diat gure Eŕi'aren alde jokatzeagatik, zorigaitz eta ezbeaŕak soŕ ditezkeala? Batez ere, ik ditukan gentzarako gogo ta yorana ain egoki ta edeŕak izanik; eztakik nolakoa izan dukan nire atsegiña ire xede ori entzutean.

—Mikel'ek: Bai, gentzaren bidea gizonen artean erabiltzeko bakaŕa izan beaŕ-izango litzaken, baña eziña edo gizonak gizona anaitzat beti onartzea; ta gure Eŕi'aren zapaltzaīleak ez diten gugan anairik ikusten, jopua baño. Nik onez-onean beti ari-izatea nai-izango niken, egitan gizonari zegokiñan bidea orixe baitun ...; baña buŕukatzeko beaŕa ezinbestekoa bezela agertzen zaidan. Okerturik egon baiñendin!

—Aintzane'k: Nik ere orixe nai-izango nikek; baña dana dala, ezin egon gaitezkek, zoritxaŕak gertatuko ditukanentz jakin gabe, gure bizia auŕera eramateko enuxu-banuxu, ori bilduŕez ari-izatea izango bailitzakek.

—Mikel'ek: Izpidean ago, Aintzane; goazeman, beraz, auŕeruntz gogo onez beti ta gure maitasunean biotz guziaz entzinduta. Gaur arte ukan zitiñadan kezkak, iri ta gurasoai eskeŕ, zearo ezabatu zaizkidan eta auŕera jotzeko guztiz indarturik oartzen diñat ene burua; miīa ta miīa eskeŕ iri, Aintzane.

—Aintzane'k: Ez didak eskeŕik eman beaŕ; egitan, ni nauk iganako eskeŕonez beterik egon beaŕ natzayana. Baña ... i! berandu duk onezkero; goazemak arin etxeruntz, ene ama zai edo zegokidak eta urduri apika.

Jeiki zan neskatīa jauzkada batez; orobat mutīa; ta eskuz alkaŕ atziturik eŕiruntz abiatu ziran.

Aŕastiria asieran zegoen dagoaneko. Ur-mael aundi batetik, bete-beterik egoteagatik, urak gañez egiten duen antzo, Araitz eta Umandi tontoŕetik, Aīarte ta Atabaŕate lepoetatik ere, Alzania gañeztu ondoren, lañoa muīoka ixuritzen zan bealdera, ausaz ozkiŕi sortutako aize me ta bigun batek eraginda. Alde artan udan maiz gertatzen dana, iīunabaŕ artan ere oŕela jazo zan, eta egunaren eguratsa beroa, otziturik, arin ibiltzeko giroa biurtu zan.

Bikote gazte arentzat, eguneko argia iīuntzen asi bazan ere, bion amets, itxaropen eta maitasuna ain araberakoak ziralarik, goiztiri edeŕena baño argitsuagoa agertzen zitzayon, bizi naro baten atarian zegoela ikustean. Gogotsu ta bide batez nare zijoazen gazte biak; aŕatsalde artan, lendik alkarturik zeuzkan maitasuna are indartuagorik oartzen zuten beren baitan, eta oro agertzen zitzayen on, edeŕ, distiratsu, yaukal. Itzalik ez ayen barnean ordu liīuragaŕi artan.

Beren iduriko, aurkiegi eldu ziran eŕira. Mikel'ek Aintzane'ren etxeraño lagundu zuen neskatīa, bere gurasoengana laisteŕ ere joateko.

—Ba al atoŕ, mutil? —galdetu zion amak— zai gatxeudek apaltzeko; gogorik ez, ala?

Bereala ikusi zuen amak bere semearen arpegian pozaŕen pozez zetoŕela, baña etzion geyago galdetu nai. Orobat aitak, baña Maādalen, begiluze ala zirikatzaīe, ezin ixiīik geratu.

—Maādalen'ek: Ta Mikel, ongi?, korapiīorik ez aŕatsalde ontan?

—Mikel'ek: Ez, aŕeba, nire itxaropen guzia baño obeti. Ba-zirudin guziok, lendik, izpidetu zeratela gizajo au maitasunez eta zorion onenaz betetzeko. Geyegi, bai, niretzat.

—Ama'k: Ez, mutil, geyegi ez, ..., baña eman dizaizkiogun guziok eskeŕak Yainkoa'ri ta Berak gorde gaitzala beti bere magalean.

Gogoz egin zuten laurak aparikoa, zorion eztitsu berean samurki bildurik, eta apal-ondoa pozik luzatu zitzayen alkaŕekin mintzatzen, oera joateko ordua eldu arte.

Biotzetik eskeŕak emanez, Mikel'ek guraso ta aŕeba besarkatu zituen, eta, gabon! esanaz, bere gelara igo zan. Oeratzerakoan, berarentzat beti gogoangaŕia izango zitzayon egun edeŕ artan esan, entzun eta jazotako guziaz atsegiñez beterik bere barnean irabiatzen, bere bizi beŕiaren asiera onena izan zitzayola egiztatzen zuen; eta bere burua gentzaz okiturik, lo-betean geratu zan gure gizona.

Araya'ko jayak

«Araya'n zezenketarik ... Yainkoa'k nai ez dezanik!!».
Oŕela asten zan urte artan, Araya'ko jayak iragartzeko zabaldu zan egitaraua. Onen egīleari, naiz eta bera gaztezaroan zezenketa-zale aundia izan, urteen bidean oztu zitzayon zaletasun ura, azkenez argi ikusi baitzuen jai ori zuzen-legearen aurkakoa zearo dala, bere jitea gizon batzuen bizia gaitz-uŕean, alik eta neuŕi aundienaz jartzekoa dalako, ta ikusleak, bat-banaka bearbada gizon onenak izanaŕen, zezenketan batera, biduzi ikaragaŕi bat biurtzen diralako; noski, guziek bat egiten dute oyek, zezenkariai, deadarka ta maiz irain txaŕenaz ere, beren bizia galtzeko zori aundienean jaŕi dezatela eragiten dietelarik; eta iltzeko kinkarik ezpadago, jairik ez; zezenkarientzat bildurgaŕiagoa omen da ikusle-saldoarengan dagoen iizia, txuliatu beaŕ duten adarduna baño. Oŕela, jai oŕek gizon onenak ere txit basati biurtzen ditu; alakotz, zīleistiak guziz gaitzestekoa.

Orixe nonbait ikusi zuen egitarauaren egīleak, eta oŕengatik edo asi zuen urte artakoa eŕandako esakunaz bere naya agertzen.

Aŕakasta aundikoak izan dira beti Araya'ko jayak, bere zaindaria dan Kepa Deun'aren omenez izateko asi ziranak. Araya'tik uŕutira bizi-izateko joandako guziek, Deun oŕen egunaren auŕean, gogoz eta bero-bai-bero, beren eŕiaz gogoratzen dute ta, eragozpen aundirik izan-ezik, ara doaz gogotsuki; ta jayaren auŕeko egunean bide guzietatik ikusten ziran, landatik zetozelarik, len eŕia utzi zuten arayaŕak, eta eurekin berein aŕotzak ere; ta guziak ia batera eltzen ziralarik, ba-zirudien beren eltzea zala jayen asiera.

Mutil-neskatoentzat batik bat; eŕiaren ateetara, ikus-guraz beterik, leratsu irteten ziran eldu beaŕekoen zai garaiz egoteko.

—Txo!, nire osaba ere ba-zetorkiguk, gero! —I!, ba al dakik?, gure lengusuak be emen izango zitiagu aurten! —Ara!, ba-zetozkiguk!, Yulen eta bere aŕeba, eta Peli ta Patxi eŕena ere ta ... zenbat!

Eltzen ziranak auŕen aŕera beroaz pozik, eŕira sartzen ziran biotzean ikuturik, beren aide ta adiskideak besarkatzeko yoranez, eŕiaren gogo ta giroaz beren burua inguratzeko iŕikaz eta egun batzuetan alai ta gentzaturik, lasai bizi-izateko xedeaz. Guziek, zetozenak eta zegozenak, alkaŕen leyaz, jai-giroari asiera ematen zioten oŕela.

Ta eldutakoak aideen ala adiskideen etxeetara zijoazen batean, auŕak, leyatsu ta lasterka, gurdi-edeŕ gertutzen ari ziranengana joan ziran urte artan ere, besteetan bezela, berberak edo besteak egiteko zeukaten oitura zaŕari jaŕaitzean.

Gurdi-edeŕa! Egitan egoki ta beaŕena, bera baitzan agintarientzat eta guzientzat ere jayen asiera, ezin-bestekoa. Ederkienik apaintzen zuten beti gurdi-edeŕa, arduraz eta alegiñean oso, irudikizun egoki bateaz, urtez-urte aldatzen zana; ta jayen antolatzaīleak izanezik, iñork etzekien auŕetik zer edo nola agertuko zan gurdi-edeŕa; baña ba-zekiten guziek egin eta irtengo zala, ura gabe ulertzen ezpaitzan jairik. Oŕela urtero, geixorik egon ezean, iñor etzan etxean geratuko gaueko lenengo orduetan kalez-kale ibīliko zan gurdi-edeŕa ikustera joan gabe. Auŕentzat batez ere līluragaŕia zan ura ikustea, ta noizpait, gayari zegokionez, auŕ batzuk an jaŕi beaŕ balituzte, ayentzat etzegoen beste gauza edeŕagorik bizian; ortarako autaturik izango ziranak beren burua goraipatua ikusten zuten īlaŕaindurik eta eztitan zijoazen goyan; beste auŕak, zorion ori lortu etzutenak, alako iñartsiz zerbait minduta geratzen ziran, baña bereala bizkortu ere, gurdi-edeŕa inguratzen zuten argi, soñu, abesti ta deadaŕakaz, eta beren itxaropena uŕengo urterako ustekoŕ uzten.

Jakin-gale ta begiluze, zaŕ eta ume, gazte, gizon eta emakume oro. Jayen eratzaīleak, ardura aundienaz eta ixilka, atontzen zuten beti gurdi-edeŕean agertuko zan itxurapena, ongi baitzekiten ikuskizunerako itxaro bizia bultzagaŕi indartsuena zala, ta oŕengatik egitarauan, gurdi-edeŕa izango zala bai, iragartzen zuten, baña oŕela soilki, beste zeatzik eman gabe.

Eŕiko etxe guzietan, jai-auŕe artan, beste egunetan baño lenago egiten zan aparia, arin eta urduri guziak gurdi-edeŕa lenengo unealditik ikusteko iŕikaz, beti berandu eltzeko bilduŕaz. Ortaz batasun zoriontsuan alkarturik zegozen arayaŕ guziak bai ta jayetara eldutakoak ere. Ausaz, alaitasun eta ezbeaŕa dira gizonak ongienik batu al ditzaketen bideak; alaz ere, ezbeaŕak ez dira gura-izatekoak, eta alaitasuna igeskoŕa izanik, ezin gizonen alkartzerako egunero erabīli, zoritxaŕez.

Kepa Deun'aren jai-aurea, bederen, alaitasunezko bide edeŕa zan arayataŕ guzientzat denak bat izateko, eta emen gogoratzen dugun egun artan oŕelaxe agertzen zan bete-betekoa. Gautu ta bereala, eŕiko kale ta etxarteak gizakume aundi ta txikiz beterik ikusten ziran, guziak Marmario auzoruntz leyatsu zijoazela, andik ateratzen baitzan beti «gure gurdi-edeŕa» ao batez orok aŕandiz eta gogo beroz deitzen zutena.

Dagoaneko ia guzia gerturik zegoen, baña gurdi-edeŕ'aren ingurua oindiño ilun-beltzean zegoelarik, eziña zan guzientzat zer-nolakoa zan atematea; urbilenik zegozenek uztarturik zegozen idiak bai ikusten zituzten eta bira-biraka zebiltzaten giza-itzalak ere, bai ta ayetatik batzuk gurdira igoten ziralarik. Baña besterik ez.

Oste aren barna ezin-egona ta urduritasuna gero ta aundiagoak, luzeegia guzientzat itxaron-aldi ura ta, ezin-eramatean, batzuen batzuk deadarka: —Txo, gaurkotz al duk ori, gero, ala biarkotz? —Akulu beaŕ ote?, baña idientzat ala itaurlarientzat? —Zeren zai egon beaŕ diagu asteko? —Ia, ia, oraintxe! —Eup, mutilak! —Tira, berandu duk eta! —Ekin! —...

Aŕamantza gero ta aundiago ta zaratatsuago; eroapena guziengan amaitu zala zirudien, alkaŕen leyan oro oyuka ari ziralarik ... eta alako batean, sostekoa izan bailitzan ... suziri baten ziŕist eta zunpa, gau-beltzean argi-piŕinta erorkoŕ batzuk baŕayatzen; bat-batean bertantxe deadaŕ guziak ixil; ororen leya, orduan, ikustekoa zan eta gurdi-edeŕaruntz begi guziak zoŕozturik oso.

Suziria bota bezin laisteŕ txistuak asi ziran biribilketa antzeko bat jotzen eta naiz gurdi-edeŕean naiz bere inguruan zuziak piztu egin zuten berealaxe; beste suziriak ere bota ziran eta gurdi-edeŕa ibiltzen asi zan.

Baña ... zer ote zan ura? ... ametsondo bat bezela guziengan; — zer duk ori?, aoz-ao ta galdezka; — oŕa gauza polita!, iseka; — ez al zegokian leizea baño beste gauzik oŕ ageŕerazteko?, ...

Ta oŕela zan; gurdiaren atze-aldean aŕi-mokoŕ aundi bat zegoen, auŕean eta pizkat ezkeŕ-aldera leize baten saŕera irudiko zulo zabal bat erakusten; eta aŕi-mokoŕaren goi-aldean, alako uztaya zegitelarik, itz auek irakuŕ litezke aŕian bertan iraŕita bezela: «Basotxo'ko jentilen leizea».

Guziek zekiten, ondo, Basotxo'ko leizea nun zegoen eta nolakoa zan ere, ta aren itxura ongi xamaŕ artuta zala ikustean, lenengo iri-

tzia aldatzen asi zan eta zudu beŕiaz begiratzen zan guzti ura jailarien aldetik.

Leize-saŕeraren auŕean eserita, agure bat agertzen zan ile ta bizaŕ luze ta zuri-zuriak zeramazkiela; ta zutik beste sei gizon zaŕ xamaŕ ere, ile ta bizaŕ luzedun be, baña uleurdiñak; agure ta bere lagunek laŕuzko janzki zarpailak eta oñetan abarkak zeramazkiten, beso ta zangoak biloizik erakusten; era berean, gurdi-edeŕaren albo bietan beste launa gizon zijoazen eskuetan zuziak zerabilzkitela.

Esan dugun agureak, burua esku biakaz artuta, laŕitasun aundian zegoela adierazten zuen, biotz-ikaraz edo iñaŕosita bezela; besteak ere ziri-mara zebilzten, zutik batzuetan eta besoak goruntz jasotzen, ala eserita edo erdi etzanda, leizera sartzeko gogo antzeko bat erakusten besteetan.

Alako batean, «gurdi-edeŕ»'en atzetik jotzen asi zan eres-taldeak eta auŕean zijoazen txistulariek, guziak soñu berezi bateaz yardutean, doñua beeratu zuten, entzuleentzat uŕuneko ots atsegin bat bezela biurtu arte. Orduantxe, gañean zijoan agureak, besoak goruntz jaso zituen dardaraka ta, barne-barnetik atera zitzayon oyu ikaragaŕiaz:

KISMIE zetorkiguk! (1)
Jentilenak egin duk!

deadaŕ-egin zuen eta, besoak jausita, etsi ta eŕe-eŕean bezela geratu zan, ukabilak itxita, ta buru ta gorputz guzia iñaŕosaldi batek eraginda.

Aldi-une berean, gurdiaren gañean eta alboan zijoazenak, doñu itun eta mingaŕi batez, onela asi ziran abesten:

Jentilen Eŕia,
Guztiz gelgaŕia,
Bizi - ituŕia,
Giza - ugaŕia!
Auñamendi'n sortu,
Nora - nai zabaldu
Lan - bidez indartu
Goyeraño eldu!

(1) Jentilek Jesukristo, KISMIE izenaz ezagutzen omen zuten.

Oro abeslari,
Alai eta bizi;
Ekiteko isi,
Jaun eta nagusi!

Agureak beŕiro ta len bezela:

KISMIE zetorkiguk!
Jentilenak egin duk!

gurdi-edeŕ gañeko ta alboko lagunek deadaŕa bera biŕesaten gogoŕ:

KISMIE zetorkiguk!
Jentilenak egin duk!

Oyu erdiragaŕi ura oŕela aundiagoturik, goyan zijoazenek etsipen-ayeruka, eres-taldea ta txistulariak ereski zoŕotz eta kilikaz laguntzen zutelarik, entzule ta ikusleak buru-belaŕiak gero ta idekiago. Ta noizpait erestaluek soñua beratuta, bizardunek beŕiz abestuten:

Zer gerta ote zaik?
Soña zauriturik?
Gogoan gexorik?
Adore galdurik?
Nora oa egun?
Okildurik itun?
Arpegi ain ilun?
Uŕats zirkin-zarkun?
Aduŕ baten araiz,
Il-zorian al aiz?
Iretzat zorigaitz,
Suntzitzeko garaiz?

Bitartean agurea gero ta urduriago zegoela zirudien, eta abeslariek azken bertsoak amaitzerakoan, eŕayetatik edo zetorkion bere deadaŕa bota zuen ostera:

KISMIE zetorkiguk!,

bere lagunek eta urbil zijoazen ikusle batzuek ere erantzun ziotelarik:

Jentilenak egin duk!

Oyua entzun orduko, txistu ta beste erestaluek soñu miñenak entzun-erazi zituzten, deadaŕ itzali nai-izango bailuten. Bereala beratzeko alaz ere, abeslariek, ostera, beren txanda artzeko:

Aita, eguzkia
Ama, ilargia;
Beren auŕ zintia
Jentilen Eŕia
Izaŕ islatsuak
Anai ta aŕebak
Aiztak eta nebak
Alkaŕ maitatuak.
Bizi on sendian
Gogotsu eraman,
Zergatik galtzean
Gaur zorigabean?

Eta agureak len bezela, ia kaŕasika:

KISMIE zetorkiguk!

Etzuen amaitu, orduan be, bere lengo deadaŕa; bere lagun guziek eta ikusleetarik askok, erantzuteko bezela, ao batez oyuka:

Jentilenak egin duk!

Mutil batzuek, gurdi-edeŕ'eko gizonek abesten zituzten bertsoak zeramazkiten ingi-oŕi bereziak banatzen ari ziran guzien artean, eta zuzien argiari eskeŕ oyuaren itzak bederen irakuŕi al-izan zituztenek albokoai esanda, auŕeruntz eta atzeruntz edaturik, jakin-erazita izan ziran.

Oyua deikuna izango balitz bezela, erestalu guziek intziriz egiñik zirudien soñua aldiune labuŕetan entzun-erazi ondoren, abeslariek beren bertsoak abesten jaŕaitu zuten onela:

Luŕa ongi lantzen
Aziak banatzen
Noiz beaŕ ereintzen
Genun ezagutzen.

Oŕi ernetuta
Artoa jaŕita,
Oŕiak jausita
Garia ipiñita.
Burni be ta zīlaŕ
Tupikia zoaŕ
Olatu su ta gaŕ
Orotako beaŕ, ...

Agureak kementsuago bere lelo ikaragaŕiaz :

KISMIE zetorkiguk!

Orok alkaŕen ondoren, bazteŕ guzietara zabaltzen zan duŕunda bezela, erantzuteko :

Jentīlenak egin duk!, duk!, duk!, ...


Ikusleak, oŕela, arilari biurturik, leyatsu berenganatu zuten joko aren muña. Ta gurdi-edeŕa, Marmario auzotik irtenda, Urbero'koan sartzen zan, enparantzako bidean; eresiaren doñua guzienganatzen zijoan batera berak ere bere bidea egiten.

Ostera be abeslariek, entzun-arazten zuten abestiari beren burua lotu zioten, erosta baten samintasunaz josia bezela.

Ta ikusle guziak ixil, entzule areago biurtu nayean.

Asaben arnasa
Ororen solasa,
Zer dala-ta lasa?
Nola biuŕ basa?
Bein iŕi ta baŕe,
Argiz gorasaŕe
Gauan akelaŕe,
Ta egun asaŕe?
Iragarlek eŕan,
KISMIE etoŕeran,
Suntziteko eran
Jentīlenak geran.

Aapaldia amaitu bezin laisteŕ, auŕekoetan bezela, gure agureak,



begi-zīloetatik begi biak jauzteko eran zeuzkalarik, izigaŕiagoa zan gaŕaiziaz deadarka beŕiro be :

KISMIE zetorkiguk!

azken itzatala guristo zoŕotz zoliaz luzatzen zitzayola.

Aren lagunak lenagoetan lez eta areago, beren erantzuna :

Jentīlenak egin duk!

Kaleetan zijoazen guziek ere deadaŕa bera beŕitu zuten alkaŕen leyan, eta eŕi guziaren oyua bezela, gau beltzean ozenki goruntz.

Erestaīluak beren ereski sarkoŕakaz ostearen uŕubiari indaŕ aundiagoa ematen zioten, eta an bateratua agertzen zan oro : gurdi-edeŕa, agurea, jentīlak, zuziak, guzien eresi, abesti ta oyuak, erlijiozko ala siñiskeridun egipen edo jaikunderen bat, eŕi guzia betetzen ari zala zirudien.

Auŕeruntz zijoan gurdi-edeŕa enparantzara urbiltzen, eta giza-lagunak oro bertan ere kokatzeko leyatzen ziran, guzia nola amaituko zan igaŕi eziñik, baña dana ikusteko iŕika bizienaz.

Gurdian eta alboan zijoazen jentīlek nekea adieraztean, baña al zuten indaŕ guziaz abestiari jo zioten beŕiz, aŕabotsa noizpait eztitu bezin laisteŕ :

Nundik ote otza,
Guzion biotza
Biurtuz izotza,
Geratzeko īlotza?
Zer ote guretzat,
Arturik gaiztotzat?,
Jasaten zigortzat,
Eta eriotzat?
Gure zeatzaīle,
Jentīlen eraīle,
KISMIE epaīle!
KISMIE garaīle!

Abestia amaitu baño lenago, gurdi-edeŕa enparantza-erdira eldu zan, bertan gelditzeko, ta, abestia amaiturik, agureak, zutiturik eta

zoro izugaŕi baten itxuraz, soin guzia dardaraz eta buru ta besoak goraberaka kordokaturik, oŕu baten antzo bere azken deadaŕa bota zuen :

KISMIE zetorkiguk! ...

Iñork etzuen entzun bigaŕen itza; suziri batzuk bota zituztelarik, danbateko ikaragaŕia atera zuten denak batera eztandaturik eta beste ots guziak makestuten.

Aldi berean, leizearen aotik irtenik ala goitik jetxirik, etzuen ori iñork ongi oartu, alako gaŕ distikoŕak gurdi-edeŕ gañean zegoen guzia estali zuten, eta ayen argitara agurea ta bere lagunak, leŕ zorian izango bailiran ala biotz erdian zaurituta, ziŕibuŕu, bilin-balan eta zaŕapastaka, alkaŕ ostikopeturik, leizaren auŕean jausten ikusi ziran. Lipaŕ batean jazo zan guzia, ta, zuziak ere itzalita, gurdi-edeŕa iīluntasunean geratu zan ostenduta.

Txunditurik geratu ziran enparantzan zegozen guziak, gurdi-edeŕan jazotakoa ta batez ere amaitze ikarakoŕ ura ongi ateman eziñik; batzuk, jai alai baten biīa etoŕitakoak, utz-eman zietelakoan, eta beste batzuk izandakoaren mamia igaŕi nayean. Emengoentzako zentzun gabekoa dana, angoentzako oi ez bezelako ta ikusgaŕia izan zala ustez, guziak etxeruntz abiatu ziran; geyenengan eresiaren doñua irauten zuelarik, emakumeak batik bat, abes-marmarika zijoazen asko, ta gazteren batek KISMIE zetorkiguk! bota zuela-ta, aunitzek ere len entzundako erantzuna egiñik.

Nai edo ez, gurdi-edeŕa gogoratzen oeratu ziran gau artan arayataŕak, eta etzuten, asko ta asko, bereala lorik artu al-izan; eta oŕelaxe asi ziran urte artan beren jai ospetsuak, uŕengo egun aundiaren zai.

* * *

Kepa Deun'aren eguna, argitan blei ta dirdiradun, zabaltzen asi zan; udara betean, eguzki aŕaiz argi-asi bezin laisteŕ, bero-aldi edeŕa iragartzean. Izadi guzia goiz-goizetik esnaturik gogotsu artzen zituen lenengo ziŕintaen bidez, bere jabeak eskeintzen zizkion muñak, geroxeago kiskaltzeko zorian imiñiko zutenak. Goiztirian, ala ere, guzia zan bero legun, aize goxo, pozkariozko bizi-gozamena, ta egunaren unealdi edeŕena zan goiz-aldi artan, oro zan zorion, eta luŕ gañean

igitzen zan guzia birloraturik zegoen bete-betean, gozatze ura baño besterik izan liteken oldoztu eziñean.

Eguzkia bere gingaruntz abiaturik zegoenean, gizakumeak ere goizeko lenen orduetako giro ona gozatzeko nayean, goiz utzi zituzten askok beren etxeak, norabait joateko asmoz ala aize zabalean gogoz ats-artzeko.

Amamio'tik Araya'runtz zegoen bidean barna, Intusi basoaren aldamenetik, giza-talde ederŕ bat zijoan goize artan Kepa Deun'aren jayerako xedeaz. Jai-egitarauan Azpaŕena'ko eŕi guzietara dei bat zegoen egiña, egun artan ikastolaetako auŕak alaitasunezko biltzera erdu zitezen. Eta an zijoazen amamiotaŕak Madalen eta Aintzane beren andereñoekin; mutikoak ezpatadantzari ta neskatoak gorularien soñekoaz jantzita. Ayekin ba-zijoan Mikel ere eŕiko bere adiskide batzuekin.

Auen artean lenengoa, Martin txistularia ta bizibidez arotza zana, txiki-txikitatik jokuetarako ta guzitarako Mikel'en lagun miña. Berari itzegin zion Mikel'ek adiskideen artean lenengoz, bere xedeetaz, eta arotzarentzat ezin ura baño beŕi oberik.

—Bilduŕ ninduan, mutil —eŕan zion orduan— eŕitik eta betiko alde-egingo uala ire ikasketak amaitu ondoren; eztakik nolako atsegiña eman didakan ire erabakia jakin-eraztean; ene bizirako pozgaŕi ta pizgaŕi benetan.

Ontzat eta bero aundiaz onartu zituen arotzak Azpaŕena ta Euzkaleŕi osorako Mikel'en asmoak, eta guzi ortaz ere len bezin lagun ona izango zuela agindu zion Mikel'i.

Gurean maiz edo oartzeko dana, ba-dirudi bizibideak berak ekartzen duela, ta arotzak, txistu, euzkal-dantzak, euzkera ta euzkalduna dan guzirako, geyenetan, guztiz emanak agertzen dirala ikusten da; zurgiñaren lana, jatoŕiz, guztiz euzkalduna ote? Esan edo esan genezake ...

Taldearen tarteko beste bat Lauren apaiz jauna zan; Aŕiola'n jayoa, urte batzuetan Amamio'ko gogoen artzain zegoela. Onek ere oso aintzakotzat artu zuen Mikel'en erabakia, ta mutilaren adiskidetasunaz bere lanerako laguntza egokia izango zuelakoan zegoen. Kepa Deun'aren egunerako, beste nunbaitetik eraman oi zuten Meza nagusirako izlaria ta urte artan Amamio'koari egin zioten ortarako deya; oŕa zergatik zijoan gure apaiz ura beste amamiotaŕekin jayera.

—Zu, Martin —galdetu zion Lauren jaunak txistulariari— uste dut bart Araya'n edo egon ziñala; polita izan al zan gurdi-ederra?, ongi asi al ziran oŕela jayak?

—Martin'ek: Guzientzat etzan izan oso polita gurdi-ederra, baña nik uste dudanez bai mamitsua an ageŕerazi zutenaren esanaya; ene iduriko, jailariak oro biotz-ukituta geratu ziran.

Eta auŕeko egunean gurdi-ederarekiko izan zan guzia edestu zien aldamenean zijoazenai.

—Martin'ek jaŕaituz: Abestiaren doñua unkigaŕia zan eta bertsoak ere berdin; auek dakarzkiten oŕi batzuk banatu zituzten eta nai baduzu emen daukat bat.

—Lauren jaunak: Ia, ia, ekatzu, esan diguzuna entzun ondoren, begiluze nauzu bertso oyek zer diñoten ikusteko.

Bitartean ume guziak pozik eta ikotikan zijoazen.

—Asko izango al gaituk? —alkaŕi galdetzen ziotelarik.

—Eta Madalen'ek: Bai noski; ara, ez al dituzute ikusten beste beko bide artatik doazenak? Egino ta Ilarduya'koak dira, ziuŕ; eta Azpaŕena'ko eŕi guzietatik erduteko dagoz, eŕuz. Jai ederra izango dugu guzien artean.

Araya'ra eltzerakoan beste ume-taldeak ikusi zituzten amamiotaŕek, eta guziak elizaren auŕean zegoen pelota-tokian bildu-erazita, aŕera onenetakoa egin zieten umeen jaya antolatzen ari-izan ziranak. Ba-zegoen an iskanbila, toki zabal ura betetzen zuten ainbat auŕak batera mintzatzen eta oyuka; andereñoek ba-zuten lana, bakoitzak bere taldekoak alkaŕengandik aldendu ez zitezen. Eta Meza nagusiaren ordua jo baño lenago, eratzaleak azken zeatzak jakin-erazten ari ziran andereño ta ume-zain guzientzat.

Bitartean, Mikel, Martin eta beren lagunak elizaren ataurera zijoazen Araya ta beste eŕietako adiskideak agurtzeko xedeaz. Alako batean:

—Mikel, Mikel —norbaitek deika; ta albotik zetorkion dei ari buruz zuzenduta, berarengana zetoŕen atso bat ikusi zuen Mikel'ek.

—Mikel'ek, bere buruari: Nor ote duk au gero?

—Atsoak, aŕamuskadaz: Mutil, ez al nauk ezagutzen?, aiztu al aiz nitaz?

—Mikel'ek: Ene!, Justa, zu emen?, nork uste?, zu ere Kepa Deun'aren jayera?

—Justa'k: Ez, gizona, ni emen bizi nauk orain; igaz alaba ezkondu uan ona ta Amamio'n bakaŕik bizi beaŕ nialarik, berarekin egoteko ekaŕi natxiotek.

—Mikel'ek: Ederki, enekien ori; au poza zu ain ongi ikusteaz; eta zu ere emen pozik, ezta?

—Bai noski, alabarekin egon ezkero. Ta i?, beti bezin azkaŕ?; atsegiña benetan nirea; beti gogoratzen nauk ume goŕi intzanean nire besoetan amaika aldiz erabiltzen induadala; gizakote edeŕa i orain. Ederki, ta emengo aldean i ere, au nire poztasuna i ikustean; eŕan, Aitzkoŕi'ra igoko aiz ezta?, beste urteetan bezela.

—Mikel'ek: Bai, eiki, ta nai baduzu alkaŕekin igoko gera.

—Justa'k: Ongi zegozkik ene zangoak araño eltzeko; auzokoen etxeraño joateko ere ozta-ozta, ta pozik ortarako lain oindiño izatea ere, lagunekin trukean edo ari-izateko. Tira, ordua diagu Meza'tara joateko, ondo ibiĪi ta beŕiz ikusi arte.

Ba-zijoazen ordurako auŕak ere elizaruntz, eta yoaleak binbilin-banbalan alaiki ari ziran Meza'tarako guziai deitzen; eŕiko agintariak ere, txistulariak auŕetik, aruntz zijoazen. Ura zan ura, ikusteko ta gozatzeko unealdi zoragaŕia: eguzki distiratsua goitik, yoale ta txistuak beren soñu alai, ozen eta zolia batera baŕayatzen, suziri batzuen eztanda; eŕitaŕak beren jantzi oberenaz eta ainbeste ume poliki jantzita ere alkarturik agertzea, oro jai-giro edeŕenetakoan murgildurik; guzien biotzak goxoki pilpiraturik eta gogoak ere atsegin biguingaŕienaz beteta.

Meza auŕetik, oitura zanez, Kepa Deun'aren irudia eliz-inguruan ibiĪaldiz atera zuten eta urte artan an bildutako auŕ guziak bertan sartu ziran lenengoak zijoazela; beren atzetik txistulariak, gero endore ta ziñegotzi jaunak, oyen atzetik irudia zeramatenak, uŕengoz eŕiko apaizak eta izlaria, ta azkenez erestaiĪu-taldea ta eŕitaŕak. Ainbeste lagunen artean elizaren inguru guzia giza-buruntza batez artuta bezela agertzen zan, ororen poztasun aundienaz.

IbiĪaldiaren ondoren, yoale ta soñugaiĪu guziak ixildurik, denak elizan sartu ziran; auŕak erdi-erdian jartzeko ta agintariak auŕean, eta guziak estu-estu, lasai kokatzeko eziñean; gogoz alaz ere, ta Meza nagusia asi zan, eŕiko abeslari batzuek ongienik lagundu ta goretsia; ta itzaldiaren orena ere eldu zan.

Igo zan Lauren apaiz jauna itz-tokira ta onela ari-izan zitzayen entzuleai: —Auŕide maiteok: Gaur Yesukristo gure Yaunak autatu

zuen lenengo bidalia ta orduantxe asita Eliza'k ukan duen lenengo Aita Donea ospatzeko alkartu gera emen, aspaldidanik ortarako aukeratua izan dan uda-egun edeŕ ontan. Ez, noski, Kepa Deun'aren nortasun aundia goraipatzeko bakaŕik, baña arengandik gure giristiño-bizirako atera dezakegun ikaskizuna gureganatzeko bereziki. Zein ote ikaskizun egoki ori? Nire iduriko, auxe, ausaz beste guziaren gañetik ikusteko dana: Kepa Deun'ak, Yesukristo gure Yaun'aren lenengo deya artu bezin laisteŕ, gogotsu ta zalantzik gabe, guzia utzi zuen eta gartsuki jaŕaitu zitzayon. Kepa Deuna izan zan lenengoa Yesukristo'ren deya entzuteko, gure Yaun'ak bere bidalien artean autatutako lenengoa, bidalien eta Eliza'ren burua izateko lenengoa ere; ta Yesukristo'ren atzetik joateko lenengoa be. Kepa Deun'gan ikus ditzakegun onoimen eta berezitasunen artean, auxe da gaur, nabarienik gogoratu beaŕ duguna, ain zuzen Mateo Deun'aren Itun-Beŕi'an agertzen dana (4'gn. atala, 20'gn. txatala): Galilea'ko itxasondoan zegozen Simon eta Andeŕ bere anaya, aŕantzale ziranak, itxasora sarea botatzen ari ziralarik, Yesukristo'k dei-egin zien, eta «bertantxe ayek, sareak utzita, yaŕai zitzaizkion», ots, berena zan guzia, aŕantza baitzan beren bizibidea.

—Ta ortxe ikus dezakegu Kepa Deuna guziontzako eredu yaukala, ta berak egindakoan guziontzako ikaskizun edeŕa: Yesukristo jaŕaitzeagatik dana uztea. Zer da, baña, guretzat, egitan, «dana» ori? Enurarik ez, gugan dagozen apeta ta giriña txaŕ guziak, ots, ogena ta ogenerako bide guziak. Orixe da, nire iduriko, Kepa Deun'ak egin zuenak erakusten eta irakasten diguna, orixe gure kristautasunaren bizirako ezinbesteko bidea.

—Atzo, auŕeko egunetik asi zerate gure Donea goraipatzeko urteoro dagizuten jaya. Bart zuen aipu aundiko gurdi-edeŕa kalez-kale ibiĪi zan eŕi ontan; eta aurtengo gurdi-edeŕean agertutakoa ez da izan nolanaikoa. Naiz irudian naiz abestutako bertsoetan ere, jentiĪen amaya adierazi nai-izan da; beren KISMIE, ots, gizadi ororentzako dugun YESUKRISTO'ren etoŕerakoan amaitzeko beaŕa.

—Aoz-ao eldu zaigu gaurdaño, jentiĪen beŕi iĪuna; nortzuk izan ziran gurean jentil ayek?; izan al zan iñoiz, gure eŕialde ontan, jentil-eŕirik?, ala ipui-eŕietakoa baño besterik ez? Bearbada mendi auetan bizi-izan ziran jentil ayek euzkaldunak berak ziran, kristau-erlijioa ezagutu ez zutenak. Lendabiziko kristauek lengo beste erlijiokoai oŕelaxe deitzen zieten, jentiĪak; eta oŕengatik ustekoa da, emen

ere gure erlijioa zabaltzen asi zanean, lengoai ta Beŕi-Ona onartu nai-izan ez zutenai ere, jentil izena bera eman zietela.

—Eta nundik datoŕ jentil ayek KRISTO'ri eman zioten KISMIE izena? Oŕa argi ez dagoen beste gauza bat eta gaur emen ez dugu ortan sakontzeko beaŕik. Baña guzi ortaz auxe dago guri ikustea dagokiguna. YESUKRISTO'ren etoŕeran, guzientzako ta bakoitzarentzako etoŕera ortan, zerbait amaitu beaŕ dala; noski, YESUKRISTO onartu ezkero, YESUKRISTO gure biotzetan bizi dediīa nai baldin badugu.

—Orixe da guretzat eta gizon guzientzat gaŕantzi aundienekoa, YESUKRISTO onartzean gure lera ta giriña gaizto guziak, ots, ogena ta ogena-gai dan oro, gugan zearo amaitzeko beaŕa. Auetxek ditugu, zalantzik gabe, guretzat egiazko jentiīak, ogenak, okerbideak; eta Kepa Deun'ak YESUKRISTO jaŕaitzeagatik guzia utzi zuen bezela, geuk ere, jentil oyek, gure ogen eta gaizpideak, utzi beaŕ ditugu YESUKRISTO'ren jaŕaitzaīe onak izan nai badugu.

—Oŕa nola ikus dezakegun ia gauza bera, Kepa Deun'ak egindakoan eta aurtengo zuen jayetako asieran, zuen gurdi-edeŕean erakutsitakoan. Izan ditezela erakuspen bi oyek, guretzat, KRISTO'ren bidean gero ta kementsuago jaŕaitzeko ikaskizun onak, alkaŕenganako adei ta maitasunaz eta beti gentzarako bidean. Izan bedi oŕela.

Amaitu zan itzaldia, ta Meza ere uŕengoan. Lagun-abaŕak paŕastaka ateratzen asi ziran elizatik, ez uŕutira joateko asmoz ala ere. Ba-zekiten orok, Meza ondoren jai-egitarauak egiteko iragartzen zuena: «Alaitasunaren jaya», auŕak ain zuzen egin beaŕ zutena. Gerturik zegozen ortarako ere umeak eta gogo aundiz gañera beren eginkizuna betetzeko. Oŕengatik etzan izan zaīa andereñoentzat, auŕ guziak enparantzaruntz eramateko, ta laisteŕ an leŕokatu zituzten eŕizka, eŕi bakoitzakoak gurpil baten oŕaila antzeko bat egiten, enparantzaren erdi-aldetik lekoreruntz jaŕita, lenengo leŕoetan biñaka ta atzealdekoak iruñaka, baña guziak erdiruntz begiratzen.

Talde bakoitzean azken tokian zegozen bi auŕek beren eŕiaren izena ageŕerazten zuen eunezko zeŕenda bat zabaldu zuten; umeen auŕean andereñoak eta guzien erdian txistulariak, auek ere obo bat egiten eta umeenganuntz begira. Enparantza-erdian eresia jotzeko jasota zegoen gorasko lekuan, bi ziñegotzi ta jayak antolatu zituzten batzordekideak, umeek abestu beaŕ zutena epaitzeko ta jaŕitako ziran sariak zein eŕikoentzat izango ziran erabakitzeko.

Doñu berean eŕi bakoitzeko ume-taldeak sei bertso abestu beaŕ zituen, eta bertso oyen bidez, talde bakoitzak ere, aberetxo bati buruz zerbait egokia adierazi beaŕ zuen; asmo ortaz ere len esandako zeŕendan, eŕiaren izen pean, bakoitzak aipatu beaŕ zuen abeltxoaren izena ere agertzen zan.

Uŕenez-uŕen abestu beaŕ zuten taldeak erne-erne jaŕi ziran, ziñegotziak bakoitzaren eŕiaren izena ta berari zekogion aberetxoarena esan orduko asteko. Asieran eta talde bakoitzaren bertsoen uŕengo, guzientzako atondu ziran beste sei bertso, guziek batera ta beste doñu bateaz abesteko ziran, eŕi guzien batasuna egiten zuen udalaren izenaz, AZPAŔENA'ri buruz egiñak; eta azken bi bertso, pozkariozko lekayoren antzo ematean, auŕ guziak, bakoitza bere tokian, bi birunda eman beaŕ zituzten, aldi berean bi besoak goruntz jasota.

Txistulariek emango zuten asiera ta Azpaŕena'rekiko azken bertsoai, doñu egokiaz, eutsi beaŕ zizkien, lekayoaren oyartzuna bailitzan.

Oŕela asi ziran, bada, ziñegotzi batek asteko kiñua egin zuenean. Txistulariek saŕera eman eta auŕ guziek, gero, onela abestu zuten:

AZPAŔENA abeslari,
Poz, alai, oro bizi.
Eŕiak txistulari,
Txiruliruli beti.
Beti txiruliruli! (birunda ematen)
Txiruliruli, txiruliruli ...! (birunda ematen)
.....!

Txistulariek ereskitxo batzuk, azken bertsoai jaŕaitzean, eta ziñegotziak, iragartzen:

ANDOIN — katutxoak!!; Andoin'go auŕek orduan:
ANDOIN'daŕak egun
Katutxoak legun.
Mixitxu pitxitxi,
Atzamaŕ zoŕotzi.
Ametsetan aŕai
Bizi dituk alai.

Txaloka beste auŕak bai ta ikusleak ere, ta txistulariek ororen abestiaren asia ematen, auŕ guziek beŕiz :

AZPAŔENA abeslari

.....

Auŕekoan bezela, txistulariak ekin eta ziñegotziak :

IBARGUREN — txakurtxoa ! ! ; Ibarguren'go auŕek :
IBARGUREN xamuŕ
Txakurtxoa txakuŕ.
Izanik gaiztotxo
Arian kanbotxo.
Ate ondo itzaŕi
Bizi duk pozkaŕi.

Eta txaloka auŕak, eta txistulariak, eta ororen abestia :

AZPAŔENA abeslari

.....

Txistulariek abestia amaitu, ta ziñegotziak goraki :

URABAIN — bildotsa ! ! ; eta auŕ urabaindaŕek :
URABAIN'en otsa
Kizkurdun bildotsa.
Ardi-amari, be!
Goiz eta aŕatsalde.
Etzegok bilduŕik
Iñoiz eta iñundik.

Beŕiz txalo, txistu ta guzien abestia :

AZPAŔENA abeslari

.....

Txistulariek ostera ta ziñegotziak sendo :

DUŔUMA DEUNA — antzumea ! ! ; eta ango auŕek :
DUŔUMA DEUNA, bai
Antzumea garai.

Oraindik ez adaŕ
Gutxiago bizaŕ.
Ikotika jauzi
Oŕela duk ari.

Len lez, txalo, txistu ta guziek abesteko ere :

AZPAŔENA abeslari

.....

Txistulariek amaitzen eta ziñegotziak beŕiro :

EGINO — untxia ! ! ; eta eginotaŕek :
EGINO'n untxia
Mustuŕa bitxia.
Belaŕitxo luze
Egun guziz tente.
Zuloetan sartzen
Gozoki yarduten.

Enparantza inguru guzia ikuslez bete-beterik zegoela, orduan guziek auŕekin batera txalo ta abesten ari ziran :

AZPAŔENA abeslari

.....

Azken bertsoak abesten, eta besoetan umetxo ĩpiak zeuzkaten neska ta emakumeak, auŕekin batera ere berak be txirulirulika ta birundaka, ĩpiai besotxoak jasotzen, guziak soñuak eragita. Txistulariek beŕiz ekin eta denek zai uŕengo eŕia zein izango zan entzuteko gogoaz. Eta ziñegotziak :

ILARDUYA — erbia ! ! ; ta Ilarduya'ko auŕek :
ILARDUYA'n erbi
Ezin egon geldi.
Izuturik arin
Igesika mendin.
Izanik urduri
Kuiĩua duk guri.

Lengoetan bezela, enparantzan eta inguruan zegozen guziek txaloka gogotik, eta txistulariak asi bezin laisteŕ ororena abesteko :

AZPAŔENA abeslari
.....

Eta amaitzean, guziak ere, birundaka ta besoak jasotzea ta txirulirulika txistulariekin batera. Auek amaitzean beste eŕi baten txandan. Ziñegotziak iragartzen :

AMAMIO — txitak ! ! ; eta Amamio'ko umeak :
AMAMIO'n txitak
Oi ! dituk politak.
Pio-pioka ari
Ama oĺoari.
Puŕa-puŕa entzun
Oro atsegindun.

Enparantzako guziak benetan atsegindun ere umeai entzuten ; txalo bero egin zieten ; txistuek berebat zegitela zirudien, eta guzientzako abestia bera :

AZPAŔENA abeslari
.....

Txiruliruli ..., guzien aoetatik amaitzean, alaitasun betean, birundaka ta guzi. Txistularien ondotik, ziñegotziak beŕiz :

ARAYA — erlea ! ! ; ta bertako auŕek :
ARAYA'ko erle
Gogotik lantzale.
Apikotxoetan
Beti lan eta lan.
Guna xurgaturik
Ezti biurturik.

Bertso auen bidez egindako lanaren goratzea oso egoki iruditu zitzayen guziai, ta gogo beroz txalotu zuten ura ; gero txistuak jo ta ororena abesteko :

AZPAŔENA abeslari
.....

Guziak ezti-eztitan zegozela, alkaŕen leyan txirulirulika beŕiro, txistulariek lagunduta ; baña bereala ziñegotziaren abotsa :

ALBENIZ — tximeleta ! ! ; ta ango umeek gogotik :
ALBENIZ apeta
Gure tximeleta.
Lore ta lilia
Bere guraria.
Egaka txoroa
Zebilkik eroa.

Baŕez arturik izan ziran tximeletarekiko bertsoak, eta txalo ere beroki egin zieten bilkura edeŕ artan zegozen guziek ; eta txistulariek, jotzean, eman zieten bitarte txiki baten ondoren, ororentzako bertsoak abesten :

AZPAŔENA abeslari
.....

Gero ta gogo beroagoz amaitu zuten orok abesti ori txirulirulika ta birundaka. Ta txitulariak ixildurik, ziñegotziak uŕengo taldeari dei-egin zion :

AMEZAGA — igeltxoa ! ! ; berealaxe ango auŕek :
AMEZAGA ingira
Igeltxo begira.
Zapalota gaindik
Guzia ikusirik.
Idoyan murgilduz
Urtan pulunpatuz.

Guziek ezagutzen zuten ongi Amezaga ondoan dagoen ingira, ta oso egoki iruditu zitzayen ura gogoratzeko ango auŕak aipatu zuten igelarekiko asmoa erabiltzea. Beraz txaloak gartsuki jo-egin zizkieten ikusle guziek eta beste auŕek ere ; ta txistuak entzunik, beŕiro abestu zuten onela :

AZPAŔENA abeslari
.....

Jailari guziek, egitarauan iragaŕita izan bailitzan, ba-zirudien abesti ta birundaka ari-izatea, berai zegokien zerbait betetzekoa zala, ta iñork etzuen dagoaneko artaz utzik egin nai. Ta uŕenez-uŕen ekin beaŕ zan egitarauari jaŕaitzeko guziai ain nabaria zitzayelarik, ba-zekiten beaŕ zanean ixil geratzea, ziñegotziari uŕengo eŕiaren izena entzuteko yoranez beteta. Onek orduan :

ZALDUENDO — aatetxoa ! ! ; ta ango auŕ-taldeak :
ZALDUENDO latsa
Aatetxo isatsa.
Paito-paito ari
An igarilari.
Gogoz birundaka
Alkaŕen banaka.

Txaloak irabazi zituzten zalduendotaŕak ere, guzia txalogaŕi izanik, txalotzeko gogoa ere ba-zan eta. Beste txandaetan lez txistulariek jo, ororentzako abestiari saŕera ematen :

AZPAŔENA abeslari
.....

Abestiaren amayean alkaŕen leyaz oro, abestuz eta biraka ; txistulariek gogoŕ poz-ikarazko lekayo ura gaintzeko ; ta ziñegotziak :

GALAŔETA — usakuma ! ! ; ta usakumak ziruditen auŕak :
GALAŔETA bizi
Usakuma ugari.
Etxe-goyan uŕum
Egunero yardun.
Oyek pozaŕen-poz
Maite-izanik gogoz.

Eta txalo gartsu galaŕetataŕentzat ere ; txaloai txistulariek jaŕaitzen eta ao batez enparantzako guziek sutsuki :

AZPAŔENA abeslari
.....

Iñork etzuen nai, guzientzako joko ura ain atsegiña zitzayelarik,

jayaren ezer galdu ta, luzetxoa bazan ere, an ari ziren guziak birundaka ta beren txirulirulika. Beti bezala, txistulariek ekin, eta ziñegotziak eŕan :

GORDOA — txoriñoa ! ! ; ta txorien antzo, auŕek :
GORDOA'n soiñoa
Lerden txoriñoa.
Goizean txiruli
Aŕatsan liruli.
Poz egaz aidean
Poz tatez luŕean.

Etzitzaizkien ukatu auei ere ororen txaloak ; txaloak txistulariek gaindu zituzten, guzientzako abestiari asiera emateko :

AZPAŔENA abeslari
.....

Aundi ta txiki, emakume naiz gizon, denek amaitu zuten abestia, biraka ta besoak buru gañetik jasoak, eta txiruliruli ura ezpañetan. Baña beŕiro txistuek lekayo ura itzalerazi zuten, ziñegotziak uŕengo eŕiaren izena eman al zezan :

AŔIOLA — katagoŕia ! ! ; ta aŕiolataŕek berealaxe abesten :
AŔIOLA'n goŕi
Beti katagoŕi.
Zugatz adaŕetan
Yauzika ernetan.
Maŕuskatuz uŕak
Gozatuz apuŕak.

Aŕiolataŕentzat ere txaloak ugari ; txaloai txistulariek jaŕai zieten eta auei guzien abestia, uŕenez-uŕen beti :

AZPAŔENA abeslari
.....

Etziran aspertzen, ez umeak, ez andereñoak, ez jailariak ere, gogoz abesteko, birundak emateko ta guziengandik sortzen zan poz-

-aldi artan murgiltzeko yoran bizia ageŕerazteko. Txistuek jotzean ba-zekiten alaz ere ixiltzea, ta orduan ziñegotziak: Azkena! ...

EGILAZ — txinduŕia!! iragaŕi zuen; azken taldeak ekiteko:
EGILAZ iraulitz
Txinduŕiak aunitz.
Aletxo bilduan
Zearka zirkuan.
Udaran yardunez
Neguan ez gosez.

Egilaztaŕek ere beste eŕietakoek ainbat txalo irabazi zuten pozik. Eta jai-alai ura amaitzeko, guziek abestu zuten gogotik ororen abestia:

AZPAŔENA abeslari
.....

Txirulirulika ura guzien ezpañetatik bitsetan beŕizkatzen, bazkaltzera joateko abiatu ziran aundi ta txiki, auŕ abeslariak eta entzuleak, aurki enparantza utzik geratu zalarik.

Umeai, an aldamenean zegoen eskola batean udalak gertu zien, berentzat eta andereñoentzat bazkari edeŕa ta an bertan banatuko lizkieke sariak eta gozokiak.

Mikel, Martin'ekin eta onek deitutako beste batzuekin, Araya ta zenbait eŕietakoekin, Zubiauŕ ostatuak zeukan borde egoki batean, berentzat bereziki atondu zuten mai batera bildu ziran; ogeiren bat lagun alkarturik eta oyen artean Araya'ko ola batean lantegi-maisua zan Yokin, aspaldidanik Mikel'en adiskidea zana, Azpaŕena'ko beste bilkura baten antzo. Guziei Martin'ek dei-egin zien lendik, ain zuzen Mikel'ek bere asmoetaz itzegin zizayen, jai ayek ustiatzen.

Gazteak ziran guziak, ogetabi ta ogetamaŕ urte artekoak, eta Martin'ek zertxobait esan bazien ere, Mikel'ekin egoteko gogoaz erdu ziran berari entzun-miñez.

Ba-zegoen an jan-gura, ta ez txikia; noski, guziak gazte izanik janariari lotu zitzaizkion miliki-malakarik iñor ibiltzeke, ta alaitasun edeŕaz ongi bete zuten sabela; azkenez, akeita artzerakoan:

—Martin'ek: Tira, Mikel, ordua dukala uste diat adiskide auei ire asmoen beŕia emateko, ortarako bereziki bildu gaituk-eta.

—Mikel'ek: Bai noski ta pozik; nik ere orixe nai baitikiat.

Oŕen zai zegozen guziak eta adi-adi geratu zitzaizkion Mikel'i. Onek berealaxe asteko:

—Adiskideak, ene ustez guziok alkaŕ ezagutzen dugu ta geyenok ia auŕak izan giñanetik; guziok azpaŕendaŕak gera ta luŕ onenganako maitasunean orok bat dagigula ere.

—Dagoaneko dakizutenez, nire ikasketak amaitu ondoren, lan biīa beste toki batera joan gabe, ene gurasoen etxean geratzea erabaki dut, naiz etxea naiz luŕa barne-barnetik maite ditudalako. Gurasoak ontzat artu dute nire erabakia ta adiskide batzuentzat ere pozgaŕia izan da; oŕela adoretsuago asi natzaizue, eŕian nire bizi beŕia antolatzen.

—Jakiña, nire lanbidean ez dut nai gure auŕekoak ibiīi diran bideetan bakaŕik ari-izatea; ori egingo banu, nire ikasketa guziak alpeŕik izango lirake-egiñak, eta ain zuzen luŕarenganako zaletasunak eragin ninduen ikasketa oyetan yarduteko; ta nire xedea, naiz luŕa lantzeko naiz abereak azteko gure auŕekoek erabiīi dituzten bideak iñola ere uŕuñatu gabe, al bada oyetxek obetu ta beste beŕiak idekitzea duzute. Nire gurasoen etxean asiko naiz ortaz, eta edonor joan al-izango da egingo dan guzia ikustera, batez ere Azpaŕena'ko nekazariak, eta ikusitakoa ontzat arturik noredonork bere eŕian edo bere etxean berdin egitea nai-izan ezkero, ni beti egongo naiz edonori nire laguntza emateko gerturik.

—Ori ez da gauza aundirik izango, ta ori baño geyago egin ditekela uste dut, ez bakoitza bere etxean bakaŕik ari-izatean, baña guzien artean eta guzien onurako. Nik uste dut gure luŕetik, gure mendietatik eta gure abereengandik etekin geyago atera ditekela; ene ustez gurean, gure luŕ ontan, guziok geyago irabazi dezakegu iñora joan gabe ta bertan lanegiten. Ortarako, zuek eta Azpaŕena'ko nekazariek asmoa ontzat artuko bazenute, auxe dugu bide egokia: Nekazarien Elkargo berezi bat irastea: erosketak eta salketak obeki egiteko, esnetik atera ditezken etekiñak, guriña bezela, egiteko, oīo ta txitak ugaritzeko, igaliak salgai egokiago aurkezteko, apika uruna ta opiltxoak eta sagardoa ere egiteko ta sortu litezken beste gauzak ere lortzeko. Alegia, ezin guzia asieratik egitean jaŕi, baña bein Elkargoa irasita bertan ikus genezake nundik asi ta nola jaŕaitu. Ta Elkargo'ak nekazaritzarako ikastola berezi bat ere antola lezake, bizibide ortan jaŕai nai-izango luketen gazteentzat.

—Ba-dakit guzi ori egiteko, oztopo aundi bat aurki dezakegula; ain zuzen gure izaera bera, euzkaldunen ayuŕia; bai, ongi dakit euzkaldunak maite ez dutela besteekin alkarturik ari-izatea, bakaŕik nayago dute lanean eta beste gauzetan ere yardutea. Baña auŕeratu nai baldin bada, besteengana joan beaŕ da alkartzearen indaŕaren biīa, ta ortarako alegiñak bete nai-izango nuke.

—Elkargo-bidea oso bide ona dala uste dut lan-mota askotarako. Ara, emen ere, Araya'n, lantegiak antolatzen asi dira; lantegi bakoitzean ugazaba bat egotea ez deritzait egoki, bera ta langiīeen artean naigabe ta liskaŕak sortzeko bidea izan ditekelako; ugazabak beti gero ta geyago irabazi nai-izango du ta langiīeai egunari bateaz, alik eta txikiena gañera, ordainduta, ortan geratuko da. Ene ustez obe izango litzake lantegiak ere, bakoitza bere langiīe guzien arteko Elkargoa bezela antolatzea. Nai baduk, Yokin, aŕ zak asmo ori, ia, berealakoan ezpaduk, gerorako edo, bide ortatik ezer egin ote ditekean ikusteko. Gañera, lantegiak oŕela atondu ezkero, Azpaŕena'ko eŕietatik alde-egin beaŕ-izango duten gazteek lantegi oyetan aurki lezakete lan egokia, ta naiz luŕa naiz lantegiak era berean ari ezkero, Azpaŕena'ko guziok alkartasun onean bizi al-izango giñake. Gaur goizean auŕ txikiak egin dutena, eziña izango da gizonok gure maīean burutzea ere?

—Jakiña, gaurkotz asmoa oŕela aurkeztea bakaŕik naikoa izan beaŕ. Nai baduzute, nire asmoa ontzat artu ezkero, eŕietako zuen ezagunai jakin-erazi dizayekezute. Nik egitamu bat eratuko dut asteko ta zuei erakusteko, ta zuek eta besteak ere ongi aztertu ondoren, guzia ala zerbaitean ontzat artzen baduzute, Elkargoa burutzeko bidean saŕ gindezke; ta edonork oŕezaz ezer esan edo galdetu nai badu, gerturik aurkituko nau ta pozik guziekin mintzatzeko.

—Oraingoz ori oŕela utzi dezakegu; baña gaur zuen auŕean ene baitan daramadan guzia agerian jaŕi nai dut. Beste asmo ta kezkak, ugari, baititut, guziona dan Eŕi'ari buruz, Euzkal-Eŕi'arekiko. Guziok ere ba-dakizute gurean beŕogei urte auetan zer jazo dan. Gure auŕekoak, itsutuki, alkaŕen aurkako guda zikin eta gogoŕ batean murgildurik bizi-izan dira luzaroan, alkaŕenganako goŕotoagatik. Bearbada, zuen gurasoak, emen, aldamenean izan zan erasoaldi ikaragaŕiaren beŕi eman dizuete; ni umea nintzalarik gertatu zan ura ta nire bizi guzian etzait aiztuko orduan ikusi ta entzun beaŕ-izan nuena.

—Jakin ere, ba-dakizute Amamio'ko agintariek, eŕiko guziekin

batera, alkaŕen aurkako ari ziran talde ayen buruzagiei egin zietela deya, pakearen alde goŕotoa menderatzeko ta euzkaldun guzien alkartasuna eskatzen Eŕi'aren azkatasuna ta biziari eutsi al-izateko. Beaŕ-beaŕa ikusten zuten ori amamiotaŕek, ongi baitzekiten, ego ta ipaŕaldetik, arerioak Euzkaleŕia menperatzeko txedeaz zegozela. Alpeŕik oso dei ura. Eŕiberataŕek eta eŕigoitaŕek gero ta amoŕatuago beren eŕaz eta alkaŕ zanpatu nayean, Eŕi guzia, odolez, malkoz eta eŕakundez mukurutu zuten; azkenez, talde bakoitzak bestea gañeratu eziñean, lenengoek egoaldeko aŕotzai laguntza ekartzea eskatu zieten, eta berebat egin zuten bigaŕenek ipaŕaldekoai berbera eskatzen. Ara, deitoragaŕia izango ezpalitz, paŕegaŕitzat artzekoa dan jokera: anaya menperatzeko, ororen etsayai deitu, guzien etsaya danari; ulerkaitza benetan ergelkeri ura.

—Ego ta ipaŕaldekoek etzuten besterik nai, ta berealaxe sartu ziran gudarozte aundiz, adiskidetzat artu zituztenak laguntzeko aitzakiz, eta alkaŕen aurka ere ari zirala antzeman zuten asieran; baña gure Eŕi'ko toki berezienak gudarien bidez artuta, aurki alkaŕekin itundu ziran gure luŕ guzia beren artean banakatzeko; beren arteko muga jaŕi zuten gure Eŕia bi zatitan erdibiturik uzteko; oŕela bakoitzak bere aldetik muga ortaraño artu zuen beretzat luŕa ta ortaraño ere edaerazi zuten beren Eŕi'en zabaltzea.

—Uste dut zuentzat guzi ori beŕia ez dala. Gero ongi dakizute zer gertatu zan gurean. Arerioen menpean bizi beaŕ dugu; ez da ontzat artzen gure Eŕi'aren nortasuna ta etsayentzat suntzitua dago betiko; gure izkuntza ez da ezertarako onartzen eta euzkalduna dan guzia ezabatzen ari da arerioek alde guzietatik eragita. Oŕela jaŕaitu ezkero, gure Eŕia iīa geratuko zaigu, lentxo ala geroxeago. Beraz ene ustez, eta ez naiz bakaŕik ortan, beaŕ-beaŕa zaigu euzkaldunok alkartzea gure abeŕiaren alde jokatzeko. Ikasten ari-izan naizenean beste euzkaldun batzuk ezagutu ditut aburukide ortaz eta toki berean ikasle giñan lau bederen ortarako lanegiteko alkaŕi itzeman diogu.

—Oldoz ezazute, otoi, guzi oŕezaz ere. Nik neuk, beti, guzirako gentza-bideak erabiltzeko aleginduko naiz gogo-gogoz, besteak, buŕukarakoak, guztiz kaltegaŕitzat dauzkadalako; alaz ere eztakit, besterik eziñean, ortan ere sartu beaŕ-izango ez ote dan.

—Gaur azaldu dizkizuedan asmoak, berez, bi motazkoak dituzute: bat, bizibiderako, Azpaŕena'koen artean egin genezakenaz; bestea, Eŕi'aren azkatasun eta bizirako dagokiona. Biak dira, nerekiko,

gaŕantzi aundienekoak eta bietan barna yardun nai-izango nuke nire biotz guziaz. Orain zuei dagokizue oldoztea ta oyei buruz erabakitzea ere, baña edozein moduz beti izango nauzute guziontzako adiskide.

Oldozti ta goibel xamaŕ geratu ziran guziak Mikel'ek buruz-buru bere gogoa jakin-erazi zien ondoren; argi ikusten zuten entzundako asmoak auŕera eramateko, erantzukizun aundia zala leporatu beaŕ zana, ta aikolo-maikolo iñork etzuen ezer esan; ezin alaz ere ixil luzaroan egon eta azkenez Yokin'ek Mikel'i onelaxe itzegin zion:

—Ez duk makala, adiskidea, emen azaldu digukana, bete-betean biziari berari zegokioalako; bakoitzaren biziari, Azpaŕena'koari ta Euzkal-Eŕi'koari. Ben-benetan gaŕantzi aundiena zegokik asmoetan; bidezkoa dukanez, gure erantzuna jaso nai edo diguk, baña ene ustez, beti, eta emen erabiltzi ditukan arazoai buruz batez be, erabaki baño lenago astiro ta sakon oldoztu beaŕ dik norberak bere baitan. Nik neuk ori egitea agintzen dikiat eta guziontzat oŕela jokatzea onena izango dalakoan nagokizue.

—Mikel'ek: Orixe bidezkoena, noski, nik ere asmo oyek nire-ganatu baño lenago, luzaroan egon natzaizue-ta, nire baitan irabiatzen. Jakiña, gaur zuek eta euzkaldun guziak ere aburukide eukitzea nai-izango nuke, baña argi dago oŕeraño eltzeko bidea luzea izan beaŕ dala, iñoiz eldu al-izan ezkero. Dana dala, bakoitzaren erabakia norberari dagokio, ta zuen arteko bat edo bi edo guzioi ere, nik aurkeztu dizkizuedan bideetan sartzea ongi iruditzen ezpazaizue, ziuŕ egon zaitezkete ni guzionganako adiskide beti jaŕaitzea nai dudala.

Ontzat artu zituzten guziek Mikel'en azken itzak eta besterik gabe kaleratu ziran aŕatsaldeko jayak ere ikusteko xedeaz. Dagoaneko ba-zegozen beŕiro aide garbian goizeko auŕak. Gure adiskideai esan zietenez, lenengo saria Gordoa'koai eman zieten, beren bertsoak politenak bezela epaitu zituztelako, ta bigaŕena Araya'koai, ain zuzen lana goratzeko izan ziralako. Baña beste auŕ guzientzat ere beste sari edeŕak eta gozokiak ugari izan ziran.

Ongi ta alaitasun aundiaz bazkaldu ondoren, kalera beŕiz guziak. An sei taldeetan banaturik, Araya'ko sei auzoetara: Urbero, Andera Mari, Marmario, Goikoetxe, Intusi ta Iduya'ra bana joateko, ta goizean enparantzara joan al-izan ez ziranentzat, beren bertso, abesti, oyu ta birundak eskeintzeko; oŕela alaitasunezko jai ura gozatu gabe iñor gera etzedin. Xede yaukala benetan, zaŕ eta gexorik zegozenak batez ere biotz-biotzetik eskeŕonez onartu zutena. Bere bira egin

zuen talde bakoitzak bi txistulari berarekin eramaten; eta eŕi guzia jai alai artaz bete-betean bizi-izan zan Kepa Deun'aren egunean.

Aundientzat, bolaketa, pelotaldi ta beste jolas batzuk izan ziran, eta azkenez, ain egokiro ospatu izan zan egun edeŕ ura, beste egun guziak bezela, bere aŕats eta gaua ezagutzera abiatu zan, aldiaren igaro-beaŕari men egiten. Uŕutian zegozen eŕietako auŕak izan ziran lendabiziz alde-egin zutenak, eŕi ayetako aundiak ere beren atzetik joateko. Amamiotaŕak orobat egin zuten geroxeago, guziak bezela asean eta betean; eta Mikel ere pozik, bere asmoai buruz beste uŕats egoki bat eman zuelakoan.

Sabin'en beŕiak

Egunen bidean uztaīlarenak asi ziran berotan igaroten, uŕenez-uŕen; batzuentzat, ikasleentzat batez ere, opoŕaldietarako txit egokiak; nekazarientzat, uztaroaren asiera bezela, galsoroetan galburuak nola aletzen ziran yoranez ateman eta uztaren ametsetan; beste batzuentzat, ibīaldi ta txangoetan, naiz mendiz-mendi naiz ondartzetan, beren burua pozarazteko; amaikatxoentzat, eguneroko lanean geldi-aldi bat egitean, atsedena gozatzeko girokoak. Era askotara geyenentzat, lanaren ondorioak eskuratzeko aro egokiena bezela il oŕek irikitakoa; ta buruausteak geyago ala gutxiago zokoraturik eta aiztuta bezela uzten dirala-ta, gizakiak oro alkaŕenganako gogo obeaz emanik edo, uztaīla gentza-iīa ere izateko egokienetakoa.

Mikel'entzat urte artan etzan izan uztaīla auŕeko beste urteetan bezela. Lenbailen asi nai zuen bere eginkizunetan sartu ta etxekoek opoŕaldi bat artzeko eskatuaŕen, asteko iraduz zebīen eta lanari lotu zion bere burua buru-belaŕi. Alaz ere, yarduteko astiro ta uŕatsez-uŕats ari-izateko erabaki zuen lenagotik ere. Bere bizibidea, barnean zeramazkien asmoai zegokienarekin batera antolatu nai zuen, eta lenengo elburua bezela bere eŕitaŕak eta azpaŕenataŕak ere irabaztekoa zala ikusten zuen.

Oŕezaz aitarekin itzegin zuen bi edo iru aldiz, bere onuak ustiatzeko xedeaz. Ondo ezagutzen zuen aitak ango nekazarien yitea, lan-era edo zala kari, gogoanbeartsu beti oiturazko bideetatik irteteko ta galtzerakoan ez sartzeko, zaīak agertzen ziran, bilduŕ eta uzkuŕ, beŕikitan ibiltzeko; ta gogoan eukitzeko izan zan ori Mikel'entzat, naiz eta bere neuŕian zuurtasunak eskatzen zuena obe izan litekena uste-izan. Dana dala, berak ere argi ikusten zuen izaera oŕekiko, eroapen aundiaz jokatzeko asmoa artu zuen.

Oso gogo aundia zan bere barnean gatzatu zana; luŕa maitagaŕia izanik, luŕetik bizi ziranak ere barnetik maite zituen eta bere luŕekoak areago. Beren alde yardutea eginbidea bezela zeukan eta bere eginbeaŕ ori betetzeko, gerturik zegoen gogotik lanegiteko. Baña bide batez, Euzkaleŕi osoaren alde ere ekin beaŕean, ortarako irabazi nai zituen lurtaŕ ayek bereziki ta ori, ausaz, neke-bideetan saŕeraztea izan litekelarik, asmo biak alkaŕen aurkako bezela agertzen zitzaizkion saŕi. Noski, ba-zuen bere oñaŕia, bigaŕen xedearekiko oldartsu ta kemen ari-izateko, bidezko ta ezinbestekoa baitzan berarentzat abeŕiaren gaizkatzean euzkaldun guziak yardutea, ororentzako ukagaŕi etzan baitezpadako eginbidea izateaz.

Ba-zeukan biotz-erdian ere ezagutu diogun beste iŕika bizia, gentzarako gogo aundia, ta gogo ori beste guziengan erein eta soŕerazi nai zuen, ezin-idukia zan lei kementsuaz. Eta oŕelako burutapenetan ari zan guzietan, buruz-buru zebilzkion bere baitan, alkartzeko eziñak bezela agertzen ziran jokera biak: Eŕia azkatzea ta gentzarako yardutea; eten gabe ari zitzaizkion bere bizirako onartu zituen bi xede ayek gogoŕ, eta alkartzeko zailtasunak atematean miñez jo-ta geratzen zan beti.

Oŕelaxe minduta egonik ere, edozein eraz, nekazariei zuzen zegozkien bideetan asiko zan, alde batetik xede ori benbenetan berea zalako, ta bestetik bigaŕen xederako ere oñaŕi ona izan litekelako.

Etxekoari buruz, naiz nekazaritzan naiz abereak izan, edozein gauza egin baño lenago, aitaren iritzia ezagutzea beaŕa zeritzayon eta bere lendabiziko egikizuna nola ikusten zuen erakustera aitagana jo-egin zuen.

—Mikel'ek: Aita, ia zer deritzaizun nire asmo au; naiz eta betidanik gure ukuīuak etxeetan bertan egon, ene ustez obe izango litzake etxetik at jartzea osasun-bideagatik batez ere; ba-dagoz, gañera, ukuīuak egokiago atontzeko auŕerapen edeŕak, abereak berak aukerazko egokera obean egon ditezen eta ukuīuak garbiago ere eukitzeko. Ongi baderitzaizu egitamu bat maŕeztuko dut eta gero alkaŕekin begiratuko dugu gañeratzeko ala kentzeko beaŕa zer izango dan, bai ta nun eta nola eraiki genezaken ukuīu beŕia.

—Aita'k: Ondo zegok. Ukuīua etxetik aldentzeko asmoa ona duk eta gure basetxe guzietan oŕelaxe egin ezkero, ene iduriko ororentzat izan litekek onuratsu. Ta al badezaat ba-dakik pozik lagunduko audala beti etxeko ta luŕeko arazoetan.

—Mikel'ek: Eskaŕik asko, aita; oŕelakoetan batik bat ez dut ezer egingo zure aolkua lendik jaso gabe.

Atsegin zitzayon aitari, mutīla berarenganako oŕen apal eta adeitsua ikustea, ta goiko ikasteetan jakitunago izanaŕen, zaŕaren iritzia aintzakotzat zeukala adieraztean. Oŕengatik ere gogotsua zebīlen aita bere semearen asmoai jaŕaitzeko ta oyen bidean oztopoak ikusiaŕen. Txit ongi iruditzen zitzayon Azpaŕena'ko Elkargo arena batez ere, baña, urte luzeetan barna lugin ayekin alkarbidean ibīli ondoren, ororentzako ekintza batean saŕeraztea guztiz zalā izango zalakoan zegoen. —Nola oyei oŕelakorik buruan sartu?—, galdetzen zion bere buruari. Etzion semeari kezka ori estali nai-izan, eta Mikel'ek ere etzuen arazoa askoz eŕazagoa ikusten; ori zala-ta, burutzeko bideak areago zabaltzeko asmoz, eredu on bezela, gauza batzuk egin nai zituen lenengoz, auŕerapenak eta oyetatik atera litezken etekiñak begien bidez atemateko aña izan zitezen.

Alakotz, auŕerapenak bere etxean egiten astea beaŕena zala iruditzen zitzayon, eta ori artu zuen, bere asmoak adiskide batzuei itzez azaldu ondoren, betetzeko uŕengo uŕatsaz; eta xedeari jaŕaituz, bere ekintzari lotu zitzayon gogoz, buru ta biotz, aiko-maīkorik iñoiz ari ez izateko gerturik.

Bere aitarekin ukulu beŕiari buruz itzegin zuen egunaren uŕengoan, bere lan-mayean egitamuaren lenengoko maŕak ingian egiten zegoenean, ama eldu zitzayon gutun bat eskuan. —Ona Mikel iretzako gutuna; ba-zeukak azta gero, ta oŕ idatzitakoa ez edo duk gutxi.

—Mikel'ek: Eskeŕik asko, ama; norena ote? A...!, Sabin'ena, ongi ezagutzen dut aren izki-era ta ba-nengoen zai. Ia zer diñoen.

Guzia utzita, artegatsu azala uŕatu zuen aida batez eta yoranez asi zan bere adiskideak idazten ziona irakurtzen. Onela ziñoen Sabin'ek:

—Aguŕ Mikel, adiskide on ori: Emen natxetoŕek alkaŕengandik aldendu ginduanean eskeiñi nizuena betetzeko nayean; nik nai nian baño beranduago, baña ikusiko dukanez nire uŕatsetan barna eŕaztasunik ez eta aurkitutako eragozpenak gaintzeko eztiat lan makala bete beaŕ-izan.

—Ongi al abil oŕ, Amamio paketsu ortan? Etxekoak ere ondo? Ia oŕela ote dukan oro, ene biotz guziaz opa dikiadan bezela. Emen irakuŕiko dukana Xabier eta Eneko adiskideai ere bialdu zieat, irurok beŕi berberak ukan ditzazuten. Etzekiat zuengandik ezer, baña oŕek enatxiok aŕitzen gure aŕemanetan ni asteko geratu baikinduan. Ona bada nire argibidea, nai bezin laisteŕ ez emanaŕen.

—Zuek utzita, ona eldu bezin laisteŕ asi nintzaizuen zerbait egiten; ez diat uste iraduz ibīli beaŕ diagunik, naiz eta gauzak lenbailen egiñak ikusi nai-izan. Gure Eŕi'aren beaŕa begiratu ezkero, guzia lenbailen burutzea ere txit noraezekoa duk noski. Baña ene ustez astiro yardutea zegokiguk uŕatsak alpeŕik ez emateko, ta gure egipen guziak al eta sendoenik tinkotuak gera ditezkan.

—Aide ta adiskide batzuengana jo-egin nian, berez bideratu zitzaizkidakan mugonak ustiatzen batzuetan, eta besteetan abaguneak neuk soŕerazten.

—Nik esana entzutean txunditurik geratzen ituan geyenak, ez ituan aŕituago izango Artizaŕ'an gertatutako zerbaiteaz itzegin baniek; niri, ostera, etzitzaidakan ori aŕitu ongi bainekian gure eŕikideen artean gure edestiarekiko jakin-eza aundi-aundia dukala. Dana dala orixe beŕiz atematea egokia zaiguk.

—Ona emen orain nire bigaŕen oartzea, bera ere aŕitzekoa ez dukana: geyenengan, asieran ere, gure abeŕiaren biziari buruz ajola-gabetasun izugaŕia. Zer gerta zayek euzkaldunai? Eŕi batek ukan beaŕ dikan gaitasuna ez ote duk ezer guretaŕ oyentzat?; eta orobat gizona bezela mail ortan bertan ikusi beaŕ zitekean garaitasuna arbuyatzea auntzaren gaberdiko eztula baño gaŕantzirik ez? Nola baña, urte gutxietan barna gure eŕitaŕak oŕen beeraño jaustea?

—Bi egipen zitiagu, beraz, abeŕiari buruzko arazoan: ez jakitea ta ajolik-eza; bearbada bigaŕena lenengoaren ondorioa baño besterik ez duk, ta oŕela izatea nai-izango nikek biotz guziaz. Ondorengoz beaŕena izango zaiguk gure Eŕi'aren edestia gure anayai irakastea, ia ezagupen oŕen bidez gaitasun-zentzuna ere berenganatzen ote zayekan.

—Jokuan Eŕi'aren bizia diagu, ta abeŕia, guretzat, Euzkaleŕia dukala onartzen baditek, bera maitatzea bidezko ondorioa izan beaŕ, ta bide batez Eŕia nolakoa diagun ezagutu ezkero, bere biziari eusteko gogoa sortzekoa duk gizona dukanarengan.

—Ba-zegok oindiño bezte azpegi berezia begiratzeko. Europa guzian langintza beŕia zabaltzen ari zaiguk menastak ustiatzeko ta oyetatik ateratzen ditukan metalak lantzeko, eŕuz jaso ta atontzen zizkigutekan lantegiak idekitzen. Ortik gure elbururako egokiak ez ditukan bi ondorio auek ikusteko zitiagu: Ekintzak antolatzen zitizteanak, oyetatik obari aundiena lortzeko ari-izango zaizkiguk eta

elburu ori izango ditek berentzat nagusiena. Euzkalduna egiterako jayoa dukala zirudik; nonbait indaŕ aundia oartzen dik bere baitan eta egipenetan edatzeko beaŕa zayok. Eta gure arerioek jaŕitako lege ta norabideetan barna ekintza guziak antolatu ta zabaldu beaŕ-izango ditukalako, ekintza oyen artezkariek ontzat artuko zitiztek baldintza oyek eta eztitek onartuko oyen aurka soŕ ditekean ezer; alakotz, gure xedeetarako oso zaĪa izango zaiguk oŕelakoak irabaztea.

—Zera ortatik ba-zetorkiguk beste ondorioa, guretzat ezegokia ere; langiĪeena, lenengoa bezin txaŕa, ta oraindik ongi oartzen ezpaduk ere, asiera ikusita argi zegok, artutako bidean barna auŕeratu ezkero, guztiz gorbiztuta biurtuko zaigukala. Ba-dakik Bizkaya'ko meatzak, len, bizkaitaŕ guzienak ituanak, gaur, lege aŕotzen eskeŕ, batzuen eskuetan jausi dituk eta oyek zitiagu soiĪik ayen jabeak. Oŕen uŕengo, gizonagan zegokan uŕe-goseak jokera guziak eragiten zitik, eta inguru ortan bidezkoa dukanez gogoŕ ari dituk menasta gero ta geyago ateratzen eta langiĪeai alik eta gutxiena ordaintzen, euren ziskuak mukuruz betetzeko xedeaz. Oŕengatikbazteŕ oyetako euzkaldunek ez ditek onartzen egunari ain txikiaz lanegitea ta alde-egiten zaizkiguk samaldaka; bost ajola jabeai, koko-eŕitik ekartzen zitiztek besteak, nai aña, ta oraindik gutxiago edo ordaintzeko. Beraz, gure etsayen legeen babesean, gure aberatsen norberekeriaz eta atzeŕitik eldutako langiĪeen bidez, ementxe diagun eŕialde ortan euzkal-bizia guztiz suntziturik ikusiko diagu laisteŕ.

—Eta gerorako begiratzean, bilduŕ nauk gure bazteŕetan beste ainbeste gertatuko ez ote zaigukan, mota guziko lantegi beŕiak jartzen badituk; oyen bidez beren jabeak ez al dituk meatzeenak bezela jokatuko? Lantegi oyek auŕerapen bezela aurkeztuko zizkigutek, biziak zekarkikan auŕerabidea ontzat eta pozik artu beaŕ diaguna. Baña nolabaiteko auŕerapena oŕ ba-dukala ukatu gabe, ezin aŕ ditzakeagu gure Eŕi'aren bizia suntzitzeko lantegi ta olak zabaltzen badituk, eta bideren bat, euzkal-bidea alegia, biĪatu beaŕ-izango diagu oŕela izan ez ditezkan.

—Luzeegi zijoakik gutun au, ta oindiño ba-dituk ikusteko beste arazoak: izkuntzarena batik bat, eta baseŕiena, aŕantzaleena, edestiarena, legediarena, oituraena, kirolena, ... Eŕi bati zegokiokan guzia. Gure auzia bere osotasunean begiratu ezkero, igitzeke egon liteketan Aitzkoŕi bat bezela agertzen duk; nork mendi bat bere eŕoetatik jaso? ZaĪa benetan auŕean zeukaagun lana, baña siñismenez

bete beaŕ diagu geron gogoa ta kemenez indartu, gure Eŕi'aren bizia gaizkatzea guretzat eginbide ertsiena bezela onartzen.

—Ene ustez egitarau zabala gertu beaŕ diagu; nik ba-zitiat oŕekiko asmo batzuk; zuek ere, otoi, oŕezaz oldoztu ezazute, lauroken artean ia osotzen ote dezakeagun. Eta gure lenengo biĪerarako geronenak alkaŕi aurkeztuta, oŕela asi gaitezkeala uste diat.

—Noiz eta nun egin genezakek lendabiziko bilkura ori? Nik neuk, oŕ, Amamio ortan egitea nai-izango nikek; ba-dakik nola maite diadan ire eŕi ori, beste guzientzat ereduz aurkezteko gai baituk eta euzkaldun guziok beti goraipatu beaŕ-izango genikeana. Ez diat uste eragozpenik izan ditekeala, Eneko ta Xabier'entzat, oŕa joateko, ta iri ere ondo bazeritzaik, eguna erabakitzeko geratuko zaiguk bakaŕik. Niretzat oso egokia izango litzaidakek dagoniĪaren 15'kaŕena edo; ba-dakik egun ortan emengo jayak ditukala, benetan maite ez zitiadanak. Beraz, ori eroŕek erabaki beaŕ duk, eta esandako eguna onartu ezkero, eroŕek ere Eneko ta Xabier'i esan izayekek, gero, oyek beren bayetza ematen badikitek niri jakin-erazteko; ta gu oŕ kokatzeko biderik izango dukalakoan, ori ta beste zeatzak ik erabaki bezela onartuko zitiagu.

—Ire beŕien zai geratzen nauk; ene aguŕik adeitsuenak ire guraso ta aŕebarentzat, eta onaŕ ezaidak nire besarkada anaikoŕena.

Gogoz irakuŕi zuen Mikel'ek bere adiskidearen gutun luzea ta poza ere mamitu zitzayon barnean bere adiskideekin beŕiz egoteko asmoaz. Eta Sabin'ek esondatutako eguna egokia iruditzen zitzayolako, beren bilkura ongienik burutzeko gogoaz, bereala asi zan oldozten beste guziaren auŕetik. Amamio eŕi txikia izanik, bere adiskideak kokatzeko, bere etxea toki onena izango zan, eta beaŕa ere bere iduriko; ta beren bilkurarako, egun baten ordez, bi iruditzen zitzaizkion ezinbesteko; oŕengatik etxea bere adiskideai eskeintzea erabaki zuen; jakiña gurasoekin itzegin beaŕ zuen lenengoz, bañaziuŕ zegoen oyek ere ontzat artuko zutela bere asmoa.

Oŕelaxe izan zan, benetan; egun artan bertan, bazkaltzen ari zirala, gurasoai ta MaĐalen'i jakin-erazi zien Sabin'en beŕia bai ta bere asmoa ere; ta berealaxe ontzat artu zuten guziek Mikel'en xedea. Amak batez ere: —Bai mutil, badakik i umetxoa intzanean ementxe, beren artean gudan ibiĪi ituan kankail ayek euki genitiala; nola ez zitiagu bi egunetarako ta geyago izango balitzak ere, ire adiskide oyek artuko?

—Aita'k: Bai noski, etzegok zer esanik, ire adiskideai etxe guzia zabal-zabal idekiko zieagula baizik.

—Madalen'ek: Alegiñak egingo zitiagu emengo egokera atsegiña izan dakiekean.

Etxekoa oŕen ederki erabakita, bazkal ondoan, Mikel Martin'en biīa irten zan eta onen lantegitxoan aurkitu zuen oltza ta txirloraen artean leyo-uztaŕi bat lantzean.

—Mikel'ek: Aŕatsalde on!, Martin. Lan eta lan beti?

—Martin'ek: Ala bearko. —Eta maŕusketa arotz-mayan utzita: —Zer ote i emen agertzeko?; i ez aiz uŕats alpeŕik emateko gizona, ta ziuŕ nauk solasean ari-izateko bakaŕik etoŕi ez aizela. Zer diagu, ba? Beŕi txaŕik ez, gero e!

—Mikel'ek: Ez, etzegok oŕelakorik, beŕi on bat zeukaat iri esateko. Ara, batzuetan Sabin eta gure zin-itzaren beste lagunai buruz itzegin dikiat. Geron asmo bat auxe uan, alkaŕekin azkenez egon ginduanean, urtean lau bideŕ gutxienez beŕiro alkartzea lauron lanen beŕi jakiteko ta gure xedeekiko mintzatzeko. Oŕezaz itzarturik aldendu ginduan, eta oŕa gaur goizean Sabin'en gutun luze bat artu diadala; bertan gure lenengo bilkura ementxe egitea nai diala ziñok, eta, al-izan ezkero, uŕengo iīearen 15'kaŕenean ain zuzen.

—Martin'ek: A, bai?, au poza!; ba-diat bera ta besteak ere ezagutzeko gogoa. Ta iri zer zeritzaik?

—Mikel'ek: Oso ongi, baña egun bat bakaŕik emen egon ordez bitarako etoŕ ditezkala eskatu beaŕ zieat. Aukeran diagu Sabin'ek eskatzen dian eguna Andra-Mari'arena baituk eta, bearbada, Araya'n, beste urteetan bezela, Andra-Mari auzoan jai politak egingo zitiztek; oŕela izan ezkero, oso egokiak izango dituk gure adiskideai aŕera obea egiteko, arean.

—Martin'ek: Etzegok gaizki ori, mutil, eta oraintxe buruak ematen zidaanez, ez al genezakek egin egun ortan Kepa Deun'arenean egin geniana?, ots, adiskide batzuk bildu-erazi alkaŕekin bazkaltzeko? Ta ik edo ire lagun oyetako batek, edo, utziko al didak «gure» esatea?, zuen asmoekiko mintzatzea? Neronek ere nireak egin nai baizitiat, asmo oyek ain gogozkoak baitzaizkidak.

—Mikel'ek: Oso ederki; ta niri ori otu ere ez; guztiz mugona izan ditekek abagune ori gure xedeen zabalkunderako, ain beaŕa baitzaiguk unealdi txikiena ere ustiatzea.

—Martin'ek: Utzi niretzat bazkari gertutzea ta adiskide batzuk

deitzea, aldameneko eŕi auetakoak noski; zain-muin ari-izango natzaik ortaz. Baña, ba al dakik? Len Araya'n ageŕeraziituan asmoai buruz ba-zebilzkik zuŕumuŕuak Azpaŕena'n barna ta ez gutxi alajaña, ta ... esango al dikiat? ..., bai, beaŕa duk-eta, ez guziak aldezko ta goxo, gañera.

—Mikel'ek: Eztuk ori aŕitzeko ta, asi baño lenago ere, ba-nekian orixe gertatuko uala; alde batetik, toki guzietan bezela buru bezenbat aburu, ta gure Eŕi'an orixe ta beste zerbait ere, guretasuna, euzkaldunaren nortasuna onen aiztuta zegoalarik, ain arbuyatuta zeukaagula-ta, batzuentzat geron asmoak erokeritzat artzea bidezkoa izan beaŕ. Oŕengatik eroapen aundienaz yardutea zegokiguk, eta bi norabide auetan ari: gure eskubide ta beaŕak aldaŕikatu, ta, aldi baten, ororentzako etekiñak lortzeko bideak ideki ta erakutsi; ezinbestekoa zaiguk ori, nire iduriko.

—Martin'ek: Beaŕa izango zaiguk, bai, eroapena ta ez txikia, buru egoskaitzenganako ari-izateko; baña koko-eŕitaŕak eta beren adiskideak ere aurka aterako zaizkiguk bereala ta bearbada guda gogoŕean be.

—Mikel'ek: Zalantzik ez ortaz, eta guziagatik gure egikizunak zaīak izango zitiagu beti auŕera eramateko; alaz ere ez gatxiotek okildu beaŕ, eta geron elburu nagusiaz, gure Eŕi'aren biziari eustekoaz ez diagu iñoiz aiztu beaŕ; gogorapen ortatik gure egikizunetarako beaŕa izango zaigukan kemena atera ta euki al-izateko.

—Martin'ek: Ni gerturik natxegok beaŕ dukan guzia betetzeko, ta oraingoz gertu dezaagun guzia gure adiskideai aŕera ona egiteko.

—Mikel'ek: Eskeŕik anitz Martin, ta berealaxe idatziko zieat oyei jayaren auŕeko egunean etoŕ ditezkan, emen bi egun egiteko. Uŕengo arte, beraz.

Bere adiskidea utzita, etxeruntz abiatu zan Mikel, eta, ara!, eliza auŕetik igarotzean, Lauren apaiz jauna andik irteten zala ikusi.

—Ari buruz, Mikel'ek: Aguŕ apaiz jauna, ongi beti?

—Apaiza'k: Ongi bai, ta zu nola zabiltz, lanean auŕeruntz?

—Mikel'ek: Ba ..., poliki-poliki, asieran oindiño ta auŕeratzeko asmoz, baña urduritu gabe; ondo ta garaiz eltzeko, astiro ibiīi beaŕ.

—Apaiza'k: Ez da ori uste txaŕa, gauza guziak beren kinka onean egitea orixe onena. Ta lanetik at beste asmo ta xedeak, zer?, oyekiko ere emeki?

—Mikel'ek: Emeki ta zentzunez eta ardura aundienaz oyetan

ari-izateko, ene ustez guztiz beaŕa. Bein bakaŕik adierazi ditut ene asmoak adiskide batzuen artean eta bereala esamesaka ta erausika ugari inguru ontan. Lagunabaŕak itz-jaio edo ...

—Apaiza'k: Lagunabaŕak ez ezik, nagusienganaño ere eldu da zure asmoen beŕia, ta ba-dakit atsegiña izan etzayela, ez lanari buruzko ez eta Eŕi'arekiko. Noski, zure asmoak beren mozkiñetarako eragozpenak bezela begiratzen dituzte ta berealaxe aurka jaŕi zaizkizu, batez ere lantegi beŕien jabeak. Eta ... esango al dizut? ..., bai, obe izango duzu guzia jakitea; zure asmo ta xedeak aŕokerizko landare-zituak dirala diñote, ta iritzi ori, oyengandik irtenda, zabaltzen ari da.

—Mikel'ek: Eskaŕik asko, apaiz jauna; obe da bai, ortaz izpidean zagoz, guzia dan bezela jakitea, naiz eta atsegiñezkoa ez izan. Aŕitzekorik ez esan didazun ortan, eta gaur aŕo izenondoa jaŕi nai baldin badidate, biar ero, etoi edo besteren bat leporatuko didate. Dirudunak gureganatzeko, beti izango zaigu zaĪena, batez ere dirudun beŕiak; oyek egoaldeko Eŕi'an dute saltzeko zeya ta oŕengatik angoen adiskideak izateko alegin aundienak beteko dituzte, naiz eta ortarako gure Eŕia guztiz suntziturik geratu. Oŕengatik, ene ustez, eŕazago izango zaigu langiĪeak irabaztea, luŕekoak batik bat; gañera, nire aldetik, orixe nayago dut, oyengan baitago egiazko Eŕia.

—Apaiza'k: Arazo ori ongi ikusten duzula deritzait, baña langiĪeak irabaztea ez dut uste gauza eŕaza izango zaizuela, gutxiago izanaŕen, oyengan ere diru-galea baitago; ta zuen bideetan diru-ituŕirik agertzen ez dala-ta, guziak egaŕiz geratzeko bilduŕ.

—Mikel'ek: Egia diñozu, ta guzia da aintzakotzat artzeko ta ez aiztutzeko. Aburukide ditudan ene adiskideetaz itzegin nizun len; noizean bein alkaŕekin egoteko erabakita dugu ta, ain zuzen, ona etoŕiko dira datoŕen iĪean gure lenengo bilkurarako. Amamio maite dute ayek, aspaldian emen egindako «deya» dala-ta; ez gutxi gero, ta oŕengatik ementxe asi nai dute gure biĪerak egiten.

—Apaiza'k: Poztutzen naiz eta ba-dut gogoa zure adiskide oyek ezagutzeko. Ta ia pake-bideak ote daramazkizuten zuen ekintza guzietarako.

—Mikel'ek: Ba-dakizu ene gogoa orixe dala ertsiki, ta nire barnean urduritasun bizia daramadala, maiz nai ta eziña alkaŕen ondoren ikustean; alan eta guztiz, pake-bidera jotzeko alegin aundienak egin ditzagun gerturik nauzu biotzez eta beti oŕela jaŕaitzeko asmoz.

—Apaiza'k: Yainkoa'k lagun zaitzala xede on ortaz; zuen asmoak zuzentzari buruz eta gure Eŕi'aren onurako, onak dira; baña bilduŕ naiz oyek burutzeko bidean liskaŕ eta guda ere, apika, aurkituko ez ote dituzuten.

—Mikel'ek: Izan diteke ori, Ludi ontan zuzentza oinperatzen danean beti gertatzen dan bezela; zuzentzarekiko lotsa galdurik, oŕa gaitz aundiak sortzeko iturbururik.

—Apaiza'k: Izpidean zagoz, baña alaz ere, gaitzen ordez ona biurtu beaŕ dugu geuk; zuen asmoak jakin nituenetik guzi ori garbi ikusi nuen eta aŕezkero zuen eta gure Eŕi'aren alde, bai ta bere etsayen alde ere otoi dagit egunero.

—Mikel'ek: Eskeŕik aunitz, apaiz jauna. Gogora dezagun gure Amamio au pakearen alde asi zala aspaldin eta beti ere pake-ituŕia izatea nai-izango nuke. Ba-noa, nire adiskideai Andra Mari egunerako etoŕ ditezela eskatzen idaztera, ta ene mezua garaiz artuko duzu ayek ezagun ditzazun. Aguŕ.

—Apaiza'k: Aguŕ Mikel, eta ibil ongi!

Etxeratu zan bereala gure mutiĪa, ta bere iru adiskideai idatzi zien, Sabin'i erantzuteko lenengoz eta irurei, alkartzeko egun egokiak bezela, dagoniĪaren 14 ta 15'kaŕenak esondatuz; 14'gaŕenean eltzeko ta 16'gaŕenean itzultzeko. Sabin'i, berak ere beste biei idatzi zizayela eskatu zion, ongi bazeritzayon, bilkuran erabiltzeko arazo ta gayak adierazteko.

Eta bere gogoetan murgildurik bezela geratu zan gure gizona, Martin eta apaizarekin egon ondoren len baño areago ausaz, oldozkoŕ. Bere iru adiskideekin egoteko tiŕiatzen ere; Amamio'n eta inguruan, nolabait, bakaŕik zegoen lauren asmoekiko, ta besteen laguntza beaŕ-beaŕa zitzayon bere adoreari aukerako indaŕ eta kemenaz eusteko. Oso ezinbestekoa zala ikusten zuen ayekin egotea, mintzatzea, berotzea ere; ta bere baitan gentza-beaŕa estuki aunditzen zitzayolarik, gogo biziaz eta aŕeta aundienaz, alkaŕengandik aldendu ziranetik izango zan lauren lendabiziko biĪera ura ongienik atontzeko lotu zuen bere burua; lauren asmoetarako ta bere beaŕerako ain noraezekoa zala oartzean.

Oŕela, lanean eta apika ezbeaŕetan ere pulunpatzeko, beste uŕats aundi bat ematera zijoala barne-barnean ateman zuen, alako gogo-atzimuŕ minkoŕaz. Eta oŕengatik bere buruari gogoŕago eragin beaŕ ziola ikusten zuen, auŕeruntz joan al-izateko.

Aro gaitzerako zantzuak

Ba-dirudi gizatasunari bidezkoa zayola giza-ekintza guzietan, naiz gizon batena naiz taldeena izan, xede ta asmo onenentzat ere, bide okeŕetan barna ari-izatea edo bide egokiak artzeko eŕaztasunik ez aurkitzea bederen. Asiera on bat arturik ere, ondorioak auŕetik ikusi al-izan ez diralako, ala ustegabeko oztopoak bide erdian aurkitzen dirala-ta, lenengo asmo onak uzteko beaŕa eltzen da, beste batzuk, on naiz txaŕ, artzeko noraezean; ala sostean eta tipus-tapaz, ibiltzearen bide-gurutzera eldurik enuxu-banuxu unealdi baten buruan egon ondoren, auŕera jo-beaŕean, iraduz yarduteagatik edo, egoki ta zentzunezkoa etzan beste norabidean jaŕaitzea.

Bein norabide bat artu ta bertan abiatu, norberaren asmoari indaŕa ematea ezinbestekoa da erabat, auŕeratu al-izateko ta lenbailen jomuga guzietaraño eltzeko. Era berean auŕeratze ortan soŕ ditezken oztopo guzien gañetik igarotzeko xedea ere gogorturik, isituki ari-izaten da, itsu-itsuan, ongi ala gaizki jokatzen ote dan begiratzeke, ta zalantzari tokirik eman nai gabe. Norbaiten oaŕ edo onu ona eltzen bada ere, edozein aolkurako, naiz eta onena izan, soŕ eta goŕ zearo geratzeko.

Oŕa nun-nai gertatzen dana, ta oŕengatik ere asiera agertzen da benetan gaŕantzidun, egia baita, askotan, asiera nola izanik, ondorioa ala etortzeko beaŕik.

Amamio'ren deya oarpide argia izan zan alkaŕen aurka ari ziran taldeentzat bai ta euzkaldun guzientzat ere. Alan eta guziz, argiaren auŕean begiak itxi, orobat belaŕiak onuarekiko, ta soŕ eta loŕ adimena ta gogamena ere Euzkaleŕi'aren ete-eteko galbidean; oŕela biotzak ere euzkal-bizirako gogoŕ eta otzak. Beraz, ondorioz, itxes eta eriotza baño besterik ez, ergelkeriaren emoitza, Eŕi'arentzat.

Uztaiĺaren azken igandean, urte artan beroegi izan zan uda-biotzean eta aŕatsaldeko lenengo orduetan, Araya'ko lantegi aundienaren ugazaba bere landolan zegoen artegatsu. Kalean eta landetan oro agertzen zan aldi artan nagi, bero-galdan murgildurik, lo-erazlea zan eguraldi astunean, igidura txikiena ere egiteko ganorarik gabe, guzia geldi-geldi eŕekotxo batean.

Elortza jauna etzegoen, alarik ere, lo-kuluskarik egiteko asmotan; bazkal-ondokoan izanik eta bere inguruan guzia logalegaŕi bazitzayon ere, erne zebiĺen jauntxo ura bere lan-mayaren gañean zeuzkan paper batzuk azterkatzen eta orenari saŕi ta arduraz begiratzen, norbaiten zai zegoela argi adieraztean.

Lan-ekintza aundi bat soŕerazi zuen Araya'n bertan, bera jayo zan eŕi artan. Buru argiduna ta alperkeriari iñoiz menik egin gabe, aukera onenean zegoen lan aundi ta zaĺak ere burutzeko, ta berak antolatutako lantegietan zeukan bere biziaren jomuga berezia; ba-zirudien berarentzat besterik etzegoela Ludi'an. Egunero ta goiz-goizetik bera eltzen zan lenengoa olara, ta lan-sail guziak abiaturik ikusi arte ororen gain zebiĺen ikusle; orduan etxera zijoan, arin gosaltzeko ta bereala bere landolara joateko.

Izan ziran Araya'n, Zirauntza ibai ondoan zeaŕola batzuk, urbizi aren indaŕa ustiatzeko ta Umandi mendi-mazelako goyaldean zegoen meatzetik ateratzen zuten burni-menasta urtutzeko; bai ta labeetatik lortutako totxoak lantzeko ta iyezteko ere; ta Marmario auzoko su-aroztegietan, eguna argitu baño lenago ari ziran olarotzak lanean; iltze, entenga, aitzuŕ, golde-nabaŕ, golde-mutuŕ, peŕa, joŕai, burtzin, layak, endai, talo-burni ta beste burnikiak egiteko.

Burni urtzeko beaŕa zan ikatza alboko Intusi basotik ateratzen zuten, areitz eta pago edeŕadaz jantzita zegoen menditik; areitz bai ta paga-saŕi ta sasi-zoko usu ziralarik, baso ura piztientzako beren etzango ta oantze egokiak eukitzeko zan. Gizonaren aizkora an sartu baño lenago, mota guziko pizti ta patariak ugari, aldamenean zegozen eŕietako eskorta ta sarobeetan kalte aundia zegitenak; eta noizean bein auzokoek iizaldiak egiteko beartuak ziran oso, beren etxabereak zaintzeko. Gero aizkorarekin batera, eguŕ-ikatza egiteko jaso zituzten txondaŕakatik, baso-txarotzea asi zan, eta piztiak beste igesleku ta aŕi-txuloen biĺa edo, andik alde-egin beaŕ-izan zuten. Azkenez mendi artan piztirik ez, baña aurki ez eta zugatzik ere eiki, baso oyantsua mendi tipiĺa geratzeko.

Ongi atematen zuen guzti ori ola-jabeak, baña berarentzat bere ekintza zan elburu nagusia, ta aldameneko beste guzia aren beaŕetarako artu ta erabiltzea ezinbestekotzat zeukan; eŕiko bazteŕetan ze-

gozen aberaskiak bere lantegien bidez ustiatuko lirake oberenik, bertan beste aberaski aundiagotan biurtzeko. Oŕela, gañera, lana eskeintzen zien giza-lagunai ta langiīeek, ugari, bertan aurki lezakete bizibide egokia. Ez ote zan ori, benetan, txalogaŕia? Orixe, nagusi arentzat, bere iŕitsa margo politaz itxuraldatzeko zerabiīen azalpena; bearbada, bere baitan ere uste onez mamitua. Zalantzik ez, beraz, eta auŕera jo beaŕ, bere eŕi maite ura, burni ta altzairu-eŕia, eŕi ospetsua egiteko.

Bazteŕ guziak iretsi nai zituen goi-zale ari ezin uka lekioke bere eŕiarenganako maitasuna, baña bere iŕitsa aundiagoa zan, eta bere gogoetan bi zaletasun oyek alkartzeko nayean zebiīen beti, biak batera zetozela bere buruan sartzeko alegiñetan.

Aurkitu dugun aŕatsaldean ere oldozpen oyek birundaka zerabilzkielarik, alako batean, norbait ate-joka.

—Auŕera! — esan, eta, atea idekirik, an azaldu zan gizon luze bat, me xamaŕ eta kuskuŕ, kexu zetoŕena ta zeramazkien betauŕekoen gañetik begiratzen.

—Aŕasalde on, Elortza jauna. Barka nazazu, otoi, ba-dakit berandutxo natoŕela; baña bazkal-ondoan lo-kuluska bat egitean enaiz beaŕ zanean itxartu; noski, gaur dagoen sapabero au dala-ta ...

—Elortza'k: Utzi, utzi aitzaki-maitzaki oyek; edonori gerta dakioke ori, baña dana dala ordu bietan emen alkartzeko itzegin genuen eta ia-ia irurak dira. Gaitz erdi gaur eta ordu ontan zeregin aundirik enuela, baña gauzak ordu-orduan egitea beaŕ-beaŕezkoa deritzait; oŕela jokatzea da niretzat noraezekoena, arazo guzietan burutu al-izateko, Matauko jauna.

—Matauko'k: Egi-egia diñozu, jauna, baña ... gaur ... eŕekotxo ontaz ...

—Elortza'k: Eta dirudienez etortzeko zegozen besteai ere orobat gertatu zaye. Egia da beroak, geyegi danean, adorea gibel-arazten duela, soña ere motel eta indaŕ gabe uztean; baña gizonaren kemenak gaindu beaŕ du guzia ... gizona izateko.

Orduantxe beste norbait ere atean jotzen.

—Elortza'k: Auŕera!, auŕera!, ba-zatoze zuek ere, tira ...

Eta atea idekirik, an agertu ziran beste bi gizon. Bat, lodi-lodi, azal bete-betean zegoena, gizenegi, egundoko zilboŕaz, geŕiko gañetik gaindizka agertzen zana. Izerdi-patsetan zetoŕen, mokanes aundi ba-

teaz arpegi, buru ta lepoa txukatu nayean eta ezin, ain ugaria baitzan naŕu ari zerion lapatza.

—Elortza'k: Bero dago, adiskidea, ezta?, izerdi-erazten duena, noski.

—Letona abizena zuen arek: Bai, bero onezaz eta nik izerdia oso samuŕa dudalarik ...

—Diaz'ek: Egaŕia ere gero ta aundiago, alajaña. Upel kankaīu galanta i, ez uraz ez ardoz bere eziña.

Eta besteai buruz —Diaz'ek: Au asetzeko ituŕirik ez iñun, ez eta ardandegirik ere, jakiña.

Oŕela mintzatzen zana, erdalduna, atzeŕitik eldutako legeen ondorioaz, Araya'n auŕ-irakasle izateko etoŕia. Gizon txikia zan, argala, sudurpeko motzaz, itz-jario ta andikeriz yarduten zuena. Zer esanik ez, erderaz zegien eta bera azaldu ezkero, besteak ere erderara jo zuten berak uleŕ zezan.

Egoeŕi aldekoek jaŕi zituzten ikastola ta beste erakunde guzietan euzkera bazterturik geratu zan eta guzirako erdera erabiīi beaŕ; eta erakunde oyetan lanegiten zutenak egoaldekoak ere ziralarik, toki ayetatik eltzen zitzayon euzkerari eraso aundiena. Oŕela erdera, euzkeraren ordez, gero ta geyago edatzen zan, eta kalean ere edonun, naikoa zan erdaldun ayetako bat azaltzea, guziak euzkera utzi ta erderaz paŕa-paŕa ari-izateko, gizatasun eta adeitasunak, nola ez?, oŕelaxe egiteko beaŕesten zutela-ta. Oŕa, beti aipatzen zan aitzaki aundienekoa euzkera isiīerazteko.

—Letona'k: —ari erantzunez— Ixil ago aketo-maketo ori! Ongi adierazten duk luŕ elkoŕean jayorik aizela, igan eratasunik ezpaitzegok; baña ire gogoa ere soña bezin legoŕa dukala erakusten diguk zakaŕ oŕek.

—Elortza'k: Tira, gizonak bizi ontan bakoitza jayo dan bezela izan beaŕ eta ortaz eztago besterik nai-izatea. Goazen orain gure arira. Ba-dakizute zertarako deitu zaituztedan; gure eŕi onen gaurko ta geroko biziari buruz zuei nire asmoak jakin-erazteko; uste dut nire asmo oyek ontzat artuko dizkidazutela Araya'ren onerako baitira. Guziok maite dugu gure eŕi au ta oŕengatik ere alkaŕi lagundu beaŕean gagoz ene iduriko. Ene aldetik, ba-dakizute, lantegi beŕiak antolatu ditut eta oyek obetzeko ta aunditzeko xedeetan bizi naiz gogatsu; oŕela, gero ta lan geyago eskeiñi al-izango diet emengo ta alboko eŕietan dagozen gazteai, ta ez dute auek, uŕutira joateko,

emendik alde-egin beaŕ-izango. Ta azkenez gure eŕi au Burni-eŕia izango dugu, burniaren eskeŕ aundituko dalako ta bertan bizia oparoz indarturik ikusi al-izango dugulako.

—Diaz'ek: Oyetxek bai asmo edeŕak; lagun-urkoari lan ematea, lantegi beŕiak antolatu ta auŕerapenak jaŕí, eŕia aunditu, bizia edatu ta sendotu. Oŕa zenbat zoŕ-izango dizuten, jauna, arayaŕek. Gora zu!

—Letona'k: Itz politak dira guzti oyek eta ez dizuet ukatuko asmo oyei buruz zerbait egin nai dala; baña, baña ..., gauza ta arazoak zeatzago begiratu beaŕ dira. Ik, Elortza, ba-dakik aurtzarodanik alkaŕ ezagutzen diagula, ta biok ere ba-zekiagu alkaŕen beŕi oŕengatik ain zuzen; beraz ez aiz aŕituko irekin batera ez natxetoŕeala esaten badikiat, guziaz bederen. Ire lantegietan langīleai lana ematen diekala diñok, baña ene ustez langīleak dituk euren lana iri ematen dikiteala; noski, beren egunaria ematen diek, ain zuzen lan ori ordaintzeko, baña beaŕ aña al duk egunari ori?; argi zegok ezetz, guziek lantegitik irten da gero, beren ortuetan gogoŕ yardun beaŕ ditek beaŕ zayekana osotzeko andik atera nayean.

—Elortza'k: Eztuk oso eŕaz, ez, irekin batera etortzea, baña entzun: ba-dakik ongi, len gure eŕi ontan zeaŕola zaŕ batzuk baño besterik ez zegozkiala ta ayetan ziardutean ola-gizonek beren lan-gai zarkiñen bidez ozta-ozta atera al ziteala bizi-izateko beaŕa; beste tokietan gaurko eraz beŕitu zitiztek lengo olak eta ayen ordez antolatutako lantegi beŕietan, guzia, eŕazago, obe ta merkeago zegitek. Orixe duk nik emen ere egin nai-izan diadana ta zegiadana. Gaizki al zeritzaik ori? Ta nik jaŕitako egunariak edozein tokietako aña dituk gero. Auŕera jo beaŕ diagu, gizona, ta ez geldi geratu guztiz zaaŕakiturik.

—Diaz'ek: Ori, ori! Auŕerapenari men-egin beaŕ zayo, gauza zaŕ guziak bazterturik utzita; auŕeruntz ez doana iltzen da, ta bizi-izatea da guzioi dagokiguna.

—Letona'k: Auŕerapena zer dan ikusi beaŕ, gero; ta guziok ez dugu ikusten ori berdin. Begira dezagun ementxe, gure eŕi ontan gertatzen ari dana. Gure «Elortza jaunak», «jaun aundiak», bere lantegia jaŕi ta antolatu du, ta ba-dirudi, lantegi oŕen onurako, guzia ta guziok geron burua makurtu egin beaŕ dugula. Asi zan lanean eta bereala gure ibai ontan aŕañik ez, len ugari zegoena, amuaŕayak batez be, il edo alde-egin beaŕ-izan duelako; gure Intusi baso edeŕa txondaŕez bete digute, pago ta areitz edeŕak bertan ikatz biurtzeko;

oŕela, zugatz guziak uzkaīli ta beŕiak ipiñi gabe, laisteŕ soīla geratuko zaigu mendi guzia; ta txaŕena, gizonak, egunari motz bat irabazteko, jopu bezela, ordu ta orduetan, egunero lanegin beaŕ, lertu arte. Guzi ori egiazko auŕerapena al da?

—Elortza'k: Baña gizona, txikikerietan ari aiz, ze ajola zaiguk amoaŕai ta maskaŕ txepel batzuk izan ala ez izatea? Zugatzak, mendiak soŕarazten zitik berez, eta langīleak nun-nai bezin ainbat irabasten ditek emen; eta gure lantegian lanik izango ezpalitek, eŕitik at joan beaŕ-izango liketek lan-bīla; emen, ostera, etxean bertan zeukatek.

—Matauko'k: Nik zugatzai buruz ontzat artuko didazute auxe gogoratzea: Udala'n idazkaria naizela papeŕ zaŕetan auxe ikusi al-izan dut: Len zugaitz-ebaketa etzan, uŕundik ere, oraingoa bezin aundia, ta ala ere emengo agintariek zoŕotz agintzen zuten adarburuturik zegoen zugatz bat botatzean, aren ordez, bi edo iru ondo landatu beaŕ zirala; oŕela, basoa usu zegoen beti, aberatsa, eten gabe bere etekiñak ematen. Orain ezer landatu gabe dagoena ebakitzen bada, argi dago, nire ustez, basoko aberastasuna aurki amaituko dala. Barka jaunak, baña onela dakust nik ori; ta orixe bera diño Amamio'ko Mikel'ek, luzaroan ikasten ari ondoren, lugin-irakasle arestian etxeratu danak.

—Diaz'ek: Bai, ba-dut nik ere mutil oŕen beŕi, zuk aipatu duzuna ta egokiak ez diran beste asmo batzuk ere zabaltzen ari dala; emengo jayetan antolatu zan bazkari batean, Euzkaleŕi'ko arazo guziak euzkaldunen eskuetan bakaŕik egon eta eraman beaŕ zirala esan omen zuen, euzkaldun ez geranok kentzean; eta geyago ere, bere iritziz Euzkaleŕia jopu bizi da, egoalde ta ipaŕaldeko beste bi Eŕi'en pean, eta benetan bizi al-izateko, ta bere gain bizi, euzkaldunek buŕuka egin beaŕ dutela beren azkatasuna lortzeko. Nola esan diteke oŕelakorik?, nundik ateratzen du oŕek Euzkaleŕia jopu dalarik?, ez al gera guziok, berdin, lateŕi berberaren semeak?, ez ote gera guziok ere oŕengatik anayak? Kontuz ibīli beaŕ-izango du lugin-irakasle oŕek, eziña baita gure lateŕia erdibitzea; ogen aundiena izango litzake oŕelakorik eta ori eragozteko lateŕiko guziok jeikiko giñake gure indaŕ guziaz.

—Letona'k: Ez dut nik oŕenbesteraño eldu nai, baña amamiotaŕ oŕek diñoenerako ba-dagoz funts eta zio ugari; egoaldetik zatozenok gure euzkal-bizirako, ezezpena baño besterik ez daukazute-ta;

gañera gure lege guziak alboraturik izan dira, zuenak jartzeko, ta argi dago, emen aipatu dan basoarekiko gurea askoz egokiagoa zala. Alakotz, ortaz beñepein, amamiotaŕa izpidean dago.

—Elortza'k: Bere neuŕian eta bere egokitasunean artu ta erabīli beaŕ dira arazo guziak. Enurarik gabe, gure Euzkaleŕi'ak bere euzkal-bizi berezia gorde beaŕ du ona baita, eta bere izkuntza ta bere oitura edeŕak zaindu; baña bizia auŕera doa ta eziña da bere bidean geldi-eraztea. Gaurko ontan, yakintzari eskeŕ, lantegiak jasoten ari dira alde guzietan eta oyen bidez biziera beŕia sortzeko dala argi ta garbi ikusten da, ta bizi beŕi ori ontzat artuko ez duen Eŕia ondaturik geratuko da besteen azpian. Gurean ondo ikusten asi da uaŕi beŕi ori ta oŕengatik asi naiz ni ere emengo lantegiak ongienik antolatzeko nayean, atzeraturik gera ez gaitezen. Gañera, lantegiak dagitena saldu egin beaŕ, eta ortarako noraezeko izango zaigu zeya alik eta zabalduena eukitzea; alde ortatik, beraz, Euzkaleŕi'aren egokitasuna Egoeŕi guzia bere zei berezia izatea dugu, enurarik gabe.

—Letona'k: Auŕera jotzeko ez dut nik oztoporik jaŕiko, baña, Elortza adiskidea, barkatu, ire xedeetan ire onura Eŕi'arena baño geyago begiratzen dukala uste badiat. Ik ire lantegia jartzen duk guziaren auŕean, atzetik eta oŕen bidez ire obariak geitzeko, gero ta aberatsagoa izateko noski.

—Elortza'k: Gogoŕa aiz, motel, gero! Baña nik eztiat zergatik ukatu beaŕ ene lantegitik irabazpenak lortzeko naya; ori nire eskubidea duk eta orixe egiten ditek Ludi ontan gizon guziek; gañera egitzat artu beaŕ diagu, norberarentzat irabazpiderik izango ezpalitzak, auŕerapenik iñun izango ez litzakeala, ta gizonok, oindiño, aŕi-aroan egongo gindukeala. Irabaztea biziari zegokiok eta bizi al-izateko ezinbestekoa diagu.

—Letona'k: Ez zioat oŕi ezetzik erantzunen, baña gauza bat diagu irabazteko asmoa oŕela, gañetik, eta guzientzat berdin dukan baldintza bezela aurkeztea, ta beste bat, oso ezberdiña, gizon batek beste gizonen lepotik eta oyen lanaren eskeŕ irabazpen guzia ala geyena bederen berarentzat bakaŕik jasotzea. Ori duk emen eta lantegi guzietan gaur gertatzen dukana, ta orixe ontzat artu beaŕ ez diaguna.

—Diaz'ek: Asmo oyetan galbidea soŕ ditekela gogoratu beaŕ dugu nire ustez; nik ba-dakit Bilbao aldean batez ere, ori oñaŕitzat arturik, erbestetik eldu diran beste asmo txaŕak ere sartzen ari zaizkigula, ta langīlea laguntzeko aitzakiaz, erlijioaren eta gizartearen aurkako giroa soŕerazi ta zabaldu nai dala. Kontuz beraz oŕezaz.

—Elortza'k: Bai, egia diñozu, Diaz; bildurgaŕiak dira asmo oyek eta oŕen aurka yarduteko gerturik egon beaŕ dugu guziok.

—Matauko'k: Irakuŕi dudanez, beren eskubideen alde jokatzeko, langīleentzat lana uztea beste eskubidea bezela onartu beaŕ dala diñote ta oŕi opoŕaldia edo deritzayote.

—Letona'k: Neronek ere ez ditut ontzat artzen asmo beŕi oyek, baña gaurko ugazabak orain bezela jaŕai nai badute, langīleai buruz zabaltzen ezpadira ta lantegien irabazpenak, bidezko neuŕian, eurekin banatzen ezpadituzte, beren jokera elkoŕ ori asmo oyen lagun onena izango da. Oŕengatik, ezertarako ez dugu izango, asmo beŕien zabaltzaīleak gizartea ondatu nai dutela esatea; gaur lanaren bizian bidegabekeri aundia dago ta orixe da zuzendu beaŕ dana, guziok obeto ta pakean bizi gaitezken.

—Diaz'ek: Oso uŕutira zoazela uste dut nik; egia da gizon guziok bizi-izateko eskubidea bera daukagula, baña lantegietan ez da iñoren biziaren aurka jokatzen, izadiak ematen dizkigun gayak, buruz erabiltzen eta aldatzen, etekin beŕietan biurtzeko baizik. Ororen bizia auŕeruntz doa ta len beaŕak etziran gauzak egun ezinbestekoak ditugu; ta oŕela edatuko da bizia beti auŕeruntz. Lantegiak, beraz, beaŕ-beaŕezkoak dira ortarako, ta oyek antolatzeko burua naikoa izan dutenak guzion goresmenak irabazi dituzte.

—Matauko'k: Bai, ateratzen ari diran etekiñak aŕigaŕiak dira benetan; ortxe dugu bat, burni-bidea, gure asabak somatu ere ezin zutena.

—Elortza'k: Noski, gizonak, buruduna baldin bada, ez du bere burua txapela jantzi ta eramateko bakaŕik; gizonaren garaitasuna buruaz yardutea da, ta ortaz goratzen da beste bizidun guziengandik; zorigabeko, alegia, buruaz ari ez dan gizona, abereen malan geratzen baita.

—Letona'k: Oso ontzat artzekoa da ori, baña askotan burua gaizki erabiltzen da, gaitzak ugari soŕarazteko, bai ta besteen bizkaŕetik bizi-izateko ta aberastasunak metatzeko ere. Oŕengatik ez da aski, gizonak burua erabīli beaŕ duela bakaŕik esatea; nola erabīli beaŕ duen ere ikusi beaŕ da, iñoren kalterako izan ez dedin.

—Elortza'k: Ikusten aut, adiskide, i beti ire eyerako bildu nai duk uruna. Lantegietan ari ditukan langīleak menperatuak bezela

ikusten dituk, baña guziok gagozkik lanaren menpean, guziok lana egin beaŕ baitiagu.

—Diaz'ek: Eta egunaria aski izan ezkero, zer geyago nai dute langīeek? Berak beren besoen indaŕa ematen dute bakaŕik, besteetarako gai edo ez diralako; beraz, ia abereak bezela, besterik ez. Oŕengatik ezin diteke oyek, ainbat irabaztea; ori zuzenbidezkoa dugu, gizona. Guziok eta bakoitzak, geron egoerari buruz eroapen eta etsi on euki beaŕ ditugu, iŕitsari men egin ordez; orixe jokabide zuzena.

—Elortza'k: Eŕaz esaten da lantegien ugazabak, etekin guzia berentzat bakaŕik jaso nai dutela ta langīeenganako ajolik gabekoak dirala. Baña berak dira dirua bīlatu ta jaŕi beaŕ dutenak, eta lantegi beŕi bat eraiki ta lanean jartzeko, ez da gutxi beaŕ dana; langai bereziak, alik eta onenak ere, ekaŕi beaŕ dira, ta oyek ez ditugu, gero, merke-merkeak; gañera, langai oyek eta lanegiteko noraezekoak diran tresna, lanabesak eta beste, aldiz-aldi beŕitu beaŕ dira, batzuetan lantegi osoa ere. Nundik atera guzi ortarako beaŕa dan dirua? Noski, urtero lortzen diran obarietatik gorde egin beaŕ zerbait, eta ez gutxi alajaña, zera oyek ordaindu al-izateko; ta batzuetan ori ere ez da aski ta banko-etxeetara joan beaŕ, dirua maīleguz artzeko; toki oyetan ez dute ori doarik ematen, beren mozkiñak eskatzen dituzte ta oyek ere nunbaitetik atera beaŕ. Adiskideak, gauzak aŕetaz eta sakon begiratu beaŕ dira mintzatu baño lenago.

—Letona'k: Iñork eztik ukatzen aipatu ditukan beaŕ guzti oyena; baña ba-zekiat, ori, maiz, aitzaki-maitzakiz mintzatzea baño besterik eztukala. Bidezkoa duk, beste aldetik, lantegiak antolatzen eta zuzentzen zitizteanak beren obariak jasotzea, ta orixe iristeko izango ezpalitzak, ausaz, iñork elikek uŕatsik emango. Beraz, ontzat artu beaŕ diagu obariakaz jabetzea, berenganatzea, baña ez guziak, alajaña; langīeek beren lan eta izerdia ematen zitiztek obari oyek lortzeko, ta oŕengatik zuzenbidezkoa da oyetatik berentzat ere zertxobait izatea.

—Elortza'k: Eta obarien ordez, urte guzian barna lanegin ondoren, galerak izan ezkero, ta ori ere noizean bein gertatzen duk, langīeek ere beren sakeletik dirua aterako al ditek galdutakoa txukatzeko? Obarietatik artzen dikanak, galerak ere jasan beaŕ-izango likek; eztidak esango ori zuzenbidezkoa izango elitzakeala, baña iñun eztuk oŕelakorik ikusi, galtzeak beti ekintzaen buruzagientzat.

—Letona'k: Galerak urte batean edo beste gerta ditezke, baña,

besterik ezpaduk, oyek uŕengo urteetako obariek eztaltzen zitiztek; eta bizi al-izateko ozta-oztan irabazten diteanek, nundik nai duk dirurik ateratzea? Ta galerak oso aundiak izango balitzatek, lantegiak itxi beaŕeraño edo, langīeak izango litzaketek goŕiak ikusteko lenengoak, ez ugazabak.

—Matauko'k: Eztabaida ontan, ene ustez, alde bietan ikusten dira aintzakotzat artzeko usteak; baña eztakit oŕela yardutea alpeŕik ez ote dan, zaīa izango baita batera etortzea; ez ote da obe izango gauzak berez sortzen eta ari diran bezela onartzea?

—Elortza'k: Ori zabarkeriz ari-izatea izango litzake; gauzak ez dira berez agertzen, eta gizonak ditugu soŕerazten eta aldatzen dituztenak; ain zuzen, ortarako dagoz buru ta biotza. Alaz ere, Letona gure endore onek gogoŕa du burua naiz eta biotz onekoa izan, eta bere lañotasunean ere bere iritziari oso itsatsita bizi-izan da txiki-txikitatik.

—Diaz'ek: Ez da eŕez, ez, buruan zerbait sartzen bazayo andik ateratzea; endore izateko, ez da, alde batetik, ori gauza txaŕa, legeak agintzen duena besteai bete-erazteko; baña ba-dira amaika egokiera amor-egiteko diranak, eta alaz ere eyerazain onentzat, bere txilboŕagatik apika, makurtzerik ez iñoiz.

—Letona'k: Bai, dagoenera jaŕi, Donostia'n Donosti ta gorostian gorosti, esaten danez; alan eta guztiz be, niri obe deritzait sorburu ta iritzi onai eustea beti zintzotasunean ari-izateko; jakiña, noizean bein, beaŕ danean, amor-egitea ere onartzekoa dugu, ez alabaña zoro-moro yarduteko.

—Matauko'k: Barkatu jaunak, ene ustez naikoa da esan duzutena, ta zuen asmo ta aburuen beŕi artzea atsegiña bada ere, Elortza jaunak lantegi ta eŕiarekiko dituen xedeak guri jakin-erazteko dei-egin digu; ta beste arazoetan luzaroan ari-izan ezkero, ez du berak astirik izango bere elburu ta guraria betetzeko. Oŕengatik, oŕi buruz asi dedīa eskatzeko ausartzen naiz.

—Elortza'k: Egia diño gure idazkari jaunak, eta bere ogibideari zintzoki jaŕaituz, egun'erako gaya oroi-erazten digu egokiro. Goazen, beraz, nai baduzute, ona erdu zaitezten egin dizuedan deyaren zioa ikustera; uste dut guzien aldetik ontzat artuko didazutela.

—Ene ustez, burniaren ekintzetan uŕats aundi bat emateko asieran edo gagoz, eta deituko nuken «altzairu-aroa» zabaltzen asi zaigu, aro oŕen atarian ikus dezakegu burni-lana. Langintza auŕera doa alde

guzietan; oŕengatik beaŕak ere gero ta aundiago, burni ta altzairuaren erabilketak ba-dirudi neuŕiz gañetik ere ugariturik agertzen dirala, ta eziña da auŕeraldi ori noraño el diteken sumatzea. Orixe dala-ta, arloa argi ikusten dalako, alde guzietan oartzen da altzairu geyago ta obea lortzeko leya; ortarako, labak obeto gertutzen dira tximistindaŕaren bidez guziak, eta lateŕiak alde batetik eta ekintza batzuek ere bestetik, sayotegi bereziak jartzen ari dira altzairuari buruz eta beste menasta batzuekin naste egokiak idorotzeko. Menastak ere, beŕiak aurkitu diralarik, bereziak ditugu, bakoitza bere egokitasunaz, eta oyetatik ez dira gutxi altzairuaz nastuta, oni bere egitura alda-eraztен diotenak, eta oŕela gero ta altzairu mota geyago aterako da, beaŕ guzietarako berebizikotasunetaz.

—Esan dizuedanez, lan aundi ortarako tximistindaŕa da labe beŕiak piztu ta berotzeko egokiena, labe goi aundietan urtutako burnia —gure lantegian ikatz-burnia— altzairurako lenengo gayaz erabiltzen; lenengo burni ori toki askotan, geyenetan edo, aŕikatzaz urtutzetik ateratzen dute, oso toki gutxietan eguŕ-ikatzaz guk bezela; baña gure txondaŕetan eguŕ edeŕaz egiten dan ikatza oso on eta egokia da burni berezia lortzeko, ta burni ori ere altzairurako egokienetakoa dala nun-nai onartzen da.

—Aŕikatzetik, erion-erazita, kok deritzayoten beste ikatz-mota bat ateratzen da, labe goyetan eta besteetan ere burnia urtutzeko erabiltzen dana; ta altzairua lortzeko, esandako burniaren ordez, burni zaŕak, txataŕak deitzen diranak ere erabiltzen dira oso ondorio egokiaz. Alakotz, mota askotako gai, lan eta etekiñak ditugu, burnia oñaŕitzat arturik.

Ao zabalik entzuten zioten ola jabeari bere lagunak, eta burniari buruz, lendik, beŕiren batzuk ukan ere, orduan ematen zizkieten zeatzak entzuten adi-adi zitzaizkion ari, itzik ez galtzeko tiŕiaz.

—Elortza'k: Ikus dezagun orain gure elbururako, emen, eskuaren menean, ustiatzeko zer dugun: Ba-dugu, lenengoz, burnia, naiz eta Umandi mendiko meategia txikia izan; eta orko burni-aŕia amaituko danean, Bizkaya'tik ekaŕi al-izango dugu nai aña. Ukan ere, ba-daukagu aldamenean baso edeŕa, orko zuraz eguŕ-ikatza lortzeko; ori ere ez da betiko izango, ta egunen batean beste tokietara joan beaŕ-izango dugu ikatz oŕen biŀa ere. Baña ba-dugu ementxe be, aberaski aundia ateratzeko beste bide edeŕ bat, esan genezakelarik iñoiz aituko ez dana, Zirauntza'ko iturburu yoria.

—Letona'k: Bai, egia diñok; nerea uan ori, ta iñoiz argitu beaŕ-izango ez litzakean egun zorigabeko batean saldu egin nikian, ene emazte gaxoaren iritzi ta naimena uŕuñatuz; ez niokan ari orduan atsekabe txikia eman; eta ik irabazpen edeŕa ala burutu uan.

—Elortza'k: Ez dikiat ukatuko niretzat ura onuratsua izan uala, baña andik etekin aundiagoa atera jakin nian, ik iñoiz aterako ez ukeana, ez eta, bearbada, beste iñork ere. Beraz, orduko nire irabazpena niretzat bakaŕik ez, lantegi osorako ta, azkenez, gure eŕi onentzat ere izan uan; ez aztu ori, gero. Ta —guziai buruz jaŕaitzen— goazen orain esaten asi dizuedana borobiltzen, nire asmo guzia nolakoa dan azaltzeko. Gure egin-asmoa, egitan, ez da niri otu zaidana, Yokin gure lantegi-maixu burutsuari baño; ta ori ere esan nai dizuet, egizale-zuŕian.

—Diaz'ek: A!, Yokin; ori ere eztakit Amamio'ko Mikel'en bideetatik ez ote dabiŀen; adiskide mamiak dira, beñepein, bi oyek, eta Kepa Deun'aren eguneko bazkarian ba-dakit Yokin ere egon zala.

—Letona'k: Baña, gizona, txikitatik alkaŕekin ibiŀi dituanak, nola nai duk gero ere, aunditurik, adiskide ez jaŕaitzea?

—Diaz'ek: Adiskide izateagatik ez diet nik ezer esango, baña oyen artean adiskidetasuna baño geyago dago, enurarik gabe; benetan gogaideak ere ditugu biligaŕo bi oyek, eta ni oyen asmoen aurka nago; oso beaŕa izango zaye nola dabiltzen eta zer dagiten begiratzea.

—Letona'k: Baña zer duk ik mutil jatoŕ oyen aurka?; ondo ezagutzen zitiat, ene adiskideen semeak dituk-eta. Etzekiat zergatik ari aizen oyei buruz xixtaka; mandeuli amoŕatu batek i xixtuta auela esango nikek nik.

—Diaz'ek: Ik eztuk ezer ikusten oindiño, baña endorea aizenezkero, ziuŕ nauk legeai eutsi beaŕ-izango diealako, mutil oyek estu artzea ezinbestekoa izango zaikala. Noski, i ere oyek bezela uste ezpadik, lateŕiaren agintzatik azke bizi-izateko zeuen eskubidea dukala.

—Letona'k: I, listoŕ unagaŕi ori, kontuz mingañaz eta entzun: endorea nauan aldetik ez didak zer egin beaŕ diadan esan beaŕ gero; auŕai irakastea duk ire bizibidea, ez aundiei; ta ikastolan ere zer irakasten dukan ikusi beaŕ-izango diagu bearbada, gure Eŕi onenganako ongi jokatzen eztukala esamesak niganaño ere eldu baitzaizkidak.

—Diaz'ek: Zer esan nai duk? Ikastolan nire eginbeaŕa betetzen

diat; bertara bialtzen dizkidazuten auŕak, astotxo kirten oyek, gizonak biurtzea, eŕitasun-bidean ipintzea, orixe nire lana; ez duk, gañera, lan eŕeza, abereekin bakaŕik mintzatzeko duzuten sasi-mintzaira baño besterik ezpaitzekitek asieran; eta ori uzteko ta, beraren ordez, lateŕiarena dukan izkuntza yakintsua berenganatzeko, lan eta lan egin beaŕ diat gogotik, askotan guztiz alpeŕik egindako alegiñetan. Baña ezituko zitiat, bai, indaŕez ere, onez-onean ori eziña baituk; ba-zeukaat ortarako elaztun polita nire lan ori eŕazago egiteko.

—Letona'k: Eroapena beaŕ diat, kankalu ori, iri entzuteko; jakin beaŕ duk gero, ik ezesten dukan izkuntza ori gure-gurea dukala, emen betidanik mintzatua ta ikastolan ere erabiīi beaŕ ukeana; zergatik eragozten duk ori? Ik bederen neurtu beaŕ-izango dituk ire itzak nire auŕean oŕezaz mintzatzeko; bestela...!

Etzuen amaitu bere zema endoreak, baña lendik zekaŕen beroagatik eta irakaslearen esanak piztu-erazi zion aseŕeaz, goŕi-goŕi jaŕi zitzayon bere arpegi borobiīa, ta asaŕeak eragiñik, ituŕi batetik ura bezelaxe zerion alde guzietatik txukatzeko eziña zan izerdia.

—Matauko'k: Barka jaunak, ene ustez alkaŕen aurkako aseŕetzen bazerate, eziña izango zaigu ezer egitea. Gauzak ez ditugu guziok berdin ikusten eta oŕengatik iritziak ere ezin berdin izan beti. Ori oŕelaxe dala-ta, yabaldu beaŕ duzute zeuron burua, onez-onean yarduteko gogoaz; eta utzi dizayogun Elortza jaunari bere asmo guzia azaltzeko beta.

—Elortza'k: Yabaldu, bai, egin beaŕ duzute, nik ere ori uste dut, eta alegiñak egin ditzagun guziok adiskide izan eta jaŕaitzeko.

—Lotu dezagun, asmo ontaz, len eten zaigun aria. Orain, ba-dakizute, gure goiko iturburutik, menditarte erdi-erdian dagoelako, bi mendi-mazelaetan egindako bi uaskaen bidez ura egoki daramagu bi ur-jauste edeŕak atontzeko, oso luzeak ez diran uaska oyen azken mutuŕetan dauzkagun ur-bildegi txiki ta berezietatik beruntz.

—Baña menditarte ori ain egokiro idekia dagoela-ta, aŕu oso polita geratzen zaigu, eskuin eta ezkeŕean ia berdin-berdin diran mazelak agertzean eta erditik latsa jeistean datorkigularik.

—Ia urte guzirako ematen du ura iturburu oŕek, esan ditudan bi ur-jauste oyen eskeŕ ustiatzeko, ta udagoyenean bakaŕik ikusten da gutxiturik; baña bederatzi-amaŕen bat iīeetan ur-ugaritasuna gaindiro doakigu ta geyena alpeŕik jausten da beruntz beko ibaya gonburutzen.

—Yokin'ek duen asmoa ugalde aundi ori geyago ustiatzea da; ortarako, Aratz mendi pean dagoen sakanaren bi mazelaetan, beste lau uaska iriki ditezke, bakoitzean bi, ta bi galgatan ere, jakiña. Oŕela lau ur-jauste geyago ukan genitzake, naiz eta orain dagozenak baño indaŕ gutxiagokoak izan; baña sei jauste oyetatik, neguan batez ere, atera liteken tximistindaŕa aundi-aundia izango litzake ta oŕen bidez altzairu labe batzuk lanean jaŕi litezke.

—Oŕela, urtero zortzi edo bederatzi iīetan, eten gabe, altzairua egiten ari-izan gindezke, ta altzairu-mota guzietakoak ere.

—Argi dago, gañera, altzairu gero ta geyago erabiīi beaŕ-izango dala; ba-dakizute burni-bideak edonun jartzen ari dira Ludi zabalean, eta belbiīak, ibiltzeko eskuarte edeŕ oyek sortzen ere. Nork esan oraingo asiera dana noraño el diteken! Beraz, altzairuaren beaŕa, ongi atematen ez dan maīeraño, aundia izango dugu. Ta geuk emen altzairu on eta asko egin al baldin badugu, erokeria izango litzake lan ortan ez sartzea, obari edeŕen ituŕia izan diteke-ta.

—Diaz'ek: Txalogaŕia da, jauna, zure asmo edeŕ ori; ta nere ustez eŕiko guziok lagundu beaŕ zaitugu ekintza aŕigaŕi ori auŕera eraman al-izateko. Nire aldetik bederen, gerturik nauzu ortan yarduteko, ta nire ikasleai ere jakin-eraziko diet guzi oŕen zeatza, bai ta beren eŕi ontan daukaten aberastasuna nolakoa dan eta nola ustiatu beaŕ dan ere.

—Matauko'k: Elortza jaunak esan diguna, Ludi'an barna edatzen ari dan auŕerapenaren maīan dagoela ikus dezakegu; ta, egitan, oso egokia bezela agertzen da berak egin nai duen ori.

—Elortza'k: Poztutzen naiz zuen aldetik ene asmoa ontzat artzen duzutela ikustean. Baña gauzak ez dira beti egiteko eŕazak, eta bidean oztopoak sortzen dira, batzuetan gañeratzeko zaīak.

—Diaz'ek: Zein ote zure ekintza ortarako soŕ diteken oztopoa? Nik beñepein ez dut ikusten iñundik ere ...

—Elortza'k: Zuk ez, baña ixiīik dagoen gure endore onek apika bai ... ez al duk oŕela endore jauna? ...

—Letona'k: Bai, ba-zekiat nundik abiīen, nire goiko eyera duk, ziuŕ, oztopoa; len ere, bera erosi nai didakala esan didak batzuetan, baña eztiat uste naimen ori betetzea ain eŕaz izango zaikala; ta egin ere ziuŕ nagokik gaurko gure biīera ontara etortzeko ire deya xede ortaz egin digukala, nire eyera ori erosteko dukan yoranaren indaŕaz.

—Elortza'k: Adiskidea, etzekiat zergatik ari aizen oŕen mukeŕ oŕezaz. Ire eyera oso zaŕa duk eta beŕiztu nai-izan ere, oso garesti izango litzaikek ... eta zertarako gañera; gaur iriña askoz eŕazago ta obeto egiten duk oraingo urun-oletan.

—Letona'k: Eyera ori, niretzat, iriña egiteko tokia baño askoz geyago duk, gero; ori nire etxea duk, nire aita, aitona, aitaso ta tokilasoena ere izan uana, betidaniko nire sendiarena beraz; eta eginbidea duk enetzat, nire semeai ere uztea.

—Elortza'k: Txalogaŕia duk, alegia, sendiaren etxearekiko egiazko maitasuna eukitzea; nik ez dikiat oŕen aurka ezer esango, ta euzkaldun jatoŕ bat bezela ari aiz ortaz. Baña nire ustez guzti ori lengo beste garai ta bizi-modukoan uan egoki; gaur bizia askoz aldatu zaiguk, beste beaŕak sortu ere, ta gure oituretan, oŕengatik ain zuzen, ezinbestekoa izan beaŕ noraezeko aldakuntzak be egitea. Ikusi: len agoŕolak eta zeaŕolak, eŕuz ikusten ituan nun-nai, gure bazteŕetan ere; baña gaurko lantegiak zabaldu zaizkigukanezkero, ayetan egingo ukean lana alpeŕikakoa izango genikek, lantegietan gauza berak erosoago ta askoz merkeago egiten baitituk.

—Gero, ire semeak aunditzen ari zaizkik eta ezin guziak beren bizi guzirako aitaren etxean egon. Nik pozik emango niekek toki bana lantegian. Tira, gizona!, ik buru baño biotz geyago duk, noski, baña biziaren eratoŕera, guziok bezela, burua makurtu beaŕ-izango duk.

—Matauko'k: Euzkaldun jatoŕen jokera orixe da noraezean, norbera bere etxeari guztiz atxikitua egotea; euzkalduna, beti, txit etxe-zilo.

—Diaz'ek: Nik ez dut ulertzen nola bizi diteken oŕelaxe, erorkoŕ dagoen etxe zaŕ eta txatxaŕerako oŕen etxegin eta maitekoŕ izaten.

—Letona'k: Nire semeak aipatu dizkidak, Elortza. Nik ez nikek nai-izango nire seme oyetako bat ere, ez ire ez eta iñungo lantegian langiĪe bezela ikustea, ori ia jopu izatea iruditzen zaidak-eta; baña nun edo nola bizi berak erabakiko ditek, bakoitzak bere egunean. Orain entzun ezaidazute irurok:

—Maite dut, bai, barne-barnetik, nire etxea, nire seaska izan baita; geyago ere: Nire etxea nire jauregia da. Nire etxe ortan nire aita, nire aitona ta oyen aiten aitak ere jayo ta bizi-izan dira ... ni bezela. Etxean izan ditut nire negaŕ mingotzenak, baña bai ta nire

biotz-atsegin aundienak ere. Etxean jayo zaizkit nire semeak eta bertan nire eraz azi ditut. Etxetik at eztakit iñun iñor ote naizen; etxean bai, ba-dakit nor naizela. Letona da nire etxearen izena, Letona da nire abizena; biok bat gerala esan nezake. Ba-du nire etxeak bere gogoa ta ba-dirudi berea bera dala. Etxean so-egin eta besterik gabe agintzen dut, eta guziak ditut an maitasunez meneko. Etxea niretzat ari-arikoa da; asieran, apika, artzañaren txabola baño besterik etzan izan; gero, basetxea biurtu zan, abereak eta luŕak zaindu ta lantzeko; azkenez eyera ere egin zan. Baña bertako lana edozein izan, nire etxea beti izan da lan-tokia baño askoz goragoko zerbait. Guzia da niretzat etxea, eliza baten antzo edo, ta ni an apaiz nagusia. Oŕela artu nuen asabaengandik eta oŕela utzi nai diet semeai; Yainkoa'k nai dezala auek ere nik artu nuen bezela eskuratzea. Eztago Ludi guzian dirua naikoa nire etxea erosteko. Ik Elortza, yakitun egon adi ta egin ezak, nai baduk, ire uaska gorago ala beerago, baña eztuk artuko nire antepara ... gutxiago nire etxea. Ziuŕ adi!

Bere entzuleak mutu ta mintzuli geratu ziran eyeralariari ao zabalik so-egiten. Ain zarpail zirudien gizon arek, biotz barnean zeramana aurkeztean, jaun altsu baten itxura artu zuen, eta bere itzak, barne-barnean egosita zeramazkien biotz-ondoko leyak adieraztean, andigoiz beteta oguzi zituen. Eta iñor etzan izan nor yardukitzeko, ezezagun zan gertabeaŕ batek ixiĪeraziko bailituen. Beste girokoa zan irakasleari ere bere itz-jarioa agorturik geratu zitzayon, eta ordurarte ukan etzuen begirunez beterik agertzen zan, besteetan ain nabaskeriz erabiĪi oi zuen endorearenganako.

Sasibide batean bezela zegozen guziak, batez ere lantegiaren nagusia, bere xedeetarako ain oztopo aundia aurkitzean, eta unealdi artan etzuen ikusten iñundik irten-biderik. Oŕengatik, eta beren artean egindako ixiltasun ain aundi ta aztun ura nolabait uŕatu beaŕean, onela mintzo zan azkenez:

—Elortza'k: Jaunak, gure endoreari entzutean, txunditurik geratu gera ala beaŕez, eta adiskide onek esandakoari ezin erantzupenik eman. Asko maite dut nik ere nire etxea, ongi ezagutzen dut euzkaldunon artean bizi dan ariuŕi ori ta oso aintzakotzat dugula ezin ukatu. Baña enian uste, Letona adiskidea, egia esan, ire barnean oŕen eŕoturik zegokiala; barka nazak eta eztikiat geyago gaurgero oŕezaz itzegingo. Jaunak, ez dut uste, gaur bederen, besterik egiteko ez eta mintzatzeko ere dugunik; ikusiko dugu gerokoan nola ari al-izango

dugun. Dana dala, eskeŕik aunitz guzioi nire deyari ain egoki erantzun diozutelako.

Oŕela amaitu zan, berandu xamaŕ, aŕatsalde bero artako bilera ura, asieran iñork uste-izango eluken bezela; bai, alkartu ziranean beste ametsak iñorengan izan baziran, alkaŕi aguŕ-egitean etenak ikusi beaŕ.

Eta bakoitza bere bidetik joan zan, bere oldozpenak irabiatzen. Elortza jauna izanezik; au, aurtzaroko bere adiskidearenganako tiŕiarik gabe, baña aaleziñak goiberaturik oso. Burua makurturik, aikolo-maikolo, ara ta ona ibili zan bere lan-gela artan luzaroan, guzia bere auŕean itxita ikusiko balu bezela. Azkenez: — aski gaurkotz — esan zuen berekiko — goazen etxera ta ... biar ere argituko da.

Zinkideen lenengo bilera

Bere adiskideai aŕera ona egiteko ta, erabaki zutenez, lauren artean egin beaŕ zuten lenengo bilera gertutzeko, ajola aundienaz zebilen Mikel, ortarako aukeratu zuen eguna urbiltzen zitzayelarik eta, gero ta leyatsuago.

Ba-zuen gogoa, beaŕa ere ta ez txikia, bere adiskideak ikusi ta eurekin itzegiteko. Maiz gogoratzen zuen, ikasten alkaŕekin bizi ziranean, ayei mintzatzen eta entzuten, nolako laguntza ta euspena ukan oi zituen, eta oyen eskeŕ, beren asmoetarako, nola ikusten zuen bere burua indarturik.

Amamio'n, egitan, bakaŕik zegoen beren elburuetarako bidean; noski, etxekoak, emaztegaya, Martin-bizi ta besteren bat berarekin zeuzkan; baña guzi oyek bere atzetik edo zetozen, bigaŕen malan esan liteke, ta bere eŕi ta inguruko yardespena berarengan bakaŕik zegoela oartzen zuen, beste guziak beren siñismen eta itxaropena berarengan jaŕita baitzituzten.

Oŕengatik, argi agertzen zitzayon yardespen ura, bere zinkideena bera zala-ta, ezinbestekoa zitzayon oyekin egotea, alkaŕen beŕi jakiteko ta gerorako asmoak beŕiro aztertu ta auŕera eramateko erabaki egokiak aŕ zitzaten.

Bere adiskideak, bakoitza bere tokian, ororen asmoetarako lanean ari zirala ziuŕ zegoen, baña ayen aotik artu nai zuen guziaren beŕi, ta gorputzez bere auŕean eta aldamenean ikustea ere beaŕa zitzayola atematen zuen bere burua. Ikasten ari ziranean naretasun antzeko bat eta bide batez bere biotza indartua lez gozatzen zituen, beren alkartasun aren eskeŕ ain zuzen; eta barneko asetasun ura beŕiz berarenganatzeko iŕikitzen zegoen gogo-egaŕi bizienaz.

Ori dala-ta, alegiñetan ari zan bere lagunai abegi onena egiteko xedeaz. Etxean ba-zekien guraso ta aŕebak etxekoa ongienik beteko zutela, ta bere kexutasun bereziena eŕitaŕenganako zuzenduta zeukan.

Araya'ko jayetan egin zuten bezela, orain ere egokia zeritzayon lagun askorekin bazkari bat egitea, bertan beren asmoak ororen aurean ageŕerazteko; len bera izan zan asmo oyezaz mintzatu zana, baña orain arabaŕak etziran bere adiskide euzkaldunak zetozen mintzalari izateko; ta oŕela beren xedeak Euzkaleŕi guziarekiko zirala agertuko lirake. Nola artuko lukete ori eŕitaŕak?

Martin-bizi bere lagun onaren bitartez, bilkuraren beŕia Azpaŕena'n barna edatu zan, batez ere Kepa Deun'aren jayetan Mikel'i, orduan egindako bazkarian, entzun ziotenen artean. Oyek, Martin'ek ziñoenez, beste batzuei, entzundakoa jakin-erazi zieten eta ustekoa zan, oŕengatik, Yasokunde egunean entzuleak eŕuz erduko lirakela, len baño geyago.

Ontzat artuko ote lukete bere zinkideak antolatzen ari zan guzia?; zalantza txikirik ez oŕezaz Mikel'engan, baña alaz ere ayei lendik mintzatzea beaŕa izango zitzayokealakoan zegoen, eta dagoaneko ori egiteko berandu edo zalako, kezkatsu zegoen nolarebait. Beste aldetik beren asmoak laurok ongi mamituak zeuzkaten, eta Sabin'en berotasunaz batik bat gogoratzean bidezkoa zeritzayon oso ayek bere egitaraua ontzat artzea.

Martin'en ibiīaldietan beste zerbait ere atemanik izan zan. Araya'ko jayetan Mikel'ek egindako itzaldia, berak uste zezakean baño geyago edatu zan, entzuleen bidez eta aoz-ao besteenganaño aren beŕia eldu zalarik; eta belaŕi guzietan etzan ura berdin jausi. Araya'n bertan bizi ziran egoeŕitaŕ batzuk minberaturik geratu ziran Mikel'ek esandakoaz eta asmoa noraño el zitekenik nolabait sumatuz; eta ayen uŕengo bertako seme batzuk ere, Egoeŕia beren abeŕitzat zearo onartzen zutenak. Eta alkaŕen artean esamesaka asi ziran, egoeŕitaŕak aburukide zituzten euzkaldunak goratzen eta, bertakoak izateagatik, besteen aurka obekiago yarduteko iruditzen zitzaizkielako, bearbada zur beŕi artan sartzeko ziri egokiena izango zirala ikustean.

Berandu gabe, mindura aren ondorioaz, Mikel'en asmoen aurka yarduteko talde bat sortu zan eta buru bezela Diaz irakaslea agertu zan, egiazki autaturik izan gabe, baña beste guziek oŕela begiratzen zuten asieratik. Eta irakasle arek ere, bere burua oŕela ikusirik, buruz gañetik eta gogo-gogoz artu zuen talde ura zuzendu ta berotzeko lana, beaŕ-izango liraken unealdietan bere xedeetarako erabiltzeko asmoz.

Martin'engandik Mikel'ek guzi ori jakin zuenean, etzan bat ere

aŕitu, baña dagoaneko sortzen zitzaizkion arerioak nortzuk eta zenbatzuk ziran jakitea beaŕezkoa zala ikusten zuen; orixe esan zion bere zurgin lagunari ta onek oŕen beŕi zeatzena jakiteko ta ayen ibilkerak zaitzeko atzaŕi ari-izango zala agindu zion.

Guztiz nabaria agertzen zitzayon Mikel'i, bere inguruan bertan talde etsai bat oratzen ari zala, ta oŕen aurka buŕukatzea ezinbestekoa izango litzayokela ere. Talde artan gañera, eŕitaŕak ere, anai-anai zituen euzkaldunak be sarturik ikusi beaŕ zuen itunik, atzeŕitaŕen lagun, eta beren itsumena etzekien nola argi litekenik. Zera oŕek eta buŕukatzeko beaŕagatik, pakea aldenduko zitzayon usteak, biotz erdian min sakon eta bizia ematen zioten. —Nola, baña —galdetzen zion bere buruari— nola yardun nezake batera, eskubide, zuzentza ta pakearen alde? —Eziña bezela ikusten zuen ori ta ezinkizun ortaz bere barne-barnean on eta goitaŕ zeraman zerbait ondatzeko kinkan zegoela atematen zuen atsekabeturik.

Martin'ek esanda ere ta berarengana eldu zitzaizkion batzuekin itzegin ondoren, Azpaŕena'ko eŕietan barna bere asmoak gaizki artu etzituztenak ere ba-zirala jakin zuen, eta, asteko, etzan ori berarentzat gau-erdiko auntzaren estula bakaŕik; begikotasun artan auŕera jotzeko oñaŕi ona zeukan, eta alde artatik adorea indartzen zitzayon gogoan. Ba-liteke, ta ori ere on-irizten zuen, begikotasun ura Eŕi'ari buruzko asmoetatik bakaŕik sortzen etzala izatea, ondasun beŕiak lortzeko adierazi zituen xedeetatik baño. Alaz ere bide bietatik ari-izatea egokia zala iruditzen zitzayon, eta inguru artako nekazariai geyago ala obeto irabazteko bideak ematea ere, Eŕi'aren alde egin beaŕ ziran lanetatik bat zan enurarik gabe, bai ta aukerazko bidea ere Eŕi guziari zegozkion goiko asmoak bazteŕetan onarturik izan zitezen.

Uste, kezka ta asmo guzi oyek bere barnean irabiatzen zituelarik, Sabin eta beste lagunak ikusteko iŕikatzen zegoen eta ayek eltzeko eguna urbiltzen zan giñoan areago artega.

Zerbaiten zai norbait dagoenean, batik bat zerbait ori eltzeko leyaz egon ezkero, ba-dirudi egun eta orduak neuŕi guziaren gañetik luzatzen dirala, gogomiña gero ta aundi ta sakonago dagitela, ia ezin-eramana biurtu arte.

Naiz eta bere buruari indaŕ egin, barnetik sortzen zitzayon iŕika menderatzeko nayean, Mikel'entzat dagoniīaren lenengo bi aste ayek barekurkuīo nagiena baño astiroago joan zitzaizkion egunez-egun igarotzean; azkenez, alan eta guzti, bat-banaka atzean geratu ziran

egun ayek, eta Ama Neskutz'aren auŕekoa argitu bezin laisteŕ, gure mutiīa jeiki zan eta bere burua ikuzi ta beste, azkaŕenik egin ondoren, sukaldera jetxi zan eta an iñor aurkitu etzuelarik, orduan oartu zuen goizegi zebiīela ta etxekoengatik damuturik geratu zan ain iraduz ibiltzeagatik.

Amak ongi entzun zuen semearen ibilkera ta au egun ayetan urduri zebiīela argiro ikusi zuelako, oitura zuen baño lenago jeiki zan bera ere, ta aurkí semearen ondoan zegoen onela mintzatzen:

—Ama'k: Egun on Mikel, goiztiaŕ abil gaur, uste al duk bultziak i baño lenago elduko dituala? Ulertzen diat ire ezin-egona, baña ba-duk oindiño astia, bai, geltokira garaiz eltzeko; nolanai ere gosaria berealaxe emango dikiat lasai abil adin.

—Mikel'ek: Bai ama, ezin ukatu, urduri nago ene adiskideak ikusteko ta lo ere gutxi lo-egin dut gaur; gau luzea benetan eta orenlaria be astiroago zebiīela esango nuke. Ba-dakit beti eroapenez ari beaŕ dala, baña ezin barneko iŕia menderatu; barkatu ama, nigaitik zu ere lenago jeiki zera-ta.

—Ama'k: Ori eztuk ezer, mutil; nire adiñean ordu-erdi bat geyago ala gutxiago oean egoteko berdin; i ire onetan eta nareago ikusi nai-izango indukeat. Egon adi pizkatean eta bereala ukanen duk gosaria.

Xixpa-pixtean gertu zion guzia bere semeari, ta nolabait astiroago ibil-erazteko, onela mintzo zitzayon:

—Ama'k: Tira, nik ere irekin gosaldu nai diat alkaŕekin obeto egiteko. Baña, kontuz!, esnea beroegi zegok eta eŕe ezakek aoa aŕapastaka ibiīi ezkero.

—Mikel'ek: Bai, izpidean zagoz ama; ta beŕiro barka beaŕ diozu zure oni; niganako kexurik, beti lan geyegi artzen duzula-ta; orain ere nire adiskideak etortzeagatik aundituago izango duzu lana, niri atsegin emateko egiña ... aŕoketan natzaizu oŕengatik.

—Ama'k: Ez adi estutu, seme, ire aŕeba ta biok eŕaz egingo zitiagu beaŕ-izango ditukan gauza guziak. Eta nik ere ba-diat ire adiskide oyek ezagutzeko gogoa. Orain geltokiruntz joan aiteke, giro edeŕa zegok eta astiro-astiro baldin baoa eguratsaldi ona izango duk.

—Mikel'ek: Ba-noa, bai, ama, ta ziuŕ nago nire adiskideak ezagutzen damurik izango ez duzutela.

Irten zan, bada, Mikel etxetik eta beruntz abiatu; ez ala ere bere amak esondatu zion ain astiro. Barneko leyak indarturik arin

ibiltzeko zijoazkion oñak, eta geltokira goizegi elduko zala jakinaŕen, iraduz ibiltzeko bearturik izango balitz bezela zijoan.

Ordukotz, eguzkia bete-betean zegoen, eguneroko bere bidean barna abiaturik, eta luŕ gañeko izaki guziek gañean zituzten aren iñaŕ eta ziŕintak; auen eskeŕ oro agertzen zan argitan blei; alaitasun eta azku bizia, zentzundunengan barneratzen ziran, barnetik, gero, gogoŕ eragiteko, oyartzun egokia aurkitu bailuten; iñaŕek nun-nai sua pizteko aña, aurki guzia galdatan jartzeko, gero ta samiñago bazteŕak berorako eragiten; eta ziŕintek, ain distirakoŕ ziralarik, begiak itxi-erazten zituzten, ainbeste argi artzeko gai ez izanik.

Soloak, egun gutxi auŕetik garia ebaki ta jasota zegozela, galtzondoak biurturik agertzen ziran, oŕiska ta luŕ-nabaŕa oro; ta begirako margo atsegiña ezpazan ere, pozgaŕia bai, aŕezkero lugiñek beren uzta lortua zeukatela adierazten baitzuen. Murko ta mendietan eta ibayaren ur-egietan zugatz eta zugazño, sasi ta txapaŕak, ba-zuten oindiño ezetasunezko margoa, orlegia alegia, baña dagoaneko iīun xamaŕ, urtezaroa auŕera zijoala erakusten eta aroaren indaŕaz guzia umotzen ari zala iragartzen.

Mikel'ek etzuen orduan ezer ikusten ez eta atematen ere. Bere aurtzarotik eta bere bizi guzirako, gogo-barnean ain atxikita zeramazkien landa ayek amaika bider igaro zituen, eta beti bere baitan gogorapen gogoŕak, berberak, soŕerazten zizkioten. Eta ain zuzen luŕ ura barnetik maite zuelako, ayetatik zetorzkion guda-oroitzapenak irabiatzen, pake-xedeetan biurtzeko alegintzen zan tai gabe, ezinbestekoa zeritzayon beste uŕengo guda baterako deyen artean. Eta ura zan, bai, berarentzat barneko guda bizia: pake-naya ta gentza-beaŕa alde batetik, eta sayestu eziña zitzayon bere Eŕi'aren alde yarduteko noraezeko guda bestetik, beaŕ-beaŕak zeuzkan bi jokera ayek biotz erdian zeramazkien, alkaŕen aurka, mutiīaren bizia zearo jo-ta, ziñak eta miñak jasaten.

Egun artan, ala ere, Mikel'en baitan oŕelako burutapenerako tokirik etzegoela, ta argiagatik ere begiak erdi itxita zeramazkiela, etzuen iñora begiratzen, geltokira eltzeko iraduz eta bere adiskideak ikusteko yoranez. Alpeŕik zan berarentzat goizegi zijoala gogoratzea, oñak zebilzkion aidean eta entzumena zoli, bultziaren txistua beregana tzeko tiŕiaz; eta berez gibel aundiko bazan ere, goize artan artega ta eŕe zebiīen, bidea iñoiz baño luzeagoa zala iruditzen zitzayolarik.

Eldu zan geltokira ta bertako orenlariari so-egiten, oindiño ia

ordubete zeukala ikusi zuen bultzia eltzean ikusteko, ta betetzeko eziña zeritzayon zai egoteko zegoen aldia; ordubete, amai gabeko astia. Geltoki-zañari, jakitun izanaŕen, bultzia eltzeko ordua zein zan eta ia atzeraturik ote zetoŕen galdetu zion, naretu nayean edo, ta ongi zetoŕela jakin zuenean lasaitasun pizkat bederen oartu zuen bere baitan.

Zai egotea zan, beraz, egiteko zeukan guzia; ta espaloyan asi zan gora ta bera, uŕats ariñetan beti, eguzki bete-betean, galdatan, beroaz eta ibīleraz aurpegia goŕiturik eta izerditan zegoela oartu gabe; otsegin zioten geltokiko landolara sartzeko, an itzalean bederen obeto egoteko, baña alpeŕik, su-gurdia uŕutian agertu ta uŕeratzen ikusi nai zuen, oŕela ariñago eltzeko eragin al zezakean lez.

Ara, azkenez, burni-bidea igarotzeko, muño batean egiña zegoen luebaki batean, an, uŕun, kemordo txiki bat agertu zala ta, arek sortua bezela, su-gurdia ere uŕengo ta bere atzetik, suge ikaragaŕi baten antzo, bultzi guzia, burni-bide bikien gañean eŕestan arin urbiltzen zalarik.

Eta geltokira eltzean astiro gelditzen asi zanean, biraka ari zitzaizkion begiak Mikel'i nai zuena ikusteko leyaz ... eta iñor ikusi gabe; baña leyatil batetik: Mikel!, deadaŕa sortu zan; oŕela mutīlak bere adiskidea ikusi baño lenago entzun egin ziolarik.

Laisterka joan zan Mikel deya entzun zuen aldera ta, bultzia zearo geldirik geratu baño lenago, ara Sabin jauzi batez luŕera ta bi adiskideak egundoko besarkada batean alkartu zirala.

—Mikel'ek: Mutil!, ba-nian uste bultzi au iñoiz eldu beaŕ ez uala. Nola atoŕ?, ongi, nekatuta? gosaldu al duk?, ezer beaŕ ote?, zer diñok, gizona?

—Sabin'ek: (paŕez) Ezer ez galdezka jaŕaitzen baduk.

—Mikel'ek: Barka, otoi; baña igandik guzia jakin nai-izango nikek batera. Ikusteko iŕika nengokik eta azkenez emen aut, zorionez; baña orain ikusita, entzuteko diat leya.

—Sabin'ek: Ez estutu nigatik; oso ondo etoŕi nauk; Gasteiz'en lo-egin diat, bertan gosaldu ta emen nagokik erabaki genian bezela, i, ire etxekoak eta gure Amamio ikusteko nayean. Ondo al ago i?; baltzitua ikusten aut, noski lugin bati ta aro ontan zegokianez. Eta gure lagunak noiz elduko dituk?

—Mikel'ek: Oindiño ordu t'erdi zitiagu beren bultzia eltzeko; uste diat Altzatzu'an bilduta edo, alkaŕekin etoŕiko dituala. Beraz,

ongi bazeritzaik, ementxe egongo gaituk beren zai ta, eguzkitan ez kiskaltzeko, oŕ aldamenean zegokan edaritegian saŕ gaitezkek zertxobait edateko ere; etzegok ene iduriko, etxeraño biok joaterik, bereala oneraño beŕiz etortzeko, ta gero laurok joango gaituk.

—Sabin'ek: Ederki, izpidean ago; goazemak eztaŕia pizkat bustitzera; ta beaŕa izango zaiguk gañera, mintzatzeko ere gutxi ezpaitzegok.

Sartu ziran, bada, adiskide biak edaritegi artan eta goize erdian zegozelarik, an etzegoen iñor; oŕela lasai jaŕi ziran mai baten ondoan eta etxeko neskatīlak eskatu zutena auŕean ipiñi zien.

—Mikel'ek: Bero zegok gaur, beroegi, ta ba-zirudik guzia kiskalduta geratu beaŕ dikala. Gero ia oŕdu erdi bat beaŕ-izango diagu etxeraño joateko; oñez joan gaitezkeala uste nian len, baña orain etzekiat ori zuentzat geyegi izango ez ote dukan, zuek uritaŕak izanik.

—Sabin'ek: Ez gizona, nik beñepein ibiltzea maite diat eta landan edo mendian izan ezkero obe, ta eztiat uste besteak ere ortarako estutuko ditukala.

—Mikel'ek: Obe oŕela. Sapabero diagu gaur eta, asko ez izanaŕen, etxerako bidea aldapa gora zijoakiguk; beraz igotzean pizkat neke gaitezkek, baña, beste aldetik janguraz elduko gaituk, ongi bazkaltzean amari atsegiña emateko.

—Sabin'ek: Ortan bai, atsegiña emango zioagu ta ez txikia, ni bederen goseti aundia bainauk. Baña, i, geyegi ez ote duk ire etxean bi egunetan egotea?, ire gurasoentzat batik bat?

—Mikel'ek: Ez izan ajolik oŕezaz, gizona; gurasoak eta aŕeba, ta nerau zer esanik ez, pozik egongo gaituk zuekin egun auetan. Alakotz, zuek ondo baldin bazagoze, gero ... gure lana ta gure asmoak ikusi ta erabiltzeko astia izango diagu aski, oyetzaz lasai ari-izateko; ta orixe diagu elburu nagusia.

—Sabin'ek: Bai ta eztiagu lan txikia izango ori, lendik ere uste nian bezela lana gogoŕa agertzen zaiguk, nekegaŕi ta auŕeruntz eramateko beaztopo aundiak gaintzeko beartua. Gero, alkaŕen beŕia ematerakoan, ikusiko duk gure arazoen zailtasuna nolakoa dukan.

—Mikel'ek: Enauk aŕitzen ori entzutean, neuk emen egin diadana gutxi izanaŕen, aurki oartu zitiat autsak zuŕumīloetan.

—Sabin'ek: Eta gure asmoetarako bide ta lanetan asieran gagozkik oindiño; sumatzeko edo, auŕerantzean sortuko zaigukana nolakoa izango dukan. Gurean Egoeŕi'aren gogoa ezuŕetaraño sartzen ari zai-

guk eta guretaŕen batzuengan aŕitzeko indaŕaz gañera. Geroztik gure auzia bi aldeetatik aurkituko diagu zala, erbestekoen eta guretaŕen aldetik. Lenengoena bakaŕik izango balitzak!

—Mikel'ek: Ikusi diat ori txoko txiki ontan ere ta aŕituta egoten nauk batzuetan, euzkaldunak, berea uztean, erbestekoen jokera onartzeko zerabilkian aisetasuna, geyegizko malgutasuna oartzean.

—Sabin'ek: Egia duk ori, bai, ta ongi ateman duk gertaria; ene ustez azalpenen bat izan beaŕ ori ulertzeko, baña nik eztiat ikusten; eta ortaz ere ari beaŕ-izango diagu gure euzkal-gogoa ikasi ta azterkatzean.

—Mikel'ek: Oso zabal diagu, azpegi askotakoa, egiteko erabaki diaguna; azpegi guzi oyetan barna ezin batera yardutea ta ona izango litzaigukek beren gaŕantziarekiko uŕenez-uŕen erabiltzea; ba-zekiat ala ere, batzuetan zala izango zaigukala zein bestea baño lenago erabili beaŕ-izango diagun.

—Sabin'ek: Ez diat uste, ona izan litekean uŕenkera ori bein-betiko eran atontzea egingaŕi ez eta egokia ere izango uala, ta bidearen zeaŕ, saŕi, beaŕa izango zaiguk apika aldatzea.

—Mikel'ek: Aburukide natxiok ortaz oso; ikusiko diagu Eneko ta Xabier'ek zer ziñotean. Baña, i, ia ordua duk beren bultzia eltzeko; joan beaŕ diagu oyen zai espaloyan egoteko.

—Sabin'ek: Goazemak, bai, oyek ere ikus gaitzatean neuk ikusi audan lez.

Irten ziran adiskide biak aize zabalera ta ba-zan garaya, Burunda aldetik bultzia baitzetoŕen. Zetozenak ikusteko gogoaz ez zuten oartu eguzkia ia bere gingan zegoela ta bere iñaŕak beren gañera, sapa aundiago egitean, zuzenago jeisten zirala ere, ta leyaz beterik, gelditzeko eran bultzia eltzen zala begiratzen ernai zegozen.

Eta an, leyoetatik eskuak agertu ziran aguŕ-egiten eta berai zuzendutako abotsak: Mikel!, Sabin!

Arin jetxi ziran zetozenak eta berealaxe laurek alkaŕ besaŕkatu zuten deadaŕez: Kaixo, aspaldiko!, lagun zaŕ!, ba-gaituk!, au poza!, ba-nian alkaŕ ikusteko gogoa!, nola zagoze?, gure zai aspertu edo?

—Mikel'ek: Ez, eta niri dagokit iruroi ongi-etoŕi beroa esatea, ta egitea ere, biotz-biotzez gañera. Ba-gera laurok beŕiz alkartuta; eztakizute nire poza ta nire lasaitasuna nolako aundiak diran oŕengatik; beraz, eskeŕonekoa natzaizue, txit, oneraño etoŕi zeratelako.

—Goazen orain etxeruntz pizkat ibiltzeko nagi ezpazerate. Bero

ala euri ez dagozenean, emendik etxeraño oso ibiltaldi atsegiña egiteko bidea dago, baña gaurko bero kiskalikoŕaz eztakit zuentzat geyegi ibiltzea izango ote dan.

Baña alkaŕekin eldutakoek ezetz erantzun zioten, ibiltzea maite zutela-ta, ajolik ez beroagatik ere.

—Mikel'ek: Goazen, beraz, Amamio'runtz!

Laurak abiatu ziran, Mikel zuzentzale. Geltoki ondoan zegoen Albeniz eŕi baŕena igaro ondoren, solo-tartean zijoan bidea artu zuten sapa-berotan.

—Sabin'ek: Alderdi edeŕa mendi oyen baŕena edatzen dukana. Enian ezagutzen eta oso ikuspegi polita benetan oŕ, oro arturik.

—Mikel'ek: Ain zuzen mendi goŕi oyetatik datorkio izena bateŕalde oni: Azpaŕena, ots, aitz-baŕena. Mendi goituen oŕek Araz du izena, len Araitz esaten zitzayona, ta ene ustez ortik ere datoŕ bere azpian dagoen eŕiaren izena: Araitza, Araya. Araba'n bertan, Zuya buruan, ba-dago beste izen bat oŕen antzeko edo egiña: Yurdin, Aitzurdin'etik sortua. Eskumaldean ikusten dan beste mendi ori Umandia da ta bere maldan burni-meatz bat dago. Len ortik ateratzen zuten burnia ustiatzen zan, Zirauntza ibai oŕen ondoan jasota zegozen ziaŕoletan, baña gaur aituta dago meatz ori.

—Eneko'k: Baña ez al zegok, bada, Araya'n burni-ola aundi bat?

—Mikel'ek: Bai, baña menasta Bizkaya aldetik zekartek. Gaurko ola ori lengo ziaŕolaen ordez jaŕita dago ta bere egin-bide onena ibayaren iturburutik artuta dagoen ur-jauste edeŕa dute. Ba-dago asmo bat ur-jauste ori obetzeko, ain zuzen oŕ zuzendaria dan Albizu'taŕ Yokin gizon azkaŕak asmatu duenez; biar ezagutuko duzute, dagoaneko guretaŕa dan Yokin ori. Gero, eguŕ-ikatza ere oŕ auŕean agertzen dan Intusi basoan egiten dute.

—Sabin'ek: Ba-zegok, bada, bizia emen, adiskidea; guzia eztuk nekazaritza, gero.

—Mikel'ek: Bai ala duk, izan ere. Azpaŕena ontan nekazaritza ta burni-lantegi-biziera zitiagu.

—Baña, ara, ba al dakizute nun gabiltzan?: ain zuzen ere, alkaŕekin ikasten ari giñanean bein baño geyagotan edestu nizuen eŕigoitaŕak eta eŕiberataŕak alkaŕen aurka egin zuten erasoaldi izugaŕi ura jazo zan landan. Ementxe, txikitan ikusi beaŕ-izan nuen astakeri aundi ura, ta dagoaneko ikusten dan gure Amamio eŕi ortatik. Ikara-

turik ikusi beaŕ-izan nuena, ta oraindik ere latz-ikara ura ene baitan beŕitzen zait bera gogoratzean, batez ere emendik igaro beaŕ dudanean.

—Sabin'ek: Obe zaigula deritzait, erasoaldiaren ordez, bere ondorio bezela, amamiotaŕek egin zuten dei edeŕaz oroitzea, ortan tinkatu baitezakegu gure eginkizuna.

—Xabieŕ'ek: Au beroa, mutiīak; izerditan blai nagokizue; ba-diat gogoa, Mikel, ire etxera eltzeko.

—Mikel'ek: An izango gera aurki; eŕiaren eskuma aldean ikusten dan etxea duzute gurea, ta ate ondoan agertzen diranak nire gurasoak eta aŕeba dituzute; berak ere, ziuŕ, ikusi gaituzte ta zai dagoz. Biotz on!, beraz.

—Ikusten al duzute, an goyan, ezkeŕ-aldean, ke-bide luze ayek? Antxe dago burni-lantegia; ta azpian Araya'ko etxe batzuk ere agertzen dira; biar joango gera ara.

Au esanda, etxera eldu ziran, eta atean zegozenak berenganuntz auŕeratu ziran agurka:

—Aita'k: Ongi etoŕi!, nekatu zerate noski oneraño eltzeko.

—Ama'k: Bai, ongi etoŕi!; baña, gizajoak!, izerditan zatoze laurok; erdu, erdu baŕura, itzalera.

—Sabin'ek: Aguŕ jaun-anderea, ta zuri ere Maādalen; emen gera zuengana pozez beterik gatozen aŕotzok.

—Aita'k: Ez, ori ez, zuek ez zerate gure etxean aŕotzak; Mikel'en adiskideak, gurean, beste semeak izango ditugu.

—Sabin'ek: Eskaŕik asko, jauna; alegiñak egingo ditugu, geron aldetik ere, zuen abegi edeŕ oni alik eta ongienik yardesteko.

Orobat esan zioten beste lagun biek ere etxagunari, gogoz eta biotzez.

—Ama'k: Maādalen, eraman itzan mutil auek beren gelaetara, nai baldin baditen beren burua pizkat garbi edo busti dezatenan.

—Madalen'ek: Pozik, bai, goazen goruntz. Toki asko ez dagoelarik, gela batean zuetako bi egotea ontzat artuko duzutelakoan gagoz, eta bestea beste gela txikiagoan bakaŕik. Auetxek dituzute gelak eta zuek banatuko dituzute zuen gogara.

—Xabier'ek: Baña au geyegi da, irurok ere gela ontan egon gindezke ongi.

—Mikel'ek: Amak atondu ditu bi gela auek Maādalen'ek esan

duenez, eta uste dut lasai aŕ ditzakezutela, biak oŕela; orain zuek erabaki nor geratuko dan bakaŕik.

—Eneko'k: Ongi baderitzazute, Xabier eta biok, alkaŕekin etoŕi geranezkero, gu biok ere saŕ gaitezke gela ontan, eta ez dut uste Sabin'ek bakaŕik egoteko eragozpenik izango duela.

—Sabin'ek: Nai dezazuten bezela.

—Maādalen'ek: Eta bazkaria gerturik dago; beraz, nai-izango duzuten bezin laisteŕ jetxi jangura.

Azkaŕ bete zuten bidariek gelaetan betetzekoa, ta alkaŕekin agertu ziran bereala maīadian beruntz. Eta maya beren zai zegoelarik, guziak eseri ziran zamau zuriaren baranoan. Amak maya onetsi zuen lenengoz eta berealaxe jatekoa bertan jaŕi ere.

—Ama'k: Eztakit gertu dugun bazkaria zuen gogokoa izango ote dan, baña ba-liteke, oneraño eltzeko bidean gora etoŕi bearturik, jangura egotea, ta oŕela emengo janaria aintzakotzat edo aurki dezakezute.

—Sabin'ek: Egia da ibiltzean jateko gogoa aunditzen dala, baña ipiñi diguzuna gogozkoa da berez eta gozagaŕia benetan. Ba-genekien, gañera, Mikel'ek esanda, sukaldean nor zerala, ta orain ori egia dala gerok ikusten eta yastatzen dugu. Goresmenak zuri.

—Ama'k: Eskaŕik asko, ta jan nai aña bilduŕik gabe.

Ez ziran, ez, mutil ayek bilduŕik izan auŕean jaŕi zietena iresteko, ta bazkal-aldia pozik eta atsegiñez bete zuten guziek. Eta akeita artzerakoan:

—Aita'k: Ta ... ze beŕi dakarzute Bilbao, Donostia ta Iruña aldetik? Ba al dago aski lan toki oyetan?; eta Eŕi'aren arazoak ere, ongi?

—Sabin'ek: Bilbao aldean bai, lan aundia dago, meatzetan eta gero ta geyago jartzen ari diran lantegietan. Baña Eŕi'aren biziari dagozkion arazoak ez ain ondo ene iduriko.

—Eneko'k: Gipuzkoa aldean ere, gaurko era beŕiak ustiatzean, edonun sortzen dira mota guziko lantegiak; ortarako egaŕi bide dagoz guziak, eta Eŕi'aren arlo bereziak aiztuta edo geratu beaŕ oŕengatik.

—Mikel'ek: Bai, Araya'n bezela, alde guzietako elgoŕia dugu ori; ta Eŕia jasotzeko elburua izango balitz, gaitz erdi; baña norberak dirua egiteagatik bakaŕik alegintzen dira guziak, eta ez da besterik ikusi nai.

—Aita'k: Betidanik ari da gizonaren apeta aberastasunak metatzeko jokeran; barnetik sortzen zayo giriña ori gizonari. Ta ortan ere geyegikerietan dago ogena, bidezkoa baita, neuŕi onean, bakoitzak bere egokera obetzeko nai-izatea; baña zaīa da neuŕi batean geratzea, ta bein obetzen asi ezkero, bide ortatik ez dago gelditzerik.

—Ama'k: Aberatsa ipernuko laratza esaten da bada.

—Sabin'ek: Aberastasun-egaŕiz dabiīenak paŕe-egiten du ipernuaz mintzatzen dantzuenean. Dana dala, gure Eŕi'arentzat gaurko galbidea orixe dugula aitortu beaŕ, ta oŕengatik guk egin nai dugun lana zaīagoa izango zaigu auŕera eramateko.

—Aita'k: Mikel'i entzun ondoren, oŕela ikusten dut nik ere zuen asmoa. Asmo oŕi buruz izpidean zagozela uste dut nik, eta elburu zail ortarako bidean sartzeko, kemena beaŕ da egitan; zuek oŕela ikustea niretzat pozgaŕia da, baña bide batez alako bilduŕaz begiratzen dut zuen gerokoa, ziuŕ bainago arerio aundiak sortuko zaizkizuela. Gure Eŕia biotzetik maite-izan dut beti; oŕengatik eta oraingo kinka txaŕean dagoela ikusirik, oso txalogaŕia dut beraren alde jokatzeko edonor kementsuki agertzea. Ia gure Yainkoa'k laguntzen ote zaituzten.

—Mikel'ek: Zorionez oŕezaz emen guziok batera gatoz, eta ori biozgaŕia da. Orain, ongi baderitzaizue, gure lan-bilkura egiten asi beaŕ dugu. Ortarako, ene ustez, obe izango zaigu nire gelan egitea; an gu bakafiik izango gera ta emen gurasoak eta Maīalen lasayago geratuko dira beren eginkizunetarako.

—I, Maīalen, gero Martin etoŕiko dun eta eraman ezan gugana, otoi. Goazen gu gora.

Ongi iruditu zitzayen guziai Mikel'ek esana ta an ziran bereala lau adiskideak Mikel'ek bere gelan zeukan lan-mai inguruan jaŕita.

—Mikel'ek: Asi gaitezen, nai baduzute, besterik gabe, gure lanaz, astia ez galtzeko; ta zuek, nirekin egoteaz, ematen didazuten poza gozatzean, uste dut, emen egoteagatik, niri dagokidala, lenengo, zuei nire beŕi zeatzak ematea.

Ontzat artu zuten ori besteak, eta jaŕaitzean:

—Mikel'ek: Egitan bein bakaŕik itzegin dut askoren auŕean, Araya'n eta bertako jayak izan zirala kari, an antolatu genuen bazkari batean. Alde batetik gure asmoen beŕia jakin-erazi nien an bildu ziranai, ta bestetik, Azpaŕena'ko lugiñen artean egin genezaken alkartasun bereziaz, guzion obariak geitzeko xedeaz noski. Adi-adi entzun zidaten guzia ta iñork etzuen ezer erantzun; gero jakin dudanez, asko

mintzatu da nik orduan esan nienaz alderdi ontan eta ba-dagoz alde ta aurka agertzen diran lagunak; alde dagozenak emengoak dira guziak; aurkakoak, emen bizi diran egoeŕitaŕak, ez dira asko, ta euzkaldun batzuk ere. Ta zai dagoz guziak gerokoari begira, ia nola jaŕaitzen dugun.

—Ene asmoa, nekazarien alkartasun aundi bat egitekoa da; egitan, nekazarien bizia goratzeko xedeaz lenengoz, eta gero, oŕela, eŕi ta luŕa benetan maite ditugula egiztatzean, abeŕiarekiko asmo nagusiak, oŕengatik ain zuzen, obe ta eŕazago onaŕ ditzaketen.

—Biar Araya'n, urtero bezela, jai berezi bat egingo da «Andra-Mari» deitzen dan auzo batean; an elizatxo bat dago, ba-liteke Araya'n egindako lenengoa, Ama Neskutsa'ren Jasokunde'ari jaikun eta omenez jasoa, ta ortik datorkie izena, elizatxoari lenengoz eta auzoari gero.

—Mugon egokia dala uste dut, jai ori, giza-lagunik asko bilduko diralako; ta orain ia bi iīebete egin genuen bezela, biarko beste bazkari berezi bat antolatu dugu, zuek eta laurok bertan gure asmoak ageŕerazteko.

—Sabin'ek: Ongi jokatu dukala uste diat, itzez eta egitez; onak dituk itzak eta obeak egipenak; ayek belaŕietatik sartzen dituk, besteak begietatik; eta entzutean baño geyago onartzen zitiztek guziak asmo ta gayak, egipenak biurturik ikustean; geyenentzat ikustea zayek beaŕa, siñisteko. Ene ustez ire alkartasun ori, ongi burutu ezkero, ez emengoentzat bakaŕik, beste askorentzat ere, eredu ageŕ ditekek; eta guzion elbururako txit egokia izango zaiguk. Nekazaritzarako bidea, beraz, ongi asita dugu, ta beste arazoetara jo dezakegu ongi baderitzaizue. Ia irea, Eneko!

—Eneko'k: Izkuntzarena, ezta? Eztago oŕ lan makala egiteko. Orain arte euzkerak mintzatzen bakaŕik eutsi dio bere biziari, baseŕietan batez ere. Baña ez da iñoiz ikastoletan erabiīi ta ondorioz ez da ia iñun idatzita ageri. Idazle batzuk izan dira, geyenak apaizak, zerbait idatzi dutenak, baña guzia ain gutxi izan dalarik, ortaz asteko gagozela esan beaŕ da.

—Bitartean erdera saŕerazi digute, bai ikastoletan, bai mota guziko agirietan ere. Oŕela, agintariekin ala sendagiīe, lege-gizon eta oŕelako beste bizibideetan lan dagitenekin aŕemanetan sartzeko, erdera ikasi ta erabiīi beaŕ nai ta naiz ez, oŕelakoetan ari-izateko bideak euzkerarentzat itxita dagozelako.

—Jokera ortaz, noski, bizi-izateko beaŕez, euzkaldunak alegiñetan ari dira erdera ongi ikasteko, beren jatoŕizko izkuntza baztertzeko xedeaz batera agertzen diralarik.

—Lateŕiak jaŕitako ikastola ta erakunde guzietan eztago euzkerarentzako tokirik, erderaz egin beaŕ toki guzietan eta gai orotarako ere. Bide batez gure izkuntzarekiko ezezpena zabaltzen ari da, ta elizan izanezik, eta oŕ ere ez beaŕ-izango litzaken neuŕian, iñun ez da onartzen euzkera; oŕengatik mendietaruntz doakigu atzeraka, ta, oŕela jaŕaitu ezkero, gure baseŕitaŕak ere kalekoak lez jokatuko dute aurki; orduan iīa geratuko zaigu gure mintzaira, ta berarekin gure Eŕia ere, euzkera baita gure euzkal-biziari eutsi dizayoken bide bakaŕa.

—Negargaŕia da egokera itun ori nabaritzea, baña nire ustez dagoen bezela ikusi beaŕ dugu ori, ta kinka ortatik ateratzeko ta guzia zuzentzeko alegin aundienak egin beaŕ-izango ditugu. Nik Donostia'n adiskide batzuei ebazkizun onezaz itzegin diet eta aburukide ditut zerbait egiteko asmoz. Biīera batzuk egin ditugu xede ortaz, eta geron ustez, lenengo uŕatsak bezela, elizti bat, iztegi bat eta aldizkari bat ere egiteko asmotan gagoz; eta, apika, aldizkaria baño lenago, obe izango litzake asterokoren bat ateratzea, bereziki, beŕien izpaŕingia izateko. Ene ustez, erki bakoitzean gurea bezelako beste talde bana eratzea beaŕa dugu, gero, guzien artean aŕemanetan sartzeko. Oŕa zer ekaŕi dudan zuei esateko.

—Sabin'ek: Pozgaŕia izan duk niretzat esan digukana entzutea; euzkerarena da, enurarik gabe, gure arazo bereziena ta gaŕantzitsuena, gure izkuntza baita euzkal-gogoari eutsi al dizayoken eskuartea soiīik. Ia orain i, Xabier, zer ote dukan guri esateko.

—Xabier'ek: Gutxi dala uste dut. Euzkal-eskubidea izan zan niretzako autatu genuen arloa; baña enaiz ortaz bakaŕik zedaŕitu, edestia ere ikutu beaŕ-izan dut, Napaŕoa'n batez ere, eskubide ta edestia, saŕi, alkaŕekin ikusten diralako, ta, askotan, edestiaren bilbakuntzatik eskubidea sortzen dalako. Ongi dakizutenez, Napaŕoa'k bizi oso nabaria ukan zuen Erdi-aroan, oparo zabaldu zana, bai ta txit eragikoŕ ari ere. Iruña'n dagozen agiritegietan, amaika dagoz agiriak bilduta, eta oyetatik atera ditezke Napaŕoa'ren edesti-zeatzak ugari. Ene gardiz, gure uri nagusietan beste ainbeste ezpada ere, zerbait edo aurki diteke, ta guzietatik, naiz gure Eŕi osoaren edestia naiz bere eskubidea ezagutzeko oñaŕizko beŕiak atera ditezkelakoan

nago; ta oyen bidez, gure abeŕiaren edestia, eskubideak eta nortasuna nabari-nabarian ageŕerazi lekizkieke gure eŕitaŕ guziai.

—Ni Iruña'ko adiskide batzuekin guzi oŕezaz mintzatzen egon naiz, eta ba-dira batzuk ortaz egin diteken lana onartzen dutenak. Uste dudanez, edestilari ta legelarien artean bazkun berezia egitea ona izango litzake, esandako ikasketa oyek ongienik antolatzeko ta zuzentzeko. Agian, aldizkari berezia ere egin liteke, guzien lanak argitaratzeko ta oŕela obeto zabaltzeko. Gañera, beaŕezkoa deritzait guzi ori gure elburuetarako ere.

—Sabin'ek: Ederki ori ere, gizona. Ikusten dudanez ez dugu alpeŕik erabiīi gure aldia ta lauron alegiñak bide onean asi ta doazela esan dezakegu. Nire txanda oŕain. Niretzako arloa eŕiketari buruz jaŕi genuela gogora dezakezute, bai ta gizarte-auzia ere erabiīi ta begiratzeko.

—Eŕiketarako ezinbestekoa deritzait alderdi berezi bat irastea, eta oŕen antzeko, langiīeen arazoetarako, elkargo on bat ere.

—Bilbao'ko adiskide ta ezagun batzuei gure asmoetaz itzegin diet, eta guziek ez, baña ba-dago taldetxo bat bederen onartzeko dituena, ta ortan dagozenek euzkal-elburuetarako alderdi bat antolatzea ondo ikusten dute.

—Langiīe batzuek ere ez dute gaizki ikusten, lanerako aŕemanetan saŕi gorbizten diran arazoetarako, euzkal-elkargo egoki bat jartzea, orain arte sortu diran besteak gure Euzkal-Eŕia aintzakotzat artzen ez dutelako.

—Bi jomuga oyetarako erabiīi ditut nire aldia ta nire alegiñak ere, ta ezin esan dezaket bide oyetan barna uŕutiraño eldu naizela, batzuetan egindako guzia utza deritzaidalarik. Baña ondo genekien laurok, eskuetan artu dugun arloa oso zaīa dala ta, auŕeratzeko, poliki-poliki ibiltzea dagokigula gure uŕats guziak ongienik neurtzeko.

—Oŕengatik, ene ustez, gure asiera ona izan dala ikusi beaŕ dugu, ta auŕera jotzeko egokia. Ereintza, bere asieran ere, ongi egiña daukagula esan dezakegu, ta bere garayan uzta edeŕa emango digulakoan egon gaitezke, nai-izango genuken izarian ezpada, bai aintzakotzat artu al-izango dugun galgan, gure batzaŕetan luŕ onezko zertxobait aurkitu dugulako. Jo-egin beaŕ dugu, beraz, aintzina, ta uŕenik emateko uŕatsak zeintzuk izan ditezken aztertu beaŕ ditugu orain.

—Ziuŕ nago neronek, gure Eŕi'ak, zearo jausita ezpadago, ta ori

ez da ustekoa, gure asmoak ontzat artuko ditu, bere biziaren aldeko bezela ikusiko dituelako. Gaur egun Eŕi osoa, bere izaerari buruz, lo-zoŕoan murgilduta dago, bere buruarekiko ia ezer jakin gabe; ta gaitz erdi oindiño euzkera darabīlela, gure izkuntza onen bidez, oartzeke bada ere, bere euzkal-nortasunari ongi xamaŕ eusten diolako.

—Beraz, nire ustez, egiteko dugun lan noraezekoena, Eŕia esnaratzea izan beaŕ, eta iratzaŕita izango danean berak egingo du beaŕa izango zayona.

—Zer egin genezake esnaratze ori lortzeko? Noski, gure asmo ta elburuen zabalkunde egokiaren bitartez; ortan enurarik eztagoela uste dut. Alakotz, zabalkunde ori dugu ongienik atondu ta antolatzeko. Nola, baña? Asiera bezela, bi bide auek onak izango diralakoan nago: Lenengoa, gure lau uri aundietan, erki-buruetan, batzoki berezi bana idekitzea; gero, beste eŕietan ere orobat egiteko xedeaz. Batzoki oyek eginkizun auetarako: bakoitzak bere tokian gure asmoai eutsi ta zabaltzeko; euzkera ongienik ikasteko ta irakasteko; euzkal-gogo-lantzea ezaguarazteko, idaztidi on eta beŕtan eman ditezken itzaldien bidez; eta inguruko gogaide guziak alkartzeko.

—Bigaŕena, īlean bein edo bi bideŕ ateratzeko, izpaŕingi berezi bat egitea, laisteŕ asteroko biurtzeko asmoz eta, bearbada, geroago, eguneroko. Izpaŕingi ortan gure asmoak zabal-zabalik Eŕi guziari aurkeztu genizaizkioke; ziuŕ, ęztabaidak sortuko dira, arerioak agertuko diran giñoan, eta oso beaŕa izango zaigu izpaŕingi ori, oyetan sarturik, gure asmoai eutsi al-izateko. Uste dut euzkeraz eta erderaz egiña agertu beaŕ dala; benetan euzkeraz bakaŕik egitea nai-izango nuke, baña dagoaneko gure Eŕi'aren toki asko ta askotan euzkera ayenatu zaigu, egoaldetik datorkigun erasoaldiagatik eta gure eŕitaŕen sorayokeri aundia dala kari. Alabaña gure izkuntzaren alde, beti, lan aundi ta berezia egiteko. Gure asmoai buruz ikutu ditezken azpegi guziak, zeatzez eta garbi ere emateko, bide egokia izango litzaiguke izpaŕingi ori; ta, esan beaŕik ez, gogaide guzion arteko lokaŕi bikaña izango genuke.

—Bi bide oyetan barna zabalkunde egokia ta ereintza emankoŕa egin genitzake; baña lan aundi ortarako, lagunak aurkitu beaŕ ditugu; zuek esan duzutenez eta nik ikusita ere, ba-dagoz Iruña, Donostia ta Bilbao'n dagoaneko, gure asmoak onartu dituztenak; beraz oyen artetik atera beaŕ-izango ditugu lenengo laguntzaīleak.

—Orduan, ongi baderitzaizue, bi elburu oyetarako zuzendu ditzakegu gure alegiñak. Nire gain aŕ dezaket izpaŕingia ateratzeko lana, bai ta Bilbao'n batzoki bat idekitzekoa. Zuek, ene ustez, batzokiak ere antolatzeko uŕatsetan saŕ zaitezkete; ta urte onen amayerako lau batzoki ideki ta izpaŕingi bat kalean jaŕita lortu ezkero, lan onuratsua buruturik izango genuke nire iduriko.

Eta orduantxe, norbait ate joka.

—Mikel'ek: A!, emen dugu Martin, ziuŕ. Aintzina!

Ideki zan atea ta ara Martin bera agertu zala.

—Mikel'ek: Auŕera, auŕera, mutil. Emen duzute gure gogaide sutsua dan Martin. Eta auek dituk, Martin, saŕi itzegin dizkiadan nire adiskideak: Sabin, Eneko ta Xabier.

Alkaŕ agurtu zuten eldutakoak eta beste irurak, eskuak, ortarako, alkaŕi ematean.

—Martin'ek: Ba-nuen gogoa zuek ezagutzeko, ta pozgaŕia da oso niretzat zuek Amamio'n ikustea.

—Xabier'ek: Ta guretzat ere atsegiña da, ta ez txikia, zu ezagutzea. Mikel'ek zutzaz itzegin digu ta oŕengatik ba-geneukan zurekiko beŕi.

—Mikel'ek: Eseri, eseri, Martin; ia beŕiren bat ote zekarkian.

—Martin'ek: Bai, ta bat ez ezik, iru ere. Lenengoa: biarko gure bilkurarena eŕi guzietan barna guztiz zabaldua dago ta ene ustez gure bazkarirako eŕuz etoŕiko dira alde guzietatik. Bigaŕena: Gasteiz'etik ere, ni bezela arotzak diran bi anai etortzeko omen dira; ezagutzen ditut baña nik ez diet ezer esan eta eztakit nundik jakin dute gure bīlera egiteko daukagula. Eta irugaŕena: ez da oŕen ona; gure asmoak begiko ez zaizkien egoeŕitaŕak eta beren lagunak ere an izango ditugu begiluze; entzun dudanez, gure ataizean egoteko erabaki gotoŕ bat artu bide dute.

—Mikel'ek: Danetara dugu Martin'ek jakin-erazi digun guzi ortan; azaltzen ari zaizkigu adiskide ta arerio; alkaŕen aurkako taldeetan biltzen ari gera beŕiz ere dagoaneko; ez da aŕitzekorik izango ortik gurean buŕuka beŕia sortzea. Anayak izan eta, ayer edo, mokoz-moko yarduteko gerturik, maitasunez eta eskuz-esku ari-izateko baño; orixe gure Eŕi'aren zoritzaŕa!

—Sabin'ek: Gure Eŕi'arena bakaŕik ez, Mikel; gizadian barna zorigabekoa izanik ere, orixe gizonen artean betiko jokua, emen eta nun-nai. Etzaidak aiztutzen, alaz ere, bake ta gentzarako dukan kexutasuna, ta ziuŕ egon aiteke ori guziona dukala, baña ezinbestekoa

izango zaiguk, gure Eŕi'aren biziari eusteko, gudan sartzea; alde batetik oŕen argia dukan eskubidearen alde jokatzea izango diagu, ta bestetik, euzkal-bizia suntzitzea utzi ezkero, ene ustez, gizadiaren aurkako ere ogen aundia izango ukek.

—Mikel'ek: Egia duk guzi ori ta erabakita zeukagu buŕukarako be gerturik egotea; enauk ortan atzealdean geratuko, baña ene barnean bakerako yorana izango diat ziztaka.

—Baña utzi dezakegu ori oraingoz, eta biarkoari buruz ari gaitezen. Martin'i entzun ondoren eta lenago nik esandakoaz, ba-dakizute emengo giroa nolakoa dan. Ortaz eta geron elburu nagusiaz badugu biar itzegiteko gaya. Ene iduriko, laurok itzegin beaŕ dugu; nik zuek aurkezteko; Xabier eta Eneko'k, Napaŕoa ta Gipuzkoa'ko goraberak jakin-erazteko, ta i, Sabin, Bizkaya'koak eta ororen asmoetaz. Nire iritziz oŕela burutu al-izango dugu guzia, zuek besterik esondatu nai ezpaduzute.

Ontzat artu zuten guziek egitarau ura, ta:

—Mikel'ek: Orain bera joan beaŕ dugu; onezkero gure zai dagoz etxekoak, bai ta Aintzane ta Lauren apaiz jauna ere; auek be ba-dute zuek ezagutzeko gogoa.

—Martin'ek: Bai, nirekin batera eldu da apaiz jauna ta Aintzane ere bean ikusi dut.

Jetxi ziran, bada, sukaldera ta an aurkitu zituzten esandakoak, nolabait arbindurik.

—Ama'k: Ba-zatozte?, gogorik ez, ala, azkaltzeko? Ona emen txastatzeko zerbait; ia gogokoa ote zaizuen.

—Sabin'ek: Eskaŕik asko etxekandere, baña au geyegi da.

Bere iru adiskide, apaiz jauna ta Aintzane alkaŕ ezaguarazi zituen Mikel'ek, eta azkaria egiteko mayera eseri ziran guziak.

—Lauren ap.'k, eldutakoai buruz: Mikel'gandik ba-dut zuen asmoen beŕi ta ikusten danez, auŕera eramateko gerturik zaudete. Baña uste al duzute gure eŕitaŕek jaŕaituko zaituzteela? Asmoak onak izanaŕen zail deritzait, gaurko giroan egipenetan bilakatzea, batez ere gure eŕitaŕak, emengo aldean bederen, eguneko biziari ta ikugaŕi danari bakaŕik so-egiten baitiete.

—Sabin'ek: Egia da ori apaiz jauna ta batera natorkizu alde ortatik, gure lana zala izango zaigula ikusteko. Baña Eŕi'aren bizia dugu gal-zorian eta bizi oŕi eusteko asmoak gogoŕ eragin beaŕ gaitu;

ta gure eŕitaŕak, zearo endekatuta ezpadagoz, azkenez, ortara jaŕiko dira geyenak gogoz.

—Xabier'ek: Ziuŕ egon gaitezke ortaz, batez ere gure asmoak artez eta, zindoki aurkezten badizkiegu.

—Eneko'k: Eta bide batez, Mikel emen asi dan bezela, egunerako bizirako ere ajolaturik ba-gagozela agertzen bagatzaizkie.

—Aita'k: Oso ongi deritzait bi jokera oyek erabiltzea, gogoari ta gayari bakoitzarena eman beaŕ zayelako; baña, alaz ere, ziuŕ egon zaitezkete zuen bideetan oztopoak ugari aurkituko dituzutela, ta bearbada gutxienik uste dezakezuten aldetik. Uste dut gure eŕitaŕak ondo ezagutzen ditudala, ta ba-dakit, beren ontasunen artean, ongi ulertzen ez diran apeta ta kasketaldiak ere saŕi agertzen dirala, funtsik gabe bada ere, asmo onenen aurka yarduteko.

—Laure ap.'k: Bai, gizonen artean, maiz, burukoikeria indaŕez ari da, edonor mandakeri aundienak be egiteko eramaten, eta euzkaldunen artean ez da zala oŕelakorik agertzea. Ene ustez, askotan, ortxe ikusi beaŕ da gizonen arteko pakea austeko bidea; ta pakea gordetzeagatik alegin aundienak egitea ezinbestekoa zaigu beti.

—Sabin'ek: Ondo ikusten duzu, apaiz jauna, burukoikeriaren okerbide ori, ta oŕezaz arta euki beaŕ-izango dugu danetan. Pakearen alde jokatzea beaŕezkoa zaigu, ta orixe da, ain zuzen, Mikel'en kexutasun biziena, gogoŕ eta saŕi gogoratzen diguna.

—Mikel'ek: Oŕela da, bai, ta pakearen egaŕia gizon ororengan ikusi beaŕ-izango litzake biziki ta indaŕez eragiten; alaz ere, zuzentzagatik edo norberaren eskubideai eusteko, edo, txaŕena izanik, maiz giriña gaiztoek bultzaturik, buŕukara sartzen dira gizonak alkaŕen aurka; ta guri ere eziña izango zaigu, zoritxaŕez, euzkal-biziaren aurka dagozenen eta egongo diran guziekin gudan ez yardutea, ezinbestez gañera. Ortxe, pake-naya ta guda-beaŕa, guretzako korapilo biribilatuena, askatzeko beti zala izango zaiguna.

—Baña utzi dezakegu orain ori, nai baduzute, ta uste dut gure eŕi onen baztertxoetan ibilalditxo bat egin genezakela, gure adiskide auek Amamio ondo ezagun dezaten; eta bide batez gure abeletxe beŕia ere erakutsiko diet.

—Ama'k: Oso ondo egingo duzute; beroa joan da onezkero ta asgiro dago. Bitartean guk aparia gertuko dugu.

Esan bezela, lau adiskideak, apaiz jauna ta Martin' ekin irtenik,

eŕiaren zeaŕ ibīli ziran, aspaldiko buŕukak eta batez ere Amamio'ren deya gogoratzen; ortara jo oi zuten maiz eta ordu artan Amamio'n bertan zegozela, indaŕago zeragien dei arek ayen baitan; eta beren asmo ta xedeetarako gero ta indaŕ-oñaŕi aundiagotzat zeukaten artzeko, egokitasunez eta beaŕez.

Distiratsu ta edeŕa asi zan zabaltzen Jasokunde'aren eguna, Ama Neskutsa'ren omenez edo, bere ordu guziak, argi, garden eta bero, gogoz ere eskeintzeko bezela.

Kepa Deun'aren jayan antzo, Amamio'ko talde begiko bat zijoan Araya'runtz, kartsu ta alai, goizeko ozgiroa gozatzen eta gogo beroz, eguneko jayera abiaturik.

Ezaguna dugun bidetik aurki sartu ziran taldekoak Araya'n, eta berealaxe Miren Andera'ren elizatxorako bidea artu zuten; beste auzoetako lagunak ere, asko, aruntz zijoazen eta eurekin batu ziran amamiotaŕak, adiskide ta ezagunak agurtzen. Ayen artean Yokin ere agertu zan eta Mikel'ek, pozik, bere adiskideai aurkeztu zien.

Ainbeste gizalagunentzat elizatxoan tokirik ez, eta auŕeko zaldian atondu zuten opa-maya, bertan baŕukoan egoten zan Ama Neskutsa'ren irudia ere jaŕita. Oŕela Meza aundia eguratsean eman zan, eŕiaren bazteŕ ura esi gabeko eliza biurturik. Eta otoi ta abestiak ere gartsuki igo ziran goruntz, aide zabalean biotz-unkigaŕi.

Meza amaitu ondoren, an bertan, Araya'ko dantza-taldekoak, beren artezia erakutsi zuten eta txistuen ereski alayen atzetik enparantzaruntz abiatu ziran leŕo-aldian beti dantzatzen, eta an bildu ziran, guziak atzetik eramaten. Bein enparatzara eldurik, beste dantza bat —ezpata-dantza ain zuzen— egin eta ikusleen txalokaz, alaitasunean oso, alkaŕengandik aldendu ziran guziak, bazkaltzera joateko, azkenez.

Mikel eta bere lagunak Zubiaur etxera, ortarako ere, eldu ziranean, giza-talde aundia aurkitu zuten ostatua betetzen. Ba-zegozen an, lendik Mikel'en ezagun ziranak, baña ez ezagunak ere, guziak maikide izateko xedeaz erduta. Azken oyen artean Gazteiz'ko Aŕoyabe bi anai beste bospalau adiskideekin. Martin'ek Mikel'i ta onen lagunai aurkeztu zizkien ta guziak poztu ziran alkaŕ ezagutzeaz.

Gertuta zegozen bi mai luzeak etziran aski izan zegozenak bertan ongi kokatzeko ta beste mai txiki batzuk jaŕi beaŕ-izan zituzten, guzientzako tokia egiten. Mai luze ayetako baten buruan Mikel eta

bere lagunak jaŕi ziran, alboan Yokin eta gasteiztaŕak zeuzkatelarik; Martin, ostera, mayaren beste mutuŕean eseri zan beste lagunen artean.

—Eneko'k: I, Mikel, zer duk au?; giza-pīlo edeŕa, ta gazteak geyenak; argi zegok lana alpeŕik egin ez dukala.

—Sabin'ek: Zantzu edeŕa ere, eŕitaŕak gure asmoak ontzat artzeko gerturik dagozela ikusteko; alde guzietan oŕela erantzun ezkero, lana auŕera egokienik eraman al-izango dugu, eskierki.

Bilkura zaratatsu ura, gazteena izanik, alegia; zitz eta bitz edan eta jaten, agiñak dantzan eta sabela poz, iñor etzegoen an janariari buruz mukeŕ agertzeko, ta ortzen lanean geldi-unetxorik gertatzen zanean, beta egokia mingaña yarduteko. Beraz, ba-zan bīlera artan ziburu-zaburuko otsaldia ta alaitasunezko itz-zartada, zuŕumuŕu ta zarata ugari. Ta bero-bero zegoelarik, at eta barnetik sortua, besutsik oro ta izerditsu. Azkenez, jatekoa amaiturik eta akeita txastatzen asi ziranean, Mikel zutitu zan, eta bazkaldiaŕak entzuteko xedeaz ere etoŕi ziralako, aurki ixil geratu ziran belaŕiak erne.

—Mikel'ek: Biotz-biotzetik aguŕ, adiskide, ezagun eta emen zagozten guzioi. Bigaŕen aldiz, ementxe, itzegiten dizuedala; ongi gogora dezakezute, askok, Kepa Deun'aren jayetan emen bertan alkartu giñala, zuetatik batzuk, gutxi ere ez ene ustez, entzule izan zinduztedalarik. Bi asmo nagusi aurkeztu nizkizuen orduan: bat, Azpaŕena'ri bakaŕik zegokiona; bestea gure abeŕia dan Euzkaleŕi'ari. Lenengoari buruz nire etxean bertan zerbait egiten asi natzaizue ta ba-duzute oŕen beŕi; ongi dagoenentz, zuek ikusteko. Baña nai-izango dutenekin Azpaŕena'ko nekazarien elkargoa egiten nola asi gindezken erabakitzeko, laisteŕ, nire etxean bertan edo nayago diteken beste nunbait, lenengo bilkura egiteko gerturik nagokizue; ta nekazari guziei dei-egingo diet nai dezana erdu dedin.

—Bego ortan, beraz, oŕekiko dana. Gaur, emen dugun bīlera ontan, bigaŕen asmoari buruz ari-izango gera. Len esan nizuenez, emendik uŕun ikasten ari giñala, lau adiskide alkartu giñan bereziki, gure Eŕi'aren alde, bere azkatasun eta bere biziaren alde ekin beaŕa zala ikusten genuelarik, eta ortaz ari-izateko alkaŕi itza eman genion.

—Ementxe gagoz gaur laurok, eta laurok ere zuei, guzioi, gure asmoai buruz mintzatzeko etoŕi gatzaizkizue. Ene aldetik len ere itzegin nizuen, eta orduko asmoak, egin dudan bezela, gogoratzea naikoa

dala deritzait. Beraz, orain, nire iru adiskideak aurkeztuko dizkizuet eta berai entzun dizayezutela eskatzen dizuet gartsuki.

Mikel mintzatzen asi zanetik, alboko edaritegitik eta kaletik ere, beste gizalagunak, eŕuz, bordean sartu ziran eta geyenak zutik egoteko, guzientzako eserlekurik gabe; baña guzien aldetik zudu bizia agertzen zalarik.

—Mikel'ek: Ona emen gipuzkoaŕa dugun Galparsoro'taŕ Eneko, sendagilea ta gure izkuntzari buruz lanean ari dana.

—Eneko'k: Aguŕ yaunak. Egitan enuen uste emen ainbat gizalagunen auŕean itzegin beaŕ nuela, baña pozgaŕia zait txoko edeŕ ontan auxe bezelako bilkura egin al-izan dala ikustea; egipen onek ederkienik erakusten baitu gure asmoak zabaltzen asi bezin laisteŕ erantzun egokia lortu dutela.

—Mikel'ek esan duenez, gure lanen artean euzkerari dagokiona artu dut bereziki, ta oŕekiko bakaŕik ari-izango natzaizue labuŕean, beste adiskideak asti aski izan dezaten.

—Ez da, ez zuentzat ez iñorentzat ere, gauza beŕia, gure Eŕi'aren izkuntza bazteŕ guzietatik galtzen ari dala. Galtze ori Gipuzkoa'n oartzen da gutxiago; noski, Gipuzkoa Euzkaleŕi'aren erdian eta alde guzietatik euzkera mintzatzen dan beste erkietako luŕaz inguraturik dagoelako. Baña gipuzkoaŕak izan ere, galtze ori dala-ta, Euzkaleŕi guzia dugu begiratzeko, galtzea edonun gertatu guzion galtzea baita.

—Nor ote eŕudun galtze oŕi buruz? Gu gera, euzkaldunok, eŕudun lendabizi, idatzi ta irakurtzeko gure izkuntza beaŕ ainbat erabili ez dugulako, baña batez ere ikastolan sartzeko gure artean iñoiz ardurarik izan ez dalako. Eta biziak daraman bidean gero ta beaŕago da izkuntza guzietarako ikastolan eta adimenari dagozkion gauza orotarako erabiltzea. Eŕi guztietan argienik agertzen danez.

—Gure Eŕi'aren biziari eusteko, beraz, ezinbestekoa zaigu euzkera ongienik ikastea, mintzatu, idatzi ta irakurtzeko, ikastoletan eta yakin-gai guziak euzkeraz ikasi, irakasi ta aztertzeko. Orain arte ba-zirudien euzkera ortarako ezer etzala, baña ortaz okeŕ aundia egin du gure Eŕi'ak; ortik datorkio, batez ere, eriotza, ta gure auŕekoek ikusi ere ez. Gaur gure gaitzen iturburua nun zegoen oartzen asi gera ta ondorioz zer egin beaŕ dugun ere argi. Gipuzkoa'n aburukide geran batzuk zer ori betetzeko asmoz asi gera, euzkera ongi ikasteko eliztia gertutzen eta iztegi zabal bat ere atontzen, laisteŕ argitaratzeko xedeaz eta euzkaldun guziei eskeintzeko. Ene ustez,

euzkera ongi ikastea beaŕezko eginbidea da guziontzat, eta bidezkoa danez, gaur, emen zagozten guzioi ta gure alderdi guzietako euzkaldunei dei sendo bat egitea dagokigu: Zaindu euzkera, ikasi euzkera, erabili euzkera, zabaldu euzkera, ..., gure Eŕia bizi dedin.

Oŕela amaitu zuen Eneko'k bere itzaldi labuŕa ta entzuleek txalo jo-egin zioten gogotik.

—Mikel'ek: Galparsoro gure adiskideak ongienik adierazi dugu gure izkuntzarekiko dugun eginbidea, ta guri dagokigu, guzioi, eginbide ori betetzea. Orain napartaŕa dugun Etxeguren'taŕ Xabier beste zerbaiteaz ari-izango da, Napaŕoa'n darabilzkiten asmoak edo guri jakin-erazteko.

—Xabier'ek: Aguŕ yaunak. Napaŕoa aldetik natorkizue, napartaŕen aguŕa zuei ta euzkaldun guziei ere ekartzeko xedeaz; gazte zeratenoi batez ere, ezer on eta aundi egiteko, gazteen biotzak bide ta eskuarte egokienak diralako.

—Ba-duzute, lendik Mikel'ek esanda, ikaskintzan alkartu giñanen beŕi. Zenbakiakatik edo, orain, lau Beŕi-onlarietaz gogoratzen naiz, gu ere, gure asmoak ereintzeko, lau geralarik; eta ez oŕengatik bakaŕik; ayek gizadiarentzat zabaldu zuten Beŕi-ona; guk, neuŕi mila bider txikiagoan, gure Eŕi'arentzat bakaŕik eta lau ere gerala-ta, euzkaldun guziai dagokien beste beŕi bat zabaldu nai dugu, gure abeŕi onen bizirako ezinbestekoa zayon beŕia.

—Beŕi oŕen atalak bezela, Eŕi baten osotasunean ikus ditezken arlo guziak erabili nai ditugu, gure abeŕiari dagokion berezitasunean, noski.

—Eskubide ta edestiarekiko gayak artu ditut nik bereziki oyetaz ari-izateko; gure edesti guzia aztertzen eta euzkal-endeŕiak dauzkan eskubideak ageŕerazten; bai ta Eŕi'aren edestian barna gizonarenak diran beste eskubideai buruz gurean zer egin dan jakiteko.

—Napaŕoa'k, guziok ongi dakizutenez, Erdi-aroan batik bat, bere nortasuna nabariki goratu zuen Europa'ko beste Eŕi guzien artean. Bere eŕua, nagusiki, orduan beste euzkaldunekin alkartze ta batasun gotoŕ bat ez egitea izan zan; baña eŕu ori euzkaldun guziona izan dalakoan nago. Ortxe ikusi beaŕ dugu guziok, gero jasan beaŕ-izan ditugun zoritxaŕ askoren asiera; ta ain zuzen eŕu berean ez jaŕaitzea izan beaŕ gure xede sendoena.

—Iruña'n dauzkadan adiskide batzuei asmo auek ageŕerazi diz-

kiet eta geyenek ontzat artu dizkidate. Ondorioz, gure Eŕi'aren edestia, ongi ikasita, liburu berezi batean jaŕi ta eman nai dugu, oŕen beŕi osoa eŕitaŕ guzien artean zabaltzeko asmoz. Gero, eskubideai buruz, beste ainbeste egiteko ustez.

—Eta lan oyek, len Eneko'k esan diguna ta egin al-izango ditugunak bezela, ongi alkarturik, guzion abeŕia dugun Euzkaleŕi'aren biziari eusteko ta indartzeko izan ditezen.

Ixildu zan Xabier ori esan ondoren, eta entzuleek beroki txalotu zioten, lentxeago Eneko'ri bezela.

—Mikel'ek: Atsegiñez entzun dikiagu, Xabier, esan digukan guzia, ta asmo oso egokitzat artu beaŕ, gure Eŕi'aren edestia idazti batean ematea, guziok ongienik ezagutu al-izateko. Ene ustez, edestia ere, euzkera ta euzkal-gai guziak lez, eskoletan irakasteko beaŕak dira, ta ortaz guzion elburua ikusi beaŕ dugu. Utzi dezakegu egun, ori gerorako, Bizkaya'tik eldu zaigun Artetxe'taŕ Sabin adiskideari entzuteko.

—Sabin'ek: Aguŕ yaun adiskideak. Utzi ezaidazute, otoi, zuenganako adiskide itz edeŕa erabiltzea, zuekin adiskidetasun beroan ari-izatea biotzez nai dudalako. Baña ba-dago, asmo ortarako, beste zio guztiz eraginkoŕ bat.

—Atzo eldu giñan lenengo aldiz, Eneko, Xabier eta irurok, Amamio'ra, gure adiskide miña dugun Mikel'en etxera; bertan aŕera maitekoŕa benetan egin ziguten, barne-barnetik eskeŕonekoa beti izateko aña.

—Baña ez gera etoŕi Amamio'ra adiskide bat ikusteko bakaŕik, toki done batera bidezkundez joaten dan bezela, yoranez beterik eta gure Eŕi'arenganako ditugun siñismen eta itxaropenez mukuŕuturik baño. Zer dala-ta ori?

—Ongi dakizute guziok gure Eŕi'aren zoritxaŕerako, aalke goŕiz egoteko ere, anayen arteko guda zitalak urte ta urteetan izan zirala. Zergatik guda lotsagaŕi ta ankeŕ ayek? Alkaŕen aurkako goŕotoz piztu ta egiñak, norberaren eŕakundea asetzeko soiīik; etzegoen besterik an, eta gaur ezin ongi ulertu jokera ero ura.

—Jakin ere ba-dakizute, batzuek zuen aurtzaroan ikusi zenutelako ta besteak entzun duzutelarik, guda ayetako erasoaldi izugaŕi bat, oŕ, Amamio pean dagoen landa zabalean izan zala. Saŕaski ikaragaŕi artatik, iñor etzan garaīe irten, bertan gudatu zutenen artean.

Ba-dakigu, gaur, garaīea nor izan zan, eta gero aipatuko dut bere izena.

—Il eta zauritu, amaika ordea. Amamiotaŕek beren etxeetan artu ta zaindu zituzten, il etziranak sendatu arte; ta guziak bizkorturik joan ziranean idazki bereziak biali zizkieten ayen eskuetan, eŕigoitaŕen eta eŕiberataŕen buruzagiai, pakerako dei ertsakoŕa egiten; bertan, Eŕi'ak zituen galbide ta beaŕa argi nabari-erazten ziralarik. Ura izan zan, ura, dei edeŕa, orduko buŕukalariek entzun nai-izan etzutena. Begi zoli ta egiazko igarle izan ziran orduan amamiotaŕak; beren deyan iragartzen zutena, gero, laisteŕ zoritxaŕez, beterik izan dalako. Oŕengatik, baña batez ere, pakerako ta anayen alkartasunerako egin zuten dei gelgaŕi arengatik, euzkaldun guziok Amamio'ganako, eskeŕon eta maitasunez beterik egon beaŕ dugu, ta dei aren egiīeen betiko aipurako, aŕi bizian oroitaŕi berezi bat jaŕi beaŕ dugu, etortzeko diran gizaldi guzientzako oroigaŕi egokia izan dedin.

—Ni neu, dei ura lenengo aldiz irakuŕi nuenean, biotz erdiraño izan nintzan unkitua; deitoragaŕitzat ukan nuen eta gaur ere oŕela daukat, dei ari erantzun egokia ez ematea, itsuturik zegozen buŕukalari ayen aldetik. Gero ere, bein eta beŕiz irakuŕi dut dei ura, ta aren mamia orantza bezela ari da nere baitan, gure Eŕi'arenganako ditudan maitasun eta kexutasunetarako.

—Eta Amamio'ko deyan egin zan iragarpena, gurean zearo beteta dakusdanean, miīa bider galdetu diot ene buruari dei aren arauz, geron aldetik, ekin beaŕ ez ote dugun; eta deya orduko buŕukalariei ez, baña Eŕi guziari egiña bezela ikusi beaŕ dugun asmoa sendo gatzatu zait barnean.

—Emen gurekin dagozen Mikel, Xabier eta Eneko adiskideai, laurok ikasten ari giñala, ene asmo ori jakin-erazi nien eta batera etoŕi giñan laisteŕ ortaz. Eta gure abeŕiari bizia nola galtzen ari zayon ikustean, beraren aldeko bidean bipilki sartzea, argi bezin beaŕa zala ikusi genuen; ondorioz, alkaŕi zin-egin genion Eŕi'aren biziaren alde ekiñaldietan sartzeko, ta ortarako ezinbestekoa izango dan guzia betetzeko.

—Oŕengatik eta gure ziñari ongienik erantzuteko xedeaz, Amamio'ra etoŕi gera, beraren ondoan, ementxe, ororen auŕean gure ekintzan asi gerala oguztatzeko. Ekintza oŕen oñaŕia Amamio'ren deya dugu, ta bertan agertzen diran bi xede goragaŕiak, gureak bezela ta guretzat artu nai ditugu, ots, euzkaldunen arteko pakea ta alkarta-

suna, edo obeki noski, pakea ta anaitasuna. Ta elburu nagusitzat, euzkal-bizia, Eŕi'aren bizia.

—Ortarako, noski, xede yaukal oyek. Baña, zorigaiztoz, oztopo oso aundia dugu, gure xede ta elburuetarako eragozpen aundia dana. Egoeŕi ta Ipaŕeŕia —oŕa len aipatu dudan Amamio'ko erasoaldian garaīle izan ziranak— gure abeŕiaz jaubetu ziran, ain zuzen gure liskaŕ eta guda ayetaz ustiatuz; erdibitu digute Eŕia ta, bakoitza bere aldetik, berenganatu gaituzte sendo; gaur, oyentzat, euzkaldun batzuk egoeŕitaŕak eta besteak ipaŕeŕitaŕak gerala oyuztatzen dute, ta gure aldetik ere sasi-izakera ori egiazkoa bezela aŕ dezagula nai dute.

—Oŕa bada, geuk iñoiz ontzat artu ezin dezakeguna; ori gure Eŕia il eta suntziturik geratzeko onartzea izango litzakelako. Gure Eŕi'ak bizi-izateko eskubide osoa du, argienik dagoenez, eta bizi oŕi eusteko, azkatasuna zayo ezinbesteko. Menperaturik gaituzten bi Eŕi oyei, zintzotasunez, gure egia ta gure asmo ta nayak erakutsi nai dizkiegu, pakerako asmotan beti. Entzungo al digute?, ontzat artuko al dute gure eskubidea?, orain arteko beren jokera bidegabekeria dala ikusiko al dute? Bayezko erantzunak izatea nai-izango genuke barne-barnetik. Baña, zoritxaŕez, sorgoŕ geratuko balira, jakin bezate gure auzia kazkaŕ eta iñulkeria ez dala, bizi-ebazkizuna baizik; eta geron aldetik, iñola ere, gure Eŕia il dediīla ontzat artu ezin dezakegunik.

—Orixe, bada, gure asmoa: Gure Eŕi'aren biziari eustea, ta gure egipen guzietarako Amamio'ren deya oñaŕiz artzea; guzia, gure eskubidea bakaŕik ez, baña ertsiki gure eginbidea dalako. Ta gure ebazkizunaren auŕean, gure eŕitaŕak dira bai ala ez esan beaŕ dutenak. Oŕa aidean uzten dugun galdera.

Oŕela amaitu zuen Sabin'ek bere itzaldia, ta txalo luze ta kartsuak jo zizkioten entzuleek, bere galderari, lenengo aldiz, bai edo erantzuten. Ayetatik asko izlariengana erdu ziran, bosteko beroak ematen eta aburukide bezela agertzen. Baña beste batzuen batzuk ere alde-egin zuten bekozko ta beltzuri, entzundakoa begikoa izan ez zitzayela erakusten.

Gasteiz'tik erdutakoak, batez ere, oso aburukide agertu zitzaizkien eta Mikel'ekin bereziki aŕemanetan ari-izateko gerturik zegozela esan zuten, Araba'ko uriburuan euzkal-asmo ayek zabaltzeko asmoz.

Martin-bizi ere, pozez beterik, Mikel eta onen lagunai urbildu zitzayen, an esandakoa entzuleen barneraño sartu zala bayezten eta gerorako asiera edeŕa izan zalakoan. Baña:

—Martin'ek: I, Mikel, izan ere zuen itzak ez dituk berdin jausi belaŕi guzietan eta kopet iīlun batzuk ere ikusi zitiat; itzegingo diagu oŕezaz geroxeago; orain, ba al dakik enparantzan «Burni-abestia» abestu beaŕ ditekala? Ene ustez adiskide auentzat ere pozgaŕia izango zayek entzutea.

—Mikel'ek: Egia duk eta nik aiztuta neukaan ori. Sabin, Xabier, Eneko, goazen enparantzara, an gauza polita baitago ikusteko; gaurko jayaren atal egokia.

Eta guziak abiatu ziran enparantzaruntz, bidean Mikel'ek bere lagunai entzun beaŕ zutena zer zan adierazten zielarik. Eta ara eltzean bete-beterik aurkitu zuten toki zabal ura; ozta-ozta lortu zuten tokitxo bat, erdian zegoena ikusteko.

Zer ote zan ura? Lauki aundi batean, zortzi ingure laŕi xamaŕ jaŕita zegozen, laukiaren aldeetan biña, bikote bakoitzekoak alkaŕetik ongi aldenduta. Ta ingure bakoitzaren atzean burni-arotz bat; zortzirak laŕuzko emantalaz eta azmantaŕez jantzita; zortzirak bizardun, baña nolako bizaŕak! ia begiak ere estaltzeko aña; bekokiak baltziturik oso; bi edo iru txapelaz eta besteak buruas; uledia kizkurturik batzuengan eta besteengan kalpaŕ baña guziengan txit naspilduta; besutsik eta beltz iīletsu besoak ere. An zegozen maīu bana eskuman eta burdin-agatxo bana ezkeŕan, ingure gañean maīuaz dangadatxoka, lanean asteko gogoa edo adierazten.

Tupustean txistuak jotzen asi ziran ozen eta kiŕinkari batera, ta ura oarpidez arturik, asi ziran burni-arotzak onela abestuten, doñu-neuŕiaz maīukadaka abestia laguntzen zutelarik:

OLA-GIZON ETA BURNIAREN ABESTIA

Dingi, dingi, danga!
Burniaren otsa!
Danga, dingi, danga!
Ekin, su-arotza!

Lau bertso oyek, malukadakaz lagunduta, urengoan abestuko zuten zortzikote bakoitzaren atzetik, berdin berritzeko. Ona emen, malukadarik gabe, abots gogor batez abestu zituzten zortzikoteak :

1. Lurean sortua
Yalgia lurretik,
Gizona bezela
Bizira eldurik ;
Mendia zulatu
Umandi'n goitxoan
I antxe aurkitu
Bildurik moltsoan.
Dingi, dingi, danga!
.....

2. Zulotik at mena
Egiña lur gori,
Zamak egin dena
Olarako igori ;
Intusi'ko ikatza
Murumendi'n ari,
Oyen lagun batza
Su artzeko gari.
Dingi, dingi, danga!
.....

3. Mena landu bear
Labean txit gori,
Sututako txinpart
Urtuta ixuri ;
Erretenetan otz
Mamitu burnia,
Gerturik an arotz
Yarduteko abia.
Dingi, dingi, danga!
.....

4. Gogortu aiz burni
Zierra utzia,
Nork bigundu iri
Barneko isia? ;
Arotzaren nayak
Ori baita beti
Al-indaren gaya
Lanean yarduki
Dingi, dingi, danga!
.....

5. Eztitu bearez
Sutegira oa,
Agaz eragitez
Goratuz beroa ;
Ola-gizon antxe
Erdi bilzturik,
Lortzean olantxe
Beratzeko osorik.
Dingi, dingi, danga!
.....

6. Izerdi xurutan
Su-arotza zegok,
Burni erabiltzean
Otzik gabe biok ;
Labe-zolan biraz
Burni-mokor biur,
Arturik kurikaz
Matxiñora ziur.
Dingi, dingi, danga!
.....



7. An bai, dingi, danga!
Gizonak zuzenduz,
Egoki luzanga
Emateko gartsuz;
Matxiñoak dingi
Eta danga gero,
Ola-gizon iŕi
Biotzan dik bero.
Dingi, dingi, danga!
.....

8. Burni-aga egiña
Labera beŕiro,
Berotzeko aña
Gabirako gero;
Gabikoren dingiz
Poliki goritu,
Zunbīetara agitz
An bertan iyeztu.
Dingi, dingi, danga!
.....

9. Neuŕiz zatiturik
Beratuz sutegin,
Ongi eraturik
Malūka ingudin;
Arotzaren antzez
Aizkora naiz aitzuŕ,
Azkenik eratzez
Oŕa nola biuŕ.
Dingi, dingi, danga!
.....

10. Bai, gogoŕa aiz burni
Gezatzeko zalā,
Aski ez labetoki
Egiteko emalā;
Sua beaŕ gori
Bein eta beŕiro,
Dangadaka gabi
Matxiño dingiro.
Dingi, dingi, danga!
.....

11. Lankai-eragīle
Ola-gizon dala,
Bera da langīle
Alduna bezala;
Beraren naimena
Antze ta indaŕa,
Gogo ta kemena
Lanaren zuztaŕa.
Dingi, dingi, danga!
.....

12. Buruz dangakada
Dingi, dingi, biotz,
Beso malūkada
Garaīle su-arotz!!!;
Bigundu aiz burni
Naimenak ezi on,
Indaŕ erakutsi
Gora ola-gizon!!!
Dingi, dingi, danga!
Burniaren otsa,
Danga, dingi, danga!
Ekin, su-arotza!!!

Ixil-ixilīk entzuleak abestia amaitu arte, ta orduan, txaloak, Aratz tontoŕetik ere entzuteko bezela. Lenengo aldiz abesti ura entzuten zala, eŕiko batek atondua, eŕitaŕek abestua ta eŕiaren lana adierazi ta abesten zuena; beraz, eŕiarena osoki.

Gure lagunentzat guztiz atsegiña izan zan guzia, ta eurekin egondako adiskide guziei aguŕ beroa egiten, Amamio'runtz abiatu ziran, goizean etoŕitakoak alkarturik.

Bidean egunaren goraberatzaz mintzatzen, pozik zijoazen, batez ere, beren asmoetarako ereintza egokia egin zutela ustean, eta, bereziki, egotzitako azia artzeko, luŕ-apatz, okuntza benetan ba-zegoela oarturik.

Eta uŕengo egunean auŕekoan eldutakoak joan beaŕ zutelako, Lauren apaiz jaunari aguŕ-egitera joan ziran lenengoz; berdin egin zieten gero Aintzane ta Martin'i ta Mikel'en etxera azkenez, apaldu ta azken gaba bertan igarotzeko.

Apaltzekoan, solasgai bera, jayaren beŕia Mikel'en gurasoai emateko. Auek ere atsegiñez geratu ziran entzundako guziaz, eta egiazko poztasunean amaitu zan, oŕela, egun ura ororentzat.

Laisteŕ oeratu ziran gero, biaramonean goizetik jeikitzeko asmoz eta atsedenaren beaŕean.

Goizegi edo argitu zitzayen lau zinkideai uŕengo goizea, beŕiz alkaŕengandik aldentzeko zalako; baña biziarekiko dan guzia igarotzeko eltzen da, ta ayen alkartze ura ere amaitu ta igaro beaŕ.

Mikel jeiki zan lenengo ta bere adiskideak iratzaŕi zituen, gogokoa ezpazitzayon ere ta bere burua artarako indarturik. Aurki sukaldean agertu ziran laurak, eta an aurkitu zituzten gurasoak eta Madalen, beren zai ta gosaria gertuta.

—Egun on!, jaun-anderea; egun on, Madalen! —ia laurok batera.

—Ama'k: Egun on, mutīlak; ongi lo-egin al duzute?; gutxi, bearbada, ezta?, atzoko ibiltzearen nekea edo kentzeko.

—Xabier'ek: Lo, txit ondo, gau osoan esnatu barik. Gogoz, ni bederen, enintzakean jeikiko, ain ederki bainengoen oean; baña alperkeria astindu beaŕ eta ontzat artu jaŕai ezin ditekenaren amaya ere.

—Madalen'ek: Ia gogorapen ona ote daramazuten Amamio'tik.

—Sabin'ek: Ona?; onena, edeŕena esatea ere gutxi da Madalen. Zuen abegi maitagaŕia lenengo, emengo adiskideak gero, atzoko jai edeŕa, egindako lana, ..., oro gure atsegiñerako batera gertatua. Pozaŕen-pozez beterik geratu gera, ta auŕera jotzeko guztiz adoreturik.

Eta zuenganako, eztakigu eskeŕonez agertzeko zer esan edo zer egin; ain onak izan baitzerate guretzat.

—Aita'k: Zuek ondo artzea, guretzat eginbidea; ta zuek ezagutzea, gogoko ta atsegiña. Len Mikel'en adiskideak ziñaten, gaur gureak ere, ta zuen adiskidetasuna, obaritzat eukitzeko guretzat. Bego, bada, ori oŕela. Beste aldetik, ontzat ere artzen ditugu zuen asmoak eta biotzetik opa dizuet zuen elburu yaukala ongienik bete al dezakezutela. Ziuŕ nago, zuen bidean loreak bakaŕik aurkituko ez dituzutela, astalaŕ eta kardaberak ere apika, zuentzat atsekabezko ta mingaŕi izango zaizkizuenak. Baña, elburua ona izanik eta uŕatsak egoki ta zuzenak, auŕeruntz jotzea baño besterik eztago. Beraz, onaŕ ezazute amamiotaŕ zaŕ onen onespena, biotz-biotzez emana duzute; ta izan bedi beti zuentzat, neuŕi batean bederen eta benetan, adoregaŕi.

—Ama'k: Yainkoa'k zaindu zaitzatela, ain biotz onekoak zeratelarik. Ene alaba ta biok, gañera, eskeŕoneko gatzaizkizue, guretzat ekaŕi dituzuten esku-ikusiak dirala-ta; geyegitxo izan da ori. Ta auxe zuen etxea izanik, etoŕi beŕiro nai-izango duzutenean.

—Xabier'ek: Nik eztakit, zuen biotz ain ona ikustean, nola egokiro erantzun; baña zuen oroipena gure barnean eraman beaŕ-izango dugu beti eskeŕonez eta maitasunez.

Guziek adierazi zioten alkaŕi, barnean zeramazkiten biotz-ondo ta poztasuna, ta, ordua eldu zalarik, aguŕ beroa egiten, geltokiruntz abiatu ziran Mikel eta bere lagunak.

Beŕiro gogoratu zituzten bidean, aspaldin alderdi artan gertatutakoa, ta, batez ere, azken bi egunetan izandako guzia. Ba-zirudien ayen adiskidetasuna, gañez eginda, egiazko anaitasuna biurturik zegoela; ta gerorako indaŕ beŕiaz abiatzen ziralarik. Norbera bere baitan murgildurik bezela, ixilik zijoazen, yoran berean laurak. Eta alditxo baten baŕu, Sabin asi zan mintzatzen, baña bakaŕik eta beregan bildurik egongo bailitzan:

—Sabin'ek: Eztakit zer ote dan ene barnean oartzen dudana; mendi-tontoŕ oso goitua eldu ondoren, ikuspegi beŕi ta edeŕ baten auŕean, sostean edo, egongo banintz bezela ikusten dut ene burua. Mikel'en etxean eta eŕi-erdian gozatu dugun guziak indaŕez eragiten nau, ta adore beŕia ematen didala esango nuke. Ongi joan gaitezke auŕeruntz. Gure eskubide ta beaŕak, egiazkoak ditugu oso; gero, asieran beñepein, Eŕi'ak batera datorkigula erakusten digu. Oŕengatik, Amamio'ko landa ontan gagozelarik eta bertan izan zan anayen arteko saŕaskia beŕiro gurean gerta ez dedin —bere lagunai buruz— gure asmoai eusteko, beŕi dezagun gure ziña beŕiz, ementxe, gurekiko ta abeŕiaren onurako.

Eskuak eman zizkioten alkaŕi, Sabin'en azken itzak ontzat arturik, eta len goŕoto ain gogoŕa ageri zan toki artan bertan, anaitasunezko beste landare obeak jayotzen ari zirala iruditu zitzayen lauroi.

—Sabin'ek: Ongi baderitzaizue, udazkeneko bīlera Iruña'n egingo dugu, ta gero, eragozpenak sortzen ezpadira, negukoa Donostia'n, eta udabeŕikoa Bilbao'n. Zuretzat, beraz, Xabier, uŕengokoa antolatzeko lana.

Ori ere ondo iruditu zitzayen besteai, ta orduantxe geltokira eldu ziran. Laisteŕ etoŕi zan Gipuzkoa alderako bultzia ta, alkaŕi aguŕ bero bat emanez, an joan ziran Eneko ta Xabier. Gero, Gasteiz'eruntz joango zan beste bultzia eldu arte Sabin eta Mikel, bi egun ayetan izandako guziaz beŕiro gogoratzen ari-izan ziran. Eldu zan bere orduan bultzia ta, artan irugaŕen adiskidea joan zitzayolarik, bakaŕik geratu zan Mikel, azkenez.

Eta etxeruntz itzultzean, ostera igaro zan, bere bizian, asieratik, ain unkigaŕi zitzayon landa aren zeaŕ. Orduan, alaz ere, guztiz bizkorturik oartzen zuen bere burua, lagunekin gozatutako bi egun ayen ondoren, eta beren biotzeko elburu edeŕaren bidean, kirmen eta baikortasunez beterik, ongi abiatuta zegozela ikustean.

Eta gure mutīlaren ametsak, irudimenaren beste landa ta laŕe ta zelai goxoen barna joan zitzaizkion, barne-muñetako atsegiñean...

Mendian sua

DILIN-DALAN ..., DILIN-DALAUN ..., DILIN-DALAN ..., DILIN-DALAUN ... Egun gutxi iraiīa asi zalarik ..., gau-erdi aldean, oskarbian ... Araya'ko zeiñutegitik, amaizkiīa ta dunbak: DILIN--DALAN ..., DILIN-DALAUN ...

Gabaren ixiīean ... iīunean ... naretasunean ..., zeiñu aundi ta dunbak, alkaŕen leyan: DILIN-DALAUN ..., DILIN-DALAN ...

Buŕunbatuz soñuan ... binbilin-banbalan ..., aize doa abeslari ... doñu latzaren mezulari ..., mezua ituna, tamalgaŕi, gaŕaztuna ..., etxeen gañetik eta baŕuan ..., kaleetan barna eta landan ..., eten gabe: DILIN-DALAUN ..., DILIN-DALAN ...

Zer ote gau artan ... Azpaŕena'n? Gau-erdian ... iīargi betean? Gabontz, mozolo ta gautxori ... aide zeaŕ egalari? Sorgiñen batzaŕe ..., akelaŕe? Izkutuen liīura ... xoradura ... Eta zeiñutegitik, estu-estu deika, zingun-zangun ..., DILIN-DALAN ..., DILIN-DALAUN ...

Sargori ta sapabero eguzki pean egunez ..., eŕekotxo, ats-estu, itogaŕi gabez ...; ego-aizea ufaka bero ... guzia kiskalduta uzteko gero ... Ondoeza gizakiengan ... eta abereen artean ..., arnas-artzeko laŕi, goitik bera gorputzetan izardi ..., oean etzanda, egon eziñean, oro birunda ..., eta birundaka ere yoaleak ..., ertsakoŕ, kunkuñenak ..., orori deyan: DILIN-DALAUN ..., DILIN-DALAN ...

Lo-zoŕoan, ameskaitz, lantegiaren jabea; artega ta geldi-gaitz, txintxurkaturik oea. Atsanka, arnas-estuka, etzanda ta biraka, ameskerietan oyuka. Ola ..., labe ..., altzairu ...; eyera ..., ur-jauste ...; matxiño ..., maiīu ... Letona'ren antapara ..., ikatzerako txondaŕa ... Sua ..., sua mendian ..., sua labean ..., sua buruan ...; sua ...!, sua ...! ... uluan ... oyuan ...

Itxarturik bat-batean, sostean; oŕela ere besteetan: Au bero ..., au izerdi ... au sukaŕaldi ..., Utikan amets zoro ..., alde-alde nigandik mamu oro ... Bare nadin ..., esna ..., ezin. Sukaŕa datorkit ... barnetik ... eta landatik; kixkaldu beaŕ nau ..., zer duk au?

—Sua, sua! ...; deadaŕ oyek ... baña bai ta yoalek ... ene baitan ala kalean? ... Zer ote gaurko iīunpe? ... Txeŕenaren ordua ala galtzagoŕi guzien gaua? ... ausaz ... etxea suaz? ...

Jauzi batez jeiki-ta ... idekirik leyoa ... gizakiz betea ... agertu zitzayon kalea ...; ura zan iskanbiīa, zalaparta, deadarka ...; iīargi betea zala, iīundura apala, aski ikusteko bezala ...

Norabide guzietan barna, emakume ta gizona, auŕ eta gazterik ..., geyenak erdi-jantzirik ...; txima, kalpaŕ eta ule-adatsak aizean azkorturik, naas-maas guziak; oyuka, urduri, atsanka, mintzo alkaŕi ta deika ... ba-ziruditen zoroak.

—Sua, sua! ... ao guzietan; nun, baña, sua? —bere buruaren erdi-jabe zanak— nun? — Goikoetxe'nean — batek; — ez, gorago, endorearen eyeran — beste batek; —ez, ez, — gizon batzuek — lantegian, edo ...

Azken itz ori, ola-jaunaren belaŕian ziki ...— aŕapataka prakak sarturik ..., zurubian beruntz jauzkaturik ..., biotzean estu ..., saŕakioz beterik ..., burua galtzeko aña zoraturik ..., xista-pista kalean ..., pilpira ta laŕi barnean ...

Zaŕa-paŕa ta zuŕubuŕu aundia ...; sua!, urliak; sua!, sandiak; sua!, berendiak ...; ura zan durundia ... Onekin tupust, arekin tapast, ..., trinkili-trankala Elortza jauna; iŕistaturik eta laŕapast ..., oni oratu, ari galdetu ... —baña, sua nun? ..., nun sua?

Nork jakin, zuzen? ...; beko etxeetan ez, bederen ..., ausaz goiko auzoan ...; bai — beste batek — lantegian ... — ez — beste abotsak — eyeran ... basetxe batean ... Iñork etzekien ..., yoaleak entzunik, kezka-sua bai bakoitzarengan ..., eta belaŕietara ... DILIN-DALAUN ... DILIN-DALAN ...

Ardail artan lardaskaturik oro ..., burua galduta, zorabiaturik aboro; an etzegoen ziuŕ ezer jakiteko biderik, edonori galdetu ta ... guztiz alpeŕik. Berak ikusi beaŕ, bere begiz, ugazabak ...; eta lantegiruntz bere uŕatsak ... arako baitziran beti bere kezkak ... aztoramendu artan areagoak.

Marmario'tik goruntz olaren jabea, urduritasunez betea ... ta ara nun zetoŕen beruntz Yokin'ekin endorea.

Ayengana kexu, laŕi ta neketsu ... galdezka leyatsu ... —Nun dugu su? ... aŕen, Yokin, esaidazu ... lantegian? ... —Ez —Yokin'ek erantzunez, —an eztago surik, labeetan baizik. —Nun bada, —endoreari buruz— zure eyeran? ... — Ez ta — Letona jaunak — oindiño

bederen an ... Intusi oso dugu sutan ..., txeŕenak edo eŕetura basoan ...

—Nola, baña, — Elortza jaunak — mendian sua? — Eztakigu, bearbada txondaŕak ... — eta endoreak, sutsu, — nola itzali da jakin nai-izango nukena. Goazen orain udaletxera, an egingo dugu bīlera ...

—Oso zaīa izango da itzaltzea —Yokin'ek— gaur sortu ezpalitz egoaizea ...; be aldean asi delarik, aizearen indaŕaz goruntz doa sua, zirikaraturik. Gañera, txondaŕetako eguŕa laguntzeko dago gerturik.

Udaletxean bilduta, guziak buru makurtuta; ziñegotziak eta endore, apaiz eta irakasle, Elortza jauna, sendagīle, Yokin eta beste ... zearo urduri, kexu ta laŕi ... ezpain eta biotzetan galdera bera: zera ... nola sua itzali.

Zorabiaturik noski, oro zegozelarik, aintzakotzat artzeko etzan ikusten biderik, ezer ez zentzuzkorik. Asalduta, saŕakioz beteta, alkaŕenganako mintzatuz eta ezin alkaŕ ulertuz, ondorik gabeko kalapitan, eta zerbait aurkitzeko kiŕitan, ...; zuŕubuŕu kalean aña, berebat naspīla udaletxean, alajaña ...

Yokin, ausaz, ekuruago ... besteai buruz, indaŕago: —Emen eztago ezertarako kemenik, etzaigu emendik irtengo argirik. Dei-egin dizayogun Mikel'i, oŕek baitu buru-jantzi; izan ezkero sua itzaltzeko egin-biderik, amamiotaŕak erakutsiko digu ziuŕik. Mikel'ek bai, ta ez bestek.

—Ori, ori, mutil!, izpidean ago ta ekin bipil; oa erori ta laisteŕ abil —Letona jaunak— nire ta guzien izenean ..., ekaŕ Mikel albait ariñean ..., arek ezpaiziguk bere laguntza ukatuko, ta adiskidea baituk, iñork baño obe ik ziuŕ lortuko ... —Eta guzien barnean itxaro-izpi piztutzean...

—Ba-noa! — erantzunez, leyaturik Yokin oso; besteak artegatasunez geraturik, itxaropenari so; īlunduta zeukaten gogamenean, argi-piŕintaren bat ikusteko nayean...

Amamio'runtz Yokin aŕapaladan ..., zalapartaka beti ostea kalean ..., estu ta laŕi oro udaletxean ..., gaŕak ugari basoan ..., sorginkerizko auri ta erosta aidean ..., eten gabe zeñutegian ... yoaleak DILIN-DALAUN ... DILIN-DALAN ...

Ba-doa bidean gora Yokin, antsiz beterik aintzin ...; ke-lañoa dakus, muño-galdoŕa gaindituz ..., kea mordoka īlargiruntz edo goraka ..., txinpart batzuk ere, tarteka, aldez-alde ... gau beltzean ... iratxoak bailiran ...

Sua, berdin, Yokin'en buruan eta biotzean, oro gaŕ eta pindaŕ

bere baitan; ura be itzali nai-izango zuena, egipenez biurtu itxaropena ..., ta Mikel'engana bere yorana; ez ote zuen ikusi Amamio'tik, su ta gaŕ Intusi? ..., eta geldirik, besoak uztarturik? ...

Urdurikeri, oldozpen eta galderak ugari ... ezin eraz ekin ...; eta alako batean zuŕumuŕu bat edo goyan ...; bai, beruntz zetoŕela gizakien marmarioa ... areago urbiltzen zitzaiona. —Eup!— geldirik, deadarka; — amamiotaŕak? — oteka. —Bai —abots ezaguna— orixe gaituzu, angoak gera ta ba-goaz bera ...; ta zu ...? ...

—Mikel! —dardaraz oyu egiñaz— i al aiz?

—Yokin! —besteak ezaguturik— baña nora oa orain emendik?

—Ire bīla, Mikel, ire bīla noakik, Araya'n emandako mezuaz ... eta i atoŕ ezin obeki garayaz. Eta zuek noruntz?

—Sua ikusi diagu ta laguntza eskeintzera beruntz. Baña zein ote niretzako mezua?...

—Eŕia diagu zorua, nola itzali jakin gabe sua ...

—Eta uste al ditek oŕela, nik itzali dezakeadala? ...

—Eŕiak eztik bat ere usterik, oŕ etzegok bilduŕa baizik. Udaletxean bildu gaituk endoreak deiturik, begiratzeko zer egin litekeanik; baña an be etzegok ezer ikusteko bururik, guziak zegozkik jo ta erori, aterata senetik. Neroni eman zidak buruak i deitzeko ustea ... barkatu adiskidea; Azpaŕena osoan ezin aurkitzeko bidea ... iñor i bezin egoki, iñun obea ...

—Mikel'ek: Goazemak bada bera usuan; gu laguntzeko asmotan ginjoazkikan, zerbait egiten asi ziñatelakoan ...; eta orain ... jaŕi nai duzute nigan, sua itzaltzeko arloa?, osoan? Eztuk, ez, lan txikia leporatu nai didazuten goraintzia.

—Yokin'ek: Itxu-itxuan denok edozer egingo diagu ... ik agindu; ezer erabakitzeko, iñor etzegoala ez aiztu ..., aŕen ... ik ere burua ez galdu ...

—Mikel'ek: Au ixtīlua, au goŕi ibīli beaŕa! Kinka laŕi ontatik nola atera? ... Goazemak, ala ere, yoranez beteak. Eŕan ezaidak bidean, sua nola asi dukan, nola oartu zeraten, zeatz batzuk bederen ... Gurean apaizak ikusi dik lenago, ta bereala yoaleak jo ..., ta guziok itxarturik aurki ere zutik.

Laisterka bidea egiñik, iñun auŕeratzeko oztoporik. Sua nun zegoen jakinda, Yon Done murura ta Urkamendi'ra, ongi ikusteko, lagun oro samalda. Udaletxe'an sarturik, Mikel'ek begirunez eta apalik:

—Mikel'ek: Gabon jaunak, emen gaituzute, amamiotaŕak zuek laguntzeko gogoz bete.

—Letona'k: Aguro ibiĩi aiz Yokin, egaz ere oŕen laisteŕ joan-etoŕi egiteko ezin ...

—Yokin'ek: Bidean aurkitu ..., adiskide auek onuntz zetozela, laguntzeko aiduru, beren kabuz eta anayak bezela.

—Letona'k: Ainitz eskeŕik, Mikel eta lagunoi, biotz-biotzetik. Guziok gatxeudek emen burua galdurik; iñun itxaropenik ... iñun ... igan ezik. Aŕen ... ik ikusi ... ik agindu ... ik erabaki ... lenbailen ...

Bildutakoen begiak, ikara izugaŕia adierazten zutenak, antsiz beterik Mikel'enganuntz tinkoturik. Aren itzen eta egipenen zai, urduri, laŕi ta erpai. Guzi oŕezaz oartuz, Mikel bereala mintzatuz:

—Mikel'ek: Yokin'ek bidean esan didanez eta onuntz gentozela neronek ikusita, gertakera nola dagoenez argi ateman beaŕ da, ez ainbat nola zaigun asi, baña batik bat noraño el diteken ikusi, galbidean ezpaitago bakaŕik Intusi.

—Beko mendian asia dugu sua; gaña artzeko, gero, ego-aizearen jokua; ta goruntz doa zabaltzen, baso guzia kiskaltzen. Aizea ez da oso gogoŕa, bai ala ere galkoŕa. Ego-aizeak gaizkatu du, apika, Araya, baña atertzen ezpada, Alzania'raño guzia izan diteke laisteŕ eŕekaya, Atabaŕate ta Aĩarte mendi-lepoetatik gaŕak eŕezago igarorik.

—Ori eragozteko bederen, ona emen, ene ustez, zer egin diteken: Sua araño eldu baño len, goiko ubidearen galgan zugatzak ebakiten, amaŕ-amabi neurkin zabal eta bosteunen bat luze egin diteken tarte, beaŕa deritzait suaren auŕeratzea geldi-erazteko nolabait.

—Bide batez, tarte oŕen gañetik, beŕeun gizon edo irureun leŕokadan jaŕirik, ubidea amaitzen danetik asi ta Uŕaiztieta maldaberaraño, eskuz-esku ugoitzak bete ur igarotzen, tarte guzia bustitzeko iraultzen eta ura oŕela eŕuz botatzen. Baña ortarako, Araya ta aldameneko eŕi guzietako gizonak bearko.

Ekiteko beaŕean eta nayean, guzien aldetik asmoa ontzat arturik, bi ziñegotzi aŕapaladan atera, Araya'ko gizon guziei dei-egitera.

—Mikel'ek — ayei: —ekaŕ ditzatela aizkora, suil, ugoitz eta peŕail, pegaŕ eta burdin-sarea, bakoitzak al dezakena. Azkaŕ ibiltzeko ta enparantzan biltzeko.

—Beste ainbeste eskatu beaŕ aldameneko eŕien zeaŕ; endore jauna, zeroŕi dagokizu dei ori egitea; eŕi bakoitzari dei labuŕ bana, idatziz eta izenpeturik emana; bospasei mutil, edo zazpi, edo zortzi,

joan ditezela bipil, zaldiz eta lauoinka, arik eta ariñen eta lasterka. Argitsu dago gaua ta egin al-izango dute oŕela.

—Letona'k: Izpidean ago, Mikel, emen duk Matauko jauna, idazkari zin eta goibel; esayok eroŕek nola idatzi dei oyek, gero izenpetzeko neronek. Eta goazen bitartean mutil oyen biĩan.

—Matauko'k: Emen nago Mikel, idazteko ... eŕán!

—Mikel'ek: oldozkoŕ pizkatean —El, el, el!, elka natorkizue; Intusi basoa dugu su-gaŕetan osoa; askoren laguntza gagoz beaŕean; etoŕi, otoi, arin bai arin, zaldiz, abazuzan, berealakoan; al zaitezketen guziak, aizkorak ekartzen, suil, pegaŕ eta peŕail, burdin-sareak ere bai, al ditzakezutenak. Yoaleak oro bilin-bolaka eragin, iñor lotan gera ez dadin; erdu lenbailen, esango dizuegu emen laguntzeko zer egin.

Matauko jauna, leyatsu, asi zan bereala arduratsu, bere lanean beti oi zuen bezela, ta amaitu baño lenago an agertu zan endorea beŕiro.

—Letona'k: Asi zaizkigu dagoaneko gizonak enparantzan biltzen gogoz lanean asteko, ta iraduz lenbailen jotzeko. Mutil mezulariak ere, zaldiak gertu ondoren, aurki ta sutsuak izango ditugu emen. Mezuak orai izenpetzeko garai.

—Matauko'k: Emen dituzu, zure izenaren zai, amalau mezu; dagozen bezela ongi baderitzaizu.

—Letona'k — irakuŕi ondoren: Bai, ondo egiña dago deya, guziengan piztu beaŕ dugu leya. Baña egin zazu beste bat, otoi, amabost eŕietaz egin baitezakegu oroi; deya Azpaŕena'koai ezezik, aldamenekoai ere egiteko eske.

Deyak izenpetzen jaŕi zan endorea, arazo gaŕantzitsuenen adorea jartzen, eskuan dardara, gogoan aŕankura, itxaroari eutsi gura.

Atean norbaitek: —Emen zazpi mutil, mezulari izateko bipil, zaldiak gerturik, biotzak oso pilpiraturik.

—Letona'k: Saŕ ditezela!, bereala! Esan ezayek aŕen, Mikel, zer egin beaŕ diteen.

Mutiĩai Mikel'ek: —Entzun, egiña dugun deya ta eramateko beaŕ duzuten leya. —Ta irakuŕi ondoren: —orok egiteko auxe dugularik: Suari bidea ebaki, Intusi goi-aldean zugatzak adaŕetan moztu ta luŕa busti, eŕekai gabeko tarte gera dedin egoki.

—Ona emen bakoitzarentzat bi dei, emanak izan ditezen bi eŕietako auzo-endorei.

Lenengoari: — tori, Aizpuru ta Narbaja'rako, zoaz arin; bigaŕenari: ona, Andoin eta Ibarguren'erakoak; irugaŕenari: Aŕiola ta Gordoa'rako beste bi; laugaŕenari: Ilarduya ta Egino'ra eramateko; boskaŕenari: Duŕuma Deun eta Urabain'erako; seigaŕenari: Zalduendo ta Galaŕeta'koentzat; eta zazpigaŕenari: iru zuri, Albeniz, Egilaz eta Amezaga'rako berdin eramateko. Ongi ibiĭli ta yardun bizi.

Zazpi zaldi ta zaldun, gau betean erauzitako gezi mezudun irterakoan, Mikel eta Yokin enparantzako gizonengana alkaŕekin, eta endore jauna eurekin. Mikel mintzatu zan berealakoan; eta egin beaŕ zana adieraztean, onela gero jaŕaitzean:

—Ogetamaŕen bat aizkolari, zugatzetan beaŕ diran abaŕak ebaki, adaburua uztean, baña beste guzia moztean. Eun gizon urketari eŕenkadan beaŕ dira jaŕi, urmaelean betetako suil eta peŕail eskuz-esku igaro-erazteko. Oyen atzetik beste eun, suĭa bete ur arturik eta botatzeko gerturik; beŕogetamaŕ mutil, edo geyago al bada, uztutako suil artu ta lenbailen eramateko atzera. Eta gañera, ebakitako adaŕak burdin-sardeen bitartez beŕogeiren bat gizon adiñekoak, Uŕaiztieta'raño aŕastaka eramanez, egiña geratuko da tartea, suari auŕeratzeko bidea etenez.

—Bi edo iru gizon, iturbururaño igon, eskuma-aldetik doan urbidearen paladera itxi dezaten ertsirik, ur geyena joan dedin ezkeŕetik. Eta i, Martin, gera adi emen bestetzuekin, eŕietatik elduko diranak igo ditezen gero zuekin, ba-dakik noraño ta nundik, Zirauntza latsaren ezkeŕ aldetik. Eta goazen orain beste guziok gora, kemen lanean lenbailen asi gaitezen.

Iñork itzik esan ezik, gogoz eta adoretsu, Mikel eta Yokin zituztela aintzindari, bide maldatsu arturik bereala, goruntz abiatu ziran yardulari beŕeunetik gora gizaki.

Gauaren ixiĭean gizonen uŕatsak eta atzetik zetozkien dilin-dalan otsak, oyetxek soilki entzundako soñuak; dilin-dalan eta dilin-dalaun, uŕatsai oŕela emango bailitzayen ibiltzeko neurkera iĭaun.

Mintzorik ez gizonen aoan aldapa gora zijoazenean; ezkeŕ aldetik, ibayan, ur-jaustearen murmuŕa; eskuin aldetik, basoan, sugaŕen txintaŕa; ur eta su, izadiaren indaŕak, on eta gaitza, kopurutsu egin ditzaketenak, gizonarentzat ongaŕi ala eriotza. Alkaŕen aurka ere su ta ura, buŕukan abere, arerio beren arteko egitura. Gau artan biak erasoaldian, len, an urbil, giza-taldeak, etsai ta bipil, goŕoto itsuak

eraginda, alkaŕ oldartu zuten bezela. Izadiaren indaŕak berez itsuak, gizonak ordea, bereaz izan gabe, zoritxaŕez itsutzen diranak; berdin biĭakatzen zentzungabe ta zentzundunak.

Mikel eta Yokin buruzagi, goraño eldu ziran itzungiĭeak urduri, bai ta lanerako leyan aurki beren tokietan jaŕi. Ikusgaŕia zan andik basoa sutan; gabaren beltzean, ia aldapa erdian, su-itxas-gora baten antzera, gaŕ-ugiñak ari ziran ,oŕi, adaŕ eta zugatz guziak iresten, goruntz auŕeratzen; eta iĭuntasunean su-leŕo bizi luze, baso-gorputzean zauri odoltsu bezelaxe. Asti-une labuŕetan leŕo igokari ari bere bidea ebaki beaŕean, gogoŕ yardun beaŕ guziek lanean; antxe zegoen buŕuka, gaŕ eta gizonen arteko nor-geyagoka.

—Aizkolariak nigana! —Mikel'ek deadarka.

—Suildunak ona! —Yokin'ek deika.

—Asi zaitezte zugatz auetan —Mikel'ek— adarburu ezik beste guzia ebakitzean.

—Utzi emen suiĭak urmael ondoan —Yokin'ek— eta Uŕaiztieta'runtz jaŕi leŕokadan.

—Burdin-saredun —Mikel'ek beŕiz— ebakitako guzia, naiz adaŕ naiz belaŕ eta atsun, sortalderuntz naŕaz-eramateko gertu denek dagoaneko.

—Yokin'ek: beste giza-leŕoa, atzetik, auŕean izateko lenengoa; suil bete ur arturik eta botatzeko, moztutako zugatzetara ta luŕ gañera. Mutiĭak orain, guzien auŕean, goyaldean, uztutako suiĭak eskuz-esku ere ematean, urmaelera biurtzeko aŕapaladan.

Sukartsu ta gogoŕ lanean asi oro: ekaŕ!, tori!'ka urkariak gero ta aboro; iĭuntasun artan begiak baño, belaŕiak obe arean. Aizkora-kaldu, tanka-tanka! zugatzetan; gizonak zaildu, tori-ekarka! luŕean; yoaleak isi, dalaunka!, zeñutegietan; neurkera berean, ortarako jaŕi bailiran, alkaŕen oyartzun antzean.

Mikel eta Yokin gizonen leŕokadak ondozkatzean alkaŕekin, ura noiz ebakitako zugatzetara noiz luŕera botatzeko agintzen, uztutako suĭak mutiĭengana egozten, mutiĭek eskuz-esku ere atzera biurtzen eta burdin-sardedunek ebakitako guzia esandako tokira eramaten. Baña Mikel'ek berarentzat artu zuen ebakitzeko zugatzak bereiztea egokien.

Ekiñaldi gogoŕa iĭargiaren argitan, guda zakarkoŕa, sua ta ura alkaŕen aurkako buruz gañetik beaŕean, biak itsutuki leyan; sua aizeak goruntz bultzatuz, ura beruntz ixurika gizonak zuzenduz.

Astia labuŕ lana garaiz burutzeko, guziak bilduŕ alpeŕik ari ez

izateko. Aizeak, an goyan, aurkari zeukala oartu bailuen, noizean bein indaŕago oldartu edo nayean, boladak asaŕez yaurti zituen, gora zuzen zijoan kea ufa-zirimolan, goi aldera ta atxikiturik maldan, gizonak arnas-aizerik gabe uztean.

Bufada ayetan langiīe ayek estu ta laŕi, itotzeŕ guziek, lanean geldierazita eŕukaŕi. Bide batez anka ta oñetan zerbait edo jotzean; sutatik iges-egiñik, basoko pizti ta patari guziak, indaŕezko iragaitzan zearo itsuturik. Basoan ain yoria eragiten zan mota guziko bizia itzuri zijoan oro itzaltzen eta sakailtzen. Sua zirudien are jaun eta jabe. Ta gizona, orduan ere, beti bezela biziaren alde, bere baitan daraman iīezkortasun-egaŕi ase nayean eta eriotzaren gañetik pizgaŕi.

Mikel eta Yokin noizean bein alkaŕekin, goraxeago igoten ziran, mendian suaren auŕerapena obeto ikusteko beaŕean, urduri beti beren alegiñak alpeŕik izango ote kezkati.

—Mikel'ek: Beaŕa zaiguk oso lagun geyago jaso, batik bat zugatzen adaŕak ebakirik izateko naikotzat. Eŕietako lagunak emen aurki izango bagenitik bederen ...

Eta bitartean Araya'rako bideetan, beste eŕietatik eun zaldi laoinka, gañean beste ainbeste zaldun deyari gogoz erantzun. Iīargiaren argitan eun zaldi taŕapatan, atzetik egoaizea, auŕera leyatzea; zaldunak zirikatzean sukaŕa biotzean, laguntzarako xedea, ekiteko oldea. Eun zaldi, eun zaldun; oso gartsuki, oro odoldun; abere ta gizon lan berean kide, alkarturik egon, egokienik bide.

Aldi batez, araneko eŕi guzietan durundatsu, ozenez, zeñutegietan yoaleak dangadaka iraun, alkaŕen anots antzo dilin-dalan ... dilindalaun. Azpaŕena osoan lorik ez gau artan; gizonak alde-egiñik, zaŕ, emakume ta auŕak oro itzarturik, kalera edo muñoetara, sua ikusteko ardura ta nayera; alde geyenetatik, mendian egindako basa-odolezko sakail sakon ura ongienik ikusten baitzan, gau-iīunean beti goruntz sua nola zijoan; gaŕak leŕo luze goŕian, basoaren goyeraño eltzeko edo gura bizian. Azpaŕendaŕak oro begiluze, baña arbin eta estu aboro. Sukaldeetan gerorako auŕai ta edonori ipui zaŕ antzera itzalkiro edesteko.

Alkaŕen ondoren Araya'n dagoz zaldun guziek, Azpaŕena osotzen gogoz. Endoreak berentzat aŕera kartsuena ta eskeŕik bero ayentzat, egin baitiote erantzun onena. Enparantzan bilduta, Martin'ek azaldu egiteko zegoena; eldutakoek ez galdurik entzundako itzik.

Eta goruntz aurki guziak Martin'en atzetik, lan-tokira garaiz irixteko gogoz leyaturik.

Ayen laguntza-beaŕ goŕian Yokin eta Mikel alkaŕi estu galdetzean aldi onean ote zan egindako el!-deya. Yokin zalantzan erantzuna izango ote zanik, Mikel, aitzitik, ziuŕ ongi emango zutelarik.

Oren eta gaŕak eten gabe auŕeruntz, bigaŕenak beti ego-aizeak bultzatuz, gizonaren axanpak are ta geyago aundituz. Zai dagoenarentzat aldia luze, bi lagun ayentzat orduan oŕelaxe. Eskuma ta ezkeŕera zegizkiten ibiīaldietan, lendik erabakiz, batera noizpeinka alkarturik zegozenean, lanari buruzko beren iritziak bekaltzen zituzten, eta oŕelako batean, urandel ondoan aurkitzen ziralarik, gabaren utsune iīunetik, ara deadaŕa deika sorturik:

—Mikel!

—Mikel'ek: Emen nauk, Martin, bakaŕik al atoŕ ala lagunekin?

—Martin'ek: Bakaŕik ez, lagun askorekin, lanerako gerturik oro berdin.

—Mikel'ek: Betoz nigana aizkoradunak, besteentzako emen dago Yokin.

Guziak alkarganatuta, ekaŕ! tori!'ka lengoak jaŕaitzen zirala-ta, eldu beŕiak, ori entzunik, bidea aurkitu zuten ondoenik; entzumena obe aboroño, orduan ikusmena baño. Batzuk Mikel'ekin, besteak inguratuz Yokin, berandu gabe, laisteŕ jaŕirik ziran lan-tokian berak be.

Ba-zegoen alda mendian sortalderuntz, bai ta ere malda egoalderuntz, aldapa biek egiten, goyan batuta, Uŕaiztieta aldean, ala nolako muñoa, t'arako zan zuzenduta Mikel'en asmoa. Urmaeletik zijoan langiīeen leŕoa jaŕai-erazirik, beruntz eta bereziki egiteko makoa; oŕela mendi osoa, sartaldean ibayaz, ipaŕalde ta sortaldean egiten ari ziran ebakiaz, sua mugaŕitzeko ara itxita erdi-oboa.

Orduak zijoazen auŕera, orobat gaŕak mendiaren gañera; ayek egun eta argiaren bidean, besteak basoa zearo kiskaltzean; lenengoetarako esirik ez, bigaŕenentzat apika bai, gizonek egiñez; eta xede ortaz gizon ayen jokera leyaz egiteko mendian ebakera.

Mikel'ek susmatu ba-zetoŕela eguna; sua ere lantokira urbiltzen, aizea beti laguna. Zeaŕetara ia egiña zegoen dagoaneko ebakera; beruntz zijoana oindiño egiteko, ostera. Su ta gaŕ eta dordoka, ara eraman zituen eldu beŕiak, egitekoan saldoka, guzia lenbailen burutzeko gogoka. Azken aizkolari malda erdian jaŕi, besteak berdin

lanerako egoki; ta goruntz gure mutiĺa beŕiz, guzia goitik obeki atemateko antsiz; atsanka, izerditsu ta nekez, baña bioztun, adoretsu ta kemenez; bere baitan yardespena ikusiz eta gizonki oro burutu naiz.

Alako batean, ia zegoelarik muñoan, zugatzen gañetik zetoŕela, gaŕasi bat araoan eta, bat-batean, bereala, gogoŕenik tankada bat buruan ... etzuen entzun besterik, konorterik gabe luŕera jausirik, eta malda beruntz amiilka, itzulipurdika, ebakita zegoen eguŕ-meta batera ... an geratu zan gelditurik adaŕ tartean buruz bera.

Aldi berean, Aŕiola'ko mutil batek, zugatzetik jeistean, añeneka ziarduen, norbaiten biĺa goruntz egin zuen, iĺuntasunean Mikel!, Martin! Yokin!, deika, ta aldi-une baten ondoren Martin aurkitu zuen, onek deadaŕari erantzuten:

—Martin'ek: Zer duk mutil, zergatik oŕela ibil?, nunbait ote naspil?

—Mutiĺak: Bai, eta ez txikia; ara nire aizkoraren kirtena, autsia. Etzekiat nola, baña tankada bat eman diadala, kirtena autsi da, jotzeko oldaŕean zaildurarik aurkitzeke, ia erori nauk inki-minki, neke.

—Martin'ek: Eta aizkora ez al duk aurkitu gerora?

—Mutiĺak: Ari-izan nauk baña alpeŕik, aizkora joan zaiguk; nora, Yainkoa'k zekik.

—Martin'ek: Mikel'i esan beaŕ, beste bat edo, ordez, berak nai ezaŕ. Ikus dezaagun ia zerean Mikel nun zebilkiguan.


Bakoitza bere aldetik, aren biĺa asi ziran leyaturik, Mikel! deika, oyu ta deakarka; baña erantzunik ez iñun, galdeka ta iñor ere ez jakitun.

—Martin'ek: Nun ote abil, gizona?, i ikusteko nun niretzako mugona?

Eskui ta ezkeŕ, gora ta bera, guzia alpeŕ, aztaŕenik ez agertzeko era.

Ta dagoaneko eguna uŕatzen asi, iŕikaz edo agertzeko argi-azkoŕi. Sua ere goruntz, areago, langiĺe ayek ikusita beren urbilki. Gaizkiĺeen antzo, bere lana egiteko, egoki edo gau-altzo, ayek bezela maite iĺunpeko. Suaren beroa somarazita gizonengan, laisteŕ ikusteko geroa, beren alegiña ote zan onerako egiña.

Azpaŕena guzitatik, baña batez ere Araya'tik, gizakiak oro goruntz begira, eten gabe, iŕikiz eta ikus-gura aboro. Egun-uŕatsean, argiaz



obeki ikustean, sua itzaltzen ari zala zeritzayen; zergatik ote?, etzan beraz amaitu ego-aizearen jote; mendiko su-leŕoa etzan oartzen len bezelakoa; kea bai, ordea, ta sua dan tokitik, noski, sortzeko kea ...; baña nolabait aundiago zala iruditzen zitzayela. Zer gertatzen zan?, gizonek egoki burutu itzungi-lan?, ala egunez ezin nabaritu gaŕak gauez bezin diztirakoŕak?

Yokin'entzat zalantzik ez, begi-auŕean zeukan sua, indaŕ gabeko gaŕez; itzaltzean urez, kea geyagotu zanez; baña eŕekayez uztutako tartea zan, sua geldiarazi zuen bidea. Alaz ere ura botatzeari jaŕai nai zion ugari; gutxienez su-geldo urbil geraturik zegoela eskieŕ, oro keldo geratu arte edo asko bearbada austeŕ. Eta, dana dala, Mikel' ekin beaŕ ikusi, lana noiz eta nola amaiturik utzi.

—Yokin! : —deadaŕez Martin, beregana urbildurik— : nun zegokik Mikel? alpeŕik biīa nabilkik eta ezin egon gibel.

—Yokin'ek : Baña ez al zebilkik azken aizkolariei erakusten lana nun izateko egiñik?

—Martin'ek : Biīa ibiīi gaituk an alpeŕik, eta ona erdu geu, irekin edo zegokialakoan. Eten gabe deitu ta erantzunik ez entzutean.

—Yokin'ek, estu : Ezbeaŕen bat ote?, nola baña izanik ain sendokote? Goazemak aruntz, guzia aztertuz, guziai bazteŕetaruntz begiratzeko eskatuz.

Estu Yokin, laŕi Martin, an doaz deadaŕez alkaŕekin :

—Mikel!, Mikel!, —oyu-egiten; suaz eta uraz aiztuta, biotza zearo artegatuta. Guziei galdezka ..., ororengan susmo txaŕa gañezka...

—Emen, emen! —beste deadaŕ batek, uŕuntxo ta kemen— : Martin, augi ona!, ementxe gure gizona.

Ariñeketan bi adiskide, dei-egiīearengana, egin zutelarik bide, dardarikaturik oso beren izana.

—Martin'ek, ara elduta : Zer duk au? —izututa.

An zebiīen Aŕiola'ko mutiīa, Mikel estaltzen zuten arbasta, adaŕ eta ostoiīa jaso-erazten.

—Yokin'ek : Nola aurkitu duk, mutil?, ain estali egon eta ixil?

—Mutiīak : Ene aizkora biīa nenbilkialarik, oin bat ikusi diat eguŕaren azpitik; adaŕak pizkat goratuta, ara Mikel poŕokatuta.

—Martin'ek, etsi-etsita : Ai, ama!, zer eldu zaik, baña, biotzeko anaya? Yokin!, odola! Neuk ikusi beaŕ ola ...

—Yokin'ek, barexeago : Oa, mutil, Araya'ra; tximistak egiñean sendagiīe ekaŕi ariñenean; bizkoŕ oa, ekaŕi ere zeŕaldoa.

Jauzte batez, beruntz abiatu zan aŕiolataŕa berealaxean.

Bitartean, bi lagunak eta urbildu zitzaizkien beste gizonak, Mikel'en gorputza atera zuten eta eman beste egoitza; laisteŕ ikusi zutela buruan zauria zeukala; arnas zegien naiz eta estuka; odol-bultza ere nabaritzen zitzayon, aulki bazan, ba-zeŕaion.

—Martin'ek amamiotaŕ gazte bati : I, oa i ere, laisteŕenik eŕira, ta esayok apaizari etortzeko ariñak-ariñik, zer jazo dukan esanez; berari bakaŕik, beste iñori ez; eta itzuli adi ona, bidea erakusten izanik aren laguna.

Abiatu zan mutiīa, arin eta ixiīa. Besteak alik eta ongienik araberatu Mikel etzanik eta inguratu zuten, etortzeko ziranak itxoiten, makuŕa nola gertatu zan ezin azaltzen.

Alako batean, Martin'ek : A!, zaurtzaīe, amen dek; nola ez lenago asmatu?, bai, egon naukala xoratu. Entzun al diok, Yokin, aŕiolataŕari?, aizkora biīa luŕari so-egin eta uste ez uana berari ageri. Zalantzik ez niretzat; zugatz gañean zegokalarik, aizkolaritzat, dangada batean autsi zayok gideŕa, t'aizkora tunpaka luŕera; bere bidean Mikel'en burua aurkitzean; ustekabean, alabeaŕean, zoritxaŕenean ..., Oŕa oŕ guzi, argi ta nabari.

Egitzat artzeko, azalpena guzientzat iduriko, gardena. Baña Yokin urduri, Mikel'en arpegi zurbiīago ikusten, zirkiñik ez egiten. Ongi esana da : zai egotea, astia luzatzea; geyegi batzuetan, estu ta laŕialdietan.

Noiz edo noiz, alaz ere, beaŕ dana, berandu ala goiz, eltzen da. Ta bateratsu eldu ziran, azkenez, sendagiīea leyatsu, apaiza laŕitasunez.

Zaurituaren auŕean guziak ixiīik; apaiza otoika edo bere baitan; sendagiīea eroritakoa aztertzean. Garbitu zauria, lazatu jantzia, loturatzen burua. Mikel'i ta berari besteak so-egitean.

—Sendagiīeak : Dangada edeŕa artu duzu, gizona; alan eta guztiz, etzaizu izango iltzeko mugona. Zozko edeŕa zurea, aterako zera auŕera.

Arnas-artu zuten lagunak itz oyek entzuten; bete egin ere sendagiīearen esanak, gorputza ajolaz zeŕaldoan jartzen. Eta beruntz abiaturik zeŕaldo-atzetik, Araya'runtz obeki iruditu zitzayelarik.

—Yokin'ek, Martin'i : Oa i oyekin, zer jazo dukan azaltzean; ni jetxiko nauk langiīeekin, guziok lanean bereala bukatzean.

Bere burua indarturik eta lanaz gogoraturik, aurki oartu zuen

geyago egiteko etzegoela beaŕik; sua, geldi-arazita, itzaltzen zijoan, naiz eta kea, oraindik, aizeaz dantzatuz goyan.

Bildu ziran gizonak urmaelen ondoan eta Yokin'ekin asi ere beruntz berealakoan, eltzeko ibiīli ziran bidean berean.

Goitik bera, Intusi basoaren bi aldeetatik, ura besarkatzen bezela, bi lagun-oste zetozela, goibeltasuna ororengan, jazotako beŕi ituna berenganatu ondoan.

Langiīeen taldea, arpegia keaz beltzitua, gorputza izerdiz uyeldua, belaunetatik oñetaraño blai-eginda, lenengoa eldu zan eŕira, bestea baño ariñago ibiīia.

Ziñegotzien aldetik abegi ona arturik, enparantzara guziak, inguratzeko an gerturik zegozen mayak. Udalak, eskeŕ-oneko, gosari edeŕ bat gertu zien dagoaneko.

Endore, ola-jabe ta beste batzuk urbil alkaŕekin, ayengana usu Yokin. Goyan gertatutakoa egaŕiz jakiteko ayek, mutiīak ayei esan, zekizkien zertzelada guziak.

—Yokin'ek: Baña dakartenak eltzeko edo dagoz; Mikel nun sartuko dugun ikusi beaŕ alakotz; ene etxera eramango nuke gogoz.

—Elortza'k: Uŕutiegi zure etxea, urbiīago nerea; an gertuko diogu egoteko oea.

Ola-jabearen eskeintza laket eta onarturik ontsa, guziak gogoz emateko laguntza, Mikel ekartzen zetozenen biīa eŕi-sartzeruntz abiatu ororen saiīa.

Etzuten zai luzaroan egon beaŕ-izan, aurki eldu baitziran Mikel' en ekarleak astiro xamaŕ gisan; astiroegi, aoki nolabait iduri; eraman zuten zauritua ola-jabearen etxera, ba-zegoen oea gertua. Antxe beta sendagiīeak obeki egiteko sendaketa.

Gau artan jazotakoa ororen aotan, Azpaŕena osoan erabiīitakoa zalarik, bala-bala zabaldu zan pizkoŕik, Mikel'i jazo zitzayona ere aoz-ao geiturik.

Norbaiti Amamio'n apaizaren irteera ikusita nabarmen izan zitzayon; beste bati esanda, berealaxe irugaŕenari; ta zentzun onez esaten danez: Ao batetik jalia, miīa miitan erabiīia. Xixta-pixta eŕian barna susmoa; makuŕen bat edo sutean, eta Lauren jauna joatean amamiotaŕ bati agian; laŕi ta estu auŕeko gabean Araya'ra joan ziranen etxeetan.

Auŕeratua goizea, eŕiruntz gazte-taldea; geldi-geldi, ausaz astiroegi aren etortzea; eŕian azkenez sartzerakoan, ageri gazteengan



guzien nekea; ta ayengana oro galdezka: zer jazo, zein makuŕ, ..., elkaitzaz nor?, ..., oro bilduŕ. Esan beaŕ eta ... Mikel'engan ain zuzen zoritzaŕ, ...

Ikastolan, jostaldian, Aintzane atarian; gazte bi igarotzen aldamenean, eta ayen mintzo-agerkari irakaslearen belaŕian.

Jauzi batez neska kalera, gazteen atzera.

—Aŕen! Zer ote jazotzen? Mikel eroria?, ..., zaurtua? ...

—Gazte batek: Bai, egia, baña ez dun gauza aundia.

—Aintzane'k: Nola baña? Noiz? Nun zegok orain? ..., otoiz!

—Gazteak: Ez estutu emakumea, ongi egiteko zaintzea, Elortza jaunaren etxean sartu diten oberenean.

Itxura aldaturik, Aintzane'k oyuka ikastolan sarturik:

—Maḏalen!, auŕak bota kalera, joan diteznala etxera, ..., berea-la!

—Maḏalen'ek: Zer dun, baña, neskatīla, egoteko ain zurbīla?

—Aintzane'k, beretik irtenda: Mikel zaurtua! —aren zinkuriña! Ba-noakin ..., emen egon ezin! —abiatu zan arin.

—Maḏalen'ek: Ai ama!, ai neba gaixua! Egon, Aintzane, irekin ni ere. — ta atzetik, zoratua bera be.

Lasteŕari eman beaŕ-izan zion Maḏalen'ek Aintzane atzemateko bederen, eta biak alkarturik, jo ta su egiñik, laisteŕ aintxintxika, aŕapaladan, arin-arinka, beruntzko bidean...

Nora zoazte oŕelan, nola oŕelako zoraldian? ...
Bideko aŕietaz tupust-egiñik, oñetan ez oartzeko miñik? ...
Ertzeko sasietaz gonak uŕatuz, zango-aztalak zaŕastatuz? ...
Uŕezko adatsak aizetara, aŕotu, zabukatuz, aske, kurkutz-erara? ...
Zangoak arin, gogoa ariñago; aoan zinkurin, biotzean areago ...
Noren bīla, zeren atzetik?; oŕen bipīla, zein dala-ta ziorik? ...
Kardabaz beterik barnean, sukaŕaz goŕiturik arpegian ...
Oldozpenak naspil, zorabiatzea urbil, erabe ta miñez ibil ...
Maite-itz, itzerdika, ongi oguzi eziñik aunitz; nekez, atsanka ...
Zer daramazute barnean?, zerk zaramazki ote ito-beaŕean? ...
Maitale zoro alenak, norengana, oŕen zaletuak, zuen biotz-yorana? ...

Eutsi Maḏalen!, tink Aintzane!; jausi baño len, inki-manka bada be!

... Eŕian sartzen ikusi zituzten, erstura goŕian, izu-ikara arpegian, iñora begira gabe, iñori mintzatzeke; maite-mindurik alkaŕen leyan, goŕ eta itsuturik beste auzian.

Eŕukiz izan ziran begiratuta, ulertua ere beren apeta; begikotasunez, laztanki, ayenganako oro, begi-argi egiñez; maitasaŕea biziki, guzientzat noski, atsegin oso.

Elortza jaunaren etxera ker-ker ..., eta bitartean ... beren gurasoak kinka laŕian itotzeŕ. Elkaitzaren beŕiarekin batera Aintzane'ren amak jakin bi neskaen joanera; zer zegien ere ateman gabe, arin-aringa Mikel'en gurasoengana, ta oso naigabeturik aurkituz ama biak berealaxe alkaŕ besarkatuz. Ayotzaz, zotinka, biena zan min-laŕiaz jasanik astinka.

Ixīlik etxaguna, gaindu nairik samintasuna, besteentzat izateko laguna. Bidezkoa zitzayon emakumeen negaŕa, orobat adion bi neskaen sukaŕa.

Alditxo baten buruan mintzo zitzayenean, itzak astiro, bat-banaka ebakitzen oro. Ama biei buruz, atsekabea nai yabalduz.

—Zozko onekoa dugu semea, ziuŕ nago ongi ateratzea. Aldamenean dauzka bat eta beste neska, Martin adiskidea, apaiz eta sendagīlea; guk baño obeki zainduko dute noski; gure nekea eztitzeko oŕezaz gogora bearko. Mikel ondoan, mutīlaren inguruan, gaur guziok alkarturik, maitasun berean orok bat egiñik.

Etziran izan alpeŕik bere itzak besteentzat; malkoak ixuririk, onaŕ zituzten itxaropentzat.

Azpaŕena guzian, langīle bakoitza etxera itzultzean, solaspide bera, ororentzat beŕia ezin geyago minbera. Eŕetzea itzaltzeaz ezin zearo poztutzea; ustegabeko zorigaiztoa, beste guzia aiztutzekoa; eldu edo egin beaŕ, eta nori?, guzia zoŕ zioten mutīlari.

Azpaŕendaŕ guziengan, egun artan Mikel'ganako maitasuna, begikotasuna, zaletasuna, aundi ta indartzeko abagune saminduna.

Eta gentza-beaŕean, Mikel ezeze, guzia bere norabidean; aizea gelditurik, sua itzungirik, ura oiturazko bidetik; eta gizakiak oro, laŕi-aldian gau luze batean igaro ta gero, bakoitza bere lanean; jazotako guziaren ondotik, eta elburua lortuaŕen, ala beaŕean txastatzen guzien mingoztasuna ... yoaleak ere lentxeago ixildurik beren dilin-dalauna.

Egur bakoitzak bere ezpala

Joan ziran egunak, beren bidean beti; urtezaroen txandan, ara udazkena bete-betean. Nekazariek uzta-biltzearen azken mozkin eta arnariak jasorik zituzten, eta urengo ereinketarako lura ongaritu, zimaurtu ta gerturik izateko, golde ta lanabesak atontzen ari ziran dagoaneko, an eta emen igarturik zegozen bedarak soloetan metatzen eta ayetaz eretura egokiak egiten.

Lentxoago menditik gurdi bete orbel, bakoitzak ekari, bi ere ta iru batek edo bestek; soloetako lura mee ta aula, aureko ernealdian yoritasuna galduta, beriz okuntzatu bear, eta ortarako orbela ongari edera omen.

Aldako usoen zuritak, Apota aldetik agerturik, uso-zaleak ere gerturik, urzategietara ertzeko tiriaz, us-eize onari buruz itxaropen aundiaz, eiz-izkilu ta eizakiñak aretaz antolatzen.

Aurak areitzetara apetatsu, kukuruak eratsi ta biltzeko, eurakaz, gero, txol izeneko jokuan jolasteko, edo ulitxak, bizi-bearean lekorera irteteko, kukuru borobilean egin zuen zilotxoan txotx bat sarturik, poxpoliñak ere egiteko.

Beste aur adintsuagoak su-egiten zuten, zugatzetako zulo batzuetan egon litezken mitxaroak arapatzeko, barura kea botatzen eta mamutxoak arnas-egiteko bearez beren etzauntzaetatik irten-erazita; mitxaroen koipea oso ona omen, baña mutikoak, eiza ori egiten, jolasteko bakarik ari ziran.

Etzegoen oindiño otz aundirik, bai, orela, asgiro, oso. Mikel bidegiro ori gozatzen, bere eritik Araya'runtz zijoan goize batean. Bere ezbearetik ongi atera zan, bere aitak uste-izan zuen bezela; ala ere, ortarako Araya'n lenengoz eta bere etxean gero, egun batzuetan geldirik egon bear-izan zuen; buruko zauria aurki itxi ta sendatu zan, baña galdutako odolagatik zearo aul geratu be, ta bere amaren ardura guzien beara izan zuen lengo indarak beriz berarenganatzeko.

Zuzpertzen ari-izan zan egunetan, Xabier, Eneko ta Sabin'en gu-

tunak izan zituen; ayenganako ere, sutearen gauean gertatutakoaren beria eldu zan eta beren kexutasuna jakin-erazten zioten. Mikel'ek al bezin laister erantzun zien, beri zeatzagoa ematen eta bere eskerona azaltzeko. Baña egun ayetan ere artutako erabakia bete nai zuen, ots, Araya'ko endore ta adiskideai, ta batez ere Elortza jaunari, onek bere etxean euki zuelako ta guziek eman zioten laguntza ta agererazi zizkioten adiskidetasun eta adeyagatik, eskerak ematera joatea, bearezkoena iruditzen zitzayolarik.

Bidea egiten, bere begiak Intusi mendiruntz zuzendu ziran bereala; baso guzia beltziturik agertzen zan goiko bara bateraño, gizonen lanak suteari jari zion mugaraño. Laket-izan zitzayon Mikel'i ura oartzea, berak uste-izan eta esondatu zuena buruturik eta nai-izan zan ondorioaz gertatu zala ikustean. Beste aldetik, alaz ere, suak basoan egin zuen kalte aundia atematen zuen eta guztiz deitoragaritzat zeukan.

Araya'n sartu ta bereala Elortza jauna aurkitu zuen kalean; au, oitura zuenez, orduantxe itzultzen zan lantegitik eguneroko ikustaldia egin ondoren.

—Mikel'ek: Agur Elortza jauna —esan zion— ain zuzen zuregana nentoren; zori onez egokitu zait zu bereala aurkitzea.

—Elortza'k: Kaixo mutil; ongi al zaude?, zuzperturik oso? Pozgarria da niretzat zu beriz ikustea. Zer dala-ta zatoz niregana?

—Mikel'ek: Nire ezbeararen lenengo egunetan ain araiki zure etxean euki ninduzunagatik nire eskerona agererazteko. Zuri lenengoz, gero endore jaunari ta besteai ere.

—Elortza'k: Etzenuen orelako egin bearik, gizona; ura niretzat eginbidezkoa zan, eta, egitan, guziok gaude zureganako eskeron, zuri eskeri sutea geldierazi al-izan zan-eta. Utzi dezagun ori ta emen zagozenezkero, ta nai baduzu, goazen nire landolara alkarekin solasalditxo bat izan dezagun.

Mikel'ek ontzat artu zuen ori ta bi gizonak jabearen lan-tokian aurki eseri ziran alkaren aurean.

—Elortza'k: Gogoratzekoa dugu sutearen gaua ta, zoritxarez, zuretzat gomuta mingotza noski. Dangada aundia artu zenuen, bai, baña gaitz-erdi itzulika jausi ziñanean egur-meta ura ain zuzen antxe zegoela, osterantzean amilduko ziñakean eta zureak orduan egingo zukean.

—Mikel'ek: Neronek ere orelaxe argi ikusi nuen ori, nola aurkitu

ninduten esan zidatenean. Baña Yainkoa'ri eskeŕ an zegoen eguŕ-meta ura niri eusteko bereziki. Beste aldetik, gau artako lana alpeŕik egin etzala esan beaŕ ene ustez, eta oŕengatik pozik egon gaitezke guziok.

—Elortza'k: Alaxe da naiz eta, beste aldetik, kalte aundiak izan; gero ta obeki iruditzen zait gau artan zuk esondatutako egite ura. Nola asi ote zan, baña, sute ikaragaŕi ura?, amaika zugatz, ikatz eta eguŕ zearo kiskaldu ta ondatzeko.

—Mikel'ek: Zala deritzait nola asi zan jakitea, baña ez dut uste eŕe egin ziran zugatz guziak zearo ondaturik geratu zirala; bi egun baŕu jausi zan euriak eŕe-ondoko zugatz askotan geratu zan su-geldoa garaiz oindiño itzali zuen eta ezetuko diralakoan egon gaitezke.

—Elortza'k: Oŕela izango balitz ..., pozik ikusiko nuke gure Intusi basoa len bezin oyantsua beŕiz. Dana dala zentzaturik geratu gera auŕerantzean mendi ta basoak obeto zaintzeko. Ezbeaŕetik ere ikaskizunak atera baititezke.

—Mikel'ek: Ori bai, beti ta edonun ikasteko dago zerbait. Nire iduriko, ikaskizun berezi au da gau artatik atera dezakeguna: Azpaŕena osoaren alkartasunak emandako on eta indaŕa nolako egokiak izan zitzaizkigun egiztatzea; eŕi bat ere etzan geratu bere laguntza eman gabe; ori bai guzientzako pozgaŕia. Orduan oso agerian agertu zan azpaŕendaŕen gogo ona, aintzakotzat artu, ta emen egin diteken guzirako ustiatzekoa dala gogoratu beaŕ. Nire asmoetarako bederen, berebizikoa dut; aspaldiko auzolanaz gogoratzen.

—Elortza'k: Zure asmoak ...; beŕiren bat edo beste eldu zait ...; dirudienez Azpaŕena osoa jaŕi nai omen duzu guzientzako ekintza baterako lanean.

—Mikel'ek: Oŕela da, bai; indaŕ aundia ikusi dut aspaldidanik, gizonen arteko alkartasunean, batez ere eŕitaŕak eta auzokoak diranen artean, mendiko sua itzaltzeko ondoenik egiztu zanez.

—Elortza'k: Ezin uka diteke ori ta ba-dirudi Azpaŕena'ko lugiñen alkartasuna egin eta zuzendu nai duzula. Beyondeizula, mutil!, oso ongi dago ori; baña, zure ordez, bizibide ain edeŕa lortu duzunezkero, beste tokietan, Araba'ko Aldundi'an edo oŕen antzeko beste toki egoki batean, buruauste aundirik gabe yarduteko, aleginduko nintzake.

—Mikel'ek: Ara, jauna: nik artu dudan bidea iru elburu auetaruntz ari-izateko duzu; lenengoa ta urbiĺena zaidana, ni ta sortu

nai-izango nuken sendia bizi al-izateko; bigaŕena, luŕa ta bereziki Azpaŕena'ko luŕ au barnetik maite dudalako, bertan dagoen biziari eutsi ta auŕera-erazteko; ta irugaŕena, Euzkaleŕi osoaren alde lanegiteko. Azken asmo ontarako, adiskide batzuk alkartu gera, gure Eŕia onen jausita dagoela ikusita, egokera ontatik ateratzeko xedeaz. Ezinbestekoa deritzaigu ori ta alkaŕi itza eman diogu, asmo ortaz alegin aundienak betetzeko.

—Elortza'k: Noski, bakoitzari dagokio bere burua zuzentzea; baña zure irugaŕen elburu ori ez dut argi ikusten. Nola esan dezakezu Euzkaleŕia jausita dagoela?; ez ote gagoz pakean egoaldekoenekin alkartu giñanetik?; len, ba-dakizu gure artean goŕoto goŕian eta odoleztutako liskaŕetan bizi zirala emen gure auŕekoak.

—Mikel'ek: Ongi dakit ori, nire umezaroan ondo ikasita. Baña egoaldekoek, beren izkuntza, beren oiturak eta beren legeak aŕerazten dizkigute indaŕez, eta oŕengatik Gure Eŕia, dagoaneko, iltzer eta suntzitzeko kinka goŕian dugu. Ezin ori gure aldetik ontzat artu, Euzkaleŕi'aren seme zintzozuŕian.

—Elortza j.'k: Ulertzekoa da alde ortatik zuen jokera; baña, ongi dakizunez, gaurko auŕerapenen eskeŕ eta lantegien bidez, bizi beŕia sortzen ari zaigu. Lantegi oyetatik gauza beŕiak ateŕatzen dira gero ta geyago, ta ... gauza oyek egin bakaŕik ez, nunbait saldu egin beaŕ; ortarako Egoeŕia zei zabala izan diteke guretzat.

—Mikel'ek: Asko dago ortaz mintzatzeko; dagoaneko, Egoeŕi' ari ongi datorkio orain sortzen ari dan bizi beŕi ori, ain zuzen gure Eŕia aren mugaen barnean sarturik, berak eratutako lateŕi-erakundean, emen soŕ ditezken lantegi guzientzat, bakaŕa ta ezinbestekoa bezela, bere zeya eskeintzeko; eta aitzaki ortaz ere, nai ta nai ez, beaŕez, bere agintza ta berarenak diran izkuntza, oitura ta legeak onaŕerazten, ontzat eta gureak bezela aŕ ditzagun; ortarako bidean, jakiña, zearo indarturik. Argi dago, noski, ori lantegi beŕiai ongi dagokiela, beren ekoizpena nun saltzeko bidearen biĺa iñora joan beaŕ ez dutelako, ta gaurkotz aski dute Egoeŕi'an aurkezten dietenaz.

—Elortza'k: Eta gaizki iruditzen al zaizu ori? Ene ustez, ez da ori ostiko txaŕa, eskualdi edeŕa baizik; benetan gu ero, ori onartuko ezpagenu.

—Mikel'ek: Lantegi baten ugazaba bezela mintzatzen zera, jauna; ta auzia zure ta zurea bezelako beste arazoetan zedaŕitua ikusi ezkero, bidezkoa da zure ustea. Baña ba-dago besterik edonun, eta

gurean ere bereziki, batez ere gizonari ta Eŕi'ari dagokienez; eta baitezpadakoa deritzait ebazkizun guziak ongi, sakon eta alde guzietatik begiratzea.

—Elortza'k: Kardabaz uzten nauzu, gizona. Orain arte bederen iñork ezpaitit oŕela itzegin. Nik gaurko lantegien bidez biziera beŕi ta zabalak sortzen dirala ikusten dut, eta ori naiz gizonak naiz Eŕi'ak gogoz onartu beaŕ-izango lukete. Guziontzako auŕerapen aundia sortzen ari da ortik, ororentzat ona; ta, gañera, ezin jaŕi dakioke era guziko auŕerapideai esirik.

—Mikel'ek: Barkatu, onezaz asko dago begiratzeko; baña bilduŕ naiz lanerako zure alditik geyegi kentzea edo ..., gure solasaldi au luzatu ezkero; bestaldez, ni nire eskeŕona zuri adierazteko asmoz bakaŕik etoŕi natzaizu...

—Elortza'k: Ez ardurarik ukan ortaz, eta gai oyetaz mintzatzen egon zaitezken aldi guzia eztut, iñola ere, galdutzat artuko; eiki ezin uste dezakegu Eŕi ta gizonen bizia lantegietan eta beren baranoetan bakaŕik dagoela, ta pozgaŕia izango zait zure asmoen beŕi jasotzea. Jaŕai, beraz, beste eragozpenik ezpaduzu. Esan duzunez, gure jokera ta lanetan gizon eta Eŕia aintzakotzat artzeko beartuak edo gagoz, eta ontzat artzen dut nik ere ori; baña ba-dirudi, zure iritziz, lantegi ta ola beŕietan aiztuta edo dagoela.

—Mikel'ek: Ta oŕela da, enurarik gabe. Begira dezagun arazoa gizonari buruz bakaŕik lendabizi, gero berebat egin al-izango dugu Eŕi'arekiko. Ene ustez argi dago, lantegi ta ekintza beŕietan sartzen diranak bide beŕi oyetatik atera ditezken etekiñen biīa yarduten dutela; berentzako etekiñik izango ezpalitz, elukete uŕatsik emango geyenetan; baña beren burua aberasteko bide egokia zayelako, buru-belaŕi ari zaizkigu gaurko auŕerapenek eskeintzen dizkieten bide beŕi oyetan barna. Ta beren jokera guzien aldetik onarturik izan dedin, besteai ere, gizonai ta Eŕi'ei, bizi-izateko bide oyek eskeintzen dizkietela bayezten dute ozenki.

—Elortza'k: Ta ez al da oŕelaxe? Ikus gure eŕi txiki ontan gure lantegia sortu ezkero, zer gertatzen dan; beŕeunetik gora dira bertan lan dagitenak eta lan oŕen eskeŕ bizi diranak, berak eta beren sendiak; oŕa, bada, beŕeun sendi geyago txoko ontan. Gero, oyen beaŕetarako saltoki beŕiak eta beste sortu dira emen ere, bizi zabalagoan eta lagun geyago kopurutzen. Ez ote da guzi ori txalotzeko ain zuzen?

—Mikel'ek: Ezin uka diteke ori, baña arazoa ezta ortan amaitzen eta gerorako batez ere jokera ori galbidezkoa da ene gardiz. Begira jauna: lantegien jabeak irabaztea dute jomuga nagusitzat, alik eta geyena irabaztea; ortaz itsuturik edo, ez dute beaŕ aña begiratzen beren pean dagozen beste gizonen beaŕa, ta ...

—Elortza'k: Aizu, aizu!; langiīeei beren egunaria ematen zaye ta, ongi dakizunez, alde guzietan onartuta mugaturik dagoen egun-aldirako; beraz, oyek ez dute beren lana doarik ematen.

—Mikel'ek: Baña naikotzat aŕ al diteke langiīeai ematen zayen egunaria? Berak daukaten guzia eman beaŕ dute lanerako; asti gutxi oyek bestetarako, ia ezer ez beren gogo-lantzerako. Ementxe saŕi ikusten dugunez, langiīeak, asko, lantegitik ateratzen diranean, aŕapaladan afaldu ta, eguraldi onaz, beren ortuetara doazkigu aitzuŕari gogoŕ emateko ta betegaŕia dan lan ortatik beren sendiek beaŕ dutena osotu al-izateko; argi erakusten digu egipen oŕek egunariaz aski eztutela. Oŕela, astean egun bat bakaŕik geratzen zaye, igandea, berentzat ustiatzeko, ta ori ere ezinbestekoa zayen atsedenerako artu beaŕ.

—Elortza'k: Zer nai duzu adiskidea?, guzi ori bizi-izateko beaŕak dakaŕ; eta ez ezazu uste lantegiak jaso ta antolatu ditugunok alperkerietan bizi gerala; eguneko ordu guziek gutxi zaizkigu lana ondo antolatzeko, lenengo gayak nun aurkitu ta gure etekiñak nun saldu begiratzeko; ta saldu al-izateko, etekiñak alik eta merkeenak atera beaŕ, zeyan dagozen salneuŕien bidez beaŕezkoa dan irabazpena lortu al-izateko ere. Ezinbestekoa zaigu al diteken irabazpen aundiena ateratzea, langayak beŕitzeko ta beaŕezkoak izan ditezken beste beŕiak ere erosteko; guzia lantegia geldirik ez uzteko.

—Mikel'ek: Ba-dakit guzi ori, jauna; baña ez didazu ukatuko egiazkoak diran zuen lanak eta zuen kardaba guziak, zuen egokitasunerako, zuen irabazpenak aunditzeko dirala bereziki.

—Elortza'k: Eta zer nai duzu, doarik lanegin dezagula?, gizon guziak ez ote dira alegintzen ain zuzen irabazteko?

—Mikel'ek: Nik obe esango nuke gizonak bizi al-izateko lanegiten duela, ta geyenak beaŕez onartu beaŕ dituzten baldintzetan, maiz oso txaŕak diranetan ere.

—Elortza'k: Baña nola nai duzu lan-bizia atontzea?; alde guzietan berdin dago jaŕia, ta biziera oŕek asko auŕera-erazi du gizadia; oŕengatik ontzat artzeko dalakoan nago. Irabazteko bidea ona dala

esan beaŕ, bera baita biziaren eragiĭe yaukala. Bera gabe gizona oindiño aŕi-aroan edo bizi-izango litzake.

—Mikel'ek: Ezin ukatu irabazteko leya, lanerako bultzagai egokia dala, baña gizon-zuŕian eziña da ori onartzea. Jokera oŕek norberekoikeria du oñaŕiz, eta benetan auengaŕi ta ituna gizadiaren bizikerarako ori onartzea. Lantegien bidez orain antolatzen ari dan bizikera beŕiak ortxe du iturburu, ortxe aŕoña, ta ororenkoikeriak alkaŕen aurka ari-izango diralako, ortik gizonen arteko liskaŕ, guda ta goŕotoak soŕeraziko dituzte ugari; ta, ondorioz, pakeak alde-egingo du gizonengandik.

—Elortza'k: Gizona, oso ukakoŕa ikusten zaitut alde ortatik; nik eztut uste gaurko lan-antolaketak ainbeste ondorio txaŕak ekaŕiko dituela; alkaŕekin yarduteko gagoz gizonak eta gure artean, nai ta nai ez, beti sortuko diran gorabera ta berexkeriak zuzentzeko, bideak ere izango dira beti. Nik bederen oŕela uste dut eta irabazteko leya ontzat artzen dut, orain arte beñepein auŕerapenen ituŕia izan dalako.

—Mikel'ek: Irabazteko leya norberekoikeritik sortzen da ta oŕengatik ezin ontzat artu, ori oñaŕiz jartzen duen erakundea. Norberekoikeria, gizonagan sortzen dan giriña txaŕa da, ta, txikitatik irakasi zaigunez, gizonak bere giriña txaŕ guzien aurka gudukatu egin beaŕ du; orixe da jokera zuzena, orokaŕean nun-nai onartzen danez. Baña ola ta lantegietarako erabiltzen dan jokera, oŕezaz aiztuta, aitzitik ari da, ta bere egitura guzirako, aŕoñaz, gizonaren giriña txaŕenetako bat, norberekoikeria, jartzen du. Orixe bakaŕik aski da oŕelako erakundea astantzeko.

—Elortza'k: Geyegizka ari zera gizona; ez dizut ukatuko lantegien jabe batzuengan norberekoikeria izan ditekela, baña arazoa orokaŕean begiraturik ezin esan dezakegu erakunde guzia aŕoin ortaz antolatua dagoela. Iñork eztizu ori ontzat artuko.

—Mikel'ek: Ongi dakit arazoa oŕela dala iñork aitortuko eztuela, ta ba-liteke lantegien ugazabarik eztagoela bere erakundeetan berekoikeriz bakaŕik asten dana. Baña erakundeen izakerak, jomuga bezela, irabaztea artzen duelako, egitan beraren berekoikeriari edatzeko bidea idekitzen dio, ta azkenez orixe dugu oñaŕi biurtuta. Alaz ere, gaitza ez da ortxe geratuko. Ondorioz langiĭeai alik eta gutxiena ordainduko zaye, ekoizpena ere merkeenik atera al-izateko, zeyan obeto ta eŕazago saltzeko, ta, bereziki, irabazpena alik eta aundiena

izateko. Alakotz, langiĭeai buruz, laberako beaŕa izango dan beste edozein gai bat bezela yardun beaŕ, oro berdin, alik eta merkeena ere eukitzeko. Baña langiĭeak eztira gauzak, gizonak dira ta eziña zaye beren lana, ikatza, eguŕa edo menasta bezela saltzea; oyengan beaŕak dagoz eta gizonak diranezkero berenkoikeria ere, ta ... oŕa ugazabaen eta langiĭeen giriñak berak alkaŕen aurka eragiten ... oŕa gizonen arteko gudaren ituŕia ... oŕa, apika, alkaŕenganako eŕa ta goŕotoaren iturburua... oŕa pakearen aurkako jokera.

—Elortza'k: Ertzetara daramazkizu ebazkizunak; egia da ugazabaen eta langiĭeen arazoak noizpait alkaŕen aurka bezela agertzea, baña naimen onaz beti aurkitu al-izango da batera etortzeko bidea.

—Mikel'ek: Ori ez da beti eŕaz izango, ola aundietan batez ere; oyetan ugazaba ta langiĭeek ez dute alkaŕ ezagutzen, eta oso zaĭa, noski, oyen artean gizabiderik izatea; bidezkoena alkaŕ areriotzat artzea izango da. Ikus ezazu Bilbao'ko ola aundietan dagoaneko sortu diran iskanbil eta liskaŕak, gero ta gorbiztuago izango diranak. Pakearentzat tokirik ez an.

—Elortza'k: Ziñez, gerta diteke zoritxaŕ ori, an, emen eta edonun; baña gizadiaren asieratik, ontaz edo artaz, olakoak izan ditugu edestian barna. Ba-dirudi gizonen izaeraren beaŕezko ondoŕoak dirala; ta nola bidera liteke berez makuŕa dan joera? Ba al duzu bideren bat ikusten?

—Mikel'ek: Etzait aiztutzen gizonaren izaera gaitzerako aldapa bera eŕaz doakigula, ta oro-sendakirik eztagoela; beraz, eziña izango da bizi ontan utz eta akats gabeko bizirik iñoiz aurkitzea; beste utzen artean, gizon guziengan dagoen norberekoikeriagatik. Baña bearturik gagoz guziok bide onen biĭa ari-izateko, ta xede ortaz alegin aundienak egiteko. Gogo onenaz ere ez da oŕela jokatzeko eŕaz izango; baña zer gertatuko da norberekoikeriari bide zabala idekitzen bazayo?

—Elortza'k: Zuk esaten didazun guzi ori gogoan erabiltzekoa dala ezin ukatu. Baña zedaŕi dezagun ebazkizuna ta guri dagokigunaz ikusi; begira ditzagun egipenak, gure txoko ontan dauzkagunak eta soŕ litezkenak ere. Ba-dakizu izana ta izena berdin eztirala geyenetan. Beraz, nola antolatuko zenuke zuk eŕi ontako bizia lantegiari buruz?; ziuŕ nago oŕezaz ere iritziren bat edo duzula, ta oŕen beŕi eman nai baldin badidazu ...

—Mikel'ek: Bai, ta gogoz ere. Len esan dizudan bezela ezin uste

dezakegu oro-sendakirik aurki dezakegula. Baña, naiz emen naiz edonun, norberekoikeriaren ordez, lankidetasuna da oñaŕiz artu beaŕ dana; ots, giriña bat aŕoin jaŕi beaŕean onbideaz asi. Ene ustez orixe izan beaŕ gizonen arteko aŕemanetan onartzeko asiera. Xede ortaz, zure lantegian enituke ikusi nai ugazaba alde batetik eta langīleak bestetik, guziak alkaŕen lankideak bezela baizik; eta ortarako azpaŕendaŕen alkartasun baten antzo antolatu beaŕ-izango litzake lantegiaren ekintza.

—Elortza'k: Itzetan asmo polita da ori, baña nola egitez biurtu? Oŕa koxka!

—Mikel'ek: Noski, ez da ori oso eŕaz izango, baña ene ustez, bai, egin ditekena. Jakiña, beste eraz, len esan dugun irabazpidea oñaŕiz jaŕita asi zeranezkero, zuk asi beaŕ-izango zenuke, neuŕi batean bederik, zure burua ukatzean; eta lantegiaren jabetza, zuzen izan diteken eraz, olan ari diran guzien artean banatzea. Beaŕezkoena deritzait ori, oŕela guziek, mail batean, ugazaba bezela ikus lezakete beren burua; ta, ondorioaz, norberaren onuraz ari-izango lirakelako, gogotsuago bete izango luke bakoitzak bere eginbeaŕa.

—Elortza'k: Baña, gizona, lantegia antolatzeko ainbeste lan, buruauste ta dirua ene aldetik jaŕi ondoren, nola nai duzu langīle guziak, beren besoen lana bakaŕik ematen dutenak, ni bezelako jabeak izan ditezela?; ezin ori zuzenbidezkotzat artzea.

—Mikel'ek: Nik eztizut esaten langīleak eta zu jabetasunean mail berean izan zaiteztela, baña egokitzat aŕ diteken maīladi batean bai. Oŕela jaŕi ezkero, Azpaŕena'ko eŕietan laŕegi dagozen nekazarien semeak, emengo lantegira etoŕiko lirake gogoz, beste norabait, askotan uŕutira, joan ordez; etxean seme guzientzako tokia eztalako, geyenetan egin beaŕ duten bezela. Baña seme oyek, beren gurasoen laguntzaz, neuŕi zuzen bateko diru-aindoren bat ere ekaŕ lezakete, ain zuzen, bakoitzarentzat bere jabetasunerako baldintza bezela; ez ala ere ortarako neuŕi bakaŕik izan dedin, ta jabetasuna, lendabizi, lanatik sortua lez onartu beaŕ-izango litzakelako. Orixe egin ezkero, langīleak emengoak izango lirake, guziak ororen ekintza berean lanegiten, nekazariekin batuago, alkaŕen laguntzaz eta alkaŕen anaitasunean. Oŕela ikusi nai-izango nuke nik bizia gure aran guzietan.

—Elortza'k: Margo edeŕakaz aurkezten dituzu arazoak; edeŕegi ez ote?; ta geyegi ere niri eskatzen didazuna, nere-nerea dana besteekin banatu; ez ete da ortarako, done bat izan beaŕ?

—Mikel'ek: Ez, nire ustez; beaŕa zaigu guzioi gauzak eta arazoak auŕetik ondo ikusi ta aztertzea, beti uŕutira begiratzean. Emen asi zeran bezela jaŕaitzen baduzu, gero ta aundiagoa izango da langīleen eta zure artean egiten eta sakontzen ari dan tartea; eŕa izango da zuen arteko jokera, ta goŕotoa amaika gaitzen iturburua beti. Barka ezaidazu, zugan kexutasun aundia bearbada soŕerazten badut, baña gentza-beaŕean ezinbestekoa deritzait oŕela jokatzea. Nire aldetik eztituzu itzak bakaŕik; ongi dakizunez, emengo nekazariekin ekintza berezia antolatu nai dut, lankidetasuna oñaŕiz eta asieraz artzean. Eta lankidetasunerako, azpaŕendaŕak gerturik dagozela ongi egiztatu zuten Intusi'n izan genuen sutearen kariz. Ene ustez ustiatzekoa dugu jokera edeŕ ori. Barka ezaidazu, beŕiz ere, ba-dakit nire itzak zuretzat gogoŕegi edo izan ditezkela; baña gure aran onen gaurko ta batez ere geroko bizia dut nire oldozpenen erdian, eta bertako gizonentzat gentza, zuzentasuna ta anaitasuna barnetik opa dizkiedanezkero, ortarako ezinbestekoa dan lankidetasunezko bidea artu nai dut; eztut beste oberik ikusten; oŕen barna anayak izan gaitezke guziok; oŕen lekoretik joango bagiña, aurki, anai ordez etsai goŕotagaŕiena ikusi beaŕ-izango genuke alkaŕengan. Beraz, nundik abiatu beaŕ dan eta nola jokatu erabakitzeko, enurarik ez nigan. Eta jokabide ori edonungo gizonentzat, gizon ororentzat, biotz-biotzetik opa diet.

—Elortza'k: Ezta txikia, mutil, nire baitan piztu-erazi didazun goganbeaŕa; nire burutapenetan eztitut iñoiz oŕelako asmoak ukan; zuk aipatu dizkidazun oyetan txalotzekoa dan gogo edeŕa dagoela bayeztu beaŕ, baña eztakit ori egingaŕia ote dan, onegia apika, egipenetan egiazkoa izateko. Dana dala, esan didazun guzia, gaurgero, gogoratzeko ta ausnartzeko izango dut, ala beaŕik; ez dizut agintzen alaz ere, oŕengatik nire jokera aldatuko dudanik; baña edonolaz gai guzi oyekiko ta nai-izan dezakezun beste edozeñi buruz ari-izateko, zurekin aŕemanetan jaŕaitzea nai-izango nuke; ezin ene aldetik entzun-goŕ geratzea ta gentzaren alde beti jokatu nai dudalako, bidea aldatu beaŕ bada, lendik artutako ta niregan eŕo sakonak egindako iŕitziak ere uŕatu ta txeetzeko, guzien gañetik gerturik egon nai dut.

—Mikel'ek: Beyondeizula!, xede on oyengatik, eta asmo oyen alde jokatzeko batik bat zureganako aiduru aurkituko nauzu beti. Utziko zaitut orain, ongi baderitzaizu; gure endore jaunari ere nire eskeŕona agertu nai diot eta gero Yokin'engana joango naiz alkaŕekin

bazkaltzeko. Uŕengorarte beraz, eta eskeŕik aunitz entzun nai-izan didazulako ere.

—Elortza'k: Aguŕ Mikel, lasai egon zaitezte Yokin eta biok solasean; ba-dakit langīle burutsu ta puŕukatua dan Yokin ori, guzirako edo, aburukidea duzula; oŕen lana ain egoki ta beaŕa zaidanezkero, nire irizpidekoa euki nai-izango nuke, baña ororen gogoari begirunea izatea dagokio ta oŕenganako ere nirea osorik izango zayo beti.

—Mikel'ek: Aguŕ jauna; ziuŕ egon zaitezke zurekin egindako solasaldi au atsegiña izan zaidala ta ene aldetik pozik beŕituko nukela ere. Ongi bizi ta ondo jaŕai ere.

Atera zan azkenez Mikel kalera ta ola jabea len uste zuen baño entzunberagoa aurkitu zuelako, pozik zijoan kale-zeaŕ, bere oldozpenak usain gozodun lorezko aran batean barna alaitasunezko punpe ta ikotika joango bailiran.

Eta beste kale baten bidean, lengoan zegoen ardantegi baten ondotik igaro ta bereala, asi-ta, ara ikas-laguna izan zitzayon eta aspadidanik ikusi etzuen Ezkuŕa betokeŕarekin ia tupust-egin zuela.

—Mikel'ek: Aguŕ Patxiko, aspaldiko, nola abil?...

Baña aguŕ ori egiteko geldituaŕen, eten-egin zitzayon itza, besteak, puŕustada bat emanda, besterik gabe auŕera jo-egin zuelako. Bere aguŕa lañoki ematean, aŕituta geratu zan gure mutīla bestearengandik artutako erantzun zakaŕaz, baña Patxiko ura txikitatik nolakoa izan zan gogoraturik, arin joan zitzayon mukerkeri aren ziŕara gaiztoa, bere asmo ta gogoetan beŕiro murgildurik; eta bere bideari jaŕaitu zion.

Uztea dagokigu guri Mikel, bere jo-mugaruntz abiaturik, emateko zeuzkan uŕats guziak ongi beteko zituelakoan ziuŕ. Eta obe izango zaigu, ausaz, betokeŕaren atzetik joatea.

Argi ageŕerazi zuen onek, Mikel ikustea gogokoa izan etzitzaiola, ta minbera, sakeŕe ta asaŕekoi izanik, marmarika sartu zan alboan zegoen ardantegian; eta, zuzen-zuzen, bertako txoko batean bildurik zegozen bi lagunengana jo-egin zuen biziki.

Bi ayetatik bat ezaguna dugu, endorearen adiskide miña bezela, Elortza jaunaren lan-tokian, auŕeko udan ikusi genuen irakaslea zan, Diaz jauna. Besteak, adin oneko gizona, gaztea oindiño, aŕaitsua, oso betargia ta gibel-andia zala, bete-betean adierazten zuen; mu-

zintzeko baño, baŕeka ari-izateko beti gertuago. Arakiña zan bizibidez, eta Solozabal zuen abizena.

Eldu beŕiari, ostera, ez aundi ez txiki bai bien arteko zana, bere soñeko pean gorputza argal-argala gordetzen zuela igartzen zitzayon argi. Bere nokuaren itzala arpegi guzian edaturik bailitzan, pipermin-arpegi zakaŕa erakusten zuen; baña naiz berarentzat naiz besteentzat ere txaŕena zana, auxe: itzal ura gogo barneraño eldu zitzayon, an itzalkeri zearo biurturik; eta bere egipenetan, oŕek eraginda edo, okeŕ eta gaiztakerira zegoen beti makurturik.

—Patxiko'k: Egun on! —esan zien gaŕazki beste biai, berengana urbildu ta aulki batean eseritzean—. Ba-nuen uste etoŕi ezin nindekela...

—Diaz'ek: Zer ba?, lan aundia landolan edo?; aŕitzekorik ez, an beti atzak bete lan ari beaŕ baituzute.

Irakasle arek ongi ezagutzen zuen Patxiko'ren izaera, ta, zertarako argi ikusi gabe, gogoak ematen zion betokeŕa bere naimenera irabaztea beaŕa edo zitzayola, ta xede ortaz, al zuenean, poliki koipezten zuen.

—Patxiko'k: Eztago, ez, an lan gutxi, baña batzuetan alpeŕik yardun beaŕ dala gertatzen da, gaur bezela. Ara eldu zaigu kankaīlu bat bere seme jayo beŕiari Ander izena ipiñi nai ziona. Oaŕerazi diogu, izen ori iñoiz erabīli eztala ta, beste tokietan bezela, Andres jartzea egokiena izango litzayokela; ta berak ezetz, Euzkaleŕi'an gagozenezkero, euzkal-izena ere jartzea beaŕa zala gurasoak nai-izan ezkero. Bayetz eta ezetz, an egon gera luzaroan, eta bere naya betetzea zearo ukatu diogunean, alde-egin du, gora jo-egingo duela esaten; eztakit nora, baña asmo ortaz irten da aseŕeturik.

—Solozabal'ek: Gizona, gizona..., nik uste dut gurasoek ba-dutela beren semeai nai duten izena jartzeko eskubidea; ez dut ikusten zergatik ipiñi beaŕ diezuten ortarako eragozpenik. Gogo ta egipen oyetan eztago iñorentzako kalterik.

—Diaz'ek: Bai, bai, ba-dago, zuk ikusten ezpaduzu ere; gizakien izenak berberak izan beaŕ dira lateŕi osorako, osterantzean begiko ta egokiak ez diran bereizkeriak izango lirake, berdin izan beaŕ dugun guzien artean.

—Patxiko'k: Orixe bera esan diot buru gogoŕ ari, baña ori etzuen ontzat artu nai; euzkal-izena ta euzkal-izena jaŕi beaŕ zala... setati oso.

—Solozabal'ek: Baña oŕi etzayo oŕelako gaŕantzi aundia eman beaŕ; ik eta biok euzkal-abizenak euzkerazkoak zitiagu ta nik zekiadanez nun-nai onartzen dituk; zergatik ez izenak ere?

—Diaz'ek: Ai, gibel-aundi ori; argi erakusten duzu Mikel'ek eta bere lagunek aldaŕikatzen dutena edeŕ zaizula, ta, eztakit, eztakit, ..., oyen aldekoya ote zaitugun?, ausaz ...

—Solozabal'ek: Ezta, irakasle jauna, ori izan beaŕ, egia ta zuzentza nun dagozen ikusteko. Batzuetan entzun diet Mikel eta bere gogaide batzuei, ta gure Eŕi'ari buruz egi aundiak botatzen dituztela uste dut; bidezkoa da oŕengatik gure eŕi ta bazteŕetan barna aŕakasta aundia izatea.

—Diaz'ek: Zuk ezetz diñozu, baña oyen jaŕaitzaĺea bezela mintzatuz, orixe zerala erakusten duzu.

—Solozabal'ek: Egia diñotzut, egunen batean itxarturik, Euzkaleŕia, bere buru jabe, azkatasunean aurkituko banu, guztiz pozgaŕia izango litzake niretzat, ortarako eskubide ta beaŕa dituelako. Baña ni enago nekerik artzeko, nik lasaitasunean, bizi nai dut, buruausterik gabe. Beraz, Mikel'en asmoekiko begikotasuna bai, maña besterik ez.

—Patxiko'k: Ni enatorkik batera irekin; niretzat asmo oyek goŕotagaŕiak dituk. Mikel, txikitatik ere, etzaidak izan gogoko, ta gogai oyetan sartu ondoren gutxiago. Ain zuzen onuntz nentorkianean topatu diat kale ertzean; berak aguŕ-egin zidak gogotsu nirekin ari-izateko itxuraz, baña nik etzioat aintzakotzat artu, ta mu batez erantzunik, gelditu gabe, auŕera jo. Niretzat egoeŕitaŕa izatea guztiz oorezko zeukaat, ta oŕela agertu beaŕ diagu euzkaldun guziok beti ta nun-nai.

—Diaz'ek: Ori, ori, mutil!, zu zera gizona; egi mardula bota duzuna, nire aldetik, ikastolan eta eŕitaŕen artean zabaldu nai dudana; baña zaĺa da, benetan, asmo edeŕ ori buru batzuetan sartzea. Zu bezela, Patxiko, azpaŕendaŕ guziak izango balira!...

—Solozabal'ek: Mukerkeriaren eŕia deitzeko egoki. Yainkoa'k nai eztezala oŕelako zoritxaŕa emen iñoiz gertatzea. Ez al da askoz obea oro lagun eta lañotasunean bizi-izatea? Bakoitzarentzat bizia bakaŕa da ta labuŕa; zertarako mingoztu egin beaŕ?, ez ote da miĺa bider obe biziaren gozaldiak gureganatzea? Gauden anai, jaten eta edaten ... eta apikotxoetan yarduten.

—Diaz'ek: Auxe nire auŕean daukadan bikotea, pipeŕa ta eztia; iñolaz ere alkaŕ ezin ditezken gayak. Eta bien artean eroapen aundikoa izan beaŕ dan au; nola ari zaitezkete alkaŕekin?

—Patxiko'k: Eztakit, urdaĺa baño besterik eztan mandotzaŕ au barnetik uŕuñatuta daukat, baña Galaŕeta'koa bada ere, noizpait okela saltzean esku zabala izaten da niretzat, ustekabean edo ...

—Solazabal'ek: Ai, Patxiko, Patxiko; gorputza argala ta gogoa argalagoa aiz i; oŕengatik eiki, tokirik ez oŕ ezer onik kokatzeko; txaŕa bakaŕik, ordea, txarkeria ain me ta zoŕotza dualarik ... Gauzak gogo onez begiratzeko, nor izango baintz, askoz obeto bizi-izango intzake, noski.

—Patxiko'k: Ori niri bakaŕik zegokidak eta obe oŕela uztea. Baña, Diaz jauna, eztut uste oŕelako solasaldietan ari-izateko emen bildu gerala ...

—Diaz'ek: Oŕelaxe da, gizona; zutzaz enaiz ni onen aburukidea, ta ongi dakit egiazko gizona zerala, oñak luŕ gañean tintoturik beti zutik egoteko. Ludi ontan ezer onik egin al-izateko, oŕelaxe izan beaŕ, ez ametsezko irudikerietan ari, oraingoan batzuen batzuei laket zayen bezela.

—Solozabal'ek: Ara Patxiko, etzaik aldezlari txaŕa sortu; beyondeikala!, baña ez entzin geyegi itz gozoak entzutean, izlari edonor izan.

—Patxiko'k: Ba-zekiat, adiskide, entzin ezin ditekeala iñoiz ez iñun, sasiak ere begiak baitzeuzkatek... baña eztiat uste gure irakasle jaunak iñori maŕo-egiteko asmoa dikalarik.

—Diaz'ek: Egia diñozu, Patxiko, zertarako maltzurkerietan ari?; ez al da obe zabal onekoa izan, argi ta garbi mintzatzeko? Oŕela beaŕik ez iñor gain-txuritzea ... Baña goazen gure arloa nolakoa dan ikustera.

—Patxiko'k: Ori, ori, urduri nagokizu zure asmoen beŕia jakiteko.

—Diaz'ek: Ara, nik agirian beŕi izkuturik ipiñi gabe, ongi dakizute gizon gazte batzuk, bazteŕetan asmo bereziak zabaltzeko alegiñetan ari dirala, gure lateŕi ospagaŕiaren aurka gizalagunak jartzeko xedeaz; eta ondo dakigu guziok gure txoko ontan oyen burua norengan dagoen.

—Patxiko'k: Bai jauna, Mikel da oyen buruzagia; uŕutian, lateŕiaren uriburuan ain zuzen, zerbait ikasi duelako edo, anpurustu zaigu oso ta guzion gain jaŕi nai bide du bere burua, guziok men egin

dizayogun; ongi jayoa dago; nire lepotik beñepein eztu oŕek baŕerik egingo.

—Diaz'ek: Batera natoŕ zurekin, adiskidea (—ta Patxiko'ri adiskidea esaten zion guzietan bezela, alako ele-zurizko soñua eman zion itzari—); ortan aŕokeria baño besterik eztago; argi-argi ikusten da ori.

—Solozabal'ek: Gaizki uste duzutelakoan nago; ondo ezgutzen dut Mikel eta oŕengan eztago aŕokeririk; ori eŕiaren maitasunagatik ari da; esaten duen guziak oñaŕi sendoa du, ta orain arteko bere ekipenak ezin obeagorik izan. Gogora dezagun Intusi sutan egon zan gau artan zer egin eta zer jasan zuen ...

—Patxiko'k: Ba, ba!, bidezkoa zan orduan egin zuena, ikastuna izanik; eta nire ustez geyegi mintzatu da arezaz bai ta azkenean jazo zitzayonaz ...

—Diaz'ek: Nik eztiot iñori kalterik opa, baña eŕiaren geroko gentzarako, obe aizkora arek bere lana obeto bete balu ...

—Solozabal'ek: Zer esan nai duzu, gizona?, obe izango zitzakeala Mikel orduan iltzea? Bai gogo txaŕa zurea ...

—Diaz'ek: Aizu, aizu!, nik eztiot opa Mikel'i eriotza, gero! Baña eŕiaren ona begiratzen bakaŕik esan dut ori; —eta oaŕez ala oarkabez, Kaifas'en itzak beŕizten, onela jaŕaitu zuen— batzuetan obe izaten da gizon bat bakaŕik iltzea, eŕi guzia ondatzea baño, ta ... gizon oŕen jokera eŕiarentzat ain kaltegaŕia ikusten dudalarik ...

—Patxiko'k: Izpidean zagoz jauna, etzaigu aizu iñori eriotza opatzea; ori gauza bat da, baña bestea, zuk esan duzunean egiz eta zuzen zer dagoen ikustea, ta eztira gauzak nastu beaŕ.

—Solozabal'ek: Bide txaŕa da oŕela ustea; gizonaren bizia guztiz itzalgaŕia da, gizona edonor izan, eta eztago ziorik Ludi ontan iñork, agintari aundienak ere, bizi ori erailtzeko, gizon bat gaizkile aundiena bada ere. Biziaren jabea Yainkoa da bakaŕik, eztago besterik.

—Diaz'ek: Nik uste dut ongi ulertu ez didazula; ongi baño obeto dakit gizonaren biziari euki beaŕ zayon begirunea; baña irudiz ere mintza diteke ta ori da nik egin dudan bakaŕa.

—Solozabal'ek: Ala obe, baña ... eztakit, eztakit ... Mikel'en aurka oso nabari ageri zerate biok, eta ori etzait gogoko.

—Diaz'ek: Bearbada, zuk ere ontzat artzen dituzu oŕen asmoak ...

—Patxiko'k: Bere jaŕaitzalea edo ezpaaiz ...

—Solozabal'ek: Mikel'ek zabaldu dituen asmoak zuzen eta egokiak dirala uste dut, baña enaiz bere jaŕaitzalea. Beŕiz diñotzuet: Nik eztut niretzat buruausterik nai; gauetik goizerakoan gure Euzkaleŕia bere esku bizi-izateko gertapena elduko balitz, nik pozez beterik onartuko nuke ori; baña ori lortzeko lanetan enaiz ni sartuko; nik lasai bizi-izatea nai dut buruko miñik gabe, ongi jateko ta bizia gozatzeko lanegiten; gero, zartzaroan Galaŕeta'ko gurasoen etxean kokatu eztiki, eriotz-orduaren zai ...

—Diaz'ek: Atse-galea zerala argi erakusten duzu; lana zure egokitasunerako bakaŕik eta beste guziari gibel-egin; zure laguntzaz ezta gizadia ezer auŕeratuko; zerekoya zera, ziñez ... utikan ...!

—Solozabal'ek: Nor ez da berekoya bizi ontan? Guziok, baña iñork aitortu nai ez. Nik bai, ordea, ta bost ajola besteen ustea.

—Diaz'ek: Patxiko, onekin eztugu egitekorik ezer; baña guk ba-dugu biotza, gogo-buŕukan, beaŕa bada, sartzeko, ezta?

—Patxiko'k: Ongi diñozu, oŕela ari-izango gera, geron burua ukatu beaŕ badugu ere. Zure asmoetarako gerturik aurkituko nauzu beti.

—Diaz'ek: Eskaŕik asko, Patxiko, nire erara etortzeagatik; ziuŕ nengoen alkaŕ ulertuko genuela, baña poza ematen didazu, zure aldetik oŕela dala adieraztean.

—Patxiko'k: Nire uste osoa zugan datza, ta gure artean iñoiz izan eztiran asmo beŕi oyekiko aurka yarduteko ikusten zaitudalarik, oŕa nire entzinbide guzia. Beraz, ekiteko gerturik nauzu ta nola ekin zuk esan beaŕ, gauzak ongi zuzentzeko nor zeralako. Eŕan bada!

—Diaz'ek: Eztugu iraduz ibiĭi beaŕ; oraindik Mikel eta bere adiskideen asmoak eztira geyegi zabaldu, nolabaiteko aŕakasta lortu dutela bayeztu beaŕ badugu ere.

—Patxiko'k: Baña ain zuzen zabal eztitezela da utzi beaŕ eztuguna, ta ortarako, egiteko egokia zer izan diteken begiratzekoa da.

—Diaz'ek: Ona da, Patxiko, ekiteko biotz sutsua eukitzea, baña askoz obea, buru otza baten jabe izatea. Auŕean daukagun auzia goguŕ eta gaŕantzi aundikoa da; oŕengatik, eta arazo guzietan bezela ala geyago ausaz, burua da lenengoz lanegin beaŕ duena, ta atzetik etoŕiko da biotza buruaren erabakiak betetzeko.

—Patxiko'k: Ongi dago; izan zaitez, beraz, burua; nik biotza izatea nayago dut; ene aoan eztago biĭorik buru argirik eztaukadala esateko; baña biotza ... gogoŕa dudala ... ortan enurarik ez.

—Diaz'ek: Gizon leyala zera Patxiko ta zintzozuŕian ari zera bete-betean; oŕelako gizonak dira Eŕi bat auŕera eramateko beaŕenak. Beyondeizula!

—Solozabal'ek: Ortxe duk koipez paŕastan, mutil! Ongi gantzutua duk ire gurdia edozein zama nora-nai eramateko. Baña abil begiak idekita, bearbada itaulariak uŕutiegira joan-eraziko au-ta. Eŕuki aut oŕen itxu yarduteko gerturik ikustean.

—Patxiko'k: Bost ajola niri ire uŕikalpenaz; ba-zekiat nik nola jokatu.

—Diaz'ek: Ongi diñozu ta aŕetaz ibiīi beaŕ dugu beti onelako atse-galè txaldanen iritzi ta aolkuak aintzakotzat ez artzeko. Ta gerok erabaki beaŕ ditugu eginkizunak.

—Patxiko'k: Noski baño noskiago; ekin dezagun gure kabuz; ia zure asmoak zeintzuk diran.

—Diaz'ek: Ene ustez, asteko, bi egipen auek ditugu betetzeko: lenengoa, buru-antze aundiaz, gure asmoetarako jaŕaitzaīeak euzkaldunen artean batez ere irabaztea; ori bat-banaka egiteko lana dugu, ta zuk nik baño obeto burutuko duzu, zu ere euzkalduna zerala-ta. Bigaŕena, Mikel eta bere lagunen uŕatsak, Martin-bixi'renak batik bat, jaŕaitu ta baŕandatzea; ortarako Amamio'ko bat edo bat izango bagenu obe; zu ere angoa zerala uste dut, eta lan ori egiteko eŕitaŕ bat aurkitzea etzaizu zaīa izango.

—Patxiko'k: Neu neuretara ortarako; baña zure aldetik ere orixe bera egin dezakezu emen bizi diran erdeldunen artean.

—Diaz'ek: Ori ez da zaīa izango, erdeldun guzi oyek nirekin izango dira beti, emen darabilzkigun xedeetarako bederen.

—Solozabal'ek: Gora zuek! A nolako sabel-zuriak biok! Baña eztut uste Mikel'en asmoen aurka ezertxo ere egin al-izango duzutenik; geldo ta gauzeza zerate zuek aren aldean.

—Diaz'ek: Ikusiko dugu ori, ta, beaŕ-izan ezkero, oŕen ibiīerak nun salatu ere jakingo dugu beti.

—Solozabal'ek: Maltzuŕok! Puf...!, nazkagaŕi zatzaizkit; salatzearen bidea ez da iñoiz gizonarena.

—Diaz'ek: Elburua da begiratzeko, adiskidea, bidea edozein izan, eta naiz lokatzetan sartu beaŕ-izan, auŕera ekitea dagokigu jo-mugaraño eltzeko.

—Patxiko'k: Tira, len esan dugunez, bost ajola onen iritziari

buruz; ene ustez, gaurgero noizpeinka elkartzea egokia izango zaigu arazoari ongi jaŕaitzeko.

—Diaz'ek: Bai, izpidean zagoz; nai baduzu ementxe bertan, txoko edeŕa dugu au, iñori aŕituko ezpaitzayo gu emen ikustea; ta nire ustez astero etoŕ gaitezke ona larunbat aŕatsaldean. Zer deritzazu?

—Patxiko'k: Oso ondo, ta emen izango nauzu larunbatero.

—Diaz'ek: Ortan geratzen gera, beraz, eta orain aguŕ!, joan beaŕa dut-eta.

Irurak jeiki ziran eta bakoitza bere bidetik joateko, alkaŕengandik aldendu gero.

Bakaŕik zijoanean, arakiñaren buruan kexutasunezko oldozpenak mamitzen asi ziran; baña bere sorayotasunak aurki gañeratu zituen, eta bere burua zuritzeko ala Mikel'en gizontasunaz eta bere asmoen bikaintasunaz gogoraturik, oyek menperatzekorik etzegoela ... bere buruari esan eta esaten zion ... zabartasuna estaltzeko eiki.

Euzkaldun jatoŕ aren baitan beŕizten ote zan, mendez-mende Euzkaleŕi'ari ainbeste kalte ekaŕi dion endaren akats aundia? ... zabartasuna ain zuzen ..., ala zabarkeria? ...

Barandan eta zelatan

Lotazilean sarturik zegozen azparendarak, asieran eta aureko iletik ere, negulena eldu zitzayela oartu bear-izan zuten. Ipar gorria asi-ta, goiztirian eta arastirian batez ere, ozmiña gizaki ta beste bizidunengan barneraño sartzen zan, eta zentzun gabeko izadian ere alako zimurdura nabari agertzen, eguraldi onak guziai eman zien lirainta-suna galduta.

Edura be, Elgea, Aratz, Umandi, Apota-aitza ta Burunda'runtzko arana bi aldeetatik medartzen zuten mendi-besangaetan, ezari ta gogortu zan, tontor guziak zuriztaturik; eta zuritasun ura begientzat eder eta ikusgaria bazan, beste soñatal guzientzat otzaren zantzua baño besterik ez.

Erekan bera txiristaka jeisten zan ura ere, otzik eltzen zitzayolarik, ba-zirudien, jauztean, bere olde zoli ta alaya galtzen zijoala, izotz eta karankan gogorturik geldi ta geratzeko etsita edo; ezin-bestean noski, ta izadiaren legeari men egiten.

Negutea igaro bear eta oro esangin. Abeltxeak, lare utzita, saletxe ta beko sarobeetan aterpe beroa izateko eramanak ziran; orobat abere-mute, zamari, abelgori ta zurdabereak, berentzako korta ta tegietan; basabere ta piztiak beren etzangoetan bazterturik, goseak eraginda ezpaziran, bertan otzikaraz kokatzeko; naraztiak eta mamutzak, beren zuloetan kuzkurturik, ilak izango bailiran; eta mitxaroak beren urteroko lo-zoroan sorgorturik oso. Biziaren galtzea bezela nun-nai, edozeingan, edozertan; eta orela, negua eriotzaren zantzu ta iragarpena.

Izakien artean gizona agertzen da bakara, negu-miñari, erstura, kinka ta larialdi guziai buru-eman eta buru-egiteko ere gerturik; eta bere almena ba-da zerbait bere buruarentzat babespen egokia aurkitzeko. Ortan ere argi erakusten du adimenduna dala, izadi guziaren izaki galenduena izateko. Ez ote da ortxe ba, Yainko'tasunaren distira antzeko bat ikusi bear?

Dana dala, baseritarak, nekazariak, ongi dakizki neguak ekariko dizkion bearak, eta oyei buru-egiteko, garaiz dagizki bere gertubideak, esakun zarak diñoena jo-mugatzat arturik:

«Elur-melur, enauk ez ire belbur,
ba-zeuzkaat etxean irin eta egur».

Baña bere gertubide bearena, nagusiena, ereintzea du beti nekazariak, aureko ilean, azilan, egiteko alegindurik. Ain zuzen bear ortatik edo datorkio izena il ori, azia lurean jartzeko aro berezia orduantxe dalako. Izen egokia, beraz, euzkaldunek emandako ori beste il guziena bezela; oartzekoa baita, ilen izenak oro izadiaren agerkariak adierazten dituztela, ta geyen-geyenak, bereziki, nekazaritzari buruz jarita dagozela.

Mikel'ek nabariturik, uste au onartzeko edo: Euzkaldunak, ilei izenak jari zizkietenean, nekazaritzaren edesti-aroan bete-betean sarturik zegozela ustekoa da. Ta Xabier'ek, bere adiskide napartarak, edestiaren bere betebearetarako, egokitzat artu zion asmo ori aurki.

Azila, beraz, ereintzeko ila; orduantxe egiten zan batik bat gari-ereintza. Ta amaitu ondoren, onela abesten zuten Azparena'ko lugiñek.

Luraren amatasun,
Ernarazteko duzun
indarena;
Zugan dago bederen,
Osorik lugiñaren
usteena.
Aziak erne-ala,
Ernemiñez ba-duala
entzipena;
Nekazariak, ira,
Azi ta bii pirpira,
siñismena.
Uztaren jasotzeaz,
Amets dagi aziaz,
onezkoena;
Ereilеak mukuru,
Ziñez, au ereintzen du:
itxaropena!

Otz aundien artean be, alegia, gizonak biziari daŕaio, olan ezpada alan; eta oŕela ikusten zan, ongi, Azpaŕena'ko eŕietan barna. Aroari zegokionez, mutil gazteak, aspaldiko oitura zanez, Nikola Deun'aren jaya ospatzeko, auŕeko egunetik taldeka joaten asi oi ziran kalez-kale ta basetxetik basetxera, beren arteko bat gotzaiz jantzita, abesten eta esku-ikusiak jasotzeko xedeaz.

Etxe askotan, basetxeetan batez ere, aro artan urteko txaŕia, lendik ozale egokiaz azkai gerturik, ilerazten zuten, eta ortarako autatzen zan eguna etxearen jaya bezela onartzekoa zan. Beti gorde beaŕ zan ekanduaz egiteko guzia: aberea erail, zati egin, odola aŕetaz bildu odolozteak egiteko ta zeŕiki guziak egokiro banandu, geyenak etxerako baña batzuen batzuk adiskideen etxeetara eskeingayez eramateko ere; ta ikustekoa zan, lan ori burutzeko, etxekandereak izaten zuten ardura, ta eraman beaŕ zituzten auŕai egiten zizkieten gomendioak, adiskide guzienganako zeuzkaten bearkunak, bat ere ez aiztutzeko. Nabaritzeko be, banaketa egiten zijoazen, auŕ koskoŕak, amak esandako guzia betetzeko, alegin aundienak nola zegizkiten arduratsu.

Etxe guzietan, beraz, egun ayetan, zeŕiki ta beste emariak alkaŕi eskeintzen eta onartzen ziran, era berean beti. Emaīe zijoazen auŕak onela: —Amak eman dit au zuretzako, ta gutxiagatik barkatzeko—. Eta etxekandere guziek: —Ez diat, ez, ume, au gutxitzat artuko, ta amari esan niketz eskaŕik asko—. Bide batez beti zegozen auŕentzako, sagaŕak, intxauŕ edo gozoki batzuk, gogoz eta pozik zegiten mezurako, sari egokiaz eta lei aundienaz jasotzen zituztenak.

Etziran mezulari ayek, egun ayetan, adigurien bila gale zebiltzaten soilak. Lentxoago esan danez, Nikola Deun'aren eguna zala kari, mendian eta kalean, etxez-etxe, abeslari taldeak, beren buruan, deunaren antzo ta bera gogoratzeko, gotzai bezela jantzita mutil bat zeramatelarik, eta gero alkaŕekin ongi azkaltzeko noski, zeŕiki beŕien bila zijoazen bereziki; eskea urguritasunez eta oitura zanez, onela abestuten:

1. Nikola txit Deuna
Buruan burestuna,
Asia txikian
Asitako bizian.
Eldu zana Bari'n
Guzientzako Gotzain,
Eskeintzeko auŕai
Esku-ikusiak nun-nai.

2. Eŕege bezela
Burestuna kapela,
Ez agintzarena
Bai, ordez, maitalena.
Beraren semeak
Auŕ eta ume onak,
Guzientzat ba-du
Bezuza, edergalu.

3. Gaur eŕi ontara
eldu da mara-mara,
Senide onen bila
Mutil naiz neskatila.
Ba-du esku-ikusi
Banatzeko ugari,
Nork jasoko luke
Otoitxo baten truke?

4. Etxeko andere
Biotz ona zu ere,
Gagozen arteko
Bi soilik abesteko.
Zure belaŕia
Ukan ongi idekia,
Abeslari ona
Ointxe duzu mugona.

5. Andere on edeŕ
Biotz aundi ageŕ,
Aŕautz eta ziztoŕ
Eskeintzeko emankoŕ.
Nikola Deun'aren
Eskeŕ onak jasoten,
Etxekoen maitez
Beterik izan zaitez.

6. Etxagun yaukala
Zure biotz zabala,
Izan bedi ituŕi
Emateko ez uŕi.
Abestuko dugu
Zuretzako aiduru,
Erakus adeya
Gogo aundi ta leya.

7. Jaun aundi burutsu
Osasunezko indartsu,
Txingoŕ urdazpiko
Daukazuz emariko.
Deun'aren oorezko
Zutzat eskeŕ-onezko,
Emen zuri topa
Onartu gure opa.

8. Eŕiko endore
Ukan ezazu oore,
Ideki nai ala
Zure esku zabala.
Abestia zaŕa
Berpizteko su-gaŕa,
Entzun gogo onez
Bai ta oso biotzez.

9. Agintza onena
Zure eskuetan dena,
Guretzako bedi
Ororen gain itzaŕi.
Deuna ospatzeko
Sabela betetzeko,
Emanen duzuna
Zuretzako zoruna.

10. Elizako apaiz
Emen gaituzu garaiz,
Uŕikalmentsua
Onbera, ospetsua.
Bai omen zerala
Entzuteko dezala,
Gogoak gerturik
Abesti edeŕenik.

11. Yainko izenean
Eta maitasunean,
Ukartxoa otoi
Eskatzen dizugunoi.
Gure Deun aundiak
Mukurka doayak,
Emango dizkizu
Izan arte okitsu.

12. Abes daigun orok
Auŕak eta gazteok,
Nikola Deun'ari
Eta bere aintzari.
Eskuak beterik
Bezuzaz dauzkalarik,
Auŕai ekartzeko
Ura biotz oneko.

13. Eskeŕ onekoak
Izan gaitezen auŕak,
Maitatzeko Deuna
Gure zaletasuna.
Lagunak abestu
Goretsi ta ospatu,
Euzkaldun bezela
Deuna dugun Nikola.

Amamio eŕiaren be aldean zegozen bi basetxeen artean bidea zegoen egiña ta, ain zuzen, batetik bestera zijoan abeslari-talde batek, bide erdian goruntz zijoan gizon begi makuŕ bateaz topo egin zuen, eta bidea estu xamaŕa zalarik, mutiłak, nai ezik, esia bezela gertatu zitzaizkion bidekariari. Au iraduz edo zijoalako ala berez sakeŕe zalako, auŕean aurkitu zuen mutil-espil ura sumingaŕia izan zitzayon eta deadarka ta mokorki alde-eragin zien esku-zartaka.

Auŕak aŕi ta zur geratu ziran lenengoz, jokabide łatz eta itxusiaren auŕean, baña berak asko zirala ta aurka atera zitzayen gizon argal ura bakaŕik zegoela ikusirik, lagun-taldean egoteak ematen duen indaŕaz, aurki osteratu ziran, eta gizonari auŕe-egiñik, berak ere gogoŕ asi ziran ao batez gaŕaxika ta txistuka; ayetako batek, gizona betokeŕa zala oarturik, 'betokeŕa landeŕa!' suduŕera ekin zion, eta eupada ura besteai laket zitzayelarik, guziak asi zitzaizkion 'betokeŕa landeŕa!'ka kementsuki. Orduan gizonak, auŕ ayen aurka ekiterik eziña zala ikusita, su-ta-gaŕ zerizkiolarik, auŕera jo zuen eŕiruntz, eta mutikoak, ura uŕundu arte, beren deadaŕakaz jaŕaitu ondoren, alboko basetxera joan ziran abestera.

Eŕaz igaŕi diteke, betokeŕ ura, arestian emen sortu zaigun Patxiko zala. Aspaldidanik zegoen bere eŕira joan gabe, ortarako gogo aundirik etzuelako, baña ardantegian irakaslearen eragikuna onartu zuenetik, zelatan asteko apeta bizia mamitu zitzayon barnean, eta kari ortaz Amamio'runtz abiaturik aurkitu dugu.

Sutan jaŕi zan mutiłekin topoz-topo egin eta ayen araoak jasan bearturik, eta zearo suminduta, itsuturik, iñor eta ezer ikusi eziñean, eŕian sartu ta ker-ker bere osabaren etxera joan zan.

Bere gurasoak aspaldin iłak zituen eta, auŕiderik gabe, osaba ura zan geratu zitzayon aide urko bakaŕa, bere amaren neba zalarik. Eta onen ayuŕia iłobari buruz bestaldekoa zala-ta, alkaŕenganako berorik ez, eta alkaŕ ikusi gabe oso aspaldidanik zegozen.

Soŕ eta loŕ geratu ziran, oŕengatik, osaba ta bere etxekoak Patxiko ayenganaño eldu zanean, eta iłoba asaŕe-itxura artaz zetoŕela ikustean, osaba batez ere ari buruz asaldaturik:

—Osaba'k: Ene!, i emen Patxiko?, bizi al aiz mutil? Baña zer duk?, zer jazo zaik?, nola atoŕ oŕen artega?, ez al abil ongi osasunez? Zer ote ...?; mintza mutil, mintza adi!

—Patxiko'k: Oŕ bidean eske zijoan mutil-talde batekin tupust egin dut, eta bidea itxiten zutelarik, zaplastadakaz ibiłi beaŕ-izan dut igaro al-izateko; zantzałak aupadaka asi zaizkit batera ta, azkenez, ayekin astia alpeŕik ez galtzeko, an utzi ditut beren Nikola Deun' arekin abes dezaten; eztakit noiz amaitu beaŕ diran oitura zaŕ eta zozo oyetaz.

—Osaba'k: Baña gizona, ori baño besterik ez al duk? Ori eztuk, mutil, oŕenbeste asaŕetzeko ziorik. Tira, tira, utzi mutiko oyek oitura on eta begiko oŕi jaŕaitzen; zergatik utzi beaŕ zitiagu edeŕak ditukan oitura zaŕak?

—Patxiko'k: Gizadi beŕia eratzen ari da ta guztiz beaŕa zaigu zaŕa dan guzia uztea; auŕerapenak ...

—Osaba'k: Auŕerapen eta mauŕerapen, zer?; oyek eztituk itzak baño. Utz ezak ori ta esan zertara etoŕi aizen.

—Patxiko'k: Ba ..., aspaldidanik enekien ezer zuengandik eta ikustera natorkizue.

—Osaba'k: Eskaŕik asko, mutil!, eztuk ori gutxi iretzat; baña, egitan, ez ote duk beste jo-mugaren bat ona etortzeko? Egia badiñok, obe; baña ondo ezagutzen aut eta, barkatu, ezin siñistu gu ikusteagatik bakaŕik etoŕi aizela.

—Patxiko'k: Zertarako etoŕ nindeke, bada?, zuek izanezik eztut

ezer eŕi ontan, ez adiskiderik eta ia ez eta ezagunik ere. Ontzat artzen ezpadidazute nire ikustaldi au, atzera itzuliko naiz bereala.

—Osaba'k: Ez gizona, etoŕ eta egon adi emen lasai nai bezin luze; baña gogoratzen al aiz ona azaldu gabe noizdanik agoela?; urteak dituk gero; ta orain, bat-batean emen agertu ...; ziuŕ nagokik beste xederen bat ba-dukala.

—Patxiko'k: Ezetz, osaba ..., baña siñisten ezpadidazu eztakit zer egin.

—Osaba'k: Tira, siñistu nai dikiat; baña eŕan, nola bizi aiz Araya'n?, lanean pozik?, ongi irabazten?; ez al duk ezkontzeko gogorik?, adiñean sartzen ari aiz gero ...

—Patxiko'k: Nik eztut ezkontzeko asmorik; gaŕantzi aundiagoko beste asmoak dabilzkit buruan.

—Osaba'k: A ... a! Ta jakin al ditezkek asmo oyek zeintzuk ditukan?

—Patxiko'k: Bai, zergatik ez?; gañera zuei ta guziei ere dagozkizue jakitea, gure Eŕi'aren bizia jokuan dagoelako ta bizi oŕi eusteko guzien laguntza beaŕa izango dalako.

—Osaba'k: Eztuk ori, ez, asmo makala; baña gure lanetik at eztiat ikusten geron aldetik zer egin dezakeagun, ez eroŕek ez eta geuk ere; ez ote duk ortaz ari-izatea geyegi edo iretzat?

—Patxiko'k: Geyegi ala gitxiegi, beaŕa zaigu alegiñetan sartzea.

—Osaba'k: Oso leyatsu ikusten aut oŕekiko; ta zein ote duk ire asmoa ekiteko?, bakaŕik eta ire babuz ari, ala beste batzuekin batera?

—Patxiko'k: Bietara, noski; norberak beregandik egin beaŕ alegiñak, baña gogaideekin ere obeki yarduteko.

—Osaba'k: Eta zeazki, nola jokatu nai duk?

—Patxiko'k: Oraingoz, arestian gure artean sortu dan galbidezko jokera alik eta urbiletik ikustatu ta oŕen jaŕaileen uŕatsak zaindu. Ortarako ere etoŕi naiz gaur ona, emen baitago asmo beŕi oyen sortarazle ta buru dana.

—Osaba'k: Ondo zekuskiat ire xedea. Mikel'i buruz ari aiz i.

—Patxiko'k: Beingoan igaŕi didazu; oŕetxengan dugu peko aundiena.

—Osaba'k: 'Dugu' diñok; nortzuk zerate, bada, pekodun?

—Patxiko'k: Ez gera gutxi, ta ba-dugu onulari ona egin beaŕ danerako, Diaz jaunagan.

—Osaba'k: Etzaidak begiko gizon ori; egoeŕitaŕa duk oso, ta

gure Eŕi'arekiko etsai; erne ibili adi, Patxiko, eztuk ori lagun ona.

—Patxiko'k: Ezetz? Ongi ezagutzen dut eta gogaide natzayo oso.

—Osaba'k: Entzun ezaidak, Patxiko: Mikel etxekoa diagu, gure izkuntza ta ekanduai atsikita zegokana. Beste ori, aitzitik, erdaltzale, gure euzkera ta gure Eŕi'aren arerio. Ez aiztu ori.

—Patxiko'k: Dirudienez, Mikel'en asmoak zuk ere ontzat artzen dituzu, ta oŕen alderdikidea zera, ausaz.

—Osaba'k: Ni enauk iñoren alderdikide; baña Mikel'ek asmo on eta egokiak zitik. Ara: Bere ikasketak ain ondo amaitu ondoren, etxean geratu duk aitaren nekazaritza jaŕaitzeko, ta ikasi dikan giñoan guzia obetzeko asmoz. Oŕela, oso korta beŕi edeŕa jaŕi dik, eta bazteŕetatik zetozkiok nekazariak ikusteko; entzun diadanez, baseŕi batean edo bitan asi omen dituk oŕen ereduz beste ainbeste egiten. Gaur bertan bospasei ikusi zitiat Mikel'engana zetozkioala. Ta ba omen dik lugiñen artean guzientzako alkartasun bat eratzean, etekiñak geyago ustiatu ta beste obeak edo ateratzeko asmoa.

—Patxiko'k: Beraz ... bospasei gaur bertan Mikel'ekin bilduta ...; korta ikusteko ala beste asmoekiko elduta?; nortzuk diran jakin nai-izango nuke.

—Osaba'k: Nik bederen ez dikiat esango, ez ta jakingo banik ere. Ire osaba nauk eta ire bizirako beaŕa baduk emen nagokik ene laguntza emateko; baña besterik ez, e!, Patxiko.

—Patxiko'k: Eskaŕik asko, osaba; eztut oraingoz biziarekiko beaŕik. Ba-noa orain, noraezekoa zait-eta. Aguŕ osaba, jaŕai ongi.

Kexutasunez geratu zan Patxiko'ren osaba, ta bereala damutu zuen bere ilobari esan ziona; nork jakin doakabe arek zer egin nai ote zuen!

Iloba arin atera zan kalera, ta Mikel'en korta zegoen aldera jo zuelarik, ain zuzen, ara urbildurik, Martin-bizi ikusi zuen Mikel'en etxean sartzen zala; baña bera ere besteak oartuta izan zan ozta-ozta sartzerakoan.

Martin, etxeko jabeak agurtu ondoren, bere adiskidearen gelara sartu zan zuzen, Mikel'en amak an batzuk ere bere zai zegozela esanda.

—Martin'ek: Aŕatsalde on!, adiskideak, barkatu, otoi, berandutxo nabilelako, baña ezin lenago etoŕi.

—Mikel'ek: Ba-nengokian aŕituta, egitan, ire agertu ezaz; lanaren bat utzi eziña, noski?

—Martin'ek: Bai, oŕela izan duk; iraduz ibīli beaŕ eta urduri ona etortzeko.

—Mikel'ek: Tira, noiz-nai gerta ditekek ori, lan zegianari beñepein. I etoŕi arte eztiat guzioi esateko diadanaz asi nai, gauza berbera bi aldiz ez esateko. Goazen orain gure arlora.

—Ongi dakizutenez, Iruña'n egon naiz, bertan egiteko zegozen bīlerara deituta. Lenengoaz, udakoaz, emen egin genuela ondo gogoratzen duzutela uste dut, eta oraingo au udazkenari dagokiona izan da.

—Beŕeunen bat lagun bildu gera; Bilbao'tik ezta Sabin bakaŕik erdu ta berarekin beŕogei bat adiskide joan dira; orobat Donosti'tik, Eneko laguntzen; Gasteiz'etik ere amaŕen bat. Gero, napartaŕak; noski, oyek geyenak izan dira ta ongi zeukaten guzia antolatua, areto aundi batean gerturik. A!, ta Laburdi aldetik ere adiskide beŕi bat azaldu da, gure asmoak ontzat artu dituena ta gurekin ari-izateko gertuta dagoena. Garzabal'daŕ Gexan du izena.

—Xabier'ek zuzendu du bīlera guzia ta euzkal-eskubideari buruz txosten edeŕa irakuŕi zuen. Gure xedeen artean ori baita berak berarentzat artutakoa; ta, esan zigunez, Iruña'n dagozen agiri-pīloetan idazki-altxoŕ oso aundia ikusi ta aztertu diteke euzkal-eskubidea ongienik ikasi ta ezagutzeko, batez ere Napaŕoa'ri dagokionez. Dei bat egin zigun kartsuki: gure asmoak onartu ditugunen artean, bakoitzak al-izango duen tokian, beste agiri-pīloak aztertzeko, bazteŕetako idazki-tokietan gorderik dagozenak begiratzean, batez ere eŕietako elizetan.

—Bide batez —jaŕaitu zuen Mikel'ek— eskubidearekin batera edestia ere onuratsuki ikas diteke, askotan eskubidearen azpegi bat edo beste, edestian barna jazotako egipenetatik sortuta diralako. Oŕela, guzien artean, gure edesti guzia ta gure eskubide berezia osoki ta garbi bildu liteke, ororen ezagupenerako, ta gure Eŕi'aren geroko bizirako, oñaŕi sendo ta egokiak eukitzeko; bizi ori, alegia, benetako euzkal-gunaz betetzeko xedeaz.

—Gero, Sabin'ek bere lanen beŕia eman zigun. Uste duenez datoŕen udabeŕirako, euzkal-astekari bat atera al-izango du. «Eŕi-Deya» jaŕi nai dio izena, ta oŕezaz gure iritzia eskatu zigun; noski, ongi iruditu zitzaigun guzioi ta oŕela aterako da. Gure asmoen zabaltzea gero ta aundiagoa dala ikustean, aren ustez astekari ori bizi al-izateko

laguntza naikoa aurki diteke, ta bein atera ta jaŕaitu ezkero, eskuarte ona izango da asmoak gero ta geyago zabaldu al-izateko.

—Eneko'k ere, bere aldetik, euzkal-elizti bat gertu nai duela esan zuen, eta ba-du lan ortarako adiskide batzuen laguntza eskeiñita. Gero iztegi bat ere egin nai-izango luke.

—Azkenez, nik ere itzegin nuen, ain zuzen emen egin nai dugun lugiñen alkartzearen asmoa azaltzeko, ta esan nuena egokia iruditu zitzayelako, gero batzuk nigana etoŕi ziran, auŕerantzean nirekin aŕemanetan ari-izateko, ayentzat ere luŕaren lana alik eta egokienik antolatzea guztiz beaŕa deritzayelako.

—Beraz, Iruña'ko batzaŕa oso ona izan dala esan dezakegu ta an egon geranok txit pozik geratu gera. Laburdi'tik erdu zana ere, aŕituta geratu zan, gure erakundea oŕen sakon eta edaturik zegoela uste etzuelako; ta bere aldetik ere guzien xedeetarako lanegingo duela agindu zuen.

—Orain, guri dagokigu emen jaŕaitzea, ta ondo baderitzaizue ...

Eten zitzayon itza Mikel'i aoan, kaletik eldu zitzayen aŕabotsaz. Zer ote zan ura? Beren baitarik guziak jeiki ziran eta leyora jo ere ura zer zan jakin nayean.

Ikustekoa ikusi zuten, baña etzuten bereala ulertu ura zer zan, eta gutxiago zergatik. Mutil koskoŕ batzuk taŕapatan zebilzten, auŕera ta atzera, norbaiten aurka deadarka: Betokeŕa, landeŕa!, Patxiko betokeŕa, landeŕa!; bai ta: «Aida goŕi, aida zuri!, zelatariari atera egiozue begi!».

Ozta-ozta ikusi ta entzun zuten ura; mutīlak etxe-ertz batetik igarotzean ostendu ziran, eta beren gaŕaxiak moteldu ere uŕutiratzean.

Etzan izan susmo ona Martin'i barnean sortu zitzayona, Patxiko izena entzun zuenean eta etxera sartzerakoan betokeŕa aldamenean zebīlela tupust-tapan ikusi zuela gogoraturik.

—Martin'ek: Barka ezaidazute, iskanbil ortan zer izan ote dan jakin beaŕ dut, kezkagaŕi zait-eta.

Mutīlen atzetik joan zan Martin usu, ta laisteŕ beren artean zegoen ayei galdezka.

Nikola Deun'aren jaya zala kari, abesten eta eske-biltzean zebilztela, bidean Patxiko'rekin zer jazo zitzayen esan zioten mutīlek, eta gero, basetxez-basetxe ibīli ondoren, eŕira itzuli ziranean, beŕiz ere, betokeŕarekin itsumustu egin zutela.

—Etxez-etxe zerbaiten biīa zebiīela zirudien —gañeratu zuten—; Mikel'en kortako leyoetatik baŕura begiratzen ikusi dugu bai ta etxe batzuen inguruka ere; ta begitan artuta geneukalako, aupadaka asi gatzaizkio beŕiro. Azkenez alde-egin beaŕ-izan du, len bidean bezela.

Mutiīengandik jasotakoaz oldozkoŕ itzuli zan Martin bere adiskideengana ta gertatu zana jakin-erazi zien, onela jaŕaitzeko:

—Martin'ek: Zertarako etoŕi da ona Patxiko ori? Oŕa ene buruari bereala galdetu diodana. Aspaldidanik baitago Araya'n bizi-izaten, emen iñoiz agertu gabe. Len, ona eldu naizenean, sartu baño lentxoago, neronek ikusi dut aldamenean zebiīela. Aŕituta geratu naiz lipaŕ batean, baña aiztu ere bereala. Orain, ostera, mutil oyek esandakoaz artegarazita geratu naiz: Zertarako eldu zaigu ona Patxiko ori?

—Mikel'ek: Eztut uste oŕezaz buruauste aundirik ukan beaŕ dugula. Nik ere, iīebete luze dala, Araya'n auŕez-auŕe aurkitu nuela gogoratzen dut, eta txikitan, eskolan, adiskide izan giñala oroiturik, aguŕ-egin nion eta berarekin itz motz batzuk mintzatzeko asmoz geldítu nai-izan nuen; baña berak, arbuyoz, ortzen artean zerbait marmar-egin eta auŕera jo zuen arin. Umezarodanik beti izan da Patxiko bakana, ta dirudienez lengo zurazko ezpala dugu gaur ere; baña ori berari dagokio, guri ajolik ez.

Orduan, Aŕiola'ko Elizegi'taŕ Imanol'ek, ain zuzen Intusi'n aizkora apurtu zitzayon gazteak eta egun artatik Mikel'en aldez gogotik zegoenak, onela itzegin zuen:

—Ni, dakizutenez, maiz joaten naiz Araya'ra, ta naiz kalean naiz ardandegi batean ere, ori ta Diaz irakaslea alkaŕekin ikusi oi-izan dut; eztakit ori aintzakotzat artzeko ote dan, baña niri beti nabarmengaŕia izan zait.

—Martin'ek: Egia diñok, mutil; eta orain niri nabarmengaŕiago. Ba-dirudi aipatu dituzuten zeatz oyek batera datozela, ta benetan jakin nai-izango nuke bai ori zer dan.

—Mikel'ek: Tira, tira; nik uste, gaŕantzi geyegi ematen ari gera Patxiko'ri. Utzi dezagun ori, nai baduzute, ta goazen auŕera gure arazoak begiratzen.

—Martiníek: Ongi zegok, baña nik guzioi erne ta begi zabalik beti ibiltzeko, eskatu beaŕ dizuet.

—Mikel'ek: —baŕez—: Ibiīiko gaituk, gizona, ez estutu, geyegi bederen.

—Eta gure asmoai buruz beŕiz jaŕaitzeko, auxe esan nai dizuet:

Uste dut emen, batera ongi datozen bi elburutara jo-egin beaŕ dugula; sorteŕi osoari dagokionaz eta Azpaŕena gure eskualde onekiko, era berean; oni buruz yardutean aren alde ere jokatuko dugularik etsi-etsita.

—Gañetik bada ere, ba-dakizute ongi nire asmoak nolakoak diran. Azpaŕena'ko nekazariak elkargo batean bildu ditezela nai dut, alkaŕi laguntza on eta aundia emateko ta, oŕela, beren lanetatik alik eta etekin aundienak atera al-izateko. Ta, esan beaŕik ez, guzi ori askoz obeto egingo da guzien alkartasunean, norbera bakaŕik eta bide neketsuagoetaz yardutean baño.

—Gaur, egitaraua bezela, asmoa bi azpegitan erakutsi nai dizuet. Lenengoz, elkargoaren egitura, egokia bezela, nola ikusten dudan; bigaŕenez, lanak egiten, nun, noiz eta nola asi gaitezken.

—Noski, gure elkargoa, ongi baderitzaizue «Azpaŕena'ko Elkargoa» dei dizayokeguna, alkartasunezko bazkunak jaŕita dagozen eran ari-izateko antola dezakegu, gaur dagoen legearen barnean. Ez da lege ori nire gogokoa, baña eztugu besterik eta beaŕ-izango litzaken bezela aldatzeko, biderik ez gaurko ontan guretzat. Lanean asteko ta jaŕaitzeko, beaŕezkoa zaigu ori.

—Elkargoa zuzentzeko, batzorde bat izendatu beaŕ dugu, ta nire ustez, ortarako eŕi bakoitzak bere auzokoen artean ordezkari bat autatzea egokia izango litzake; ori izan zan aspaldin, beste gauzetarako, euzkaldunen jokera ta nik bederen oso ona bezela onartzen dut jokera ori gure xedeetarako ere.

—Ene ustez, batzorde ori bi urteko epe baterako izan beaŕ da izendatua, bi urtetik bi urtera beŕitzeko. Urtero Batzaŕ Nagusia egiteko, bertara eskubide osoz erdu ditezken, jakiña, bazkide izango diran guzientzat. Eta autatutako zuzendariak bi iīebetetan bein gutxienez alkartzeko, Elkargoa ongi zaindua izan dedin; baña beaŕ-izan ezkero, Lendakari'ak edo beste zuzendari bik deiturik, edozein egunean.

—Asieran ezpada, gerorako, Elkargo'aren bizia asko zabaltzen bada, ona edo izango da idazkari bat ala beste motako ordezkari bat jartzea, bere lan-tokian egunero egon eta yarduteko.

—Eta Elkargo ori, zer egiteko? Nire ustez astiro joan beaŕ dugu, gutxitan asteko, ta gero, auŕeratzeko biderik sortzen bada, luŕaren lanak beaŕ-izango duen eta eman dezaken guzia erosi ta saltzeko.

—Erosten, ene ustez, zaldale, bazka ta beste mota guziko aleak,

bai ta ongaŕi, bii ta aziak ere; landatzeko landaretxo ta txirpiak, eta onelako beste gayak. Baña batez ere lankayak; oŕelakoak gero ta geyago ta obeak sortzen ari dira, ta ene iduriko guztiz beaŕak izango zaizkigu nekazariaren lana biguntzeko ta eŕazagoa egiteko ere. Ta gai guziak ororentzako beingoz erosi ezkero, obe ta merkeago lortu ditezkelakoan nago.

—Nekazarien lana arintzeko, alegin aundienak egin beaŕ ditugula uste dut ez noski laña arintzeko bakaŕik, baña beste gauzaetarako asti geyago ukan dezaten. Esate baterako, irakuŕi al-izateko; naiz beren lanari buruz naiz beaŕak edo atsegiñak izan ditezken beste gayekiko agertzen diran izpaŕingi, aldizkari ta idaztiak; ez dira gutxi orain ateratzen diranak, baña gero ta ugariago izango ditugu. Zergatik eztu nekazariak irakuŕi beaŕ bere gogoa ere lantzeko ta egokiak izan dakizkioken ezagupenak bereganatzeko? Ona da besoen lana, ezinbestekoa, baña gizon batentzat beaŕa ere buru-lana, lan biak alkaŕen betegaŕi izan ditezen. Eztu iñoiz ontzat eta naikoa bezela artu beaŕ gizonak, beste lankai ala abere bezela izatea. Gizona Ludi'ko izaki gorengoena da ta bere garaitasunaren galgan bizi ta lanegin beaŕ du beti.

—Gure elkargoak guzientzako zer erosi lezaken aipatu dizuet. Ikus dezagun zer saldu dezaken ere. Ortan, apika, erostean baño astiroago ibiltzeko. Lenengo gauzak, esne, gazta, aŕautz eta txitak izan litezke. Araya'n lez eta neuŕi aundiagoan ere ola ta lantegiak jaŕi ta antolatzen ari dira, ta bertan lanegingo dutenak janariak nunbait erosi beaŕ-izango dituzte; beraz, oŕela, erosleak gero ta geyago sortuko dira ta oyei eskeiñi ta saldu al-izango dizkiegu gure etekiñak. Alakotz ortik gure elkargoarentzat geroko ona sortuko dala uste dezakegu; guri egokituko zaigu etekiñak gero ta geyago ta obeak gertu ta eskeintzea.

—Edozein eraz, lugiñen artean luŕarenganako maitasuna indartu ta zabaldu beaŕ da. Nik bederen, biotzez eta barne-barnetik maite dut luŕa; goyenetako gogo-lan batzuk izanezik, ene ustez, gizona dan gizon batentzat eztago iñun beste lan oberik. Nik, nekazaria, bere etxe ta luŕetan, jaun osoa ikusten dut; bere buruaren gain bera dago bakaŕik, beste iñoren pean egon gabe; eguneko ordu guziak bereak ditu, nai edo beaŕ-izango duena yarei egiteko; oŕengatik beste gizonenganako azkatasun aundienean bizi da; gauza edeŕenetakoa da ori, beste lanetan ari diranek eztaukatena, baña eztakit guzien aldetik

atematen ote dan ongi; alaz ere, ori egiazko aberastasuna da, ta gerorako, lugiñek lankai beŕien bidez beren lana eŕaz eta erosoago baldin badagite, ta etxean ere sendiaren bizirako beste auŕerapenak ipintzen badituzte, edonungo jaunen bezin ongi bizi al-izango dira.

—Ene iduriko, asmo guzi auek zabaldu beaŕ ditugu gure nekazarien artean, beren lana gogotik maite dezaten eta, ondorioz, onuragaŕiago egiteko ere; gañera, alkaŕenganako lankidetasuna sendotzen bada, guzien bizia gero ta obea egiten lortuko da.

—Aipatu dizkizuedan asmo ta egitekoak, eta elkargoaren egitura ta elburuak adierazteko, zeatzez, idaztiño batean idatziko dut guzia, gure baseŕitaŕen artean banatzeko; baña, ongi baderitzaizue, itzez ere egin diteke zabalkundea; ta ona izango zaigu oŕela egiten astea, azpaŕendaŕak nola erantzuten duten jakiteko.

—Imanol'ek: Niri egokienik iruditzen zait esan duzun guzia, ta ziuŕ nago gure eŕitaŕak ere ontzat artuko dutela. Dagoaneko zure kortaz asko mintzatzen da gure bazteŕetan eta nik baño obeto dakizu nola datozen alde askotakoak zuregana, egin duzuna ikusteko. Oŕengatik, ortaz luŕa okuntzatuta dagoela esan diteke, ta ni beñepein nire laguntza guzia emateko gerturik nauzu.

Bilduta zegozen besteak ere, gutxi gorabera, berdin esan zuten.

—Mikel'ek: Orduan, nire idaztiñoa egin eta zabaldu ondoren, ontzat artzen baduzute, bilkura aundi bat egingo dugu, elkargoa bein betiko irasi ta antolatzeko; bitartean, zabalkundea bakaŕik ez, guziok eta bakoitzak, erabiīli ditzagun asmoak geron baitan, ororentzako erakundea ongienik atondua izan dedin.

Oŕenbestez aguŕ-egin zieten Mikel eta Martin'i besteak, eta Araya'runtz abiatu ziran, gero bakoitza bere eŕi ta etxera joateko.

Pozik zijoazen burubideai buruz alkaŕi mintzatzen, alai ta gogatsu; ta iñundik ere, bide ondoan izkutaturik, beren igarotzearen zai norbait zegoela buruak eman gabe.

Baña an zegoen gure Patxiko, eŕian lortu etzuena ondo jakiteko iŕikaturik; eta zai-egote ura luzea izan bazitzayon, azkenez, bere begien auŕean agertu ziran Mikel'ekin egondakoak.

Iŕi maltzuŕean luzatu zitzaizkion ezpañak, eta bere eŕira egin zuen ibiīaldia alpeŕik izan etzala-ta, pozaŕen pozez gure zelataria.

Aiztu zitzaizkion bereala, osabaren itzak eta mutiīekin ukan zuen buŕuka ta jasan beaŕ-izan zituen oyen aokaldiak ere. Ba-zuen bere aintzindariari eskeintzeko uzta ona.

Ta, azkenez, bera ere bere etxeruntz abiatu zanean, bere eŕitaŕen aurkako gero ta kemenago arian-arian egozten ari zitzayon xede edentsuak, alako atsegin gaiztoaz bete egin zion gogoa.

Odol bateko senideen aurkako jotzea, etzan lenengo aldiz euzkaldun baten gogoan sortu orduan. Euzkaleŕi'aren edesti luzean beste Patxiko'ak ere izan dira, ta zoritxaŕez olako landarearen azia, oindiño, bizi-izango dala uste diteke. Ez dira izan ez eta izango ere, gutxi, azi ortatik Eŕi'arentzako ernetuko diran kalte aundienetako zituak. Giriña txaŕak sortzen dira gizonaren biotzean; baña ez ote da ori iguingaŕienetakoa?

Neguan alaitasunak

Aldia dugu jaŕaitasunaren irudi bikañena. Neurtua dago aldia, naiz izadiak naiz gizonak neurtua. Izadiak, ortarako, argia, beroa, eguzkiaren ibiīera, luŕaren birundakaŕzea, īargiaren aldaketa, ..., artu ditu bere neurketak egiteko; ta, oŕela, ba-ditugu egun eta gaba, urtezaroak, goize ta aŕatsaldea, egunak, iīeak, urteak, ...

Gizonak, bere aldetik, lenengoz, izadiaren neurketak ontzat artu ditu, ta beren bitartez antolatu beaŕ-izan du bere biziera; ez du aurkitu aldia neurtzeko beste bide oberik. Alaz ere, berak zeatzago neurtu nai-izan du aldia, ta iīea asteka neurtu du, ta eguna oreneka; orena ere iroirenetan eta iroirena takadatan. Iīeka egindako urtearen neurketa ere nolabait aldatu nai-izan du, baña ori, beti, izadiak emandakoaren barnean.

Beraz, izadia dugu aldiaren neurlari bikañena, ta gizonari buruz beste neurketak ere ematen dizkigu: umezaroa, gaztezaroa, gizaroa, zartzaroa ta belaunaldiak. Gizonak, gutxiago ez izateko nayean edo, iīeak, iruiīabete, lauiīabete ta seiīebetetan alkartzen ditu, beste neurketak egiteko; ta urteak multzokatuz, bosturtebete, amaŕurtebete, ... ta eunurteka, mendeka; izadiaren bide barnean orotan.

Negua dugu, alegia, izadiak emandako neuŕi bat, epe bat, aro berezi bat, bero gabekoa, otzaldia. Ba-dirudi izadiak ere otza maite eztuela, ta eztakigu zergatik, bizirako beaŕean ausaz, berberak soŕerazita izanik ere, semetzat onartzeko bearturik eta biziaren amaya adierazten duelako edo, itungaŕia izaten zayo seme doakabe ori ama izadiari.

Eduŕa dario neguari, bere amaren negaŕ mingotza bezela, ta eduŕ-malutak negaŕ-miñak diralakoan egoteko edo. Noizpait aizeak, sumin-arazi antzo, elurgiīoetan diñotso neguari eduŕa, ta zirimoletan, zaurigaŕia dan txingoŕaren antzera, noranai astintzen eta sakabanatzen; baña, agian, amatasunaren biotz-onberak eragiñik, maiz, mara-mara

jausten dira eduŕ-malkoak. Ta jauste oŕek duen aunditasunean, edertasun ikusgaŕiena, bai edeŕ-zaleen begientzat, bai, batez ere, eŕugabetasunezko auŕentzat; unkigaŕiago, noski, xalotasunean.

Edatzen ari da eduŕa luŕaren gañean metaturik, maluta guziak josi gabeko eun zuri zabalean ertsiki alkarturik, eun oŕen ginpeŕ eta bilbea batera izango bailiran; ereindako azia izara aundi oŕen azpian lotarako gelditua, ta itxarturik dagoen auŕa gañean jolasteko, pozaŕen pozez eraginda.

Orbanik gabe dagoen artean, esi gabeko zuritasuna, garbi ta garden agertzen da begi argientzat, eta, nora-nai begiraturik, edonoren barnea, aren antzo, zearo xauturik izateko yoranez beterik, giza-lagunak oro.

Zuritasuna, eŕugabetasuna, xalotasuna, edertasuna, ..., gentzaren lagunak, eduŕez estalitako luŕean ikus ditekena, otza baldin bada ere; baña barnean, azpitik diraki beroa, eduŕa urtzean agertzeko xedeaz. Zergatik azpiko bero ori, gero, bidekaturik ikusi beaŕ? Eztu oŕek esan nai, apika, gizadiaren gentza otz-otzean antolatu beaŕ dala; gentza-beaŕean, bearbada, orixe ona izateko onua; ta oŕa ori adierazteko negua eltzen zaigula.

Negu-aldia, goibel-aldia, ori ere alegia. Egunak laburturik eta eguzki gabe, iīunak; zugatz-adaŕak, oŕiz muŕizturik, igaŕak; ura, izozturik, erstura; bizidun, ozmindurik, itun.

Negu goŕi ura, alde guzietan, eta Aitzkoŕi erdian zuten eskualdeetan goŕiago zirudien. Lotaziīaren erdi aldean eduŕa ari-izan zan, egun batzuetan tai gabe, eduŕa lodi ta mara-mara erortzen. Gañera, sorkaldetik eldu zan aizeak —antziaŕ deitzen dana— zuŕungiīoetan zeraman eduŕa, txoko batzuetan euŕez metaturik uztean, eta bisots arek guzia izoztu zuen.

Landetan lantzurda ta antzigaŕ izotz-beltzean; etxeetako egaletatik eta alde guzietako ertzeetatik ere, orma-kizkiak esegita bezela ikusten ziran aunitz, eta ituŕietan, edaskaetan eta ibai-zoko batzuetan ere, ura tinkotuta, kaŕanka biurturik.

Eduŕ eta izotza, auŕentzat, jostaketan ibiltzeko bide egokiak. Etxe-barnetik eduŕa mara-mara jaustean begiraturik, liīuratuta zegozen auŕak, leyoetako leyaŕean berek sudurtxoak itsatsita.

—Ama, ama! —ume batek txaloka— ara elbi txuriak! Zenbat! Begira, ama, amaika egaka!

—Ama'k: Polita, benetan, ainbat elbi txuri aidea betetzen...; ikusgaŕia!, bai, orixe!

—Beste auŕ batek: Ama!, nundik datoz elbi txuriak?

—Ama'k: Otzaren jaureŕitik, ume; oso uŕun zegokikan eŕi otz-otz batetik. An etzegok iñoiz berorik; an beti otz, eduŕ-betean bizi beaŕ eta elbi oyek eduŕa baitzegitek.

—Auŕak beŕiro: Eta zertarako datoz ona elbi txuri auek?

—Ama'k: Beren eŕian ain otz aundia zegokelarik, beroaren biīa edo. Baña, ikus, oyek otza beaŕ ditek bizi al-izateko, ta ona eltzean, emengo giroa berentzat beroago izanik, ezin egaka jaŕai, iltzen dituk eta luŕera jausi beaŕ.

—Auŕ pertxentak: A!, iltzen diran guziak bezela, il eta luŕera.

—Ama'k: Ez berdin auŕa. Gizaki ta abereak, iltzen ditukanean, lurpera sartzen zitiztek; baña elbi txuriak, il da gero, luŕ gañean geratzen dituk.

—Beste neskatil batek: Baña nola dakizu, ama, elbi txuriak luŕera jausten diranean iīak dagozela?; luŕ gañean ere ikusgaŕiak dira, zuri-zuri ta guztiak alkartuta.

—Ama'k: Argi zegon ori, ume; ez al ditun ikusten aidean, jausi baño len, nola zebilzkiñan, gora ta bera, eskui ta ezkeŕera, auŕak bezela jolasten, eta ain zuzen bizirik zegozkiñalako?; baña bein jausi ezkero, geldi-geldirik geratzen zaizkin, iīak noski, oŕ, luŕean, alkaŕ besarkaturik.

—Lengo auŕak: Eta zergatik dagoz oŕela, geldi ta besarkaturik?

—Ama'k: Ara, zuek, otz zeratenean, ez al zerate alkaŕekin biltzen edo nigana etortzen bero biīa?; orduan, ba-dakizute, nik besarkatzen zaituztet nire bulaŕeko beroa zuei emateko. Elbi zuriak be alkaŕ besarkatzen dute, baña alkaŕi otz emateko, otz-beaŕean baitagoz bizi al-izateko ta oyek ere bizi nai guziak bezela.

—Auŕak, beŕiz: Ama!, eduŕ pizka bat artu dut leyotik eta eskuan ura biurtu zait; zergatik ura biurtu?

—Ama'k: Orixe gertatzen zayek elbi txuri gaixuai, il ondoren beren gorputzak, azkenez, ura biurtzen dituk eta ayenatzen oŕela.

—Auŕak: Ta iltzen diran gorputz guziei ere ori gertatzen al zaye? ...

—Ama'k: Ez, gizaki ta abereak iltzen ditunenean, lurpean sartzen zitizten eta an ur ez baña auts biurtzen ditun.

—Auŕak: Orduan, gizakien gorputzak auts eta elbi txurienak ur; zergatik ez guziak auts ala guziak ur biurtu beaŕ?

—Ama'k: Eztun ori eŕaz jakiteko; bearbada, batzuk il eta gero lurpera zijoazkiñalako, ta besteak luŕ gañean geratzen ditunalako. Baña, ikusi: aize-bolada bat sortu dun eta luŕ gañean zegozkiñan elbi txuriak xirimolan zeramazkin alde batera ta bestera.

—Auŕak: Ama!, ori ere auts dirudi, auts zuria, ezta?

—Ama'k: Bai, auts txuri polita dun ori.

—Auŕak: Beraz, elbi txuriak ere auts biurturik?

—Ama'k: Esan diteken ori, bai, baña ori eztun, gero, lurpean egiten dun autsa bezela, ura beltzagoa dun.

—Auŕak: Ama!, eta luŕ gañean dagozen elbi txuriak, gorpu egiñik, oŕela beti egongo al dira oŕ?

—Ama'k: Ez, ume; ara, zer gertatu zayonan ire nebak artu diñan eduŕ-puzkari?; oŕ ere elbi txuri batzuk zegozkiñan bildurik, eta nebak eskuan zeukanan beroaz urtu dira. Orixe bera gertatuko zayen luŕ gañean zegozkiñan beste guziei ere, batez be eguzkia ateratzen badun; beroaz urtuko ditun guziak eta orduan luŕak uŕupatuko zitin.

—Auŕak: Ba!, azkenez elbi txuriak ere lurpera, ezta?

—Ama'k: Orixe, ta egitan, bizi dun guziari berbera gertatu beaŕ. Luŕa dun ororen ama ta bere altzora joango gaitun guziok. Eta oŕengatik be luŕa maite beaŕ diñagu.

—Auŕak: Ikastolan ere orixe esaten digute, luŕa biotzez maite beaŕ dugula beti.

—Ama'k: Noski, ta orain gertu zaitezkete irurok Aintzane ta Maḍalen' engana joateko. Laisteŕ opoŕaldia datoŕ eta Gabon'erako olentzaro-abestiak ikasi beaŕ-izango dituzute, Jayotza'ren auŕean gogoŕ egiteko.

Irten ziran umeak kalera, beren jantzi ta beren txartesetan bildurik, eta ikastolarako bidean, gizonek len eduŕean idekita, beren ikaskideak aurkitu zituzten, guziak eduŕean eta eduŕaz jolasten, alkaŕi eduŕ-piĺotak botatzen; batzuk eduŕean aoz-gora ta beso zabalik etzanda, beren irudia bertan uzteko ala, Amamio'n esaten zanez, gurutzak egiteko; beste batzuk eduŕ-piĺo bat, birundaka eramanda, alik eta aundiena egiteko xedeaz; ba-zegozen, eduŕa artezki metatuz, giza-irudia egin nai zutenak; eta batzuen batzuk eskuan zeramaten kaŕanka-zatia, goxokia izan bailitzan, gogoz miazkatzen zuten. Eta

guzia zan auŕen artean, ixkanbiĺa, lekayoa, umeak oro zinkaz eta ijuilari.

Lana ukan zuten Maḍalen eta Aintzane'k, auŕak ikastolara saŕerazteko. Berotsu zegoen ikastolan eta giro zeŕepel artan auŕak txusperturik nabaritu zituzten beren soin-atal guziak, gozoki oso. Alaz ere leyoetara so-egiten zuten orok, eduŕ-egaŕiz eta eduŕ-malutak jausten eta egaka ikusteko aspertu eziñean.

—Aintzane'k: Ongi ibiĺi zerate, ezta?, naiko jolastu ere eduŕean; baña ondo busti ere zuen jantzi guziak; emen berorik izango ezpalitz, zer?, busti zearo ta otz-dardaratzen geratuko ziñakete.

—Goazen orain zerbait ikastera, ez da beti jolasean ibiĺi beaŕ, lana ere egitekoa da ororentzat. Ba-dut beŕi on bat zuentzat ...

Isildu zan Aintzane lipaŕ batez, eta auŕak isiĺago ta adi-adi.

—Aintzane'k: Datoŕen astean Gabon'eko opoŕaldia asiko da; egun batzuetarako ez gera ikasteko lanetan ari-izango, ta egun oyek jolasteko egunak izango dituzute.

—Auŕ guziek: Bai, bai, oso pozik! Gora Gabon! Gora opoŕaldia! ao batez oyu ta txaloka.

—Aintzane'k: —goraki ta gogoŕ: Baña! ...

Baña arek eten egin zuen auŕen aŕabotsa, ta guziak isildurik, ari so.

—Aintzane'k: Baña ... Nik jolasketa berezi bat zuek egitea nai-izango nuke. Gabon-jaya alaitasunezko jaya da, gogoz abesteko aldia, biotz barnetik abesteko gañera, Yosu'ren jayotza ospatzeko. Nai-izango al duzute Gabon-egunetan oŕela abestu?

—Auŕ guziek: Bai, bai, poz-pozik! —ao batez ere.

—Agurtzane'k: Ederki! Ara, Martin arotza jayotza polit bat egiten ari da. Jayotza ori ba-dakizute nolakoa dan: Yosu auŕa aska batean eta lasto gañean etzanik, aita ta ama aska ondoan, alde batetik bakoitza, ta atzean idi ta astoa; guziaren gañean gotzontxuak egaka, baña auek ez dira beti ikusten.

—Jayotza ori lau mutiĺen artean eramango dute ta nai-izango duten beste guziak atzetik joaten, etxez-etxe ibiĺiko dira guziak abestuten. Eta zer abestu? Ara, Maḍalen'ek bertso polit batzuk egin ditu ta oyetxek ikasi beaŕ-izango ditugu guziok; eta ortarako opoŕaldiaren lenengo egunetan ementxe bilduko gera ordubete edo, aŕatsaldean. Etoŕiko al zerate?

—Bai...! —auŕek, beŕiro.

—Aintzane'k: Ongi, ongi! Baña, ba-dago geyago: Olentzeroa; ori ere Gabon'erako etoŕiko da, urtero bezela, begiak goŕiturik eta bere pipa eŕetzen.

—Auŕ batek: Eta nor da Olentzero? Gizon baldaŕ eta zikiña dala entzun diot amoñari. Zertarako ori ere etoŕi?

—Aintzane'k: Egia da bere itxura oso polita eztala. Baña maite beaŕ dugu gizon gizajo ori, oso zorigabekoa dalako.

—Neskato batek: Zergatik da, bada, zorigabeko?

—Aintzane'k: Nik dakidana esango dizuet. Euzkaldunak Yosu'ren siñismena onartu zuten orain mende ta mendeak dirala; baña lenago siñisgabekoak ziran, jentiłak, eta aitzuloetan bizi, oindiño etxeak egiten etzekitelako. Emendik ez uŕun leize oyetako bat dago, Basotxo leizea, batzuek jentiłen leizea deitzen diotena. Datoŕen udan, eguraldi onaz, ara joango gera aŕatsalde batean bertan alkaŕekin azkaltzeko. Ikusiko duzute, benetan polita dana.

—Ba-zegoen ayen artean igarpen antzeko bat guziek onartzen zutena; oŕengatik ba-zekiten egunen batean Kismie zeritzan jaun aundi bat gizonen artean agertuko zala, bere lege ona guziei eskeintzeko. Ta ain zuzen, Kristo'ren irakaspena oneraño eldu zanean, ongi ikusi zuten gure auŕeko ayek beren Kismie'na zala. Baña asko ta askok, beren biziera utzi nai ezean, alde egin zuten besteengandik eta mendietako oyanen erdira joan ziran bizi-izateko. Ayen semeen semeak ere oindiño an bizi dira, ez asko ala ere, berak oso ondo atontzen dituzten txondaŕetan ikatza egiten.


—Beren asabaen siñismena bera bizi da oyengan, baña ayen Kismie'z gertatutakoa ontzat artzen dute. Ori dala-ta, urtean bein, Kismie'ri aguŕ-egitera jeisten dira bat-banaka, bakoitza eŕi batera, ta orixe duzute Olentzero.

—Ikusten duzutenez uŕikigaŕia da Olentzero ori, ta oŕengatik geuk maite beaŕ dugu; maitasun ori agertzeko, bere alde bertso batzuk ere abestuko ditugu. Ia guziok ongi ikasten ote ditugun bertso oyek.

—Eta orain beste gauzatxo bat galdetu beaŕ dizuet: Nork daki Altzania'ko otsoaren ipuña?

Ume batzuek eskua jaso zuten, Nik!, Nik! esaten.

—Aintzane'k: Ongi!, baña ikusten dudanez, asko dagoz eztakitenak; alakotz, oyek ere jakin dezaten, dakitenen batek edestu beaŕ-izango digu.



Eta ausartzen edo etziralako, guziak ixilik geratzen zirala ikustean:

—Aintzane'k: Ia i, Yulentxo, ik esan ipuin ori, astiro, astiro.

—Yulentxo'k: Altzania'ko otsoa aundia da, gogoŕa da, zakaŕa da. Otsoa, guztiz gaiztoa. Burua utzik dauka ta biotza beteta, baña goŕotoz beteta, zitalkeriz beteta. Ez da maltzuŕa, baña bai ankeŕa. Maltzuŕa azeria da, baña ankeŕa otsoa. Ortzak dauzka zoŕotzak eta betagiñak areago, ardi ta bildotsak iltzeko. Bildots-aragia edeŕ zayo ta oŕen bila dabil beti, ase-ezin, saloberio.

—Gose danean, bere etzangutik irteten da gauaz, uzu, odol-egaŕiz, ... eta, taŕapatan-taŕapatan, mendiaren zeaŕ gora ta bera dabil oŕo-egiten, uluka ...: u-ulu ...!, u-u-lu ...!; ikaragaŕia da otsoaren oŕoa.

—Oltza ta Urbia'ko sarobeetara urbiltzen da otsoa, ta ayetara ixilik doa ilunpean gaiztoa. Ba-daki ongi, an arkume bigunak eta bildots mardulak dagozela pakean. Ayen aragi-gose beti otsoa; idekita daroa aoa; ortz eta betagin zoŕotz eta kaŕaskots egitean. Otsemayok!, bai abeltxeok!

—Artegitik uŕun, otsoak u-u-lu, uluka.

—Artegi ondoan, eizatu nayean, ixil, tuku-tuka.

—Artzanora erne ta zuŕ, otsoa sumatu ta zaunka.

—Artzain-zakuŕak berdin, guziak alarauka.

—Ba-datoz artzañak, itxarturik banaka.

—Makilak arturik, alkaŕi beroki, eupadaka.

—Ardi zaŕak bilduŕ, bildotsak uzkuŕ, oro maŕaka.

—Arditxoak izikoŕ, arkumeak igikoŕ, oso dardaraka.

—Beeka entzunea, otsoa kilika ta gosez.

—Oyuka ta zaunkez, basabere gelditu lardeyez.

—Enuxu-banuxu, kekomeko, an dago otso ankeŕa.

—Guztiz amuŕu, ba-doa azkenez atzera okeŕa.

—U-u-lu...!, u-u-lu...!, ulubika gogoŕ.

—Altzania'ko otsoa, izi, sumin ta zemakoŕ!!

—Aintzane'k: Oso ederki, ume! Entzun al duzute guziok ondo? Nola ardi ta bildots gaxuak otsoaren atzapaŕetan jausi etziran? Artzain eta artzanoraen eskeŕ; bai ongi zaintzen dituztela auek beren abeltxeak.

—Orobat gertatzen da gure bizian ere. Gurasoek oso ondo zaintzen dituzte beren auŕak, bizi ontan anka biko beste otso ta azeriak

dira-ta. Oŕengatik umetxuok, asko maite beaŕ dituzute zuen gurasoak eta berenganako guziz eskeŕoneko ta esaneko izan. Onezaz ere oroitu beaŕ-izango duzute zuen biziaren barna: Ludi ontan zuen gurasoek aña iñork maite-izango ez zaituztela.

—Baña ..., goize guzia ipuiñetan sarturik joan zaigula ikusten dut. Zoazte orain bazkaltzera ta etoŕi gero zintzo guziak, aŕatsaldean beste lana egiteko gerturik. Eta ez ibili eduŕean jolasten zearo bustiko zerate-ta.

Ori entzun bezin laisteŕ, auŕak, txori-sail baten antzo, kalera irten ziran, zalapartan, oyuka, alkaŕi u-u-luka ta bultz-egiten. Esan beaŕik ez, edurtara guziak, bertan jolasteko iŕikaturik; alan eta guzti, bazkaltzeko gogoak bereala eraman zituen andik, bakoitza bere etxera abiaturik.

Oŕelaxe joan ziran Gabon auŕeko egunak, ametsak oro jai ortaruntz zuzenduta. Eguraldia, ilargiaren aldakuntzagatik edo, eztitu zan zerbait; eduŕari iñostea eten zitzayon eta luŕ gañean metaturik zegoen edurtza urtzen asi zan; eŕiko kaleak garbitu al-izan ziran eta giza-lagunak ayen zeaŕ legoŕ xamaŕ ibili ere.

Auŕengan, noski, ametsak ugari; ayen baitan, Gabon-jaya liluratzeko itxaropenaz mamiturik zegoen, eta opoŕaldi-egunetan gogoz ari-izan ziran erakusten zizkieten bertsoak ongienik ikasteko; nonbait, jaya, berak ere egin beaŕ zutela edo uste zuten eta ezin beren laguntza emateko uzkuŕ ibiltzea. Etzuten, eiki, ondo atematen, ez jayaren zentzun sakona ez eta jai artan, beren abesti ta otoyen bitartez, noraño kide-izan al litezken ere. Baña barnean, ilun xamaŕ agertzen zitzayen zerbait ba-zegoela oarturik, zera ura begiko ta atsegingaŕi kilika zebilkien, eta etzegozen iñola ere beren ekintza artan utz-egiteko gerturik.

Arin zijoazen opoŕ-egunak igaroten, eta ara Gabon'arena ere azkenez argitu zala. Esan zietenez, zalu ta arduratsu auŕ guziak bazkal-ondoan ikastolara. Ikasguaren erdi-erdian Martin'ek egindako jayotza oso poliki adelaturik zegoen. Bereala jayotza inguratu zuten guziek eta beren begiak, artara zoraturik, etzuten ikusi txoko batean erdi izkututa zegoen Olentzero'ren irudia.

Sayoaldi bezela, ekin-erazi zien Madalen'ek bertsoak abesteko, ta oŕela asi ziran beren gogozko ibilaldi ura. Artu egin zuten jayotza eraman beaŕ zutenek eta, kalera abiatzen ziralarik, ara mutiko batek:

—Eta Olentzero nun dago?

—Maḋalen'ek: Ez estutu ume, elduko duk bere orduan, ziuŕ-ziuŕ, eta ezer esan gabe. Baña lenago etxez-etxe ibiĪiko duk, gaur gabean sukalde guzietan eŕe ta sugartu beaŕ dikan enboŕa banatzeko; olentzero-enboŕ diagu ori, etxe guztietan argi ta distiratsu izekirik ikusiko diagun Gabon-subiĪa.

Guztiz burtzoratu ta muga gabeko ametsetan —ots, txit zoriontsu, umezaroan bakaŕik izan diteken zorion aundian murgildurik— zijoazen auŕak, begiak zoŕotz, izango zan guzia ikusteko kiŕi-kiŕika, ezertxo ere ikusi gabe ez galtzeko; belaŕiak ere zoliturik oso, entzuteko ororen oro berenganatzeko, ta eŕugabeko beren gogoak liĪuragaŕi izan liteken guzia onartu ta gozatzeko. Amets edeŕenean, zoriontasun zabalenean, auŕai, neuŕi txikienean ere, ezerengatik gutxitu beaŕ etzayenean.

Egiazko zoriontasun ortaz, adiñekoek gogoratu beaŕ-izango luketе beti, alik eta luzaroenean, auŕengan iraun-erazteko; edozerengatik, beaŕ dan baño lenago, aurtzaroaren liĪuragaŕizko egokera edeŕ ortan zerbait moztu ezkero, auŕai beren zoriontasunetik zati bat ostutzea izango bailitzake.

Elizaruntz abiatu ziran, jayotzaren atzetik auŕak eta, ara elduta, atarian gelditu ziran ikasitako bertsoak lenengoz abesteko. Ta Maḋalen'ek zuzenduta, onelaxe abestu zuten guziek gogoz:

1. Goyen, oi! Betleen;
Jaya dugu gauan,
Gaberdira eltzen,
Goyan eta bean.

2. Goyen, oi! Betleen;
Gaua da pakean,
Izaŕ distiratzen,
Ĩargi betean.

3. Goyen, oi! Betleen;
Ardiak maŕakan,
Mendian laŕatzen,
Artzañak zaintzean.

4. Goyen, oi! Betleen;
Otza bazteŕetan,
Izoztuta eŕeten,
Berotzeko, sutan.

5. Goyen, oi! Betleen;
LiĪura aidean,
Ametsetan, garden,
Gogoak luŕean.

6. Goyen, oi! Betleen;
Gizaldia gentzan,
Eman beaŕ izen,
Nork bere aurkintzan.

7. Goyen, oi! Betleen;
BiĪa ostatuan,
Ezin iñun sartzen,
Beaŕez arpean.

8. Goyen, oi! Betleen;
Aita oso kinkan,
Ama, itxaroten,
Semearen leyan.

9. Goyen, oi! Betleen;
Geldi eguratsan,
Lo eziña aberen,
Erne gizonagan.

10. Goyen, oi! Betleen;
Aŕabotsa urian,
Entzun eragiten,
Dagoen bizian.

11. Goyen oi! Betleen;
Dana ixil mendian,
Txintik ez, bederen,
Zugatzen ostayan.

12. Goyen, oi! Betleen;
Zunpa, bat-batean,
Ortzea idekitzen,
Goi-argiz, sostean.

13. Goyen, oi! Betleen;
Zer ote odeyetan?,
Aintza!, abestuten,
Gotzonek taldetan.

14. Goyen, oi! Betleen;
Auŕa yaurestean,
Seaskan ikusten,
Asto bei artean.

15. Goyen, oi! Betleen;
Ama biotzean,
Maitasun kartsuen,
Aita gaŕ berean.

16. Goyen, oi! Betleen;
Auŕ Yainkoa'gan,
Lurtaŕ biziaren,
Itxaropenean!!

Azken bertsoa ozta-ozta eman zutenean, soñua oraindik aidean eta belaŕietan zegoelarik, ara deadaŕ durundatsua:

OLENTZERO...!

Beingo-beingoan eta oro batera, auŕak atzeruntz begiak. Aiztuta edo zegozen Olentzero'az eta bat-batean itxarturik bezela, deadaŕ arek gogoŕ astindu zien barnea. Begiak zabal-zabalik, berak oartu gabe atzetik eldu zitzayen Olentzero an ikusten zuten; an zegoen, txapel aundi baten azpian bi begi goŕi-goŕi, pipa zuri luze xamaŕ bat bizaŕen artetik eta aoan eutsita ateratzen zitzayona, egurgiĪe-jantziaz eta beruntz imiñitako otzara baten gañean eserita; guzia lau mutiĪek zeramaten arkutx batean jaŕita. Beste lau mutil, aldamen bakoitzean

bat, eta bi atzetik, lagun bezela agertzen ziran, eta zortzirak Olentzero bezela jantzita bizardun.

Ara auŕentzako ikuskizuna; ta so-egin bezin laisteŕ, mutil ayen arteko batek, beŕiro:


OLENTZERO!, OLENTZERO!

eta zortzikoak, abots batez, eresketan bezela:

Emen datoŕ Olentzero!
Oitura duenez urtero!

Deadaŕa egin zuenak, beŕiz:

OLENTZERO!, OLENTZERO!
Guziek: Ara nun dagon Olentzero!
(len bezela) Burua otz, biotz bero!
Oylariak: OLENTZERO!, OLENTZERO!
Guziek: Aguŕ zazue Olentzero!
(beti berdin) Gaur etoŕi danezkero!
Oylariak: OLENTZERO!, OLENTZERO!
Guziek: Lagun zaizue Olentzero!
(jaŕaitzean) Adiskidea, ez ero!
Oylariak: OLENTZERO!, OLENTZERO!
Guziek: Menditik eldu Olentzero!
(doñu berberaz) Ola oituz Gabon'ero!
Oylariak: OLENTZERO!, OLENTZERO!
Guziek: Bezuzakaz Olentzero!
(era berean) Eskeŕ daigun orok, gero!
Oylariak: OLENTZERO!, OLENTZERO!
Guziek: Maite dugu Olentzero!
(berebat) Txit barnetik, gogo-bero!
Oylariak: OLENTZERO!, OLENTZERO!
Guziek: Aguŕ, aguŕ, Olentzero!
(orobat) Zai dugu ikatz onezkero!



Oyulariak eta besteek, batera :

OLENTZERO!, OLENTZERO!

Eta auŕak ere : OLENTZERO!, OLENTZERO! ...

Alde-egin zuten orduan egurgīleak, eta auŕak, jayotza arturik, etxez-etxe joan ziran, Olentzero atzetik zijoala ; etxe bakoitzean abestiak oro, berberak abesteko.

Esku-ikusiak ugari auŕak jaso zituztenak, etxekandere guziek esku-zabalik emanda : gaztain, uŕ, intxauŕ, ziztoŕ, aŕautz, sagaŕ, piko-txikola, opil, tuŕoi ta mota guziko gozoki, okaran merlatuak, mats onduak, ... Ura ugaritasuna! ; ba-zeukaten Egubeŕi ondoko egunean, alkaŕekin zer gozatzeko, azkari edeŕenetakoa egiteko.

Eta eŕi guzian barna bira osoa emanda, gero, bakoitza bere etxera, aŕatsaldea īluntzen ari zalarik. Norberak bere guraso ta etxekoai guziaren beŕi ematen ; eta Gabon-aparia alaitasunean egin ondoren, bertsoak beŕitzen eta beste abestiak ere egiten.

Azkenez auŕak, oso nekaturik, oera, ta adiñekoak gaberdiko Mezatara, oiturari jaŕaitzean.

Argitu zan geroago Egubeŕi-eguna, Amamio'n poz eta alaitasun betean ospatu zana, guziek alkaŕi, onena, zorion aundiena opa ziotelarik. Ori ere oitura zan, noski, baña bai biotz barnetik egiten zutena.

Auŕak, beŕiz, naiz jayotza naiz Olentzero ikusi nai, ta kalera laisteŕ gosaria artu ondoren. Jayotza bai, aurkitu zuten ; elizan zegoen opa-mai ondoan poliki jaŕita. Eŕitaŕ guziak aren auŕetik igaroko ziran, eiki, zein ongi egiña zegoen ikusteko, baña bereziki, arek zer oroi-erazi zuenaz gogoratzeko ta norberaren gogarako otoi txiki bat bederik egiteko ere. Ta auŕak ba-zekiten, aŕatsaldean edo, beren bertsoak beŕiro abestu beaŕ zituztela.

Baña etzan Olentzero an ikusten eta auŕek ura ere ikusteko tiŕian ; asi ziran bazteŕ eta txoko guziak arakatzen eta aren aztaŕenik ez. Nun zegoen, bada, ain begikoa izan zitzayen Olentzero?

Bīla zebilztelarik, ara apaiz jauna bertan agertu ta galdetzen : —zertan ari zerate?, ezeren bat galdu ala?

—Eta auŕek : Olentzero ikusi nai dugu ta ezin aurkitu ; nun dago?

—Apaizak : Olentzero?, tokitan dago onezkero. Ori Gabon-gabaz bakaŕik azaltzen da ; bere esku-ikusiak utzi, eŕian barna birunda bat egin, eta guzia ondo edo aurkitzen duelako, bereala mendira doa beŕiro bere txondaŕak zaintzera.

—Auŕak : Baña guk eztitugu ikusi Olentzero'ren esku-ikusiak. Eta bera ere ozta-ozta.

—Apaizak : Ezetz? Ez al duzute ikusi zuen etxeetako sukaldeetan subil berezi bat bakoitzean, ain zuzen Gabon-subīla deitzen dana, ongi pizturik eta gaŕ edeŕak ematen? Oyetxek dituzute, bada, Olentzero-enboŕak, berak urtero aŕetaz ebakita eskeintzen dituen emaitzak, etxe guzietan bera goxo ta usaintsu berezia Gabon'ean izan dadin.

Olentzero'ri buruz ametsak eten zitzaizkien auŕai nolabait, eta aren jokera ongi ulertzen ezpazuten ere, aurki joan zitzayen ura burutik, beren jostaīluak pozik erabiltzen eta alkaŕekin jolasten.

Bazkari edeŕa egin ondoren, aŕatsaldean, elizan bertan beren bertsoak abestu zituztenean, ba-zuten oindiño be, alako uste txikia, berak amaitu ta, auŕeko egunean bezela, Olentzero ere azalduko zala. Atzera so-egin ere, baña alpeŕik, Olentzero'rik ez.

Gero ... urtearen azken egunak arin joan ziran auŕen ustez, ipuiñetan eta jolasean azpertu eziñik. Eta azken eguna ere eldu zitzayen. Bertan zerbait berezia ere izango zala esan zieten eta ura ikusteko begiluze oro. Goizean ezer ez, eta auŕak urduri ; aŕatsean izango zan adiguri.

Eta ara, aŕatsaldea auŕeruntz zijoanean, deadaŕak eŕiaren zeaŕ :

«Eŕe ipui eŕe!
Eŕe kaleŕe!».

Eŕi ondoko bide ertzetan eta muñoetan izaten diran sasi ta laaŕak eŕetzen ibīli ziran lenago, ta uŕengoan eskuetan zekarten sua eŕiko kalera. Ta gogoz abesten, piztutako zuziak buru gañetik eragiten :

«Eŕe ipui eŕe!
Eŕe kaleŕe!».

Sorgiñak eŕe!
Bidetan eŕe!,

«Eŕe ipui eŕe!
Eŕe kaleŕe!».

Aztiak eŕe!
Indetan eŕe!,
«Eŕe ipui eŕe!
Eŕe kaleŕe!».

Liīurak eŕe!
Aidetan eŕe!,
«Eŕe ipui eŕe!
Eŕe kaleŕe!».

Zorabiok eŕe!
Oletan eŕe!,
«Eŕe ipui eŕe!
Eŕe kaleŕe!».

Mamuak eŕe!
Geletan eŕe!,
«Eŕe ipui eŕe!
Eŕe kaleŕe!».

Txeŕenak eŕe!
Kaletan eŕe!,
«Eŕe ipui eŕe!
Eŕe kaleŕe!».

«Eŕe ipui eŕe!
Eŕe kaleŕe!!!».

Eta oŕela kalez-kale ibiīi ondoren, auŕ batzuek mutil ayetako bati auxe entzun zioten:

—Mutiīak: Mendi, bide, kale ta txoko guziak, suaz garbitu ditugu, urtea ongi amaitzeko ta urte beŕia ongi ere asteko; sorgin, mamu ta txeŕenak kalterik ekaŕi eztizaiguketen. Auŕera bizia! Goi-goyan itxaropena!

Iñork etzekien noizdanikoak ziran ekandu ta oiturak betetzen, amamiotaŕek urte zaŕa amaitu zuten eta beŕian gogoz murgildu. Gentzatsu izan zitzayen urte zaŕ ura ta uŕengorako itxaropen onenak ayengan. Alaitasuna, adiskidetasuna, alkartasuna, xalotasuna, ..., itxaropen edeŕenak emateko iturburuak diralarik, oyetxek baño besterik ez, Amamio'ko guziengan kokaturik. Nola ez esan ayengan ba-zegoela bizirik?, biziera edeŕenik?

Buŕuka ta gataska beŕien asiera

Alaitasuna ez bide da Ludi ontan egunero ikusteko, askoz gutxiago gozatzeko. Egiazko alaitasuna auŕ eŕugabeengan dago, nunbait izatekotan, eta aurtzaroa oso labuŕ gizon baten bizian. Urteekin batera girin, iŕits eta naikeriak sortzen zaizkio gizonari, ta oyetatik datozkion iŕiskeri ta zalekeriak, beren larderiaz, aurki itotzen dute alaitasunezko guzia, ta oŕen ordez goibeltasun eta ituntasuna giza-biotzarentzat zitu ta ondorio bakaŕa.

Itzulmiñez gogoratzen ditu gizonak bere biziaren lenengo urteak; ayetan, mari ta maitagaŕiak bizi dirala siñisteko, txoriak mintzatzen entzuteko gurariz egoteko, ain distiratsuak diran izaŕetan, batetik bestera ibiltzeko asmoak txeratzeko, gotzontxuekin jolasteko nayak egingaŕiak izan ditezkela usteko, leyarki txikiak metatzean pitxi ta altxoŕ edeŕenak bere buruarentzat biltzen dituela pozik gozatzeko, ...; amaika itxura ta irudipenak auŕen buruetan, beren baitan, egiazkoak bezela eratzen, eragiten eta mamitzen diranak. Oŕelaxe betetzen du auŕak bere barneko bizia, ta bertan xaloki murgildurik, alai ta zoriontsua benetan.

Baña bein gizondu ezkero, bata bestearen uŕengo, atzean uzten ditu gizonak bere aurtzaroan ain edeŕak izan zitzaizkion liīurazko bere amets guziak. Eta beste biziera batean sartzen da, amets-egiteko egokia ez dan bizi beŕian. Irudimenari uko egitean, bururakizunetan asi beaŕ, kezka, estualdi, neke, lan, naigabe ta ezbeaŕ, ugari dakarzkion bizieran. Uŕenez-uŕen oyetxek dira gizon baten bizian asierako ametsen atzetik eltzen zaizkion ondoreak.

Otz, eduŕ eta izotz, eŕuz Azpaŕena'n urte beŕiaren asieran; otz-eŕia biurtu zala zirudien. Bisotzak gogoŕ astintzen zuen babesetik at zegoen edo zebiīen guzia. Latsetan etzan entzuten ain alaigaŕia eman oi zuten ur-jaustearen soñua, ura kaŕanka petik ixil eta bildurturik edo iŕistatzen zalarik. Txoriak etxeetako egazpean ala nunbait beste babes-tokietan kikilduta; abereak beren tegietan geldirik; zomoŕoak

beren zuloetan lokartuta ala konkorturik; landareak, aize, eduŕ eta izotzak eraginda, makurturik, ondaturik, iltzeŕ guziak. Gizona zan bakaŕik bisustuari buru-egiten ziona; ta alaz ere amaikatxoentzat, zaŕentzat batez ere, erailgaŕi agertzen zitzayen negua, agertzen eta izan ere batzuentzat.

Otzeri, erlats, maŕanta, bulaŕ-estu, alborengo ta biri-eri, aunitz eta gogoŕ gizakiengan, eta astirik ez sendagīlearentzat, geixo zegozen guzienganaño eldu al-izateko. Estula zan etxe geyenetan estu egiten eta entzuten zan eresia; eri zegozenak oetan geldi etzanik eta gañera berenganatu zitzayen gaitza, bakoitzak al zuenez jasaten; jausi gabe zebilztenak beren etxeko gaixoak zaintzen eta bide batez ez erortzeko alegiñetan ari.

Egun batean, etzan izango bakaŕa, Araya'ko zeñutegitik il-dangadak aidearen zeaŕ beren soñu ituna baŕeatzen eta oŕela norbait il zala guziai jakin-erazten. Nor oteka guzien buru ta aoetan, eta askok oitura zuenez, otoi bat eriotz pean jausitako giza-lagunaren gogoaren alde, bera edonor izan. Baña askaŕ edatu zan ango baztereťetan il zanaren izena: Letona jauna, eyeralaria, endorearena; ta Azpaŕena'ren zeaŕ oso itungaŕia zan egiazko ziŕada.

Maite zuten azpaŕendaŕek, luzaroan endore izan zan Letona jauna; kexutasunez beterik ikusten zuten, beren udalaren alde ta guziai zegozkien arazoetan alde onenetik artzeko ta norabide egokienak emateko yoranez txit aiduru. Beste aldetik, euzkaldunen ekandu ta izaerari buruz oso atxikia zan, eta oyen aurka soŕ liteken edozein beŕikeria astantzeko beti gerturik. Ongi dakigunez, bere asabaengandik artu zuen etxea eŕotik maite zuen eta bera gordetzeagatik egiñal aundienak egingo zitukean; ongi zekien ori txikitatik bere adiskidea izan zan Elortza jaunak ere; alpeŕik zebilen au, etxea sal zizayon bein eta beŕiro arenganatzen. Biotz aundiko gizona, beraz, zintzo ta zuzena orduantxe itzali zana; bere gomuta, ordea, etzan oŕen eŕaz azpaŕendaŕen oroimenean itzaliko.

Ildakoarenganako ororen biotz-ondoko ta biozketa, iritzi berean ala alkaŕen antzo, berez erne ta azaldurik izan baziran, ba-zegoen auzoko bi, guzien gogoetaldietatik at beste burutapenak ere birundaka irabiatzen zituztenak. Ontzat artzen zituzten guzien aburu onak, etzegozen iñola ere ayen aurka ta, gizona bezela, guztiz ongi onirizten zuten il beŕia zegoen eyeralaria.

Elortza jauna zan bi ayetako bat. Benetan maite zuen aurtzarotik

adiskide ona izan zuen endorea. Burura zetorzkion multzoka, arekin egindako auŕ-jolasak eta alkaŕekin burututako ibīlaldien gomutak; guzietan alkaŕ ongi lagunduta ari-izan ziran beti. Gero, endorea izan zedin ere egiñalak bete zituen Elortza'k, aren zeintasun eta zer-nolak egokienetakotzat zeuzkalako.

Baña lantegiaren jabearentzat gaŕantzi oso aundikoa zan arazo batean, ezin arekin bat etortzea, eziña izan zitzayon oso, aren naimen gotoŕean amor-eragitea.

Lenago ikusi genuenez, ba-zeukan olako artezkari bezela, lanerako indaŕ geyago eukiteko asmo berezia, bai ta arekiko egitamu zeatza ere, Yokin'ek lenengoz asmatuak, ots, Araitz pean sortzen zan iturburutik gertarazitako ur-jauste edeŕa, geyago ta obeto ustiatzeko. Ori egin eta burutzeko, beaŕa zitzayon ezinbestean, Letona'ren eyerarako egiña zegoen antepara, asmoaren ekieraz aldatu ta egokitzea. Asmo ortaz amaika bideŕ erosi nai-izan zion antepara ura, bai ta eyera bera ere, edozein salneuŕiz, eta gañera bai berarentzat bai bere semeentzat, lantegian yarduteko toki onenak ere eskeintzean. Alpeŕ-alpeŕik guzia; etsi-etsita zegoen Letona zaŕa bere etxe ta eyerari, ta etzitukean artuko ayek saltzeko ez eta Ludi'ko altxoŕ guziak be.

Eta orain Letona'ren eriotzak ekaŕ lizayoke onik onenean bere asmoa bete al-izateko abagüne egokia, aren semeak ageŕerazten ezpaitzituzten aitaren ayeŕak berberak; eta ustekoa zan, baldintza onetan, beren eyera ta aldamenekoak saltzeko gerturik egongo lirakela; batez ere lantegian toki onak eskeiñi ezkero.

Letona'ren eriotzaz, asmo zaŕa indaŕ beŕiaz berpiztu zitzayon jabeari, ta mugonez bezela egingaŕi zeritzayon ustea, menperatzeko eziña zuen atsegiñaz birundaka barnean. Atsegin ori ta adiskidearen galtzeak ematen zion egiazko atsekabea buŕukan ari zitzaizkion Elortza'ri gogoan. Biotz-biotzez nai zuen atsegin ura bere baitan zapaltzea, atsekabean bakaŕik bere burua murgiltzeko, zenduarenganako ori eginbide antzo ikusten zuelako; baña ortarako indaŕa naikoa etzeukala ere oartu beaŕ zuen, eta gai guzietarako zerabīlen egikeraz, berarentzat eziña onartzea etzuen iñola ere gogoko.

Bere barneko guda arek gau batzuk egundu zizkion, oldozpenak bere ustez egokiagoak izango zitzaketean bideetatik eraman ezin zuelako; ta egun luzeetan barna, bere baŕuko gudarekin jaŕaitu beaŕ-izan zuen gure gizonak, gero ta indaŕ aundiagoaz egosten ari zitzayon asmo arezaz iñori ezer esan gabe.

Ba-zegoen beste auzoko bat, erdal-irakaslea zan Diaz jauna, endorearen eriotza zala kari, bi aldetik barne-eragiña izan zana. Naiz eta eŕira eldu zanean, lenengo aldietan, eyeralaria ala nolako arlote antzeko begiratu, aurki oartu al-izan zuen, ez-axolezko itxura pean, ba-zituela Letona jaunak ontasun eta onoimenak barne-barnean tinkoturik, eta bere egipen guzietarako ekin-norabideak ematen zizkiotenak.

Egoeŕitaŕen artean oi zanez, ots, nora-nai zijoazenean alako nagusitasunez eta andi-usteaz beren burua ageŕerazteko izaten zuten ayeŕaz, maiz nagusikeri ta andikerizko jokerara sayesten ziralarik, oŕela asi zan Diaz jauna Araya'ra eldu ta bere lenengo uŕatsak ematen ari-izan zanean.

Argi ikusi zuen bereala, Araya'n bertan eta Azpaŕena osoan ere, ba-zirala goiko maīan zegozen bi gizon guztiz nabarmenak: Letona jauna, endorea zalako, ta Elortza jauna, lantegiaren ugazaba zana. Ta oŕezaz ateman zuen bezin laisteŕ, bi jaun ayenganą urbildu zitzayen, eŕian bera ere ayen goyeran jartzeko asmoz eta beste eŕitaŕen gañetik bere burua azalerazteko xedeaz.

Irakaslea zala-ta, ongi atotsi zuten esandako bi jaun oyek eta eŕiko beste guziek ere, abegi ona ta begi argia egiten, aŕotz guzienganako erabiīi oi zuten txeraz, eta bereziki irakaskintzan buru, artezkari ta zuzendari izateko zetoŕelako. Azpaŕena'n, beti, apaiz, irakasle ta sandagiīearenganako itzal eta begirune andiak oi-izaten ziran; irurengan egiazko aintzindaritasun eta garaitasuna guziek ikusten zituztelako, ayengan uste osoz entzindurik beren biziera jartzeko.

Irakasle beŕiak, aŕokeriz itsutu edo, etzuen iñoiz ateman ori, ta berarenganako oartu zituen giza-lagunen adeitasunaz aŕotu zan areago; oŕela bere buruaz zearo iīaŕaindurik, asi zan guzien auŕean agertzen, eta Elortza jauna, apaiza ta sendagiīea izanezik, beste guziak menekoak bezela begiratzen zituen.

Baña laisteŕ ikusi al-izan zuten guziek irakasleak zerabiīen itz-jarioaren pean zer zegoen, eta andikeri aundia baño besterik etzegoela oartuta, oztu zitzaizkien guziai lenengo egunetako onespenak; ondorioz, Elortza ta endore jauna asi-ta, eŕitaŕ geyenak, arekiko elkarbideetan, aldendu ziran arengandik gero ta geyago.

Oztasun oŕek irakasleari barnea mindu zion, eta guzien auŕean gutxiturik geratzen zala ikusi zuenean, lenengo aŕokeria eŕa biurtu

zitzayon oro begitan artzeko. Auŕerantzean gaitzondo ura bere eginkizun guzietan eragiīe lez ari-izango zitzayon beti.

Alaz ere, endorearen eriotza itungaŕia izan zan berarentzat ere; ez noski besteengan ainbat, baña Letona jaunagan beti yagole bat ikusten zuen, eta oŕen suntzitzea berarentzat be galeratzat artu beaŕ. Besteentzat galtze ura zer zan oartu zuen Diaz jaunak, baña izari artan ezin berarengan atsekaberik izan, ia atsegiña baizik, azpaŕendaŕek aipu aundiko gizon yaukala galdu zutelako. Ta bi biotzondo ayek nastuta zebilzten bere baitan.

Eguraldia oso txaŕa izanaŕen, endorearen gogo alde egin ziran iīetara eŕi guzietatik erdu ziran azpaŕendaŕak asko; ta gure irakasleak eta Elortza jaunak guziekin bat egin zuten, Letona jaunaren gomuta ona guziaren gain azaldu zanean. Ziñegotzi guziak ere an agertu ziran buru, guzien auŕean; eta oso aintzakotzat zeukaten endorea biotzez be maite zutelako, aren utzak, berentzat, beste kexutasuna ekaŕi zien garai berean: nor jaŕi aren ordez endore?, il zanaren aña onartzeko?

Oore aundienaz gorpua iīobiratu ondoren, bakoitza ta guziek alde-egin zuten, eta beti atsekabeturik zijoazela, nolabait, orori ere ziñegotzien kezka berbera sortu zitzayon: nor ote endore-gai?; ezinbestekoa baitzan endore beŕia izendatzea. Norengan esku-antze ta kemen aski Letona jaunaren ondorengo duin izateko? Iñork etzuen uste sortutako arazo beŕi ari aterabide egokia emateko eŕaz izango zanik. Alan eta guzti, baitezpadakoa zan artaz alegintzea, ondore egokia aurkitzeko xedeaz.

Oitura zanez, endore beŕia ziñegotzien artetik irtengo zala uste zuten guziek, eta oŕengatik ayen izenak ororen burutapenetan irabiatu ta goiberaturik zerabilzkiten. Ziñegotziai berai zegokien, beren arteko bat izan ezkero, autatzea egitea; ta asmo ortaz, laisteŕ egin zuten guzien arteko biīera berezi bat. Bi edo iru agertzen ziran gai, baña etzetozen batera gai ayengandik nor aukeratzeko; lenengo bilkura artatik, beraz, etzan iñor atera, ta egun gutxi baŕu beste biīera bat egiteko geratu beaŕ.

Berdin gertatu zan bigaŕen bilkuran eta irugaŕenean ere; orduan ziñegotzi batek besteai auxe esondatu zien: endorea beren arteko autatzea eziña bezela agertzen zanezkero, ta udala osoaren beŕitzeko unealdia urbil zegoelarik, beŕitze ori auŕera liteke, ta ortarako egin beaŕ-izango liraken auteskundeetatik irtengo liraken ziñegotzi beŕien

artean eŕazago eiki endore beŕia ere izendatzea. Ontzat artu zan asmo ura, ta beste irtenbiderik ikusten etzutelako, ori egitea erabaki zuten.

Auzokoen artean ondo arturik izan zan erabaki ura, ta geroztik xede artaz egin beaŕ zanari buruz axolaturik ere guziak. Nortzuk aurkeztuko ziran?, ..., nortzuk gero aukeratu?, ... Ba-zegoen gaŕantzia, ta ez txikia, arlo artan, arduraz erabiltzeko zana. Autarkiaren bitartez guziengan zegoen auteskundeetan nolabait eta bere neuŕian eragiteko almena, ta eskubide ura betetzean, yardespidea ere ikusten zuen bakoitzak berekiko; alakotz, eskubidea bakaŕik ez, eginbidea ere ba-zegoela guziek uste-izateko.

Udalak inguratzen zituen, Azpaŕena'ko eŕi guzietan zegozen arlo ta ebazkizunak, gutxi gorabera, berdin ikusteko ziran, Araya'n izanezik; besteetan nekazaritzatik zetozen egitekoak; Araya'n ordea, nekazaritza gutxiena zan, ola-gizonak geyenak ziran eta oyen lan bereziak beste giro bat soŕerazi zuen; eta ona izango zitzakeanez, bi giro oyek alkaŕen betegaŕi izan balira, eŕazago noski guziak batera etortzea; baña oso berezita zegozen bi biziera ayek eta alkaŕenganako aŕotzak bailiran agertzen ziran.

Egon ere ba-zegoen eŕiketari buruz, ororentzako ebazkizun aundia, Azpaŕena'ri bakaŕik etzegokiona, Euzkaleŕi osoari baño, ta arek ere euzkal-bizi guzian eragiten zuelako, udala baterako be, ba-zuen bere gaŕantzia, ta ez edonolakoa. Egitan, nai ta nai ez, Euzkaleŕi'an betetzekoa zan eginkizun nimiñoenean ere, nolabait agertu beaŕ. Batez ere Mikel eta bere lagunak egokiro salaturik eta beren asmoen zabalkundea egiten asi ziranetik, Egoeŕi-aren jokera gero ta mukertasun aundiagoaz artzen zan euzkaldunen artetik bazteŕ guztietan.

Etzituzten azpaŕendaŕek begi onez ikusten, Egoeŕi'tik jartzen ari ziran legeen ondorioak, kaltegaŕitzat baitziran ororen bizirako. An, beste eŕi askotan bezela, eŕiaren aberastasun aundia basoa zan eta lengo euzkal-legeak aŕeta aundiaz zaintzen zuten aberastasun ura. Baña, lege beŕien eskeŕ, gizon batek jaŕitako lantegian beaŕa zalako, edozein eraz eta eŕiaren egokitasunaz yaramonik artu gabe, Intusi'ko baso guzia ebakiten asi ziran, eta jokera artan jaŕaitu ezkero, argi ikusten zan urte gutxi baŕu basorik izango etzala, mendi guztiz muŕizturik geratzeko. Ongi iruditzen zitzayen lantegi beŕiak jartzea, baña ez guzia beren onurako bakaŕik izateko; ayen ustez, gauza guziak alkaŕ litezke ororen obarirako atontzeko; ta baso artan zugatz zaŕak botatzen zituztenean, gazteak landatu ezkero, ango aberastasuna beŕi-

tu liteke ta, oŕela, bai eŕiarentzat bai lantegirako ere emankoŕ eta etekintsu izaten jaŕai-erazi lezakete.

Baña, ba-zegoen ori baño askoz kaltegaŕiago lege beŕien bitartez burutzen ari zana; erdera jaŕi zuten lege beŕiek guzirako erabil-beaŕa, asi ikastoletan eta biziaren mail orotarako edaturik. Oŕela asi zanetik, urte gutxi baŕu argi ikusi zuten guziek euzkera atzeraka zijoala, gazte ta auŕ beŕiengandik alde-eginda; era berean, baña aitzitik, erdera sartzen ari zan kalean eta etxeetan sendien baŕengoraño, berarekin erdal-gogoa aŕerazten eta zabaltzen.

Adiñekoek, zaŕek batez ere, guztiz asaldaturik, eŕian egiten ari zan aldakuntza argi ikusten zuten, eta erdal-ugolde artan Euzkaleŕi'aren gogo zaŕa, aurki, itota geratuko zala, barneko amoŕu aundienaz oartu beaŕ zuten; aboro, erdal-gogoarengatik, ekandu onak baztertzen zijoazela begiratzean.

Azken urte ayetan barna, ororen artean, bereak eta bost eta amarna, kezka, susmo, goganbeaŕ; amaikatxo auzoen zeaŕ; artegatasuna guziengan, burutapenak bete lan. Aldatzen zijoan giroa, otziturik oso lengo beroa; erdera galendu, euzkera azkendu; oiturak naspiltzen, ekandu onak zikintzen; erdalduna onargaŕi, euzkalduna baŕegaŕi; erbestekoentzat, aŕotzentzat, nagusitza, etxekoentzat, eŕitaŕentzat, moŕoitza. Guzitarako aldakuntza, nabariena izkuntza; len, bai, siñismena, gaur, ordea, ondamena; auŕeko elizkoyak biurtzen ari gogo loyak, ...

Batzuengan atsekabea, besteengan ajolagabea; ayengan neke ta min, auengan baŕe ta uŕuin; bereizketa beŕian ikusi beaŕ oro Eŕi'an. Zori-gaiztoko aduŕa, euzkaldunentzat ote gaitzuŕa? Noizdanik eta zergatik alkaŕenganako gorbizturik? Egitan gentzarako bereziki eragozpen, benetan ortarako alegiñak beteaŕen.

Lokarturik bezala, lengo eŕak geratu zirala, yopuen sasi-gentza, aŕerazitako eskeintza. Taldekeriak amaiturik ziruditen, erbestekoek oro gogoŕ zanpatuten; ayen indaŕ latz pean, guziak berdin jo-ta geratzean. Baña iruzuŕa oarturik, eŕauspeko txingaŕa isioturik, eta edozein aizeak eragiñik, edonora jotzeko gerturik.

Euzkaleŕi guziaren zeaŕ oro eziñegona ta gogoan-beaŕ, dana izialdura, asalda ta aŕankura; ugari zegoela esan zitekean lergai, bazteŕetan, emen, oŕ, an, nun-nai. Batzuek, bai onartu biziera beŕia, geyenak, aitzitik, nardatu beŕi-erazitako bizia. Orokaŕa zan axanpa ura nundik zetoŕen, guziengan zegoen ardura, nola sortu zen, nora ere

oro zeramaten ..., argi iñork etzekien. Baña aidean arnasten, gogo-biotzetan zirikatzen, giro ta eguratsa betetzen ... zerbait ba-zebilela iñork ere etzuen ukatzen.

Egokienak, oŕela, giro ta egurats, Mikel eta bere lagunak emandako uŕats, luŕ gogoŕean sendo asi ta auŕeratzeko uŕengo. Baztereŕetan eŕaz ontzat arturik, bidea egiten zijoan oro azkarturik. Agintza batek eskeiñi bailuen, guziak zai zegozela zirudien, zerbait ala norbait eldu beaŕ zala, Eŕia zuzpertzeko ageŕerazten ala.

Oŕelaxe Azpaŕena'n ere. Mikel'en asmo, egipen eta jokera, nekazarien aoetan eta gogoetan be, beroki edaturik zebilzten, guziei edeŕ zitzaizkiela. Geroko obe baten asiera agertzen zitzayen asmo ayetan, baña batez ere barnean zeramaten esateko zala edo zan biotzondoko ezkutu batentzat erantzun egokia zala zirudien; oŕela ororen ustez, ala gutxienez, aren oyartzun berezia bezela artzeko onik zutelakoan, pozez beteta geratzen ziran geyenak.

Noski, nekazarien artean, olako langileen artean baño bero aundiagoz onartzen ziran asmo ayek; baña langileak ere etziran ayenganako mukeŕ azaltzen, eta, bidezkoa zeukatenez, Mikel'ek nekazariekin egin nai zuena, lantegietan. ere egingaŕitzat zeukaten.

Goratzeko ezpada ere, ba-dirudi gizakiengan, edonungoak izan eta edozein lanean ari, norberaren egokitasuna agertzen dala beste elburuen gañetik, berez; eta lantegi beŕietan batik bat, jabeen egokitasun ori, ekiteko oñaŕiz arturik zegoelako, nai ta nai ez, lantegi oyetan, kutsaturik ala beaŕezkoa zan ondorengoa bezela, ari diran guziengan elburua bera onartu da, bakoitzak, jakiña, berea. Gero, jabeen eta langileen elburuak batera etortzea eziña ezpada, oso zala izaten dalako, alkaŕen aurka azaldu beaŕ, eta eŕa ta buŕukarako bide egokiena gero ta zabal eta sakonago, biurturik ikusten dugu.

Lantegi beŕien edatzea asi zanetik, gaitz bat bezela ikusten zuen talde bakoitzak bestearen jokera; jabeak edo olaen antolatzaleak langileena, ta auek ayena; norberaren arerioa lez begiratzen zuen emengo taldeak angoa berdin angoak emengoa, ta sortu beaŕ zana agertu zan azkenez, alkaŕen aurkako guda gotoŕa, maiz ain gorbizturik bilakatuko zana.

Araya'ko lantegian ere orixe bera sortu zan; ez, dagoaneko beste tokietan agertzen zana bezin gogorturik oindiño, baña bide ortatik auŕeratzeko abiaturik bezela bai. Alegia, lantegi ura oso beŕia zalako, bertako langileak eŕikoak ziran geyen-geyenak; eta oŕengatik, zalantzik gabe, eŕiaren oitura zaŕai atxikiturik eta eŕikoyak bizi ziran. Orixe zala-ta, gogo onez onartzen zituzten Mikel'en asmoak; baña lenengo aldiz, ausaz, antolatzen asi ziran auteskunde ura, abagune egokia izan zitzayen beste asmoai entzumena zoŕozteko ere.

Nonbait, etzan izan Mikel bakaŕik auteskunde ayek bere asmoetarako mugona bezela ikusi zuena. An zegoen gure Diaz jauna, orixe bera ateman zuena; ta beingoan, jo ta su, bera ere asi zan bere egitamua moldatzen, eta bidea aurki agertu zitzayon, bere asmoetarako argi ta garbi. Nekazariengandik ezer lortzea eziña izango zitzayola ikusten zuen, asi ta bereala; baseŕitaŕak, euzkaldunago bizi ziralako, ta beren biziera obetzeko asmotan Mikel'en xedea egokitzat zeukatelako, etzuten eŕaz entzungo irakasle arengandik elduko litzayekena; beraz, solo artan sartzeko bidea itxita bezela begiratu beaŕ-izan zuen orduan Diaz jaunak. Oŕengatik langileenganuntz zuzendu zituen bere asmo ta ardura.

Asmo ta egipenen bilbakuntzan, beste tokietan antzo, Azpaŕena'n ere unealdi artan, batera etzetozen bi langile-taldeak azkartzen asi ziran: luŕ-langileak eta ola-langileak; biziaren zeaŕ agertu diran egitamu askok alkartzeko alegiñetan ari-izan dala; ta egin beaŕ zan auteskunde artan, alkaŕengandik aldenduta edo, apika, alkaŕen aurka ere jokatzeko ete-etean zegozen.

Bere burutapenetan, izan liteken ori ere zerabilen Mikel'ek, eta oso galgaŕitzat zeukalako, an, nai ta nai ez, sortzen edo ari zan buŕukan, bere ta bere lagunen aldetik oŕela izan etzedin egiñalak burutu egin beaŕ zirala, bere asmoetan lenengoetako bat artu zuen eta bere adiskideai ere ortaz ernai egoteko ta zuurki jokatzeko eskatu zien.

Mikel'ek zin-ziñez eta aŕeta aundiaz antolatu nai zuen buŕuka, bere ta bere lagunen aldetik beaŕena zitzayen bidean zuzentzeko; ezinbestean buŕukatu beaŕ bazan, guda beŕi ura onela onartu ta eramatea nai zuen: euzkaldunak, euzkaldun-zuŕian talde bat osotzea ta oŕela gudan sartzea; besteak, egoeŕitaŕak eta beren alde jokatu nai-izango luketen eŕitaŕak osotu zezatela bestea; era ortaz atondu ta burutu beaŕ zan, Mikel'en ustez, Euzkaleŕi'an izateko, edonolako guda: Euzkaleŕi'aren alde ala aurka; ortan zegoen guzia Mikel'entzat, eta baldintza ortaz onartzen zuen gudan bipil eta buru-belaŕi sartzea.

Talde bi oyek oŕela azaldu beaŕ zutela zirudien auteskunderako, ta Mikel eta Diaz jauna agertzen ziran buruzagiak bezela; lenengoak

euzkaldunen batasuna zuen elburutzat, Euzkaleŕi'aren alde jokatzeko; bigaŕenak euzkaldunak alkaŕengandik aldendu nai zituen Egoeŕi'aren onurako. Ta elburu bi oyek agertzen ziran, azpaŕenataŕak, aurki, bien artetik aukeratzeko.

Otsaiĺaren 9'gaŕena, iĺaren bigaŕen igandea, auteskundea egiteko izan zedin erabaki zan; oŕela ia iĺabete zegoen ziñegotzigayak gertutzeko, taldeak beren zabalkundea egiteko ta egitarauak eskeiñiko zutenaren aintzin-bideak antolatzeko.

Lanean asi ziran bereala Mikel eta bere adiskideak; lenengoz ziñegotzigayen izenak biltzeko ta, oyen bayetza lortu ondoren, eŕietan barna beren aldeko zabalkundea egiteko xedeaz.

Ontzat artu zan, aurki, Mikel'ek besteai ageŕerazi zien asmo au: ziñegotzigayen artean, nekazari ta olako langiĺeak alkarturik aurkezteko, alegiñak egin beaŕ zirala, bietakoak alkaŕen betegaŕi bezela ageŕ zitezen, iñola ere ez aurkako. Ezin aŕ liteke ontzat, luŕ-langiĺeen bizi ta elburuak eta ola-langiĺeenak mokoz-moko ta aurkezkan ari beaŕ zirala, ez auteskunde ayetarako ez eta eguneroko jokeraetarako ere.

Izen batzuk aipatu ta erabiĺi zituzten, talde egoki bat osotzeko xedeaz eta, ororen iduriko, lugin eta langiĺeen artean erdibana aukeratu zituzten aurkeztekoak; lugin geyenak eŕi batzuetakoak, eta besteak, geyenak ere, Araya'koak; eta endore egokia izateko, irtengo ziran ziñegotziek besterik erabakitzen ezpazuten, Araya'n ere bizi zan nekazari zindo bat, Eguŕola'taŕ Eli esondatu zan, ain zuzen Araya'n bizi zalako ta bere buru, iñoren mende; gizon jatoŕa zan eta eŕiari ta lengo ekanduei oso atxikita.

Eŕietako nekazarien artean, oyen aldeko zabalkundea Martin eta Imanol'ek egingo zuten, eta olako langiĺeen artean Martin'ek ere Araya'n zeuzkan adiskideekin batera; ta otsaiĺaren lenengo igandean, Araya'ko Zubiaur'enean bilkura berezi bat egingo zuten ziñegotzigayak aurkezteko ta beren alde bertan mintzatzeko.

Etzan izan eŕez, gero, artarakotuen bayetza lortzea, batik bat lugiñen aldetik; oyek, betidanik, uzkuŕ izan baitira, beren lanetik at beste arazoetan sartzeko ta bereziki aginpideetan ari-izateko; baña eŕiarenganakó maitasunagatik, udalara joateko onartu zuten azkenez.

Beste aldekoak ere etzegozen lotan, eta beren taldea be atontzen ari ziran. Talde ortan nekazariak gutxienak ziran; Diaz jaunaren iritziaz, nekazariak, edonun, alde guzietan, beti atzera begiratzen zuten,

egungo auŕeŕapenak ontzat artu gabe, ta auŕerapenekin batera joan beaŕ zan guztiz atzeraturik ez geratzeko. Auŕerapenak lantegi beŕietan burutzen ari ziran, gero ta aboro; oŕengatik, naiz udaletan naiz aginta ritzazko beste toki guzietan, langiĺeak izan beaŕ buruzagi ta zuzendari; nekazariak etziran nor ororen aintzindari izateko.

Iritzi ori ontzat arturik, talde oŕek esondatzeko ziñegotzigayak, langiĺe ta salerosleen artean autaturik izan ziran; bi bakaŕik nekezari; bat, Amerika'n ibiĺi ondoren etxera itzuli beaŕ-izan zuena, ta bestea eŕiz-eŕi ere aldizkako lanean ari-izan zana; ta biak, auŕerapenari buruz mintzatzeko aspertzen etziranak. Beren ibiĺaldietan ikusitakoaren beŕia ematea edeŕ zitzayen eta auŕak naiz baba-lore batzuk ayei entzutean aduŕa zeriela egon oi ziran.

Ba-zegozen, beraz, talde biak, udalako tokiak berenganatzeko egin beaŕ zan buŕukarako gerturik, eta gogoŕ asi ziran baztereŕetan zeaŕ aldekideen biĺa; baseŕitaŕen artean, ia guziak, Mikel'en talde arekiko txera-egiñik agertzen zirala zirudien; langiĺeen artean, ostera, danetara zegoen, eta gogoŕena oyen gañetik irabaztea izango zan, auŕetik ongi ikusten zanez.

Eldu zan oŕela auteskundearen auŕeko igandea, ta iragaŕi zan ordurako Zubiaur'en ostatuko bordea lagunez beterik zegoen. Zudu aundia erakusten zuten guziek, beren udalarako arduraz eta ziñegotzitzakoak nortzuk ziran jakiteko gogoaz; baña geyago apika, talde bi ayek leyaka agertzen ziralako. Euzkaldunen artean, edozein elbururako, nor-geyagoka bi agertzen diranean, naiz gizon, naiz abere, naiz joku edo dema edo bertsolari izan, zaletasun aundia nabaritzen da, bereala bat ala bestearen alde zaleturik agertzeko.

Gaŕantzi aundienetako nor-geyagoka batean sartu beaŕ zuten azpaŕenataŕek beren burua, ta iñork lendik ezer esan gabe, ba-zegoen guziengan apeta bizia, leya zala kari bai, baña batik bat guziek ere bertan esku-artu beaŕ zutelako; ta esan gabeko yardespena bakoitzarengan eragiten ari zan.

Esandako bordera mordoskadaz eldutako lagunak alkaŕi mintzatzen eta alkaŕ ere begiratzen zegozen, nor izango ote zan lagun eta nor, apika, aurkako, iragaŕi nayez, andik zortzi egun erabakitzeko zegoena txantxetan erabiltzekoa ezpaitzan.

Iñork eskatu edo aolkatu gabe, atunez edo, nekazari geyenak alkaŕen ondoan kokatu ziran, ta orobat, ala beaŕik, langiĺeak; baña auen artean ba-zegoen bazteŕ batean, berarizkotzat autatua edo, talde

txiki bat eta ba-zirudien oarkabeturik izateko gogoz ari zala; talde oŕen erdian gure Patxiko ikusi zuen Martin'ek bereala; susmo txaŕa beingoan onengan, eta badaezpada, bere lagun zintzo batzuekin talde aren urbil jaŕi zan, arian ez arian.

Luzaroan itxoin gabe, ara maipuruko ziñegotzigayak beren tokira eltzen zirala, eurekin Mikel ere eramaten; eta etzan iñorentzat aŕigaŕi izan Mikel an ikustea, guziek baitzekiten onen asmoak eta udalara joan nai zuten gizon ayenak kidez-kide artzeko edo zirala.

Denak ixil bereala ta azken eldutakoai so; ta beren tokietan maipurukoak jaŕi bezin laisteŕ, erdian zegoena jeiki ta mintzatzen asi zan; guziek ezagutzen zuten Eguŕola'taŕ Eli jaun ura ain zuzen, eta guziak adi-adi, aren itz auek entzuteko:

—Eguŕola jaunak: Azpaŕena'ko adiskideak. Onaŕ ezaiguzute, danok, gure aguŕik maitekoŕena lenengoz. Dagoaneko guziok dakizutenez, zuen auŕean emen agertzen gatzaizkizuenok, udala beŕian ziñegotzi izateko alkartu gera. Noski, ori izateko, zuek eta Azpaŕena'ko guziek gure asmoak ontzat artzen baldin badituzute; ta gaur zortzin izango dugun auteskundean, oŕela dan ala ez, zuen autarkien bidez erakutsiko duzute.

—Orduan autaturik izango diranak, gu bakaŕik ezpaigera gogo ortan abiaturik, udalako eŕi guzietan egiazko agintariak izango dira, legeak erabakita daukan eperako. Auxe da, ene ustez, guziok oñaŕitzat artu beaŕ duguna: agintzaren iturburua eŕiaren naimenetik bakaŕik sortu beaŕ dala, naimen ori auteskunde-bidez agerturik. Era ortaz, ta eztago bide oberik, eŕia izan beaŕ bere agintarien autesle ta izendatzaĪe, gurean aspaldidanik egin dan bezela.

—Jakiña, eŕi edo udala baten beaŕetarako burutu beaŕ danaz, ezin iritzi guziak berdin izan; esaten dan bezela, edozein arlorako «buru bezenbat aburu». Oŕengatik bidezkoa da oso, udalaren arazoak eramateko ditugun asmoak, zuei auŕetik azaltzea; ta oyetxek ezagutu ondoren, gertubide obea izango duzute, eiki, zuen aukeratzea egiteko.

—Atsegin izan ala ez, lateŕiaren legeak ditugu udala guzientzako egiñak. Euzkaleŕi'an lege oyek ez dituzte guziek ontzat artzen, baña, gaur, udala guziak lege oyen barna eraman beaŕ dute beren egikera, ta gure aldetik oyen bidetik ibiltzeko gerturik gagoz. Baña lege oyetatik at eta beren aurka ezertan sartu gabe, ba-dagoz beste bideak bakoitzaren egokitasunerako zerbait egiteko. Beraz, gaur udala batek

orokaŕean egin beaŕ duena bete ondoren, beste beaŕetarako ere bere alegiñak eda ditzake.

—Eta gure xedeak ortara ere doazkigu. Ikus dezagun Azpaŕena'ko gaurko bizia nola doakigun: Bi motazkoak ditugu gaur gure eŕitaŕak, nekazari ta ola-langiĪe; nekazariek luŕak ematen duen lanean; langiĪeak lantegi beŕiak sortutakoan; eta berdin eztiran bizibide oyek, berdin ere izan ezin ditezken gizon-mota bi eratzen dituzte, bakoitzak berea. Baña onek eztu esan beaŕ, bi motazko oyek alkaŕen aurkako izan beaŕ dirala, iñola ere ez ori.

—Emengo bi bizikera oyei buruz aldakuntzak izan ditezke, auŕerapen ala atzerapen izan ditezkenak; bai ta alkaŕen arteko elkarbideak ere; ta guzi oyetan, geron ustez, emengo udalak, berari dagokion izarian, noski, zer ikusi, zer esan, zer lagundu ala zertan aurka jaŕi, ba-du bere eskubidea, ta bere eginbidea ere.

—Lantegiak dirala-ta, guziok dakizute nola ari diran oyetan lanegiten, bai ta gerorako dagozen asmo batzuk ere. Oyei buruz lantegien jabeak edo zuzentzaĪeak dira erabakitzeko, baña oyen eta besteen uŕats bakoitzean udalak ikusi beaŕ, eŕiaren egokitasunez, bere laguntza eman beaŕ duenentz. Eta ortarako ere gerturik gagoz.

—Nekazaritzarekiko, gutxi izango litzake esateko beaŕa, lengo lan-bidean guziek jaŕaitu ezkero. Baña, ortan ere, aldakuntzaren bat izan diteke, auŕeratzeko asmoz egiña izan ere; ta, ain zuzen, guziok ere dakizutenez, amamiotaŕa dugun Ezeolaza'taŕ Mikel adiskideak ba-ditu bere burubideak. Esan beaŕik ez, oyek be ontzat artzeko izan ditezke ala ez; ori nekazariak izango dira gai esateko; alaz ere, oyen auŕean udalak eztitu begiak itxita euki beaŕ. Gaŕantzi aundienekoak ditugu asmo oyek eta, oŕengatik, gure bilkura ontan oyetzaz mintzatzeko, Mikel'i ona etortzea eskatu diogu, ta guzioi, egoki ala beaŕa izan ezkero, gure laguntza emateko ere gerturik gagozela esaten dizuegu.

—Oŕela, emengo ebazkizunai buruz, ba-dakizute gure xedeak zeintzuk diran eta gure aldetik uste dut esan dudana naikoa dala, geurekiko zuen iritzia eratu dezakezuten, eta ondorioz zuen erabakia biribiltzeko ere. Entzun dizayogun orain, nai baduzute, Mikel'i.

Txaloak ugari jo zizkioten izlariari, baña aurki ixiĪik guziak, amamiotaŕari entzuteko iŕikaz. Onela Mikel'ek bereala:

—Mikel'ek: Ezta gaur lenengo aldiz nire asmoai buruz emen

itzegiten dudala ta ene ustez, gutxiago ala geyago, guziek ezagutzen dituzute oyek. Itz gutxitan onela adierazi ditezke: Azpaŕena'ko luŕetik eta nekazaritzaren inguruan eta ondorioz, azpaŕendaŕentzat gero ta etekin aundiagoak ateratzea. Ene iduriko, ori egin diteke ta xede ortaz abiaturik nauzute dagoaneko, guziok ere dazaguzutenez.

—Baña ezin elburu ortaraño eldu, ortarako guziok bat egiten ezpadugu, ta oŕengatik ororentzako erakunde bat gertutzen ari natzaizue. Ezinbestekoa da ori ziñez, eta gizonen artean egin beaŕ dan guzirako bezela, ortarako ere orixe izango zaigu beaŕezkoena; ots, ororen lankidetasuna. Nire aburuz, orixe izan beaŕ, lan eta bizikera ta eŕiketa guzirako oñaŕi gotoŕa. Ta gizonak alkaŕenganako anayak geranezkero, bidezkoena da bide ortatik beti joatea, gure artean egiazko gentza izan diteken. Ori da ororengana dei-egiten joateko baldintza, ta orixe da nire kardaba berezi, nagusi ta aundiena, guziok alkaŕenganako adiskide ta anai bezela beti yardutea.

—Gure Azpaŕena ontan, beste toki askotan lez, biziera aldatzen ari da, jartzen ari diran lantegiakatik; eta lengo nekazarien ondoan beste langīle-mota bat sortu zaigu, ola-langīleena. Toki batzuetan, zoritxaŕez, langīle-mota bi oyek alkaŕen aurka bezela azaltzen dira. Nik eztut iñundik ikusten ori beaŕa danik, askoz gutxiago egokia; aitzitik, mota bi oyetako langīleak alkaŕenganako lagun eta betegaŕi izan ditezke ta izan beaŕ dira, ta oŕela izan dedin alegin aundienak betetzeko guziongan eginbeaŕa. Ez dedīla iñoiz izan esandako langīle-motaen artean iñolako ezin-ikusia Azpaŕena'n.

—Gaur emen ola-gizon geyenak azpaŕenataŕak dira, asko nekazarien semeak; oŕengatik ezin gaur egun, beste leku batzuetan gertatzen dana sortu, mota bietako langīleak alkaŕ uŕuñatzea. Baña nork esan egunen batean orixe bera gertatuko ez ote dan? Auŕetik ikusi beaŕ da galbide ori ta, nire ustez, oŕelakorik emen iñoiz gerta eztedin, lantegien lana beste eraz antolatu beaŕ-izango litzake; len aipatu dudan lankidetasunaz. Baña ori eztago nire eskuetan bidean jartzea; alaz ere ori aolkatzeko gerturik nago beti, ta nekazaritzarekiko gure asmoak auŕera eraman lortzen baditugu, besteai eredu bezela aurkeztu al-izango dugu.

—Eguneko biziari buruz oŕela ikusten ditut emengo ebazkizunak. Baña ba-dago geyago, guri ere, euzkaldun guziai bezela, beste zeregin aundi bat betetzeko dagokiguna; ta ezinbestekoa da oŕezaz ere mintzatzea, argi mintzatzea ere.

—Egoeŕi'aren lege ta gogo-lantzea gurean jaŕi-erazi zizkigunetik, gero ta geyago ikusten da euzkal-gogoa beruntz abiaturik, eta beraren ordez gure artean erdal-gogoa zabaltzen doakigu. Erdal-ikastolak nun-nai ideki dizkigute ta oyetara doazen auŕai, erdal-gogo ori txertatzen ari zaye beren baitan eta oso barnean. Beste bizi-maīletan ere orobat egin nai da ta maiz, Bizkaya aldean esaten danez «naste-boŕaste, azak eta naste», mordoīoz mintzatzean eta euzkalduna dan oro galtzean.

—Bide ortatik jaŕaitu ezkero, lasteŕ gure Eŕi'arena egiña izango dugu; ikurka-makurka jausten ari zaigu gure biotzekoa dana ta izan beaŕ dana, gure euzkal-gogoa. Ta orain galdera bat: Obe ote da aŕerazten ari zaigun gogo beŕi ori, erdal-gogoa?; zalantzik ez nigan ezetz borobīla esateko, baña bakoitzak begiratu beaŕ du ori, oŕela danentz. Eta obea izango balitz ere, ba-dakigu gurea txaŕa eztala ta gurea dalako orixe dagokigula guri; bai ta gure eskubide osoa berari eustekoa dala ere.

—Euzkaleŕi osoan gertatzen ari da ori; alaz ere, Yainkoa'ri eskeŕ, euzkaldun argi batzuek gaitza nun dagoen ongi ikusi al-izan dute ta, Eŕi'arenganako maitasunaz alkarturik, eŕiz-eŕi ta bazteŕez-bazteŕ, gure kaltez agertzen dan guziaren aurka lanegiten asi dira. Beren deyarekiko, eŕitaŕen entzumena adi ta ernai; asko ta asko kide izateko eldu zaizkie ayei, ta gaur egun, xede berean, alkartasun aundia eratzen ari da eŕialde guzian. Laisteŕ, iīe onen bertan, Donostia'n bilkura zabal izateko dago; aldekide aunitz joango da ara ta, guzien auŕean, orain arte egin dana azterkatuko da, bai ta gerorako norabideak emango ere. Ni neu ara joateko asmotan nago, ta nai-izango duena ere agertzeko lain izango da.

—Nun-nai ta noiz-nai, edatzen ari dan asmo oŕen alde egin diteke beti zerbait. Noski, nik eztiot iñori orixe egiteko indartu nai; askoz gutxiago emen zuen auŕean dagozen ziñegotzigai auei. Ala ere, Euzkaleŕia guziona da ta guzion artean osotzen dugu gure Eŕia; bidezko ta beaŕezkoa da ori ez aiztutzea, ta beraren onurako zerbait egitea guziontzat ere ezinbestekoa dala. Oŕengatik, ori bai, udal guziai auxe eska dizayekegu: bete beaŕ dituzten legeak agintzen dutenetik at, gure Eŕi'aren alde al dezaketen guzia bete dezatela. Esate baterako: euzkal-ikastolai laguntza aundiena ematea; ori gure izkuntzari eusteko lan bikañenetakoa izango da beti, ta udalen eskuetan dago ortarako almen aundia.

—Ene ustez, euzkal-udalak egunen batean gaur daukaten nortasuna baño aundiagoa izango dute. Lengo euzkal-jokerari jaŕaitzean, ziñegotziak eztira izan beaŕ beren eŕietako arazoak eramateko bakaŕik; ziñegotziak erkien eta lateŕiaren agintari guziak aukeratzeko izan beaŕ dira gai, ta ortarako berak bakaŕik gai. Oŕela Eŕi guziaren jokera ta erakundea ziñegotzien eskuetan izango lirake. Orixe, nire iritziz, ortarako, gure eskubideai eusteko ta euzkal-bizia zaintzeko, bide onena ta beaŕena.

—Elburu oyetaruntz asi gera len esan dizuedan asmoaren bidez, euzkaldun guziok alkarturik gero ta anayago bizi gaitezen; gentza-beaŕean orixe bide onena; Egoeŕi ta Ipaŕeŕi'etatik datorkigun eriotzatik Euzkaleŕia gaizkatzeko.

—Gora Egoeŕia! —deadaŕa bota zuen, Mikel'i erantzunez bezela, atzealdetik norbaitek.

—Egoeŕi'tik bizia da eltzen zaiguna —beste batek.

—Zuek aña euzkaldunak gera gu, baña egoeŕitaŕak ere —irugaŕenak.


—Eztuzute zuen asmo txaŕ ori iñoiz bete al-izango, ta Egoeŕi'aren alde buŕukatzeko gerturik gagozkizue. Gora Egoeŕia! —Patxiko izan zan azken deadaŕa bota zuena.

Eta bera ta bere lagunak, alde-egin zuten gero, sutsuturik guziek gora ta goraka.

Auŕezkatzeko eragiera, iskanbil eta zalapartan, sortu zan beste guziengan, eta aŕamantza aundi artan, ayen aurkako beste oyu gogoŕak guziz asaŕeturik bota zituzten. Martin'ek jauzi-egin zuen Patxiko oratu nayez, baña lagun batzuek eragotzita, onela oyu-egin zion: —Patxiko, Patxiko, gaiztakeri-lapiko, ireak noizpait ikusiko!

Ardail eta istilua aundi ta bero; baña etsai bezela agertu ziranak alde-egiñik, guzia aurki baretu zan. Eta orduan Mikel'ek jaŕaitu zuen onela:

—Ara euzkaldunen artean, zoritxaŕez ainbestetan gertatu dana, ots, alkaŕen aurka irtetzea. Alaz ere, taldekerietan sartzeko, lengo besteetan zio txirtxilak izan ziralarik, gaurko ontan beŕiz erdibitzen goazela dirudi, baña gaŕantzi aundienetako zioaz: Eŕi'aren alde ala Eŕi'aren aurka; oŕa kiderik ezin izateko eratzen ari zaizkigun alderdiak, alkaŕen etsai. Alan eta guztiz be, gurean zerbaiten alde buŕukatu beaŕ baldin bada, oŕa Eŕi'aren bizia ortarako kari aundia; ta



ortan sartzeko gerturik bagera ere, guzien adiskidetasuna bīlatu beaŕ dugu isituki, gentza-beaŕean beti; ta gure aurka sortuko diranak ere iñoiz lagundu al baldin baditzagu, ez, Yainko'aŕen, iñoiz ezmezetan geratu oŕela jokatzeko. Eginbidea bezela aŕ dezakegu asmo ori ta, nork daki!, ba-liteke gaurko gure anai itsuen begiak idekitzeko bide ona izango dala.

Nolabait bareturik amaitu zan bīlera ta, biotzak berotuta, amaika esamesetan irten ziran guziak, auŕerantz gogoŕ jokatzeko gogo biziaz, uŕengo auteskundean asteko.

Oŕen auŕeko astean sartu ziran biaramonetik, eta ain zuzen Agate Deun'aren eguna erdi-erdian zegoelarik, aitzin-eguneko gabean oiturazko mutil-taldeak abesten irten beaŕ. Eta lendik beren burua ortarako gertuta, iñulaŕean atera ziran, beren makīlakaz, bereziki jantzita, auŕean argi-ontzi aundia eramaten. Eta oiturazko itzak, onela pizkat aldaturik:

AGATE DEUNA

Guziak Aintzaldu daigun Agate Deuna
Biar dala Deun Agate.
Etxe ontako lagun guziak
Zoriona ukan bezate.

Bakaŕik Emen bizi diran gurasoak
Seme eta semesoak,
Urte askotan izan ditzatela
Alkaŕ oso maitatuak.
Gurasoenganako itzala
Gorderik semeen aldetik,
Eta opa diedan bezela
Bizi bitez alaiturik.

Guziak Aintzaldu daigun Agate Deuna
Biar dala Deun Agate.
Eŕi onen biztanle guziak
Osasun goza bezate.

Bakaŕik Eŕi ontan dagozen lagunak
Alkaŕenganako leyaz,
Bizi ditezela adiskideak
Goratzen oso pakeaz.
Goŕotoari itxi biotzeko ate
Oro anai bizi ditezen
Maitasunean beti aŕemate
Gentza edeŕa gozatzen.

Guziak Aintzaldu daigun Agate Deuna
Biar dala Deun Agate.
Endore ziñegotzi beŕiak
Ukan Udala ongi bete.

Bakaŕik Ekandu on orori eutsita
Asabak bezela bizi,
Lege zaŕa orain beŕiztuta
Lenbailen ementxe jaŕi.
Indaŕ aundi euzkerari emanda
Euzkaltasuna zabaltzen,
Euzkal-gogo goruntz eramanda
Euzkaldun oso eratzen.

Guziak Aintzaldu daigun Agate Deuna
Biar dala Deun Agate.
Ziñopa edeŕa gogoraturik
Alaitasunez egate.

Bakaŕik Euzkaleŕia abes dezagun
Gogotik eta biotzez,
Gure abeŕia gora daigun
Anai guziz bat egiñez.
Gure artean izan ezpedi
Iñoiz ezin-ikusirik,
Alkaŕ maite dezagun aitziti
Xede ortaz leyaturik.

Guziak Aintzaldu daigun Agate Deuna
Biar dala Deun Agate.
Eutsi bedi siñesmen aundiari
Auŕ naiz zaŕak eta gazte.

Bakaŕik Izan gaitezen anayak oro
Emen ta Ludi'an zeaŕ,
Gentza goza dezagun aboro
Besarkatuz gogoz alkaŕ.
Izan bedi Luŕa atsegin-baratz
Lau-egaletan edeŕa,
Anaitasunean guziak maratz
Bazteŕerazita ayeŕa.

Guziak Aintzaldu daigun Agate Deuna
Biar dala Deun Agate.
Abes dezagun biotzez guziok
Gentza izan bedi bete!!

Eldu ere eldu zan azkenez auteskunderako eguna; ortarako giroa beroturik zegoela-ta, otzari bilduŕ gutxi, ta autesle agertu nayean, ia iñor etzan geratu bere autarkia eman gabe, uŕunenak zegozen eŕietatik ere Araya'raño bide nekegaŕi egitean.

Ororen ustez baseŕitaŕengandik jokera noruntz emango zan, zalantzik ez; langiīeen artetik, alaz ere, arazoa enurazkoa zan eta ba-zirudien oyek auzia ebakiko zutela.

Alderdi bakoitzean keŕ-keŕ sarturik zegozenak, ba-zekiten gutxi gorabera an agertuko ziranen joera, langiīe geyenai buruz ezpayaz egonaŕen; eta udaletxe auŕean zebilzten talde bakoitzaren txartelak eskeintzen eta berenaren alde, deadarka, zabalkundea egiten. Deadaŕak entzutean, bilduŕa edatzen ari zan askoren artean, ia an oyuak baño geyago ikusi beaŕ-izango ote zan.

Baña azkenez guzia deadaŕetan geratu zan, eta autarkiak zenbatzeko ordua ere eldu zan, auteskundea amaituta. Ondorea laisteŕ zai zegozen guziengana, zenbakietan emana; ta, tarte aundia zegoelarik, Mikel'en lagunak autatuak agertu ziran sail guzietarako.

Beren alderdi-zaleak goraka artu zuten ondorearen beŕia; bes-

teak ixil eta naigabeturik oso, ta txintik esan gabe alde-egin zuten, mutuŕ eta aseŕe garaiīeenganuntz begi-makuŕez betalde zoŕotzak zuzendurik.

Mikel, Eguŕola ta onen lagunai zorionak eman eta bere laguntza eskeiñi ondoren, Martin'ekin eta amamiotaŕ beste batzuekin etxeruntz ere abiatu zan. Baña, bide-lagunak, pozaŕen-pozez, auteskundearen goraberak eta ondoreari buruz, alkaŕi sutsu mintzatzen zijoazenean, bere oldozmena etzetoŕen besteenekin batera. —Bai —ziñoen berekiko— buŕukaren lenengo ekiñaldia irabazi dugu emen; alabaña buŕuka asi da; noraño eldu dakiguke?, ta nola eramango da batzuen eta besteen aldetik? Buŕukarekin batera ezin-ikusia ere berpiztu da, ta enurarik gabe areago gorbiztuko zaīgu auŕerantzean, noraño?, goŕoto bizia biurtu arte?, goŕotogaŕizko taldeak, beŕiz ementxe, aspaldiko ayek bezela, auŕez-auŕe? ... —

—Beste eŕi ta urietan ere, orixe bera gertatuko dala uste beaŕ ... Oŕela, nun eta noizko gentza? —Euzkaldunen mendua ezagutzen zuelarik, buŕuka beŕian ere sutsuki ari-izango zirala ziuŕ zegoen, eta taldeetan aski sartu ezkero, tokirik ez gentzarako. Ta oldozpen oŕek goibeldu zuen zearo bere gogoa.

Eŕi'aren egokera noraño jetxi zan gogoraturik, ezinbestekoa zeritzayon, bere azkatasuna lortzeko, beaŕ-beaŕa zala buŕukatzea; buŕuka ori, alan eta guzti, etzan egoeŕitaŕen aurka bakaŕik izango; oŕela izango balitz gaitzerdi; baña dagoaneko, ba-zegozen euzkaldunak ere oyen aldeko, ta anayak ziranen aurka gudatzearen beaŕaz guztiz mingoiztuta ikusten zuen bere burua.

Etzan, alabaña, atzera egiterik; lendik sumatutako guda asi zan, eta auŕera jo beaŕ, beti Eŕi'aren azkatasunaren alde. Auŕeruntz beraz; baña bere aldetik, ortaz gañera, arerio izango zuen guziaren alde, biziaren beste arazoetan alik eta geyen laguntzeko xedea mamitu zitzayon beŕiz ere barnean; eta lagunai oŕelaxe jokatzeko esondatuko lieke yoran aundienaz.

Bein eta beŕiro, guda-beaŕa ta gentza-naya bekoz-beko bere baitan, bere biotza guziz goibeltzen, bere gogoa txit iīuntzen. Bere bizia, beti, oŕela eraman beaŕ ausaz?...

Gau artan, iīun oso buruan azpegi, begiak batu eziñean, orduak luzeegi.

Neguko bīlera

Urtezaroari zegokionez, egun-uŕatzea berandu ta nagi bezela eltzen bazan, Mikel'en ustez, egun artan, askoz beranduago ta nagiegia ere izan zitzayon, auteskundearen uŕengo egunekoa, alegia. Kirioak leŕ-egiteko eraz nabaritzen zituen barnean, eta burua aztun eta mindurik, lo-gabeko gau-ikaste luze baten ondoreko bezela, nun eta nola jaŕi, eskuin ala ezkeŕera jotzean, etzin eziñean ibīlita. Oŕengatik, egundu bezin laisteŕ, leyo-ziŕitutik sartu zitzayon lenengo argi-izpia, batu gabeko zegozen begietaraño eldu-ta, punpe bateaz zutik aurkitu zuen mutīlak bere burua, izpi arek bultzaīlu batean jo ta eragin balu bezela.

Eta bein zutundurik izan, norabait berandu eltzeko bilduŕez egongo bailitzan, zaŕapastaka asi zan eguneroko beaŕak betetzen eta aurki sukaldean zegoen, mintzatzeko edo an norbait egongo zalakoan; iñor aurkitu ez, ordea, ta oŕela nabaritu zitzayon bereziki goizegi zebīlela. Iñoren ezta ezeren zai egoteko arterik artu eziñik, kaleratu zan gizona, ta gabean jausitako eduŕ lantzurdutan berak iraŕi zituen egun artan eŕiko lenengo uŕatsak. Ibiltzeko gogoak edo eraginda, eŕiaren zeaŕ abiatu zan zaŕapaŕa, zerbait egitera lenbailen erduteko beaŕean izango balitz bezela. Edurteak edo bildutako otzaz, aizeak ziztakoŕ jotzen zion arpegia, ta gabeko sukaŕa nolabait arinduta oartu zuen oŕela.

Ara ta ona, nora gabe, aldeŕai, biraka ibīli ondoren, azkenez bere korta auŕean aurkitu zan, eta ortarako lendik gerturik izan bailitzan, baŕura sartu ta bere abelgoŕiak nola zegozen begiratzen asi zan, guziak ongi ta batzuk oindiño esnatu gabe ikustean. Oŕelaxe eginbeaŕa bete egin zuela iruditu zitzayon, eta, nolabait baretuago, etxera itzultzeko gogoa pizturik, berealaxen sukaldera sartu zan, bigaŕenez goize artan. Etzuen aurkitu oraingoan, len bezela bazteŕ ura utzik; ba-zegoen an ama; entzun zuen onek semearen lengo ibīlera ta mutīlari buruz kezkatsu emakumea, zer zala-ta igaŕi eziñean; oŕengatik, semea ikusi zueneko:

—Ama'k: Nun abil, mutil?, zer dala-ta oŕen goiz jeikitzeko?, ez ote duk ongi lo-egin, ala? Nola irten aiz oŕen azkaŕ ta ezer artu gabe gañera? Ez al ago ondo?

—Mikel'ek: Ziñez eztakit zer esan ere. Gau guzia joan zait begiak batu gabe; bai luzea dan lo-gabeko gaba; aspergaŕia oso oean itxarturik egon beaŕa, bira ta biraka ta lo-egiterik eziñean. Oŕengatik jeiki naiz eztakit zeren beartuta; emen, noski, eztut iñor aurkitu ta, geldirik geratzeko almenik gabe, kalera joan naiz norabiderik artzeke. Alaz ere, goizeko otzak on egin didala uste dut eta orain obetotxo nago; ezer ez, azkenez.

—Ama'k: Baña ez al duk buruko miña ala beste zerbait?; zergatik ez oa beŕiz oera, ia orain lo-egin ote dezakekan?; egon lasai eguerdi arte beñepein; eta gosaldu ezak lenengoz.

—Mikel'ek: Gosaldu bai, egingo dut, baña oera beŕiz ez; beaŕik ez ortarako ta ...

—Aita'k —orduantxe elduta—: Egun on!; zer dugu, bada, oŕen goiz ibiltzeko?, ez ote da obe eguraldi ontaz oean egotea?

—Ama'k: Etzekiat, bada, mutil oni zer gertatu zayokan; gau guzian lo-egin eziñean egon eta egunarekin jeiki beaŕ.

—Aita'k: Geixorik ezpaagokiguk, zer edo zer gertatu beaŕ i bezelako gazte batengandik loa gabaz aldentzeko.

—Mikel'ek: Ortaz izpidean zagoz aita; ongi dakit, bai, azken gaba oŕela igarotzeko ukan dudan zioa. Ba-dakizute, atzoko auteskundea; nai genituenak irabazi dute, baña oŕek eztit eman ustekoa zan poza; galdu dutenengan eztut eŕazko begirakadak baño besterik ikusi, ta argi agertzen da oyek, naiz eta bertako anayak izan, arerio biurtu zaizkigula; ta etsai-zuŕian yardun beaŕ ezkero, giroa ezta oso gozoa izango, iñorentzat ez, gañera. Ba-dirudi oŕela gentza ere koloka geratu zaigula, ta gerokoari buruz kexu egoteko ezinbesteko ondorioa. Guzi ori ene baitan irabiatzen ari-izan zaidala-ta, oŕa nire lo-galtzearen kari.

—Aita'k: Gertatu zaikan ori eztuk aŕitzeko. Asi zeraten bidean, oŕa lenengo oztopoa, txikia eztukana, aundienetako apika, auzoan etsayak eukitzeak onik ekaŕiko ezpaitik ez eta erosoa. Baña beste batzuk ere elduko zaizkizue, auŕera jotzeko aspertzen ezpazerate. Tira, nare adi ta auŕerantzean ona izango zaik guzia artegatasun aundirik gabe artzea; egin gutxienez ortarako egiñalak.

Gosaldu ondoren eta gurasoekin izandako solasaldi ura egiñik, Mikel lasayago geratu zan; eguneroko lanetan sartu zan gero, jeiki zanean uste-izan zuen baño adoretsuago.

Aŕatsaldean, beste egunetan bezela, Aintzane ikustera joan zan, eta neskatxak bereala:

—Aintzane'k: Nola ago, gizona?, ba-zekiat, ire aŕebak esanda, gau txaŕa izan dukala, bai ta zergatik ere; baretu al aiz onezkero?

—Mikel'ek: Jakin-erazi dikin, beraz, Maḍalen'ek nire azken gau-aldia. Zer nai dun?, ezin gañetik kendu gertatutakoak eman zidanen kexutasuna; etzidan oŕek aŕitzekorik ekaŕi, baña lendik ere oŕen susmoa ukanaŕen, oso ituna izan zaidan eta gerorako ere kexugaŕi oso. Eŕi'aren alde lanegiteko, buŕukatzea ere baitezpadakoa zirudin, eta buŕukatu ezkero gentza pikotara. Oŕa alkaŕen aurka, nai ta nai ez, artu beaŕ zitiñagun bi jokerak.

—Aintzane'k: Ulertzen diat, Mikel, ongi ene ustez, ondo ere baitzekiat gentzarako ire lei bizia; ta bide batez Eŕi'aŕenganako eginbeaŕak zein ertsiki lotzen aun, batik bat zuen ziña egin ondoren. Alkaŕen aurkako, bai, izango zitiagu beti bi jokera oyek eta eztiat uste, zoritxaŕez, atzoko ire gau txaŕa azkena izan ditekeanik.

—Mikel'ek: Egitan, nire lo-gabeko gabak ala beste naigabeak jasatzea, gutxiena izango zaigun; txaŕena, euzkaldunak beŕiro be alkaŕenganako buruz-buruko yardutea izango diñagu.

—Aintzane'k: Ezinbesteko zirudik ori, gaurkotz bederen. Nik eztiat argi ikusten euzkaldun batzuen jokera, Egoeŕi aldetik zetozkiguan kalteak oŕen aundiak izanik, eta emen Egoeŕi'ren alde jokatzea. Oyengan ez ote euzkal-biotzik?

—Mikel'ek: Eztun oraingoa gure Eŕi'an oŕelaxe lendabizi ari-izan dunena; baña len itsutasun aundia zegokiñan gure auŕekoen artean; gaur beŕiz itsutasun ura uŕatu egin dun, gure arloa argiago ikus diteken eta bidezkoena euzkaldun guziek beren Eŕi'aren alde jokatzea izango uken; baña oŕelakorik eztunala aitortu beaŕ.

—Aintzane'k: Edozein eraz eta dena den, ba-dakik ni bederen irekin nauala ta ire uŕats guzietan ene laguntza txikia, baña guzia, beti izango dukala. Lenengoz norabide oneko bidean sarturik agoelako, baña batez ere —ta emen neskak burua makurtu zuen pizkat— biotzez maite audala-ta, ire atsekabeak nireak ere egitea nai diadalako.

Mikel'ek, orduan, neskaren bi eskuak artu ta maitekiro estutu

zizkion; eta biotz-unkiturik: —Eskeŕik ainitz, Aintzane —esan zion— nik ere gero ta geyago maite audala uste diñat, eta gure maitasun au, niretzat, lasaigaŕi ta adoregaŕia dun, ziñez. Goazeman auŕera, bada, ta Yainkoa'k lagun gaitzanala.

Etxeratu zanean, Mikel'ek bere burua ekuruago oartzen zuen, eta bere xedeetan jaŕaitzeko, bere indaŕak ere geituta bere baitan. Eta uŕengo gaba lo-zoŕoan igaro zitzayon, goizerarte esnatu bage.

Zalui ta bizkoŕago jeiki zan, eta goize artan bertan beste bi laguntza eldu zitzaizkion, mugonez arean. Lenengoz, «Azpaŕena'ko Elkargo»'rako Gasteiz'en iraŕitako idaztiñoa artu zuen, miĪa igekitan egiña; ta aldi berean Eneko ta Sabin'en gutun bana; ta guzi ori artzerakoan poz aundia erne ta edatu zitzayon barne-barnean. Oso leyaturik, idaztiñoen estalkia ta gutun-azalak uŕatu zituen berealaxe.

Bere adiskideek beren beŕi batzuk ematen zizkioten, baña bereziki bi gutunak dei bat egiteko izan ziran idatzita: Neguko biĪerarako deya. Lendik erabakita zutenez, Donostia'n egingo zan, otsaiĪaren azken igandean. Ayek uste zutenez, auŕekoetan baño bilkurakide geyago izango zan, ororen asmoa gero ta edapen zabalagoan geitzen zijoala argi ikusten zalako. Eta ia Araba aldetik ere lagun-piĪo edeŕ bat joan ote liteken galdetzen zioten.

Pizkorgaŕia izan zitzayon Mikel'i bere adiskideen deya, ta bere aldetik erantzun egokia emateko, bereala asi zan bere abiamenak egiten. Idaztiñoa irarkolatik nola atera zan begiratu ondoren, eta ongi xamaŕ aurkiturik, Martin'gana jo zuen xixta-pixtan; beti bezela bere lantegian aurkitu zuen zura ta txirbiĪen artean lan eta lan.

—Mikel'ek: Egun on!, Martin; barka nazak ire lanean zeaŕerazteko baldin banatorkik, baña beŕi on eta gaŕantzidunak eldu zaizkidak eta ...

—Martin'ek: Ez ibiĪi, mutil, barka-eske; ia zer dakarkian.

Guziaren beŕi eman zion Mikel'ek, onela mintzatuz, gero:

—Mikel'ek: Idaztiñoen erdia edo, emen Azpaŕena'n bertan banatzeko egokia izango dukala uste diat; eta beste erdia Donostia'ra eraman dezakeagu, batzarkideai eskeintzeko.

—Gero, biĪeraren beŕia lagun guziai ematea beaŕezkoa zaiguk, eta nire aldetik bereala Gasteiz'ko adiskideai ere idatziko zieat, berak beste eŕietakoai be orobat egin dizayetekan; ia arabaŕak talde egoki bat burutzea al ote dezakeagun. Sabin eta Eneko'ri erantzungo zieat bereala, beren asmoa ongi artu diagula ta gertutzen ere asi gaituala

jakin-erazteko. Xabier'i be idatziko zioat, al-izan ezkero, napartaŕ eta arabaŕak Altzazua'n edo bilduta, gero alkaŕekin joatea, ia ongi ote zeritzayoan galdetzeko.

Martin'ek ontzat artu zuen guzia, ta Donostia'ra joateko eguna eldu arte izan zituzten bi aste ayetan, zin-ziñez ari-izan ziran beren asmoetarako guzia gertutzen. Eta Xabier'ek ere onartu zuen biĺeraren auŕeko egunean, larunbat aŕatsaldean, Altzazua'n bere lagunekin agertzea, gero arabaŕekin jaŕaitzeko. Azpaŕena'tik sei lagun joango ziran: Mikel, Martin, Yokin, Elizegi ta onen beste bi adiskide, bat Ilarduya'koa ta bestea Zalduendo'koa. Gasteiz'ko ta Araba'ko beste eŕi batzuetakoak, Mikel eta bere lagunek artuko luketen bultzian ere Araya'runtz etortzeko.

Burunda arana, Gipuzkoa'tik baña batez ere Araba'tik Napaŕoa'n sartzeko, toki egokiena; adiskide ala etsai gisaz, an ate erosoena ausaz. Edestian barna ba-dirudi arerioek adiskideak baño obeki ezagutu dutela bide ori, ta izkiĺuz asaro orniturik, Napaŕoa menperatzeko amoŕaturik, beraren zeaŕ guda-santzuz eta buŕunbaz auŕeratu beaŕ, gazteluak biŕintzeko, napartaŕak esesteko, Eŕi osoa zapaltzeko. Bein edo bein burniz eta suaz jasan beaŕ napartaŕen aldetik, oŕelaxe egin zitzayen erasoaz, luŕa bustiko zuten odol goŕiaz eta malkoakaz. Eztute ura aiztu napartaŕen artean, eta kexu gero saŕi Burunda arana aipatzean.

Alan eta guzti be, gudarako bidea gentzarako izan diteke bide obea. Izadia bera izateko eredu, ta nola izan diteken ongi erakusten du. Naiz Gipuzkoa'ko Altzania'tik naiz Araba'ko Azpaŕena aldetik, urak datozkio Napaŕoa'ri, Burunda'n ain zuzen danak bat izateko edo kartsuki; ta urak an alkartzean, auŕera joateko, gogoz biurtzen dira Napaŕoa'ren izaeran; ongienik arabaŕ, gipuzkoaŕ eta napartaŕak oŕela alkarturik.

Baña bide guzietan, mutuŕ batetik besteruntz, eta aitzitik bestetik lenengoruntz ere joateko, gerta ditezken mugonetan abiatu ta auŕeratzeko izan gaitezken asmoetan, nor ote gero ezpai ta zalantzetan? Asmo beŕiak, ala zaŕak beŕitu, ikusten ditu orain Euzkaleŕi'ak; lau adiskideen ziñetik edatzen doazkio gogoetan barna tinko atsikirik eta indaŕa ere orori dario.

Burunda'runtz gaur arabaŕak, Burunda'runtz ere napartaŕak, eta alkaŕekin aurkitzean estuenak besarkadak. Eunen bat arabaŕak, gitxi goiti beiti napartaŕak, Mikel eta Xabier buruzagi.

—Au poza, Xabier — lenengoak; — ene atsegiña benetan Mikel — bigaŕenak; — auetxek gure talde edeŕak!, — oro alkaŕen anayak!, — izan gaitezan oŕela beti, auŕera jotzeko ausarti ...!

Orga batean guziak kokaturik, alkaŕen beŕi gogoz emanik, Donostia'runtz pozik laisteŕ abiaturik, abestuten, mintzatzen, alkaŕ ezagutzen, ametsak gozatzen. Aldapaz gora bultzia, Etxegarate gaĺuŕera iritxia; Aitzkoŕi'ren oñetatik beruntz eta amaika lurpe-bidetik; Gipuzkoa'n barnera, Goyeŕi'tik Beteŕi'ra, Oria ibai-ertzetik; eŕi batzuetan gogaideak bultzira ere lagunketan. Donostia'ra orduko irureunen bat taldean osotuko.

Zai zegozenak biotzak eztitan; Eneko ta Sabin auŕelari, beste zinkideak besarkatzeko iŕikitan, barnetik alai eta pozkari.

Ura gaztedia!, ura mutil-talde edeŕ, sendo ta indartia! Nora zoaze gazteak?, zeintzuk ote zuen apetak?, norako ametsak?, zer edo norentzako maitasunak? Gazteengan gogo, amets eta maitasuna; biotzean bat dagite, iruna. Zuengan, apika, ero baña bero?; ez, ez eta ez, bero bai baña zuguŕ oro. Zerk ziztatu ote dio, bada, zuen biotzari oŕen kartsu ta saloberio?

Kalean barnera guziak gerturik zegoen ostatura. Biaramoneko bilkura nola antolatua zan jakiteko, oŕi bana ororen eskura, ta eldutako aŕatsaren azken orduak norberak ustiatzeko bere araura.

Idekita zegoen, dagoaneko, Donostia'ko batzokia, ta ara eraman zituen Eneko'k bere iru zinkideak, lauron artean uŕengo eguneko biĺeraren goraberak ongienik atondurik uzteko asmoz.

—Eneko'k: Ba-gera gure irugaŕen bilkura-auŕean eta beaŕa zaigunez auŕekoetan baño lagun geyago izango gera biar. Bizkaya ta Araba'tik etortzeko guziak emen zagozela uste dut. Napaŕoa'tik geyenak ere, baña biar goizean Baztan aldekoak elduko dira, Gipuzkoa'ko eŕi askotakoekin batera; bai ta Gexan ere Laburdi'ko adiskide batzuekin. Okeŕ aundia ezpadagit, miĺaren bat edo geixeago izango gera biar batzarkide.

—Sabin'ek: Atsegiña benetan ori, ta aŕigaŕitzat eukitzeko gure asmoak bazteŕ guzietan lortu duten aŕakasta. Ongienik erakusten digu oŕek, euzkaldunentzako bidea egiazki aurkitu dugula, ta euzkal-biotzak oŕen zai edo zegozela esango nuke, oŕen azkaŕ eta oŕen kartsuki ororen aldetik onartzeko.

—Iri zegokik, Eneko, biarko bilkura zuzentzea ta gure aurkezpe-

na ere egitea; uste diat ortarako gerturik agoela. Noski bakoitzak aipatuko ditugu lendik norberarentzat artu genituen gayak, baña izkuntzarena izateko nagusiena. Beraz, Mikel, Xabier eta irurok mintzatu ondoren ik adierazteko euzkeratzaz egun eta egiteko daukazuten guzia; bilkuraren aldi geyena gai oŕi emateko, ta oŕelaxe Donostia'ko biĺera euzkerarena izango dugu.

Ontzat artu zuten besteak Sabin'ek esandakoa, ta gero alkaŕi ari zitzaizkion bakoitzaren beŕiak ematen.

Mikel'ek, noski, Azpaŕena'ko auteskundean lortutako gurenda jakin-erazi zien bere lagunai, ta aldi berean buŕukarako ondorio txaŕa ere; bilduŕ zegoela, gañeratu zuen, beste tokietan ere beste ainbeste gertatuko ez ote zan.

—Xabier'ek: Enurarik ez ortaz, mutil; buŕukak, nai ta nai ez, nun-nai sortuko zaizkigu, ta Iruña aldean ere, beti arerioak izango ditugun Egoeŕizaleak asi dira onezkero gure asmoen aurkako beren burua gertutzen.

—Sabin'ek: Bai, egoeŕitaŕak eta emengo beren adiskideak ere, zoritxaŕez, gauza baterako agertu dira beren edestian beti bat egin da, ain zuzen euzkal-biziaren eta Euzkal-Eŕi'aren aurka jotzeko. Bein edo bein gure Eŕi au zearo menperaturik zeukatela uste-izan zuten, eta ia aiztuta bezela zegozen, beren elburu ori guztiz lortuta zeukatelakoan. Baña beŕiz esnatzen asi gerala ikusi bezin laisteŕ kezkatsu oso guziak. Oŕengatik argi ikusi beaŕ dugu auŕerantzean buŕuka luze, gogoŕ eta bizi izango dugula; ta ortarako ongienik gertu egin beaŕ geron aldetik ere.

—Mikel'ek: Eztago enurarik ortaz eta ongi agertu zait ori nire bazteŕean ere, len esan dizuedanez; nire iduriko, ortan txaŕena izango duguna, euzkaldunak beŕiz erdibiturik eta alkaŕen aurka ere izango gerala; beraz, ba-dirudi gurean pakeak iñoiz tokirik aurkitu beaŕ eztuela.

—Sabin'ek: Deitoragaŕia dugu ori, bai, baña orain sortzen ari zaigun buŕuka ezta auŕeko besteak bezela izango; orain argia egin da gurean eta, ontaz, ozenki ta garbi-garbi, argi ori adierazteko alegindurik yardun beaŕ dugulakoan nago. Gaurko egunean asten dan gure buŕuka, onela izango da ta onela ere izan beaŕ da: gure abeŕiaren bizia erabakitzeko gayaz arturik, alde ala aurka izateko. Elburua ezta izango, gurean izan diran beste buŕukaetarako erabiĺirik

izan ziran xede zirtziĺak, taldeen maitakeri ta kasketaldiak soŕerazi zituztenak bezela; orain Eŕi'aren bizia jokuan jartzen dugu, ta ori ezta txantxetan ibiltzeko ezer, ori onargaŕia da oso, batez ere itzaltzeko zorian dagoelarik ikusi-ta.

—Mikel'ek: Izpidean ago Sabin, eta ezinbestekoa izango zaiguk buŕuka ortan bipil sartzea. Baña, alan eta guztiz be, aiztu eztakigukala gizonak beti ta nun-nai pakearen alde ere jokatu beaŕ dikala; beraz, ene iduriko batera aldaŕikatu beaŕ zitiagu Eŕi'aren bizi-beaŕa, bere eskubidea ta guretzat eta gizon guzientzako gentza-beaŕa ere.

—Xabier'ek: Buŕuka ta gentza alkaŕen aurka agertuko dira beti, baña gure buŕuka ta geron buruari ta edonori opa beaŕ diogun gentza buruz-buru ez jartzeko alegin gaitezke, gurean egiazko gentzarako, gure Eŕi'aren bizi ta eskubidea baitezpadako oñaŕiak ditugulako.

—Sabin'ek: Aipagaŕiak dira, noski, zuen iritzi oyek, eta nire aldetik ere gogoz artzen ditut niretzat eta gure eginkizunerako ere. Ez digute siñistuko askoren aldetik, eta gure etsayek beti pakearen aurkakoak bezela izendatuko gaituzte.

Onela amaitu zan lau adiskideen bilkura txikia ta, alkaŕekin apaldu ondoren, lotara joan ziran uŕengo egunerako ametsetan.

Argi-uŕatsez asi zan Donostia'n ere otsaiĺaren azken igande ura, ez ala ere oso goiz ez eta argi zabalean ere; neguan uri artan maiz gertatzen danez eta, apika, egun ayetan berdin izateko urtearen lenengo aro-muga urbil zegoelako, ipaŕ-aize goŕiak, zakaŕ eta aldagoi, itxasaldetik zetoŕela, gogoŕ jotzen zuen uria, kale guzietan barna indaŕez sarturik. Oŕelako aizea ta euria alkartzen diranean, gizalagun gutxi Donostia'ko kaleetan, eta bertako biztanleak, beaŕ goŕiren bat izanezik, etxean geratzen dira aterpean egoteko.

Eguraldi txaŕ artaz, eguna ere eltzeko uzkuŕ agertzen zan eta, azaltzeko bearturik, otz, iĺun eta itun sortu zan azkenez gabaren altzotik. Gure batzarkideen esnatzea, oŕela, etzan alaigaŕia izan, eta leyoetatik eguna nola zetoŕen ikustean, muzin eta inki-minki geyenen arpegia. Alaz ere, ororen yorana berak biotzak goratu zituen eta aurki zegozen guziak bilkurara joateko gerturik, gaztetasunaren beroak laisteŕ eguraldiaren otza gaindu zuelarik.

Iragaŕitako orduan biĺera-tokia, ikuskizunetarako egokia zan areto aundia, bete-beterik agertzen zan, aunitz gazte bertan alkarturik, ia miĺa, miĺatik gora ezpazan. Eta maipuruan, izlari izateko ezagunak ditugun gure lau adiskide, Donostia'ko batzokian zuzendari zegozen

beste iru maikideek lagunduta; bai ta Laburdi'tik eldutako Gexan ere.

Jeiki zan Eneko bereala ta, besterik gabe, aretoan zegoen aŕabotsa bat-batean itzali zan, ororengan entzuteko leya nolako aundia zala erakusten.

—Aguŕ adiskideok! —asi zan Eneko— Araba'tik eta Napaŕoa'tik, naiz Laburdi, Bizkaya ta Gipuzkoa'tik erdu zeraten guzioi biotzez egiten dizuedan nire aguŕ anaikoŕena, onaŕ ezaidazute oŕela, otoi. Gaur eguraldiak aurkeztu digun arpegi txaŕa, ez da eragozpenik izan guziok emen biltzeko, ta gure agerkera au, bidean soŕ dakizkiguken oztopo guzien gañetik igarotzeko naimen biziaren ayerutzat aŕ dezakegu. Asmo ontaz, nire aguŕa beroago doakizue.

—Eŕi'aren alde asita dugun eginkizunaren irugaŕen bilkura dugu au, negukoa. Lenengoa, udakoa, Araba'ko Amamio eŕian egin genuen, ango gure auŕekoek euzkaldunen batasunaren alde eman zuten deya guretzat ereduz eta asiera bezela artu nai-izan dugulako; bigaŕena, udazkenekoa, Iruña'n izan zan; eta laugaŕena, Yaĩnkoa lagun, udabeŕikoa, Bilbao'n burutzekoa izango da. Oŕela, urtean barna, lau bilkura orokaŕ egiteko xedeaz asi gera, urtezaro bakoitzean bat; urtez-urte tokiz alda ditezke biĩerak, baña oraingoz bederen urte bakoitzean lau egitea egokia izango dala deritzaigu.

—Gaurko ontan, gure izkuntza oni dagokiona izango dugu gai nagusia; baña labuŕago bada ere, beste gayakaz zerbait esatea beaŕezkoa izango zaigu, orain arte egin dana bederen ororen auŕean aurkezteko, ta, oŕela, gure ekintza nola doakigun jakin-erazteko.

—Beraz, orain, arabaŕa dugun Ezeolaza'taŕ Mikel adiskideak, berari emandako ta berak gogoz artutako arazoaz itzegingo dizue. Landizti-ikaskizunak egokienik bete ondoren, eztu nai-izan lortutako ikas-agerkayak goragoko toki erosoen biĩa joateko ematen dion bidean sartu, ta luŕarekiko maitasunaz Amamio bere eŕiko gurasoen etxean geratzea nayago-izan du, an nekazaritzan lan eta bizi-izateko xedeaz. Auŕa zalarik eman zan bere eŕian len aipatu dudan deya, ta oso atxikita dugu ari. Ia, Mikel!

—Mikel'ek: Aguŕ euzkaldunok. Pozik eskeintzen dizkizuet nire aguŕarekin, nigaz etoŕi diran beste arabaŕena ta Araba osoarena ere. Biĩera ontan, auŕerantzean egin ditzakegun besteetan bezela, gure eginkizunean egiña dagoena, egiten ari gerana ta gerorakoa ere, jakin-erazi, aztertu ta iragaŕi dagokigula ustean, ene aldetik luŕarekiko

gayaz ari-izango natzaizue; Eneko'k esan dizuenez, gai ori bereziki niretzat aukeratua asieratik izan zalako.

—Luŕatik datoŕ gizonaren gorputza, siñismenak batez ere irakasten digun bezela; ta luŕetik datozkigu gure gorputzari eusteko beaŕak ditugun azkuŕiak ere. Ba-dago bi egipen oyetan zioa naikoa baño geyago ere, luŕa barne-barnetik maite dezagun, jayotzeko ta bizi-izateko, guziontzat, egiazko ama baita.

—Oŕengatik bidezkoa da gure luŕa zaintzeko alegin aundienak egitea, berarengandik datozkigun etekiñak obetzeko ta luŕan bertan lan dagitenen bizia laguntzeko, azkartzeko ta goratzeko ere.

—Asmo auek ia aurtzarotik asi ziran ene baitan mamitzen, eta oyek eraman ninduten nik egindako ikasketan ker-ker ari-izateko; ta oyetxek berak, gero, nire gurasoen etxe, eŕi ta luŕetan bizi-izateko lotu naute.

—Geyago, norabidean berean beti, Azpaŕena gure aranean bizi ta lan dagiten nekazariekin alkartasun aundi bat egiteko xedeaz nagokizue; alkartasun ori nola izan diteken ango nekazariei erakusteko, idaztiño bat argitaratu dut, eta orain egun gutxi ayen artean banatu ditut idaztiñoaren ale batzuk; beste batzuk ona ekaŕi ditut eta emen dauzkat zuen arteko nai-izango duenari ere emateko.

—Nire azpaŕenataŕak asmoa ontzat artzen badute, udabeŕi ontan bertan gure alkartasuna bidean jaŕi nai-izango nuke. Ta orixe duzute nire gayari buruz orain arte bete al-izan dudana.

—Ba-dut, ala ere, kardaba aundi bat gu ororen eginkizunari buruz; barne-barnean kokaturik daramat eta batzuetan ageŕerazi badut ere, abagune guzietan aipatzeko gogoa dut, gaurkoa egokienetakoa dala deritzaidalarik.

—Gentzaren beaŕa dut kardaba ori, gentza gizon guzientzat ain beaŕa baita. Eta geron aldetik gure Eŕi'aren biziari eusteko asi dugun eginkizuna, egitan, egiazko guda dalako, ba-dirudi gudatzeko beaŕa ta gentzarako yorana batera etoŕi ezin ditezkela, guda ta gentza alkaŕen aurkako asmoak izanik.

—Baña egiazko gentza izan dedin, emen eta edonun, bi oñaŕi gotoŕen gañean jaŕita izan beaŕ: zuzentza ta maitasuna; oyen gabekorik ezin gentzarik. Eta gure Eŕi'aren gaurko egokeran eztago zuzentzarik ez eta maitasunik ere; oŕengatik datoŕ gudatzeko beaŕa, zuzentza jaŕirik izan dedin eta berarekin alkaŕenganako maitasuna ere

zabal diteken. Eta orduan bakaŕik jaŕi al-izango da gurean gotoŕ gentza.

—Ori dala-ta, ene ustez, gure uŕats guzietan, gentzarako naimenaz yardun beaŕ dugulakoan nago, gentza nola ulertu beaŕ dan guziai jakin-erazten.

—Orixe da zuei esateko nuena ta naiz nik aipatutako gayai buruz naiz besteekiko ere, beti elkarbidean ari-izango gerala ustean, gaurko nire egitekoa amaitzen dut, guzioi nire aguŕ anaikoŕena beŕiz eskeintzen dizuedalarik.

Txalo bero jo-egin zioten entzuleek Mikel'i, ta Eneko'k, bereala, Xabieri'i eman zion itza.

—Xabier'ek: Aguŕ, ene aberkideok. Ezeolaza adiskideari entzun ondoren, niri dagokit, oŕelaxe atondu dalako, nire gain jaŕitako gayari buruz mintzatzea, benetan pozik egin nai dudana. Guziok edo dakizute gai ori zein dan, bi azpegi auek inguratzen dituena: euzkaleskubidea ta euzkal-edestia. Biak dira gaŕantzi aundienetakoak, eta biak ere alkarturik begiratu beaŕ-izango ditugu, nun-nai oŕela agertzen diralako.

—Baña edestiak, ororen beŕia ematen digunezkero, eskubidea ere zein dan jakin-erazten digu; oŕengatik, ene ustez, edestia da lendabizi, ongi ta sakon ikasi ta irakasi beaŕ duguna.

—Eŕi guzietan edo geyenetan bederik, norberaren auŕekoek aspaldin burutu zituzten egipen aundiak nabari-erazten dituzte aŕo-aŕo, lengo edesti ortan guzia margo ortakoa izango balitz bezela; ta bide batez txaŕ ala okeŕ izan diran beste egipenak aŕetaz ixiltzen dira.

—Baña gizonarena da gaizki ala ongi jokatzea, ta okeŕak ere egitea; zergatik ororen beŕia ez ematea? Nire iduriko, ta asi dugun buŕuka ontarako bereziki, geyago dagokigu gure auŕekoek egin zituzten okeŕak zeintzuek eta nolakoak izan ziran jakitea, ain zuzen gaurko egokera okeŕ ayen ondorioa bezela begira dezakegulako, baña batez ere okeŕ berean beŕiz jausi ez gaitezen.

—Xede ortaz, beraz, Iruña'ko batzokian biltzen geranok, argitaratzeko asmoz, gure Eŕi'aren edestia idazten ari gera, alik eta zeatz aundienekin azaltzeko gogoaz eta bi motazko idaztietan: lenengoan guzi-guzia ager dedin, eta bestea, laburpen baten eraz, aŕuntago ta, oŕela, zabalduago banaturik izan dedin.

—Baña bietan gure auŕekoen okeŕ aundienak argi-argi ageŕerazi-ko ditugu, ororentzako ikaskizun egokia ukan dezagun.

—Oŕen atzetik gure eskubide guzien azterketa egingo dugu, oro, edestiarena ta eskubideena, guziontzat eta gure eginkizunetarako onuragaŕiak izango diralakoan. Eta gure lan guzien beŕi, noizean bein, jakin-eraziko dizuegu, batez ere egin nai-izango genuken aldizkariaren bidez. Lan luzea izango da gurea, ta oŕengatik ere beaŕa izango zaigu aldizkaria, burutzen ari-izango diran zatiak lenbailen zabaltzeko. Oŕa gure asmo ta astapenak.

Etziran gutxiago izan Xabier'entzako txaloak, eta bereala Eneko'k Sabin'i mintzatzeko eskatu zion.

—Sabin'ek: Ene aberkideok. Aŕigaŕia zait, alde batetik, gure yorana aldaŕikatzen oraindik urtebete egin gabe, ta emen zuek darakuzutenez, onen aŕakasta aundia ukan duela ikustea; baña ez bestetik, alaz ere, ta gure Eŕi'an, bere izaeratik sortzen dalako, azkatasunarekiko egaŕiaz, ura aurkeztu zayolarik, edateko bere gogo bizia agertuko zala ziuŕ nengoelako.

—Asi gera, beraz, gure abeŕiaren biziari eusteko gure ekintza aundia ta gaurko bilkura au irugaŕena dugu, ororentzako bilkura noski. Lenengoa Amamio'n egin genuen, gure lanerako ango dei aipatua asiera bezela artu dugulako; bigaŕena, Iruña'n burutu genuen udazkenean; ona emen gaurkoa, neguan, irugaŕena; ta laugaŕena, Yainkoa lagun, Bilbao'n egingo dugu datoŕen udabeŕian. Oŕela urteko gure aldi-oboa itxita geratuko da, gero, udan, beste urtekoa beŕiz asteko. Gaurkotz, orixe gure xedea; baña beaŕ edo egokia izan ezkero, beste jokera bat artzeko gerturik egon beaŕ-izango dugu beti.

—Ongi dakizutenez, lan ontan asi giñan lau adiskideak gure artean banatu genituen erabiltzeko gayak, eta nik leporatu nituenak eŕiketa ta gizartea izan ziran.

—Lenengoari buruz, ene ustez, al ditezken bide on guziak erabiĺi beaŕ-izango ditugu, ta oyetako bat ain zuzen, ortarako alderdi berezia sortzea oso egokia deritzait; lenengoz, udaletan eta ororentzako beste erakundeetan sartu ta bertatik onuragaŕia izan diteken guzia egin edo eragiteko. Alderdia Euzkaleŕi osorako izango da, jakiña, ta naiz bere asmo ta egipenak ezagun-erazteko ta zabaltzeko naiz guzien alkartasunerako, izpaŕingi berezi bat ateratzea beaŕa da; uste dut gure laugaŕen bilkurarako, lenengo alea aterako dugula, ta guzioi, bai idazlanaz bai arpidearen bidez, zuen laguntza ematea eskatu beaŕ dizuet.

—Gizarteari buruz, jakin ere ba-dakizute lantegiak zabaltzen eta ugaltzen ari zaizkigulako, biziera beŕia ere sortzen ari dala; ta lantegi oyek gizonaren garaitasuna aintzakotzat artzen eztutelako, langileak, beren giza-eskubideen alde yarduteko, alkartzen ere asi dira, beaŕa zanez. Ontzat artu beaŕ dugu jokera ori, baña zoritxaŕez, orain arte azaldu diran erakunde oyetan gure Eŕi'aren eskubide ta egokera aipatu ere eztagite. Oŕengatik euzko-langiīeen artean mota ortako beste alkartasun berezia irastea beaŕenetakoa bezela ikusten dugu, ta ortarako uŕats batzuk ere emanak ditugu Bizkaya'n; eta gure asmoa mamitzen bada Euzkaleŕi osorako ere edatu beaŕ-izango da.

—Oŕa oŕ, itz motz batzuen bidez, gai oyei buruz, asieran daukagun egitaraua; ontzat artzen baduzute, oŕ izango dira guzientzat lanegiteko bideak. Gaur egitura atontzen ari gera; gero, laisteŕ, egitura oŕen arabera lana egin beaŕ-izango dugu. Gaur, oraindik, guzirako abiapenetan gagoz, baña gure laugaŕen bilkura burutu ta berea-la, mota guziko egipenetan yarduteko gertu egin beaŕ geron burua.

—Amamio'n esan nuen bezela, gure ekintza guzia gentzarako zuzentzeko alegiñak egin beaŕ-izango ditugu; baña egoeŕitaŕak asi zaizkigu gureganako artegatzen, eta, zalantzik ez, aurka izango ditugu gogoŕ eta isi; oŕengatik buŕuka ere sortuko zaigu ta bertan bipil sartu beaŕ dugu; ori dala-ta ezta esan beaŕik gure gertapena alik eta aundi ta sakonena izan beaŕ dala.

—Esandakoaz gaurkotz naikoa dala uste dut. Asi gaitezen gaur bertan guziok geron burua gertutzen, eta ia udabeŕiko bilkuran beŕiz alkaŕ ikusten dugun. Ekin eta auŕera!

Egundoko txalo-zartaz artu zituzten bildutakoek Sabin'en itzak, eta bilkura-giroa guztiz beroturik zegoela agertzen zan. Zutitu zan beŕiro Eneko, itzaldiei jaŕaipena emateko, ta txaloak amaitzen zijoazelarik, onela itzegin zuen:

—Eneko'k: Asierako, lau zinkideen artetik iruri entzun diezute, gogoz ere ongi erakutsi duzutenez. Ni naiz laugaŕena ta nik ere ba-dut zerbait adierazteko; baña lenago, gaur lenengo aldiz, beste izlari beŕi bat mintzatuko zaizue; oraintxe ezagutuko duzute, ta entzun ere ziuŕ nago, gogoz egingo diozutela. Emen duzute, Garzabal'daŕ Gexan adiskidea, laburdiaŕa gure asmoak guztiz aintzakotzat artu dituena ta ipaŕ-aldean gu bezela lanegiteko gerturik dagoena.

Zutitu zan Gexan eta txalo beroaz onarturik izan zan.

—Gexan'ek: Aguŕ ene anayok: Iruña'n egon nintzan lenengo aldiz zuekin, an udazkenean egin zenuten bilkuran. Bertako adiskide batek zuen asmoa jakin-erazi zidan eta oŕekiko beŕi-miñez geratu nintzalarik, Iruña'ko bīlera egiteko zegoela entzunda ara jo-egin nuen jakin-iŕikaz beterik.

—Entzun-eta, euzkal-asmo aundiaren gaŕantzi zabala bereala ateman al-izan nuen; bai ta, orduan bertan, zuen lankide bat izateko gogoa ene baitan mamitu zitzaidan. Emen nirekin dagozen adiskideai ene gogo ori adierazi nien eta ondo iruditu zitzaielarik, gero Laburdi aldean asi nintzan ango beste ezagunai oŕezaz mintzatzen eta pozik esan dizaizueket alpeŕik ari-izan enintzala; egiztatzeko emen dituzute nirekin andik etoŕi diranak.

—Eneko'k emen zerbait esan nai-izango ote nuken galdetu dit, eta eztut enurarik izan bayetz erantzuteko; barkatu ortarako ausartzen banaiz.

—Abots batzuek: Ez, ez, eztuzu ezer barkatzeko, ta atsegiñez entzungo dizugu esateko duzun guzia.

—Gexan'ek: Eskeŕik anitz. Ona emen bada nire iritzia. Oso ontzat artzekoak ditut Iruña'n eta emen erabīli diran gai guziak; oyei buruz eman dituzuten lenengo uŕatsak ere egokiak dirala deritzait eta oyetan barna jaŕaitzea oso beaŕa; baña arazoaren beste azpegi bat ikutu nai dut nire aldetik emen, zuen auŕean. Aipatu duzutenez, bere bizia azke bizi-izateko, Euzkaleŕi'ak bere eskubide osoa du, zalantzik ez ortaz; baña Ludi ontan eskubide aundi ta argienak, berai eusteko indaŕik ezpadago, alpeŕik izango da oyen alde mintzatzea, indaŕez menperatzeko norbait baldin badago, ta ortarako, noski, indaŕa naikoa baldin badu. Ta ain zuzen orixe da guri gertatzen zaiguna. Egoeŕi ta Ipaŕeŕi, gure aldean, lateŕi aundi ta indartsuak dira; gu obeto menperatzeko, erdibitu ginduzten len eta gaur guregan indaŕik ez oyen auŕean gure eskubidea auŕera eraman al-izateko.

—Oŕengatik, beaŕ-beaŕa zaigu lateŕi oyetatik at beste indaŕ bat bīlatzea, gure eskubideari eusteko aña izan dedin. Onek eztu esan nai lateŕi oyen barnean ezer egin beaŕ eztana, ori ez; baña ziuŕ egon gaitezke, indaŕez ezpada, lateŕi oyek gureganako amor-egingo eztutela, beren xedea gu eurekin orobatzea dalako. Alakotz, ezinbestekoa dala deritzait beste indaŕ aundi bat bīlatzea. Nun, baña? Ene iduriko, Europa'n. Ba-dagoz Europa'n gu bezela dagozen beste Eŕi'ak eta oyekin elkargo aundia egin liteke, ororen eskubide ta beaŕen alde yar-

duteko; edozein aldian egin al-izango da zerbait xede ortaz, baña edestiaren zeaŕ abagunea ere soŕ diteke gure xedeetarako ituingaŕi, ta orduan, gerturik egon ezkero, gure elburua bete al-izango genuke.

—Asmo au ontzat artuko bazenute, gerturik nauzute ortarako lenengo uŕatsak zuen baimenez emateko, ta gero ikusiko genuke nik esondatua egingaŕi ote dan.

—Orixe da esan nai nizuena ta orain zuen erabakiaren zai geratzen naiz.

Txaloka ere saritu zituzten, bero, entzuleek, Gexan'en itzak; bere asmoa guztiz aintzakotzat artzen zutela adierazten.

—Eneko'k: Gexan adiskidea gureganatzean eta ben-benetan esku utzik erdu etzaigula ikustean, egitan esan dezakegu, gaur, Euzkaleŕi osoan gure asmoak ongi arturik dagozela ta, oŕela, euzkalduna dan eskualde guzia, zorionez, bat eginda agertzen zaigula. Auxe, ene gardiz, Gexan'en itzen ondorio bereziena; ta berak azaldu digun asmoarekiko beaŕak irudituko zaizkion uŕats guziak eman ditzala eskatu beaŕ diogu, ene ustez, beaŕerako ematen; eta orixe bigaŕen ondorio ona izango litzake.

Bayezko bai, bai asko ta kartsu izan ziran bildutakoen erantzuna, txaloz ere, ugari, indaŕez sendoturik.

—Eneko'k: Oŕ duzu, Gexan, ororen aburu ona, ta zure asmoari buruz erantzun atsegiña izan dakizuke; baña bide batez lanegiteko beaŕa leporatzen dizugu. Ba-dakit ori ontzat artzen duzula ta oŕengatik, biotz-biotzetik, auŕera! ozen bat esan beaŕ dizut amaitzeko ta guzien izenaz.

—Eneko'k: Nire txanda orain. Bilkura au Donostia'n dagigulako, nire gain artu beaŕ-izan dut guziaren zuzentzea, ta niri dagokit besteen atzetik gai bereziaz ere mintzatzea.

—Dagoaneko guziok dakizute gai ori gure izkuntzarena dala. Eztakit euzkaldunok gure mintzaira ontan dugun aberastasuna, oindiño, ateman ote dugun; ta aberastasunarekin batera, beraren beaŕa, euzkaldun-zuŕian bizi al-izateko beaŕa, ta gizon euzkalduna goratzeko bertan dugun ezinbesteko bidea ere. Ziñez esan baitezakegu, euzkeratik landa, euzkalduna, gizona bezela, oso gutxiturik ta txikiturik geratzen dala.

—Asmo oyekiko, egiazko oñaŕi gotoŕ au aŕ dezakegula uste dut: Eŕi guziek, bakoitzak berea, beren gogo berezia dute; gogo ori izkuntzaren bidez adierazten da, ta eztago ortarako beste bide oberik.

Oŕelaxe ditugu gurean, beste Eŕi'etan bezela, gure euzkal-izakera, gure euzkera, ta gure euzkal-gogoa, ertsienik elkartuta; ta oso zala izango zaigu jakitea, euzkal-gogotik euzkera ote datoŕen ala, aitzitik, euzkerak euzkal-gogoa eratu ote duen. On eta egokia izango litzaiguke bi asmo oyetatik egizkoa zein dan jakitea; apika eziña izango zaigu auzi ortan erabakitzea, baña beaŕik ere ez oŕela baldin bada, ta askitzat artzeko ba-dugu beste asmo au, argienik agertzen zaiguna ta uka eziña dana: egun, euzkal-gogoari eusteko, euzkera dugu bide berezi ta onena, bakaŕa ere; beraz, euzkeraz eta euzkeraren bitartez eratu beaŕ ditugu, gure gogoetak, gure adimena, gure oldozpenak, gure azitasuna ta gure bizi guzia.

—Argi agertzen da, arazoa oŕela begiratu ondoren, gure Eŕi'arentzat euzkerak duen gaŕantzi aundia; euzkaldunon biziarentzat, ezinbesteko bidea dala esango nuke.

—Gaur Egoeŕia'k eta Ipaŕeŕia'k, bakoitzak bere izkuntza onartzeko beartu gaituzte, indarkeriz eta alegin aundienen bidez. Erdal-ikastolak jartzen ari zaizkigu bazteŕetan eta oyetan ezta euzkerarik erabiltzen, beraren aurka zerbait esan edo egiteko baño. Arerio ditugu ikastola oyek zearo, bertan euzkal-gogoa erail nai dalako ta beraren ordez erdal-gogoa jartzeko xedea dutelako. Gero, antolatu diguten bizi osoan orobat dagite: euzkera alboratu ta zokoratu, ta bere lekuan erdera sartu, xede berean beti. Buru-belaŕi diardute jokera ortan, eta geron aldetik oŕi buru-egiten ezpadiogu, gure Eŕi'arenak egin duela esan beaŕ-izango dugu ta berandu gabe.

—Ortxe gure auzia, ortxe gure ebazkizun ertsia, ortxe guziontzako eginbide aundiena ere, auxe: Norberak, bakoitzaren aldetik eta antola ditzakegun erakunde guzietan barna alkarturik, gure izkuntza onen alde lan zabal eta sakonena egin eta burutzea. Idekitzen asi diran gure euzkal-batzokietan ere oŕa guzientzako lana bera ta berezia egiteko leku egokienak: euzkera zaintzeko, gero ta obeto ikasteko ta zabaltzeko ere; eguneroko lana izateko gañera.

—Aundia, oso aundia dugu gure xedeetarako izkuntzaren auzia, erabatekoa oso; ta beaŕezkoa zaigu bertan sakontzea bere edadura guzian ikusi al-izateko. Oraintxe esan dizuedanez eta ortaz guziok aburukide geralakoan nagoelarik, erdal-ikastolak ditugu euzkeraren aurka lan aundiena egin eta burutzen dutenak. Baña ez da aski ori esatea ta zeatzago dagokigu ori begiratzea. Bide batzuetan barna egiten da erdal-ikastoletan euzkeraren aurkako lana, baña bide berezie-

na, bide eraginkoŕena erdera dugu enurarik gabe. Erderaz bakaŕik ari-izatean erdal-izkuntza da guziengan sartzen dana, ta ikasketa guziak erderaz egiteko bearturik dirala-ta, gure auŕak, iru edo lau urte baŕu, erderaz bakaŕik oldoztera eltzen dira, ta ortaraño eldu-ta, ara gure auŕ euzkaldunak zearo erdaldunak biurtuta.

—Nabarienik agertzen danez, oŕa erderaren lan kaltegaŕia; gure etsayen xedeetarako eztago oberik; beste obea izango balitz ziuŕ egon gaitezke erabiĪiko luketela; baña eztago, ongi dakite ori oyek eta oŕengatik orixe darabilte buru-belaŕi. Ta ez beren ikastoletan bakaŕik; indarkeriz jaŕi diguten bizikera osoan erdera ere erabiltzeko bearturik gagoz, nai ta nai ez. Oŕela guzioi erdera berez sartzen zaigu, larderiatsu, gure oldozpenak ere egiteko; ba-dakit euzkeraz ere oldoztu dezakegula, baña ortarako auŕetik erabaki beaŕ dugu; osterantzean, auŕeko asmo ori artu gabe, erdera sortzen zaigu guzioi bide egokia bezela; noski baño noskiago, gure ikasketa guziak erderaz egin beaŕ-izan ditugulako.

—Erdal-itxaso zabalean murgildurik gagoz; euzkera bakaŕik dabil ur gañean oindiño, baña bertan pulunpatzeko zorian. Berari eutsi beaŕ alakotz, ondoratu ez dedin, ori gertatuko balitz gureak egingo bailuke.

—Ikus dezagun, ondorioz, erdera dala jopu biurtzen gaituena, ain zuzen gure gogoa egokienik menperatzen duelako. Egokera latz ontatik atera beaŕ dugu geron burua, geron esku izan al-izateko; ta oŕekiko gure elburua ontan ikusi beaŕ dugu argi: gure oldozpen eta burutapenak egiteko, euzkera berez geron baitan sortzea. Ortarako, euzkaldunok euzkeraz egin beaŕ-izango ditugu gure ikasketa guziak. Noiz eldu- al-izango gera ortara? Laisteŕ ... ezin alajaña, baña uŕutian badago ere, ortxe jaŕi beaŕ dugu guziok ororen elburua.

—Azteŕ dezagun guziok bizi al-izateko ezinbestekoa dugun arlo au, ta ondorioz yardun dezagun, bakoitzak bere aldetik eta guziok alkaŕekin, elburu ortaruntz doazkigun bide guzietan barna.

Oŕela amaitu zuen Eneko'k bere itzaldia, ta entzule guziek kartsuki ta batera txalotu zioten; eta norbaitek esan zuenez, ontzat artzeko beaŕa zala uste zuten, Donostia'ko biĪera ura, bereziki ta ao betean, euzkerarena deitzea.

Gogo beroz burutu zan bilkura ura, baña bide batez argi ikusten zuten guziek, gerorako lana txikia izango etzala, berez eta gaindu beaŕ-

-izango liraken eragozpenez; eta eragozpenak etsayengandik bakaŕik sortuko etzirala enurarik ez ayengan, eŕitaŕengandik ere gutxi aterako elirakela zalantzik be ez ororengan; eta ori izango litzayeke, jakiña, mingaŕiena. Alan eta guzti, auŕera jotzeko adorea guziena zan eta asmo ortaz aguŕ-egin zioten alkaŕi, udabeŕiko uŕengo biĪerara erduteko itz emanda.

Baña lenago bazkaltzera joan ziran eta etxera itzultzeko ordua eldu arte Donostia'n barna sakabanatu ziran eguraldi txaŕak utzi zien giñoan uria ikusteko xedeaz; geyenak itxasertzera abiatu ziran eta ikusgaŕia zan, benetan, gure itxasoak asaŕe-aldi aundienaz jokatzean, bere indaŕ lazgaŕi ta ikaragaŕia nola erakusten zuen era zemakoŕ eta bildurgaŕiz. Ulergaitza, ziñez, gizonarentzat, eguraldi onaz ain bare, ezti ta otzan agertzen diran itxasoko urak, nola sumindu ditezken ainbeste; izugaŕiak noski eguraldi txaŕak dakarzkien indaŕ eraginkoŕak, gizonak ongi uleŕ ezin ditzakenak.

Ba-zetozen arabaŕak etxeruntz eta auŕeko egunean bezela napartaŕekin Altzazu'raño. Mikel, bultziko leyatiĪaren ondoan eserita, kezkatsu, biĪeran esandako guzia barnean birundaka zebilkiolarik; gero ta malkaŕago ta zaĪago aurkezten zitzaion ibiltzeko zeukaten bidea; mingaŕiena ere, gentzarako uŕatsak emateko zailtasuna aundiagoa ikusten zuelako.

LeyatiĪatik at, bere begirakuna uŕutira zuzenduta. Aŕatsaldez eguraldia aterturik zegoen; odeyak uŕaturik bidea egin zieten argiaren ziŕintai ta edeŕa agertzen zan izadiaren ikuspegia. Mikel'en begiak edertasun artaz gonburuz egiñak zegozen, eta asmo ta amets naspiltzeko bearturik ikusmen auŕean igarotzen zanak irudi bakanak ematen zizkion, loaldi batzuetan gertatzen diran ameskeriak bezela.

Eta neguaren egun artako argia, aŕastirian sartzerakoan, sarkalderuntz begiratuz, eguzkia ozta-ozta ostendu ondoren, ortzean oindiño bere azken izpi goŕien aztarna ikusten zanean, nabaritzekoa zan, oŕirik gabe adaŕ goŕitan agertzen ziran zugatzak, makal eta eltzunak batik bat, margo iĪun eta edeŕ bateaz ageŕerazi zuten ikuskizuna. Txina'ko maŕezki polit batzuen gogorapena ematen zuen. Adaŕ biĪutzen artetik iragazi zuen argiak, Mikel'en gogoa liĪuratzen zuen; mutiĪak etzekien ongi, argi ura, egitan, adaŕen artetik igarotzen ete zan, ala zugatzak izaki gardenak ote ziran, ayen zeaŕ argia beste aldean ikusierazteko gai; ta aldiz-aldiz ba-zirudizkion, zugatz eta landare ayek, aŕats apalean, eguna iltzerakoan, Goiko'ari beren eguneko azken otoi

gartsuak egiten zizkiotela, Bera'ganuntzko iŕika biziena erakusteko siñestun adoretsuak.

Azken irudipen oŕekin eldu zan Mikel, azkenez, etxera ta era berean sartu zan oean. Bere burua be, ayen antzeko beste otoizle bat bezela begiratzen zuen, Goiko'ari ere bere beaŕetarako ta gentza-iŕikarako, Arengandik bakaŕik el diteken indaŕa eskatzean. Eta erdi liīurazko ametsetan erdi egiazko arduraetan amaitu zan eguna gure mutiīarentzat.

Ekintzetan

Iñoiz gelditzen eztan aldi-kurpiīean ba-zijoazen alkaŕen ondoren neguko egunak ere, Epaiīean sartuta, otzetik alde-egiteko gogoaz edo eltzeko urduri zetozen udabeŕikoak bultzaturik, neguko ayek, naiz eta argiarekiko luzeago izan, bat-banaka ayenaturik, labuŕago bezela agertzen ziran, izadiari betiko aguŕ egiteko iradurik izango bailiran.

Giza-lagunen ekanduak ere aldiaren batera aldatzen ari ziran; eguratsa epelago zegoelako eiki, aide zabalean gero ta geyago agertzen ziran zaŕ eta gazte, atz-beatzak igi-yardueretan edatzeko beaŕez ala alkaŕekin ari-izateko leyaz; egia baita otzak edonor eta edozer kuzkurtzen eta bakartzen dituela; beroak, beŕiz, edatzen eta alkartzen.

Siñistunen bizi berezia garizuman bete-betean murgildurik alegintzen ari zan; gogoarena zan, enurarik gabe, ayengan nagusiagoaz artuta ororen gain erabiltzen zana, Berpizkunde elbururako uŕats ixilak ematen, otoitzaren apaltasunean geroko alaitasuneruntz gogoz abiatuta.

Auŕak garai artako jokuetan zebilzten; mutiīak kanbotxoz bero ta isi; kanbotxoa, mutuŕ biak ondo zoŕoztuta, makiīaz jauz-eraztean eta aidean zegoenean indaŕez jotzean, alik eta uŕutienera bialtzen zuten, bide batez —oa, sorgin-zulora!— esaten ziotelarik. Amamio'n urte artan norbaiti beste goraintzi bat ematea otu zitzaion, eta —oa, baldana, betokeŕagana!— esanez, berdin oro paŕez. Gero, kanbotxoa eldu zan tokitik, atzeruntz eta jaurtita izan zan leŕoraño, makiīaren luzera neuŕitzat arturik, zenbat makil zegoen bat-banatzen zuten onela: bat-bi irurako, lau-bost seirako, zazpi-zortzi beratzirako, ta oŕela maŕaraño eldu arte; zenbaki gorenera eltzen zana ura garaiīe.

Neskatiīak, beŕiz, sokaz ari ziran jauzika; bakoitzak bakaŕik banako edo biñako egiten, ala alkaŕekin, bien artean soka eraginda, ikutu gabe alde batetik bestera igarotzean, alkaŕen atzetik eta eŕenkean.

Gazteak pilotan ziarduten, oindiño erdi bustita zegoen pilota-to-

kian, eta adiñekoak birlo ta bola-tokietan, lenengoa bota-bayetz eta ezezka alkaŕi eupadaka.

Emakumeak, auzokoekin alkartuta, esamesetan beŕitsu; neguan alkartzeko betarik izan gabe egon ondoren, zer esanak ugari guzien baitan eta alkaŕi jakin-erazteko bearturik edo, ortarako eguraldiaren otzepeltzea ituintzeko urduri.

Urtez-urte, gutxi gorabera, oŕelaxe azaltzen zan bizia Azpaŕena' ko eŕietan barna, aldi artako jai-egunetan.

Baña izadia zan, ernetzeko beaŕean, aldakuntza aundiena erakusten zuena. Erne-indaŕ aundia, gero, izadiarena, bere izate berezia ta beaŕezkoena. Nundik datorkio izadiari ala norengandik eltzen zayo sorkari izateko indaŕ-aldi? Barne-muñean edo almena kokaturik, eten gabeko umanditzean, ernetzeko gerturik. Aro-aldi berean beti, urtearen betean isi; aldatzeko gaitza, jaŕaitzeko ertsa; igikera berean oso, uŕatsak egitean oro.

Izadia, biziaren ezkutukia, gizadiarentzako argia; nola zure izaera neurtu, nola zure joera ulertu? Betikoa zirea?; ezetzean, nun eta noiz ote zure sortzea?; nunbait eta noizpait bizian asi ezkero, altsua egitan sortu zinduen itza, gero; zure aunditasuna baño aundiago, sortzaile indarduna ta areago.

Izatez izana sortzailea, aldiaren gaindik bizi dana, aldearen atetik dagoena. Aŕigaŕia bere almena, agurgaŕia bere goi-sena. Jayotzetik gabe, iltzerik ezagutzeke; bizia oso Bere'gan datza, Bera'gandik at ezinbesteko eriotza. Goiko Yauna, Zu'ganuntz garamazkiena, izadiaren aots ozena.

Goiko Yauna, izadia, gizona, ..., oŕa biziaren bide sakona; eten eztan katea, iñorentzat aldatzen eztan etortzea, bizia oso ulertzeko era, ekiteko beaŕena dan yarduera.

Izadiaren baitan gizona kokaturik, Goiko Yauna'gan siñetsi bearturik; gizon eta izadia A'ren betean bizi-izateko sorturik. Baitezpadako elburua, egiazkoa dan zentzuna, zorionezko dei gartsua, betiereko dugun egikuna. Oŕa gizonarentzako betekizuna.

Ekintzetan, beraz, izadia nun-nai, ta bizi-bolbol artaz gentza osoa be bai; gentza gelditasunik eztalako, igipenetan baizik edatzeko; gentza ezpaita lotan ala eriotzan etzatea, aitzitik, esna ta itzaŕirik baño yardutea. Oŕela udabeŕi orotan izadia, eginkizunezko gentzan, bizidun erne osorik nun-nai nabaria, alaitasunezko dantzan.

Asmo oyetatik at, noski, gure ezaguna dan Elortza jauna, kaletik

zijoan bazkal ondoren udaletxeruntz. Endore jaunarengandik dei adeitsua arturik, zertarako izan litekenik ezin igaŕirik; baña guzitarako zeazki ximena zalako, ara zijoan aiduru ordu-orduan eltzeko.

Sartzerakoan Matauko jauna azaldu zan, eta:

—Ba-nekien —esan zion— eskatutako orenean elduko ziñala; erdu, otoi, endore jauna zure zai dago-ta.

Oŕela mintzatuz, idazkari zintzoak endorearen lan-gelako atea zabaldu zion. Usu jeiki zan Eguŕola jauna, ta berarekin zegozen bi ziñegotziak berdin.

—Ongi etoŕi, Elortza jauna, ta eskeŕik anitz ona etortzean gure deyari dagiozun erantzun edeŕagatik. Azketsi, aŕen, zure eginkizunetatik bearbada mugaitzean aldendu bazaitugu. Deyan esan dizudanez, etzegoen gaur bertan etortzeko beaŕik, eta guretzat berdin izango zitzakean biar edo beste egun batean alkartzea.

—Elortza'k: Ez izan oŕengatik ajolik, endore jauna; etzan obe niretzat gaur ordez biar etortzea, ez eta biar ere gaur baño; beraz, bizian barna sortzen zaizkigun eginkizunetan lenbailen yardutea beti onena dala uste dudalako, lenbailen zuengana etortzea egokiena iruditu zait. Eta emen nauzute zuei entzuteko gogoz.

—Eguŕola'k: Dana dala, zure aldetik gureganako adei ona erakusten diguzu ta oso aintzakotzat artzea guri dagokigu; ziuŕ egon zaitezke oŕela dalarik.

—Eta goazen, ongi baderitzaizu, besterik gabe, zuri dei-egiteko ukan dugun zioa zein dan esatera ta udalean erabakita, ongi burutu nai-izango genuken arazoaz zurekin ari-izateko.

—Udala'n sartu beŕiak geranok, alegia gure eginbidea dalako, eŕiaren alde jokatzea ta berak dituen beaŕak ikustea, berekiko arduratsu ta lasterkiro yardutean, noraezekoa zaigula uste dugu. Beaŕ oyek gure lenengo bilkuretan begiratu ditugu, ta beren artean mendiei dagokiena bat izan dugu.

—Besterik esan gabe argi ageri dakizuke zurekin begiratu nai dugun arazoa zein dan. Eta udalan artutako erabakia auxe izan da: Eŕiko mendiak eŕiarentzako aberastasuna ta aberastasun-iturburua beti izan diralako, iturburu ori agortu eztedin alegiñak egitea, al bada, mendietatik atera ditezken obariak geitzeko.

—Ba-dakigu, ongi ere, ortaz eta orotaz, gurean eta Euzkaleŕi guzian aldakuntza aundia izan dala, emengo legeen ordez lateŕiak emandakoak erabili beaŕ ditugunetik. Len, ondo dakizu, eŕiak eta eŕien

batzaŕak erabakitzen zuten emengo biziaz; gaur ezta oŕelakorik eta, ene ustez, aldakuntzaz eztugu ezer irabazi, baña edozein eraz gaurko legeen arauaz yardun beaŕ dugu.

—Zuk, Elortza jauna, zure eskubidea danez, zure lantegiak jartzeko ere lege oyek artu dituzu oñaŕiz; bide batez, beaŕa zaizulako, menditik alik eta eguŕ geyena ateratzen ari zera, ta argi dago, besterik begiratu gabe, oŕela jaŕaitu ezkero, urte gutxi baŕu gure Intusi edeŕa guztiz muŕizturik geratuko zaigula.

—Ortaz enurarik ez; baña oŕeraño eltzen bagera, agortuta izango dugu orain arte ondasun-ituŕia izan dan mendia. Zuretzat lenengoz kaltegaŕi, ikatzaren biīa uŕutiagora joan beaŕ-izango duzulako, ta aurkitu ezkero ere garestiago lortzeko. Ta gure eŕiarentzat, gero, ez eguŕik, ez orbelarik, ez eta ikatzik ere, ezer ez. Luŕak eztitu, berari eusteko ain beaŕak zaizkion zugatzen eŕoak izango, ta euriaren indaŕez leŕatzen beruntz joango zaigu, azkenez aitza baño besterik ez geratzeko, ta aitz goŕian ezin ezer landatu. Beraz, guziontzat ezereztasuna. Zer deritzazu?, ez ote goaz ortaruntz abiatuta?

—Elortza'k: Eztizut ukatuko esan duzunean ba-dagoela egiaren zerbait. Baña ene ustez geyegizko malan ari zera; zugatzak mendiak ematen ditu berez, eta bertan amaika ondozko landareak ikusten dira iñork jaŕi gabe sortu ta azten ari dirala; oŕengatik mendia ezta iñoiz muŕizturik izango.

—Eguŕola'k: Baña landare baŕi oyek zugatzai eskeŕ irteten dira, oyetatik jausten diran azien bidez; eta zugatzik ezpadago azirik ere ez, landare beŕiak gero ta gutxiago izaten. Gañera, urte batzuk, ez gutxi alajaña, landareak beste zugatzak biurturik ikusi al-izateko; beste aldetik abereak altxuma ezeak jaten ezpadituzte. Alakotz ezin ori bidetzat onartu, beste zerbaiteaz oldoztu beaŕ ene ustez.

—Elortza'k: Ta zer egin genezake?, ba al duzute beste bide oberik? Asmoren bat ba-duzutela uste beaŕ, eta oŕengatik edo etoŕerazi nauzute, ezta?

Elortza jaunak ozentsuago esan zituen bere azken itzak barnean sortu zitzayon artegatasunaz; eta endoreak emango zion erantzunaren zai geratu zan kezkatsu.

—Eguŕola'k: Bai, noski. Esan dizudanez Udala'n mendiaren alde al diteken guzia egiteko erabaki dugu, ta bereala zutzaz gogoratzea ere beaŕa izan zaigu, zure olaren lana, ain zuzen, nolabait mendiaren aurkako bezela begira dezakegulako. Ba-dakigu legez ezin ditekela

ezer egin, gaurko legeaz alegia; lengoa zutik izango bagenu, bai, ura naikoa izango zitzakean mendiari eusteko, baña gaurkoa dago indardun eta mendiarekiko ondatzalea dalarik ezin oŕen bidez ezer egin.

—Beraz, Elortza adiskidea, etzaitugu deitu legeari buruz ari-izateko, eŕia maite duen eŕikidea bezela baño. Entzun, otoi: eziña izango al zaizu gure artean eta onez-onean mendia begiratzeko yardun? eta geuk emen lege zaŕak agintzen zuena bete?; iñork eztigu ortarako eragozpenik jaŕiko.

—Elortza'k: Lege zaŕa, lege zaŕa ...; ori joan zan, gizona, gaur dana beŕitu egin beaŕ eta legeak ere beŕiak egin; nai ta nai ez bizia auŕera doa ta guzioi dagokigu bide beŕietara jotzea.

—Eguŕola'k: Gauzak eztira onak beŕiak diralako, ez eta txaŕak zaŕak izateagatik; oŕengatik zer dagoen onik eta zer gaizki dugu begiratzeko. Ta mendiai buruz lege zaŕa zan ona ta gaurkoa txaŕa; ori argi-argi dago emen.

—Elortza'k. Eta zer agintzen zuen lege zaŕa?

—Eguŕola'k: Ez al dakizu?, ba-zenekiela uste nuen, baña esango dizut: Mendian bota beaŕ zan zugatz bakoitzetik bere motazko iru landare beŕiak landatzea.

—Elortza'k: Ta zer nai duzu, neronek emengo mendian ori egin dezadala? Eztut uste niretzako ain aundia izango litzaken ondakuntza ori nire gain aŕ dezadala eskatuko didazula.

—Eguŕola'k: Ez estutu, gizona. Zeatzez begiratu dugu arazoa udalan, ene ustez alde guzietatik aztertzen. Ezin aiztu dakiguke zuk idekitako lantegiaren bidez beste bizi-mota beŕi bat zortarazi duzula; oŕezaz beti gogoratuko dugu ta zuri laguntza emateko, beaŕ-izan ezkero, beti gerturik izango gaituzu. Gañera zu eŕitaŕa zaitugu ta oŕengatik ere oŕela jokatzea bidezkoa izango zaigu. Ain zuzen, eŕikidea bezela dei-egin dizugu, eŕia maite dugun guzion artean alkarturik joka dezagun.

—Ona emen, beraz, zu ta guziok, geron ustez, zer egin genezaken: Lege zaŕak agintzen zuena bete, baña ortarako xautu beaŕ-izango dana zuk eta guk erdibana ordaindu. Ori guzientzat izan liteke onuragaŕi; zuretzat uŕengo urteetarako zugatz beŕiak ortxe izango lirake, ta guretzat ere, eŕiarentzat egitan, gaur arte izan diran etekiñak berak atera litezkelako.

—Ba-dago ortarako, aiztutzeko eztan beste zerbait. Gure auŕekoek, beren lege zaŕa betetzen, mendiari eutsi zioten eta ayen eskeŕ

geuk bere aberastasun osoan aurkitu dugu. Nola ordaindu gure aldetik ayek utzi ziguten ondasuna?; eztago beste biderik auxe baño: berak egin zutena guk ere bete ta, oŕela, gure atzetik etoŕiko diran belaunaldietakoak ondasun bera aurkituko dute; sendietan gertatzen dan bezela: nola ordaintzen diete semeak gurasoai auek beren alde egindakoa?; noski, beren aldetik izango dituzten beste semeai orobat egitean.

Ixilik geratu zan lantegiaren ugazaba: iñoiz etzion buruak eman oŕelakorik. Gauzak ustiatzeko asmoa izan zan beti berea, alik eta obari aundiena ateratzeko xedeaz. Eta orain, irabazteko ezer etzana, edo geyenez urteetan barna otezkoa izango litzakena aurkezten zitzayon.

Ixiltasuna endoreak apurtu zuen:

—Eguŕola'k: Ez arbindu, adiskidea, eztiguzu erantzun bat berea-la eman beaŕ; azteŕ ezazu arloa astiro ta lasai, baña sakon ere, ta artu erantzuteko nai edo beaŕ-izango duzun edozein epea.

—Baña, jakin ezazu gure aldetik, naiz mendietan naiz edonun, zugatzaren alde jokatuko dugula, oso beaŕa deritzaigulako ta ondorioz oŕela erabaki dugulako.

—Gure xedea auxe da: Zugatzaren gaŕantzia eŕitaŕ guziai erakustea, bakoitzak eta guziok alkaŕekin zugatzak al ditezken leku guzietan landa ditzagun, zein zurezkoak bakaŕik diranak zein arnaridunak, bakoitza bere tokian izan dedin. Iñun zugatz bat egoteko tokirik izan ezkero, toki oŕek bere zugatza euki beaŕ du, esate baterako, eŕi ondoan gaztañondo edo intxauŕondoak izateko, luŕak egokiak izan ditezke, beraz Azpaŕena'ko eŕi guzietan zugatz oyek eŕuz eukitzeko alegiñak egingo ditugu; gero, ustekoa da, bakoitzak bere luŕetan oyek ere ala beste arnaridunak landatzeko beste oŕenbeste egin al-izango duela. Ez al litzake ori guzientzako aberastasuna?

—Elortza'k: Eskeŕik anitz, endore jauna, zuen aldetik ni estutzea nai ez izateagatik; asko dala deritzait eskatzen didazutena, baña arazoa, esan duzun bezela, astiro begiratuko dut eta ... ikusiko dugu ... Beste aldetik, oso ona deritzait zugatz arnaridun jaŕi-erazteko artu duzuten erabakia, oso egokia, ta ortaz eztago iñorentzako kalterik ... baña mendikoai buruz ... arloa ezta berdin.

—Eguŕola'k: Ez, ezta berdin, baña beaŕa bai geron ustez. Eskertzen dizugu gugana etortzea, bai ta gure asmoak entzutea ere. Ia alkaŕekin yardun ote dezakegun ororen onurako.

Oldozkoŕ eta azta aundi baten pean izango bailitzan atera zan Elortza jauna udaletxetik, bertan entzun-erazi zioten guzia buruan iraultzen eta bere aldetik ere erabakiren bat artu beaŕ-izango zuela begiratzen. Zala agertzen zitzayon arloa ta, besteetan gertatzen etzitzayona, orduan bai etzuen argi aterabiderik ikusten. Beste guzirako itsu bezela zijoan eta eguna larunbata zanez, landolara joateko beaŕ aundirik etzuelako, astiro zijoan, saŕi gelditzen eta barnerako gogoetan beti.

—Aguŕ jauna —norbaitek aldamenean eta berari buruz—. Zer duzu?, ba-dirudi ondoezaren bat edo eldu zaizula; ordu auetan, gañera, zu kalean ibiltzeko...

Kamuztuta bezela zeraman bere asmabidean, Elortza jaunak argi-ziztada bat oartu zuen itz oyek entzunda; ez itzengatik eiki, zuzendu zizkiona nor zan ikusirik baño; argi-pindaŕ bat piztu zitzayon ilundurik zeukan gogamenean.

Ongi dakigunez, beregan begikotasunik ez Diaz irakaslearenganako aspalditxodanik; bere jokeran guztiz zeyarkalaria zala ikusi ezkero, ezezpenez beterik ari zan ola-jabea bestearenganako.

Nola onartu zituen unealdi artan irakaslearen itzak?; zer zala-ta, bere ondoan gelditu ta berarekin solas-egiteko amor-egin? Irabazpidearen erdian, ara udala beaztopa gertatzen zitzayola, ta ura gaintzeko bere burua bakaŕik eta aul ikusten zuenean, udalakoen aurka zebilen gizontxo ura bere auŕean agerturik eta adeitsuki gañera. Maiz gertatzen zitzayonez, orduan ere etzuen ikusten nola, baña zerbaitek bere baitan zirikatzen asi edo.

Alkaŕen ondoren, begikotzat zeuzkanak aurka, ta iguiña zitzayona aldeko bezela begiratzen zituen, unealdi berean eta ain zuzen alkaŕekiko arerio ziranak. Ez ote litzayoke egokia izango bigaŕena ustiatu besteai buru-egiteko? Etzuen oindiño argi ikusten nola jokatu beaŕ zuen, baña nastuta metatzen zitzaizkion oldozpen guzti ayen pean, amor-egiñik, irakasleari erantzuteko gelditu zan eta aŕaiki ta begi onez esan zion:

—Elortza'k: Ez, ondoezik ez; oraindik nire osasuna areitzarena dirudi, Yainkoa'ri eskeŕ; nire lan-arloak, geyenak bederen, eztabiltz gaizki; baña bat-batean eta oso ustekabean oztopo aundi bat sortu zait bide-erdian eta eztut oraindik nola gainduko dudan ikusten; oŕengatik nirekiko ere amoŕaturik ninjoan, beti oituta bainago eragozpenak zokoratzeko, ta oraingo ontan itsu bezela nagokizu.

—Diaz'ek: Aŕigaŕia da, benetan, zu bezelako gizon bati ori entzutea; eragozpen ori aundia izan beaŕ, egitan, zure buru argiak nola gainditu ez ikusteko; enuke uste-izango zeroŕek esanezik. Noski, ni ez naiz nor ori zer dan galdetzeko, baña zerbait eta ez gutxi eman nai-izango nuke oŕen beŕi eukitzeko, barkatu!

—Elortza'k, oaŕezak menperatuta edo: —Ezta ixil eta izkuturik izateko ezer. —Eta bere barnea lasaitzeko beaŕean edo, endorearekin izandako guzia jaulki zion irakasleari.

—Diaz'ek, aŕetaz entzun ondoren: —Ziuŕ nago, jauna, ongi ateratzeko bidea aurkituko duzula, zure lantegiaren alde zuurki ta bipil jokatzean, baña uzten badidazu, nire iritzia ageŕeraziko nizuke, gogoz.

—Elortza'k: Esan, esan irakasle jauna; besteen iritziak ezagutzea beti da on, eta irakasle batena entzutea ezin uŕuñatu, alegia.

Au entzunda bere burua goratua ikusi zuen Diaz jaunak, eta ausartuago onela itzegin zion:

—Diaz'ek: Ongi dakidanez, zure ekintza guzietan legeak agintzen dutenez ari zera beti, Lateŕi'aren lege oyek idekiturik dagozen bideetan barna. Udala'n eskatu dizutena lege oyen atekoa da, beraz ezin ikus dezakegu zure burua ori onartzeko bearturik, iñola ere ez ene ustez.

—Elortza'k: Ori egia da, baña udalan aipatu didaten arloan ba-dago zerbait aintzakotzat artzeko dana, mendiaren txirotzea noski; ta nire eŕiko mendia dalarik, ezin ori zearo arbuyatu.

—Diaz'ek: Baña, jauna, mendi edo luŕ batean meatze bat egon diteke ta ori tokiaren aberastasuna da; ongi al deritzaizu toki ori ez txirotzeko menasta ez ateratzea?; zentzungabekoa izango litzake ori, ta meatzeak luŕaren azpian dagoen aberastasuna badira, berdin zugatzak luŕ gañean. Nik oŕela ikusten dut arloa.

—Elortza'k: Eztago gaizki, ez, zure oarpena ta etzait aiztuko; eskeŕik ainitz jakinerazi didazulako. Orain, barkatu, baña utzi beaŕ zaitut, lantxo bat begiratzera joateko noraezean nago-ta.

—Diaz'ek: Eztago ezer barkatzeko ta ni naiz zureganako eskeŕoneko egon beaŕ dudana, zure arazoetaz nirekin yarduteko ukan duzun adeyagatik.

Oŕela aldendu ziran bi gizon ayek alkaŕengandik, beren elkarbidean nolabait berotuago. Alaz ere, Elortza jaunari erakaitza izan zitzayon gero, irakaslearekin egin zuen solasaldia, ta izan ezpalitz obe bere iduriko; baña egiña, egiña zegoen, egin-egiñekoa ezpazan ere.

Diaz jauna, bere aldetik, pozez beterik geratu zan; minduta zegoen lendik, ola-jabeak erakusten zion gutiespenagatik; eta, ara, bat-batean, guzia zearo aldatuta zegoela, ta ain zuzen bere iritzia aintzakotzat artu beaŕ-izan zuen jaun aundiki arek.

Eta zuzen-zuzen, adorez beterik, larunbateroko biĺerara joan zan, ardantegian zai zegozenengana.

—Aŕatsalde on! adiskideak—, aguŕ-egin zien alaiki. —Barka ezaidazute berandutxo banatoŕ, baña zergatik izan dan jakin dezazutenean, uste dut zuek ere poztuko zeratela.

Au entzunda, an zegozen Patxiko, Solozabal eta beste iruzpalau lagun, begiluze oso; irakaslearen agertze ura oiturazkoa etzalako.

—Patxiko'k: Esan, esan, jauna; zuri entzutekoa gaŕantzi aundienetakoa izan beaŕ dalako, iŕikitzean gagoz guziok jakin-miñez.

—Diaz jaunak: Uste dut gure asmoetarako, uŕats aundi bat emateko bidea ideki zaigula, okeŕ aundia ezpadagit.

Astiro asi zan mintzatzen, beŕia emateko luzatzen, bere buruari gaŕantzia emateko edo, ta bide batez bere adiskideen apeta aunditzeko xedeaz; azkenez Elortza jaunarekin izandakoa jakin-erazi zien burgoikeriz beteta.

Entzuleen artean ba-zegozen, esan dugunez, Patxiko ta Solozabal' ekin beste iruzpalau gazteak ere. Auetako bati etzitzayon iduritu irakasleak esandakoa ainbat goresteko gauza zala, ta itzetik-ortzera onela galdetu zuen:

—Uste al duzu Elortza jaunak zure iritzia onartuko duela?, eta onartuaŕen ere, guri zer?

—Diez'ek: Ba-dakit, Santi, Elortza'k eztuela nire iritzia onartuko nirea izateagatik; baña jakin ere ongi dakit bere ogasunak begiratzeko aintzakotzat artuko duela; ugazaba oŕen uŕe-gosea aundia da, ola-jabe guziena bezela, ta gose oŕen asetzeagatik edozein oztopoa gaintzeko beti gerturik izango dala.

—Ta guri zer?, galdetzen didazu. Jakiña, bost ajola guri ugazaba oŕen ogasunai buruz, bai ta berarekiko ere. Baña onezaz gogoratu beaŕ dugu: Endore ta ziñegotziek artu duten erabakia Mikel'en asmoak eraginda izan da, zuzen ala zearka; niretzat enurarik ez ortaz. Bestetik, guziok dakigunez, Intusi'n sute aundi ura gertatu zanetik, Elortza'k, beste askok bezela, Mikel begikotasunez begiratzen du. Oŕengatik emen iru oin-gai bereziak bat eginda zegozten: Udala, Mikel eta Elortza. Gutxi al deritzaizu batasun indartsu ori eten eragitea?

Udala'ren erabakiagatik, bera ta Elortza mokoz-moko jaŕi dira, ta oŕa oŕ batasuna zatituta, eren baten bederen.

—Patxiko'k: Ederki, ene ustez, gure arerioen almena indargeturik geratzen dalako, ta oyengan galtzea izan ditekena guretzat irabaztea.

—Diaz'ek: Argi ikusten duzu gure auzia, Patxiko, ta eztuzu azalpen aundirik beaŕ arloen egokitasuna atemateko.

—Solozabal'ek: Baña nik uste dut, guzi ortan gaŕantzi aundienekoaz gogoratzen eztuzutela, ala oŕekiko ardurarik ez zuengan.

—Patxiko'k: Zer ote gaŕantzitsuago?

—Solozabal'ek: Mendiaren ondatzea; argi dago, orain arte bezela jaŕaitzen bada, eŕi onen mendi edeŕa guztiz muŕizturik geratuko dala. Udala'koek ongi ikusten dute ori, ta beren erabakia egokiena dala esan beaŕ da.

—Diaz'ek: Baña gizona, basoetako zugatzak ez dituzte gizonek landatu, berez sortu dira oyan eta baso guzietan, eta orain dagozenak gizonak bere beaŕetarako kentzen baditu, ta ori bere eskubidea da, beste beŕiak etoŕiko dira gero.

—Solozabal'ek: Ezta guzia zuk diñozun bezela; ba-liteke aspaldin zugatzak berez sortzea, baña gure auŕekoak aŕetaz zaintzen zituzten basoak, zugatz bat kentzen zanean beste aldaskak landatzeko agintzen zutenean, eta ayei eskeŕ gure basoak beren aberastasun guziaz orain arte iraun dute.

—Zelaya'k: Guzi ori izan diteke, bat; baña nik beste aldetik begiratzen dut auzia: gu, langiīe geran aldetik, ezin jaŕi gaitezke, ezertan, ugazabaren alde ta gutxiago emen aipatu dan auzian, udalak ondo artutako erabaki baten aurka ere jartzeko. Ugazaba, beti, arerioa dugu ta ezin bera lagundu.

—Diaz'ek: Izpidean zagoz, Santi adiskidea, ta zuk esan duzun azken ori ezta aiztutzeko; baña ganora ta igurdiziz ari beaŕ dugu arlo guzietan; oraingo ontan Elortza'k udalari buru-egiten badio, beren arteko adiskidetasuna apurtuko da ta ondorioz, ez udala bakaŕik, Elortza bera ere aulduta geratzen bada, langiīeentzat obaria.

—Patxiko'k: Ongi dago ori ta aburukidea nauzu Diaz jauna. Eztago oŕezaz besterik egin beaŕ eta gertatu dan iŕiñarte ori aunditzeko alegiñak egin beaŕ-izango ditugu.

—Baña ba-dago, ene ustez, guretzat ere gaŕantzi aundiagoa dan beste arazo bat. Ongi jakin dudanez, egun auetan Mikel eŕiz-eŕi dabil

berak egin nai duen nekazarien elkargorako atxikidunak lortzeko, ta ez bide dabil alpeŕik.

—Solozabal'ek: Ezta ori aŕitzeko; Mikel'en asmoa oso ona da ta nekazarien aldetik onartzea ezin bidezkoagorik.

—Diaz'ek: Itzetan bai, egokia irudi diteke, baña ondorioak ikusi beaŕ; ori ere beste ugazaba-motakoa dugu ta, ororen egokitasuna aipatuz, egitan bere sakelerako obarien biīa ari da; «aurki agiriko, Miren Mañari'ko».

—Solozabal'ek: Zu beti Mikel'en aurka. Gauza oso ona da orain egiten ari dana, baña zuk ezin oŕengandik ezer onartu.

—Diaz'ek: Gauza bateaz etzera zu gogoratzen. Alderdi ontan Mikel'ek lateŕiaren aurka dagi lan aundiena ta guk lateŕiaren alde ekin beaŕ dugu; beraz, nola onartuko ditut oŕen jokera ta uŕatsak? Guda ortan ezin alboraturik geratu, ta lateŕi ta bere legeen alde jokatzea da gure eginbidea.

—Zelaya'k: Gaurko lateŕiak ugazabak laguntzen ditu ta langiīeentzat, oŕengatik, beste etsai bat baño besterik ezta. Mikel'ek lateŕiaren aurka jokatzen duela egia bada, ni berarekin itsu-itsu.

—Diaz'ek: Gauzak xoxoki begiratzen dituzula adierazten duzu. Zer bada? Nola egin zenezake emen lana lateŕiaren legeen eskeŕ jaŕi diran lantegiak izango ezpalira? Ta nola iraungo lukete lantegi oyek, lateŕiak bere zeyak idekita eukiko ezpalitu? Ortaz, naiz ugazabak naiz eta langiīeak ere, lateŕiari buruz guztiz eskeŕonekoak izan beaŕ-izango lirake.

—Zelaya'k: Baña lateŕiak lantegietatik bere obariak ere ateratzen ditu, ta langiīeak, ez ugazabaentzat bakaŕik, lateŕiarentzat ere beren lan eta izerdia eman beaŕ.

—Diaz'ek: Egia da ugazabaen aldetik zuenganako jokeran bidegabezko egipenak dagizkitela; baña ortan eztago lateŕiaren aldetik eŕurik, eta ongi dakizunez langiīeen alde legeak ematen ere ba-dakiela.

—Zelaya'k: Alde ortatik, orain arte bederen, egin duena ta gaberdiko auntzaren estula bat; askoz aundiagoa da ugazabaen alde dagiena.

—Diaz'ek: Lateŕiak bere buruaren alde be jokatu beaŕ du ta askotan ugazabaren alde jokatzen duela irudituaŕen, egitan, lateŕi osoaren alde diardu, ta lateŕiarena dana, zure, nire ta guziena da.

—Zelaya'k: Ori eztut nik argi ikusten, eta izatekotan ere bakoi-

tzarentzat nolako giñoan ikusi beaŕ; geyen-geyena lateŕiak eramateko beti, edo lateŕiak eta ugazabak, eta langīleena utzaren uŕengoa.

—Solozabal'ek: Etzerate iñoiz batera etoŕiko. Zu, Diaz jauna, guztiz lateŕiaren aldekoa zera, batez ere gure Eŕi'aren aurka jokatzeko orixe bide onena duzulako; ta zuk, Zelaya, langīlearen beaŕa bakaŕik begiratzen duzulako. Ta emen ba-dago zerbait, lateŕi ta langīlea eztana; emen Euzkaleŕia dago, Eŕi bezela bizi beaŕ duena, ortarako eskubide osoa duelaŕik.

—Diaz'ek: Okeŕ zagoz goitik beera; iraiña egiten didazu ni Euzkaleŕi'aren aurka nagoela esaten; naiz eta emengoa ez izan, edonork ainbat maite dut nik Eŕi au; baña bizi beaŕ bada lateŕiaren barnean bizi-izango da, ez oŕ ĩokol andiputz batzuek nai duten bezela, galbidezkoa baño besterik izango elitzaken azkatasunean.

—Erokeririk ez —gañeratu zuen gaŕaztasunez.

—Patxiko'k: Ori, ori; ezin oŕelakorik ontzat artu, iñoiz ez.

—Zelaya'k: Nastutzen ari zerate arloak; bat da lateŕia, beste bat Euzkaleŕia, beste bat ugazabak eta azkenez, beti azkenez, langīledia. Guzietatik gu gera, langīleok, gaizkien gagozenok, eta besteai bost ajola gosez iltzen bagera ere.

—Diaz'ek: Mutuŕetara daramazkizu arazoak; egia da zuen izerdiaren eskeŕ ugazabak asko irabazten dutela; ta oyen aurka ta zuen eskubideen alde zerbait egin al-izateko, langīleak alkartu beaŕ duzute zuena izan diteken elkargo batean, Bilbao'n eta beste uri aundietan ango langīleak egin duten bezela. Nai-izango bazenute Gasteiz'en dagoen elkartearen zuzendariai itzegingo nieke ona etortzeko ta emen beren elkargoaren adaŕ berezi bat jartzeko ere; berak, nire ustez, ori oso ontzat artuko lukete.

—Zelaya'k: Ori ondo deritzait, baña langīleen arazoetan bakaŕik yarduteko baldintzaz.

—Diaz'ek: Ederki, gizona, ta nire gain gasteiztaŕak ona ekartzeko egitea; ta zuek zabal ezazute asmo ori zuen lagunen artean.

—Solozabal'ek: Eztakit orixe lortuko duzuten; baña egin ezkero, auxe izango dugu: ugazaba bere alde bakaŕik, eta langīleak ere beren alde bakaŕ-bakaŕik; bat eta besteak, ordea, Eŕi'aren aurka ta Eŕi'aren kalterako.

—Patxiko'k: Ez esan lelokeririk, arakin kokolo ori; gaurko bizia auxe duk bakaŕik: dirudun eta langīleen arteko buŕuka; ortxe, gaur,

biziaren muña; beste guzia eztuk ezer, lateŕiaren bizia izanezik, baña ori guziona duk.

—Diaz'ek: Oso izpidean zagoz, Patxiko; ta ugazabak lateŕia beren aldeko izan dedīa nai badute, langīleen jokera lateŕia berentzat izan dedin alegintzea izan beaŕ.

—Solozabal'ek: Orixe da polita!, talde biak lateŕiaren agintaritza berenganatzeko asmoa, gero, oŕen eskeŕ, beste guziak menperatzeko.

—Diaz'ek: Gaur eztago beste biderik; lateŕia gero ta indartsuago egiten ari da, beraz, agintaritzaren bidez indaŕ ori norberarentzat irabazi beaŕ, eztago beste biderik, ezin.

Oŕenbestez amaitu zan bilkura ura ta arakiña izanezik beste guziak pozik, naiz eta bakoitza bere aburuarekiko zedaŕiturik; ba-zirudien aberastasun ala zorion aundiena berenganatzeko bidean sartu zirala; amets eta alaitasuna etziran, ala ere, margo berberakoak guziengan.

Kalera irtenda, bereala sakabanatu ziran eta, oitura zuenez, Patxiko geratu zan irakaslearekin, etxeraño laguntzeko asmoz.

Eta dagoaneko iĩunabaŕa asi zalarik ara, zeramaten bidean bertan eta auŕez-auŕe Mikel eta Martin zetozela; nai ta nai ez alkaŕen albotik igaro beaŕ, eta aurkiz-aurki egoteko eldu ziranean:

—Mikel'ek: Aguŕ jaunak, aŕatsalde on! —ago-betean bota ziela.

—Diaz'ek: Aguŕ —idorkiro erantzun.

Beste biek tutik ere ez. Patxiko mukeŕ eta Martin odolak burua artuta. Bidea egiten aldendu ziranean:

—Martin'ek: Oŕa oŕ gure adiskide miñak; ziuŕ natxegok orain beren naste-zulotik zetozkikala, gaur beren bilera-eguna duk-eta. Nolako bikotean alkartu dituk bi oyek; irakasleak eztik nabari-erazten eŕaz bere baŕena, baña Patxiko landeŕ oŕek gero ta geyago ezkeŕeko hegiz begiratzen gatxiok.

—Mikel'ek —baŕez—: Noski, eskumakoa galdurik zeukak-eta. Eztiagu ajola aundirik euki beaŕ oyengatik. Nik beti aguŕ-egingo zieat, gaur bezela, alkaŕengandik aldentzen gatxiokan guziaren gañetik.

—Martin'ek: Ene aldetik beti kezkaz beterik nagokik oyekiko; ta maiz oyek ditukala-ta, susmo txaŕak ere ene baitan. Oyek ikusi-ta naiz oyei buruz oldoztu, beti nigan zerbait kordoka.

—Baña ona emen beste bat oyen antzekoa eztukana; aguŕ!, Alkain, zer dala-ta zu emen eta ordu ontan?

—Alkain'ek: Aguŕ, adiskideak; gaur bilkura izan dugu ziñegotziak udalan eta berandu egin zait pizkat; orain etxeruntz, eta zuek ere Amamio'runtz, ezta?

—Mikel'ek: Bai noski, ta alkaŕekin joan gaitezke nai baduzu.

—Alkain'ek: Pozik gañera, ia ilundu egin zaigu ta obeto joango naiz adiskideekin bakaŕik baño.

—Martin'ek: Goazen, bada; guretzat ere zure laguntza atsegingaŕi benetan.

Eta bidean irurak abiaturik, beŕiz ere:

—Martin'ek: Lan aundia ukan edo duzute udalan, ain luzaroan egoteko; berandutxo asi ezpazerate, bederen.

—Alkain'ek: Ez, ez, bazkaldu ta bereala bildu gera, baña ikusteko arazoak ugari ta ..., udalakoa eztan bat ere an izan dugu, endoreak deituta noski; nor ote uste duzute?

—Martin'ek: Eztakit, buruak eztit izenik ematen.

—Alkain'ek: Nolabait edo aŕituko zerate ..., Elortza jauna.

—Martin'ek: Elortza jauna. Bai, aŕitzekoa da ori, egitan. Eta gañera endoreak deituta?; jakin-miñez geratzeko eiki; enuke nai-izango ukondorik sartzea, baña ezin ukatu zer izan dala-ta jakiteko iŕikitzen nagokizula.

—Alkain'ek: Ezta izan esku-azpitik esateko ezer, zuei batik bat.

Eta Alkain ziñegotziak, Elortza jaunarekin udalan izan zuten guzia ago bete-betean esan zien. Amaitu zuenean:

—Mikel'ek: Zugatzai buruz artu duzuten erabakia ezin obe nire ustez, eta Elortza'ri aurkeztu diozuten asmoa ere egokia deritzait.

—Martin'ek: Eta zer erantzun dizue berak?; eztut uste bereala onartu dizuela ..., ezetza borobila jaso ezpaduzute...

—Alkain'ek: Ezetzik ez, baña ezta bayetza ere; ene ustez aŕituta geratu da lenengoz; gero, endoreak, ez estutzeko ta arazoa iraduz ibili gabe ta lasai aztertzeko esan dionean, ezmezean edo, eskatzen geniela, asieran, geyegizkoa iruditzen zitzayola esan eta, artezean orduan begiratu nai ezean edo, endoreak esan dionari oratu zayo, ta oldoztuko duela agindu digu. Ene iduriko oso urduri geratu da, ta ziuŕ nago alegiñak egingo dituela ontzat ez artzeko bideren bat aurki nayean.

—Mikel'ek: Bai, ez diozute buruauste txikia eman. Gogoŕ izango da oŕentzat udalari ezetz esatea, baña bere ogasunai oŕen eratxikita

dagoenezkero, lo-egin eziñean egongo da ori gau batzuetan, eta bilduŕ naiz, azkenez, ogasunenak gaña artuko ez ote dion.

—Alkain'ek: Ustekoa da ori, bai, bere naya auŕera ateratzeko oituta dagoela gogoratzen badugu; ta orain, batez ere, sasoidunenik zegoenean, ustekabean Elortza jaunari tanka.

—Martin'ek: Zergatik diñozu orain sasoidunago zegoela?

—Alkain'ek: Ez al dakizute Letona zaŕarengandik lortu al-izan etzuena, aren semeak emateko gerturik dagozela? Oyei zirikatzen ari-izan zaye ta asko ere eskeiñi die, beren eyera ta antepara sal dizaizkioten. Mutilek eztute oindiño amor-egin, baña ez da aŕitzeko izango, azkenez beren bayetza ematea.

—Mikel'ek: Eztabil nagiturik, gero, gure ola-jabea. Ustekoa zan aitari eskatu ziona semeai ere egingo ziela, baña Letona'ren eriotza oraindik ain urbil dagoelarik, enuen uste oŕen leyatsu ibilliko zala.

—Martin'ek: Ez, ez da ori lotan geratzeko gizona; baña mutil oyentzat ezta ezer izango beren aitaren naya?

—Alkain'ek: Naimenari buruz bai, lotsati edo izatea ta ortarako guraria ere oyengan egotea, baña gaurko gazteak ain uŕe-gose diranezkero, ba-dakit azkenez burua makurtuko diotela Elortza'ri.

—Martin'ek: Eta zuen eskariari buruz, Elortza'k ezetz esaten badu, ez ote dago lege-biderik amor-eragin dezala?

—Alkain'ek: Ez, oraingo legeak itxita dagoz ortarako, ta aitzitik, auzi batean beraren alde izango lituke.

—Mikel'ek: Oŕela da, bai, zoritxaŕez; eta gero, bera ta zuek batera ezpazatozte, alkaŕenganako geroko aŕemanetan ere otz geratzeko guziak; oŕa atsegiña eztan beste azpegia.

—Martin'ek: Beti Egoeŕi'koen zabaltzea edozertarako; amoŕagaŕia, benetan, gure artean ari-izateko ere, eten gabe, ori eragozpen.

—Mikel'ek: Orixe gure zoritxaŕa; baña geron aldetik gogoŕ egin beaŕ dugu al dezakegun guzia betetzeko, ezin ixil eta geldirik geratu. Indaŕez jaŕi diguten egokeraren aurka al diteken neuŕi aundienean jokatzen, baña bide batez gerok iñoren baimenik gabe egin dezakeguna betetzen.

—Alkain'ek: Bidezko ta beaŕezko, ori, alegia. Ta ain zuzen nola dabil gure «Azpaŕena'ko Elkargoa»? Oŕa ekiteko bide egoki bat.

—Martin'ek: Nere ustez ondo doa, ta oraintxe amaitu dugu beaŕ-beaŕezkoa zan eginkizun bat. Eŕiz-eŕi ibili gera egun auetan, guziekin mintzatzen eta arazoari gaŕa ematen.

—Mikel'ek: Bai, nekazarien aldetik uste nuen baño laguntasun aundiagoa aurkitu dut eta Elkargoa beaŕ dan bezela antolatzeko batera datoz geyenak. Orain Elkargo'aren arauak gertu beaŕ ditut, asteko eralgi-beaŕa zenbat izango dan ikusi, ta eŕi bakoitzeko ordezkari bat eŕiak berak izendaturik, lenbailen bilduko gera araudia onartzeko ta, al bada, aurten bertan lanean asteko.

—Alkain'ek: Tira, ori bederen bere bidetik ba-doala ikusten da, ta ziuŕ egoteko guzia auŕera aterako duzutela, batez ere gure nekazariek laisteŕ obarien ituŕia dala oartzen badute. Baña, edozein eraz, lana izango duzute beti ta ez txikia, bai ta eroapena ere sortuko diran korapiīoak askatzeko.

—Mikel'ek: Zalantzik ez ortaz, baña oituta gagoz baseŕitaŕok lana egiteko; Ludi ontan iñork lan badagi oŕa oŕ nekazaria; neke ematen duen lana egiten; egokia, oŕengatik, nekazariaren izena noizpait eman eta gero ain onarturik duguna. Buru-lan utsean egiten danaren uŕengo, ene aburuz, nekazariarena gizonak beţe dezaken nagusiena.

—Alkain'ek: Izan diteke ori. Nekazaria eten gabe ari da beti lanean, bere egun eta bere orduan gauza bakoitzari emana; eztabil, eztu ematen bederik, iñoiz iraduz dabiīela, «lan baratza, lan aratza» atsotitz zaŕa edo gogoratzean.

—Mikel'ek: Bai, egia da atsotitz oŕek diñoena. Baña gero, nekazarien artean ere, beste gizonen artean bezela, ezberdintasun, goraberak eta uleŕ-eza sortzea, bidezkoa da, ta orduan eroapenez yarduteko gerturik egon beaŕ beti. Alaz ere lan-egitea ta lanegiteko naya izatea da bereziki lenengoa; eztugu aiztu beaŕ lana baikortasunaren iturburua dala, ta oŕen ondorioaz eroapena ere elduko zaigu.

Azken itz auek Mikel'ek, eŕira sartzerakoan egin zituen, eta besterik gabe aguŕ-egin zioten alkaŕi, bakoitza bere kabira joateko; baña bakoitzak ere norberaren asmoai buruz amaika birundaka buruan. Zer dala-ta, Ludi ontan beti gizonaren eginkizunetan ainbeste eragozpen, beaztopa ta sostoŕ, geyenetan, ustekabean sortu beaŕ? Zaīa benetan erantzuna, baña egiz eŕezena gertarietan.

Ekintzetan oŕelakoak beti, arean, gizonen ekintzak uts eta zearo garden eztan oñaŕitik sortzen edo diralako.

Bizi, ekintza ta gentza'ren alde

Udabeŕia, urtezaro atsegiña, itxaropen-aldia, amets edeŕenen sorgiña. Neguko lotatik esnaturik, sorgoŕaren kateak apurturik, argia iŕikitzean, eguzkiarekiko yoranean, udabeŕia zabaltzen da, yantzi beŕiaz apainduta. Indaŕ aundiaz abiaturik, bizidun orori ematen dio, eŕotik guzia suztaturik, ekintzarako zorabio.

Alaitasunezko margoa, landaretan orlegia; zoragaŕizko lekayoa, jauzikan gaztedia; altxumak dira zugatzen iŕia, iŕiñoa auŕengan altxuma ta muskiīa. Txoriñoek kabia gertutzen, ardiñoek arkara sumatzen, zaldiñoek iŕintziz putinkatzen; erletxoak buŕundaka, untxitxoak punpaka, antxumetxoak ikotika, umetxoak aīikunka. Bizi beŕia ororengan bultzaka.

Udabeŕi, bizi beŕi, ekintzarako bide ugari; odola borbol zañetan barne, ametsak zoro gogoetan eragiīe. Oŕiak berpizturik, makalak zuzperturik, agureak gazteturik. Bizi guzia beŕizturik.

Bizirako yorana, guzientzako indarduna; maitasunari buruz nai ta gurari eŕuz; igitzeko apeta bizidunengan, ezin-egon eta eragiketa baztereŕetan; gelditzerik ez, geratzerik ere ez; orantza ta azkaŕi nunnai, edonun eta ororen zeaŕ, udabeŕiak jai, bero ta sukaŕ.

Udabeŕian sarturik, Mikel'ek bizi-nayean abiaturik, indaŕ beŕiaz ere lanean murgildurik; bere amets eta eginkizunetarako beti aiduru izatean, «Azpaŕena'ko Elkargoa» antolatzeko ekintzean, zain eta muin zebiīen orduan, arloari buru, biotz eta gogoa emanda, batez ere asiera ona emateko xedean. Ongi baitzekien okeŕ-bidean sartzen dana, gero eziña edo zayola beaŕ bezela zuzentzea.

Azpaŕena'ko nekazari geyenak bere asmoa ontzat artu zutelarik, oñaŕitzat artu zuen ori, asmo ura egipena biurturik lenbailen ageŕ zedin, egiñaletan yarduteko ta guzientzat erakunde egokia atontzeko. Bere uziak iraduz ibiltzeko eskatzen zion, baña buruak, astiroago izatekotan ere, aŕoin gotoŕ eta tinko jartzeko onu-ematen zion bereziki ta isituki. Ta egindako ikasketan ari-izateko artu zuen oituraz buruz

jokatzeko bideak ametsak gaindu al-izan zituen, azkenez, bere baitan.

Egun batzuk joan zitzaizkion alegiñetan, zeatz guziak aŕetaz idazten ingietan, arloa alde guzietatik zin-ziñez begiratzen, bere lan-gelatik egun guzian ia irten gabe ta beste guzirako ardurarik izango ezpailuen. Lenengo burutapenak aldatzeko zituen, uŕengoan izandako gogarteak eraginda edo beste ikuskari ta aintzin-gibelak eskatzen zutenez. Eziña zeritzayon batzuetan beaŕa zanez guzia borobiltzea, gero, oŕengatik ain zuzen, sutsuago yarduteko.

Alako batean, ustekabean ere, Gasteiz'etik bialdutako gutun bat artu zuen, Aŕoyabe adiskideak idatzita eta beŕi onak bialtzeko: ango Neskuts Zuriñe'ren enparantzako etxe batean bizitza aundi xamaŕ bat alogeraz artu zuten, bertan gasteiztaŕ abertzaleak beren batzokia eukitzeko.

Lanean ari ziran dagoaneko an eta askundea Araba'ren Zaindaria zan Purdentzi Deun'aren egunean egiteko asmoa zuten. Bide batez Araba'ko abertzale guzientzako erakunde berezia soŕerazi nai zuten eŕi guzien oniritzikoa izan ezkero; ta xede oyetaz orori adeyezko dei kartsua, berari bezela, egin zieten.

Erakundea soŕerazi ta eratzeko, jayaren auŕeko egunean, aŕatsaldean eta batzokian bertan aukerako bilkura egin liteke, ta xede ortaz eŕi bakoitzetik ordezkari bat erdutea naikoa edo izango litzake; gero, jayetarako, nai-izango luketen guziak. Gasteiztaŕen ustez bilkura bateaz aski izango litzake Araba osorako erakundea antolatzeko, ta oŕen ondoren batzokiaren askundea egiteko.

Oŕen uŕengo, jayetan asteko. Lenengoz Alduntegi'an urtero egiten zan gau-jaya izango zan, eta biaramonean, Purdentzi Deun'aren egunean Armentia'koa. Bi jai oyetan berak gertutako zerbait aurkeztu nai zuten, jayen antolatzaĺeak ontzat artu ezkero. Ta oŕela, Araba'ko betiko jaya, bere Zaindari Deun'arena ta asmo aberkoi baŕiak alkarturik bezela agertuko lirake.

Oso gogokoak izan zitzaizkion Mikel'i irakuŕitako asmoak, eta gogoz bereala eman zien etxekoai, Aintzane'ri ta Martin'i guziaren beŕi. Esatekorik ez, ongi iruditu zitzayen oyei ere Gasteiz'en gertutzen ari zana; ta oŕekiko erabakia artu zuten: lenengo egunean izango zan guzirako, Mikel eta Martin joango ziran eta Zaindari'aren egunean, goiz-goizetik, Maďalen eta Aintzane, Amamio'ko ta beste eŕietako ere joan nai-izango luketen beste guziekin; eta Gasteiz'en guziak alkarturik, gero, alkaŕekin Armentia'ra joateko.

Oŕela, Mikel'en erantzunak laisteŕ artu zuen Araba'ko uri-bururako bidea, amamiotaŕen bayetza ta gogo beroa eramaten.

Eraspen aundia zan Purdentzi Deun'arenganako Mikel'ena, ta esateko zaĺa zan poz barnekoya bere baitan zebilkion, Araba'k bere Zaindari'tzat Deun ura aukeratu zuelako; ezin oberik gentza-bideetan barna joateko. Eredu yaukala zan Deun aren oroipena noizpait epeldu edo zan arabaŕen artean eta oŕengatik goŕotozko taldekerietan sartu ziran beste euzkaldunak bezela. Itsutasun deitoragaŕi artatik amaika gaitz eta kalte Araba ta Euzkaleŕi guziarentzat. Eta azkatasunik gabeko egokera itun eta gainberaldi artaraño jausi zirala ikustean mingaŕia benetan gure amamiotaŕarentzat.

Maiz zerabilzkien Mikel'ek asmo, gogorapen eta oarketa ayek bere baitan, poz eta naigabeak alkaŕekin nasturik bere gogoa gogoŕ unkitu ta dardaratzen zutenak; eta aitzina begiratu nayean ezinbestekoa iruditzen zitzayon lenengo ikastolaetatik asi ta galga guzietara Purdentzi Deun'aren bizia, oso ta zeatzez irakasi ta zabaltzea, gentzarako zuen doaya batez ere nabari-erazteko, ta arenganako zale ta maitasuna guzien biotzetan sartzeko.

Elburu onenetakoa arabaŕentzat beren Zaindari'aren uŕatsen atzetik ibiltzea; bere bizirako arau bezela artu zuen Mikel'ek Armentia'ko Deun'arena, ta bere ametsetan, arabaŕ guziak ere arau bera artuko ote zutelarik, asmo gozo ta bikaña bezela txeraz laztantzen zuen saŕi.

Ulertzekoa, beraz, gasteiztaŕen beŕia eltzean artu zuen poza; beraren eta bere lagunen eginkizunetan ura zan atsegiñezko uŕatsa; ta egunen bidean mingotzak izango ziran besteak ere elduko zirala gogoratzean, ain edeŕ zitzayon ura gogo-gogoz goratu ta txastatu nai zuen lei bizienaz eta edari bikain bat lez, bere azken txorta irentsi arte.

Oŕela, bere adorea ere indarturik oartzen zuen beregan eta baikortasunez beterik, bere lagun eta eŕitaŕ guzienganaño el-erazi nai zituen bere asmoak ayek ere gozatu al zezaten eta oro gentza-bideetan barna saŕ zitezen. Xede oyetaz orniturik Gasteiz'era joateko egunaren zai zegoen urduri, an be bere asmoak jakin-erazteko naimenaz; eta ango adiskideek ere Purdentzi Deun'aren egunerako ain asmo onak zituztelako okuntza edeŕaren antzeko ikusten zituen ayengan bere ametsen azia ereintzeko.

Beaŕezkoa zitzayon Mikel'i bere oldozpenak norbaiti jakin-erazi, berarekin oyetaz mintzatzeko; ta bere ta Araba'ren Zaindari aren

jai aurreko egunetan bere etxekoekin, Aintzane ta Martin'ekin orrela ari-izan zan bero-bai-bero ta azpertzeke, bere azkortasunaz guziak kutsatu nayean.

Argi azaldu zan Purdentzi Deun'aren aurreko eguna; ozkirri ala ere, neguaren ondakiña bezela, baña Gasteiz'eruntz abiatzeko asgiro ederra gazteentzat; eta ara joan ziran urduritsu gure bi adiskide amamiotarrak, batzarrera ordutsu eltzeko gurariaz.

Eltzerakoan bereala ikusi zuten enparantza ederreko etxe aundi baten bigarren bizitzan iragarki guztiz polita: «Gasteiz'ko batzokia», ta ara jo zuten yoranez beterik. Eurekin batera beste batzuk ere atarian sartu ziran eta gora eldu-ta, amaika lagun aurkitu zituzten marmario ta zarata parrastada osoan murgildurik, alkarri agurka ta guziek jo-ta-su mintzatzen.

Beren-berenean aurkitu ziran gure adiskideak bereala, berak ere ezagunak agurtzen eta gelaz-gela guzia begiratzen. An agertu ziran aurki Arroyabe anayak eta arrera beroena egin zieten; bai ta alaitasun aundienaz ere etxearen askunderako ainbeste gogaide bildurik ikustean.

Etxea erakusten Arroyabe anai zarrenak gure amamiotarrak eraman zituen, gela bakoitza zertarako atondu zuten adierazteko: an zegoen, bazterr batean «idazkaritza»'rakoa ta, ondoan, «idaztidi»'koa izateko; biak areto aundi baten muturrean jarrita; areto ura, joan eta egon nai-izango luketen guzientzako, solasean ari-izateko, noizpait kulimulika edo egoteko ta edariren bat artzeko edo ipiñita; beste mutrean emakumeentzako gela berezia ere apainduta zegoen; gero beste bi edo iru gela txikiak, izan litezken beste beraŕ batzuetarako, ta azkenez batzarr eta bilerak egiteko beste areto aundia.

Bertara eldu-ta, ain zuzen, orduantxe asi ziran beste lagunak, geldiro ta ezarian-ezarian, sartzen, bilkurarako ordua urreratzen zalako. Maipuruan egoteko ziranak beren tokian zegozen ingi batzuk mai gañean lerokatzen; eta Mikel'i eurekin jartzeko eskatu zioten. Etzuen ori nai gure gizonak, baña bilera aren eta euzkal-bazterretan edatzen zijoan gogo-igidura guziaren asieran zegozen lauetako bat zala gogora-erazi zioten eta oretxengatik amor-egin beraŕ.

Laisterr, bospasei aulki bakarrik utzik agertzen zirala, bilgua bete-beterik agertu zan, ta maipuruko erdian zegoenak, zutiturik, mintzatzera abiatu nai zuela adierazi zuen. Aurki ixildu ziran bildutakoak eta maipurukoa onela asi zan:

—Onarr ezaidazute, ona erdu zeraten guziok, etxe berri onen antolatzale guzien izenean gure biotzeko agurrik sutsuena. Etxearen askunderako bazterretara bota genuen deyari, ez genuen uste onen erantzun gogotsua egingo zeniotela. Ta oraintxe, Araba'ko alde guzietatik etorrita, orela izan dala egiztatzen diguzutenean, oso zala zait gure barneko poza nolako aundia dan esatea. Ongi etorri, alakotz, guzioi!

—Asita dugu, Euzkalerri guzian edaturik, gure Erri'aren aldeko ekintza berria. Asiera ona izan dala esan beraŕ, eta gure esakun zarrak «asiak egiña dirudi»'ela diñoenez, gurea ain on eta egokia izan dalarik, egipen zabalean biurturik laisterr ikusi al-izango dugula ziurr egon gaitezke.

—Gure ekintza aundi au euzkaldun guziona izanik, arabarr-zurrian gure-gurea dugu ziñez, eta, anayak ditugun beste euzkaldunengandik noizpait nolabaiteko aldendurik lengo arabarrak ibili baldin badira, gaurgero euzkaldun guziekin bat eginda yarduteko xede gotorr berezia artu beraŕ dugu guziok; baitezpadakoa iruditzen zait ori, ta xedea gaur emen argi adieraztea gure lenengo urrats egokiena izan ditekela uste dut.

Txalo-zartada bero ta luzeaz onartu zuten bildutakoek maipurukoaren xede bikaña.

—Ongi dakizutenez ekintza onen asmoaren asieran, lau ikasle gazte izan ziran eta gazte ayetako bat, arabarra ere bera, gurekin dugu emen, eta oindiño ezagutzen eztuzutenoi pozez beterik aurkezten dizuegu.

Mikel'enganuntz edatu zuen eskua, ta txaloka ere adierazi zuten guziek aurkezpen ura nola atsegintzen zitzayen.

—Ezeolaza'tarr Mikel duzute gure adiskide au, txikitan, bere erria dan Amamio'n ain ederto bota zuten gentza-deyaren lekukotzat arr dezakeguna. Egitan, len esan dizuedan ekintza-asieran, aurreko azi ona izan zan dei ura, ta ba-dirudi uzta egokia ekartzeko egokiro ernemindu zala.

—Len asiera ura gentzarako izan zala gogoraturik, gaurko ta emengo askundea egin eta ospatzeko, egokienetakoa iruditu zaigu gure Zaindari aundia dan Purdentzi Deun'aren jayarekin batera burutzea, bera izan baitzan gizonen arteko gentzaren alde bere bizi guzia eman zuena; ta ortarako, aldendurik zegozenak berriz alkartzeko izan zuen doaña ain aundia izan zalako, gentzazale guzientzat eredu yaukalenaz onartzekoa dugu arabarrok.

—Esan beaŕik ez, gure etxe beŕi au arabaŕ abertzale guziona da; etzerate gutxi gaur bertaratu zeratenok; ia gerokoan ere zerok beŕiz eta nai-izango duten beste guziak ere ementxe maiz agertzen ote zeraten.

—Ona izango litzake, ene iduriko, zuen eŕietan ere beste batzokiak idekitzea. Gerokoan, naiz eŕiketa, naiz gizarte edo gogo-lantzearekiko lan eta lan egin beaŕ-izango dugu, ain tipiturik geratzen ari zitzaigun gure euzkal-gogoari eutsi ta indartu al-izateko. Ortarako, eŕi bakoitzeko batzokiak gaztelu ta babespea izan beaŕ-izango du, guziak, gañera, Araba guzirako elkargo berezian ari-izateko.

—Gure ekintza beŕiari *bizi* ta *ekiñaldia* eten gabe erion beaŕ zaizkio, ta oŕela izan dedin emen erabaki gotoŕ eta aundia artu beaŕ dugu. Asmo ortaz, gure olerkari ona dugun Madinabeitia adiskide ospetsuak bertso bereziak atondu ditu, gaur gabean, oitura danez, Araba'ren Jauregi'ko atadian egingo dan gau-jayan, ortarako gerturik dagozen gazte batzuek esango dituztenak; ikuskizun edeŕa izango dalakoan, guzioi ara joateko, bearbada ausarkiegi, eskatzen dizuet.

—Baña Purdentzi Deun'aren eguna biar da, ta aren doai berezia eŕoz arturik *gentza*'rako beste bertso batzuk egiñak dauzka gure olerkariak, eta gaurko gazteak berak Armentia'n emango dituzte goizeko elizkizuna amaitu ondoren; uste dut ara joatea ere damutuko etzaizuela.

—Onela amai dezakegu gure biĺera au; alboko aretoan zertxobait aurkituko duzute gure asmoen alde alkaŕekin topa-egiteko; baña lenago Ezeolaza adiskideari itz batzuk esan dizaizkigula eskatu nai diot. Eta oŕen uŕengo Araba osorako nolako erakundea antola diteken ikusiko dugu. Zuk orain, Mikel, otoi!

—Mikel'ek: Aguŕ aberkideok; enuan uste gaur emen itzegin beaŕ-izango nukena, baña nola Aŕoyabe adiskidearen eskariari ezetzik esan?, eziña niretzat, batez ere gaur emen eta gure Eŕi guzian zabaltzen eta indaŕa artzen ari dan euzko-asmoaren asieran beste iru adiskideekin egon naizelako. Ba edo dakizute laurok alkaŕi zin-egin geniola asmo oŕen alde gure alegin guziak jokuan jartzeko; zin oŕen ondorioaz yardespen ertsia leporatu genuen eta bidezko ta beaŕezkoa zaigu yardespen ori on egitea, alde ta aldi guzietan; egun ontan eta toki ontan beraz ene eginbide ori bete nai dut.

—*Bizi, ekintza* ta *gentza*. Iru itz edeŕ eta iru asmo edeŕago oyetan. Ezin esan nolako poz sakona izan dudan, itz oyek adierazten

dutena, gaur eta biarko eginkizunetarako, oñaŕitzat artu izan dala Aŕoyabe'k esan digunean; ain zuzen iru asmo oyek alkartzeko, asieratik, nire xede gotoŕa izan dalako.

—Ba-dakit, gero ta argiago ikusten dudalarik, eŕaz izango eztala iru asmo oyek alkartzea, zalantzik ez ortaz. Gure elburu nagusiena gure Eŕi'aren biziari eustea da, noski; ori egin al-izateko gaur eztugun azkatasuna ezinbestekoa zaigu, ta azkatasun ori irabazteko, nai ta nai ez, buŕukatzea zaigu beaŕa, orain menperatzen gaituztenek amor-egin nai-izango eztutelako.

—Ta emen sortzen zaigu oztopo aundia: nola buŕuka ta gentza alkartu?; oŕa gure korapiĺo aundia, askatzeko beti zaĺa izango zaiguna. Ezinbestekoa da ororentzat gentza, baitezpadakoa ere buŕuka; alkaŕen aurkako asmoak; eta biei eutsi nai-izan ezkero, guziai gentza eskeiñi ta opa beaŕ diegu lenengoz; gure eskubideak argi ta garbi aurkeztu ta berentzako begirunea eskatu gero; ta ezetza jaso ezkero, orduan buŕukan sartu; ez itsu-itsu ala ere, aŕeta aundienaz eta ororenganako adeya aiztu gabe. Izan bedi gentzaren asmoa gure ekintza guzien barnean, buŕuka guzietan ere.

—Buŕuka gure ekintzaren azpegi bat izango da eiki, ta gure ekintza ori beste era batzuetan ere azaldu diteke; oŕela ageŕerazi beaŕ dugu, gutxi ezpaitira ortarako bideak. Ni neu oyetako batean abiatuta nago Azpaŕena'ko gure eskualdean; zuen arteko batzuen batzuek ba edo dakizute ango nekazariak elkargo berezi bat egin dugula, luŕbiziari indaŕ geyago emateko xedeaz; ba-dugu gure egitaraua, orok onartuta, eta berealaxe asiko dugu beaŕa izango dan lana. Asmo oŕi buruz idaztiño bat argitaratu dugu ta gogoz eskeintzen dizuet, Araba'ko beste aranetan ere beste ainbeste egin al litekelako; nai dezanak eska dizaidala ta pozez bialduko diot.

—Oŕ ekintzaren zati bat; baña ba-dira beste amaika ere; Iruña'n gure eskubide ta edestiari buruz, Donostia'n euzkerarekiko ta Bilbao'n eŕiketa ta gizarte'ari buruz, lanak egiten asi dira ango lagunak, ekintzaren asmoz beti, Guri ori asiera baño besterik ezta; azpegi oyetan bakaŕik, guzientzako lana sortuko da, ta beste azpegiak ere agertuko dira aurki, gure Eŕi'aren ekintza guzia betetzeko. Alakotz, guziok onartu beaŕ dugu lan oyetan sartzea ta orixe gaurko bilkura ontan guziok aŕ dezakegun erabakia, alkaŕen laguntasunaren beaŕean baikera.

—Goazen beraz, ekintzaen bidez gure Eŕi'aren biziari gentzarako

xedeetan eusteko. Oŕa egitaraua; ta asmo oyetan beti aurkituko nauzute aiduru, ororentzako lagun eta adiskide.

Txalo beroak jo zizkioten Mikel'i, ta bildutakoentzat bere itzak begiko ta onartuak izan zirala argi agertzen zan.

Nolabait amaitu ziranean, maipuruan zegoen beste lagun bat jeiki zan eta onela asi zan mintzatzen:

—Gaur eta biarko jayetarako egitaraua ikusi ta Ezeolaza adiskideak esan diguna entzun ondoren, gauza bat bakaŕik geratzen zaigu betetzeko: Araba osorako erakundea nola ta zertarako jaŕi beaŕ dugun erabakitzea; noski, asmoa guzien aldetik aintzakotzat artu ezkero.

—Ene ustez, gerorako gero ta beaŕago izango zaigu erakunde ori egiña eukitzea. Gure erkietako beste euzkaldunekin aŕemanetan sartzea ezinbestekoa izango zaigu ta oyetara arabaŕak bezela joatea bidezko ta beaŕa.

—Ezin orain elkarbide oyek zeintzuk izan ditezken zeatzez ikustea, baña zalantzik ez, izango dirala ta euki beaŕ-izango ditugula, euzkaldun guziontzat elburuak berak ditugulako. Oŕengatik, gaurkotz naikoa izan diteke sei edo zortzi lagun izendatzea, arabaŕ abertzale ororen ordezkari bezela izan ditezen. Izendatzea iru edo lau urtetarako egin ditezke, gero beste epe baterako beŕizteko ala aldatzeko.

—Ordezkari oyek batzorde antzeko bat osotu dezakete; ta bi xede auek aŕ litzake asteko: lenengoa, arabaŕ guzientzat alkartzeko bide egokia izatea ta ororen izenean itzegin eta ekitea; bigaŕena, Araba'ren izenean beste erkietako euzkaldunekin elkarbidean sartzea. Apika, beste erkietan ere gurearen antzeko beste erakunde bana soŕ diteke, ta oŕela bada, elkarbideak eŕazago burutu ditezke. Ta izan ditezken lau batzorde oyen artean beste elkargo berezi ta aundiagoa egin liteke euzkaldun guzien batzorde nagusia bezela.

—Ongi baderitzaizue, bego ortan gaur asmo ori, ta geroko beaŕak adieraziko digute nola jokatu beaŕ-izango dugun. Eta orain gure zortzi lagunak izendatzea baño besterik eztugu egin beaŕ. Ene ustez beaŕa zaigun bat Ezeolaza adiskidea da, ain zuzen berak aipatu duen yardespena dela kari; gero ona izango litzake beste bat gasteiztaŕa izatea, idazkaria bezela jaŕi liteke ta batzoki ontan lanegin lezake ororen asmo edo eskariak artzeko, guzien erdian bezela egoteko edo; ta beste seirak, bi oyek ontzat artu ezkero, zuek aukeratu beaŕ dituzute.

Ontzat artu zan guzi ori, baña etzan izan ain eŕaz beaŕak ziran

beste sei lagunak aukeratzea; azkenez eŕi auetakoak geratu ziran izendatuta: Amuŕio, Murgia, Aramayona, Biaizteri, Maeztu ta Oyon' ekoak. Eta gasteiztaŕa bezela Biana'taŕ Gotzon onartu zuten biĺerakoek.

Oŕela amaitu zan bilkura ta bereala bildu ziran idazkaritzan batzordeko zortzirak; gogoz alkartu ere, ta zortziren buru, lendakari antzo, Mikel izendatu ta onartu zuten.

Aŕas-apalean zegozen ordurako gasteiztaŕak eta gau-jaya urbiltzen zitzayelako edo, ia geyenak lentxoago apaltzera zijoazen, gero jayan iraduz edo ez egoteko. Beste oŕenbeste egin zuten Mikel eta Martin'ek eta batzorkide beŕien arteko batzuek ere, ortarako Martin'ek ongi gogoratu zuen «sabela ezta elez asetzen» esakunaren arauz. Bereziki nai-izan zuen Mikel'ek bere batzorkideekin apaltzea ta egotea, ororen asmoai buruz mintzatzen jaŕaitzeko; ta Martin'ek esandakoari, erdi paŕez, —bai, «zaaŕ-itz zuuŕ itz»— erantzun ziolarik.

Araba'n nekazaritza ain zabalduta zegoelako, beaŕa zan, Mikel'en aburuz, giza-mail ortan bereziki ta aintzindasunez arabaŕen elkargoa antolatzea, bai ta sendotu ta tinkotzea ere. Asmo oŕi atxikitzea esondatu zien bere lagunai lenengoz; baña bigaŕen xedeaz ere, lengoa bezin gaŕantzidun, beste euzkaldunekin bat egitea zan, guziek endeŕi bera osotzen zutelako.

Gayak zudugaŕiak ziralarik, ta guziek, aŕatsaldeko bilkuran, gogoa bero-bero eginda zeukatelako, gogotsuki onartu zituzten Mikel'en asmoak. Aurki amaitu zan aparia ta alkaŕekin ere berealaxen abiatu ziran Araba-enparantzaruntz, an Araba'ren agintaritzak bere toki berezia daukan jauregi edeŕaren atari ta auŕean bete egin beaŕ baitzan urteroko gau-jaya.

Ara elduta, oro begi-betegaŕi, giza-lagunen bilduketa, guziek mintzoz eta deadaŕez alkaŕi. Begiak ikusi-guraz, belaŕiak entzuteko goseaz; lenengoentzat an agertzen zan lendabizi, aundi-aundirik aunditzat, ain txairo eraikitako jauregi. Bere etxe-tankera, goitik-beera ta eskuin-ezkeŕera, apal eta gaindiro, agertzen zan batera, jaurgoa nagusiro bertan azaltzera.

Aŕizko armala zabala atariraño eltzeko; atarian zutabe lerdenak goiko sapaiĺo edeŕari edo eusteko; ta atariko bi aldeetan arabaŕ ospatsu bien aŕi-irudiak, arabaŕ-zuŕian ororentzat eredu izateko.

Bat-batean, argi guziak emanda, gaua argitu zan oso; jauregiaren etxauŕea atxurdiñez egiña bailitzan ororen begientzat gozo; aŕietan

dirdiz argi-diztirak ametsezko irudiz, amaika eraz tartekatuak, goi--bera guzia leyaŕezko antza ageriz.

Armaĺaren bi aldeetan, eskuin eta ezkeŕeko mutuŕetan, lau lagun--talde goitibera leŕo-leŕo ta zutik jaŕi ta bikaña alkaŕen alde; gizonezkoak sayets batean, emakumezkoak bestean; jakak, lenengoengan, batzuk goŕiak, orlegizko besteak; soñekoak bigaŕenengan, beŕiz, ayen antzeko, oztin eta zuriz.

Talde oyek alboko ustayak bailiran, mutil eta neska dantzari, zuri, orlegi ta goŕiz apainki jantzita ayen erdian, eta bospasei txistulari auen auŕean.

Argi ta margoz osotutako edertasunaz, ikusleen begiak gozatzen asi orduko, sapaĺoan, agintarien bi aldeetara, gorputz-estalkiaz egokiro jantzita zegozen turutalariak beren dei-adaŕekaz, gau-jai aren dei zoliaz, aidetara bota zuten ororentzakoa zan soñu alaya, belaŕietatik biotzeraño guziai sartzen zitzayen atsegin garbiaz. Oŕela, argi, margo ta soñuaz, gogoz asi ziran ospatzen, arabaŕak Gasteiz'en, beren Zaindari Deun'aren ospeaz jai-egunaren auŕeko gauaz.

Neuŕizko turuta-ereskiak ixildu bezin laisteŕ, ara txistulariak biziago asi ta aldi berean eta indaŕ izkutatuak edo bultzaturik, dantzari oro jauzi, beren auŕean zegoen oltza batera bipilki, bertan dantzatzeko iŕi.

Baña, bat-batean, txistuak ixiĺik eta dantzariak geldirik; eta deadaŕ antzeko bat maĺadian zegozen emakumeengandik:


«Bizia da ekintza!».

Ta oŕelako beste bat atzetik, alboan zegoen gizonengandik:

«Ekintza da bizia!».

Deadaŕ biak alkaŕen leyan edo emanak. Eta jaŕaitzean, zuriz jantzitako emakumeak:

«Izadiaren barnean
Izaki guziak bizi,
Naiz an goyan naiz oŕ bean
Bizi osoz ekin azi».



Uŕengo oztiñezkoek :

«Zentzundun ta zentzungabe
Bizirik dagozelako,
Alkaŕen leyan goi ta be
Ekintzan yardun bearko».

Lekayo bat ziran bertso guziak, doñu bizi-biziaz emanak; eta erantzun beaŕean edo, goŕiz jantzitako gizonek ozenago :

«Bizi beaŕ ekintzetan
Ekintzaz oro lurtaŕak,
Alkaŕen aldamenetan
Alan olan be-goitaŕak».

Orlegizkoak ere ekiteko :

«Ekin diardutelarik
Biziari eusten zayo,
Beko guzien aldetik,
Goikoak berdin yo ta yo».

Zer ote zan guzi ura?, beren buruari galdezka ikusleak, oso begi ta belaŕi guziak.

Azken bertsoa amaitu bezin laisteŕ, txistulariek makil-dantza soñu edeŕ, eta dantza egin ere mutil dantzariek.

Benetan ikusgaŕiak gabaz dantzarien uŕats neurtuak; eta azkena ematerakoan, emakumeen lengo deadaŕa aidean :

«Bizia da ekintza!».

Alboko gizonen bestea erantzuten :

«Ekintza da bizia!».

Zoli-zoli orain ere aurtikitzen alkaŕi talde biek ororen xede. Berealakoan emakume zuridunek ao betean :

«Zabaldegi sakonean
Izaŕ eta eguzkiak,
Iñoiz ez oŕ gelditzean
Biziaz erabiĭiak».

Oztindunek jaŕaitzean :

«Argi ta su darizkie
Bizi baitira kartsuki,
Oŕen eskeŕ diardue
Bira ta bira biziki».

Gizon goŕidunek buru-itzul batean :

«Ibiĭi dabiĭztelarik
Ta oŕengatik ain zuzen,
Ikusten dira bizirik
Guzia baita igipen».

Orlegidunak gero amaitzean :

«Ibil ta ibil gelditzeke
Izadiaren barnean,
Ekintzean eten gabe
Eta bizi ekintzean».

Eta ikusleak eztitan, beren burua bitsetan.

Ara beŕiro txistulariak, ta ustai-dantzan neskatiĭak. Entzun ondoren ikusi, ikusleen adikera ezin ausi.

Bigaŕen dantza amaiturik, oyulariek goitik :

Emakumeek : «Bizia da ekintza!».

Gorago gizonek : «Ekintza da bizia!».

Zuridunek aiduru :

«Ludi zabalean zeaŕ
Landareak ernetzeko,
Guna eŕotik igo beaŕ
Bizi-indaŕ antxe dalako».

Orobat oztindunek :

«Oŕi ta osto zabaltzen
Muskil altxumak ernerik,
Lili edeŕak idikitzen
Diardutela bizirik».

Goŕidunek oso leyaturik :

«Ernamintzeko beaŕak
Landare-bizia dagi,
Azkortzerako jokerak
Bultz-ekitean ageri».

Orlegidunek ere besteen bidetik :

«Eŕoetan erne-miña
Zuztaŕetan izerdia,
Bizi oso eragiña
Emateko igalia».

Txandaka oŕela oyulariak eta dantzariak.

Txistulariek beingoan, mutil dantzariak ezpata-dantzan. Eta amaitzerakoan oyulariek ostera ; ikusle batzuk ere batera :

Emakumeek : «Bizia da ekintza!».

Eta gizonekin, gero, geyago ikusleek ere berdin :

«Ekintza da bizia!».

Adoreturik oro, ikusleetariko aboro.

Zuridunek aurki :

«Abeldia bizi oro
Aidean naiz itxasoan,
Legoŕ gañean aboro
Naŕaz eta ibiltzean».

Oztindunek bereziki :

«Biziak dagi egaldaka
Orobat urtan igeri,
Eragin be naŕaztaka
Eta anketan ibiĪi».

Goŕidunek goraki :

«Egaztiak egazturik
Aŕaidiak igeritan,
Oingabeak naŕazturik
Eta abereak ibilten».

Orlegidunek baiki :

«Lau igiera oyetaz
Biziari damayote,
Nabarmentzeko buŕustaz
Bakoitzaren bide bete».

Etenik ez ikusleentzat, baña ezer artu gabe neketzat. Txistulariak jo ta ke, neskatiĪak otaŕ-dantza be. Ikusteari azkaŕ, entzutea jaŕaitu beaŕ.

Oyulariek beste aldian, indaŕez arian; emakumeak beti lenengoz, eta ikuslemeak ere beroz :

«Bizia da ekintza!».

Gizonak orobat gero, ta ikusleaŕak be bero :

«Ekintza da bizia!».

Irabazita zegozen ikusleak dagoaneko, ta jayan geroztik ikusle ta egiĪe bat eginda poztutzeko.

Zuridunez gogotik :

«Gizonarengan bizia
Bere baitan eragiten,
Edozein danik aldia
Alde orotan yarduten».

Oztindunek berenetik :

«Biziagatik ikusi
Berbera dala-ta entzun,
Bere bidez unki-erazi
Usain, txasta ; bizi-zentzun».

Goŕidunek barnetik :

«Begi biak idekirik
Belaŕiak zabalduta,
Atzak be dabilztelarik
Suduŕ, mingain beartuta».

Orlegidunak atzetik :

«Biziaren eragīle
Zentzun oro bizi-ituŕi,
Berak dirala emaīle
Eurak biziari eutsi».

Dantzarien txanda uŕengo, txistulariak mutil-dantza ayentzat jo.

Txaloka asteko gogoz; tarterik ez, baña, ortakotz. Mutīlen azken uŕatsarekin batera, emakumeak alkaŕekin oyuka; oyulari ta ikusleak bat eginda :

«Bizia da ekintza!».

Berebat bizkoŕ, gizonezkoak oro ta gogoŕ :

«Ekintza da bizia!».

Enparantza osoan bat ere ixīlik geratu, emakume ta gizonak, gazte ta adiñekoak, alkaŕi leyatu.

Eta len bezela zuridunek :

«Bizi-izaten oldozten da
Biziagatik maitatzen,
Bizitik datoŕ naimena
Bizi bitartez amesten».

Eta berdin oztindunek :

«Buruan irabiatuz
Biotzean suztaturik,
Gogo-barnean igituz
Irudimenean yorik».

Eta erantzunez goŕidunek :

«Buruak dagien lana
Biotzak duen pilpira,
Gogo-leyak daramana
Amets guzien diztira».

Eta oyen lagun orlegidunek :

«Orok yardun duelako
Biziarentzat bidea,
Betidanik izandako
Bizi agertzeko elea».

Azken itza txistuen lenengo ereskiarekin goyan, alkaŕekin biak bat aidean. Sagaŕ-dantza ezti ta ximena; aunitzek deitua, guzien artean edeŕena.

Geyago oindiño?, bai, entzun zuenak diño. Īlunean edo ikusteko etzan artezkari ote?; oŕela bailitzan, txandaka beŕiro emakume ta gizoste.

Ayek asteko :

«Bizia da ekintza!».

Besteak geroko :

«Ekintza da bizia!».

Zeingeyagoka talde biak, buruz-buru bezela jaŕiak.

Zuridunek beste ukaldian :

«Bizi, biziaren bizi!
Poz ororen iturburu,
Alaitasuna erazi
Maitasuna be mukuru».

Oztindunek guri-gurian :

«Goi-argia eragīle
Olermenaren ituŕi,
Amets guzien yagole
Osotasun igan yori».

Goŕidunek iŕikian :

«Ekin-ekiñik ekintza!
Iregandik igitasun,
Iregaitik ibilkuntza
Iregan izaki yardun».

Orlegidunek ere isian :

«Ekin-ekintza ekiñik!
Oro argi eragiten,
Iretzat eztuk eziñik
Goiko indaŕ erabilten».

Eta amaitzeko edo, emakume oyulariak oro :

«Bizia da ekintza!».

Bai ta gizonezkoak aboro :

«Ekintza da bizia!».

Deadaŕ biok, enparantzako guziak beŕiro :

«Bizia da ekintza!». — «Ekintza da bizia!».

Bide batez txistulariak biribilketa bat asi zuten jotzen; dantzari guziak, alkaŕi eskua emanez, dantza alaya egiten. Eta goiko sapaĺotik turutalariak gau-jayaren soñu ozen eta dardaratsu ematen.

Azken ereski ayek, gau beltzean, uŕun joan ziran, alkaŕen oyartzuna izango bailiran, jayaren aguŕ sutsua eramatean.

Arabaŕak ongienik asi ziran Gasteiz'en, beren Zaindari Deun'ari jaya egiten. Atsedena artzeko asmoz, guziak etxeruntz, alkaŕi bizi ta ekintza opa ta eskeintzen.

Berdin Mikel eta Martin, beren lagunengandik aldendu egin, ostatura joan ziran arin bai arin. Biaramonean goizetik jeiki ere; ba-zeukaten amamiotaŕ eta arayataŕekin alkartzeko xede, ta ororen guraria nai zuten bete.

Laisteŕ eldu ziran alkartzeko ziranak, ayek uste zutenak eta geyago ere eurekin bilduak. Alkaŕ agurtu, gosari txiki bat artu ta guziak Armentia'runtz abiatu : Mikel, Aintzane, Martin, Maďalen eta Yokin, beste guziekin.

Ordu-orduan ara elduta, orduantxe asteko Meza nagusia. Estuestu elizan sartzeko, an bildutako lagunak geyegi, tokia egoki ez betetzeko noski.

Otoi bero guziek beren Zaindari'ari; kartsu aren ospez ari-izan zan apaiz izlari; ororentzako gentza izan zan orok egindako eskari.

Guziak siñismenez, itxaropenez eta goi-maitasunez, alkartuta biotzez.

Irtetzerakoan txistu-soñua, gure lagunek ezagutzen zuten alaitasunezko doñua. Bidean Mikel'ek eta Martin'ek edestua, ba-zekiten besteak nola izan zan auŕeko egunaren gaua. Oŕengatik, ikusi bezin laisteŕ argi oartu zuten alaber aldamenean zegoen oltza batean abesten ari-iganzo zirala ta dantzan.

Iñork ezer esan gabe, artara jo zuten oro, zaŕ eta gazte. Agintari, eŕi, guziek iŕi-baŕeka alkaŕi; ikusteko begi, entzuteko belaŕi, guzia zan yoran eta iŕi, pozkaŕi.

Amaitu zuten txistulariek aurki, jotzen ari ziran erestaldi edeŕ entzungaŕi, ta berealaxen emakume abeslariek sutsu, alaiki ta edeŕenen :

«Gora eta gora gentza!
Anaitasunaren leya,
Ororentzako laguntza
Purdentzi Deun'aren deya!».

Gizonek erantzuten :

«Adiskidetu gizonok!
Gozatzeko zoriona
Arnastu gogoz guziok
Armentia'ko atsona!».

Ostera lenengoak :

«Aupa, gentzarako, Eŕi!,
Zokoratu goŕotoa,
Eutsi oŕ maitasunari
Purdentzi Deun'ari soa!».

Ta berdin bigaŕenek :

«Izan gaitezen anayak!
Ludi osoaren zeaŕ,
Zuzen izateko nayak
Armentia'ra jo beaŕ!».

Artan guziak ixildu, txistuaren soñu ta neskatil dantzariak dantzan abiatu. Lenengoa zan dantza ura, ta amaitutakoan beŕiz abesteko ardura :

Emakumezkoak asteko :

«Gentza-egaŕi lurtaŕak!
Alkartasuna iŕikitzen,
Aurki ditezke bideak
Purdentzi Deun gogoratzen!».

Gizonezkoak jaŕaitzeko :

«Ez etsairik gizonengan!
Alkaŕenganako berdin,
Asmo ortaz egiñalean
Armentia'tik etekin!».

Gonadunek beŕiro :

«Uŕegoŕizko bakea!
Giza guziri eskeiñi,
Orixe zitu edeŕa
Purdentzi Deun'ak ekaŕi!».

Prakadunek gaindiro :

«Onez-onean gaitezen!
Lagun bizidunok oro,
Alegin bizi betetzen
Armentia'rako zoro!».


Azken bertso emanda, dantzarientzako txanda; mutiīak zebilztelarik, piko-egiten bizirik. Ura bigaŕen dantza, ta aren uŕengo abesteko enparantza :

Emakumeak beti asi :

«Yabalaldi gozoena!
Txastatzeko luditaŕak,
Eredu egokiena
Purdentzi Deun'engan gaŕak!».

Gizonak berebat ari :

«Ez gure baitan eŕarik!
Asmorik onenak baño
Gogo ortaz uŕats emanik
Armentia eŕiraño!».



Asi zutenak goxoki :

«Gozarazi bake edeŕa!
Adiskideak edonun,
Izateko biotz-gaŕa
Purdentzi Deun'i jaŕaitun!».

Uŕengokoak zoli :

«Ayerkiderik ez gugan!
Laguntasunean bizi,
Yoranez begiratzean
Armentia'ri berezi!».

Txandaka oro, ikusleak pozik aboro. Txistulariak jo, neska dantzariak irugaŕen dantza ederto. Bira guziak emanik, ara abesteko zegozenak gerturik :

Emakumeen abotsa :

«Narotasunean egon!
Alkaŕenganako bare,
Bizi-izateko edonon
Purdentzi Deun'aren gale!».

Gizonak ayen antza :

«Ezin-ikusik ez iñoiz!
Gure artean onartu,
Anayak gerala oroiz
Armentia'runtz lastertu!».

Eztiki beŕiz ayek :

«Bakea da maitagaŕi!
Zori aundi gizonentzat,
Opaetsi arabaŕi
Purdentzi Deun onbidetzat!».

Indaŕago gero auek :

«Ez gaitzetsi, iñoiz iñor!
Aintzakotzat artu, ordez,
Gureganatuz leyakoŕ
Armentia'ren gentza-urez!».

Ara laugaŕen dantza mutilentzat; txistuaren soñu alaya artuz oñaŕitzat. Giro edeŕa orduan Armentia'koa; ibil-zaleen baŕena gogoz betetzen areagoa.

Begien lana utzi beaŕ, eta belaŕiena erabiltzeko aŕ; ara entzuteko zana, ara bertso beŕiak guziengana :

Len bezela emakumeak :

«Onezkoak egin arin!
Buru-belaŕi gartsuki,
Izateko oro berdin
Purdentzi Deun'gana isi!».

Berdin ere gizonak :

«Gogo gaiztorik ez gugan!
Ezabatu aseŕea,
Edonoren arazotan
Armentia'kin eŕea!».

Beŕiz abots zuriak :

«Gentza goxo Araba'ri!
Biotzeko gentza ugari!,
Gentza Euzkaleŕi'ari!
Purdentzi Deun aintzindari!».

Eta beste sendoagoak :

«Gentza Ludi osoari!
Gogo-biotz onen sari!,
Gentza lenen, gizonari!
Armentia'n bat nabari!».

Azken dantza neskatilak; indartsuki beti txistulariak. Begiak ezin aspertuz, belaŕiak ere iñoiz ez nekatuz. Guziak gozatzeko, soñu ta bertso alkartuz :

Emakumeak gogo guziaz :

«Gentza biotz guzientzat!
Gentza gogo ororentzat!,
Gurari on alkaŕentzat!
Purdentzi Deun eredutzat!».

Gizonak, barna gaŕ biziaz :

«Gentza, alaitasunean!
Gentza, bizidun betean!,
Barne-gentza ororengan!
Armentia'k eskeintzean!».

Bertso ayetxek amaitzeko; lengoak bezelaxe oro gozatzeko. Txistuak guzientzako jotzen; lagun geyenak lengo dantzariekin dantzara jaulkitzen. Asmo onak gogoan, xede edeŕak biotzean, guziak alkarturik alayean. Purdentzi Deuna baŕe gozoaz edo Goi'an. Txalo, dantza, uyuyuka, gentzaren omenez oro leyaka; amets txaŕik ez iñorengan otuka.

Bazkaltzeko ordua urbil, ortarako gazteak gurbil; Mikel'en taldekoak ez mukeŕ ibil. Armentia'n bertan, ituŕi baten ondoan, emakumeak eramandako bazkaria jatean, guzientzako egonaldia edeŕ osoan.

Mikel batik-bat gogo-berotu; gozatutako bi jai-aldiak buru ta biotza oso suztatu; eten gabe ikusitako guziaren goraldiak osteratu :

—Sumatu ere ez, guzia oŕen ederto antolatuko zanik; jayak bai edeŕak, baña azaldutako asmoak ezin edeŕagorik. Biziaren goratzea, ekintzarena gartsuki aipatzea, gentzarena bipilki aldaŕikatzea ... ezinezin oro obea!

—Eta guzia gure ekintzaren asieran, gasteiztaŕai, arabaŕai berez otutako eran. A!, nire adiskideak, nire lagunak, nik bezelaxe ikusi ta entzun balute, beren burutapenetan oro izango zitzayekean sute.

—Ezin obekiagorik, bai, asi; nork ote gero geldi-erazi!; eztugu egin alpeŕik deya, ba-dirudi izan dala Eŕi'aren naya. Auŕeruntz jo beaŕ, anaya!, gerokoa agertzen zaigu on eta alaya!

Bat ziran gazte ayek Mikel'en gartsutasunean; buru ta biotza atxikituago, alegia, zabaldutako asmoan; bakoitzak guzia miazkatzen eta gozatzen barnean; bai ta ere alaya, alkaŕi agertzen anaitasunean.

Bazkal ondoan ere jaya jaŕaitu; gure gazteak, pozik, eŕian bertan egurastu. Ona emen bola-tokian, bero gizonak alkaŕen leyan; birloa jo bayetz eta ezetz eupada zolian. Ara aizkolariak enboŕai aizkorakadaka ezpalak erauziak; lei goŕienaz ia nork lenago amaitu ta yoku irabazteaz. Laisterkariak aruntzago, ororen auŕetik bira emateko lenago. Txistulari ta dantzari eŕuz taldeka ta nekatu gabe jo ta ari.

Eta toki berezietan amaikatxo saltoki txikiak, jateko ta edateko eskeintzen beren gayak, bai ta txitxiri-bitxiri aurkezten ugari.

Orduak, alaz ere, igaro, nai baño ariñago. Etxeruntz itzuli beaŕ, eta oŕela abiatu ere gure talde azpaŕendaŕ. Bultzia ozta-oztan arturik, Araya'ra eldu ziran ongienik; eta andik oñez amamiotaŕak, besteai egin aguŕak eta soiīlik geratuz azken bidea arturik.

Mikel eta Aintzane azkenak zijoazelarik, lenengoak emaztegayari galderik : —Ongi ibiīli al aiz?, nire asmoetan geyegi edo sarturik etzekiñat iregana egoki ari-izan ote naunik. Baña i ere aldamenean eukitzean etzaidan ezer peitu ororentzako jayan.

—A. : Ire poza, berez eta irea dukalako, oŕelaxe be nirea; beraz atsegiñez beterik ibiīli nauk eta oŕela noakik orain ere.

—M. : Atzo ta gaurkoa ikusi ta gozatua, ziurtasun aundia nigan, bide ona dunala autatua. Gero emengo elkargoa ibiltzen jaŕi ondoren, uste diñat ire ta bioken gerokoa ere asi beaŕ diñagula atontzen. Ez al dun oŕezaz oldoztu len?

—A. : Bai gizona ta ez bein bakaŕik, baña ba-dakik edonorako aurkituko naukala gerturik.

—M. : Gozoak benetan ire itzak niretzat; ezin esan nolako poza ematen zidatenan..., nola ez artu aintzakotzat? Eskertu beaŕ al dizkiñat?; bai noski, baña geyago ni naun guzia eskeiñi iretzat. Sendo dezanagun beraz, gure maitasuna biokentzat.

Ia eŕi ondoan zegozelarik, eurekin ere Yokin zijoala oarturik :

—M. : Nola etoŕi dun ori oneraño, guri egiteko lagun?

—A. : Lagun bai ori ere, baña ez ire ta ez nere.

—M. : Norena bada?, eztiñat ikusten; oŕa taldea batzuek betetzen.

—A. : I ta biok bezela, bi asi zaizkiguk bederen, oŕela beren kabira arbaztatxoak eramaten.

—M. : Lenengoa Yokin noski, ta bigaŕen?

—A. : Ire aŕeba Maīdalen.

—M. : E...?, orixe beŕi-beŕi, nork ote iragaŕi? Eta noizdanik ... oŕelakorik?

—A. : Etzekiat, baña gaur edo arestitxoan zeritzaidak.

—M. : Ara ustekabea, Maīdalen izateko anderea! Bide ona artu din, gizon on, zentzundun eta zin. Gaurko egun edeŕari amayera emateko beŕi egoki. Maīdalen, Maīdalen ..., eniñan uste orain baño len.

Azkenez, alkaŕi aguŕ maitekoŕa eginda, etxeruntz abiatu zan mutīla, asmoak buruan dilinda, biotza berotua, gerokoari buruz ameslari ta entzindua. Bi egun ayetan bizi-izandako guzian, bere barneko gurari ta yoranak bide onetatik abiatuta zijoazela zirudian, onarturik oso adiskide ta lagunak. Eta bere burua amets-ereīle izango bailitzan, iŕadaka irudimenean, uzta yoria an uŕun nunbait ikustean; līluragaŕizko bere uste guziai edatzeko aski beta eman nai edo, astiro-astiro zijoan, barne oro argi gau beltzean, īlun guzien beste aldean zorion aundia garbi oartzean.

Laugaŕen bīlera

Uŕengo egunetan Mikel'ek gogo beroz eta zain-muin jaŕaitu zuen lugiñen elkargorako bere lana, Gasteiz'ko jayetan bereganatu zituen kaŕ eta azkuz adoretuta. Bere barnetik sortzen zitzayon auŕera jaŕaitzeko naya, baña ain laisteŕ bere asmoen jaŕaitzaīleak ateratzen zirala ikustean, yardespen aundiagoaz begiratzen zuen beraren burua; oŕela, gañera, bere eginbidea ertsikiagoa zala atematen ere.

Auŕerantzean bere lana etzuen beraren xedeetarako bakaŕik egingo; xede ayek amaikatxoenak ziran ordurako, berak ain zuzen ontzat artzeko biziki eragin zituen beste lagunenak ere; ta ez arabaŕak soīlik, beste erkietakoak be, berarengan, buruzagiaren nagusitasuna onesten zuten, eta, oŕezaz oldozten, batzuetan ongi erantzuteko gai etzala uste zuen eta kezkatsu geratzen zan asitako lanari auŕerapena emateko kemen aski izango ez ote zuelakoan.

Baña aŕezkero urtara bota zuen bere burua, bete-betean eta osoro, ta auŕerantzean igeri baño besterik etzegoen egiteko. Ba-zekien ongi gure esakun zaŕ batek zer diñoen: «asiak egiña dirudi ta egiñak uŕegoŕia»; bere asikera ona zala etzuen iñork ukatuko, abertzaleen artean bederen eta, oŕengatik edo, egiña iruditzen zitzayon maiz; gero, egiña oŕen uŕe goŕiaren atzetik ibīli beaŕ. Eta gero dionak bego diola gogoratzean, etzuen unealditxo txikiena ere galdu nai; ez, alan eta guzti, aŕapataka ibīli be, lasteŕ lana, alpeŕ lana dala oroituz eta ori norabide onena bezela onartzean. Beraz, buruz eta zentzuz orotan yarduteko xedea zan berarentzat egokiena.

Bere lenengo yardespena, alegia, Azpaŕena'ko nekazarienganako zuela bayezten zuen saŕi bere baitan, beren elkargoan auŕera joateko alegin guziak bete nai zituen, eta batzuetan ba-zirudien bere asmo ta xede oro ortan zedaŕiturik zegoela; Azpaŕena'ko luŕa bide zan berarentzat Ludi osoa. Etzuen nai, gañera, erabakiak berak bakaŕik artzea; ez bere yardespena gutxitzeko, ez eta besteak erantzuteko beaŕean jartzeko ere; baña egitekoa guzientzako izan beaŕ zalako,

guzien asmo ta aolkuak be jasotzea egokia zala zeritzayon; oŕengatik eŕi guzietara joaten zan saŕitan, guzien iritzia ezagutzeko asmoz, eta egin beaŕ zana guziek egiña bezela ororen aldetik ikusiá izan zedin.

Alakotz, egun ayetan egikera ori zan berarentzat ari-izateko bakaŕa, beste ibilkerarik sortzeko izango ezpailitzan. Baña alako batean gutun berezi bat eldu zitzaion: Sabin'ek, oŕilaren irugaŕen asterako Bilbao'n antolatzen ari zan beren laugaŕen bilerarako dei-egiten zion. Gutuna eskuetan artu bezin laisteŕ, ideki baño lenago ere, berarentzat itzartzea bezela izan zan; beste asmoek bizia artu zuten bere baitan eta oyei ere tokia eman beaŕ egun ayetan zerabilzkienen artean.

Beti bezela sutsu agertzen zan bere adiskidea bere gutunaren leŕoen tartean. Lenagoko beste bileraetan bezela, ezinbestekoa zala ziñoen Sabin'ek, lau adiskideak laugaŕenean ere alkaŕekin agertzea. Dagoaneko beren asmoak su bizitan zegozen Bizkaya'n barna zabaldurik eta euzkaldun-zuŕian oso beaŕa zan ororentzat beste erkietakoak ere aburukide zirala agertzea. Bilerarako be «Eŕi-Deya» ilerokoaren lenengo zenbakia atera nai zutela gañeratzen zuen; eta ia arabaŕak asko agertu ote litezken galdetzen ere.

Azken beŕia ematen, onela ziñoen Sabin'ek:

—Bai, mutil, gure asmoak auŕera zijoazkiguala argi agertzen duk, baña bide batez gure Eŕi'aren etsayak, gure xedeak sumaturik, ari zaizkiguk oyek salatzen, eta emengo izpaŕingi batean bederen lateŕi-zaleai adi-adi egoteko eskatzen zietek, bazteŕetan sortzen ari dukan landare beŕi ta edentsuarekiko; ta aunditu baño len biŕindu egin beaŕ dukala lateŕiaren onurako. Ori, sumatu ta besterik gabe, esaten asi zaizkiguk; zer esango edo egingo ote ditek gure asmoak argi ta garbi gure izpaŕingian irakuŕiko zitizteanean? Ziuŕ egon gaitezkek buŕuka-aldia urbil diagula ta ortarako geron aldetik gerturik egon beaŕ.

Gauza beŕirik ez ortan gure mutilarentzat eta etzan lenengo aldiz buŕuka oŕen beaŕa bere baitan nabari agertzen zitzayola; baña, Gasteiz'en indartuta, gentza ta gentzazko ekintzetan ari-izateko asmo gozoan bizi zan egun edeŕ ayetako egokera, uŕatuta geratu zitzayon bereala. Lo eztitxu batetik biziaren egi gaŕatzera esnatze bat bezela izan zan ura berarentzat; eta bere bizian barna, len eta gero ere, beti aurka agertzen zitzaizkion gentza ta gudaren beaŕetan, erdi-erditik artuta ikusten zuen bere burua. Ta etzegoen aukera egiteko biderik; ekintza batean sarturik zegoen eta Eŕi'aren bizia zan ekintza oŕen elburua; beraz soŕ liteken guziari buru-egin beaŕ eta orain ere, beŕiro, noraezeko izan zitzayon bere burua indartzea. Auŕera joango zan naiz ta bere biotz-kezka guziak menderatzeko egiñal aundienak egin, eta bere gogoan betirako nayeza mingaitz eta sakona eraman.

Alakotz, alboan utzi zituen berealaxe egun ayetan zeramazkien lanak; eta Martin'i, beti bezela, arazoaren beŕia eman ondoren, Araba'ko Elkargo'aren idazkariari idatzi zion, onek Gasteiz eta eŕietakoai berdin egin zizayen. Arabaŕak Bilbao'ra alkarturik eltzea egokia izango zala zeritzayon eta ortarako Miranda'tik Bilbao'ra zijoan bultzi bera aŕ lezakete guziek; batzuek Miranda'n bertan, beste batzuek Izaŕa'n eta gañerakoek Amuŕio'n eta Laudio'n. Sabin'ek bialdutako egitaraua ere igoŕi zion eta, eragozpenik sortzen ezpazan, bultziaren ordua jakiteko zai geratzen zala esaten zion. Bilbao'ra, noski, ilearen irugaŕen ostiralean, aŕatsaldez edo gauaz eltzeko; bilkurak uŕengo larunbatean, egun osoan, eta igandeko goizean egingo ziralako.

Bilkura artan, len besteetan bezela, itzegin beaŕ-izango lukela-ta, uŕengo egunetan zeri buruz eta nola mintzatzea izan zan berarentzat oldozteko gai beaŕena. Gaya, nolabait, zedaŕiturik zeukan, luŕarena; ta lenago, Iruña'n eta Donostia'n bere asmo ta egipenari buruz beŕi zeatza emana zeukalarik gauza berbera ez aipatzeko, luŕarenganako zaletasuna ta maitasuna goraipatuko lituke, ta bide batez gentzarakoak ere.

Gasteiz'ko idazkaritzan ongi jokatu zutelarik, egokiro alkartu ziran arabaŕak iragaŕitako bultzian, Miranda'n asi ta beste geltokietan gero. Mikel'ek Miranda'tik joatea erabaki zuen, bidean lagun geyenak ikusteko xedeaz.

Bilbao'ko geltokian, ziñak baturik zegozen adiskideak alkaŕ besarkatu al-izan zuten arabaŕen bultzia eltzerakoan; napartaŕ eta gipuzkoaŕak alkaŕekin eldu ziran lentxoago; ta gerturik zegozen ostatuetara guziak zuzenduta, lau adiskideak Bilbao'n idekita zegoen batzokira joan ziran, ia oitura zeukatenez, bileraetan erabiliko ziran gayak aztertzeko.

—Sabin'ek: —lenengoa mintzatzen— Adiskideak, gure bileraetarako antzoki bat akuran artu dugu, baña eztakit toki aski eukiko ote dugunik, eldu zeratenok eta biar goizean elduko diran bizkaitaŕ guziak kokatu al-izateko. Asmoa auŕera doakigu ta bazteŕetan iñor

edo eztago beraren beŕi eztaukana; oŕela gogaideak ere nun-nai geitu zaizkigu, dagoaneko guretzat uzta edeŕa bildurik ikusteko. Zer izango ote da gure izpaŕingia atera ondoren? Egiña duzute onezkero, ta ona emen iru igeki zuentzat ekaŕi ditudanak; auetxek dira banatutako lenengoak; biar, biĪerarako saŕ-tokian bana emango zaye erduko diranai, ta gero mutil saltzaĪeak kalez-kale joango zaizkigu bera aldaŕikatzen eta saltzen; uste dut Bilbao ontan lerkai bat bezela ekingo duela.

Iŕikaz zabaldu zuten aldizkaria besteak, eta lenengo oŕialdean auxe irakuŕi al-izan zuten, izki aundietaz idatzita: «Eŕi baten iratzarpena».

—Sabin'ek: Nirea duzute lan ori. Bertan, gure Eŕia, len azke nola izan zan gogoraturik, zergatik jausi dan eta gaur guztiz menderatuta dagoen egokera, labuŕ baña argi jakin-erazten dut, ondorioaz iltzeŕ daukagula adierazteko. Euzkaldun-zuŕian ori ezin onartzeko dugula gañeratzen dut eta oŕengatik Eŕia gaizkatzeko xedeaz abiatu gerala.

—Gure eskubide guzien alde ari-izango gerala nabari-erazten dut, Eŕi'aren azkatasuna lortzeko asmoz, eta guziai dei sutsu bat zuzentzen diet, arazoa yabalpenez begiratzeko eskatzen; eta gure jokeran ororenganako gentzaz eta adeyez yarduteko, xede sendoa daukagularik bayezten.

—Gure aldizkaria eten gabeko deya izatea nai dugula jakin-erazten dut, eta oŕengatik «Eŕi-Deya» izena jaŕi diogula; ta oŕelaxe izan dedin, ain zuzen, «Amamio'ren Deya» jartzen dugu irugaŕen oŕialdean, bera zergatik eta noiz egin zan gogoraturik, gaurko gure dei beŕiaren aita edo asikera egoki bat bezela aurkeztuta.

—Gure zin-itzaren beŕia ere ematen dut lauron izenekin, labuŕ; eta orain arte egin ditugun bilkurak noiz, nun eta nola burutu ditugun esaten; bai ta dagoaneko idekita dagozen batzokiak zeintzuk diran aipatzen, eta bertan asitako lanak nolakoak diran ere.

—Guzi oŕen bidez sei oŕialde bete ditugu, ta lenengo zenbakia oŕela osoturik ematea naikoa iruditu zaigu bera tayutu dugunoi.

—Ileroko bezela ateratzen asiko gera, ta gero ikusiko dugu asterokoa egitea egokia izango ote dan eta, jakiña, ori egin al-izango dugun ere.

Ontzat artu zuten guzia Sabin'en lagunek, eta beste gayetaz labuŕ mintzatu ondoren, alkaŕekin apaltzera joan ziran. Noski, etzuten

beste gairik erabiltzeko gogoa, beren eginkizuna baño. Lauron erkietako beŕiak alkaŕi ematean, Sabin'ek len besteai jakin-erazi zien Bilbao'ko giroa, beste uri nagusietan ere oartzen zala jakin zuten, naiz ala ere, Bizkaya'ren uri-buruan bezin lazki ez izan. Baña, Sabin'ek ere oartuta, guda baten atarian zegozela argi ikusten zuten; alan eta guztiz, oraingo guda etzan izango anayen artekoa, Euzkal-Eŕia ta Erdal-Eŕi'aren artean baño, naiz eta, zoritxaŕez, ziuŕ zegozen, euzkaldun txepel batzuek lateŕiaren alde jokatuko zutela jakin. eta norabide ori eman beaŕ-izango zioten beren aldetik buŕuka guziari.

Alkaŕengandik aldendu ziran azkenez eta laurok beren kardaba, buruauste ta yardespenak, neuŕi aundian aunditu zitzaizkiela ikustean, oldozkoŕ eta kezkatsu oearen biĪa joan ziran.

Larunbata argi ta diztiratsu egundu zan, udabeŕiaren omenez edo, ta mendi-tarteko zulo aundian irakiten bizi zan Bizkaya'ko uri-buru aundi ta lantzale artaraño ere goizetik eldu ziran ziŕinta alai ta suztagaŕiak. Ango kale ta enparantzak, saŕi goibelduzko itzalean agertzen ziranak, egun aren asieran garbiago ziruditen, argi edeŕ artan murgildurik eta biziari zabalago bezela eskeiñita izango bailiran. Ibaizabal'en urak erdiz itxas-adaŕean sartzen ziran uberka makurtsu aren oiturazko margo zikiña, nolabait ikuzita bezela edo, etzan begientzat beste egunetan bezin nazkagaŕia, ta oiturazko usai kirastuna, goizeko ordu ayetan izgora gertaturik, kresalak ezabatu zuen asko, oŕela itxas-uŕiña uriaren biotzeraño eltzen zalarik.

Giro edeŕ eta atsegiña, beraz, goizetik kaleratu ziranentzat; ayen artean biĪerarako deituak leyatsu agertu ziran laisteŕ, eta eguraldiaren lenengo ozgiroak beren oldea astindu zuen, bilkurarako bidean ikus lezaketen guzia oartu nayean eta beren bil-tokira eltzeko iraduz ibiltzeak uzten zien neuŕian.

Yoranez beterik zijoazela, ia batera agertu ziran ordu-orduan bil-tokiaren ate-auŕean, eta guzia zabalik aurkitu zutelarik azkaŕ baŕuratu ziran guziak eupadazko aguŕen buŕunbaz inguraturik. Eta ate ondoan zegozen gazte batzuek banatuta, gogoz eta gura betean, aŕankuran eskuetaratu zuten «Eŕi-Deya» aldizkari beŕiaren igeki bana.

Ba-zekiten geyenek aldizkari bat ateratzeko asmoa zegoela, baña unealdi artan lenengo zenbakia artzea otoz-otoan bezela eldu zitzayen, eta oŕiak leyatsuki zabalduta, bertan zetoŕen guzia bat-batean irentsi nayean, biĪerarako gerturik zegoen aretoan taŕapataka sartu ziran norberarentzako tokiaren biĪa.

Arin bete ziran leku guziak eta azkenak zutik geratu beaŕ-izan zuten aulki-leŕoen alboetan. Maipuruan, zinpetutako gure lau adiskide, Gexan eta Bilbao'ko batzokiaren zuzendari batzuekin. Eta berandu gabe, Sabin jeiki zan mintzatzeko eraz; berealaxe ixiĺik geratu ziran batzaŕekoak adi-adi egoteko; ta unealdi artan bertan, deadaŕ zoli bat eldu zitzaien kaletik: «Eŕi-Deya!, aldizkari beŕia!».

—Sabin'ek: Adiskideak, biotzeko aguŕ bero-beroa guzioi; egitan, alkaŕi eman beaŕ diogu aguŕa, ongi-etoŕi kartsu batekin, guziok alkaŕengana etoŕi baikera. Atsegin aundia niretzat, Eŕi'aren deyari, ainbeste emen agertzean, erantzun ain edeŕa eman diozutela ikustean.

—Ain zuzen, eskuan daukazuten gure aldizkari beŕi ta bereziak izen ori darama: «Eŕi-Deya»; entzun ere entzun dugu kaletik eta aize betean datoŕen beraren lenengo deadaŕa; ta emen alkartu geran guziok Dei oŕen zai beti egoteko ta beti ere gure erantzun egokia emateko, gerturik gagozela adierazteko bildu gera. Noski, Dei ori eratzean gutxi batzuk izan gera asieran, baña zuek ongienik erakusten duzutenez, gure alegiñak Eŕi'aren Deya biurtu zuten asi ta berealaxe. Alegia, Eŕi'aren deya betidanik zegoen gure artean, izkututa bezela; ta geuk, zin-eman genuenok, benetan, dei ori entzuteko eraz jaŕi dugu, euzkaldun guziengan beaŕezkoa zan oyartzuna gertatuko zalakoan ziuŕ. Gure eginkizun guziak, alakotz, gure Eŕi'aren deyari erantzun egoki ta beaŕa emateko izango dira beti; oŕa ororentzako xede berezia.

—Gure laugaŕen bilera da gaurkoa, ta besteetan egin dugun bezela, zin-eman genuen laurok itzegingo dizuegu, bakoitzak berarentzat artu zuen gayari buruz. Gure adiskidea dan Garzabal'daŕ Gexan'ek ere zerbait esango digu, ta zuen arteko beste edonork berdin, mintzatu nai-izan ezkero, pozik entzungo diegu guziei.

—Beraz,i, Mikel, asi aiteke, ongi bazeritzaik.

—Mikel'ek: Biotz-biotzetik aguŕ, ene adiskideok. Sabin'ek esan digunez, auxe dugu asieran alkaŕi zin-egin genionen laugaŕen bilera aundia. Oraingo ontan, lengo beste iruretan lez, gure asmoen beŕi emateko, eginbidezkoa da laurontzat agertzea ta mintzatzea. Gaŕantzi aundienetako deya egin diogu gure Eŕi'ari ta ezinbestekoa da guretzat ortan dagoen yardespenari eustea. Dagoaneko, erantzun edeŕa jaso dugu gure eŕitaŕengandik eta emen zagozen guziok orixe bera egiztatzen duzute sendo ta garbiro.

—Orain arteko gure bilkura ta lanen ondorio berezia auxe dugu:

Asmoak ontzat artu dituztenek elkargo bereziak antolatuta dauzkate gure lau erkietan bana, ta elkargo oyen buruzagiei dagokie auŕerantzeko egingo dan guzia zuzentzea; uŕengo uŕatsa, lau elkargo oyen artean, Eŕi osorako buruzagiak autatzea, ororentzako elkargo nagusia izateko. Baña oŕezaz, ausaz, Sabin'ek itzegingo digu gero, obeki ta zeatzago.

—Dana dala, ene ustez, egindako lau bilkurak burutzean, gure elbururako lenengo eginkizuna bete dugu, ta ziñadunon aldetik, ori egitean, gure lenengo xedea buruturik daukagulakoan nago; orain, elkargoetan alkarturik gagozen guzioi dagokigu uŕengo ekintzetan yardutea. Beraz, geroko bilkurak eta lanak atondu ta egiteko, guzion eskuetan izango da eginkizunak zuzentzeko eskubidea bai ta eginbidea ere. Orixe da nire asmoa ta zuek eta zuen elkargoen zuzendariak erabakiko duzute asmo ori onartzea ala ez.

—Ori esanda, nirekiko gai bereziari buruz dagokit mintzatzea; baña nire itzak labuŕak izango dira, lenengoz oŕen baŕia zuen arteko geyenok daukazutelako, ta gero itzegin beaŕ duten nire lagunai berak beaŕ-izango duten astitik unealdi txikiena be kendu nai ez diedalako.

—Ba-dakizute, Araba'n, Azpaŕena udalaren eŕietako lugin geyenok Elkargo berezi bat eratzeko, batera etoŕi gerala, ta pozik esan dizaizueket laisteŕ lanean asiko dala. Oso bide egokia deritzait ori gure nekazaritzarako, ta ba-liteke beste ekintzaetarako ere orobat izatea. An, lenengo elkargo ontan ongi joan ezkero ta ondorio onak lortzen baditugu, eredu bezela aurkeztu al-izango dugu guzientzat, eta edonori beste ainbeste egiten laguntzeko, gerturik izango gera beti.

—Ene aldetik ekintza ortan buru-belaŕi sartuta nago. Luŕa maite dut, barne-barnetik, eta luŕaren alde jaŕi nai ditut egin ditzakedan alegin guziak. Gure luŕa da gure abeŕia dagoen leku berezia; bertatik sortu, sortzen eta sortuko da ororentzako azkuŕi geyena, ta, oŕela, gure biziari eusteko baitezpadako bidea dugu. Edeŕa da gure luŕa, baña ala izango ezpalitz ere, ene ustez guziok biotzez maite beaŕ dugu, ororen seaska bezela. Oso ona da luŕa guzientzat ere, baña bereziki lantzen duenarentzat, eta beti bere eŕaietatik gero ta geyago emateko gerturik ikus dezakegu. Oŕengatik edo, bearbada, gure Eŕi'arenganako maitasuna luŕa maitatzen asi beaŕ da; ta berak, gero ta geyago lantzen bada, oŕela eskeiñiko dizkigu bere zituak.

—Ortan dago, beraz, nire lenengo lana, bai ta ene xede ta elburu

bereziak ere. Baña ba-dut beste kezka aundia nire baitan: gentzarako yoran eta nayarena. Laisteŕ urtebete izango da gure ekintza ontan asi giñanetik; bertan, gentzarako xedea dugu, nagusi ta bereziki, baña alaz ere ekintza bertatik eta aurka izango ditugunengandik batez be, ezinbesteko buŕuka sortuko zaigu; nai ta nayezkoa izango dugu ori, ta beaŕ-beaŕa guretzat ortan sartzea ta el dakiguken guziari buru egitea. Ortxe ditugu gentza ta buŕukarako asmoak batera etortzeko eziñak bezela; zalantzik ez ortaz. Baña naiz eta buŕukan sartu, ene idurriko, beti gentzaren goiburuari eutsi beaŕ-izango diogu, alde ta aurka izango ditugun guziei biotzez eskeintzeko. Xede nagusia izan beaŕ da ori guziontzat, geron baitan iñorenganako goŕotorik iñola ere ez elikatzeko. Onaŕ dezagun ori goiburutzat guziok, bakoitzak berarentzat eta ororentzat. Oŕa nire aŕena!

Esku-zarta aundia Mikel'en itzak jaso zutena.

—Sabin'ek: Eneko'ren txanda dugu orain.

—Eneko'k: Nik ere eztut nai, ene adiskideok, luzean ari. Leporatu dudan lan berezia izkuntzarena da, ongi dakizutenez. Mikel adiskideak luŕarenganako maitasunaz itzegin digu ta ortan aburukide gatzaizkio guziok, enurarik gabe. Niri beste maitasunari buruz mintzatzea dagokit, ain zuzen, gure izkuntza onenganakoaz, maitasun au, nolabait, lenengoarekin alkartzeko berezienetakoa dalarik.

—Luŕak gure bizi-leku ta gure azkuŕiaren iturburua dugu; baña ba-du, ukan ere, bere gogoa, Euzkaleŕi guziarena dana, ta gogo oŕi eusteko mintzaira dugu bide beaŕena. Gogo ori gure biziaren euskaŕia dugu, bizi ori izan dedin ezinbestekoa; ta gogo oŕen eragiĩe ta eusle beaŕena izkuntza dugu bereziena. Gorputzari luŕa bezela, gogoari izkuntza agertzen da emana; ta gure Eŕia, egitan, Euzkal-Eŕia izan diteken, izkuntza dugu baitezpadako bide nagusia.

—Eŕi guzietan bezela, gurean ere, oso alkartuta ditugu gure gogo ta gure izkuntza, alkaŕ osotzen dutenak, eta osotze ortan bizi al-izango da gure Eŕia, Euzkal-Eŕia izateko.

—Gaŕantzi aundienetakoa, alakotz, izkuntzarena guziontzat. Len iragaŕi nuenez, irugaŕen bilkuran ain zuzen, Donostia'n, euzkal-eliztia egiten ari gera; dagoaneko oso auŕeratuta daukagu lan ori, ta laisteŕ idaztitegietan salgai izango dugu, eragozpenen bat sortzen ezpada; ta oso beaŕa zaigun euzkal-iztegia, eliztia amaitu bezin laisteŕ, egiten asiko dugu. Ortarako, talde egokia eratu dugula uste dut, lanegiteko gertu-gerturik dagoena.

—Elizti ta iztegia, batzokietan egin beaŕ dan euzkerarekiko lanerako, oso laguntza ona emateko izango dira, ta gure uri ta eŕietan lan ori berentzako artuko dutenek, alkaŕen artean aŕemanetan sartu beaŕ-izango dute, euzkeraren alde egingo dan guzirako. Ene ustez, eguneroko lana izan beaŕ da ori, gure izkuntza kinka txaŕean dagoelako; ta beste aldetik, goraki aldaŕikatu beaŕ-izango dugu, euzkera erabiltzea, euzkera lantzea ta euzkera ongi ezagutzea, ororen eginbidea bezela onartu beaŕ dala ororen aldetik, Guziona dugu gure izkuntza, ots, gure abeŕiarena; euzkaldun bezela bizi al-izateko, ezinbestekoa zaigu ori, ta guzi ortatik datoŕ, ertsienez, esan dudan eginbidea.

—Entzun ezaidazute au aŕetaz, otoi; gure auŕeko bilkuran, Donostia'n, asmo oni buruz itzegin nizuen, baña bere gaŕantzia ain aundia dalarik, emen beŕiz aipatzea, egokia dala deritzait, arazoaren beste lits bat ikusteko: Euzkerari, beste edozein izkuntza bati bezela, gogo berezia dagokio, Eŕi'aren gogoa ain zuzen, mintzaira bakoitzari bere Eŕi'arena alegia; ta Eŕi-gogo bakoitzari ere bere izkuntzak baĩaŕik eutsi al-izango dio; ori egiteko eztago besterik; berebat euzkerak, berak bakaŕ-bakaŕik eutsiko dio euzkal-gogoari. Gure Eŕia bizi al-izateko, bere gogoaren arauz bizi-izango da bizitzekotan.

—Baña gure Eŕia Egoeŕi pean geratu zanetik, Eŕi oŕen izkuntza sartzen ari zaigu, asi lenengoz eskoletan eta biziarekiko beste gai guzietan gero. Oŕela dalarik, ikastolatik at egin beaŕ ditugun goiko beste ikasketak, erderaz egin ditugu indaŕez, eta oŕen ondorioaz erderaren gogoa ere geron baitan artuta daramagu; oŕengatik, euzkeraz oldozteko lendik gertuta ezpagera, berez, erderaz egiten ditugu gure oldozpen geyenak; eta oŕa oŕ, oŕela, gure oldozmena erderak menperaturik.

—Oŕengatik, geron elburua, gure Eŕi'an eta edozertarako, berez, euzkeraz oldoztea izan beaŕ da; ta ori egingo eztan bitartean eztugu esan al-izango gure Eŕia azke dagoela. Elburua, alakotz, argi agertzen zaigu, ta guzioi berdin dagokigularik, oŕa guziontzako ere eginbeaŕa bera, elburu ortaruntz abiatzeko ta elburu ortaraño eltzeko.

Ixildu zan Eneko ta bildutakoek txalo beroak jo-egin zizkioten.

—Sabin'ek: Ik orain, Xabier, nai baduk.

—Xabier'ek: Donostia'ko bilkuran gure asmo ta xedeak zeintzuk ziran adierazi nizkizuen nik ere: Gure Eŕi'aren edesti osoa idaztea, ta, zabalkunderako xedeaz, oŕen laburpena ere, gure eŕitaŕen artean

mendez-mende gurean izan diran gertapenak ongi ezaguturik izan ditezen.

—Eŕi baten bizia, gizonarena bezela, berari dagozkion eta batez ere bertan izandako egipenen katea dugu; kate ortan gizonak estun bakoitzean edo batzuetan, ez askotan noski, bizi gera; ala, nai baduzute, gizonok bizi geran bitartean, estun oyek gure egipenen bidez lantzen ditugula esango nuke. Oŕela egin zuten gure auŕekoek, oŕela dagigu geuk eta oŕela egingo dute gure atzetik etoŕiko diranak. Beraz, Eŕi'aren edestia eten gabeko kate luzea dugu, Eŕi'aren eriotzean bakaŕik amaituko dana; baña, ain zuzen, gure Eŕia bizi dedin alkartu gera, ta oŕengatik gure edestiaren katea ezta laisteŕ amaituko ez eta apurtuko ere.

—Alakotz, auŕeko edestia jakitea beaŕa zaigu lenengoz; ez bakaŕik bere beŕia eukitzeko, baña bertan ageŕ ditezken okeŕak zeintzuk izan diran jakiteko ta oyetan beŕiro jausi ez gaitezen. Gero, jakiña, gure Eŕi'aren biziari on eta beaŕa izango zayon gaurko ta geroko edestia ongienik egin dezagun.

—Eziña izan zaigu oindiño agindu nizuen aldizkaria atontzea, baña asmo ortan gagoz eta dagoeneko, emen, Gasteiz eta Donostia'n asmoa ontzat artu duten adiskide batzuekin aŕemanetan gagoz; oŕela, guzion artean, elburua obeto beteko dugulakoan nago.

—Eztugu aiztu eskubidea ere; naiz eta nire ustez, edestiaren ondotik erabiltzekoa izan, oŕezaz ere aztertzen eta begiratzen ari gera. Eŕi'ak azkatasunerako eskubide osoa daukalarik, ortaz guziok batera gatoz, eta orixe da, enurarik gabe, gure bigaŕen eskubidea, lenengoa dan biziarenari eutsi al-izateko.

—Baña gizonaren bizia aunitz azpegietan agertzen da, bizi dan tokia, dagien lana ta biziak dakarzkion amaika zeatzen arauz; oŕela, mota askotako beste eskubideak sortzen dira aldiarekiko aldatzen diranak, eta guzi oyek aztertzea dagokigu, beren bidez Eŕi'aren izakera ongi atemateko; ta auŕerantzean sortuko diran beste motazkoak ere izakera oŕen barnean jaŕita izan ditezen.

—Eta gure aldizkari beŕia sortu arte, gaur asi zaigun «Eŕi-Deya»'n gure lanen beŕia eman al-izango dugu. Izan bedi gure lenengo aldizkari ori alkaŕekin ertsiki bilduko gaituen lokaŕi onena.

Onela amaitu zuen Xabier'ek, eta etziran izan gutxi jo-egin zizkioten txaloak, berari ere.

—Sabin'ek: Berandutxo egin zaigu onezkero; nai baduzute, on-

tan utziko dugu dana, bazkaltzera joateko; ia, gero, lauretan edo beŕiz alkartzen geran.

Jeiki ziran guziak eta taldeka, entzundakoari buruz mintzatzen, ostatuetara joan ziran, bazkaltzen, indaŕ beŕiak artzeko.

Arin joan zitzayen guziai bazkaltzeko zuten beta, ta amaitu bezin laisteŕ, bil-tokiruntz abiatu ziran oro, bidean Bilbao'ko etxe ta bazteŕak pozik ikusten; itxaso-adaŕ luzeak, urian ain sakon sartzen zuen gezala, mendietako Ibaizabal'ek zekaŕen urarekin alkartzeko nayean bezela, guzien so-egitea erakartzen zuen bereziki, eta bertan ikusten ziran ainbeste itxasontziak ere ikusgaŕi zitzaizkien guziai; argi atematen zan uriaren bizirako, izadiak egindako ur-bide arek nolako gaŕantzia zuen; noski, gizonaren eskuak ere, ortarako egokiro antolatu ta ustiatua izanik.

Lau-lauretan alkarturik zegozen batzarkide guziak; eta bereala Sabin jeiki zan bere eginbeaŕa betetzeko.

—Sabin'ek: Goizean nire iru lagunek esan dizuetena entzun duzute; orain niri dagokit mintzatzea; baña, ongi baderitzaizue, ori egin baño len, Gexan'i eskatuko diot berak ere itzegin dizaigula, ortarako gogoa baldin badu.

Bayetz erantzun zion laburtaŕak eta onela asi zan:

—Gexan'ek: Donostia'n egon ziñatenok ba-dakizute nire arloa zertan xedatu nuen: Europa'n gu bezela bizi diran beste Eŕi'ekin aŕemanetan sartzea. Asmoa ontzat artu zenuten an, eta niretzat elburu bikaña bezela izan zan ori. Bide batez gure asmo guziai buruz, al dudan bezela, zabaltzen ari naiz Laburdi'n bai ta Benapaŕoa ta Zuberoa'n ere; ta oindiño aunitz ezpadira, toki guzietan asmoak ontzat artzen dituztenak aurkitu ditut; oŕela izanik, ango adiskide-taldetxoa emen agertu al-izan da gaur. Donostia'n baño aundixeago.

—Beste Eŕi'ekin alkarbidean ari-izateko, jakiña, ezin bereala bide zabala aurkitzea; naiz eta guziak, geyago ala gutxiago, menperaturik egon, bakoitzak bere auzia begiratzen du bere izakerari dagokionez, eta nire ustez, ezta oyen artean sartu oraindik Europa beŕiaŕen asmoa, Eŕi'en alkartasuna bezela; alaz ere nire iduriko, ortxe biīatu beaŕ dugu gure eskubiderako babes aundi ta egokiena. Europa beŕi ori sortzeko, eragozpenak jaŕiko dituzte oraingo lateŕi aundiak, baña egunen batean, apika, amor-eman beaŕ-izango diote asmoari; ezin egun ori noiz eta nola argituko dan esan, baña noizpait el ditekela

uste dezakegu ziñez, ta edozelan bada ere, emen aipatu dudan alkartasuna beti izango zaigu onuragaŕia.

—Ezagun eta adiskide dudan Bretaña'ko gizon gazte bati agertu diot lenengoz nire asmoa, ta bide batez emen zer egiten ari geran ere jakin-erazi diot; ontzat artu du asmoa ta pozik entzun dit emengo beŕia; bere aldetik Inglaterra pean dagozen Gales eta Eskozia'ko batzuekin itzegin al-izango duela esan dit, eta ori egin ezkero oyen artean asmoa nola artu izango dan esango didala agindu dit; eta beti auŕerantzean nirekin elkarbideetan ari-izateko ontzat artu du.

—Emen dituzute, beraz, nire bi elburu auek: lenengoa Europa'rena, astiro ta aŕetaz eraman beaŕ-izango dana; ta bigaŕena ipaŕaldean zuen erakundeen antzera beste bat egitea; lendabizi, Laburdi, Benapaŕoa ta Zuberoa'rako bat egitea ona izango dalakoan nago; baña gero, asmokideak aski sortzen badira, uste dut obe izango dala erki bakoitzean bat eratzea.

—Orixe duzute gaurkotz eginkizun bezela ditudan asmoak; zuen eta gure Eŕi onen beaŕak laguntzeko gerturik izango nauzute beti, Eŕi'arena guziona dalako. Ta ziuŕ egon zaitezkete emen zuen artean egotea niretzat guztiz atsegiña dala.

Onelatxe amaitu zuen Gexan'ek bere itzalditxoa, ta bildutakoek, gogo beroz, jo-ta-su erantzun zioten guzien esku-zartadaz.

—Sabin'ek: Ez da txikia, ez, Euzkaleŕi'ko ainbeste txokoetatik etoŕi zeratenok emen alkarturik ikustean artzen dudan poza; ta orobat esan beaŕ nik baño lenago itzegin dutenai entzutean. Batera gatoz guziok gure Eŕi onen biziari eusteko naimen sendoan. Argi erakusten du egipen onek, gure deya alpeŕik egiña izan eztala, ta egiz esan dezakegu gure Eŕia, bere barneko yorana ageŕerazteko, dei egoki baten zai urduri zegoela. Oŕela guk ukan dugu deya egiteko zoriona, ta Eŕi'aren erantzun egokia zuek adierazten duzute garbi.

—Donostia'ko bīleran iru eginkizun aurkeztu nizkizuen, lenbailen betetzeko xedeaz: aldizkari bat ateratzea, eŕiketari buruz erakunde berezia atontzea ta gizartearekiko beste erakunde bat ere soŕeraztea.

—Lenengoa eskuetan duzute, gaurgero «Eŕi-Deya» izango dugun gure īlebeteroko egokia; gure arteko elkarbidea izango da, ta, uste dudanez, arpidedunak aski sortzen badira, berez bizi al-izango da. Zuei eskatzea dagokit ori lortzea, bai ta bakoitzaren eŕitik ango beŕiak bialtzea; bai ta, laguntza onena izango dana, zuen idazlanak ere

eskeintzea. Noski, zuzendaritza bat jaŕita dago īlebetekariaren guzia eramateko, baña batez ere gure asmoen zabaltzale ta gure xedeai eusteko bide ona izan dedin. Nire gardiz, ortan zedaŕitu beaŕ da guzia gure alkartasuna oso bat eginda jaŕaitu ta agertzeko.

—Gaur goizean, zuen artean banatu ondoren, kalez-kale igoŕi dugu aldizkari ori ta ba-dakigu igeki guziak saldurik izan dirala; noski, erosle guziak ez edo dira adiskide, arerioak ere artu dute guri buruz beŕi zeatza eukitzeko; ta geron asmoak begikoak ez zaizkielako, aurki aurkeztuko dira oyen aurka jokatzeko; nola?, ori berak erakutsiko digute, baña izpaŕingietan batez ere, ziuŕ egon gaitezke, jakin-eraziko digutela; arazoari, oŕela ere, gaŕantzi aundia ematen. Nai ta nai ez, ortxe izango dugu lenengo buŕuka.

—Gizartearekiko, ezin aurkeztu gaur, īlebeterokoa bezela, gauza egiña; baña au bai jakin-erazi dizaizueket: emengo adiskide batzuk, langīleak diranak, beren arteko alkartasun berezia atontzeko asmoa ontzat artu dute ta dagoaneko arloa aztertzen ari dira, burutzeko xedeaz. Alakotz, asmo ori, gutxienez, bidean dago.

—Eŕiketaren arazoa geratzen zaigu begiratzeko. Ortaz, nire aburuz, xede berezi au da guziontzat artu beaŕ duguna: orain jaŕita dagozen udaletan eta beste antolaketa guzietan sartzekoa, egin ditezken auteskunde-mota guzien bitartez; eta toki oyetara joango diran gure aburukideek, lenengoz, beren burua ongienik gertu beaŕ-izango dute, sartuko diran tokietatik Eŕi'aren aldeko lan egokiena egin al-izateko; ortarako, noski, gure asmoek erakusten dituzten elburuak eta ekiteko bideak, beti, nolakoak diranez gogoratzea noraezeko izango zaye, gure ekintzetan guziok bat izan gaitezen eta Eŕi'aren biziari dagokiona beterik izan dedin.

—Nola era genezake gure Eŕi osorako ari-izateko soŕerazi beaŕ dugun erakunde nagusia? Eztut uste ori zaīa danik, eta onezkero zerok asi zerate oñaŕiak jartzen, gutxi gorabera berdin, eta nire asmoarekin bat egiten. Onela edo: eŕi bakoitzean buru izateko, biltzaŕ bat eratuz; biltzaŕ ori udalaren antzekoa izan diteke ta eŕian dagozen abertzaleen autarkiaz izendatuta izateko; eŕi-biltzaŕ ori beteko diranak eŕiko arazoak zuzentzeko izango dira, ta bide batez erki bakoitzean egon beaŕ duen goragoko beste biltzaŕerako, erki-biltzaŕerako gogaideak beren autarkien bidez ere izendatzeko; bai ta orobat Eŕi osorako ekin beaŕ-izango duen beste biltzaŕa, biltzaŕ nagusia, abeŕiaren osotasunerako bizi-erazi beaŕ duguna autatzeko ere; ta ororen gain,

noizpait, lendakari bat izatea egokitzat artzen bada, eŕi-biltzaŕekoek be aukeratu beaŕ-izango dute. Oŕela, gure erakunde guziena, eŕi-biltzaŕekoak, ots, ziñegotziak autatu ta izendatzeko almen osoa izango dute.

—Orixe edo, nire ustez, aspaldidanik gure Eŕi'an ageri dan jokatzeko era bikaña; ori da, ene eritzirako, egokiena; ta ori izango da, azkatasunean ari-izateko, eraturik izango diran udala ta beste erakundeak antolatzeko bidea.

—Alakotz, guzi ori ontzat artzen baduzute, eŕi ta erkietan asi zindezkete erakundeak oŕela antolatzen; arabaŕak, dagoaneko, ba-dute, erkiaren maĪan, beren biltzaŕa izendatuta, bai ta, Gasteiz'en, ororentzako idazkaritza berezi bat be jaŕita. Ta erki guzietan, orixe edo oŕen antzeko zerbait egiña izango danean, ororentzako biltzaŕ nagusia autatzeko, eŕi guziei eskatuko diegu. Ta orduan, gure biltzaŕ guzien bidez, gure erakunde osoa egiña izango dugu, oso ongi buruturik.

—Ba-dauzkat, oraindik, beste bi edo iru asmo zuei jakin-erazi nai dizkizuedanak; baña, ongi baderitzaizue, oyek biar goiżean egin beaŕ dugun azken bilkurarako utzi ditzakegu, emen egindakoa, gaurkotz, naikoa dalakoan nago-ta. Biar, eiki, gaur emen azaldu diran asmoai buruz zerbait esan nai baduzute, pozik entzungo dugu ageŕeraziko duzuten guzia. Ta ba-liteke gure «Eŕi-Deya» nola artu izan dan eta jarkipen bat edo erazi ote duen jakin dezagula.

Esku-zartaka aundienaz onartu zituzten Sabin'en asmo ta itzak bildutakoek. Ororen artean amaika esakizun eta iritzi eman zizkioten alkaŕi, ta ororengan yardespen aundieneko bidean sartzen ari zirala, asmoa zebiĪen kezkatsu. Unealdi artan, gañera zetozkien lan eta kardaba berenganatzeko, gerturik zegozela adierazten zuten guziek, baña berdin jaŕaituko al lukete beti,batez ere ezinbestekoa izango litzaken buŕukan naigabe ta koropiĪoak ageŕ zitezenean? Ezpai ori sortu zitzayon Mikel'i, ta bere adiskideai aurkeztu zien biltokitik irten ziranean.

—Sabin'ek: —erantzuten— Ene ustez geyenek bai, egin zitiagun iru bilkuraetara erdu ditukanak bederik; baña elitzakek aŕitzeko izango, eragozpenen auŕean bat edo batzuk kikildu ta gibeleratzea. Oŕengatik gerta ditekean ori eragozteko asmoz, gure «Eŕi-Deya»'n sua ageŕarazi beaŕ-izango diagu bizi-bizi.

Batzaŕerako, ordezkari ta kide alkartu ziran gizon ayek, aŕastiri apalean Bilbao'ko kaleetan barna taldeka sakabanatu ziran. Larun-

bata zalarik, mota guziko langiĪeak, astearen atsedena gozatzeko gogoaz, multzoka zebilzten, gizabaŕ gaitza zegitela; ura, bai, gizonezkoa!, esango luke an ikusten zana adierazteko, norbaitek.

Geyenak gazteak ziralarik, aŕaboska ta ardaĪa alde guzietatik; begikoa beti gaztediak adierazten duen bizia; gazte danari, saŕi, odola su gabe dirakio, ta borborka ari beaŕean, nolabait barneari asazkaldia zayo beaŕa. Oŕela zebiĪen gaztedi ura, eupadaka ta deadarka, alde guzietakoen antzera; zoritxaŕez, ba-zegoen uri aundi artan, Euzkaleŕi'ko beste aundi ta txikietan bezela, ona etzan oitura bat; taldeka zebilztela, ardantegietan saŕ-irten geyegi egitea; bakoitzak taldekoenganako gain-gañeko edale ageŕerazi nai zuen, eta iñor atzean ez geratzeagatik, guziak orobat egin beaŕ, azkenez guziak ere urdaĪa arno-upel biurtuta geratzeko; jokera oŕi txikerdietan ibiltzea deitzen zitzayon eta gazte-landarearentzat egiazko izuŕite gaitza zala aiturtu beaŕ da.

Gure batzorkideak gizozte artan nastuta ibiĪi ziran, an edatzen zan begikotasunaz gozatuz; baña bai ta, gazte ayek, biarko gizonak, batzaŕean agertutako asmoak nola artuko lituzketen, alkaŕi galdetzen. Gazte batzuen txamaŕaren sakeletik «Eŕi-Deya»'ren igeki bat irteten zan; ez asko eiki, baña gure lagunai atsegiña eman zien ura ikusteak; ez bide zan, erdi zoro agertzen ziran gazte guziengan, guzia jolasteko apeta; batzuen batzuk, ausaz, biarko asmokideak izango ziran.

Ordua eldurik apaltzera ta lotara, beti batzaŕean entzundako guziak barnean eragiten; alaz ere, nekatuta zegozelarik, aurki biziaren tartea, geldi-aldizko tartea dirudien loak bere atsedenezko kateetan menperatu zituen guziak.

Eldu ere igandea eldu zan eta lendik esandako orduan, auŕe egunekoak oro bil-toki berean zegozen, an esango litzaken itzik ere ez galtzeko gogo bizienaz. Maipuru ziranak ere nagitasunik gabe beren tokietan zegozen besteak baño lentxeago; ta lanaren jaŕaipenari lotuta, bereala ideki zuten biĪera, Sabin izlaria zalarik.

—Sabin'ek: Egun on!, esan beaŕ dizuet guzioi, eguneko lanaren astera onen zintzoki etoŕi zeratenoi; ta gure ekintzarako erakusten duzuten zudua ain aundia agertzen zaigularik, eztitan bezela naukazute pozez.

—Goize ontan esan nai dizuedanaz ezer aipatu baño lenago, atzo ementxe azaldu genituen asmoai buruz zuenetariko batek edo batzuek zerbait esan nai-izango balute, oŕezaz astea egokiena izango litzakela

uste dut. Ongi baderitzaizue, zuei dagokizue oraintxe mintzatzea. Ia nork asi nai duen.

—Batek: Barka ezaidazute, adiskideok, emen mintzatzeko ausartzen banaiz. Pozik entzun nuen atzo ortik esan zenigutena, gero, gogoratzean, nire buruan birundaka ibiĩi zaidana. Ta ain zuzen, zeroŕek, Artetxe jaunak, esondatu zenigun arazo bat eztut oso argi ikusten. Gaizki ulertu ezpanizu, eŕiketari buruz ari-izateko, orain dagozen udala ta beste oŕelako erakundeetan sartu beaŕ dugula esan zenuen, toki oyetatik gure asmoen edo gure Eŕi'aren alde al diteken lan egokia betetzeko. Ona da, noski, asmo ori, baña leku oyetan ari-izango diranak Egoeŕi'aren legeak eta erabakiak bete beaŕ-izango dituzte ta, bearbada, besteai bete-erazi ere; ez ote da izango ori oztopo aundia gure ekintzarako?, ez ote litzake egokiago erakunde oyetan ez sartzea?, azkeago ari-izateko?

—Sabin'ek: Izpidean zagoz, adiskidea, ta auzia argi ikusten duzula erakusten diguzu. Ezin ukatu aipatu duzun eragozpen ori aurkeztu ditekela, agintaritza-leku oyetan sartu ezkero; baña sartzen ezpagera eziña izango zaigu oyetatik egin litekena betetzea; beraz, zer izango zaigu egokiago autatzeko?, egin genezakena bete al-izateko sartu?, ala kalean geratu, soŕ ditezken oztopoai buru-egiteko beaŕik ez eukitzeko? Ba-liteke oŕezaz gure iritzi guziak batera ez etortzea, bidezkoa izango litzakenez. Baña nire iduriko, ona izango litzake, bein-beñeko bederen, gaur emen erabaki bat artzea; ta gero, batzaŕeetatik beste iritzi bat sortzen bada, bidea alda liteke. Alakotz, nai al duzute orixe egin dezagula?, sortuko dan erabakia bein-betikoa ez izateko baldintzaz?

—Erantzuleak asko: Bai, bai, ongi deritzaigu ori.

—Sabin'ek: Orduan, sartzea ala ez sartzea da arloa, ta erabakia artzeko, bide eŕaz eta eroso au erabil dezakegu: sartzea ontzat artzen dutenak, zutik jaŕi ditezela, besteak eserita geratzeko. Zer deritzaizue?

—Aunitzek: Ongi, ongi!

—Sabin'ek: Ekin dezagun, beraz; ia, zutitu ditezela agintza-erakundeetan sartzea ontzat artzen dutenak.

Bereala, geyenak zutik jaŕi ziran, eta batzuen batzuk bakaŕik igitzerik gabe geratu.

—Sabin'ek: Uste dut zalantzik eztagoela autatzeko, sartzearen alde ainbeste jeiki zeratelarik. Baña ez aiztu erabaki au bein-beñekoa

dala bakaŕik, eta uŕengoan, apika, beste iritzi baten auŕean, indaŕik gabe gera ditekela.

—Sabin'ek: Ia, beste esatekoren bat ote dagoen azaltzeko.

Iñork etzuen ezer esan eta oŕengatik onela jaŕaitu zuen Sabin'ek:

—Sabin'ek: Atzo erabiĩi genituen arazo ta beren azpegiak dirala-ta, artez esan dezakegu, lateŕiaren pean egonaŕen, azke izango bagiña bezela yarduteko bidean abiatzen gerala, gure abeŕia, egitan, bere esku izango danerako bere biziaren antolaketa nola egin nai-izango genuken adierazteko. Bide ortan barna auŕeratzean, onartu dugun antolabidean, beste uŕats bat ematea ebokia izango litzaigukelakoan nagokizue: zuzentzari buruz gure epaiĩe, lege-gizon eta auzi-gizonak izendatzea, gure artean soŕ litezken auzietan erabakitzeko ta besteengana joan gabe. Bego au, gaurkotz, asmo bat bezela bakaŕik, ezin egin dezakegu guzia batera, ta uŕatsez-uŕats ibiltzea obe deritzait. Eta edonori beste asmoren bat otutzen bazayo, aurkez dezala egokiena irudituko zayon batzaŕean.

—Beste iru asmoai buruz zerbait esan nai-izango nizuke; auetxek dituzute iru asmo oyek: abeŕiaren izena, abeŕiaren ikuŕiña ta abeŕiaren ereserkia; gure nortasuna adierazteko, ta bide batez gure batasuna indartzeko, beaŕezkoak deritzaizkit irurak.

—Ba-dugu, noski, gure abeŕia izendatzeko aspaldiko itz polit eta egokia: Euzkaleŕia; baña izen onek euzkeraz mintzatzen dan Eŕia dala adierazten du bereziki. Ez ote litzake ona izango, izen ori baztertu gabe, gure giza-taldea geyago nabari-erazteko, beste izen egokiago bat eratzea, euzkeraz eta euzkal-eŕoz egiña, alegia? Orduan bi izen eukiko genituzke ta biak berdin erabil genitzake. Oldoztu ezazute oŕezaz, otoi, eta ...

Etzuen jaŕaitu; orduantxe gazte bat sartu ta uŕeratu zitzayon zerbait esaten.

—Sabin'ek: Azketsi ezaidazute, atetik ertsiki deitzen naute; baña uste dut aurki zuekin izango nauzutela beŕiro.

Irten zan Sabin eta marmarioka asi ziran guziak: zer ote duk?, etxeko ezbeaŕen bat?, agintariak edo deitu? ..., estu ta laŕitasunez guziak. Mikel eta maikideak berdin edo geyago, ongi baitzekiten, lendik Sabin'ek guzirako arpegia eman zuela; ta, artega, Mikel ere adiskidearen atzetik atera zan. Egokera aztuna egin zan eta guziak urduritasunez beterik geratu ziran, Sabin'ek beŕiz agertu beaŕ ez ote

zuen ayeruz beterik. Luzeegi iruditu zitzaizkien unealdi ayek guziai, baña azkenez an agertu ziran Sabin eta Mikel, alkaŕekin eta nolabait kezkatsu.

Ixildu ziran bereala guziak, adi-adi jaŕaitzeko; ta:

—Sabin'ek: Eldu da uste genezakena, siñistekoa zan baño lasteŕago, alajaña: egoeŕitaŕen eta beren lagunen erantzuna. Atzo atera genuen lenengo aldiz gure «Eŕi-Deya», ta bera irakuŕita, gure arerioengan zegoen axanpak leŕ-egin du; ta gure aurkako kale-agertaldi bat egitea erabaki bide dute. Esan didatenez, agertaldi ortan sartu diranak, eunka edo, gure batzokiaren auŕetik igaro dira, gurekiko deadarka, atsegiñak izan eztiran deadaŕakaz jakiña, ta Egoeŕia'ri buruz gora ta goraka, guztiz aseŕe agerturik. Ikusi dituztenek Udal'era edo doazela uste dute, ta etxe onen auŕetik ere igaroko dira, emen gagozela jakin baitezakete.

—Sabin'ek: Eztugu estutu beaŕ. Egitan, ori gertatuko zala, asieratik uste-izan dugu, ta oŕa oŕ beren ostetasunaren asiera. Deadaŕak ez gaituzte minduko ez eta, iñola ere, atzera-eragin beaŕ. Gerokoan, ausaz, egipenak ere elduko dira, baña guziari burua emango diogu. Goazen auŕera gure lanean.

—Gure Eŕi'arentzat egokia izan liteken bigaŕen izenari buruz mintzatzen ari-izan naiz deitu nautenean. Ondo iruditzen bazaizue, Eneko ta bere lagunek aŕ lezakete izen ori eratzeko lana, ta zuenetariko nai-izango duenak oyei ageŕerazi al-izango die oŕekiko bere iritzia.

—Izenarekin batera, gure izaera ta gure nortasuna agerian azaltzeko, ikuŕin berezia eukitzea oso beaŕa bezela dakust. Gure Eŕi'ak, Eŕia bezela, eztu ukan iñoiz oŕelakorik, nik dakidanez bederen, eta, beste Eŕi guzien antzeko, berea eukitzea egokitzat aŕ dezakegulakoan nago. Ori eratzeko ta autatzeko, guzien artean batzaldi bat edo egin dezakegu, lanean bereala asteko; ta asmo au ere ontzat artzen baduzute, niri biali dizaidake nai-izango duenak bere iritzi-agertzea, maŕezki, margo ta otuko zaizkion zertzelada guziakaz.

—Eta izen eta ikuŕiñarekin batera, ereserki egokia eukitzea ere beaŕa zaigula uste dut, osotasun egokia oŕela burutzeko. Ereserkia, arean, itzak eta eresiaz egiña izan beaŕ; itzen bidez gure barneko biozkadak agertu beaŕ-izango dira, ta eresia, al bada, gure abesti jatoŕ batetik atera liteke. Beraz, ori be ondo iruditzen bazaizue, beste bi batzaldi egiteko gayak izango ditugu, itzerako ta eresirako; ta besterik erabakitzen ezpaduzute, niri ere bial dizaidake edonork berari otuko zayona.

—Azkenez, izen, ikuŕin eta ereserkia atondurik izango diranean, batzaŕ aundi bat egin genezake, irurak Eŕi'arenak bezela bein-betiko onartzeko.

Txaloka eman zioten guziek Sabin'i beren oniritzia, ta, ara, orduantxe, kaletik zetozen deadaŕak txaloen artean entzun ziran, batzuen bayetza besteen ezetzarekin unealdi berean nasturik, eta alkaŕen aurka bezela agertzeko ziruditela.

Maipuruak eta beste batzuk aretotik irten ziran eta beste gela bateko leyoetara jo-egin zuten, kalean zegoena ikusteko nayaz. Zer ote zan ura? Len gaztigatu zietenez, Egoeŕia'ren ikuŕiña auŕean zeramatela, gizaketa aundian bildurik zijoazen gizon eta emakumerik asko, Egoeŕia'ri goraka ta, berak deitzen zituzten uŕa-zaleei beraka, dardarikaturik oso ta deadarka, gure adiskideak zegozen bil-tokiruntz ukabīlak zuzenduta, aurpegian inki-minki, beltzuri ta sumin, eta, ageŕerazten zutenez, beren barnea urak eta suak arturik. Etzegoen, ez, ayengan onartzeko xederik, zerbaiti buruz, ordea, oŕatzeko ta aratzeko antsia baizik; ez eta naimenarekiko, ayen artean iñor ari-izateko keko-mekorik. Baña ayengandik, asmo beŕidunengana zetorkion zema aundia, ayeŕ eta gogoŕ zuzendurik, argi baño argiago.

Oyulariak auŕeruntz jaŕaiturik, batzaŕekoak oro beŕiro bildu ziran, eta Sabin bereala jeiki zan onela mintzatzeko:

—Entzun eta ikusi dugu, nai ta nai ez, beti auŕean izango ditugun arerioak, eta oyen jokerarekiko ezin aŕitzekorik gugan izan; egoeŕitaŕak nolakoak diran gogoratu ezkero, oyengandik orixe gureganako bidezkoa. Gaur,aokaldi, deadaŕ eta keñuz beren ezin-ikusia agertu digute; biar, al-izango dituzten egipenakaz gogoŕago ta nabariago erakutsiko digute beren etsaigoa; enurarik ez ortaz.

—Oŕa ezinbestekoa zaigun buŕuka, argi asten dana; buŕuka ontan, gure egia ta gure Eŕi'aren naya izango ditugu gure izkīlu egokienak; oŕengatik, gure lenengo lana, lan beaŕen eta egokiena, Eŕia iratzartzea dala uste dut; alpeŕik izango litzake egiaren distira argitsuena erakustea, Eŕi'ak beretzat artzen ezpadu ta beraren alde jokatzeko naimena tinko ta bipil, guziai ageŕerazten ezpadie. Baña gure Eŕia, biziari buruz egin zayon deyari erantzun edeŕa ematen asi da, ta zuek zerate oŕen lekuko.

—Eŕi'ak ontzat artu duen deya, berea egin du ta ondorioz dei

oŕen zentzuna gu guziontzat eginbidea biurtu zaigu; onaŕ dezagun eginbide ori ta, betetzeko nayean, eman dizaizkiogun asmoari, Eŕi' ari, gugandik soŕ ditezken alegin eta maitasun aundienak.

—Eziña dirudi, zoritxaŕez eta gaurkotz bederen, Egoeŕia, auzoko ona, ta gutxiago anaya bezela onartzea. Eŕi ori guretzat atzeŕia da ta egokiro dagokio gure esakera zaŕak diñoena: «atzeŕi, otso-eŕi»; ta argi erakutsi digu, guretzat, esakeran agertzen diran bietarikoa dala; bai atzeŕi ta bai otso-eŕi ere.

—Ageŕerazi dezagun beti gentzarako gogo aundia, geron baitan oŕela mamiturik, egitan; baña baitezpadakoa izango zaigun buŕukan geron jokera ta geron izkiĪuak erabiĪi beaŕ-izango ditugu, zuzen eta alboetara sayestu gabe beti.

—Orain, gogo onekaz eta emen agertu diran asmoak ontzat arturik, goazen auŕera gure alkaŕenganako anaitasuna sendoturik eta itxaropentsu guziok osorik. Eta besterik esan edo galdetu nai ezpaduzute, onela eman dizayokegu gure laugaŕen biĪera oni amaya.

Zutitu ziran guziak txaloka, ta bat-banaka kaleruntz abiatu ere, nolabait kezkatsu baña pozik eta lanerako gogoz beteta; bazkaltzeko ta bakoitza bere eŕira itzultzeko asmotan.

Mikel, bere iru lagunekin eta Bilbao'ko beste batzuekin bazkaltzera joanda, aŕatsaldean arabaŕekin geltokian alkartu zan, guziak bultzi berean itzultzeko. Etxerako bidean, bere bidaideekin Bilbao'n entzundakoari buruz mintzatzen ari-izan zan, batzaŕean izandako gaŕari eusteko nayean; eta etzuen ortarako egiñal aundiak egin beaŕ-izan; guziak gogo-beroturik zijoazen eta ikusi zuten arerioen jokerak bero aundiagoa eman ziela zirudien.

Alde ortatik, beraz, Mikel pozik zegoen, arabaŕak beste euzkaldunekin bat eginda agertzen ziralako, beren burua euzkalduntzat oso arturik; oŕela zan ber, eiki, bere yardespena gutxiturik edo begiratzen zuen eta auŕeragoko eginkizunena, guziak batera artutako bide ta xedeetan edatuko litzake. Euzkaleŕi'aren ekintza zutik zegoen bere elbururuntz indartsu ta bipil dagoaneko jaŕita; tinko jaŕaitzea izango zan auŕerako ebazkizun nagusia.

Bere lagunenganako gero ta entzinduago zegoen eta Sabin'engan egiazko buruzagi aundia ikusten zuen; au bere bidaideen auŕean ere bereziki nabari-erazi zuen.

Baña etxera bakaŕik eltzerakoan, buŕuka-beaŕak gañeratu zituen bere baitan beste asmo guziak, bere barnea zearo durduzaturik. Bil-

bao'n ikusi zituen arerioen keñu ta begirakuneak, eta entzundako deadaŕak, iru iĪabete auŕean Araya'n ikusi ta entzun beaŕ-izan zituenak bezelakoak ziran eta orduko kezkak orain ere beŕiturik oartzen zituen bere gogoan. Guzi oyek ito nayean gogoŕ eragin zion bere buruari, guda egokiro zedaŕiturik zegoela gogoratuz, abeŕia alde batetik eta atzeŕia bestetik, eta Eŕi'aren biziari eusteko ezinbestekoa zelarik, beren aldetik ortarako eŕurik gabe zegozela. Alpeŕik, alaz ere, gogaeta guziak; beren ekintzaren erdi-erdian, nai ta nai ez, buŕuka zegoen baitezpadako jokera lez, ta mozoŕo ikaragaŕiena bezela gañean zebilkion dantzan, gentzarako txede txikienari buruz ere paŕ-egiten zuela zirudielarik.

Oeratuta, alkaŕen aurkako gogorapen guziak, borborka ta zuŕubuŕu zerabiĪen naste usua biurtu zitzaizkion, noraezekoa zan loa alde-eragiten. Ara an, bere barneko buŕuka aztun eta mingotsa, len ere jasan beaŕ-izan zuena, ta gero be, bere bizi guzian bere gogoa biziki zipertuko zuena. Mikel gaixoa!, axe zuretzako gerturik zegoen gogo-arantza!

Gizonak lanean, aurak abestean

Udabeŕiaren amaitzerakoan, Azpaŕena oso lanerako sukaŕean; ez bide zetoŕen uda, atsedenera eramateko gura, lana geitzeko xedeaz baizik, guzientzako ala beaŕik. Opoŕ-aldirik ez, agian, berarekin batean, guziai lan-odolak, aitzitik, burua artu zuela zirudielarik. Ezmezik ez iñorengan, zain eta muin ekiteko beaŕean; bakoitzak ala ere bere eyerari ur, aŕetaz eta zuuŕ.

Araitz pean sukaŕa ororengan dario, bakoitzari nola sortu dio? Esnatu orduko lanerako urduri, eguzki-galgan naiz itzal gozoan, guziak ari ta ari gelditzeko eziñean; ara ta ona, gora ta bera, zertarako oŕen lera? Txinduŕien antzera, zuzen eta gogoŕ guziak lanera; txinduŕitegi zabala Azpaŕena orduan benetan ziñala, mendi ta kale, solo, etxe ta ola, orotan gelditzeko eziña bezela, iĺuntzean zeritzayela gaua goiz zetoŕela; ura lanerako leya, ura igitzeko antsia, ura izerdiaren emaria.

Zer zala-ta yardun beaŕ oŕela? Zeren atzetik irakitzeko odola? Biziari eusteko noraeza? Alkaŕen leyan, ausaz, norabait lenengo eltzeko apeta laŕian? Atzeratuta geratzeko belduŕa?, auŕenetako nayez lortzeko gaĺuŕa? Nork esan, egitan, nork igaŕi ango alegiñetan? Alegia, etzan bidea ororentzat berdin idegia, ez eta elburua guzientzat bat bereiztua; baña sukaŕa bera biotz guzietan, berbera lera ororen gogoetan. Eltzeko bereiz, yarduteko oro bat araiz, gurariz ororengan ibiltzeko garaiz. Azpaŕena'n oro, aldi artan zirudiela zoro.

Nola zabiltzan Elortza jauna; setatsu, gogoŕ, sendo, arduradu-na! Goizea eltzea, ez ote da zuretzat berandu edo argitzea? Ekin beaŕean, goiz-goizetik jeikitzean, urduri beti asteko lanean. Eztakizu, ez, nagikeria zer dan, zuri dagokizu beti igiduraz ibiltzean. Menperatzeko eztuzu ezagutzen, zail eta gogortasunik izan ote ditezken; gañeratzeko arlorik be zure naimenaz ez geratzeko mende. Arian-arian edozer zulatzen da, ba-dakizu ori ontsa. Zure baitarik yarduten duzu, zure ekintzari buruz tinko ta uzu.

Aitarekin ari-izatean lortu etzenuena, aren semeekin yardutean, oŕa iritxi duzuna. Letona zaŕ arek ba-zuen kemena, ba-zuen naimen sendoa, ba-zuen arbasoen etxeaganako ziñezko maitasuna. Bere sendia zan guzia arentzat, etxea zeukan sendiaren elizatzat; aren ustez, etxea uztea ba-zan sendia ere ezestea. Sendia ta etxea bat ziran aren idurriko, oŕengatik ez bat ez bestea etzuen utziko. Ta arbasoengandik artutako altxoŕ beñena, ondorengoai utzi nai zien, sendi beŕituaren biziari emonaz jaŕaipena.

Zureganatu zenuen noizpait ere, Letona'ren eyera bai ta arako ur-bide arekin batera. Ondorioz oŕetara, ona zala erakutsi duzu zure yarduera; zabalik dituzu orain auŕeruntz yalgitzeko ateak eta ekiteko be ororen gain. Ametsak dituzu betetzeko bidean, aboro egiteko burubideak auŕerantzean; zabalik dauzkazu ibilpideak, aundiago nolabait, oŕela, eragoteko gogo ta espeak.

Udaroa osoan ustiatzeko xedeaz, guziai eragiten ari zera arduraz; ba-zera zu nor, besteak ere jartzeko eginkoŕ, eta oro nai duzu lankide izateko gerturik, erne, oŕ. Oituraz baño areago ari zera ito-itoka, oro lenbailen burutzeko zaŕapastaka. Ba-dakizu, jakin ere, gauza guziak beingo-beingoan be ezin ditezkela bete, ta oŕengatik edo eztuzu nai lan txikiena, pitin bat ere, atzeratu; ta goizetik gaberarte ikusten zaitue zingun-zangun aldarterik artzeke.

Gogoratzerik ez, ezta?, Udal'ari erantzun bat eman beaŕ diozula; nola oŕezaz orain oroitu ertsakoŕagoak diran beste lanetan baitzera sartu?, itxoin ditezela oraingo ontan ziñegotziak, bai ta berebat uŕengorako ere mendiko zugatzak, bere garai on guziari emon; egun ur-jausteari dagokio, beste orori bere mugona ere elduko zaio.

Auŕera zoaz lan-buruzagi, besteak zure esanera etoŕi ta zure ekintza oŕela burutzera doa ongi. Udazkenean, beranduenez neguan, altzairua nai aña urtzean; altzairua da zure ametsa, ongi ta eŕuz lortzeko gogo-bizi utsa. Ba-dabiltz bazteŕetan beste batzuk oŕelako yoranetan; eta auŕeratu egin nai diezu guziai, aldiz, tasunez, salneuŕiz, mugonez, yardutean ernai.

Auŕera, bai, Elortza, zurea da garaitza; zure eŕiaz egingo duzu, laisteŕ ausaz, altzairu-uriz biurtu. Edeŕa gerokoa eŕiarentzat, ororentzat; pozik egoteko urkoa; pozago zu, sortzaiĺea zerana, oroz gain gorengoena.

Eldu zaizu zure txanda, zuri ere Yokin, asmoari buruz jaŕaitzeko egitean ekin. Zurea izan zan asmoa, buru izan baitziñan, buru ta

gogoa; zurea, bidea idoroa. Noiz otu zitzaizun?, nola ori asmatzen yardun?; zaĭagoa noski, noiz esatea, ez ainbeste nola atematea, eiki.

Burnia lantzea maite duzu, ortara doakio zure barnea; urturik ikusi nai labean, gogoŕ eraturik gero iyelean edo gabi ta gabikoen pean. Baña maiteago duzu altzairuz bikaindu; ortarako txit egokia eguŕ-ikatzaz gertutako burnia, tximist-indaŕaz jaŕi ondoren goria, ainbestetara izateko erabiĭia. Argi ikusi zenuen garaiz, altzairu-aroa idekitzen ari zala, araiz; lenengo gaya, gai edeŕa, bertan zeneukan, Zirauntza'n, burni berezia, ortarako keŕ-keŕa. Labe egokia zegoen gertutzeko eraikia, indaŕa beaŕ zan ari-izateko lanean, eta indaŕa be emateko, antxe lats aundia, Araitz pean sortutako iturburua, eŕuz eskeintzeko ere indarburua.

Azti baten, sortzaiĭe baten zai zeukan izadiak txoko artan guzia atonduriko gai. Ta zu izan zera burudun aztia, gizona buruz ongi yantzia, an zegoen aĭtxoŕa idorotzeko adimen zolia. Aberastasun ura ustiatzeko bidea zegoen aurkitzeko yardutean eta aren biĭa ibiĭi ziñan gogatsu ta sutsu lanean. Azterle ona izanik, mendian gora ta mendian bera amaika bider ibiĭirik, mendi-mazelak eta aŕuaren maldak ikustatzen, menditarte ura itxurapenez nola agertzen zan begiratzen.

Eta Letona zaŕaren bolura ura zeraman antepara ura, zure begien auŕean agertu zitzaizun bein, bidea nun zegoen adierazten argidun, uraz bezin argiz betea. Geroztik a bezelako beste urbide batzuk idekitzea, egokiena, lats aundi aren indaŕa alik eta geyenik ustiatzeko buruak ematea, ta bereala zure baitan ere mamitzeko xedea.

Ba-zegozen lats aren ugaitzean dagoaneko bi zuŕunba; bat iturburuan bertan, bi ur-bide beŕi, ezkeŕ eta eskumatik ideki lenagotik, bi ur-jauzi edeŕ lortzeko egiñik; bestea, Letona'ren bolura joan-erazteko ur-bidea, lenengoa baño txikiagoa. Zergatik ez, galde-egin zenion zure buruari, beaŕa izango zanez, goragokoa bezela izateko indartu, ta aŕuaren auŕeko maldan beste uberka egokia ildokatu? Antepara zaŕa zabalduago ta uberka beŕia neuŕi berean atondu geroago, ara beste bi ur-jauzi eukitzeko bidea iritxi.

Noski, ezin bi ur-jauzte beŕietatik euki, zaŕetatik lortzen zan ainbeste indaŕik, ur-bideak goikoak bezin zabalak egin ezkero; baña zabalago ta sakonago gertuko balira, urketa aundiago izango zan gero, goyeraz galdutakoa ur-kopuruaz irabazteko.

Eta zergatik ez egin goiko urbide ta beko antepararen arteko, erdi aldeko galgan edo, beste uaska biko, beste zuŕunbaren bidez ere

egokiro? Oŕela, Zirauntza edeŕ artan iru zuŕunba, iru biotzen antzera; sei beso zaintsu laso izan litezken sei ur-bideetara ur-odola tai gabe eraginkoŕa ayei zeriela, tximist-indaŕ aundiko egitura bezela; batez ere ustiatzeko neguan ura euŕez sortzen zala.

Asmoa agertu, ugazabak onartu, ta ara uda artan egitamu ari buruz, guziak zanpa-zanpa lanean, Yokin artezkari ta oro kiri-kirian. Eta tximistolak ere sei izan beaŕ, aŕuaren bean irunaka jartzeko bere alde bietan eta mendipearen zeaŕ. Bai, lan aundi ura arioz egitekoa zanez, an zenbiltzan, gizona, zain da muin, zin-ziñez.

Ez noski aŕapaladan, bai ordea leyaka, uŕatsak ematean, uŕenez-uŕen banaka, zu be, Mikel, ari zera sutsuki, ta udan berean zure burupideak auŕeratuak nai dituzularik euki, gogo guziz, buru-belaŕi ta azkarki.

Egia da dagoaneko ezaguna zerala inguruko, nekazariengandik begirunea irabazi duzulako, ta zure izena oso aintzakotzat arturik dagoela, goraki aipu Azpaŕena guzirako. Ezta, alegia, oŕen biĭa ibiĭi zerala; elburu bikañak dirala jaŕaitu nai dituzunak, eta oyetaruntz ekin-eta-ekin zure uŕatsak doaz aŕetaz zuzenduak.

«Luŕaren umea luŕak azi daroa» egin duzun Azpaŕena'ko elkargo aundirakoa dago, goiburu egokitzat ororen aldetik onarturik, gogotik, lugiñentzat bizia antolatu ta jaŕaitzeko, aukerakorik norabiderik.

Naiz eta elkargorako ta bertan egin diteken guzirako, zure buru argiak oro egokienik antolatu, naiz lugin ayen buruetan etsipena, eroapen aundiaz, sartu ta azkartu, ba-zegoen, zuk jaŕaitzen etzenuen beste zera berezia ekintza guzi artan: nekazari guzti ayek zugan jaŕi zuten siñismen aundia.

Apika, siñismen ura berberak oartu gabe sartu zitzayen barnera, zure egipenen bidez garbi erakutsi baitzenuen nolakoa zeneukan jokera; zintzo-zuŕian ongi irabazi zenuen entzuera, ayentzat ondo mamitu zitzayen baitura.

Siñismena bai, soŕerazi zenuen Azpaŕena zeaŕ biziki suztatzen. Baña ez ote ori bakaŕik, giza-izaeran ba-dago orokaŕa dan besterik, beaŕa edo zayo norbaitengan izan entzindurik; baitezpadakoa dirudi uste on eta uste osoa nunbait jaŕi; ta inguruko lugin aientzat, ortarako, zu izan ziñan autetsi.

Nekazariak omen dira goganbeartsu, geyegi edo tukutsu; aipu ori ez edo da bidezko, ez gutxiago zuzena; uritaŕak okerbidez egin

dizkieten arbuyo ta isekaz baseŕitaŕak ostetasunez auenganako, ala beaŕik, zurt eta aŕetaz.

Zu etziñan, Mikel, uritaŕa, bai ordea jayotzez eta biotzez baseŕitaŕa; orixe beste zioa baseŕitaŕak zugan laguna ikustekoa. Ta egiazko luŕaren umea ziñalarik, luŕetik bizi ziranak gogoz zurekin alkarturik. Zure xedeetarako, oŕela, guzia berez edo zetoŕela ikusteko; ta zure asmoak ayengandik onartzea, azkenez, isituki ari ondoren, lorturik izan zenuen ala beaŕez.

Ondo ikusten zenuen zure baitan yardespena; lenengoz etxekoengana, gero nekazariengana, zure zin-lagunengana, ta Araba ta Euzkaleŕi osoarengana; ta erantzuteko beaŕean gogotik yardun zenuen lanean, atsegiñez beterik barnean. Lugiñenganakoa batez be gentzan betetzekoa, ta orixe egokiena, zure gogarakoa. Iñoren aurka jotzeko, agian egokitasuna, otian, auŕeratzeko leyan, buŕuka-zantzurik ez oztoporik jartzeko berez, ekiñaldian.

Egiīe ona ta eragiīe obea, pozik ikusi zenituen lugiñak atzetik zijoazkizula gartsutuak; eta oŕengatik ere azkutsu zenbiltzan axolaz eta yoranaz, lanari burutsu oso ta bizi emanaz. Esan bezela egin nai zenuen guzia, ortarako erabīlirik artezia; asieran oro eginkizuna, ala beaŕez; egiñak egiñez gero eginkizunik ez, eta lortutako onaurkiak, etekiñak emanez.

Ara zure egitaraua, ta oŕa zure egipen laua; ale, zaldale, landare ta lanabas ere, ororentzako metatzeko bildegi egoki dagoaneko zegoen, aldamenean geltoki, auŕeraturik eraikitzen. Geroxeagoko asmoa, lantegia eukitzeko, bertan autetsirik lekua; gurin eta gaznak egiteko, esne ixurkia banatzeko, esne-iriña lortu ta ontzi berezietan sartzeko, ta beranduxeago beste esne-ekoizpen ateratzeko; oyetxek lenengo elburuak, atzetik jaŕaitzeko besteak. Bai ta luŕaren etekiñak, belaŕ, barazkiak, lusagaŕ eta igaliak, bildegian ere jasotzeko ta ongi muetatuak izateko.

Ba-zegoen asko asia, ba-zirudien ia egiña; jaŕaitzekoa zan aria, jo-mugaraño eltzeko giriña; ba-zeneukan, Mikel'ek, zerez betetzeko bizia, bai ta nun agertzeko beargiña.

Beste batzuk ere Azpaŕena'n, ari-izateko lanean; eta oŕela yardun beaŕ, ain zuzen Udal'an. Eŕi'aren arazo guzietan, gogoz ibiltzeko nayean, elburu bereziak berentzat artu zituzten endore ta ziñegotziak: zugatzak ziralarik, ayen alde jokatzeko guztiz kezkaturik.

Bietarikoak ziran geyerazi nai zituzten zugatzak: igalidunak eta

zurezkoak, alaz ere oŕela zearo ezin izateko bereiziak; baña bai eŕietan barna, beko aldeetan, mendibeen zeaŕean eta solo, ortu ta baratz baŕena, arnaridunak eŕuz landatzeko ta ongi zaintzeko beaŕena onartzeko, onuragaŕia ere izateko. Zurezkoak, ordea, muño ta mendietan, bertako motazkoak eta al litezken toki ta zoko guzietan; oyetatik zura, eguŕa, abaŕak eta orbela ere irixteko, bai ta luŕ emankoŕari eŕoen bidez eusteko.

Ba-zeukan endoreak asmo bat, banako ta berarizko zitzaiona, ausaz bereziegi, baña gaŕantzidun egiazki, gerorako noski ondorio ona ekaŕ lezakena.

Mendien be aldean zeaŕ kokaturik zegoen Azpaŕena; ta itz onek ondo adierazita, egitan, «aitz-baŕena»; oŕek erakusten duela, izena jaŕi zanean, —noiz?—, gaurko aitzak berak zegozela oraingo leŕoan. Ustekoa zan, oŕengatik, ezpazan betidanik bai oso aspalditik. Araitz, Umandi ta beste aitzak, auxe zirala aitz goŕiak.

Uste ortan zegoen Eguŕola jauna, ta burutan árturik, aitz ayek iñoiz egon ez, luŕaz estalirik, ez an landare ona, gutxiago zugatzik; ba-zirudien ortaz ez eukitzeko zalantzik.

Baña bide batez landaraz ornituriko mendien goi-baŕenak gero ta berago agertzen ziran, zabalago ageŕerazteko aitzak; eiki euritara ta elurtetan, eta batik bat aizeaz lagundurik euri-jasa aundietan aitzetatik bera euŕez jausten zan ura, ezarian-ezarian, ayei luŕa muŕizten ari-izan zitzayen, ala beaŕean.

Ezin endorearen iduriko eragite itxu ura bertan bera utzi; eten gabe jaŕaitu ezkero, mendiak muŕiztuta geratuko baitziran aboro, gero ta geyago. Ta egipen aren aurka, ta luŕari mendietan eusteko, gizonaren lanak ari beaŕ joka, adimena buruan alpeŕik ez egoteko.

Bietariko izan litezke, Eguŕola'ren ustean, artarako keko-meko ibiltzeke, onartzeko bideak arean: Lenengoa, aitzeen be aldean asten zan luŕaz estalitako mendian barna, bere luzeraren zeaŕ, areitz edo urki edo pagoak landatu, ala beaŕ; oŕela, zugatzen zuztaŕen bidez esi egoki bat ezaŕita legoke ongienez, eta aitz goŕia espaŕu batean bezela izango zan jaŕia, ta bide batez luiziari egingo lioke eutsi.

Zugatz ayetatik, gero, jausiko liraken izpi, ñaŕ, erbats, keskarda ta burdats, egunero, bai ta orbela urtero, alboko aitzari geratuko litzaizkioke itxatsi, aitzaren bealde ura estalita geratzeko zearo; bide batez eta beren bitartez, euritean aitzetik jausiko litzaken euri-ura,

bertan nolabait geldierazirik, emeki-emeki elduko zan luŕari egin gabe kalterik.

Areagokoak ziran endorearen asmoak, eta zugatz-esia jaŕi ondoren, ia amets utsa zirudien beste egin-naya buruan birundaka zebilkion, tokiai buruz txandaka egitean, egingaŕia zala zeritzayon. Aitzak etziran beren osotasunean lauak, ba-zeuzkaten tarteka-tarteka, andiago ala txikiago, beren utzuneak; zergatik ez, banaka-banaka, utzune ayetan, aŕail eta aŕartetan, beren zulo ta utzarteak estali luŕez? Eta lurketa ayetan, txaraka, zugazño ala sasi naiz eloŕiaren aziak erein, batzuen batzuk beñepein, edo landare txikiak landatu noizean bein?

Landaretxoak zañartuko lirake ta aziak ernemin litezke, beren eŕo ta zuztaŕak lurpean zabaldu ta luzatuko litzaizkieke; auen bidez luŕ-metak aitzetan tinkotzeko ta landareai eusteko ongi. Gero, zertxobait garatu ezkero, beren oŕitxoak eta liliñoak emango lituzkete, gero ta geyago, beko esian azitako zugatz aundien lana bera egiteko beren muŕian; ayen ondarkiak eta orbelatxoak aitzetan zearo jausita, bertan eratxikita geratzeko, ainbatean edo ainbateko.

Oŕela, zatika-zatika, aitzak luŕez edo landarez agertuko lirake estalita, gutxienez euri-jaustea zerbait geldierazteko, ta mota guziko ondarkien bitartez, pizkanaka-pizkanaka, gitxian-gitxian, an-emenka jaŕitako luŕ-tontoŕak zabalduko lirake aitzaren gañean, bera gero ta geyago estaltzean.

Landare guzien indaŕa oso aundia dala jakituna zan Eguŕola, ta indaŕ ura alik eta geyen lagundu ta ustiatzen gizonak ari beaŕ yarduten, neuŕi aundian naiz txikian, nimiñoena ere ez uŕuñatzean. Goiburu baten antzera, auxe esaten zuen nun-nai ta edonora: Iñun, txoko txikienean ere, zugatz edo landare egon baledi, zera ori egon gabe iñoiz ezpedi.

Zugatzekiko bere zaletasun aundia eŕitaŕen artean zabaldu nai zuen, alegia, auŕ tipiengandik oŕela asia; auŕen artean, irakasleen bidez ari-izateko lanean, bein edo urtean auŕai, toki egokian zugatzak landaerazian. Aberats okitua zan zugatza, gure endorearen iduriko, ta erokeri utsa zeritzayon aberastasun ura galtzen uztea; alderantziz egin beaŕ zana zan aboro geitzea. Ba-zan, onela, aundi ta txikientzat lana, ororen onurako bete beaŕ zana.

Etzegoen, ez, Azpaŕena'n geldi geratzeko beta txikienean, gutxienez aldi artan eta gutxiago iñorengan. An zebilen ongi ezagututa

genuen Diaz irakaslea bederen; au ere etzan edo geldirik egoteko jayo, ta lanean ere ari zan esandako beste guziengandik alboan; buruko lana be berea, buruauste emateko xedea, neketsua biurtzen zitzayon yardutea.

Bere burua jaso nayean bide bat artu zuen asieran, Araya'ra eldu zanean, bertan goiko malan ikusi zituenen ondoan, guzi ayek berealakoan aintzakotzat artuko zutelakoan; eta an ikusi genuen agintaria zan aldean bai ta ola zeukan nagusiaren atzean. Etzan izan ondorioa berak nai-izan zuen alakoa, ta laisteŕ bidez aldatu beaŕ gizarajoa.

Alde artatik poto-egin bazuen ere, etzan gure gizona bere nayak uzteko eragin gabe geratuko; ta bekozko ari zitzayen aŕezkero, naiz endoreari naiz lantegiaren ugazabari, areago bigaŕenari; endorea aldatzekoa zan eta aren ordez berarentzako beste obea jaŕi liteke aren tokian; baña ugazabak jaŕaituko zuan eta oŕengatik beti eukitzeko auŕean. Beraz, arerio aundiagotzat artu beaŕ ura berarentzat, eta ala gertatu zitzayon auziak garbi erakutsi zion nundik eramateko bere uŕatsak. Lantegi geyenetan bezela, Araya'ko artan ere, jabea ta langileak otz alkaŕenganako bereala, atezu alkaŕi buruz beren jokera, apika gero ta txaŕago leŕatuko zan bidera. Argi ikusi zuen ori irakasleak, nola zuzentzeko bere xedeak.

Alaz ere, etzuen nai-izan ayenganako bereala agertu aurkako, baña bai ustiatzeko asmoz soŕ liteken edozer aukerako; oŕela ikusi genuen Elortza ta biak kalean ukan zuten solasaldian, ugazaba udaletxetik gogait-egiña irten zanean.

Ekin beaŕ alan be, ta ekiteko aukeratu zuen langile; burutu egin zuen xede ortaz, egiteko zuen lengo asmoaz, eta lateŕian legeak ematen zion bideaz, olako langileen alkartasuna, bat eginda izateko bazkunaz.

Erdu-erazi zituen Gasteiz'etik ango langileen alkartasunaren buru ziranen artetik bi izlari ongi aukeraturik; bi edo iru bideŕ ari-izan ziran ayek Araya'n mintzatzen, bertako langileek beren bazkun berezia egin zezaten. Eta egiña geratu zan, ororen eskubide ta beaŕ ongi zaintzeko eran, soin eta muin ari-izateko alegiñetan; «Araya'ko Langileen Batasuna» eman zioten izena, ta langileek Diaz jauna bazkunaren buru jaŕi nai-izan zuten, baña irakaslea zalako onartzea eziña zitzayola jakin-erazten, apalago geratuko zan buru bezela agertu gabe, ta oŕela, apika, bere laguntza emango zien obe. Beraz, arpegia emateko beaŕik ez, eta bere gogara ta bere oldez bazkun beŕia erabil

lezake ongienez. Bide egokia berarentzat ura; ola zeukan ugazabak beaŕ-izango zuen izateko ardura.

Baña ba-zegoen berarentzat Azpaŕena'n gaŕantzi aundiagoko beste ebazkizun bat, arean: Mikel'en asmoak, bere ustez, geyegi zabaltzen zijoazenak, eta bere barnean kezka ta atsekabe ematen zizkiotenak. Egoeŕi lateŕia ororentzat izan beaŕ, bere iduriko, abeŕia; ori uko eziña zan guzientzako oñaŕia, bere baranoan edatzeko, aren mugaen barneko bizia; ta asmo beŕien zaleak ortik atera nai, aŕo alakoak.

Atematen zuen ,egitan, Mikel'en asmoak benetan eraikita zegozela oñaŕitan, eta euzkaldunen aldetik onartzeko iŕikitan. Euzkaldunak besterik zirala ikusi zuen, berengana eldu ta bereala; etziran, ez, lateŕiko beste alderdikoak bezala, baña ez ote zan ori adierazteko lateŕiaren zabala?, aundiagoa egiteko, guziak alkartuta zeukaten ala? Nolanai ere etzegoen irakaslearentzat lateŕi osoaren nortasuna baño len ezer, iñoiz ez onartzeko beintzat; oro izan beaŕ lateŕiaren izen on eta onurako, guziek alegiñak batutzeko, sutsuki, guziena zaŕ abeŕiarentzako; etzegoen besterik onartzeko.

Asmo ortaz bere burua ikusten zuen, beaŕezko zitzayola Araya'n lateŕiaren auzia bereganatzen eta beraren alde jokatzeko guzien artean egokienen. Eta ori agiri-agirian egin ez ote lezaken?; enurarik ez, eta ortan sarturik bere bizibidean auŕeratzeko ere egokienik. Lateŕiaren euslea izango zan Azpaŕena'n, aipu ta ogasun irabazteko eran, atsegiña zitzayon ari-izateko lanean.

Alarik ere, zaīa auŕera eramateko xedea; azpaŕendaŕentzat begiko asmo beŕien artzea, ta nork zera ortatik atzeratzea? Ba-zuten asmo ayek oñaŕi gotoŕa, ba-zan nor ayen ereiīea, Mikel jatoŕa, ain egokiro ari zan ororen eraginkoŕa; nork ari ipiñi neuŕi ainbatekoan sostoŕa?

Buru izango al zuen bere burua, Mikel'en aurka ongi yarduteko eratua? Gerokoak esateko, eziña berarentzat geldirik egoteko, ta bera endeŕikoen andi-usteaz ortarako jaŕi zan gogo-gogoaz, ekintzean ari-izateko buruz naiz biotzaz.

Ba-zebiīen beste bat, Araya'n ere, geldirik egoteko jayo edo etzan beste. Gure biotzeko Patxiko!, jayotzerakoan zuregana begizko. Argia ikusi zenuen lenengo unean, Mari Gaizto igaro al zan aizean, ondoan? Adu txaŕez edo eldu ziñan bizira; sorginkeri bat, apika, zure gogo ta begira; begi okeŕa zure bizi guzirako, gogo landeŕa ere begi

bezelako. Nola ta nora zoaz bizian itxu?, nora, oŕen okeŕ bezin gartsu? Nundik sortu ote zaizun Eŕi'areriko narda, ertun?; ez ote zera jayotzetik euzkaldun?

Zoritxaŕa, bai, zurea, odolaren aurka ari-izateko xedea. Ba-dakigu, umetan goizegi geratu ziñala umezurtza; ori zure eŕukoa etzan, baña ba-liteke zure biotzerako endurtza. Alaz ere, osabak, apaizak eta irakasleak bide ona erakutsi zizuten, uŕatsak zuzentzeko ta bizian ondo abia zindezen. Zerik zetara okeŕean jaŕaitu, zer zala-ta beti bide onetik zeartu?

Uŕikalgaŕia zera, gizona; zabiltzan bidean ezin iñun aurkitzeko zoriona; ezin zerori iñork bere baitatu, ezin iñorengan zureganako begi ona batu. Bakartasun otzean zure burua ikusteko zera, gogoan eta biotzean; eta ausaz berorik ez aurkitzeko zure bizian, bizirik egonik, iīa izango baiziñan. Eŕukigaŕia, bai, mutil; bearbada obe izango baziña il.

Norbaitek sartu edo zizun biotzean edena ta bidezkoa zaizu edenez igurtzea zure egipena, bearbada batzuetan ortarako egosi gabe oldozpena. Txikitatik datorkizu zuzen ez yarduteko giriña, ta gara ezkero zure ariuŕia eratzeko ozpiña; zure jokera, ondorioz, uzteko euzkera ta nayago erdera; ondikotz!, jatoŕizkoa zurea zaŕ euzkal-izakera berorik ez zugan, bai aitzitik otz.

Baña izakera oŕek ez al dizu iñoiz biotzean zimikorik egin uzu?; euzkal-odola ez al zaizu iñoiz zañetan irakin sutsu?; zerk eta nola oŕenbeste itxutu zaitu? Euzkaldunak ziran zure gurasoak, bizia eman eta zuzendu gero zure lenengo egunak; zer dala-ta, damozuz uŕengo ain okeŕ zure uŕatsak?; zerik zetara zure gogo ta apetak ain bidekatuak?

Ba ote da zuregan asieran zurea etzan ameskeriren bat lanean?; zure gogoan kokatu ote zan aztikeri beltza gogoŕean?; eta oyen pean al zagoz indaŕean zure bizia bilbatzean? Edozein eraz eŕukigaŕia zera mutil, ari zeran bezela jokatzeko ain bipil; odolaren aurka yardutean zoro izateko urbil; Eŕi'aren arerioai laguntza emateraño ain zarpil.

Beruntz zoaz setati, itxu ta burtzoroki; zure eŕian eta berebat Euzkaleŕi' an, argi ta garbi ta oso agerian auzi nagusia duzu nabarian, nai ta nai ez eta berez sortutako guda bizian. Alkaŕen aurka dagozen bi taldeak, auetxek ikustekoak; batean emengo eŕitaŕak, bestean aŕotz aŕo ta ankeŕak. Eta zu Eŕi'aren etsayen alde, yarduteko zoroki oyen mende; oŕ ari zera zentzunik gabe, arerioen buru dana

ere zuretzat onartutako jabe, ta oŕen esaneko duzu izateko xede; zu bere mutil, bera zure makil, benetan nolakoa zeran doakabe.

Oro zan uda artan yoran eta lan Azpaŕena'n. Elburuak bereiz, lera bera araiz, ororengan azku ta kemen, alkaŕen leyan, gogoŕ yarduten. Azka-puzka itzala, ekin eta eragin ala, beste joku yaukala izango ezpalitz bezela. Geldirik geratzeko asmorik ez iñorentzako; ba-ziruditen azpaŕenataŕak, erlauntza bateko erle lantzaleak; ororena batentzat, bakoitzarena guzientzat; orixe orduan onartzeko goiburu edeŕean; eta oŕela guztiak zebilztela, egipen arek ematen zuela.

Dagoaneko lantegiko langiĪeak, ugazabarenganako atzez-atze ari ziranak, aztuta edo zeukaten, arestian ongi onartuta irakaspen. Beren bazkun beŕian, bi giza-mail soiĪik gizartean eta besterik etzegoela ikasi zuten bereala: dirudun ugazabak eta beardun langiĪeak. Eŕaz ikasteko asmoa ta laisteŕ bete-betean egotekoa; liĪurakeri egokia nun-naiko langiĪeen artean ontzat artzeko berezia, zabalkunderako bideetan egi aundi bat oñaŕiz garbi aurkeztean, argi ateman iŕiz orok norberagan; mamia ateraño langiĪea ustiatzea, etzegoen ugazabaengan orixe baño xedea.

Oro bera zan benetan egiten ari ziran olaen antolaketan, Ludi'an alde guzietako bazteŕetan; ondorioz, ororentzako berdin, buŕukan sartzeko bete beaŕ alegin; eta gizadi osoan asmoa zabaltzen zijoan, giza-mota bi ororen baranoan: ustiatzaĪeak eta ustiatutako langiĪeak.

Ezin besteko ondorioak, orixe soŕerazi beaŕ berekoikeriak, langiĪeak biurturik landeŕak; eta beren buruari eusteko, ustiatuak alkartzeko. Alkartze ori aldaŕikaturik ontzat artzeko edonun, ala beaŕik. Jokera berberak goyan, orobat erantzunak bean; oŕela giza-mota bien buŕuka nora-nai zabaldu beaŕ uluka.

Bide ortan ere, sarturik asi zan Araya'n langiĪe; aŕitzekorik ez, noski, edonoren ustez; berdin izan ezkero kari, ondorio bera ekaŕi. Alan eta guztiz be ba-zan oindiño ura onartzeko ala nolako erabe; edo ugazaba ta goyan zegozenenganako alke, edo ongi iruditzen zalako yardun eŕiaren alde. Dana dala, orduan egiten ari ziran lanak, egokitzat artu zituzten langiĪeak; lantegia aundituko zala ikusten zuten, lana ugaritu ere, edonola aren ondoren, gizakientzat eta eŕiarentzat be bizia areago zabaltzen.

Arean, guziek artu zuten gogotik lan ayetan sartzea asieratik; soin eta muin ari ziran bete beaŕ zan guziari begi-argia egiten, osoan. Aro ta lan ayetan bederen, ugazaba ta langiĪeak agertzen ziran bat

egiten, ekintza artarako alkarturik yarduten. Oñaŕi ona ura, gerorako onartzeko ardura; zergatik ez guzietarako oŕela izan zedin, antolaketa egokia gertu ta egin?, ororen onerako aŕ-emanetan bizi-izateko alkarbidetan? Ba-zan ortarako gaya, bai ta ongi naya langiĪeen aldetik, argia; baña beaztopo izan beaaŕ artarako yabearen berekoikeria.

Bitartean bederen eta uda artan gogoan gogora ari ziran guziak, olako lanean osoturik zeukaten ango giza-taldean. Bai, Azpaŕena'n ura zan giza-talde bat, ez bakaŕa ala ere; beste sail bat gero ta alkartuago izateko zegoen berebat, nekazarien taldea eratxikiago luŕera. Lugiñak, egitan, beti ikusi zuten alkartasuna zein egokia zan, eta oituraz aspaldidanik beren artean onartua zeukaten batzuetan guziek egiteko auzo-lan.

Alan eta guztiz be saŕi, saŕiegi ere, alkartzeko uzkuŕ eta erabe; izakera ori Mikel'ek gaintzeko aurkitu zuen eiki aundiena. Baña bere jokeragaitik, begikotasun aundia berarenganako asieratik, batez ere gazteen aldetik eta zaŕ-zaŕak ziran batzuengan izanezik.

Mikel'ek ayen izakera ondo ezagutzen zuelako, zuurki jokatu zuen bere asmoak ayei aurkezteko, batik bat egin nai zuena, besteak guztiz berena bezela eukitzeko. Ta bere xedeak bidean jartzeko, antolatu zuen lugiñen batzaŕean, argi ta garbi esan zien, guziak alkarturik ikustean, eginkizuna ongi burutzeko, orok bakoitzarena ta guziena bezela onartzean ezinbestekoa zala bere ustean, gero ere beti oŕela jaŕaitzean. Eta oñaŕizko baldintzaz Elkargoa zuzentzeko jaŕi beaŕ zan batzordean, eŕi bakoitzetik ordezkari bat izendatzeaz atondurik geratuko zan ondoenik. Gogotik onartu zuten ori bildutakoek eta, an bertan izendaturik, batzordea eratu zuten eŕi guzietako autatuek.

Gero, eŕietan barna, inki-mankarik izan gabe, asieran bederik, gogoa bera lanegiteko leya ta lera, asmo guziko gizonengan, orobat gazteen baitan eta emakumeengan; betekoak ziran eginkizunak norberarenak bezela artzen zituzten uda artan azpaŕenataŕak, bakoitzak eta orok alkaŕenganako lagunok. Batasun edeŕ ura gertatu zan, eŕiarekiko guzien maitasun eta arduraz, egokienik ari buruzko egindako bilkuraz, bat egitean eta ersturaz. Asiera ona ere bera, gerorako beti berdin betetzeko jokera; bete-betekoa, alegia, gizonengan ezpalira girin eroa ta norberekeria. Bai, amaika asiera edeŕ Ludi ontan, biurturik jokera landeŕ uŕengoan. Gizona nonbait ongi ala gaizki izateko gogait, eta aldatu beaŕ beti nolabait; okeŕera leŕatzeko, ogenera pu-

lunpatzeko, txaŕa danera abiatzeko ta eltzeko. Ororena dan auleria, gizatasunari edo dagokion makalkeria.

Eta guzi ori etortzekoa bazan ere, uda artan, Azpaŕena'n etzan gogoratzeko ez eta izateko erabe; guzientzako giroa, lanerako gogoa, baikortasun bero ta azkortasun, oro ontzeko osoa.

Baña goraipatzekoa zan sukaŕezko eten-aldi neketsu artan, ba-zegoen norbait, an agertzeko ez zegokiola nonbait berezienean: auŕa; gizonekin bat egiteko izango ezpaitzan zuuŕa. Obeki zegokion auŕari, abestu, jolastu ta oyu-egin goraki. Bego lana gizonarentzat, betoz joku ta abesti alaya auŕ guzientzat. Eta ain zuzen orixe bera uda artan Azpaŕena'n, adiñarekiko ikustekoa zan egokera.

Urtero bezela, uda asi ta bereala, artan be alkartzeko zegozen ikastolaetako umeak ezmezean ibiltzeke, ta ba-zegoen guziak alkaŕekin txango bat egiteko xede. Nora, ote, nora?, ta Estibalitz'era; autatutako egunean guziak egoteko geltokian,oea laisteŕ oztu ta goiz-goizean.

Andereñoen eroapena, umeenganako maitasuna; ñiñi ayen tata izateko dei gardena, sein koskoŕak azi ta zuzentzeko gogo gartsu bakuna. Ama baten antzera ekin dakiten andereñoak biotz-bera; bai, aipagaŕi ta edeŕa ain ongi betetzen duten bizikera; gizakiari erakusteko asiera, emateko ere aziera. Eskeŕonekoa al zaizue gizadia?, maitale ote duzute umedia? Eztuzute, noski, biīatzen, ez eskeŕ ez maitasunik, baña gogotik betetzen zuen baitan berez sorturik ain biotzekoa dan yoran. Beyondeizuela! Oore ta aipu aundienak zuentzat izan ditezela!

Eldu zan bultzia Araya'ko geltokira, igo ziran bertara auŕak oro leyatsu ta ia batera. Oreitia'n jeisteko, ta bereala Estibalitz'eruntz oñez abiatzeko. Aldapa legun, elburua ez uŕun; areitz, arte ta pagoen adaŕen pean auŕak lekayoz, jauzika ta lei bizian; ixiltzeko geroxeago maldan igoten gorago, arnasa artu beaŕean areago. Baña pozik beti, alaitasunaz beterik osoki, aurtzaroan bakaŕik goza diteken zorionaz, noski.

Ordu erdi baño gutxiago beaŕ-izan zuten muruaren gañera eltzeko, txairo ta lerden. Antxe Estibalitz'eko baseliza aundi ta zaŕa, mendeetan barna bertan erakusten arabaŕen siñismen eta oldaŕa; antxe Ama Neskuts'aren irudi edeŕa, maitetsu begiratzen iŕi-paŕa, gentzarako yorana zabaltzeko beti izaŕa; Araba'ren zaintzalea, ororentzat ongi-nayaren yagolea, guzien biotzai euslea.

Baselizaren ate-auŕean zegoen edaturiko zelayan eseri ta etzanik ume-bola, banakatuan alan-ola; atseden artzeko pizkat, amaŕetakoa betetzen zertxobait jateko berebat.

Asteguna zalako, eliza, zelai ta inguruko, goize artan, guzia auŕ ayentzat izateko. Jateko naya otamenez egiñik, asi ziran andereñoak, maraztasunik, umeak eŕikal izateko alkarturik, Miren Ama Done'ari aguŕ-egiteko ordua eldu zalarik guziai esaten eta bakoitzak esan beaŕ zuena gogoratzeko onu-ematen.

Eliza edeŕ ura alaitasunez bete zan, ainbeste ume guri tokia betetzeko sartzean; eta Neskuts'aren irudian ba-zirudien iŕi-paŕ goxoa irt-idekitzen zitzayola ezpañetan.

Madalen zuzendari, Aguŕ Miren otoya gartsuki egin zuten guziek goi-goya; asteko bereala bertsoak botatzen, ikasitako bezela; orok batera lenengoz, igitzeke ostera, baña beroz:

1. Estibalitz'eko Ama
Neskuts done-donea,
Zuretzat biotza, ona
Guzia da zurea.

2. Araba'ko Zaindaria
Ama eŕukioŕa,
Onaŕ gure eskaria
Kartsu ta maitekoŕa.

3. Zaindu, bai, nire gogoa
Berdin ene gorputza,
Ura siñistunagoa
Beste oso utsa.

4. Emaiguzu itxaropena
Emon alaitasuna,
Zuganako eraspena
Berebat maitasuna.

5. Zureak dituzu auŕok
Zureak gure otoyak,
Zureak be arabaŕok
Zureak gure deyak.

6. Zuregana gatoz egun
Abestuten lekayoz,
Zure babes oso aldun
Aurkitzeko nai beroz.

7. Zure semetzat onartu
Ama txit maitekoŕa,
Zuganaño auŕeratu
Txikiteri ijuikoŕa.

8. Ama deitu nai zaitugu
Miren Ama maitea,
Guretzako beaŕ dugu
Izen ori gordea.

9. Eskeiñi gura dizugu
Gure biotz lenago,
Osorik onaŕ zaiguzu
Gero ta kartsuago.

10. Eskeiñi nai dizkizugu
Gure puskatxoak be,
Eŕian artu ditugu
Bakoitzak bana bere:

Dei-egin zuen, gero, Maḏalen'ek, bat-banaka egin zezaten ayek, bakoitzak bere bertsoak launaka. Aldare ondora urbiltzen era berean, auŕak, eŕi bakoitzaren taldean, guziak alkaŕen ondoan. Eta alkaŕen leyan ere, onela berealaxe, len Araya'ko jayetan egin zuten bezelaxe :

Andoin : Andoindaŕak miñiño bat
Legun eta otzana,
Onera, oŕa naiz arat
Miauka ta laztana.

Ibarguren : Ibarguren txakurtxoa
Gaiztoño bada, xamuŕ
Iruditzen da eroa
Sumatuz ogi-kuskuŕ.


Urabain : Urabain'etik bildotsa
Kizkuŕez bete soña,
Beeka da bere otsa
Bakun zuridun aña.

Duŕuma Deuna : Duŕuma Deunak antxume
Ikotika ibiltzeko,
Dakarkizugu erabe
Berekin jostatzeko.

Egino : Egino'ko untxi bitxi
Belaŕiak tentetxo,
Ṯuku-ṯuku daki ibiḭi
Ṯoṯoka be gaiztotxo.

Ilarduya : Ilarduya'ren erbia
Pitxi ta ibilkari,
Goiztiri ta aŕastaria
Ezin geratu geldi.

Amamio : Amamio'n sortu txita
Zugana pio-pio,
Bere opari polita
Oŕela sortzen zayo.



Araya :
Araya, erle lantzalek
Ezti eskeintzen dizu,
Itxaron Estibalitz'ek
Gero obe emanen baitu.

Albeniz :
Albeniz'en tximeleta
Egazka dabilena,
Bere margo edeŕ sorta
Ona ekaŕi duena.

Amezaga :
Amezaga'n dago gira
Bertatik igeltxoa,
Kro-kro egiñik, onera
Zuretzat da osoa.

Zalduendo :
Zalduendo'ko aatea
Egan, ibil, igariz,
Zugana gaur etortzea
Buruak eman antsiz.

Galaŕeta :
Galaŕeta'n usakuma
Gogotsu dabil beti,
Eztiena dun uŕuma
Eskeintzeko isi zuri.

Gordoa :
Gordoa'tik txoriñoa
Txiruliz datorkizu,
Txikia bada soiñoa
Biotz-maitale sutsu.

Aŕiola :
Aŕiola'n katagoŕi
Adaŕez-adaŕ punpa,
Zugana aŕi ta belaŕi
Zugan dago pulunpa.

Egilaz :
Egilaz zeaŕ txinduŕi
Azkuŕia biltzen du,
Zuretzat gura ekaŕi
Ta biotzez eskeindu.

Azpaŕena :
Azpaŕena'ko auŕ oro
Emen gauzkazu, *Ama*,
Zureganaño aboro
Maitasunak garama.

* * *

2/1. Poz eta atsegiña oso
Datozkigu Zugandik,
Biziko gera eroso
Areago oraindik.

2/2. Miren Ama eŕukitsu
Maite zaitugu ziñez,
Zureganako ustetsu
Goaz itxaropenez.

2/3. Guztiz maitezale zeran
Gure Ama laztana,
Zure seme auen yoran
Betiko Zu zerana.

2/4. Gure eŕietan baŕena
Abesten dugu bero,
Zuretzako eraspena
Aunditzeko gaurgero.

2/5. Alaiturik eldu gera
Ba-goaz alai-alai,
Aguŕ Ama biozbera
Izan beti gure zai.

Azken laukoak, ororenak, Azpaŕena osoak emandakoak, berezienak.

Eta aize zabalera aurtxoak batera, aldameneko landara, atsegiñez beterik jolastera; geroxeago gogotik bazkaltzera. Zelayan bertan exerita, norberak ekaŕitakoa zabalduta, bai ta irentsi ere xixta-pixta. Mingañak ixildu, agiñak eragin, guzia sits ta bits gaŕangiletik amildu, zuŕu ta puŕu urdailera arin. Guzia amaitzerakoan, Aintzane'k galdetzean :

—A. : Ia, mau-mau egin al duzute, ongi?, jateko legea bete poliki?, baŕukoa, beraz, ase obeki? Tira bada, orain nai duena jolastera beŕiz, ta nayago duena egon edo etzan egokiz. Baña gauzatxo bat lenago; i, Gorkatxo, nolako topa-itzak esango itukek polito? —Eta :

—G. : «On daigula yanak, gaitzik ez edanak, obe zeaŕ etzanak».

—A.: Ederki, mutil; eta danok ikasi beaŕ dituzute topa-itz oyek eta erabil, mugona sortuko zaizuenean bipil.

Baŕeyatu ziran umeak oro zelayan bertan eta ingurukoan goizean bezela ta aboro, beren gogara jolastean deadaŕez alkaŕen artean, elizaren aldamenean, txoriak zugatzetan txoŕotxioakaz bezin txoro.

Itzultzeko ordua eldu arte; andereñoak orduan alkartzeko lan ez txikia bete; ta elizan guziak sartzeko, Aguŕ Miren batez otoi-egiteko ta goizeko guzien azken bertsoak beŕiz esateko; oŕela Miren Deun'ari biotzeko aguŕ egiteko.

Eta aldapa bera bereala lekayoka beti ta uyuka, alik eta bala-bala auŕen talde mazala. Guzi pozgaŕi orduan basoan, txoriak txirulıruli zugaitzen gañean, auŕen zalapartada zoli zugaitzen azpian, alaitasunezko sendi bateko auŕ eta txori oro auŕide zirala iduriko.

Oreitia'ra eldu-ta, laisteŕ bultzira leyaka; ta oŕela itzultzean guziak txoroki abestean, orixe baitzegiten toki orotan. Andereñoen elburua orixe zalarik, abestien bidez auŕak alaiturik bizi-erazteko, alik eta geyenik. Ontasun eta zintzotasuna umeen gogoetan ereintzeko, alaitasuna giro zalakoan egokienetako, ta guziak egin nai zindo-zale, gogotik zuten betetzeko xede.

Araya'ra eldutakoan, alkaŕi guziek aguŕ egitean, eta auŕ-taldetxo bakoitza bere eŕira abiatzean; txangoa oŕelaxe amaiturik geratzean.

Auŕak gero, pozik jaŕaitzeko beren opoŕaldian; gizonak gogoŕ lanean ari ziran bitartean. Oŕela banaturik orduan Azpaŕena osoan biztanle guziak bi taldetan: auŕak eta adiñekoak; lenengoak zoriontsu, besteak kezkatsu; alaitasunez beterik ayek, kardabaz okiturik auek; tximeleta ta txorien antzera umeak, erle ta txinduŕiak bezela garerdikoak.

Zein ote bizikera obea? Enurarik gabe, lenengoena; autatzeko eziña, ordea; biak onartzeko era berean, beti norberaren adiñean. Auŕengan eginbide baño geyago eskubide, izateko geyenetan bete; bizirako eskubide osoa, oyengan onartzekoa; eginbidea, ordea, labuŕ eta ez ertsiki beartzekoa. Gizonentzat, eginbideak nagusi, alde guzietatik datozkienak multzoki; lanegiteko lenengoa edo dana, betetzeko beaŕenik zayena. Okeŕ dabil gizona, batzuetan, lanegiteko eskubide duela aipatzean; lanegitea ezpaita eskubide, alderantziz baizik eginbide. Bizi-izateko du gizonak eskubide, bizidun guziak bezelaxe; lanegitekoa da berarentzat ezinbesteko eginbide; egokia, arean, zentzunak tinkotzeko beren egi ta izaeran.

Gizadiaren arauan, bizi-mota guziak orduan Azpaŕena'n, oyetatik bi zirala nagusi: txori ta auŕak abestean, erle ta gizonak lanean; biak zegozela alkaŕen ondoan eta alkaŕengandik uŕuti aldi berean. Zorionezkoa oso ura, artegatasuna bestean eta ardura; baña biak osotzeko biziaren legea, zoŕotz eta zearo.

Ezkon - itza betetzeko bidean

Giza-zuŕian, gizonki ta gizontasunez, Mikel bere emaztegaiari emandako itza betetzeko yoranez zebīlen; Aintzane berarenganako guztiz entzindurik zegoela ikusten zuen eta, beren sendien aldetik bien alkartzea txit ondo artzen zutelako, ororen naya betetzeko ordua eltzen zitzayola bere buruari esaten zion saŕi ta sendoki.

Bere bizi-bidea, bestetik, gero ta tinkotuago, berak eratutako erakunde ta norabidean; naiz bat eta naiz bestea, egokiro bere uste ta asmoen arauz gerturik eta bidean barna ongi asi ta auŕeratzean; oldarmena beregan atematen zuen, auŕera jotzeko beaŕean; ikas-lagunai emandako beste itzaz aiztuta etzegoela, ura ere betetzeko adore ta biotzaren jabe, zalantzik gabe. Sendi-buru izatea geratzen zitzayon osotasunean bizi-izateko, osoro ta bete-betean.

Asmo, amets eta itxaropen guzien alboan, oso urbil eta bere baitan alkarturik ikusteko ezinbestean, kezka, kardaba, ardura, buruauste ta urduritasuna ere berarengan maiz nabaritu ta jasan beaŕ, batzuetan loŕ eta nekerazle izateraño neuŕian. Noizean bein geyegi iruditzen zitzayon bere gogoan, eta, iraultzean, alkaŕekin zebilzkion oldozkun, gogorapen, susmo ta aŕangura, zuŕu-buŕu ta mordo-nastean, mota guzietako asmo ta gogai buruan, bai ta saŕastadak, giriña ta lera ugari biotzean; erlijio ta azkatasuna, zuzentza ta abertzaletasuna, urkoenganako anaitasuna; oro alkaŕen gañean, gogoan eta ongi-nayean; itxaropen eta etsipena alkaŕen aurka be saŕitan.

Adimena ta irudimena zitzaizkion beti —antze ta senez ikusi ta ametsez iduri— ororen ituŕi; lenengoa garaitzeko antsi, ala ere bigaŕena ez uzteko unetsi; ta aurka oyek ere alkaŕi. Oŕela, buŕuka beti bere baitan ere, jasatzeko, eten gabe.

Alan eta guzti barneko bere guda beregan bakaŕik izateko edadura; beregandik at, lekorean eusteko zuen bestea, gogoŕagoa ezinbestez izatekoa Eŕi'aren etsayekin egitekoa ta Eŕi'ko anai batzuekin ere eroatekoa, beti zintzilika ikusteko barnetik maite zuen pakea. Nola baña, eŕitaŕen itsumena, etsayekin alkartzeko berenganatu yora-

na? Ulerkaitza benetan, ayen jokera buruan iñola ezin sartu zitzayona; ta edestian barna maiz ikusi beaŕ gure Eŕi'an oŕelakoak saldukerien zeaŕ. Añenen bat edo aspaldidanik arbasoek leporatua?, ala Eŕi bezela noizpaiteko ogen aundiagatik zigortua?

Ezin ortaz argi osorik egin, egoki ta beaŕago, noski, eguneko egokera begiratzen ekin eta guzia bide onetik eramateko alegin. Ba-zituen Mikel'en buru-eyerak erabil eta eotzeko amaika motazko iriñak: berarenak, besteenak eta Eŕi'arenak; eta guzien bidez pakezko ore artzi-arazle ta eraginkoŕa lortu ta ezartzea zan betiko bere yoran sendo ta sakonena. Elburua ezin obe, bertaraño eldu al-izateko zaīa enurarik gabe; baña orixe bere norabide, orixe bera bere bizi guzirako onartuta zeuzkan nai ta xede.

Edozertarako, argi ikusten zuen Mikel'ek bere gogoaren gogaketak, alkaŕen ondoren, nola erabiltzeko zeukan bide zuzena: irudimena bigaŕen maīan utzita, adimena zuen gogoeta guzietarako almen, antze, ezagumen eta eragiīe, gogoramen eta oldozmenaren bitartez, oarmen eta ulermenera eltzeko egokienez. Orixe gizonari bere adimenak erakusten dion bidea ta aŕetaz ibiltzeko bide ortatik ez baztertzeko. Noski, lamia erakarkoŕ, goxo ta maitagaŕiaren antzera, irudimena bide ortan sartzen da maiz, bere liīurak bitarteko, guztiz erne eztabiīena okeŕ eta bidezkatzeko, eragiīe bizkoŕ. Mikel'en baitan irudimena bero ta ausarta ari zan beti, ta oso zaīa zitzayon bere eragindura gaīentzea; ortaz bere burua gogoŕ eragiteko xede gotoŕa zuen, baña alaz ere batzuetan txil-egin beaŕ barnean zeraman lamia aren pean. Alaz ere noizpaiteko menperatze ori ere gaintzeko, ba-zekien alegin egokiak biltzea, azkenez adimenaren nagusitasuna gain-gañean jartzeko; oŕa bere baitan eraman beaŕ zuen guda.

Barneko eginkizun ori orotarako zitzayon beaŕa ta egokia, zaīago bere buruarenganako arloetan, beregandik at erabiīi beaŕ zituenetan baño; ba-zirudien auetaraño eltzen etzirala lenengoen su, bero ta gaŕa, ta oŕela aisago yardun al zuen. Ostera, berekiko arazoetan, ezinbestez, urduriago, leyatsuago bizi ta ari beaŕ.

Bere gogapenen josi-askatzean, noizpait, Eŕi'arentzako eman eta bete nai zituen uŕats eta eginkizunetarako, bere ezkontza eragozpen aundia izango ote zitzayon asmoa bereganaturik jasan beaŕ-izan zuen, eta barne-barnetik maite zuen neskarengandik aldentzea baitezpadakotzat euki ere. Ba-dakigu, zintzo-zuŕian bere lagunai emandako zin-itza zala-ta, Aintzane'ri jakin-erazita, berak erabakitzeko azke utzi

zuela, bai ta emaztegayak eman zion erantzun maitekoŕ eta bioztuna nolakoa izan zan ere. Oŕengatik, berarentzat oso atsegiña zalarik ere, ari emandako itza betetzea eginbide ertsia zuen edonungo gogoanbeaŕ guzien aurka.

Alakotz betetze oŕen eguna nolanai ere eltzekoa zan eta ezkongayei zegokien bereixtea; ta batera etoŕi ziran biak uŕengo udabeŕian bein-betiko beren alkartzea burutzeko, orduan eginbeaŕa bete zezaketela ustean. Bai ta bere etxeetakoei bereala jakin-eraztea erabaki ere.

Ongi iruditu zitzayen guziai gazteen asmoa ta oŕela, alkaŕekin ari-izateko, dagonīaren igande batean sendi bietakoak alkarturik Mikel'en etxean bazkari berezi bat egitea egokitzat artu zuten; bai ta, Mikel'ek berak esondatuz bertara Yokin ere deitzea, oŕela Maďalen' ekin asitako aŕemanetan guztiz onartua zala adierazteko ta, ondorioz, etxekotzat bezela atosteko. Oso ontzat artu zuten asmo ori guziek ere, ta gurasoak pozik gañera, beren seme ta alaba bizian barna ondo abiatuak zijoazela ikusten zutelako.

Eldu zan, egokienean, gertutako eguna ta ama biak, neskaen laguntzaz, egiazki, egundoko oturuntza atondu zuten, eta bazkaldiaŕak ziran zazpiak, ordu-orduan, mai zabalaren inguruan eserita zegozen, alai ta baikoŕ oso. Gazteak, noski, zitz eta bitz jan zuten, auŕean ipiñi zieten guzia zipi-zapa irentsiz. Jan bitartean Azpaŕena'n egiten ari ziran lanak eta laguntaldeetan sortzen ziran guziai buruzko esamesak izan ziran solasaren gayak. Baña bukaeruntz elduta, akeita txastatzen asi ta bereala, Mikel'en aitak asi zan guziai mintzatzen:

—M.'en aitak: Urte luzeak Yaun'ak eman dizkidanak, oyetan barna onak eta txaŕak amaikana ikusitakoak, nire bizia betetzean, nire gogo ta gorputza astintzean. Gaur, igarotakoak lasteŕegi iduri joan diranak eta dagoeneko gogortu zaizkit ezuŕak; biziaren bidean, noski, gara osoaren ondorean, oŕelaxe nagoela nire ustean, baña ongi oraindik osasunean, txil-egin gabe adorean; beraz, Yainkoa'ri eskeŕak eman beaŕean.

—Gañera, ona eman dit emaztea, nire etxe ontan ongienik izateko anderea; onak ere alaba ta semea; geyago eskatzea geyegi edo ustea. Baña etxeak beaŕa ukanen bailuen, maitasunaren bideak beste seme ta beste alaba ekaŕi dizkigu, auek be lengoak bezin onak, sendia edatzeko egokienetakoak. Nola geratu ixil, Goiko Yaun'ari biotz-biotzetik eman gabe eskeŕik beroenak? Oŕela dagi nire baŕenak, oŕela ni

naizen guziak; kartsuki, eten gabe, neroni dagokidanez eta bai, ziuŕ be, amari dagokionez; eta emen gatzaizkizue biok oŕibiko eginda ikus gaitzakezutenez.

—Zuekiko, alaz ere, ezin ukatu, ba-dagoz gerorako itzalak be, zuen bideetan zabaldu ta argia kendu nai-izango dizuetenak; nola ez ori sumatu sortu zaizkizuelarik arerioak? Onak dituzute asmoak, benetan maite dituzutenak, goratzeko lugiñak bai ta langīleak, oro bat egiteko azpaŕenataŕak; bai ta beste malean, oyek ere barna, euzkaldun guziak. Beyondeizuela!, goraipatzeko baitira zuen uste ta lanak.

—Baña, zaŕ bat mintzatzen zaizue, ezeztapenezko izaki duzute gizona, ezezkerizkoa edo gure Eŕia, alkaŕi buruz uko-gale anaya; saŕi aurka ta yarduki oro gurean. Zer ote?, añenen bat ezean, Eŕi'ak jasatzeko beaŕean?; noizpaiteko okeŕa, agian, Eŕi'ak egiña ta zigoŕa jasatean? Nork esan!, baña edestian barna saŕi anayak alkaŕen aurka gogoŕ, izugaŕi, negargaŕi. Orain ere berebat gertakariz, Eŕi'aren alde sortu ta batzuek begiratu beaŕ ezkeŕeko begiz.

—Oŕengatik zuurtasun aundienaz ibiltzeko, beti uŕatsez-uŕats; bietariko izango dituzute aurkitzeko etsayak, aŕotzak lenengoz, gero ta bereala eŕitaŕak, bietakoak zuen aurka guztiz alkartuak; ayek, nolabait, bidezkoak, besteak ulerkaitzak eta zoritxaŕez txaŕagoak. Bete-betean nagokizue ortan eta ori zuek beaŕ-izango duzute jasan.

—Ni ba-noa, zuek geratzen zerate; alan eta guzti yoatean ere, orixe baita biziaren legea. Ororentzako bidean, ni dagoaneko amayean, zuek beŕiz erdi-erdian, orori aurpegia emateko beaŕean. Oŕengatik, niri dagokidanez, ni neu aolkulari, zuek nai baduzute entzuteko adi.

—Gerorako susmo ori, bakaŕik, gaurko gure zorionari itzalen bat emateko agiri; aipatzeagatik azketsi, baña ene ustez gogoratzeko egoki. Ta oŕekiko zuengan eŕurik eztalako ageri, zuek eta ni gogoz eta yoranez joan gaitezke, auŕeruntz jaŕaiki.

Ixildu zan aita, erantzun berari semeak, apal eta eskeŕona, biotzez onek ere ustiatzen mugona.

—Mikel'ek: Biotz-ukitua utzi nauzu, aita; guziok ere era berean esan beaŕ ene ustean. Aipatzerik ez zure itzetan, amak eta biok jasandako neke ta lan, izan baitira zuengan etxe ta seme-alaba auŕera atera beaŕean. Eta orain ere zure ajola ta kardaba zedaŕitzen dituzu bakaŕik gugana. Seme nauzularik, onaŕ aita, aŕen, seme onen eskeŕik

kartsuenak, biozkoŕenak, itzak diñotena baño areago gogo ta biotza mintzatzen jaŕi nai ditudala; eskeŕik sutsu ta sakonenak zuri aita, bai ta zuri ere ama.

—Seme ontzat ba-nauzula esan baituzu, pozgaŕia niretzat entzuten zure aburu; baña oŕela baldin banaiz, zuei ere zoŕ dizuet ori egiz, gogora dezagun esakunak diñoena: eguŕ onak ezpal ona.

—Txikitatik ikusi zaitut, aita, etxeari atxikita, lanari beti buru-belaŕi, sendiarekiko buruz eta biotzez, zeren aldiko beti oldarki. Auŕ koskoŕa nintzanean nabarigaŕi zitzaidan zu ikusten lan eta lan; bai ta zure biotz aundia ementxe izan genuen ausiabartza ikaragaŕian, gizon ayek ain ergelkiro ta ankeŕ alkaŕ erailtzen ari-izan ziranean. Egun, ayetako gertakariak atzokoak izan bailiran bizirik dauzka nire barneak; eta izigaŕiak ziran elkaitz eta goŕoto ayen erdian, zu aita, ta zu ere ama, eŕikide guzien alkartzean, zorigabeko ayentzat izan zenituzten itz biozkoŕak, ardura maitekoŕak, sorospen adeitsuenak.

—Guzi ura barneraño sartu zitzaidan, ene biziari zentzun eta norabidea bein-betiko ematen benetan. Eta geroko nire jokabide ta erabakietan eredu ta adoregaŕia izan zait indaŕ eta beaŕean. Beraz, zuen semea naizen aldetik eta zuengandik niganatu dudan ororengatik, torizue, otoi, nire biotz osoak eman dizaizueken eskeŕ sutsuenik.

—M.'en amak: Aski-aski, mutil; aita ta biok entzuten, eztitan biotz-ukitua natzaizue, izateko edo zoramen; besteak ere onelaxe ikusteko nabarmen. Naikoa da, ene ustez, esandakoa, txasta dezakegu guziok poza; ta gogora dezagun Yainkoa Bera'ri emateko gure eskeŕik osoa.

—Alkaŕekin bazkaldu dugu guzion maitasunean aiduru; biotzari ere berarena eman diogu; zorionean gagoz geron baitan eta inguru; ezin oberetsi ezer, orixe nire aburu. Orain, ongi baderitzaizue, ta egun ontan guziok alkarturik egoteko gaberarte, egurastera joan gindezke aize zabalera, alaitasunean eta jolas-aldi eske; beroa gutxitzen astean, oŕela obeto beaŕean, joan gindezke beeruntz maldan, Leze'raño eltzeko ustean, apari-ordeko egiteko ango zelayan.

—Ederki —erantzun zuten gazteak— oyetxek asmo egokiak. —Bide batez jo-egin zizkiotelarik txaloak.

Oŕela atsedenez lasaitu zan, etxagunak sortutako giro samurgaŕian, ikututako guzien biotza arean. Eta maya uztean, azkaria gerturik berealaxen, osteraxeago ara zijoazen Ilarduya'runtz zabaldutako bidean.

Aurki, ala ere, ezkeŕ aldetik agertzen zan bidexka batean sartu ziran gogotik. Mendi-baŕena inda ura, areitzen artean, zearkatzen zijoan, benetan gozoa zan itzalpean; auŕetik ezkongayak, alkaŕi opaetsita biotzak, eztitan gozatzen beren gogoak, barnean miazkatzen itxaropen aundiak. Atzetik gurasoak, gentza edeŕenean murgilduak; auŕean zijoazkien ondorengoak biziari eusteko abiatuak, artutako beren gogozkoak ziran bideak. Ara sendiaren jaŕaipena, ara biziaren jokera; berentzat gazte ayengan ongienik eutsita; zaŕ ayentzako atsegin gozoena.

Astiro-astiro zijoazen danak; eguras artan zorion guzia bildurik izango bailitzan, artaz asetzean iŕikitzen biotzak, arduraz ematen belaŕ gañean uŕatsak eta bide-amayean eztizko giro ura itzaliko ez ote zan.

Edeŕenetako bidea basoaren zeaŕ, oin-giro leguna; dagoaneko zonbait orbela igaŕ, bedaŕan oindiño ezetasuna; adaburuetan eta gañetiko arbaztetan, osto ta oŕi naro zabaldurik ugari, azpia pozartzeko itzalean; kukuŕo eta ezkuŕ ontzeko einean, zintzilika, bitarteko zuzkuŕ; areitz-enboŕ, lodi, gogoŕ, emateko zura ta eguŕ.

Areitz sendo, zindo benetan areitza, euzkaldunen zugatza, euzkalbiziaren yagole maratza; edeŕenetakoa da zugandik datorkigun emaitza; zugan eztago bat ere uŕuñatzeko den gaitza; zu zera Euzkal-Eŕi' aren irudi-antza.

Ekandu onak zure arnariak; egokiak zure azpian eratutako legeak; zentzundunak zure itzalean artutako erabakiak; zuri eskeŕ guganaño arbasoen oiturak; zuregandiko indaŕaz eutsi egin digu euzkal-izaerak; zure babesean bere bidea dagi euzkal-biziak.

Onetsia izan zaitez areitz yaukala; lotu gogoŕ gure luŕean zure eŕoen ala; eman eta zabaldu gurean zure zitu mardula; bizi zaitez gurekin beti aitoŕ bat bezela; edatu guzion gain babes maratzenetakoa dan zure itzala.

Soropil gañean uŕatsak astiro emotean, pozik zijoazen guziak itzalean, ain atsegiña zitzayen alkartasunean, bakoitzak gozatzen bere baitan, barneko gentza ta maitasunean, beraturik zegoen lekore-beroan, sustaturik norberarena barnean, orduko aŕats beeran, yaukalenetako ibileran.

Oso ta bizi ematen zuen bere burua Mikel'ek berari zegozkion arazo guztietan, etzan berarentzat erdizka ari-izatea; orobat orduan

ere emaztegayari buruz; eta bere ondoan pozez beterik zeramala, geroko beren biziarekiko zijoakion mintzatzen.

—M.: Ba-goazkin auŕeruntz, Aintzane; gaur beste uŕats bat eman diñagu, sendo ene ustez, gure bizian atsegiñezkoa diñadan bion beaŕean; maitasuna berak alkartzen gatxion, bion biziak bat eta berbera biurtzeko eran, eta gure bizi ortara abiatuta gagozkin etsi-etsian. Zuzen-zuzen goazkiñala zeritzaidan, ene biotza pozaŕen pozez beteta, eztitan benetan, eta ene buruan ametz zoragaŕienetan.

—Nola izango diñagu, Aintzane, gure bizi ori? Berarentzat eredu bat bilatu beaŕez, emen inguratzen gatxion areitza artuko niñan gogo betez. Sendotasuna ta zindotasunaren ikuŕa zeraman gure areitzak bere baitan; ez ote dun ori, sendo ta zindo izatea, alkaŕi eskeiñitako maitasunari eskatu beaŕ zionaguna?; ez ote dun oŕela gure bizia eratzeko, artzekoa diñagun bidea? Areitza, sendotasuna; areitza, zindotasuna; oyetan zorionaren euspena.

—A.: Edeŕa duk eredua, ta orixe duk izan ere nire gogua; ta barneko apeta begiratzean berezkoa diadala iruditzen zaidak osoan; senargai audanezkero, itzalik ez iñoiz ene ametsetan, ziuŕ noakik ire ondoan, ulerkaitza niretzat ari beste bidean; ausaz beaŕik ez, baña begok areitza gure biziarekiko eredua, alkaŕ gaitezkek bere ondoan, biok bat izateko gogoan.

To ta no ziran solasetan zijoazen ezkongai bi ayek, beren biotzekoak zituzten autuetan, alkaŕengan zearo entzindurik, itxaropen edeŕenez okiturik, beren maitasunaz gozaturik. Orobat edo beste bikotea; ta gazteen atzetik gurasoak poztasunez beterik; bide onean ikusten zituzten auek beren auŕak, zoriontsuki auŕeruntz abiatuak; eratsu, zentzuzko, oso senez benetakoak.

—Aitak —emakume biai—; Gure biziaren uŕats egokia, egitan, gaur guziok eman eta ematen duguna; zein obea gure zartzaroan sartzen ari geran aldi ontan ia buruturik daukagun au baño? Bizian barna atzean utzi ditugu on eta txaŕ izan zaizkigun urteak ugari; gure artean maitasunez leundu ditugu ezbeaŕak, bai ta nabari-erazi ere aldezko aldiak. Eta gaur, gure seme-alabak gurea izan dan bide egokian ikus al ditzakegu zorionez. Ba-dugu, noski, Yainkoa'ri eskeŕak emateko zio aundi ta ugari; ta gure biziaren amayeruntz artegatasunik gabe lasai ta adoretsu oso, joan gaitezke.

Emakume biak izpidean zegoela erantzun zioten, eta eztizkoa zitzayen iritzi arekin, gazteen atzetik auŕeratzen zijoazen, taka-taka,

goxo-goxo ta emeki, beren burua nolabait gazteturik izango bailitzan, ederki.

Dagoaneko Apota aitz aundiaren baŕena zebilzten, eldu nai zuten lekurantz urbiltzen; iradurik gabe beti, aŕatsalde gozo aren luzera ere luzatzeko, esan gabe adierazten zuten xedeaz edo. Ba-dagoz bizi ontan geldi-erazi nai-izango liraken eztizko unealdiak; eziña, ordea, ta beste guziak bezela betiko joatean igaro beaŕ; dana dala aŕatsalde-erdian zegozen oindiño, ta aŕatsalde osoa zeukaten era berean jaŕaitzeko ta gozatzeko.

Mendi-mazela zabala aitz arena, oraindik goŕi etzegoena, tipil etzana; auzoko zituen beste aitzak soil eta muŕizturik agertzen ziralarik, berak, ostez, zilo-miloka, txapaŕoak zeuzkan, nunbait txarakaren bat osotzeko aña; ortaz batez ere nabaritzen zan, besteen artean, Eguŕola'rentzat begiko ta bere asmoetarako erakuski bezela. Baña ba-zeukan aitz arek bere sortaldean beste ezaugaŕia oso nabari zitzaiona, ta ain zuzen ere bertara eltzen ari ziran gure amamiotaŕak orduantxe.

Leze deitzen zan toki zoragaŕi ura, egiazko lezea baitzan; eŕaldoi izigaŕi batek aitzari egindako zauri ikaragaŕia izango bailitzan agertzen zan zulo aundi ura, egitan aitzan zulatuta zegoena ta aldez-alde iragan zitzayona; ta zauri antzeko ura zulo sakonaren saŕera zalarik. Baña nolako saŕera izanik!, beŕeun edo irureun neurkin goyenetik beraño bayetz; bealdean amaŕen bat zabal eta goialdean ogei edo ogetamaŕen bat gutxienez.

Goruntz egiña zegoen zulo ura Azpaŕena aldetik Alzania'runtz aitzaren baŕuan igoten, eta bertatik lats bat jeisten zan aŕiz-aŕi ikotikan, egaŕidunentzat ur ozkiŕia eskeintzeko bean. Ikusgaŕi oso agertzen zan Leze'ko ao zabal ura, ta bere auŕean, latsaren bi aldeetan, giro atsegiñean egoteko gune egokiak zabaldurik, bertan eseri ta etzatzeko ere aukeran.

Ara eldu-ta, goruntz soa; lenengoz guziengandik eta besterik begiratzeke; zer zala-ta?, gizonaren oaŕera beti goruntz abiatzeko gerturik dagoelako, ala goi artan agertzen zan zokune aundi arek, apika, begirapenak erakartzekoa zan sorginduraren bat zeukalako? Edozein eraz, eziña edo ara eldu ta begiak goruntz gabe geratzerik; ta ez goiko alde ilun ura begiratzeko bakaŕik; an, sorgiñezko itxura ematen eiki, sartu ta irten zebilzten oskilaso, bela, eŕoi ta alako beste egazti aragi-jale batzuk; an ote beren kabiak?; an, bearbada, beren bil-to-

kiak? Antxe ote Mari Gaizto'ren egon-lekua?; zorigaiztoko aztikeri gertutzeko lupea?

Sakona zan an goyan ere zulo ura, ta gizonarentzat araño igotea eziña zalako, iñork etzekien noraño edatzen zan; egaztiak bakaŕik goi ayetan ibiltzeko almena, ta an zebilzten lasai, iñoren bilduŕ gabe, ta antxe beren aterpe ta gorde-leku egokia.

Izugaŕia zan zulo sakon ura, aitzan egiña zegoen uŕadura, ta nolabait edonori emateko ziŕara. Alan eta guztiz be, barnetik ura zerion emeki, edateko on eta otzitua; ta zulora ondoraturik, aren jausteak atsegiñezko soñua ematen zuen, sorginkerizko ayeru guziak ezabatzeko.

Naiz leizea bera naiz bere auŕean latsak erdibitzen zuen aldameneko landa, Leze izenaz ezagutzen zan Azpaŕena osoan, eta udarako batez ere, leku liluragaŕia zan, paketsu, otzamaŕ, ixiltsu, bero-orduetan gozatzeko abaro gogorakoa. Oso egokia, jakiña, Amamio'ko lagunak aŕatsalde bero artan, berentzat ain gogoangaŕia izateko zan egun ura ongienik amaitzeko bezela; ayuŕiz otzanak ziralarik, nare ta ekuru bizi ta ari-izateko emanak, egokienetako toki ura, oso berebiziko beren atsedenerako.

Ara elduta, laisteŕ asi ziran emakumeak azkaltzeko zeramatena bedartza gañean zabaltzen; aita ta gazteak, bitartean, al liteken guzia zuloan sartu ziran, barneruntz oldetsu so-egiten; ezaguna zitzayen aŕen, berentzat guzia beŕi-beŕia izango bailitzan. Ba-zirudien, noski, zulo aundi artatik, luŕak, gure ama-luŕak, bere baŕuko sorgintasuna eskeintzen zuela, emateko bide zeukan maitasun beroa bezela; ta ara urbiltzen ziranak, eiki, maitasun arek edo biotzikuturik geratzen ziran ala beaŕik.

—M.: —bere buruari bakaŕik itzegingo bailion— Zurtuta geratzekoa da, ziñez, gure luŕa saŕi nola agertzen zaigun begiratzean; bere osotasunean da aŕigaŕia luŕa, edozein aldetik ikusi ere, izadian gelditzeke dabiĺen bere lurboiĺa nola sortu ta ari dan gogoratzean asteko; gero, ainbeste gai bere osotasuna ere betetzen dutenak; ikusgaŕi, benetan, bere azalean, eta azal gañean dagoenaren beŕi zeatza ba-du onezkero gizonak; baña zer ote dago baŕuan?, oso gutxi baita oindiño baŕu ortan gizonak aztertu al-izan duena. Ona emen leize au aldez-aldе aitz barnetik zulatuta dagoena; nola egin da zulo aundi au, nola?, asieratik al dago onela?, ala urak egindako ote dugu lana?

—Aitak: Oro da aŕigaŕia izadian, naiz luŕ gañean naiz luŕ azpian izan, guzia Yainkoa'k egiña baita. Gayak ugari izadian barna gizonaren jakin-gura zirikatzeko; ta gizona beti ari-izan da bere begien auŕean aurkitu duen guzia begiratzen, zer dan eta zergatik ote dan bere buruari beti galdetzen, nekatzeke oro aztertzen eta nun-nai sumatzen duen ezkutukia arakatu nai-izaten. Asko da, noski, onezkero idoro ta ikusi al-izan duena; baña ba-dago, ene ustez, oindiño ezagutzeke dagoena, luŕaren baŕuan, itxasoaren ondoan, bai ta aidearen zeaŕ ere. Beraz, ikasi nai dezanari etzayo, ez, gaya peituko.

—M.: Bai, ta gizonen artean ere beti izan eta izango dira ikertzaĺe ta azterzale, eiki ororengan guzia jakiteko egaŕi biziena dagoelarik. Alaz ere, batzuek jakitea nai dute bakaŕik, eta beste batzuek izadiaren indaŕ, almen eta agerkariak ustiatu nai dituzte beren onurako izan ditezen.

—Y.: Oŕela da, bai, ta emen ere zulo au ustiatu zuten geltokian dagoen irin-olarako tximist-indaŕa lortzeko. Goyan, Alzania'n egindako urarkatik oŕ aldamenean ikusten dan tximist-indaŕetxeraño ur-jaustearen odiak jaŕi zituzten, eta ain zuzen zulo onen baŕena jaŕita. Gero, eztakit zergatik, odi ayek araxeago bereziki egin zuten beste zulo txiki batetik datoz.

—Aitak: Ala izan zan, bai, ta nik esango dizut zergatik. Bein goiko urarkak leŕ-egin zuen eta urak uyol aundi batez zulo barnetik amildu ziran, bertan zegoen odi ta zurubi guziak naŕazturik; bazteŕ guzti au urpetu zan eta gaitz erdi izan zitekean zorigaitza burutu etzala; etxe ortan zegozen zeŕi batzuk bakaŕik ito ziran.

—Y.: Orduan, ba-zegozen len zulo onen barna odiak eta zurubia ere?

—Aitak: Bai, ta bide ortatik igoten eta jeisten ziran gizonak, urarkan bertan eta odietan beaŕak izaten ziran antolapenak egiteko. Nerau ere batzuetan igo nintzan zurubi artatik, eta azken aldian urarkak leŕ-egin zuen baño lentxeago, bi edo iru egun auŕetik.

—Y.: Enekien nik len oŕ zurubia egiña izan zala, ta elitzake lan makala izango naiz odiak naiz zurubia ortxe ta alkaŕen ondoan ipintzea. Orain odiak beste bidetik dagoz jaŕita, baña egokia izango litzake zulo barnetik beste zurubi bat jartzea. Gaur egun mendiz-mendi ibiltzeko zaletasun aundia dago, bai ta leizeak ere ikusi ta aztertzeko; oŕengatik emen zurubi sendo bat jaŕi ezkero, amaika

etoŕiko lirake mendigoizaleak goitik bera ta beitik gora zurubi baten bidez alde batetik bestera igarotzeko; ta zuloa ondo argituta egonezkero, obeki.

—M.: Polita duk asmo ori ta udalari edo aurkeztu beaŕ-izango diok, iñork egitekotan berak egin beaŕ, noski.

—M.'en amak —uŕeratzean—: Zer baña? Zulo au begiratzen egoteko bakaŕik etoŕi al zerate? Tira!, azkaria gerturik dago gosedunen zai, ta eztut uste jateko gogorik gabe zagozela. Erdu bada!

Etzuen bi bider esan beaŕ ori emakumeak, eta guziak, bere atzetik, dana gerturik zegoen lekura gogoz joan ziran; bai ta, aurki, jan-giroa ere zegoelarik, zapa-zapa ta mauta-mauta ongi irentsi zuten bedaŕ gañean jaŕitako zamauan agertu zan guzia; etzuten, ez, atzera zama aundirik eraman beaŕ, besoetan bederen.

—Aitak: Geyegi ekaŕi zenutelakoan nengoen, baña ezta ia ezer geratu; auxe, bai, jan-gogoa ta ez gazteengan bakaŕik, geu ere atzean geratu ezpaikera.

—Amak: Obe, obe, orixe baita osasun onaren zantzu edeŕa.

—Aitak: Egia da ta, Yainkoa'ri eskeŕ, ori bera gure aberastasun aundiena, Orain etzan gaitezke pizkat bedaŕ gañean, ongi jateak oŕela eskatzen baitu.

Esan eta egin eta bi mutiīak berdin; emakumeak ez, eserita geratu ziran, beren artean esamesaka; ta neskak zutunik norabait joateko gogoaz egongo bailiran, eta alako batean:

—Maďalen'ek: Ene!, ara gizon bat ariñak arin malda bera!

—Aintzane'k: Alaxe diñagu, ia jausten ez ote, gizajoa!

—Maďalen'ek: Eta onuntz bide zetorkin!, nor ete, lagun?

—Aintzane'k: Ezaguna zirudin..., bai noski, Diaz jauna dun.

Izen ura entzunda, jauzi batez zutik mutiīak eta guziak aŕituta.

—M.: Nola, baña irakasle ori alde ontatik?, eta oŕela?; bakanagorik! Iñundik ere enukean oŕelakorik uste-izango. Diaz jauna mendigoizalea?

—Aitak: Guganuntz keŕ-keŕ datoŕenezkero, berak esango digu zer gertatu zayon; onezkero nekatuta datoŕ eta eztut uste ezer esan gabe auŕera joango zaigula.

Leŕenak egin-eginean berengana zetoŕen, bai, gure irakaslea, erstura aundiaz beterik zegoela adierazten. Ia itsututa, amamiotaŕenganaño eldu arte, an zegozenak nortzuk ziran etzuen ikusi. Eiki, etzi-

tzayon gogoko izan ayekin topo-egitea, baña bere uŕatsak emateko ia indaŕik gabe ta kordoka, an gelditu zan gure gizona. Aren laŕia!

—M.: Zer duzu Diaz jauna, zer gertatu zaizu gizona, oŕen arbintasunean egoteko? Eseri zaitez pizkat, ia arnasarik gabe zatoz-eta.

Oŕela egin zuen eldu-beŕiak, besterik erabakitzeko indaŕik etzuela-ta. Ez lasai, noski, bai gertatu zitzayonagatik bai Mikel eta bere sendikoen artean, al eta ezin, bere burua ikusteko bearturik. Baña oŕelaxe jazo zitzayon eta mintzatzen asteko nor izan zanean, asi zan totelka:

—D.: Patxiko ... an goyan ... Patxiko ... jausi ... korderik gabe...

—Aintzane'ren amak —edontzi bat emanez—: Edan, edan pizkat, zerbait bederen zuzpertzeko; ai gizajoa, izualdi bat edo ukan duzu, ezta?

Orixe zirudien; Diaz jauna, arpegia zearo goŕiturik, izerdika, eskuak dardaraz, arnaska, eŕukigaŕia agertzen zitzayen besteai. Pizkatean egon zan baretu nayean; iñork etzion ezer galdetu nai bitartean eta zai zegozkion urduri, zer jakin beaŕ zuten igaŕi eziñean, eta irakaslea estutzeko nai ezean.

Guziei luzeegiak iruditu zitzaizkien une-aldi batzuen buru, asi zan, azkenez, Diaz jauna, bere azalpenak ematen, naiz eta oindiño ozta-oztan:

—D.: Jentiīen leizea ... ikusi nai nuen ... Patxiko'k ekaŕi nau gaur ... eta araño igo gera ... ondo; baña jeisterakoan ... Patxiko'k laban-egin ... eta jausi ...; jeikitzeko laguntzera ... joan naiz ... eta bera iīa bezela luŕean .... Ura ene laŕitasuna ... deika ari-izan natzayo ... alpeŕik ... entzun ez edo ...igierazi nai pizkat ... eta eziña ere ... arnas-estuka zegoen ... baña konorterik gabe ...; zai egon naiz pizkat ... ia berez zuzpertzen ote zan ... baña an etzegoen zuzpertzerik ...; eta orduan ... norbaiten laguntzaren biīa ... ariñeketan ... etoŕi naiz ... eztakit ... ondo egin ... ote dudan ... an goyan ... bakaŕik uztean ...

—M.: Bai, bai, ongi egin duzu, ta gogoz emango dugu geuk al dezakegun laguntza. Entzun, Diaz jauna, gu joango gera Patxiko'ren biīa. Esan duzu, leize oŕen ondoan geratu dala?

—D.: Bai, ondo-ondoan ... bertara igoteko dagoen ... ormaren ondoan.

—M.: Ez estutu, jauna; ara zer egin dezakegun guziok: Yokin

eta biok Patxiko'ren bīla joango gera ta aldameneko basetxean utziko diguten arkuts batean ekaŕiko dugu bera, dagoeneko berez ibiltzeko indaŕ-beŕitu ezpada; ta dana lenbailen egiteko, Amamio'ko bere osabaren etxera eramango dugu, ziuŕ bainago an gogo onez artuko dutela. Bitartean, zu Araya'ra joan zaitezke, sendagīleari Amamio'ra joan dedīla eskatzeko; eztuzu oso iradurik ibīli beaŕ, sendagīlea gu baño lentxeago eldu al-izango baita. Ta zu, aita, ongi baderitzaizu, eŕira itzuli zaitezke emakumeekin eta Patxiko'ren osabari zer gertatu dan esan dizaiokezu, bai ta zer egin nai dugun be, bere īloba ongi aŕ dezan beaŕa izango dana gertutzeko.

Ongi iruditu zitzayen guziei guzti ura egitea, ta irakaslea, zerbait zuzpertuta, bereala abiatu zan Araya'runtz. Mikel eta Yokin urbil zegoen basetxera joan ziran eta berealaxe utzi zieten beaŕ zuten arkutsa, bai ta bi burusi, jausita zegoena ongi ezartzeko; etxeko mutil koskoŕ bat ere eurekin joateko bialdu zuten, arkutsa atzera ekartzeko ta, bearbada, laguntzaren bat emateko be.

Arin abiatu ziran irurak aldapa gora ta, burua itzulita, aita ta emakumeak Amamio'runtz ba-zijoazela ikusi zituzten. Oso lakartsua zan zijoazen bidea, aitzaren zeaŕ doi-doya koskatua, bide kaskaŕ eta legartsu benetan azkaŕ ibiltzeko zalā; eta, alik eta laisteŕen, nai zuten tokira eltzeko gogoaz, ibīliaŕen, maiz legaŕetan labanketak zegizten eta al eta ezin astiroago auŕeratu beaŕ.


Aitzan bertan egiña zalarik, bidea etzan ongi maŕatua, ta batzuetan bide-atzik ere etzan agertzen; baña toki ayek ondo ezagutzen zituztelarik, zuzen eldu ziran leizeraño. Ta an, leizearen azpian bertan aurkitu zuten etzanda Patxiko'ren gorputza, irakasleak esan zuen bezela. Berealaxe, berarengana makurturik, esku-mutuŕa artuta:

—M.: Odol-bultza ongi xamaŕ dabīlela dirudi; baña arpegia bai motel eta zurbil; zer jazo zayo gizajo oni?, buruan tankaren bat ote?, ba-liteke, baña dana dala bizirik dago, ta geron aldetik emendik eramatea baño besterik ezin egin. To!, eutsi arkutsari, ta ia geuk, Yokin, alik eta ondoenik bertan jartzen ote diagun; lot akiok anketatik, nik artuko diat sorbaldaen azpitik.

Aŕeta aundiaz jaso zuten Patxiko'ren gorputza ta arkutsean jaŕi ere; gure betokeŕa konorterik gabe beti.

—Y.: Ezuŕa garaitu zayok oni benetan, baña ala ere aztuna duk.

—M.: Bai, sorgoŕ egon ezkero, gorputzak aztunago beti, aŕiz-



koak bezela geratzen dituk. Ora zak orain arkutsa auŕetik eta nik egingo diat ori atzetik. Eta goazemak beruntz, baña uŕatsez-uŕats bide legartsu ontan iŕist ez egiteko arduraz eta guziok amildu ez gaitezkan.

Asi ziran berako-aldi ura, uŕats bakoitzean oña nun jartzen zuten ondo begiratzen; alaz ere, noizean bein, legaŕetan leŕatzean, eta noizpait mendi-beraño eldu ziran atsanka ta izerditan. Bidea gora joateko baño askoz luzeago iruditu zitzayen eta arkutsa luŕean utzi-ta, ats-arte bat artzeko pizkat gelditu ziran.

—Y.: Eztuk txantxetakoa artu diagun lana, baña bide txaŕena atzean geratu zaiguk. Gogoratzen al aiz, Mikel, beste bein i ere oŕela eraman beaŕ-izan induagula?; gaur i eramaĪe. Zer esango likek gure adiskide min onek bat-batean esnatu ta bere burua gure zain pean dikala ikusiko balik?

—M.: Noski, bere burua ta geu onela ikusteak eliokek atsekabe txikia emango. Ba-diat gogoa lenbailen ondo egon dedikala, baña obe berarentzat ere bere osabaren etxera eldu arte bere onera ez ĪtzultzeaGoazemak auŕera, orain obeto joan gaitezkek eŕirako bidean barna.

Uŕatsak lasayago ta tinkoago emanda, lasteŕago ere joan al-izan ziran. Eta eŕira eldu baño lentxeago, ara lagun-talde bat berenganuntz zetoŕela: eŕiko apaiza, Martin, Patxiko'ren osaba bera ta beste batzuk. Guziak alkartzean gelditu ziran eta apaizak bereala kordegabetuari esku-mutuŕa artu zion.

—L. apaizak: Eztirudi, bada, gaitz aundirik daukala; alditxarturik dago, bai, baña biotza ongi xamaŕ dabilkiola iruditzen zait. Ez al da esnatu bein edo bidean?

—M.: Ez, bein ere, ta ni aŕituta nago zentzurik gabe oŕen luzaroan ikusirik.

—Osabak: Dana dala eraman dezagun etxera lenbailen; sendagiĪea ezta eldu oindiño, baña uste dut laisteŕ agertuko dala.

Artu zuten orduan arkutsa lau mutiĪen artean eta beste guziak, aldamenean edo atzetik jaŕaitu zizkieten.

—Osabak —M. eta Y.'i buruz—: Eskeŕik anitz zuei gizajo onen alde egin duzutenagatik; eztakit, berera itzultzean, itzultzen bada, berak zer esango duen, baña bilduŕ naiz eskeŕak emateko gai ere izango eztala, ain buru gabekoa baita.

—M.: Obe, apika, berari ez esatea ekaŕi dutenak nortzuk izan diran, asieran bederen; eta gero ere al-izango balitz.

Etxera eltzerakoan, ara sendagiĪea be Diaz jaunarekin, guziak ia batera; irakasleak ongi bete zuen berari zegokiona ta oso nekatuta egonaŕen, sendagiĪea lagundu nai-izan zuen, bere adiskidearenganako urduri; ta pozik ikusi zuen dagoaneko ekaŕi zutela. Ta Mikel'i buruz:

—D.: Ondo aurkitu al duzute?, bereganatu al da?

—M.: Bai, zuk esanda bezela zegoen, baña oraindik konorterik gabe dago; ia orain sendagiĪeak zer diñoen.

Aztertu zuen sendagiĪeak Patxiko'ren soña, batik bat burua; ta tanparen aztarnik ikusi etzuela-ta, biotzeko zerbait ia izango ote zan, alde ortatik ere ikertu zuen; baña bere pirpirak ia oikoak ziran, beraz an ere ezer ez; arnasa be pitinki durduzaturik; utza dana. Zer ote zuen gizajo arek? SendagiĪea zalantzan; besteak berari so, artega.

—Send.: Ezin nik esan onek zer duen; iñun ezta ikusten tanparik artu duela, biotza ta arnasa ongi dabiltz; eztakit, ain argala dalako, kirio-erizkoren bat ote? Ara —Patxiko'ren osabari buruz— bizi-indaŕ nagusiak arautasunez ari diranezkero, ene ustez, bere senera itzuliko da au berez; alakotz, utz dezagun lasai orain ia oŕela gertatzen dan; gero ikusiko dugu, berak itzegin al-izango duenean, ia argitasunik agertzen ote dan; eta bearbada, edozein eraz, egokia izango dala uste dut Gasteiz'ko gexotegian sartzea, an azterketa sakonagoa egin dizayoketen.

Beingoan eta aida batean baŕeatu zan eŕian Patxiko'ri gertatu zitzayona, ta jai-eguna zalarik bere osabaren etxe aldera auzokoak erdu ziran asko. SendagiĪeak gizajo arek zer zeukan ondo ikusten etzuela ere, laisteŕ izki-mizki ta esamesak ugari aoz-ao ayen artean.

Ingurumari ayetako batean Justa atsoa zegoen, egun artan Araya'tik elduta; berak ere ao guzietan zebiĪena entzuten, eta goi-atsez beterik egongo bailitzan, onela ekin zion noribait edo, abots zoliz mintzatzen:

—J.: Ba-zekiat nik zer dukan ik, mutiko.

Ai!, Patxiko, Patxiko
Gerotxo ageriko!
JentiĪengana joan,
Ayek iri ostiko;
Leize ikusi nayean,
Ayek iri begiko.

Ai!, Patxiko, Patxiko
Betokeŕa baintzan,
Orain ere betiko.
Ai!, Patxiko, Patxiko
Gerotxo ageriko!

—Emakume batzuek: Ori, ori, jentiĺengana baŕandan joateagatik, oŕa zer jaso duen oŕek geroztik.

Orixe ayentzako azalpen argi ta borobiĺa, ezpairik ez ayengan.

Besteak, ala ere, sendagiĺeak esana onartu zuten, eta bat-banaka alde-egin gero; bai ta Mikel eta Yokin ere, besteekin batera itzuli ziran.

Etxera sartzerakoan:

—M.: Nork uste gaurko gure egun edeŕ au onela amaituko zala. Ia gizajo ori lenbailen zuzpertzen ote dan. Geron aldetik beaŕa zana bete egin dugu beñepein; ondorioz mutil ori guri buruz adiskidetzeko izango balitz!

Batzar nagusia

Beaŕak Ludi ontan erakundeak, orok eta zeinberak betetzeko xedeak; amaikatxo bazteŕetan toki ta alde guztietan. Egituraz apal emen, aunditzaŕ eta anpurutxo oŕ, an eta ainbeste aldean orain eta len. Bakarka ala multzoka gizonak edozein elbururako bideak atondu beaŕ nunbaitera nolabait eltzeko; batzuetan gizona bakaŕik ari-izateko, baña geyenetan beste batzuekin yarduteko, ororen lan eta laguntzaz ongienik ustiatzeko.

Elburuak ere amaika bazteŕetan, oso ezberdiñak eta eŕuz, aunitz, bideetan. Buru bezenbat aburu esan oi da; era berean buru bezenbat elburu be esan liteke oŕen antzera. Ta gizonak barne-barnetik maite du bere elburua ontzat artu zanetik eta bereala, ta jaŕaitzeko leyatua betetzean oso egiñala. Noski, bere elburuan jartzen du gizonak bere itxaropena, laket zayona biotzean, oroz gain lortu nai duena.

Gizonen erakundeak gizartearen atal bereziak, bertan taldeka arizateko gizakumeak, ba edo dirudite ezinbestekoak. Gizartearen eta gizartekoak ditugu beti gizonak, aspaldiko bezin oraingoak. Gizonak dira, alegia, gizartea betetzen dutenak; era askotan ala ere, oŕa bat, berak dagizkiten erakundeak. Baña naiz erakundeak naiz gizarte osoa berak, gizonaren onurako sortu ta ekin beaŕ dutenak. Gizonak bere erakundeak baldin baditu, gizarte osoak gizonagan eukitzeko bere azken elburu; ta gizarteak bezela, bertan ari dan guziak ere oŕela; era berean erakundeak be, ezin bestela.

Erakunde batzuetan sartuta zegoen Mikel; geyenak, berak, bere lagun eta asmokideekin irasi ta antolatuak; eta guziai buruz zegizkien gogoz egiñalak; nolabait menpeko ta lotuta zeukatenak. Azkatasunik ez berarentzat, atetik edo gañetik ayek begiratzea; barnean zegoelarik, beaŕa zitzayon beren pean ari ta jaŕaitzea. Azkatasuna maite zuen barnetik, gizon guziek bezela, baña ontaz edo artaz azke izatea ezin iñundik. Auengaŕia gizonarentzat biziaren larderia, ta

loturik eraman beaŕ gizonak bere bizia; mota guziko loturak menperaturik dauzkate gizonak; edozein beaŕerako, zein-nai igipenerako, gizonak ekin beaŕ meneko; berarenak soiīlik diran naiz gogo naiz soñaren egituretan, eziña zayo gizonari bere naimenari dagokionean erabiltzea, berak jaŕi eztituen legeak beaŕ ditu onartzea.

Ametsa ote da, beraz, gizonarentzat azkatasunaren asmoa? Ala dirudi bederen, onartzen baldin bada bere zentzun osoa. Baña gizona azkatasunaren egaŕiz beti, barne-barneko yorana du ori, sortzen zayola isituki. Iñoiz ez betetzeko gizonaren, gizon guzien, leya ote?; eziña dirudi oŕela izatea ta ezinbeste. Gizonaren lei on guziak, nunbait eta noizpait izan beaŕ betetzekoak; betetze ori bizi ontan eziña dala argi dago, Luŕa'ren giroa ortarako agertzen baita gero ta txaŕago. Orduan, bete beaŕean, geroko beste biziaz siñestea noraezean. Gizonak ainbeste mendeetan barna oraindik eldu ezin izan bada, Ludi'an iñoiz elduko eztala usteko duguna; lengo gizona izan ezpazan gaurkoa baño txaŕagoa, berebat gaurkoa lengoa baño obea, berdin izateko ere gerokoa.

Azpaŕena'ko Elkargoa ba-zijoan auŕera. Aŕezkero Mikel'ek jaŕitako kortaren antzera beste batzuk eraikita zegozen eŕien zabalera; ta oŕen ondoko, abereak geitu ederto, ta esnea ere len baño askoz geyago; oŕengatik urbil ikusten zan, gerorako izango zala-ta areago, esnea autsez eta beste eraetan gertutzeko, bai ta esnetik atera ditezken beste etekiñak lortu al-izateko, ainbat bilduko zala argi agertzen zan; eta oŕezaz atemanik, asi zan Mikel esnetik guriña ateratzeko makiña ta langayak egokiro ezartzeko bide autatuak atontzen; eta auŕetik uste-izan zuen baño lenago, esne-emantzaren geitze arengatik ain zuzen. Oŕela egiñean-egiñean zijoan, zorionez, Elkargoa, eta guzia bere asmoekiko bete-betekoa.

Eta an etzegoen, iñundik be, ezarian-bayarian ibiltzeko ērarik; etzuen nai Mikel'ek iraduz ibiltzea, ta bere arazo guzietan bezela, buruz jokatzen zuen Elkargo'arekiko ere azpegi guziak alde-alde jotzen, atzean ez geratzeko baña geyegi ere ez auŕeratzeko be, guzien auŕean bere yardespena nolakoa zan iñoiz aiztu gabe.

Buru-belaŕi zebiīen bada gure gizona esandako lanetan leporaño murgildurik, eta besteetan gertatu zitzayon bezela, ara egun ayetako batean Sabin'en gutun bat eldu zitzayola, batzaŕera beŕiz ere deitzean.

—Ba-dakik —ziñoan Sabin'ek— «Eŕi-Deya»'ren bidez, noski, gure

arazoen beŕi zeatza. Onezkero, gure izpaŕingi ortan agertutako lan batzuengatik salatuak izan gaituk auzitegietara; beaŕa uanez ni atera nauk yardesle ta laisteŕ epaitua izango nauk, ondorioak zeintzuk izango ditukan jakin gabe. Baña ori lendik genekian eta ezin oŕezaz aŕitu, ez eta oŕengatik geldirik geratu.

—Joan dukan urtean, lendik asmatu genitian lau bilkura nagusiak buruturik izan ituan bakoitza bere erkian; orain boskaŕen biīera egiteko bearturik gatxeudek, eta ori, gerokoak bezela, ez guri, lau zinkideai, baña ororen erakundeari zegokiok antolatzea; ta egokia uanez, Gasteiz'en egitea erabaki dik.

—«Eŕi-Deya»'n agertuko duk, uŕengo astean, dei orokaŕa, baña neronek jakin-erazi nai dikiat, Eneko ta Xabier'i bezela, geu beti alkaŕenganako ziñagatik ain zuzen, orain arte bezela ta bizi-izango gaituan artean ere, ebazkizun orokaŕa beñepein gure artean begiratu, aztertu ta, al-izan ezkero, zuzendu ere egin beaŕ-izango diagulako. Ez, noski, gure iritziak besteai nai ta nai ez onaŕerazteko asmoz, baña begirale bezela ari-izateko.

—«Eŕi-Deya»'n Gasteiz'ko bilkuraetarako gayak ikusi al-izango dituk. Egunak, iraīaren 10, 11 ta 12'gaŕenak izango zaizkiguk; larunbat, igande ta astelena, lenengo egunean aŕatsaldean asteko ta irugaŕenean goizean amaitzeko; ta ba-zekiat egun ori Gasteiz'en jai berezia dukala. Alakotz, guziok gertu beaŕ diagu geron burua biīera oyetarako, ta eŕietako batzaŕ guzien ordezkariak an azaldu ditezkan alegiñak be egiteko.

Gogoan-gogora onartu zuen Mikel'ek Sabin'ek esaten zion guzia, ta astirik galtzeke Biana idazkariari idatzi zion ororen beŕia ematen eta bi xede auekiko ere: lenengoz, biīerak Gasteiz'en egiteagatik biīera-toki ta beste zertzelada guziak gasteiztaŕei antolatzea zegokiela esaten, eta Araba-Buru-Batzaŕ'ekoak, auŕetik eta ororen asmoai buruz ari-izateko, lenago, beste bilkura bat eukitzea beaŕa zalakoan zegoela jakin-erazteko; beraz, auŕeko igandean, iīearen laugaŕenean bildu litezke, ta burukide guzien iritzia lenbailen jaso dezala eskatzen zion.

Martin'i ere guziaren beŕi eman zion, berak Araya'ko uri-buru-batzaŕ'ekoai be orobat egiteko; ta Biana'ri bezela biīeraren gaŕantzia nabari-erazten.

Eta beŕiz zeregiñetara, buru ta biotza oi zuen bezela batera; alan eta guztiz be, iragaŕitako biīerak ongi gogoratzen, eta ayei ere almen

guziaz emateko ardura; beaŕik be, egunak azkaŕ baizijoazen alkaŕen atzetik ustekoa zan baño ariñago eltzean artara.

Esandako larunbatean, goizetik alkartu ziran Gazteiz'en lau zinkideak, batzokian bertan.

—Sabin'ek: Ezta lan makala, adiskideok, gure gain artu dugu-na; dagoaneko gure asmoak eŕotuta dauzkagu bazteŕ guzietan; alegiñetan ari dira sutsuki gure eŕitaŕak, eta gureganatu zaizkigulako, gero ta aundiago yardespena gugan. Ene ustez jasotako erakundea guztiz tinkoturik dagoela ikus dezakegu, ta auŕerako bideetan barna erakundean izendatutakoak izan beaŕ ororen buruzagi.

—«Eŕi-Deya» laisteŕ asterokoa izango dugu, ortarako lan eta beŕiak aski eltzen diralako, ta ortan ikus diteke gure auŕerapenaren neuŕi egokia.

—Aŕatsalde ontan asi beaŕ ditugun bilkuretan, irakuŕi duzuten egitarauaz, gayak gaŕantzi aundienetakoak dirala esan beaŕ: abeŕiaren izen beŕia, ikuŕiña, ikurdia ta ereserkia; ororen elburuetarako lan-gai oyek bat egin beaŕ dutelarik. Bizkaya aldetik ortarako gure asmoak dakarzkigu, ta guziei burutara emango dizkiegu. Eztakit, beste aldetik, gai oyei buruz beste asmoak izango ote diran, baña azalduko dan guzia begiratuz, batzaŕak izango du azken erabakia bere.

—Oso baikoŕak izan gaitezkela deritzait, asi-ta urtebetean nolako auŕerapenak lortu ditugula ikustean. Ene ustez gure Eŕi'ak beinbetiko bere bidea aurkitu du, ta gu laurontzat, bide ori ideki dugulako, oso atsegingaŕia izan beaŕ; ta auŕera jotzeko ere ortik atera dezakegu adore aundiena.

Izpidean zegoela esan zioten besteak, eta Xabier'ek esan zuenez, pozaŕen pozez egoteko ere, laurok guztiz aburukide jaŕaitzen zutelako.

Bazkaltzera joan ziran gero Biana ta Aŕoyabe'taŕekin; auek guzia nola antolatuta zeukaten jakin-erazten, eta bilkuraetarako batzokia txikia zalako, Gasteiz'ko antzoki aundiena iru egunetarako akuran artu zutela ere.

Ta ara abiatu ziran bazkalduta bereala; aurki batzoki ondoko kaleak lagunez beterik agertzen zirala ateman zuten, guziak norabide berean eta uriari jai-egunetako itxura ematen. Pozgaŕia benetan ayen biotzarentzat.

Zabal eta edeŕa antzokiko areto aundia; ta alkaŕen leyan batzar-

kideak eserlekuetan kokatzen asi ziran maipurukoak beren tokietan azaldu ziraneko; guziek tokiaren egokitasuna atsegiñez begiesten.

Mikel, Araba-Buru-Batzaŕ'eko Lendakaria zalako, jaŕ-burua agertu zan, bilkura Gasteiz'en egiten zalarik; eta berealaxe jeiki zan asiera emateko.

—Mikel'ek: Aguŕ ene aberkideok!, ongi-etoŕi biozkoŕ bat erdu zeraten guzioi! Niri dagokit gaur emen jaŕ-buru izatea, ta ori eginbidetzat dudalako, gogoz ari-izango naiz nere betekizuna alik eta ongienik betetzeko.

—Boskaŕen biīera orokaŕa dugu gaurko au, ta besteetan bezela emen gaituzute lenengotik zuen auŕean agertu dan laukote au betetzen dugunok: Sabin, Eneko, Xabier eta nerau. Lauron artetik beti ere, ni asi naiz gure asmo ta egipenai buruz mintzatzen; gaur beaŕagoa zait oŕela ere astea.

—Ez da, alan eta guzti, ene aldetik gaur zuei asko esateko dudana: Azpaŕena'ko nekazarien Elkargoa dagoaneko ibiīi dabil uste-izan nuen baño indaŕ aundiagoaz; abereak geitu egin dira an asko ta iraduz ibiīi beaŕ gaur esnearen ekoizteari, aundia dalako, irten-bidea aurkitzeko; ortarako guriña egiteko ezarketa atontzen ari gera, iīebete baŕu edo salgai jartzeko asmoz. Eta nekazariak an sortutako bide beŕian barna gogoz doazela esan dizaizueket pozik.

—Ori esan-da —niri dagokidan arazoari buruz zerbait esateagatik— ona izango zaigu bilkura ontarako bereziki atonduta dauzkagun gaŕantzi aundiagoko beste gayak begiratzen. Ba-dakizute zeintzuk diran: abeŕiarentzako izena, ikuŕiña, ikurdia ta ereserkia.

—Nai al duk, Eneko, asi, izenaren arloa iretzat artu baituan?

—Eneko'k: Bai, bai, ta pozik ere. Egitan ezta izan eŕaz oŕi buruz zerbait on aurkitzea; ta gañera Euzkal-Eŕia ain izen egoki ta polita dugularik, nire buruari maiz galdetu diot ia benetan beaŕa ote zan beste izen baten biīa ibiltzea. Alaz ere, auŕeko biīeran Sabin'ek ageŕerazi zizkigun asmoen indaŕaz gogoraturik ortaz ari-izan naiz Donostia'ko ene lagunekin.

—Euzkaldun izena, euzkerarena ta Euzkaleŕi'arena zetozen beti nire gogoetara ta ene barnean zebilzten alkaŕekin birundaka, zerbait adierazi nai-izango bailuten; eta zerbait ori zer ote liteken ene buruan biraka ere ari-izan zait, ortan apika elbururako bidea ez ote zegoen ustean. Beraz, iru itz oyek aztertu nituen aŕetaz, eta beren egiturak alkaŕen antzekoak zirala oartu nuen bereala; oŕengatik argi zirudien

irurak eŕo batetik irtenda zirala. Orduan eŕo ori zein ote zan begiratzea beaŕezkoa bezela ikusi nuen eta ortara jo-egin ere.

—Aurki ateman nuen iru itz oyen lenengoko lau izkiak berberak zirala; auetxek: EUZK; EUZKaldun, EUZKera, EUZKaleŕia. Zalantzik ez, arean, ortxe ikusi beaŕ bilatzen ari nintzan eŕoa, ia bertan aurkitzeko ote zan. Itz oyetatik lenengoa ta azkena bigaŕenetik datozela argi edo agertzen da; Euzkera ta -dun, euzkeradun edo euzkaldun, ots, euzkera duena; Euzkera ta eŕia, Euzkera-eŕia edo Euzkaleŕia, ots, euzkera duen Eŕia. Alakotz, eŕoa euzkera itzan egon beaŕ.

—Itz ori onela edo begiratzekoa da: EUZK eta ERA; *era* ba-dakigu zer dan; eta EUZK?; beste itz baten zatia dala dirudi; zein izan diteke itz ori?: euzk*a*?, euzk*e*, euzk*i*, euzk*o*, euzk*u*?; itza osotzeko ezinbestekoa baitzan aots lagungabe bat izatea; zein baña bostetatik? EUZKI, eguzki antzekoa da ta onen laburpena bezela ikus diteke. Ta EUZKO, apika, euzkiko edo eguzkiko itzaren laburpena ote? Ez ote zion deitu aspaldian euzkaldunak oŕela bere buruari? Eziña edo izango zaigu ala izan ote zan jakitea; baña zentzunezkoa dalakoan nago ori ustea.

—Dana dala ongi datorkigu gaurko gure elbururako batez ere, aipatu ditugun itz guzti oyetan EUZK itzatala argi agertzen dalako ta egiazko oñaŕia bezela azaltzen zaigulako. Oŕengatik, eratu nai dugun itz beŕirako ezinbestekoa dala iruditzen zait oñaŕi ori, lenengoz erabiltzea; ta gero, oñaŕi oŕi zer erantsi dizayokegun begiratzea geratzen zaigu, gure Eŕi'aren osotasuna adierazteko ia egoki ote dagokigun.

—Ba-du gure euzkerak atzizki oso berezi bat talde edo multzoaren zentzuna duena: -TI edo -DI; oŕela, giz*adi*, gazte*di*, areiz*ti*, pag*adi*, lizar*di* ta abaŕ ditugu. Era berean, atzizki au EUZK gure oñaŕiari erantsi dizayokegu -a- aots lagungabearen bitartez, eta ortxe dugu EUZKADI itz beŕia izan ditekena; ene ustez gurea dan eŕo-eŕotik sortuta, ta oŕengatik gure elbururako oso egoki ta jatoŕa, euzkaldun guzion multzo ta batasuna adierazten dituelako.

—Orain beste batek edo batzuek beste izen bat ageŕerazi nai baldin badu, bidezkoa izango zaigu aurkeztuko dan guzia begiratzea; ta azkenez zuei dagokizue erabakia artzea.

Ixil geratu zan Eneko ta bere entzuleak txaloka ari zitzaizkion luzaroan. Eta amaitu ziranean, beŕiz:

—Eneko'k: Ene ustez ezta beaŕ oraintxe bertan erabakirik artzea. Arazoa «Eŕi-Deya»'n ere erabil dezakegu, ta oŕela oldozteko astia emango dugu, uŕengo biĺera nagusi arte, ta erabakia artzea ordurako utzi dezakegu alik eta ongienik egiña izan dedin. Baña ez ote du iñork arlo oni buruz besterik esan beaŕ?

Iñork etzuen ezer erantzun, eta orduan:

—Mikel'ek: Ikusten dudanez guziok entzun diogu pozik Eneko'ri bere azalpen guzia ta egokia deritzait erabakiari buruz berak esondatu duena. Beraz, zuek esan beaŕ ori ere ontzat artzen ote duzuten.

Bai, bai!, erantzun zuten bildutakoek asko, eta txaloka ondo adierazi zuten guziek esondatuari buruz batera zetozela.

—Mikel'ek: Ia, i, Xabier, orain; uste diat zeredozer ba-dukala guri esateko.

—Xabier'ek: Bai, ba-dut zerbait, naiz eta niri dagokidan arloari buruz gutxi izan. Jakiña, edestia ongi ezagutzeko lanean astiro ta guzia zeatzez begiratzen ibiĺi beaŕ da; oŕengatik uŕatsez-uŕats ari beaŕ-izango dugu. «Eŕi-Deya»'n bearbada irakuŕi edo duzute gure edestiari buruz idatzi dudana. Gure arbasoek emandako uŕats batzuk aurkeztu ditut; baña aurkeztea bakaŕik ez da, ene iduriko, naikoa, ta uŕats ayetan okeŕik izan ote zanentz begiratzea oso beaŕezkoa zaigu.

—Gure erkiak aspaldin eta bakoitza bere aldetik ontzat artu zuten erbesteko eŕegea berentzat ere onartzea, noski, itunben baten bitartez, eta aginbidea, geyegizkoa izan zan neuŕian bere eskuetan utzi zuten. Oŕa okeŕa; eŕegeak, bakoitzak bestearen ondoren, aginbide-neuŕia gero ta geyago eskuetaratu zuten, eta oŕela gure erkiak ayen menekoago. Ortxe guretzat ikaskizun edeŕa; ene ustez gure arbasoek etzuketean iñoiz utzi beaŕ-izango eskubidez zeukaten aginbidea, Ayek, eiki, ta oso argi ikusten bide da, beren buruaren alde jokatzen zutela uste zuten, eta orixe izan zan ain zuzen okeŕa. Askoz obeto jokatuko zuketean euzkal-erki guziak alkarganatu ta guzientzako aginbidea sortu ta indartu balute. Ta ondorio au guziontzat ateratzea ezinbestekoa dalakoan nago: Gure Eŕia bizi al diteken, berarentzako aginbidea bere eskuetan euki beaŕ du; baña aginbide osoa. Oŕa gure elburuetako bat, oso gaŕantziduna dana.

—Eta biĺera onen gayen artean, bati buruz ageŕerazi nai dizuet nire aburua: Eŕi guzirako egokia izan diteken ikurdi edo mazmaŕoa. Ene ustez, ezta gauza baŕi baten biĺa ibiĺi beaŕ; naikoa izango da erki guzienak, arloetan edo, alkaŕekin jaŕi, ta ortxe ororentzakoa, guziak bat egiten dugula adierazteko egokitasunez.

Ortaz amaitu zuen Xabier'ek, eta entzuleak txaloka bero.

—Mikel'ek: Argi ikusten danez, ontzat artzen duzute Xabier'en asmoa; niri ere oso egokia dala deritzait, eta beste iñork besterik entzun-erazten ezpadu, asmo ori batzaŕaren erabakia bezela onartuko dugu.

—Baña aŕatsaldea ere auŕera doa ta nire ustez, zuei ongi baderitzaizue, gaurko bilera esandakoaz amaitzea egokia izan dakiguke; ta geroztik ikuŕiña ta ereserkiaren arazoak biarkotz utzi genitzake. Biar goizean eta aŕatsaldean ari al-izango gera, ta etzi goizean be; beraz, ba-dugu astia arlo guziak astiro ta ongi begiratzeko ta aztertzeko.

Ontzat artu zan Mikel'ek esondatu zuena, ta guztiak jeiki ziran, taldeka edo bat-banaka gero kaleratzeko.

Ilunduta zegoen ordurako eguna, bere azkenetan sarturik; beraz argirik ez uria ondo ikusi al-izateko; alaz ere kaleetan barna ibili ziran batzarkideak apaltzera joan baño lentxego, ta batzaŕ ura egin beaŕ zala, lendik, iragaŕi izan zalarik, biztanle geyenek zekitelako, oiturazkoak ez ziran talde ayek nortzuek egiñak zirala jakitean, begikotasunez begiraturik izan ziran geyenen aldetik.

Batzaŕean azaldutako gayak zerabilzkiten ibilkari ayek beren solasetan, baña batez ere Eneko'k idarokitako Euzkadi izenarena. Naiz eta batzaŕean ia onarturik izan, birundaka zerabilkiten ayek, nola atondu zuen gogoratzen eta zeatz guziak aztertzen, bakoitzak bere baitan oindiño egokia izango zanentz oldozten. Batez ere, ia Eŕi'ak onartuko ote zuen beren buruari galdetzen; bizitasuna zegoen Eŕi'arengan eta, askotan, azalpenik gabe, ulertzeke, bizitasun arek erabakitzen zuen, berez, saŕi, naiz itzak naiz asmoak onartzeko, begikoak zitzaizkion neuŕiaz. Ondo ikusten zuten ura batzarkideak eta itzaren gerokoari buruz oso urduri zegozen.

Alan eta guzti, gogoz oeratu ziran apaldu ondoren; baña batzuengana etzan erdu loa beste gauetan bezin laisteŕ. Eta guzientzat igandea argitu zan goizegi apika. Goiz ere bete zituzten eguneko elizkizunak eta iñor edo atzeratu gabe, ordu-orduan beterik beŕiro batzaŕ-tokia. Auŕeko egunean bezela, Mikel ere maipuru; ta guziai aguŕ-itz motz batzuk zuzendurik, Sabin'i buruz:

—Mikel'ek: Auŕera beraz. Ongi bazeritzaik, Sabin, ire txanda orain.

—Sabin'ek: Bai, alegia. Nik ere, lenengoz, niri dagozkidan arazoai buruz ari-izango natzaizue, gero ikuŕiñarena aipatzeko. Lendabiziz, eŕiketa ta gizartearen arloekiko ari-izango naiz, gai auek betikoak ditugularik; eta ikuŕiñarena, bilkura oni bereziki dagokionaz.

—Eŕiketa dala-ta, ba-dakizute zer gertatzen dan, «Eŕi-Deya»'n jakin-erazi baitugu. Bidezko ta ustekoa zanez, gure arerioak gogoŕ yardukiten asi zaizkigu ta erasoka ari dira alde ta gai guzietan barna. Arestian nik idatzitako lan bateagatik, gure ilerokoa auzitegian salatua izan da ta ondorioz epailleengana joan beaŕ-izango dut. Itxarotekoa zan ori, lendik ere, ta eztago ortaz aŕitzekorik; ikusiko dugu nola ateratzen geran sasitegi ortatik. Dagoaneko buŕuka betean gagoz eta buŕukatzen jaŕaitu beaŕ dugu, nai ta nai ez; obe izango litzake, jakiña, gure auziari aterabidea gentzaz bilatzea, baña gure etsayek iñundik ere eztute nai alkaŕizketan ari; oyek, indaŕa eskuetan daukatelarik ikusten dutelako, indaŕez jokatzea nayago dute. Geron aldetik beti berdin, gentza nai ta buŕukatu beaŕ.

—Gizartearekiko ibili dabiltz gure adiskideak, eta laisteŕ, oso laisteŕ, «Euzko-Langileen Elkargoa» eraikita ikusiko dugu. Ortan langileen eskubideak eta gure Eŕi'arenak alkartuta dagoz, eta orixe da bere bereizitasun nagusia. Eŕiz-eŕi ibili dira asmoa azaltzen, eta aldezkoak ugari sortu zaizkie nun-nai; oŕela eusteko, laguntasuna naikoa dute onezkero, ta langile-elkargoa legez agertzeko ta lanegiteko, beste edozein bezela ari-izateko, uŕats egokiak ematen ari zaizkigu; ausaz beren aldizkari berezia be aterako dute.

—Goazen orain, bilera ontzan erabili beaŕ dudan gaya azaltzera: Eŕi'arentzako ikuŕiñaz noski. Ta ene ustez nola izan diteken esan baño lenago, ikus-erazi nai dizuet gertutakoa nolakoa dan.

Eta mai gañean zeukan kutxa bat idekita, andik atera zuen bere ikuŕiña, ta bertan ere zutik jaŕita zegoen aga batean goratu zuen. Aŕimen betean geratu ziran guziak, ixilik, soŕ eta loŕ oso; baña Sabin'ek, mutuŕ batetik elduta, zabaltasun osoan ageŕerazi zuenean, bat-batean eta guziek batera txalo ta txalo jo zuten bero-beroenez eta luzaroan. Noiz edo noiz ixildu ziranean:

—Sabin'ek: Atsegin aundia benetan niretzat aurkeztu dizuedan ikuŕin oni oŕen abegi edeŕa egin diozutela ikustean; eta oŕengatik ba-liteke margo auek zer adierazi nai duten esatea beaŕik ez izatea; baña niretzat ezinbestekoa deritzait azalpen ori zuei ematea.

—Ikusten duzutenez, goŕia dugu ikuŕiñaren ondoa, euzkaldunen odola ala maitasuna adierazteko egokia; gañean Ander Deun'aren alkai-gurutza agertzen da orlegiz, gure Eŕi'aren ikuŕa bezela ta ororen

itxaropena adierazi dezakena; ta beraren gañean, gurutza zuria dago, berez, gurutza bezela, esan nai duena agertzen, eta gure Eŕi'arenganako ta edonorekiko ere euzkaldunen zintzotasuna ageŕerazi dezakena; ortan gure gogo berezi ta biziena agirian jartzeko nayean.

Margoen azalpena txit ontzat eta txaloka ere onartu zan; eta txaloen otsa nolabait moteldu bezin laisteŕ:

—Mikel'ek: Ezmezik ez ene ustez, eta Sabin'ek aurkeztutako ikuŕiña ao batez batzaŕak onartzen duela bayeztu ta agirian jaŕi dezakegula argi dago. Auŕerantzean gure batzokietan eta gure batzaŕetan orixe ageŕerazi beaŕ-izango dugu, gure gogoa bereziki adierazteko. Ikusiko dugu, gero, gure Eŕi'ak be berarentzat onartzen duenentz.

—Jaŕai dezagun orain dagoaneko oitura dugun arauz; eta gure adiskidea dan Gexan'i emango diot itza, bere aldetik zerbait esatea nai baldin badu.

—Gexan'ek: Bai arean, gogoz eta pozik ere, zuengana beti yoranez beterik eta atsegin aundienaz bainatorkizue. Aundiagoa duzute gaur, batzaŕ ontara erduteko, lagundu nai-izan didan adiskideen taldearekin eldu naizelako.

—Gutxi bada ere, ba-dut zertxobait beŕi zuei esateko. Lenengoz, gure «Eŕi-Deya» gure baztereetan oso ongi artzen ari dirala eŕitaŕak, eta Benapaŕoa'n batez ere asmokideak geitzen ere; ba-dirudi gure ebazkizunen zeatzak astiro aztertzen dituztela guziak ontzat artu baño lenago; oŕengatik edo, berentzat ere onartzen dituztenak gure asmoai guztiz atxikita geratzen dira; alakotz, bein bai esan ezkero, zalantzik ez, gogaide oso ta tinko agertzen zaigu bakoitza. Batzuen aburuz, oŕela astiroegi edo goaz, baña ene iduriko, guztiz ontzat artzekoa da ori, datozkigunak betirako lagun onak izango ditugulako, lagun eta lankide ere. Beste aldetik, orain arte alkartu geranok, bereisten gaituen muga gañetik, oŕen ipaŕaldekoak egoaldekoekin beti bat egiteko xede gotoŕa sendoenik artu dugu, ta ori, beŕiz ere, emen bayeztea dagokit.

Esku-zarta beroenaz isīlerazi zuten Gexan bildutakoek; bere itz eta asmoak nolako atsegiñak izan zitzaizkien adierazteko.

—Gexan'ek: Biotz-ikutzekoa niretzat, ziñez, nire itzai adierazi diezuten oneskuntza, naiz eta oŕela izango zanik lendik ziuŕ izan. Eta onela auŕeruntz gogotsuago jaŕai gaitezke guziok.

—Beste asmoai buruz, ene ustez, Europa'ko Eŕi menperatuen alkartasunaren asmoa borobiltzen ari dala eŕan dizaizueket pozik. Bretondaŕa dan nire adiskideak idatzi didanez, Eskozia ta Gales'ko bere bi lagunai asmoa ageŕerazi die ta erantzun sutsuak artu ditu. Ta auxe egiteko gerturik izango ote nintzaken galdetzen dit: Bera, esandako bere adiskide biak eta laurok, alkaŕ ezagutzeko ta guzien asmoak begiratzeko, Paris'en edo Bruxelles'en laisteŕ, urte ontan bertan, bīlera bat egiteko ontzat artu ta bertara joango ote nintzaken.

—Niri oso ongi iruditu zait, on eta egoki; baña nire erantzuna eman baño lenago, zuen iritzia jakin nai dut, zuek ere asmo ori ontzat artzen duzutenentz begiratzeko, ta ayen auŕean zuen bayetza ere ageŕerazi al-izango ote dudan ikusteko; ta zuen bayetzarekin ayengana erdu ezkero, asmoai indaŕ geyago eman al-izango dugulakoan nagokizue.

—Bai, bai —alde askotatik esanda ta txaloka erantzun zioten bildutakoek laburtaŕari. Baña onek, esku-kiñuz entzun zizayotela eskatuz, onela jaŕaitu zuen:

—Gexan'ek: Pozgaŕia ere, niretzat, asmoa ain gogoz onartzen duzutela ikustea. Alaz ere, ene ustez, Paris'en esandakoekin egin dezakegun bilkurara, zeatzez ondo mugaturik izan ditezken asmo orokaŕ batzuk eraman beaŕ ditugulakoan nago. Asmo oyek, ene iduriko, zeintzuk izan ditezken esango dizkizuet, eta oindiño biar beŕiz alkartuko geranezkero, biarko bīleran artu al-izango dugu erabakia.

—Ongi-ongi!, erantzun zioten batzuen batzuek, eta jaŕaitzean:

—Gexan'ek: Lenengoa, gerokoak ekaŕiko dizkigun egokierak edozein izan, menperaturik dagozen Eŕi'en Elkargo zabala eukitzea, beti izan diteke beaŕa ta onuragaŕia. Bigaŕena, Eŕi menperatu oyek oŕela dauzkaten gaurko Lateŕi'ak, onez-onean eztiete iñoiz amor-egingo menperatuen eskariai; oŕezaz ziuŕ egon gaitezke ta oŕengatik ere Elkargoa oso beaŕa dala ikus dezakegu. Irugaŕena, Europa'ko biziak, lenago ala geroxeago, abagune egokiak soŕerazi ditzake, ta oyek ustiatu al-izateko, ezinbestekoa izango zaigu Elkargoa. Elkargoa jaŕi ta bereala, bere idazkaritza ta bere aldizkaria eukitzea oso bidezkoa izango dala dirudi, Elkargo'an izango diran guziek oyei eusteko. Oŕa nik eramango nituken lau asmoak. Oldoztu ezazute, otoi, oyetaz, eta biar besteren bat agertzen bada begiratuko dugu, ta guziekiko batzaŕaren erabakia artuko ere.

Bildutakoen batek: —Azketsi Gexan; Europa'ko biziak abaguneak ekaŕi ditzakela esan duzu; ba-dakit oyek zeintzuk izan ditezken auŕetik esatea oso zaĪa dala; baña usmatu bederen, uste al duzu zerbait usma ditekela?

—Gexan'ek: Oso zaĪa da, bai, geroko gertapenak aztiatzea, bakoitzaren zioak gutxi ezpaitira; alde ta aurkakoak ere egunero soŕ ditezke; ta askotan iñork ikusi etzituenengatik eta bat-batean eldu dakizkigukelako. Alan eta guzti, egun gaitzuŕe aundi baten auŕean gagozela esan diteke. Ongi dakizutenez, bi lateŕi oso aundi ta indardunak alkaŕen aurka ari zaizkigu, guda otz deitzen dan oŕelakoan. Biak alegiñetan ari dira Ludi'an barna lagunak eta alderdikideak biltzen; biak ere izkiĪuak metatzen ari dira, gero ta geyago ta alkaŕen leyan. Guda otz ori berotuko al zaigu iñoiz? Oŕa untzea, ta oŕa gizadi guziarentzako gaitzuŕea, batez ere gaur dagozen izkiĪuak ikaragaŕiak diralako. Nik enuke nai-izango, arean, ortik sortuko litzaken ausiabartza izugaŕia ikustea; bestetik, oŕi buruz gure nayak eztira ezer; ezin geron aldetik ortaz alde naiz aurka jartzea, alpeŕik izango litzakelako. Baña oŕezaz ezer sortuko balitz, ene aburuz, len aipatu dudan Elkargo'aren bidez gure alde zeredozer egin litekelakoan nago. Zer?, eztakit, nola jakin?; alabaña edozein gertapena izan, gerturik ezpagagoz, alpeŕik oso soŕ liteken edozein mugona; gertutzea, alakotz, agertzen da, egin dezakeguna ta egin diteken gauza egokiena.

—Mikel'ek: Ez da atsegiña, adiskidea, aipatu duzun galtzori ori; baña oŕelako guda batetik, gizadi guziarentzako kalteak ain aundiak izango lirakelako, ustekoa da lateŕi oyen zuzendariak aŕeta aundiaz ibiĪiko dirala ta iñork eztuela nai-izango oŕen erantzukizun aundia berarenganatzea; jaŕi dezagun gure itxaropena ortan eta jaŕai dizayogun gure lanari.

—Uste dut zuk esondatu duzunari buruz, erabakia biar artzeko asmoa guziok ontzat artzen dugula. Oŕengatik batzaŕ ontarako daukagun beste gaya ikusten asi gaitezkela: Gure Eŕi'arentzako ereserkia da begiratzeko geratzen dan gaya. Oraintxe banatuko dizkizuete oŕitxo batzuk eta bertan irakuŕi al-izango duzute Gasteiz'en bizi dan Madinabeitia olerkariak gertu duena, itzak noski. Eresia emengo beste batek jaŕi die, Oses jaunak; eta onek zuzenduta, bereala, neskatalde batek abestuko dizue; entzungo duzutenez, ezpata-dantzaren eresia du oñaŕi.

Oŕiak aŕapaladan berenganatu zituzten guziek eta, irakuŕi artean, maipuru-alboan zuriz eta berdin jantzitako neska batzuk agertu ziran; Oses jauna eurekin eta guziak abesteko gerturik jaŕi ere.

Guzientzat ustegabekoa zan guzti ura ta leyatsu asi ziran irakurtzen; baña neskatiĪak ikustean entzuteko leyatsuago.

Mikel'ek, guziek irakuŕi zutela uste-izan zuenean, Oses'i abesten asteko eskatu zion; eta guziak gertuta zegozelarik, egindako ixiltasun aundian, deadaŕ aundi batez oro uŕatuta bezela geratu zan:

Gora ta gora Euzkaleŕi!

Azken izkiak, aizean azkona bailitzan, oyu sarkoŕa egiñik, guzien biotzean, ziŕara ezti ta gogoŕ batera, soŕerazi zuten; eta orok barne-muñetan erasota, ao zabalik eta zabalago belaŕi, adi-adi jaŕi zioten beren burua ... jaŕaitzeari ...

Aintza ta aintza bere Goiko Jaun onari!

Bigaŕen bertsoa eztikiago entzuteko giki; baña bere azken itzak be biotzeraño sartu zitzaizkien guziai; ta aidean ere dardarazita ... jaŕaipenari atea idekiko bailioten ...

Areitz bat Bizkaya'n da,
Zaŕ, sendo, zindo,
Bera ta bere lagia lakua ...
Areitz gañean dogu
Gurutze Deuna
Beti gure goiburu.

Ara, itz gutxitan, bizi ta jokatzeko ere, bide ta norabide bikaña. Euzkaleŕi'ri biziki zegokiona, ta ororentzat egitarau edeŕa, oso ta labuŕ emanda. Oŕelako asmoa ala beste antzekoa, guzien baitan bertsoak entzutean. Eta amaitzeko, beste deadaŕa, lenengoa bezela:

Abestu gora Euzkaleŕi!

Ta len lez, oyua nolabait gozatzeko:

Aintza ta aintza bere Goiko Jaun onari!

Bigaŕen bertsoa bera, beŕiz, ereserkia bukatzeko.

Ura izan zan, ura, txalo-aldi ta goraketa; ta txaloen artean, pozoŕ, zoramenezko ta bozkariozko deadaŕak doi-doi entzuten zirala:

—Zer duk ori, mutil? — Ori-ori, edeŕa! — Orixe mamia! — Orixe, gurea da-ta! — Oberik ezin! — Gora zuek! ...

Txalokatze ura noizpait amaitu zanean, eta Oses'i eskua eman ondoren:

—Mikel'ek: Eztut uste autezkunderik egin beaŕ dugula, aurkeztutako ereserkia ontzat artzen duzutela jakiteko; oŕen gogo-beroz zerok ikusita, zalantzik ez iñorengan gure Eŕi'arentzako ereserki egokia, entzun duguna, ontzat artzen duzutela ikusteko. Ta oŕela izan beaŕ, ene ustez; lenengoz, itzak goi-zentzunezkoak izanik, ororen yorana egokienik betetzen dutelako; gero, eresia, egiazko euzkal-eŕoan jaŕita dugu, gure ezpata-dantzaren soñu-neuŕian ain zuzen; beraz, itz eta eresi, guzia, euzkal-eŕo ta sendotasunean jasota ditugu.

—Entzule batek: Ongi dago ori, Mikel, baña ia, otoi, beŕiro abestu ote dizaiguketen!

—Beste askok: Bai, bai, aŕen; jo beŕiz, otian! ... ta txaloka indartu zuten, gogoŕ, eskaria.

Abeslariak gerturik zeudela, Oses, Mikel'ek keñu-erdi bat egin da, beren auŕean jaŕi ta, doñua ematen, ara beŕiro ereserkia:

Gora ta gora Euzkaleŕi! ...

Ixil-ixiīlik guziak entzuten, baña amaitutakoan, len bezelako beste txalo-zapaŕada luze ta eutsita; bai ta goraka, aunitz.

Azkortasunaren zarata bukatu zanean:

—Mikel'ek: Adiskideok; onenbestez gaurko gure biīera amai dezakegula uste dut. Gutxi da, ene ustez, egitaraua betetzeko geratzen zaiguna, ta ori biar goizean eŕaz burutuko dugu guziz.

—Baña biar, ez aiztu, jai berezi bat egingo da Gasteiz'en: «Mugaŕien ikertaldia» deitzen dana. Eztakit noizdanik ez eta zergatik ere; ausaz, Gasteiz eta aldameneko eŕien artean izandako ezberdintasun eta auzi batzuen ondorioz, Gasteiz'ko ziñegotziak, biarko egunean, zaldiz, inguruko eŕien mugaetaraño joaten dira, mugaŕiak ongi jaŕita dagozenentz ikusteko; eguerdirako Olarizu deitzen dan zelaira eltzen dira, ta bertan Udala'k daukan etxetxo berezian bazkaltzen dute alaitasunean. Bazkal auŕetik eŕietako auzokoekin ukan dituzten bilkuraen beŕia ematen dute; ta iñoiz auzi baten gogaikaŕizko margoa izan bazuen, oso aspaldidanik anaitasun eta poztasunezkoa biurtuta dago; esandako solasak nola izan diran jakin-erazteko, bertsoen bidez, eŕi

guzietakoak bildurik, ageŕerazten dute. Eta bazkaldu ondoren, zelayan, eŕi-jai-aldi edeŕa izaten da aŕatserarte. Orduan, zaldiz beti, ziñegotziak lenengoz, eta an izandako guziak Gasteiz'ko udaletxeraño etortzen dira, kale-jira begiko ta zaratatsuaz. Jai ori iraiīeko Miren Ama Neskutsa egunaren ondoko astelenean egiten da; beraz ez egun berean beti. Nai baduzute, Olarizu'ra joan gaitezke gu ere, gure biīera amaitu ondoren, bertan bazkaltzeko ta ikertaldiaren bertsoak entzuteko.

Ontzat artu zan Mikel'ek esandakoa, ta Gasteiz'ko kaleetan barna sakabanatu ziran batzarkideak, pozik eta adorez beterik.

Nabarigaŕi oso giza-talde ayek uriaren barnean; ba-zegoen an, ongi zabalduta, beren bilkuraen beŕi; ongi zekiten geyenek ayek nortzuk ziran, eta adiskidetzat atosteko gerturik edo, beren aldetik ere. Batzarkide ayek adierazten zituzten asmoak, berentzat zearo artzen ez zituztenak ere, begi onez ikusten, sortutako erakunde abertzalearen artezkariak be aipu onekoak ziralarik.

Ba-zegoen, beraz, giroa, an eta beste euzkal-bazteŕetan, eta asmo beŕien azia, benetan, okuntza edeŕenean jausten zala egiztatzen zan egunetik egunera. Ereintzaleak, asean eta betean, pozaŕen pozez, iīargia beren laba-gañean argitzen zalarik. Eta beren asmoetan guztiz etsita egonaŕen, alkaŕi ta maiz galdetzen zioten: Edestian barna ainbeste bunbulunka ta birabiraka ibiīi ondoren, azkenez Eŕi'ak, egoki ta berarena zan bidean sartzen ari ote da? Egitan, zalantzik ez ayengan, baña Eŕi osoa ikusi nai zuten siñis-bete-betean, bide beŕi ura onartzean.

Argi-ziŕintaz eta oso garbi asi zan uŕengo eguna zabaltzen; eguzkia, uda amaitzean, nolabait epeldurik izanaŕen, eguneko jaya argi ta berotzeko xedeaz edo, indartsuki bialdu nai zituen bere izpi ta dirdira oberenak. Eguna argitsu ta ozkarbi zabaldu zan gasteiztaŕentzat, eta goiz-goizetik, udalaren ziñegotziak ba-zijoazen zaldiz egun artako beren eginbeaŕa betetzeko gogoz.

Geroxeagoan, batzarkideak ere, beren azken bilkurara gogatsu ta yoranez erdu ziran auŕeko bi egunetako kaŕaz aboro adoreturik. Beaŕ zan orduan bildurik zegozen guziak, eta:

—Mikel'ek: Ene adiskideok. Oraingo gure azken biīera dugu au. Ene ustez, auŕekoetan artu ditugun erabakiak, aipatu bederen, egokia izango zaigula deritzait. Iru nagusiak auetxek: ikuŕiña, ikurdia

ta ereserkia; auek, onela iruditzen zait, zearo erabakita utzi ditzakegu, ao batez erabakita gañera. Gure abeŕiarentzako izen beŕia geratu zaigu, ain zuzen, Eneko berak idarokita, geroko beste batzaŕ nagusi baterako, ta ortaz orduan erabakitzeko. Ene iduriko, autatzeko, Eneko'k eskeiñi digun izena ere oso aintzakotzat artzekoa dugu, ta nire aldetik dagoaneko bein-betikoa bezela onartuko nuke; baña arloaren gaŕantzia nolako aundia danez, erabakia gerorako uztea oso egokia deritzait.

—Beste gai bat daukagu, erabakitzeko ere; atzo Gexan'ek azaldu ziguna. Oŕi buruz iñork ezer esan nai baldin badu, gogoz entzungo diogu; osterantzean ontzat artzekoa dala erabaki dezakegu.

Etzuen iñork ezer erantzun, eta oŕela ongi adierazi zuten guziek Gexan'en asmoa guztiz onartzen zutela; beraz erabakita geratu zan ura ere.

—Mikel'ek: Orduan, guziok onartzen al duzute gure lau arlo aundi oiek eta Gexan'ena ere, esan dugun bezela gera ditezela? Ez ote dago iñor oyetzaz zerbait geyago esateko?

—Entzule batek: Ongi dago esan duzun guzia; neronek ere, gaur bertan, bein-betiko onartuko nuke gerorako utzi dugun arazoa; baña asmoa esanda bezela geratzea be ontzat artzen dut. Orain «Eŕi'Deya»'n, Eneko ta zuei ongi baderitzaizue, asmo oŕen beŕi zeatza eman diteke ta, oŕela, gure gogaide guziek eŕi-batzaŕetan ere beren aburua ageŕerazi al-izango dute, bere orduan erabaki sendoago aŕ dezakegun.

—Mikel'ek: Ona da zure asmo ori ta uste dut Eneko'k ortarako eragozpenik jaŕiko eztigula.

—Eneko'k: Ez, ez, eta pozik egingo dut oŕezaz ere beaŕa izango dan guzia betetzeko.

—Mikel'ek: Beste asmoren bat ageŕerazi nai al du iñork?

—Beste entzule batek: Bai, ene iduriko, alegiñak egin beaŕ ditugu «Eŕi-Deya» astero ateratzeko. Gure arerioek gogoŕ ari dira beren asteroko ta egunerokoetan gure asmoen aurka; ta beaŕa dala deritzait gure erantzupenik gabe ezer gera eztediła; ortarako, gutxienez, gure aldizkaria astean-astean ateratzea guztiz noraezekoa dala ezinbestekotzat artu beaŕ.

—Mikel'ek: Sabin'ek esan digunez, asmo ortan dagoz «Eŕi-Deya» argitaratzen ari diranak, baña oso egokia deritzait esan duzuna bilkura onen beste erabaki bat bezela onartzeko; ta, jakiña, ortaz,

esan beaŕik ez, guziok eskeiñi ta eman beaŕ diegu al dezakegun laguntza guzia.

—Beste entzule batek: Bidezkoa noski esan duzuna, egitan, gu guzion eginbidea baita erakundearen beaŕ guziak laguntzea. Ta bidenabaŕ, margo ori eraman dezaken beste arazo bat aipatu nai-izango nuke. Jakin-erazi digutenez, ba-dakigu Sabin Egoeŕi'aren epaileai salatua izan dala; ortatik naigabeak elduko zaizkio ta ziuŕ nago emen gagozen guziok naigabe oyek gerorenak bezela artzen ditugula; oŕela, gogo-laguntza eman dizaiokegu Sabin'i, baña uste dut ori naikoa eztala, ta epayetan eta oyen enparauan eralgi beaŕ-izango duen guzia ororen aldetik ordaintzea eskeiñi beaŕ dugu. Bai ta Gexane'k bere eginkizunetarako beaŕ-izango duena be.

—Sabin'ek: Biotz-ukiturik uzten nauzu adiskidea, eskeintza oŕen bidez, ez niganako bakaŕik, guzion asmoetarako ere ain eraspen aundia adierazten duzulako. Oŕela ere, ororen artean egiazko anaitasuna soŕerazi dugula pozik ikusi beaŕ dugu.

Txaloka gogoŕ guzien aldetik eta ezin geyago gañeratu. Onespen zaratatsu ura amaitu zanean, beŕiro:

—Mikel'ek: Beste arazoren bat iñork aipatu nai ezpadu —ta ixildurik geldituta itzegiteko iñor jeikitzen etzala ikustean— atsegiñez burutu dezakegu, besterik gabe, gure batzaŕ nagusi au; ta oŕela egitea ontzat artzen baduzute, abes dezagun guziok, zutik, atzo onartutako gure ereserkia.

Guziak batera zutitu ziran, eta gogotik abestu zuten, gero, ainbat onartu ta zabalduko zan «euzkal-ereserkia».

Azken ereskien ondoren guziak irteten ari ziran; eta bein kaleratu ezkero, alkaŕengandik baŕayatu ziran auŕeko beste egunetan bezela; baña batzuen batzuk, eta ez gutxi, Olarizu'runtz abiatu ziran, Mikel'ek iragaŕitako jayera joateko asmoz. Eta ara gure lau zinkide beŕiro alkartuta, zirudienez ezinbestekoa zitzayenez; eta bidean zijoazela:

—Sabin'ek: Zer deritzaizue, mutiłak, gure batzaŕa?; ni neu bitsetan egon natzaizue; nekeak aunitz eta aundiak aŕ ditezke oŕelako anaitasuna gozatzeko. Ba-ditugu, gañera, gure ikuŕiña, gure ikurdia ta gure ereserkia; izen beŕia geratzen zaigu bakaŕik nai genuen guzia osotzeko, baña ori ere ziuŕ nago Eneko'k eratu diguna ontzat artuko dala azkenez.

Eta Eneko'ri buruz: Oso egokia, ene aburuz, aurkitu dukana; atzotik ari natzaik alde guzietatik Euzkadi izena begiratzen eta gero ta edeŕago iruditzen zaidak. Beyondeikala adiskide!, ezin oberik niretzat.

Gutxi gorabera orixe esan zuten beste biek ere, ta beste arazoetan barna yarduten aurki eldu ziran Olarizu'ra.

Ba-zegozen dagoaneko an gizakiak aunitz, etxe-inguruan bai ta barnean be, ta zala zirudien an baŕuratzea; baña Biana'k lortu zuen gure lau adiskideak, Aŕoyabe'taŕak eta bera txoko batean kokatzea.

Eldu beŕiak ziran ziñegotziak, eta Mikel'ek batzaŕean jakin-erazi zuen bezela, an zegozen auŕean ziñegotziekin solasaldia eotu beaŕ zuten neskatil batzuk, baseŕitaŕen antzera jantzirik eta ayek egindako ikertaldian eŕien mugaetan izandako izketa ororen buruan bezela emateko. Bereala asi ziran neskatilak:

Oi, ziñegotzi jaunak!
Gasteiz'ko ziñegotziak!,
Biotzetik egun on!

Ziñegotziak : Jauna berberak emon!

Neska eŕitaŕak : Zer dala, zuek emen?
Zaldunak eta kemen?
Aize zabala artzen?

Ziñegotziak : Ori dugu gozatzen.

Neska eŕitaŕak : Egurasteko gogoz?
Ibiltzeko ote beroz?
Jolasteko nai txangoz?

Ziñegotziak : Guzitarako asmoz.

Neska eŕitaŕak : Zein ote zuen xede?
Zertara zuen talde?
Zerbaiten ete galde?

Ziñegotziak : Ori ere bestalde.

Neska eŕitaŕak : Zaldiz etoŕi beaŕ?
Ezin beste bide aŕ?
Ibiltzeko goiztiaŕ?

Ziñegotziak : Ori on landa zeaŕ.

Neska eŕitaŕak : Goraintzi kaletaŕok?
Guretzat menditaŕok?
Ekartzen zuek danok?

Ziñegotziak : Ori opa lagunok.

Neska eŕitaŕak : Gasteiz'etik zer beŕi?
Lanean ari beti?
Osasunez sendoki?

Ziñegotziak : Oŕelaxe dirudi.

Neska eŕitaŕak : Jetsi ez zaldigandik?
Egoteko zutunik?
Gurekin alkarturik?

Ziñegotziak : Guretzat ori eziñik.

Neska eŕitaŕak : Lugiñak ote landeŕ?
Eŕia ez ote edeŕ?
Zuentzat ez da ezer?

Ziñegotziak : Bai, onak zeraten ber.

Neska eŕitaŕak : Bide luze egiteko?
Ezer nai ez jateko?
Ez eta edateko?

Ziñegotziak : Bai, egaŕi kentzeko.

Neska eŕitaŕak : Ona emen zatoa,
Bete ardoz aoa,
Ta gero gerokoa.

Ziñegotziak : Au edari gozoa!

Neska eŕitaŕak : Zoazte, bai, pakean,
Ibil lasai bidean,
Oro zoionean.

Ziñegotziak : Zuetzaz oroitzean.

Neska eŕitaŕak : Zedaŕiak oŕ zutik,
Aldatzeke lekutik,
Jeikitzean luŕetik.

Ziñegotziak : Orixe jakin nairik
Eldu gera Gasteiz'tik.

Neska eŕitaŕak : Aguŕ ziñegotziak!
Aguŕ t'erdi guziak!
Biotzetik aguŕak!

Ziñegotziak : Aguŕ, bai, eŕitaŕak!
Aguŕ txit barnekoak!

Neska eŕitaŕak : Ukan zazute egun on!

Ziñegotziak : Jaunak orori emon!

Ura entzuten pozez beterik guziak, eta solasaldia amaitu zanean esku-zarta bero ororen aldetik.

Bazkaltzera gero. Gure adiskideak gertuta aurkitu zuten etxetik at eta itzalean mai egoki bat Aŕoyabe'taŕak antolatua eta bazkari on eta alai gozatu zuten benetan. Amaitu baño lenago, ongi ikusi zuten jayera zijoazenak, gazteak batik bat piloka eltzen zirala. Zelayan barna txistulariak ugari, ta laisteŕ asi ziran asko ta asko dantzatzen. Guzia zan alaitasuna, oro margo bizia, zelai ta jaya mukuŕuz betetzean. Eta aŕatsalde guzian berdin, aŕastiri arte.

Orduan ziñegotziak, beren zaldiengan beŕiz, Gasteiz'eruntz itzultzen asi ziran eta jailari guziak, zantzoka, abestuten eta dantza-soka luzean, ikotika ere atzetik, uriko udaletxeraño; auŕeko enparantzan jaŕaitu zuten oindiño dantzariak; baña jaya amaituta zegoen eta gure adiskideak afaldu ta lotara.

Uŕengo egunean Sabin'i aguŕ bero bat egin zioten beste irurak, bai ta guziek Gasteiz'ko adiskideai ere. Ta Mikel, Eneko ta Xabier' ekin, itzultzeko bultzira; bidean gogoratzen oraindik entzun eta ikusitako guzia, Araya'raño; ta an jetsi zan Mikel bere lagunai beste aguŕ bero eman eta gero.

Eta besteetan bezela, bere etxerako bidea artu zuen gure gizonak, bakaŕik eta betiko bere gogoetak birundaka buruan.

Ainbesteetan amets-egin zituen ekintzetan leporaño sartuta ikusten eta begiratzen zuen bere burua. Ba-zegozen dagoaneko ekintza ayetan atsegiñezkoak zitzaizkion uŕats, egipenak, lortutako elburuak, maitasunak, adiskide ta anaitasunak ... ainbeste! Baña, egon ere, aurka zeuzkatenak be oroitzean, beazunezko tanta mingaŕi ta mingotsak bailiran; eta ayekin gudan jaŕaitu beaŕ ...

Pakean etxean, gentza edeŕa adiskide ta gogaideekin; baña guda besteekin; ezin, beraz, pakean bizidun guzienganako. Zergatik oŕela, baña?, nola, auŕean ikusten zituen eŕitaŕak ain itsu, odola ta Eŕi'aren aurka jokatzeko?, zer egin, ayek erakartzeko ta ororen anaitasun beroan bizi ta ari zitezen? Gero ta zalago iruditzen zitzayon ura, ta kari ortaz barne-barnean zeraman arantza, gero ta zoŕotzago, ziztakoŕ areago, mingaŕi aboro. Asmo oyek lardazkatzen zizkioten ain edeŕ zitzaizkion besteak, ainbat yoranez jaŕaikitzen zuen gentza uŕutiegi ikustean...

Eta berein unealdietan bezela, etxean sartu zan, biotzez mindurik eta burua itzal gaiztoz goibelduta.

Bizi-guda ta giza-guda

Gizonaren bizia emen, guda ta guda gogoŕa omen. Emen, gure bizi bera ontan, noski; omen, egiazko esakunaz ororen aldetik oŕela onartzeko eiki.

Izaŕ-zabaldean izaŕak zoroak bailiran, eten gabeko birundaka beren gañeko biran eta besteen inguruka, gau beltzean argi ta alkaŕi kiñuka, almen izugaŕian guziak indarka. Zergatik eta zertarako ainbeste arbil, milaka, alkaŕen atzetik joango bailiran, alkaŕenganako gelditzekean, alkaŕi edo buŕuka ari beaŕean? Ezin gizonak jakin, uŕundik ulertzea ere ezin. Kaizu izugaŕia izaŕ eta izarbelena, neurtzeko zala beren andiera; ta zabaldearen zeaŕ abiadura ta arintasun ikaragaŕiaz birundaka beti bakoitzak bere bidea egiñaz. Nundik datorkien egundaiñoko aŕi-mokoŕ oyei beaŕa zayen eta ulertzen eztan oldargune itzal eta laŕi? Zerk edo nork bultzatzen, nork edo zerk zuzentzen duen ain gelgaŕia dan igitaldi neuŕidun eta edeŕ ori? Nundik eta noraño edaturik dago igitaldia egiten dan zabaldea? Etenik ez apika arentzat?, mugarik ez ote onentzat? Aldi ta alde guzi ortan, ausaz, ikusteko edo sumatzeko alkartzea?

Amairik erakusten ez duen zabaldea, ala zabaldia, beti betetzen duena? Aldi ta alde bezela, bete ta beti'ren zentzunak, noizpait ala nunbait, bat ote dagite? Beraz, betean ala betian dabiltz izaŕak?, ala bietan?, ala biak dagiten betiko beta batean? Betean al dago betia?, ala betian betea?, ala bete ta beti, ezezaguna dan beta bete batean? Eta zer ote beta bat ori?; ezkutuki ote gizonentzat beti? Txikia eiki ulertzeko, gizonaren adimena, ez eta aski igartzeko ere bere irudimena; ortarako beste bide bilatu beaŕ, arean siñismena, Goiko Jaun bateaz mintzatzen zaiguna. Antzaz bederen, ala ere, izaŕen guda dugu goyan agertzen, beren distira ta erlantz izkiluz erabiltzen; eta izaŕena ezpada berena, ez ote apika berak darabilzkiten alkaŕen aurkako mota batzuetako indaŕena?

Eta oro guda bizian, oŕ, nun-nai, izadian, emen bezela ta an. Aboro bizidun izanik gudan beti, ala beaŕik, jayotzean asi ta gero yardutean azi. Altxumaetatik liliak, lili izateagatik, zabaltzean egin beaŕ duen beaŕean, biurturik arte igalian; arnariak berdin umotzeko dagien alegin; orobat bedaŕ, sasi, landare ta zugatz, andikara koskontzean buruturik alatz.

Zentzundunago ta areago ta zearo, guda biziago; jateko beaŕean zer jan aurkitzeko egiñalean, lore, landare ta arnariei, eraso, xurgatu, ebaki, uŕatu, xeetu, autsi, zirtzikatu, uzu ta aginkari; berebat saŕi bizidunen aurka, bakoitzarentzat bestea baldin bada txiki, il arteraño aginka.

Guda ixila landaredian, gau ta egun beti ari ta arian; azi ta koskontzeko guztiz beaŕa zayen jo-aldian. Biziari zoŕ zayo guda, sortu ta bereala; ortan asi ta il arte, indarge jausi, baña artean isi igo-erazi, zaildura guziak gaintzen ari, guda bizian beti. Ernemintzeko gero, altxumak ekin beaŕ gogoŕ eta bero; muskiletatik berdin, oŕi ta lili bai ala ez alkaŕekin, elburu bateaz oro emateko arnari, amaika neke ta gudaen semea danari.

Guda gogoŕago abeldian, txikiengandik eta aundienganaño, alakoari alako neuŕian eztago iñun guda ankeŕa baño. Eltxo ta mamoŕo, ezten, mizto ta betagiñez, bizi-beaŕean lortzeko beren poŕo, ezeren eŕuki gabez, beren mailean besteentzako ankerkeri aundienez. Orobat egaztien artean, mokoka ari-izateko era berean, eta aŕañak berebat aundiak txikia iresten, beti beaŕ ainbat. Beste ainbeste aundiagoak diralarik; egiñalean ala beaŕik, etxabereak, azazkalez, aginka, adaŕez naiz uztarka; basabereak aboro, piztiak eta iiziak geyago. Ankeŕ eta suminki, beren sen eta oldez, saŕaski betetzeko odolez, besterik egiteko eziñez eta gudatik datorkiela dirudi elikatzeko beren bizi.

Eta gizonengan, maizegi, guda bera ala txaŕagoan beaŕa zaigu ikusi. Baña ba-dago gizonarengan adimena, bai ta oarmena, ta ulermena, ta almena, ta ezagumena, beste izakien gañean bere burua ikus dezan; zer ote?, bere zeintasun guzi oyen indaŕa baño aundiagoa ote bere sena? Gogoarekiko ayek eta gorputzarena bakaŕik ausaz azkena? Ta ain zuzen ortxe agertzeko gogo ta gorputza, alkaŕen aurkako guda dagoaneko. Gizonaren bizia guda gogoŕa Ludi'an, ala esaten omen da Donea dan Idaztian; gizonarena ta bizidun guziena arean; orokaŕa dan guda, betidanik guzia betetzean, indartsuki ta zabalean.

Bere baitan du gizonak lenengo guda benetan. Izadian indaŕen aurka, bigaŕen ezinbestean; oldarmena ta kemena, odol otzik darabilzki ortan; ezinbesteko zayolako ortik bizi al-izateko ta izaten berarentzat esku-eskuan, eta beaŕa lege danean.

Bere bizia ta bere sendiarena auŕera eramateko beaŕean, mota guziko guda gogoŕena biziaren luzeran, eŕaza ezpaita bizi-izatea, beaŕa oŕengatik zala dana onartzea.

Ez ala ere gizonarentzat bederen, jasan beaŕ dituen gudak oŕ amaitzen; aldamenean dituen urko lagunak ortxe dagoz, eurekin buŕukak soŕerazteko beroz. Zoramena ere ba-da oso gizonarena, ta zoro irudi gizona, anayenganako eŕa izateko, goŕotoa bereganatzeko; zentzumenik gabe dagoela maiz agertzeko.

Auzoko arazoak, eŕietakoak, endeŕiari dagozkionak, ala iritzita usteak ez izanik berdiñak, aurki mokoka gizonak. Geyago irabazteko, ura aña izateko, eskubideak gordetzeko, emengo ala angoak menperatzeko, norberaren burua gaizkatzeko, ..., amaika zio ta aitzaki ... gudan ari-izateko eiki.

Guda, jaun eta jabe, ta gizona beti mirabe. Ulertzeko egoki, onbidean auŕeratzeko daramana noski; bai ta biziari eusteko bere beaŕ danari onartzeko. Ulerkaitza, aitzitik, anayen arteko gentza uzten duena abaŕikaturik. Alaz ere oŕelakoak betidanik beroak eta ankeŕ, itxesa dakarkietela gizoner.

Gure egunetan lantegien bidez sortu zaigun bizi beŕian, oŕela izateko edo, ezinbestez, beste guda gogoŕa gizonen artean ibiĪi dabil edatzen, beste guziak aña latz eta gaŕatz, areago ezpada, ta goŕoto-iturburua. Norberekeria ikusten da ortan, lenen nagusia, maitasunik ezagutzen eztuena, irabaztea izanik ororen elburua. Oso gorbizturik alde guzietan barna, gentzarik ez dazaguen alkaŕ ezin ikusteari darion zorna. Doakabe bai gizona, anayarekin, ezin gozatuz zoriona.

Azpaŕena'n orobat; ongi dakigu an artega ta kezka zegozela, ainbat. Asieran, eŕiaren zoriona ta aberastasuna ekaŕiko zituela, lantegi beŕian ustea jaŕia zala ta egunen igarotzean besterik ba-zegoela ikusi beaŕ, eta jasan ere jazokunen zeaŕ.

Ugazabarentzat, besteai lana ematea guzien aldetik guztiz aintzakotzat eukitzeko ustea, ta lan ugaritze ura ere eŕi osoarentzat onuragaŕiaz betea. LangiĪeen aldetik, ordea, laisteŕ ikusteko, lana, egitan, berak zeramatelarik, merke gañera jabeak izateko; ta lantegian atera-

tzen zan irabazia nagusiarentzat guzia. Araya'n be alde guzietan bezelako auzia.

Nai ta nai ez, alkaŕen aurka bi alderdikoak, ala beaŕez; asieran etzegoen noski ayen artean eŕarik bederen, guziak eŕi berberakoak izatean, eta lantegiaren bizia, eŕi osoarena bezela arturik, alegia, ororentzat berdin izango zalakoan gauza berezia. Baña egunen bidean, jabea agertzen zan, besteengandik gero ta banatuago, etekin geyena bereganaturik eta langiĪeak egunariaz bakaŕik; eta beren bizia iñundik ikusi obeaz aldatuko zanik. Bidezkoa oŕengatik, asieran bezela bekoen aldetik, gero ugazaba begi onez ez begiraturik. Eta oŕela gero ta geyago lantegi artan ere bi aldekoen artean aŕemana biĪakatu gorbiztuago.

Giza-guda, alakotz, Araitz'pe txoko edeŕ artan be, ta gizonak alkaŕenganako otz; gudan ala ere berotutako biotz; eta gentzarik ez giza-baltsa txiki artan, ondikotz!

Baña etzan ura Azpaŕena'n zegoen, bakaŕik, guda. Ongi dakigunez, beste maĪan ere oŕenbeste ikustekoa zan zoritxaŕez. Lateŕi'aren aurkakoa, Euzkaleŕi'ak zeraman osoa. Bazteŕ guzietan bezela, an ere ezin bere semeak txil-egin bereala, ta Eŕi'aren biziari eusteko egin beaŕ egiñala. Lau zinkideek emandako deya etzan alpeŕik galdu, alegia; ta oyartzun zabalaz erantzun zoli bazteŕetan eŕuz eta eŕikoyaz; biotz-mamiñean ikuturik, euzkaldunak askoŕ Eŕi'aren alde jeikirik. Guda artan iñor geldirik ez geratzeko, Eŕi'aren bizia guziena zalako; norberak oartu zuen, bakoitzak ikusten, beregan zegoela, gogo ta bizi berak, ororengan bezela. Eŕi osoa beraz bere biziarekiko kexu ta arduraz, eta Eŕi-guda zalarik, ondorioz, bizi-guda ta giza-guda izanik.

Geyago ala gutxiago, argirik ala iĪuntsuago, guziek ikusi beaŕ beren burua, guda ta buŕuka ayek ikutua; bira ta birundaka ororen bizia, zirimolaka zerabiĪen giza-igikun guzia; eziña andik atera, bertan ari-izateko ta erabiltzeko jokera; gentza iŕikitzen be, an yardun beaŕ jo ta ke, egunean-egunean ekiteko oŕelaxe. Bai, onartzeko, al eta ezin, gizonaren bizia, len eta orain era ortaz edaturik beti berdin.

Guziak eta bakoitza, ta Azpaŕena'n bizi ta ari zan gizakiren bat buru otza, Diaz izenekoa zan belaŕi motza. Bere lengo jokera, nai ezik, egokitasunez ala beaŕez aldatu beaŕ-izan zuenetik, ango bi motazko guda nabaritu zuen ongienik, eta bere xedeetarako ustiatzea erabaki zuen gogotik.

Langiĺeek zeramaten buŕuka etzitzayon bere barnean kilika; ayen gañetik ikusten zuen bere burua, ta ayenganako saŕi begi-zearka ta burgoitua. Bere iritzi estuan berekoitzat zeukan langiĺea, utzean betean, onen antsia kokatua ikusteko sabelean; gogo txikidun, ziuŕ, beste elbururik etzuen bizidun zimuŕ; luŕetik goratzeko eziña zan, kuzkuŕ. Bere elburua, aitzitik, gorengoagotzat izanik, jaŕaitzekoa zeukan barne-barnetik; beaŕezkoena gañera zitzaiolarik.

Bere eŕitaŕek bezela, gañetikoa beti jartzeko beaŕa zuela, ortara abiatu zan eŕian asi ta bereala; eskumatik ezpazan, ezkeŕetik ala beste edozein aldetik. Poto egin zuen lendabizi autatu zuen bidetik, baña aurki oartu zuen bere apetari zegokion beste bat zegoelarik. Egoeŕitaŕa zalako, ezin begi onez begiratu ezer lateŕiaren aurkako; ta Mikel eta bere lagunak ortara sortu ziralako, an alde ateratzeko, ara bere bidea aukerako. Bera izango zan, Azpaŕena'n, xede artaz ari-izateko aldezkari egoki ta beaŕenean.

Aŕetaz eta astiro egosi zituen bere asmoak egokiro, bai ta nola oyetarako ustiatu eŕiaren giro. Jaŕaitzaĺeak irabaztea zitzayon beaŕa, ta enurarik ez langiĺeen artean aurkitzeko, nork onartuko zuen deadaŕa. Alaz ere, langiĺe geyenak bertakoak ziralarik, zaĺa ayengan Eŕi'aren aurka ontzat artu iñungo asmorik; argi ori Diaz jaunarentzat, eta zeaŕez jokatzea aukeratzeko obetzat; zuzenez eziña zana, albotik egokiago oso berarentzat.

Oŕela eramango zuen bere guda, ta ba-zekien lateŕiaren edeŕa irabaziko zuela, euzkaldunen auŕez jartzea goraipatzeko baitzuen edonola, bai ta ongi ordaintzeko zeukala. Ez ainbeste, aitzitik, langiĺeen alde ateratzean nabarmendurik; eta oŕela jokatu zuen lenago, langiĺeek buru izendatu nai-izan zutenean, ororen beteago; ba-zuen ezetza emateko aitzaki, bizibideak ematen zion egoki.

Egokienean zeukan bere burua era ortaz jaŕita; langiĺeak bein irabazita, orixe izateko lenengo uŕatsa, berak eramango zuen gero ororen baltsa, eyerara doan uraren antza, eyera berarentzat lateŕia izanik jasotzeko laguntza.

Bai, eŕian bera izango zan nagusi; olako ugazabak ezezpena ordainduko zion garesti; Mikel eta bere lagunek izango zuten nork erantzun gogorki. Lateŕiak ezin laguntza oberik euki; bere burua, irakasleak, goruntz jasotzeko ederki.

Argi zegoen irakaslearentzat bere guda, berarentzat giza-guda ta Eŕi-guda, alkartuta batera. Ta bere bizibidetik zetorkion jokeraren

arauz, ongi zekien nola jokatu beaŕ zuen berarena zan kabuz. Irakasle izanik ikastolan umeak zeuzkan irakasteko ta bere iritzizko bideetan barna zuzentzeko, arean. Araya'ko langiĺeak izango ziran beste motazko ikasleak, eta oyek ere berak irakasiko ta bere xedeetarako be ongi eramango zituen ala nolako; ta ikastolan auŕak bezela, eratuko lituke gizonen gogoak bere gogarako egokiro edonola.

Gerorako gertutzen zituen auŕak ikastolan, uŕengo eginkizunetarako ere joan-eraziko lituke langiĺeak olan. Dagoaneko, «Azpaŕena'ko langiĺeen Batasuna» eratzea lortu zuen eta bertan ari ziran ola-gizonak biltzen giza-mota-buŕuka txoko artan be indaŕaz gero ta geyago gogortzen. Langiĺeak buŕuka ortan beren isi ta itxaropena ipintzeko, bultzatzea zitzayon beaŕa, artan itsu-erazteko ta aldamenean ari ziran beste asmoetarako zudu guzia kentzeko, apika, oŕen ordez ayen aurkako ere jartzeko. Langiĺeen guda bizi-guda zan Ludi'ko beste langiĺe guziena izan, eta oŕengatik ororena eraman beaŕ alkaŕ laguntzean. Ura egiazko jokera gizonak onartzeko egokiena, egitan etzegoen besterik eta ura onena. Utikan beste boŕoka txikiak, gizona dan gizonarentzat onartzeko eztiranak.

«Langiĺeen Batasuna» soŕerazi zuenetik, Gasteiz'en zegoen aren antzeko beste batetik, laguntza lortzeko sayatu zan gogotik, eta lenago ere ikusi dugunez, uriko zuzendarien bat edo beste ekaŕi zuen andik. Angoai be ongi zetorkien ura egitea, beren asmoak nai baitzituzten erki osoan zabaltzea, ta oŕela yardutean Diaz jauna zeukaten oso ona artarako laguntzean.

Asi beŕia zeukan gure irakasleak idekita ikastaroa, ta beste ikastaro bat bezela, Araya'ko langiĺeak irakastekoa gertu nai zuen egoeŕitaŕ arek, iruditzen baitzitzayon noraezekoa; ta ardantegian bere lagunekin ukan oi zuen bilkura batean, biĺera berezi bat egitea esondatu zien oso ona edo zan egokitasunean.

Ontzat artu zuten guziek asmoa, ta arakiñak, udaren azken egun onak ustiatzeko, jai batean, aldameneko mendi batera joan litezkela idaroki zuen, eta ori ere geyenek onartu zuten. Patxiko ta irakaslearentzat etzan izan bururapena oso egokitzat artzeko, baña gazteak aren alde sortu ziran biziki, txangoz ibiltzen atsegin zitzayelarik eiki, ta amor-egitean etziran ayek ausartu aurka nolabait jeiki.

Astelena zan ortaz ari-izan ziran eguna, ta uŕengo iganderako erabaki zuten burutzeko alkartasuna. Ta nora? —galdetu zuen batek— nora joango gera?; arakiñak bereala: —ha, Ituŕiotz'era; bere

ustez tokia baitzan egokiena, bertan egoteko edeŕena. Astotxo batean guzientzako bazkaria eraman, bidea egiteko ordu egokian irteteko goizean, lasai egoteko an, egun osoan.

Gazteak pozik, Patxiko mukeŕ eta betīlunik, Diaz jauna nai-ezean ere abagunea ustiatzeko gerturik. Gasteiz'ko bere adiskideai asmoa agertuz, izlari egoki bat biali zizayotela eskatuz eta bere baitan bere xedeak nola betetzeko birundakatuz.

Autatutako igandearen auŕeko egunean atotsi zuen irakasleak, yoranez betean, arayataŕentzat jakitun bezela agertzean, oŕelakotzat artuko zutena biramoneko txangoan. Eta aŕeta aundiaz, zeatz eta meatz, Azpaŕena osoan zegozen ebazkizun guzietaz beŕi osoa jakinerazi zion, ugari izan zezan mintzatzeko gayaz. Noski, euzkal-gayak eŕiarentzat zeukaten gaŕantzia tipituz, baña lateŕiari buruz izan litezken gaitzuŕea aundituz; eta gizartearekiko arazoa beste guzien gain jartzeko egokitasuna goralduz. Etzan geratu begiratzeko ezertxo ere, ta batera etoŕi ziran gizon biak eragozpenik gabe; guzią beraz, ongienik gertuta izateko ayen uste ta zearo bete.

Igande artako ozkoŕia odeirik gabe zabaldu zan eta oso argia, egun edeŕa izango zanaren asia. Goiz xamaŕetik an zegozen lagunak asko enparantzan alkarturik, astotxoa ere janariaz ondo zamaturik. Eta berealaxe bideari lotu ziran, ogetamaŕen bat lagun taldean, Gasteiz'ko izlaria, irakaslea, arakiña, Patxiko, Zelaya ta beste langīle gazte batzuk ura osotzean. Bakana benetan, saldo ura igarotzen ikusi zuten guzientzat, mendirako bidea artzen zutelarik, egitan artzeko adigaŕitzat, oro ezagun baitziran geyago kaletartzat.

Lantegi aldamenera elduta, ezkeŕ aldetik asten zan mandabidetik artu ta aurki zegozen mendi-mendian sartuta, goraka beti ta astiro-astiro uŕatsak emanda. Araitz goŕi ta goitua agertzen zan, mukulo gaitza, eskumaldean, eta Murutegi basetxe ondoko mendiskaetan azaltzen ziran egi ta meakak ezkeŕean. Asgiro ona zegoen naiz eta aldapatik goruntz zijoalako, bidea oñezkari ayentzat gogoŕa izaten, eta goizeko aize-goŕitxo ibiltzeko ere lagun ona zitzayen aŕen, noizpeinka gelditu beaŕ eta gogoz ats-artzen.

Giza-mulko txiki arengan, noski, bidaide gogaide esakunaren zentzuna ongi betetzen zan eta aberatsak bezela guziak adiskide ziran. Alaitasuna beraz beren artean, guziena zan xede ala elburu berean, eta edozein txikitasunean alkaŕ laguntzeko ere nayean.

Geldi-une bakoitzean, be aldera so-egiten geratzean, ikuspegi gero

ta edeŕago begiratzean, gero ta gorago igotean atsegiñago ere ayen begietan. Eguraldi goxoa goiz-aldi arena, ibīli ta birikak bete-betean arnas-artzeko atsegiñena; ozkiŕi ta me aizea, aldatz-gora igo-beaŕak zemayen beroa ta ixuri-erazten zien izerdia ibitzeko onena.

Atsenaldi ayetako batean Gasteiz'etik etoŕi zanak, mendi ta aize zabalean egoteaz, eta begien auŕean agertzen zitzayonaz gartsutua, beroki azaltzen zituen bere barneko zaustadak. Eta bere lagunai jakin-erazi nayean, ausaz edo beaŕean, onela zuzendu zizkien itzak:

—Auxe, adiskideok, ikuskari edeŕa!; aŕ diteke, bai, gogoz oneraño eltzeko nekea, bai ta ixuri ere lapatan izerdia. Ain ongi ikusten baita emendik Araba'n dugun edertasuna. Oŕa oŕ gure naba zabalaren asiera, Burunda aldetik dagoen meakan izango bailitzan sortua. Eŕi txikiak kokaturik eta baŕayaturik egoki bere zabalaren barna, gizonentzako beste ainbeste kabi edeŕak antolaturik. Mendaitz aundi bi auen artean, egon bailiran ziuŕ beren babesean; Aitzkoŕi ta Elgea mendi-leŕoak alde batetik eta Urbasa ta Entzia bestetik, oŕa gure luŕ yoria arabaŕentzako bikaña bizi-tokia. Gero, Gorbea aundia be aldean ukitzen eta beste aldetik Gazteiz mendiak alboan uzten, Zaldiaran, Gometxa ta Badaya'en artean estutzen eta Arganzon'en beste meakan amaitzen.

—Eun zabalean bezela agertzen da oŕ gure Araba, arabakietaz josirik lez ikusteko irudian, edatua baitago oso naba, arabaki oyek gure nekazariak beren soloen bidez egiñak izanik eta ez izateko gosearen kardaba. Txit aspaldian meaka biak itxita omen zegozenean, landa guzia estaltzen, itxasoa zabaltzen zalakoan dago jakituna. Dana dala gaur edeŕa dugu landa ori, guziontzako gure landa atsegingaŕi, emankoŕa beti, urtero uzta ematen ugari.

—Solozabal'ek: Dakienak daki, ta nik enuen iñoiz entzun itxaso oŕen beŕi; baña egunero beaŕ dugu zerbaiteaz ikasi; zer zeritzaik, Patxiko, iri?, ez ote duk guzia bearbada ipui?

—Patxiko'k: Ipui ala egi, polita dukala esan beaŕ, eiki.

—Solozabal'ek: (zirikatzaīe ta iŕi-miŕiz) Ta zer uste duk ortaz?, itxaso artan jentīlak itxas-gizon eta aŕantzale ausaz?; Basotxo'an ote orduan kai ta aterpe?

—Patxiko'k: (asaŕe) Iretzako kai ta aterpe ta aŕai; zertarako aipatu egin beaŕ emen jentīlen izenai?; utzi nazak, lagun, nare ta lasai.

—Solozabal'ek: (isituki) Azketsi, mutil, enian uste ire asaŕea jalgitzeko uanik oŕen urbil; ez eta Basotxo'n ukan uan ikara oindiño ere igan egongo uala galgara...

—Patxiko'k: Mando alakoa, itxi aoa, ta zakuŕaren ipurdira oa!

Paŕe-egin zuten guziek Patxiko asaŕeturik ikustean eta galdetu ere batzuek Basotxo'ko ura zer ote zan; batik bat gasteiztaŕak begiluze ta guzia jakiteko tiŕian. Eta Patxiko'k nai ezik ere, Diaz jaunak jakin-erazi beaŕ-izan zien ezertxo ixildu gabe. Ta onela jaŕaitu zuen, jazotakoaren jabe:

—Diaz'ek: Nik eztakit zer gertatu zitzayon adiskide oni, konorte barik bi egunetan egoteko, baiki! Gasteiz'ko gexotegian gero bi ilebete luze igaro; sendagile oro, azkenez, geratzeko onengan ezer ezin ikusteko oso. Ta aŕezkero, len bezela bizi da gure adiskide au egunero.

—Solozabal'ek: Sendagileak ez, baña Justa atsoak bai; arek jakin zuen egiazki oni jazotakoa; sorginzuŕian izandako soa, sakon eta ikusnai.

Zer ote zan ura etzekitenak, eta Justa'ren bertsoak esan beaŕ arakiñak. Eta Patxiko kiŕi-miŕi ta mokoz-moko mindurik oso bere barneko.

—Gasteiztaŕa'k: Jakingaŕia noski guzia; siñisgaitza gure adiskidearen aulezia; ta goraipatzekoa, alegia, lagundu zutenen adeya.

—Patxiko'k: (beti asaŕe) Obe laguntza ura artu ezpanu; eztakit nik beaŕ etzutenak zergatik an sartu; zergatik Diaz jauna orduan besteengana ez erdu?

—Diaz'ek: Adiskide, lenengoak aurkitu nituen ayek izan beaŕ estualdi artan bide; gañera ura beren eginbeaŕa, naiz eta ez izan gogaide.

—Patxiko'k: Jakin nuenean ... eztakit zer egingo nukean!

—Solozabal'ek: Eta ... kaiku alena!, eskeŕak emateko ez joan oindiño ayengana; i bai, gero, ergelena!

—Patxiko'k: Ez eta joango ere; oŕen zai baldin badagoz, egoteko daude, ezta oŕelakorik ene xede.

—Zelaya'k: Egia da ayek egin zutena beren eginbidea izan zala, baña beren kabuz jokatzean, ene ustez, txalotzekoa dala; ta bidezkoa ere ayengana joatea eskeŕonekoa bezala, naiz eta norbera indartzeko egin beaŕ egiñala.

—Gasteiztaŕa'k: Tira, adiskideok, goazen auŕera ta utzi dezagun

bakoitzarengan bere jokera. Uŕuti al dago, oraindik, eltzeko geran iruŕi ori emendik?

—Solozabal'ek: Ez, ez, laisteŕ izango gera an, eta bilduŕik ez (zirikatzen jaŕaiturik), sorgiñik ez eta jentilik ezta izango gure aldamenean; zerbait goraxeago, apika bai, Azkosoroi sarobean biltzen ei baitira noiz-nai, dantzatzeko soroki akelaŕean.

Patxiko izanezik besteak alai ta pozik, ura oso mukeŕ arturik, guziak eldu ziran berandu gabe ituŕiraño; noizpait, egundaño!

Kendu zioten zama astotxoari; sua egiten alegindu ziran gertutzeko bazkari; ta mauka-mauka guziek gogoz aurki. Gero, eŕai estu oro ere, izlari izango zanari entzuteko erne: asteko gure irakasle.

—Diaz'ek: Adiskideok: Ba-gera, gaur beŕiz, alkarturik langileok. Ez ala ere besteetan bezela, ardantegian, edo obeto esateko, bertan daukagun gure batzokian. Gaur aide zabalean bildu gera izadiaren toki edeŕ ontan; izerdiz eldu gera oneraño, baña ene ustez ezta alpeŕik ixuria izan. Bizi ontan edozein elbururaño eltzeko, lana da beaŕa, lan, izerdi ta alegiñak noski, guziok dakizutenez ongi. Langileak geranezkero, lana izan beaŕ, eta izan ere ba-da gure goiburu, gure ikuŕiña; lanetik ateratzen dugu bizi al-izateko beaŕa zaiguna; lanak gure gizatasuna goratzen digu, ta lana gure bizi guzirako ardatz almentsua dugu. Baña, baña, nolabait, lana ere langilearen zorigaitzerako iturburu ta menperatasunerako bidea bezela ikus dezakegu; noski eztago ortaz lanaren eŕurik eta ezin uŕuña dezakegu lana oŕengatik. Gauzak alik eta argienik ikusteko ta begiratzeko alegindu beaŕ dugu. Lana ona da, lana egokia da, lana bizia da; alaz ere bidea biurtu da, guztiz berekoyak diran batzuek, beraren bitartez, gizonak menperatzeko; ta gaurko ekintza guzietan lantegietarako beaŕak diran gai, lankai, menasta, indaŕ eta guzia bezela, lana ere berenganatu dute ta berena bezela daukate ta darabilte. Ez al dute esaten ekintzale guziek, beren lantegiak antolatzen dituzten buruzagiek, guziok eskeŕ dizayegun noski, lan-tokiak, ain zuzen, lana emateko idekitzen dituztela? Nola baña?, berena eztan lana berak eman?; langileak dira, ostera, berai lana ematen dietenak. Ez, ugazabak eztute lanik ematen, erosten baño ta alik eta merkeena erosi ere; ta langileak beren lana saltzeko beartuak, merke emateko be gañera. Arazoa oŕelaxe dala ikusteko ezta iñora joan beaŕ ikastera, gure begien auŕean dago ta gure gorputzetan ondorioen zama jasan beaŕ dugu. Oŕa oŕ bidegabekeria sortu dala, Ludi ontan dagoen aundienetakoa;

milla ta millaka dira gaur alde guztietan langilleak, bidegabekeri oren pean bizi beaŕ dutenak; baña, beaŕa zanez, langilleak begiak ideki dituzte ta guziz menperatuta dagozela argi ikusi ere; oŕengatik, beren eskubideen alde jokatzeko, beren artean alkartzen ari dira, ta ugazabaen berenkoikeri aurka buŕukatzen yardun ere; oŕa nola, Araya'n, gure eŕi ontan be, alde guzietako berekoikeri bera dagoelarik, bertako langilleok alkartu zerate «Azpaŕena'ko Langilleen Batasuna» deitzen diogun bazkunean; eta oŕen bidez emengo buŕuka ere egin eta eraman beaŕ da buruz eta kemenez. Baña ortarako, guziok geron burua ongi gertutzeko alegiñak bete beaŕ ditugu, ondo gertu ezik ezer egin ezpaititeke; ta nola gertu?; bide egokiak erabiltzen, izpaŕingiak, aldizkariak eta idaztiak irakurtzen; ori edonork egin dezake bakaŕik be, baña noizean bein egin ditezken bilkuretan alkartzean ere; dagoaneko batzuk izan ditugu, ta gaurkoa da beste bat, berezia gañera, aize zabalean dagigulako ta batez ere ikasbide ona eman dizaigun, Gasteiz'tik eldu zaigun lagun jakintsu au gure artean dugulako.

—Barkatu, luzetxoa ari-izan naizelako, baña beaŕa zan niretzat gure bilkura oni atea zabaltzea, ta esandakoa izan duzute giltza. Bertan gagoz orain bete-betean, eta gure adiskide on oni entzutea geratzen zaigu bakaŕik. Nai dezazunean, beraz, lagun; aiduru gaituzu guziok zuri entzuteko ta zuregandik ikasteko.

Apala bezela agertu nai zuen bere burua Diaz jaunak, bai gasteiztaŕaren auŕean bai ta besteengatik ere; irakasletzat zeukaten auek eta apaltasunez agertzean ongi zekien arek bere burua goratzeko bide ona zuela; ta bera, irakaslea, ikasteko beaŕean zegoela adieraztean, egiazko langilleak ziranak areago uste beaŕ zuten; beraz, egoki ta beaŕa jokera ura bere xedeetarako.

Leku artako luŕ gañean irakaslearen abotsak, aztiatzeko bezela, ots zegien ozen, eta eskuketaz eta yardueraz egokiro lagundurik, indaŕez entzuteko bildutakoen belaŕietan; eta gogoz txalotu zituzten irakaslearen itzak. Bereala ixiltzeko, Gasteiz'koari entzuteko iŕitsean. Eta asi zan bera, atsaren gañean mintzatzen, bare-bare ta goxo-goxo ere, itz bakoitzari gaŕantzi aundienetakoa emateko xedeaz.

—Gasteiz'ko izlariak: Araya'ko lagunak. Auxe dugu zuengana lenengo aldiz natoŕela ta enuke nai-izango bakaŕa izan zedilla. Zuek bezela, arabaŕa izanaŕen, enuen ezagutzen zuen eŕi edeŕ au, ta ao betez edeŕ deitzen dut benbenetan eldu ta bereala oŕela dala ikusi

baitut .Ba-nekien lantegiak idekitzen diran toki guzietan bezela, emen ere lan-biziaren goraberak sortu dirala, bidezkoa zanez; eta jakin ere aurki jakin dut langilleen eskubideai eusteko indaŕez jeiki ta antolatzen ari zeratela. Oŕa bada zio aundi bi zuekin ordu atsegin batzuk igarotzeko ta zuekin mintzatzeko, leunki baña kemen ekaŕi nautenak.

—Zuen eguneroko lagun eta nire adiskide ona dan Diaz irakasle jakitunak, oraintxe pozik entzun dizkiogun bere itz egokien bidez, ezinbestekoa bezela, nik esan beaŕ dizuedanari norabidea eman dio.

—Alegia, langilleen arazo ta beaŕak, gutxi gorabera, berdin agertzen dira baztereetan: Ugazabaen berekoikeria alde batetik eta langilleen bizi-beaŕa bestetik. Ba-dugu geuk aspalditik esakun zaŕ bat gaurkotz egiña dirudiela: Ugazabaen ogia, erdia aŕia. Apika, erdia esan ordez, egokiago izango litzake, egun, guzia esatea. Baña, beti, aŕia; orixe bai. Aŕoputz xamaŕ ageri dira ugazabak beti, ta benetan uste-izan dute berak zirala besteai ogia ematen zietela; ondorioz beste oyek ayenganako eskeŕonez agertzea ezinbestekotzat zeukaten. Asmo oŕezaz gaurko egunetan lantegiak ideki dituzte, berentzat irabazpenak lortzeko; baña gizonaren beso-indaŕak beaŕ-izan dituztenean, ogia ematen zutela esan ordez lana zematela diñote; oŕa lan itza lengo ogiaren tokian jaŕita.

—Langilleak beren besoen indaŕa saldu beaŕ-izan dute bizi al-izateko. Beaŕa bai, bizi-beaŕa!, oso indardun beaŕa bera! Ori dalata, beartuta, bai, gizonak, beren esku-lana edozein ogi-orde emateko ta ugazabai saltzeko, auentzat noski merkeena izateko.

—Bidegabekeri izugaŕi joku ortan eta Ludi zabalean; alakotz beraren aurka ezinbestekoa zan jeiki, ta jeiki gogoŕean; eta bidezkoa izan danez, giza-motaen arteko buŕuka aundi sortu beaŕ-izan da. Ogasunen jabeak soŕ eta biotz-gogoŕ langilleen beaŕei buruz, eta indaŕez ezpada, iñoiz eztagoz ezertxotan amor-egiteko gerturik; oŕela, beaŕen beaŕez sortutako buŕuka gorbitzen ari zaigu alde guzietan. Zoritxaŕekoa da gizonen artean alkaŕen aurka buŕukatzea, baña orixe da gertatzen dana.

—Eta bein buŕukan sarturik, jakiña, bidezkoa ere izan beaŕ, norberak bere bideak eramatea ta bere izkilluak erabiltzea. Oŕela dalarik, ikus ditzagun langilleentzat bide egokiak zeintzuk diran, bai ta zeintzuk erabiltzeko izkilluak. Ene ustez, guzi ori ain argi dagoelako, zalantzik ez beaŕa zaiguna onartzeko.

—Bideak: langiīeen alkartasuna, eŕi bakoitzean, lantegi bakoitzean eta bazteŕ guzietan, Ludi'ko guziak ortan bat izan ditezken.

—Izkiīuak: Eŕiketan, langiīeen alde geyen egin dezaketenai autarkia ematea, ta al-izan ezkero auteskundeetan langiīeek izendatutako aldungayak aurkeztea; lantegietan izan ditezken akats eta bidegabekeri guziak salatzea, ta oyen aurka jokatzea; langiīeen aldizkariai eustea ta lagunen artean zabaltzea; langiīeen aldeko zabalkunde guzia lagundu; edonungo langiīeenganako alkartasunaz jokatu; amaika aipa ditezke oŕelakoak, baña bereziena lan-opoŕa, al ditezken geyenak, soŕerazi ta bakoitzari gogoŕ eutsi. Mota askotako lana, egin nai-izango duenarentzat; eta aldizkarien gañera, lanaren eta langiīeen bizia gayaz darabilten liburuak zuen bazkunetan euki irakurtzeko ta bertan ikasteko; batez ere auziak zuzentzeko tokietan ari-izateko izendaturik izan ditezkenak. Ain zuzen gure biīera ta egipen guzietan, oro, ongienik gertuta izan al gaitezken.

—Orixe da langiīe guziei buruz eman diteken norabide orokaŕa; gero toki bakoitzean berezitasunak ere izan ditezke, ta jakin dudanez zuen eŕi ontan ba-dagoz oŕelakoak. Jakin ere ba-dakit lateŕiaren aurkako Euzkaleŕi guzian sortu dan ekintza, emen be ari dala ta bere zuzendarienetako bat emengoa dala ta emen bizi ere. Nekazariak bere asmoetarako irabazita omen dauzka ta langiīeak ere zuzentzeko nayaz dabiīela. Adi langiīeok!; oyek lateŕia apurtzeko xedeetan ari dira, Euzkaleŕi'az berena bakaŕik izango litzaken beste lateŕi txiki bat euki ta antolatzeko. Zergatik ororena dugun lateŕitik aldentzea?; zer egin lezake oŕen txikia dan Euzkaleŕi'ak bakaŕik?; nola bizi?; nora saldu gure lantegietan egiten dana? Erokeria da asmo ori gaurko ontan batik bat; gaur Ludi'an barna Eŕi ta lateŕi aundienak ere antolatzea da beaŕena, indaŕa naikoa euki al-izateko ta oŕela biziari eutsi al-izateko. Emengo izkuntza zaŕa ere ez da bide egokia gizonen asmo ta yakintza edatzeko; beste izkuntzak dagoz bazteŕetan gogo-lantzean askoz egokiagoak diranak; beraz, oyetako bat gure lateŕiarena danezkero, orixe artu beaŕ dugu guziok guretzat eta zaŕa dana uztea, ori ezinbestekoa dala ao batez onartzean. Txikikerietan ibiltzea ez ote da, gero, aŕokeria?, edo bearbada buru gutxiko jokera?; ta zer dira txikikeri oyek gure asmo zabalaren auŕean?

—Ba-dago, egon ere, gure asmoetarako eragozpen aundia izan diteken beste zerbait, eta itz batez diñozuet zein dan: Eliza. Bai, baña aŕetaz eta zeatzez begiratzeko dugu beste arlo au. Utzi dezagun

lenengoz alboan, Eliza'k aurkezten digun Yainkoa, egitan ba-dan ala ez dan arazoa. Ni neu eztalakoan nago, baña ori siñistea ala ez, bakoitzaren arloa da; ortaz eta guziekiko, ni ororenganako aalke naiz. Baña Eliza'ren gizonak, apaizak, eztute begi onez begiratzen langiīeen buŕuka; berak bai, beren erlijioak agintzen duenez, gizonak oro anayak gerala diñote, alkaŕ maite beaŕ dugula ta beaŕean dagoenari lagundu beaŕ zayola ere; baña beste aldetik etsipenaz bizi beaŕ dugula ta besteen mutirikeriak jasan beaŕ ditugula, zoriona beste bizi batean izango dalakoan.

—Eta orixe da onaŕ ezin dezakeguna, ta bidegabekeri guzien aurka jokatzea ezinbestekoa dugu bizi beaŕ baldin bada; nola utzi zapaltzaīeai bidea zabalik?, menpekoen lepotik bizi ta gañera baŕe--egin dezaten?; ez, ori iñozokeria izango litzake; ta geuk, bizi ta alik eta ongienik bizi al-izateko eskubideari eutsi beaŕ diogu, bai ta oŕen aurka dagoen guziari eraso egin ere.

—Ortxe nire asmo ta iritziak; zuek zerate orain egokia irudituko zaizuen bidean sartzea erabaki beaŕ duzutenok. Ta norbaitek ezer esan edo galdetu nai baldin badu, alegiñak egingo ditut erantzuteko.

Txalo egin zioten izlariari, ez bero-bero alaz ere, ez guziek be. Orixe oartu zuen bereala Diaz jaunak eta naiz gasteiztaŕari goralpenak egiteko naiz beste lagunak sutarazteko ta adorea emateko, onela mintzatu zan aurki:

—Ongi mintzatu zera ta zer ikasi asko erakutsi duzu zure itzetan; alan eta guzti bi arazo aipatu dituzu, ene ustez, oso ondo begiratuta edo ez dauzkazunak; bat, Euzkaleŕi'ari buruz aipatu duzuna; ortan ni batera natorkizu osoro, ene ustez alde ortatik arestian sortu dan jokera guztiz asmo okeŕa dalako; baña ezin uka dezakegu ortxe euzkaldunen biotzari sakon ikutzen zayon zerbait dagoela, ta biotza dugu gizonen egipen, apeta ta jokeraetarako eragiīe nagusia; oŕengatik, biotzari jo-egin gabe, burura eraman beaŕ ditugu gure oarpide ta argitasunak, egi nabaria ala okeŕa nun egon ditezken ikus dezan. Bigaŕena, erlijioari dagokiona da; ni ere ez naiz oso elizkoya, baña ene siñismena zearo galduta eztudalakoan nago. Eiki gizonaren izakerarena da emengo ala ango arloarekiko zalantzan ari-izatea, ta erlijioari buruz oŕela nabilkizuela aitortu beaŕ dizuet, eta azkenez eztakit bein-betiko erabakirik artuko ote dudan. Erlijioa neuŕi aundienean biotzari ere dagokio ta oŕengatik eztugu iñor indartu beaŕ,

onaŕ ala astandu dezan; norberak ere ortaz berarentzako bidea aukeratzea.

—Solozabal'ek: Iru arlo erabiīi dituzute emen: lenengoa, langiīe bezela, langiīeai buruz; ortaz nik oso ontzat artzen dut langiīeak beren eskubideen alde jo dezatela; nola?, nik eztut ikusten nola, zuek adiuŕ onekoak zerate ta zuek erakutsi beaŕ bidea. Bigaŕena, erlijioarena; ene ustez etzegoen emen ori aipatzeko beaŕik; baña gai ori atera duzutenezkero, ni neu kristaua naizela esan nai dizuet, oŕela ziran nire gurasoak eta aran ontako guziak, eta kristaua izaten jaŕaitu nai dut, bizi ontarako ta gero besterako ere bide oberik ikusten eztudalako; oŕela izatea ere nai-izango nuke, bai langiīeak eta bai gizon guziak be; baña ontaz bakoitza da bere buruarekiko erabakia artzeko gai. Irugaŕenari buruz aurka nauzute oso jaunak. Euzkaleŕi'aren alde sortu ta zabaldu asi dan ekintza on eta beaŕ-beaŕezkoa dugu ene ustez; gure Eŕia Egoeŕi'aren menpean dagoenetik iltzera doakigu zuzen-zuzen; zergatik il beaŕ da gure Eŕia?, ez ote du, beste Eŕi guziak bezela, bizi-izateko eskubidea?, ez ote da egoki ta bidezkoa guk, euzkaldunok, gure Eŕi'aren alde jokatzeea?, ez ote da bidegabekeria gure Eŕia zapaltzea Egoeŕi'ak eta Ipaŕeŕi'ak dagiten bezela? Okeŕ zaudete zuen iritzietan eta euzkaldunok gureak diran eskubideen alde jokatuko dugu beti ta eten gabe.

—Zelaya'k: Nik uste nuen langiīeen arazoai buruz bakaŕik ari-izango giñala, baña beaŕik gabe beste bi arlo oyek ere ikutu dituzute. Egia da irurak gizonari ta euzkal-gizonari dagozkiola ta, apika, zaīa bide da bat aipatu ezkero besteak ixiīik eukitzea. Dana dala ene iduriko langiīeen artean beren asmo ta beaŕak izan beaŕ ditugu erabiltzeko bereziki, besteak beste tokietarako uztean.

Etzuen beste iñork ezer esan eta orduan:

—Gasteiztaŕak: Bai, Zelaya adiskidea, zaīa da gu bezela ari-izatean arlo bakaŕean guzia zedaŕitzea, ta bidezkoa, aitzitik, besteak ere aipatzea, ain zuzen Ludi ontako asmo ta egipen guzien egiīea gizona bera dalako, ta guzietan agertzen diran azpegiak gizonari berari ere dagozkiolako; ta gañera azpegi batzuk, emen aipatu ditugunak bezela, alkaŕi eragiten diotelako. Ta ezin uka dezakegu emen eta beste tokietan ere, naiz erlijioa naiz Euzkaleŕi'ari buruzko jokera, langiīeen arloetan nai ta nai ez eragiten dutela; oŕengatik oso beaŕa izan zait emen aipatzea ta oyekiko nire iritzia ematea. Orain zuek zerate guzietan zuen bideak artu beaŕ-izango dituzutenok.

—Diaz'ek: Izpidean zagoz, laguna, ta erabiīi dugun guzia onela gera diteke ene ustez zedaŕitua: langiīeen eskubideai buruz guziak batera gatoz, beraz jo dezagun auŕeruntz ortaz guziok alkartuta; erlijioarekiko utzi dezagun bakoitza bere bidea artzeko yarei; ta Euzkaleŕi'ari buruz sortu dan egin-gogo beŕia, ain gauza txiki ta motza dala-ta, ezta aipatzekorik ere; berez jausiko da bere txikitasun eta uzkeria ain nabariak diranezkero, eztu auŕera jo al-izango ta azkenez guziok bat izango gera lateŕiaren bizia indartzeko ta ain beaŕa zaigun bere zabalean guziok ere obeto bizi al-izateko.

Onela mintzatzen, izlaria lagundu nai-izan zuen, eta bide batez beste arloai gaŕantzia kentzea ere, naiz eta berekiko Euzkaleŕi'aren arloak kardaba aundiena ematen ziona izan; ta bera uŕuñatzea zan, bere aburuz, aurka egiteko bide egokiena.

Ongi xamaŕ amaitu zan azkenez bilkura ura, ta irakasleak mekoka-mekoka oŕela ontzat artu beaŕ-izan zuen. Eta eŕiruntz itzultzean abiatu ziranean, alboan zeramazkien izlari ta Patxiko'ri buruz onela esan zien.

—Diaz'ek: Ikusi duzutenez, emengo langiīeak eztira oindiño egiazko gai gaurko asmo beŕiak zearo onartzeko; atzeratuta dagoz oraindik eta lana egin beaŕ-izango dugu beren begiak egokiro ideki al-izateko.

Bidezkoa al zan gure irakaslearen iritzia? Gerokoan ikusteko. Orduan langiīe ayengan ba-zuen erlijioak bere gaŕantzi aundia, ta beste aldetik beren Eŕia maite zuten barnetik; ori dala-ta goganbeaŕean beren baitan; eta beren buruari galdetzeko: Baña eziña al da langiīeen alde jokatu, erlijioa ta Eŕia ukatu gabe? Ta ixiīik egin zuten Eŕi'rako bidea; an alkaŕi aguŕ egin eta bakoitza bere etxera joan zan, entzundako guzia miīa birundaka buruan.

Edozein eraz, irakasleak azia ereintzea lortu zuen, okuntza onean izan ezpazan ere; erneminduko al litzake?; ori berarentzako ezpai ta kardaba aundia; baña jaŕaituko zuen asitako bidean, eta egunen batean uzta egokia jasotzeko abagune ona agertuko zan ausaz.

Labearen eztanda

Auŕeruntz zijoan udagoyena, egunetan ikusteko ta oartzeko laburpena; etzan oindiño oso atzean geratu udarena, naiz eta dagoaneko aroa izan udazkena. Berorik ez baztešetan, baña otzik gabe oraindik, ez luŕean ez aidetan, eta ego-aizea zetoŕelarik atsematean, eguratsa oro epel goxoetan.

Alaz ere, eguraldi ona ba-zijoan amaitzera, bearturik ala nola izango bailitzan gizona, izaki guziak bezela ontzat artzeko mugaitz ala mugona, ta txaŕa izatean ordukoari zegokiona.

Aguŕ beroari, muzin otzari, oŕela oso izadi, onartzeko ezer nabari, naiz gizaki naiz abere ta landaredi, auŕekoa utzi ez nai, uŕengokoa onartzeko zapuzti, ta bien arteko oro urduri.

Goizetan beranduago eguzkiaren oboa, eguerdietan ezin edo emateko bere beroa, aŕatsaldeetan ilūna arin eltzekoa; oŕela eguna laburagoa ta gaua luzatutakoa, argia indaŕ-bakoa, ilūntzea areagoa; beruntz izadi osoa artzeko bailuen loa; biziduna ezin agertu aŕoa, orotan iltzearen edo margoa; oŕela nabari-erazteko urtezaroa.

Alan eta guzti, ba-du Euzkaleŕi'an egiazki udagoyenak bere, zerbait dala deigaŕi; mendien gañetik egazti, manda-uso, paga-uso ta bas-uso igarotzeko ugari, ta berak aŕapatzeko alegiñetan gogoz eiztari; uŕ, intxauŕ eta gaztañak biltzeko, ziŕin-zaŕan nekazari, menditik orbela jeisteko arduratsu itaulari ta eŕeturak pizteko gero soloan izeki; oantze ta obi ametsetan ia guzi zomoŕo ta pizti.

Epeltasuna udazkenaren giroa, ibiltzen on-egiteko txangoa, mendietan barna jasotzeko ere garoa, ibayetan dagoaneko ura naikoa, eguratsan artzeko aize gozoa, biziarena zana geldi ta naroa, aŕatsaldean mendietaruntz soa, edeŕesteko ziguin-margoa; orotan oindiño aski beroa, atsedenez gizonagan zabaltzeko gogoa.

Udazkenean ereintza, itxaropen-ereintza; buruturik izanez biltza, bereala luŕari eske uŕengorako eskeintza, landatuz, ongaŕituz, antolatuz, ematean losintxa. Udagoyenean gentza, egindakoa len aŕentza, gizonarentzat zuzentza, bizi guzirako gurentza. Urtezaroa edeŕ eta nekearen azkentza.

Udazken artako egun batean, Elortza jauna jeikitzean, oitura zuanez oso goizean, urtezaro aren bete-betean, epeltasunik ez orduan ere bere barnean. Gartsuki ta ameslari bere gertutzean, laisteŕ uzteko oea otzean, gaua igarota atsedenean, eguna argitzeko iŕikatzean ..., buru-belaŕi sartzeko bere lanean.

Pozez beterik ikusten bere burua, jeiki ondoren leyora leyaz eta usua, Araitz'eruntz soa arin zuzendua, aitzpean baitzegoen bere yorana kokatua; orduan bere amets guziak izena zuten altzairua. Dana zeukan ordukotz atondua: Sei ur-jausien atsegiñezko oŕua, sei txistola indaŕa lortzeko aŕas ongi oro gertua; ba-zegoen artarako eldua lan beŕian asteko ordua; egiña ere lanerako atondua Yokin'ek eratutako egitaraua.

Altzairuzko eŕia Araitz'pekoa alegia; oŕela deitzeko izango zan egokia, bertan eta nun-nai aipatzeko egia; betetzeko, bai, arayaŕ aren leya, txoko artatik edatuko zan goraintzia; oberik nun naya?, nun egokiagorik iŕitsia? Asmo guzi ayek ematen zizkiotela ugaria Elortza'ri poz, aŕotasun eta bizia.

Beste ametsik ez arengan, arek betetzen zuen oro bere baitan; ezkongai izanik an bizi zan bakaŕik etxean; ibiīi ote zan iñoiz ezkontzeko asmotan?; erantzunik emateko iñor ere inguruan; nortzuk aideak bere sendian?, noizean bein bi ilōba agertzen ziran bere ondoan, eldu ta itzultzeko berealakoan, bizi ziralarik apika oso uŕutian.

Eta lantzale puŕukatua zala-ta, artan osoa bere apeta, artarako yardun bere gogoeta, artaz oro oldozpen eta eleketa, goizetik gaberarte zitzaion ariketa, zin-ziñez jaŕaitzeko seta, beraren berariz lanetik zeukan barnekoa beteta, berarentzat iñoiz beste edozertarako beta. Elortza jaunak gogo ta biziz ekintza artarako buru ta biozketa; eta buruz gañetik lan eta lan egunero, zain eta muin buru-lanketa.

Egun artan, besteetan bezela, arin bete zuen gertutzekoa, berea-la; garbitu, jantzi, gosaldu ta abiatzeko egiñala. Ba-zeukan zer egiteko beterik landola, ta bertan asteko lipaŕ batez ez-bai, ezmez, nora edo ala. Berarentzako lenengo lana lantegira joatekoa zala, jokatu nai zuen beti oŕela, ez iñoiz eta ezerengatik bestela; landolan geratzea egokia, bai, zitzayola, baña bere buruari an agertzea lendabizi eginbidea jaŕita zeukan edonola; ta bideari lotu zan egun guzietan lez, bizkoŕ, zalu, beroturik odola.

Aldapa gora zijoan bidea, edeŕ zitzayon beti artatik joatea, bazteŕ guziak begiratzea, adorez ibiltzen eltzeko zegoen tartea. Eskumaldean Intusi basoa ikatza emateko oindiño zuraz betea, txondaŕetan eguŕa galdutako ezea ta egokiro erdizka eŕea. Ba-zuen andik igarotzea eragabeko zioa berarentzat ez oso gogokoa, norbait al eta ezin gogoratzea; ain zuzen Azpaŕena'ko endorea ta onek egindako zugatz-eskea, nekezkoa zitzayona ta beti izateko ezinbestea; erantzuteko, bai, noraezea, baña beaŕezkoa eiki gerorako uztea, ba-zuen lana naikoa lantegiaren zabaltzea ta altzairu lortzeko era beŕiaz oldoztea.

—Ola zaŕ ondoan igarotzea zegokion bidean, eta ura bai atsegiña ematen ziola barnean; edeŕespenez gogoraturik bere baitan an olagizonak izan ziranak aspaldi-aspaldian ia beren besoak bakaŕik ariizateko lanean, asita goiz-goizean eta oso berandu arte gauean. Bere auŕekoak izan ziran ayek burnia lantzea, igaŕi ezin orduan, sortuko ziran auŕerapenak, gero, egunen bidean, ain egoki jaŕiko zan labe goyan ez eta galda-burni eta burni urtua obetzean biurturik izango ziran altzairuan. Dana, bai, auŕeratzen beti gizadian; berak aboro auŕeratzeko burni-gaya bere lantegian. Axe egiteko, noski, bere lanean eta bere bizian; ura gizon bati gizonki jokatzeko era egoki ta berezi egitan. Aŕituak aspaldidanikoak benetan piztuko balira ta egun auetan burnigintza nola burutzen dan ikusten lanetan.

Ona emen ortarako, berak eraikitako tximistola; ur-jaustea zerabilten beñola, zuzen eta era artaz indaŕ aundia galtzen zitzayola burnia nekez lantzeko alan ola; amaikatxo orduan gurean mendiola ta ziaŕola, ayetatik ezer onik ateratzeko ba-zegoen oso aundia zan ajola; egun gizonaren adimenak sortu du berari dagokiola, asma alako auŕerapen erabiĩi ta ustiatzeko, eta nola! Elortza'ren ametsa bere barnean eztia bezin goxo zeriola!

Ba-zijoan gero tximistola atzetik asten zan bideskan bero, ibai ondotik zearka-mearka, zidoŕa izan ezkero, ta ituŕi goŕi bat alboraturik, uzkintzat egunero utzitako zepa-meta laŕi erditik goruntz egiñiko lasterbidea kemenez arturik goraño eldu zan lero; eta naiz laburra izan inda artan luzero, beti bezela atsanka ta izerdixkaturik gero. Pizkat gelditu zan ats artzeko, oitura zuenez goizero ta berdin bere buruari beŕesanez «lasterbide nekebide», ala beaŕik egunean-egunean ziero.

Antxe auŕean zegoen berarentzako zan bizia, ta bizi-izateko ta lanegiteko bide, giro, bitarte ta egurats, zabal eta berezia; lau-unetxo

artan lantegia; gorago Araitz'en oñean iturbegia, eten gabe ura ematen naro ta yoria, egokiro ustiatzeko indaŕ-ituŕia; ta berago urtegia, aren emaria tximistindaŕa biurtzeko eyera egokia. Bidezkoa zan oso alkartu guzia, ta ara berak lortutako biltze ta ekintza guztiz onuragaŕia; oro ustiatzean, bera bai, noski, baña langiĩeak ere ta eŕia.

Beti bezela, begien auŕean zeukanak eta buruan bero zerabilzkien oldozpenak adoretuta, su ta gaŕ, odola irakiten zitzayola-ta, kartsu, leyatsu ta biotz gorituta, egun artan beŕiz ere, berarentzat eliza izango bailitzan eta lanerako azkuz eyatuta, sartzera zijoan beste guziaz aiztuta.

Ba-zegoen ia atean, eta ara, ustekabean, lantegitik ateratzean, Yokin agertu zala unealdi berean; eta biak gelditu beaŕ alkaŕekin aurkitzean, alkaŕi ere mintzatu beaŕean.

—Yokin'ek: Egun on, jauna!, gaur ere onuntza?, ez galtzeko edo oitura?; ongi al zagoz?, ezer ote gura?

—Elortza'k: Egun on zuri ere, Yokin; ongi ñabil bai; geyenetan berdin; beŕiren bat ausaz beaŕ al dut jakin?

—Yokin'ek: Ez, eztago beŕirik, guziak dirudi ondo zuzendurik; ortxe dituzu lau labe gerturik, biar astean, gure altzairua ikusteko urturik; boskaŕena geroxeago burni-mugeŕa ta burni-manganesa txandaka ateratzeko bereizturik, eta seigaŕena gaurkotz eta beaŕean besteen ordeko izateko utzirik. Ba-dakizu oŕela dugula guzia antolaturik.

—Elortza'k: Orixe bera, adiskidea, ia guzia uste dugun bezela ondo buruturik lortzen dugun ikustea. Nora zoaz orain?, bidezkoa deritzait galdetzea.

—Yokin'ek: Emen ene beaŕik ezpaduzu, tximistolak dagokit begiratu ta biar lanean asteko, ongi dagozen egiztatu.

—Elortza'k: Eztut beaŕik ez; zoaz xedea duzun bezela, guzia atontzeko zeatzez. Ni ere arin ibiĩiko naiz, nai ta nai ez, landolan baitut lana mukuŕu ta gañez.

—Yokin'ek: Aguŕ, bada, jauna!

—Elortza'k: Aguŕ zuri ere, gizona!

Nork uste-izango zukean, ura izango zala ayen arteko azken aguŕa!

Len Elortza jaunak egindako bidea goruntz, orain Yokin berdin egitera doa beruntz. Eta arek ametsak bazituen altzairu ta lantegiarekiko, etziran gutxiago Yokin'enak ango lan guziak zuzentzeko; berarena zan Zirauntza'ko ur-jausteak neuŕi aundienez ustiatzen asmo iza-

teko; berak ere ura lenengoz ikusi ta gero begira, aztertu ta guzia antolatu zuen, egokienik jartzeko.

Zepa-metatik bera zijoalarik, maiz buruak ematen zion burdin-letzo ura nola ustiatu litekenik, birundaka oldozpenak bere baitan ari zitzaizkiolarik. Zieŕ-leku ura aundia ere izanik, laisteŕ edo, gañez egiteko ote litzaken bilduŕik, eta orixe beste aldetik bigaŕen zioa aterabidea biīatzeko zegoela bearturik; burnia naikoa zegoen oraindik zepa arekin nastu ta mukulu batean bildurik; eziña ote alkaŕenetik banatzeko biderik? Nork jakin!; ikustatuko zuen noizpait tximist-labe beŕietan zerbait egin ote litekenik.

Gogatsu zijoan, beraz, lanari ain atxikia zan gazte ura, adoretsu beti, lana antolatzeko erabiltzen aŕeta ta ardura; ajola gutxi berarentzako ogasunekiko aŕankura; ametsezkoak zitzaizkion, aitzitik, lantegiaren bizi ta egitura; beste guzia zan berarentzat gaindidura, bere lana ta leya baño besterik ez asko arek gura; ayek ematen zioten gonburuz biotzean atsegiñaren edadura.

Antxe bertan zeukan elbururako bidea, antxe bai, tximist-lankai beŕien antolatzea, an ayek ikustatzeko ba-zijoala, idekitzera atea ta... Tanpa! ikaragaŕiak gelerazi zion eskuz burutzeko bere xedea. Eurtzuriak dart dagien antzera, belaŕietatik gogoŕ barnera, ortzantza bailitzan gañera, taŕapataka dunbotsa beŕizten ostera. Zer ote zan dunbots ura? Ozkarbian odeirik ez, ekaitzik izateko itxura; nundik ote danba aren edadura? Ba-zirudien Araitz osoan oro lertu zala, alako su-mendi baten iŕikadura.

Txunditurik, aŕi ta belaŕi egiñik geratu zan Yokin danbada ura entzunik eta eskua edatuta zuelarik, ateraño eldu gabe zitzayon gelditurik burura eramateko izuturik. Zer ote zan ura atemateko aña ezer etzalarik, une batzutan geratu zan bere oldozmena zuzentzeko eziñik; baña nolanai ere burua jaso zuelarik, bere barne guzia zearo izan zuen durduraturik, begien auŕean ikusten zuena siñistu eziñik: Ke-mordo beltza igoten zala lantegitik ... dunbotsa ere, beraz, toki bertatik ... oŕela izan zala egizturik, arek iñaŕosi ziola indartsuenik bere izana oro ta osorik.

Eta goitik bera gorputz guzia latz-ikaratuta, gogoa beste ainbat edo geyago urduri ta asalduta buruan oldozkun eta gogoeta, susmo txaŕenekin itzulikatu, naspiīatuta, argi gutxi ikusteko bere baitan guzia nastuta. Zearc zoratuta, senez bultzatuta, burubiderik eratzeko

ezinduta, jetsi zan bidetik goruntz abiatu zan guztiz kordokatuta, goyan zer ikusi beaŕ ote zuen saŕakioa bereganatuta.

Atsanka, kaskoraño eldu zan arnas-estuka, baña aldarterik gabe lantegiruntz jo zuen jaŕaika, bereala gelditzeko, antxe agertzen zitzaionaz izu-ikaraturik eta dardaraka.

Zer ote zan begien auŕean zeukan ikuskizuna? Ura lazkoŕa an aurkezten zitzayona! Lantegi osoak sutan eta kixkaltzen zemana; ate, leyo, aŕail eta idekidura guztietatik ke zeriona; moltzo-piīoka, barneko indaŕ batek gañez-eragiten zuena, guztiz mukuŕuturik lekorera ertsatuki, tinka-tinka irteten zana.

—Zer gertatu da emen? —Asi nai zuen gogo ematen, baña astirik ez berealaxen, atetik ikusi baitzuen irteten zala gizon bat eta mamua zirudien, itsu-mustuka burutik eginda, ozta-ozta auŕeratzen. Berarengana Yokin'ek alik eta laisteŕen, eutsi zion gogoŕ baitzijoala jausten, eta ara erdu ziran bi gazte laguntzen, irurak alkaŕekin luŕean aŕetaz etzanda uzten.

Gazte ayei buruz: —Zer ote da leŕ-egin duena? —ta ayeruz, aldamenean etzanik langiīeak ikusten zituena, ayenganuntz so-egiten: —Eŕan, guziak bai irten?, au izateko edo azken?, eŕan, aŕen, zeatz eta zentzuz lenbailen!

—Gazte batek: Guziak ez, zoritxaŕez; bi edo iru gutxienez ortxe ditugu atera beaŕez.

—Yokin'ek: Goazen oyen biīa laguntzeko nayez, alik eta azkaŕenez.

Eta sartzera joan zan jauzi batez; gazteak atzetik beteta yoranez, oratu zutela indaŕez.

—Gazte batek: Oŕ eztago sartzerik, Yokin. Baŕuan ke, auts eta eŕauts baño besterik ez, oro eŕakin; oŕa sartzen bazera ito geratzeko ta il-agin, oŕ dagozen gaxuen antzera, bai, berdin; emen guzia dugu eriotzaren ondakin.

Ayengandik izateko yaregin, indarka mokokatu zuen, buŕukan egin, baña egiñal aundienetan yardunaŕen, ezin. Amor-egin beaŕ azkenez nai-izanaŕen etsi-etsian ekin. Eta itxes izugaŕi aren auŕean biotzeko zearo min; galduta ikusten zuen bere burua besteekin; bat-batean oro suntzituta, oro ondatuta ikusi beaŕ gaŕaztasunez eta gordin.

Aldi batez eta biotzak bat-batean emanik, bere burua begiratzen zuen erantzukizunez beterik, eŕudun edo, ezbeaŕ lazgaŕi aren erdian

ondaturik; bera lantegiaren zuzendari izanik eta ororen burua zalarik, nola etzion buruak eman gaitzuŕea litekenik?, nola ez antolatu labe ta lankai erabiltzeko era oberik? Eta orain langīle geyenak bere begien auŕean zauriturik, eta baŕuan beste batzuk, zenbat?, dagoaneko īlik.

Erotzeko kinka laŕiena orduan gizon zintzo arena; ekiteko bakaŕik jayoa zirudiena ..., ta an zegoen geldirik, zer egin etzekiena, estu, laŕi, ertsiturik; ura bai, egokera latz eta burutik nastuena.

Besotik eldu zion gazte ayetako batek, esanez: —Yokin, zerbait egin beaŕ dugula nago ustez. —Itz motz ayek esnagaŕi zitzaizkion indaŕez; astindu zuen burua, barneraño yoranez; lanean jaŕi-erazi zion bere zentzunari alegiñez, egia aurkeztu zitzayola ala beaŕez.


—Yokin'ek: Bai, izpidean zagoz ... zer egin beaŕ dugu lenengoz? ..., zer? ... nundik asi alakotz? ..., bai, ondo al zagoze zuek buruz eta zangoz?; orduan zoazte ariñiketan eŕira gogoz! Igo ditezela lenbailen eta beingoz, sendagīle, apaiz, endore, alik eta gizon geyenak alkaŕekin oroz; ekaŕ ditzatela arkutsak asko, eritu ta zaurituak aunitz baitagoz; zoazte aizea baño azkaŕagoz.

Aŕapaladan jo zuten gazte biak beruntz, ezbeaŕen mezulariak eta laguntzaren eske zirala bialiak; ayen kemen, ardura, zudu ta leyak!

Bitartean Yokin etzanda zegozengana biurtuta, bakoitzari bere izenaz deituta, nola zegozen burutzen ikusketa, guziak agertzen zirala izututa; geyen-geyenek zaurituta, batzuk, aren ustez, oso gaizki ta minduta; baŕuan geratu ziranez gogoratuta, nortzuk ziran galde ta ezagututa ..., bat-batean areago asaldatuta, susmo laŕigaŕiak jo-ta: —eŕan, eta Elortza jauna?, lertze-unean bera be barnean zegoen-eta?, ez ote iñork orduan ikusita— —Ura izan zan dardaraka eman zuen itaunketa!

Burua makurturik iñork etzion bereala eman erantzunik; ba-zirudien ortarako bat ere etzegoela gerturik, eta egia esateko ere ez oso ausarturik; isituki Yokin, ayei ekin-ekiñik, eta azkenez, adiñeko langīle batek, aoa ertsiki idekirik: —Eztanda egin baño lentxeago labe aundiruntz zijoaļarik nik ikusi dut, ara zuzen-zuzen abiaturik...

Nork esan, ura entzunda, Yokin'en barnean nola guzia egin zitzayon birunda?, maīu aundi bateaz jo-egin baliote bezela, bere baitan buŕunda; ta bere buruari eutsi eziñean, luŕa jo zuen etsi-etsian bulunba. Goizean jeiki zan ametsetan gozokiro irunda, gerokoari



buruz gogatsu zijoala keŕ-keŕ eta ekurunda, ...; ta bat-batean oro jausi beaŕ amiltegira bunbulunda ...; guzia zan berarengan ilunda, oldozmena oro naas-maas eta yarduteko astunda. Labe aundia eztanda, lantegia, noraño?, poŕokaturik izanda, Elortza zuzendaria gorpu etzanda; ura ondamendia guziek izateko yasanda.

Yokin'en burua, zorigabeko unealdi latz artan, mordo-naste ta zuŕunbilo ikaragaŕi oro batean; bere baitan sortzen eta itzaltzen ziran asmoak alkaŕen ondoan; ezin bat bakaŕik atsiki ari buruz jaŕaitzeko oldoztean; eta amaika ziran beregan zoro-aldi artan oldartzean.

Zearo luŕ-jota zegoen gizon gazte ura ebainduta, lantegia zeukan antxe ondatuta, oindiño ke zeriola alde guzietatik yalgita; langile geyenak zaurituta, bost ola-gizon ilak jausita; nagusia bera ayekin batera betiko erorita; ta geroko biziarekiko guzia agertzen zan itxita. Ez ote zegoen, gañera, elkaitz guzi ayek zekarzkien eztanda ura zala-ta, berari zegokion yardespen aundia ertsita?

Etzanda zegozen gizonai so-egiten zien, eta bereala lantegiaren ateruntz begi biak zuzen; areago biotza, ate aren atzetik zegoen ormaen baŕen; bizirik ote an geratu ziranen bat bederen?; Elortza jauna ere, nola baña il zitekean antxen? Kea gutxitzen zijoala zirudien, eta beaŕa zitzayon oso guzia ezabaturik ikusten, sartu al-izateko ta begiratu an zer ote zegoen.

Baña ezin buruari eutsi zer egin beaŕ zan argi ikusteko; guzia zan berarentzat ilun, zuŕubuŕuka erabiltzeko; oro ..., ametsak, itxaropenak eta burua bera zearo galtzeko; zai zegoen, zeren zai baña jakin gabeko; laguntzaren zai eiki, berarentzat eta ain gogoŕ jota zegozen gizon ayentzako.

Ta eldu zitzayen, azkenez, an agertu baitziran sendagile, apaiza, endore, ito-itoka zetozenez; ez soilik, alaz ere, atzetik amaika lagun be jaŕaitzez; emakumeak batik bat ugari ta negaŕez. Eŕira jetsi ziran gazteak zerbait esanez, eta gero eŕiko agintariak nola igitzen asi ziran ikustez, zuŕumuŕuak ugari alde guzietatik zeaŕez. Dunbotsa entzun zuten guziek, kea ere ikusi bide batez, eta lantegian matxuraren bat izan zala ororen ustez; lenengo susmoa aurki aunditu zan, noski, ala beaŕez, eta lantegian zegozen aita, senaŕ, anai ta nebai buruz zer gertatu ote zan oro bilduŕez.

—Au ondamendi ta itxesa, jaunak! —esan zien Yokin'ek eldu beŕiei—. Aŕen, begira ezayezute lenbailen eta lenengoz, zauriturik

dagozenei! Oŕela egin zuten sendagile ta apaizak agertzean zudu ta adei.

Langile bi aurkitu zituen sendagileak gaizki, ez ainbeste besteak; lenengoak sorosi zituen aŕetaz eta bereziki; arkuts banan jaŕi-erazi zituen biak poliki, ta apaizari buruz: —Zoaz zu apaiz jauna bi auekin, eztakit besteena baño zure laguntza beaŕ ez ote duten, eiki. —Ta besteengana biurturik bat-bana sorosi ere, lenengo sendaketak egiten al-izan zuen bezin egoki. Ta ayek be, arkutsetan batzuk eta besteak oñez beren sendikoek lagunduta eŕiruntz aurki.

Negaŕez, zotinka, auen eta ayenez beterik emakume guziak; kaŕasika beren urko-aideak aurkitu etzituztenak; nun ote zegozen deadarka galdetzen zutenak; lantegiko atera urbiltzen eta bertan sartzeko alegintzen ziranak. Yokin eta endoreari eŕaietaraño sartzen zitzaizkien negaŕ-maŕaska guziak, eta ezin ayen oñazea biguintzeko aurkitu iñundik ere itzak.

—Eguŕola'k: Yokin, udaletxean bertan oe batzuk jartzea egokia iruditu zaigu lendabiziko bidea, ta an zaindurik izango dira zaurituak; orixe astea. Baña orain emen zer egin beaŕ dugun dagokigu begiratzea; dakusdanez oindiño zala dala deritzait lantegian sartzea; baña alegiñak egin beaŕ ditugu oŕ geratu diranak artu ta ateratzea; ez al dizu buruak ematen ori lortzeko zer bereala egitea? Ene aldetik Mikel'i dei-egin diot ta ona etortzeko eskea, arek burua baitu kinka txaŕetan laguntzeko, iñork baño obea; ta bide batez zuri ezer jazo etzaizula jakin-erazi, izan eztezaten an nekea.

—Yokin'ek: Eskeŕik aunitz, biotzetik, Eguŕola jauna; egitan ni enago orain ezertarako, oso kamustuta baitut adimena; nork uste emen izango litzaken onelako ondamena?; sei gizon il, bat Elortza jauna izanik, iltze oyek, noski, txaŕena; ta lantegia biŕinduta, su, ke ta auts oro biurtuta, dana latzena; nire yardespena ortaz ez ote da, gero, aundiena?

—Eguŕola'k: Ez oldoztu oŕezaz, Yokin, beste zera dago beaŕena; ba-dirudi kea gutxitzen ari dala, zearo adelatzea guretzat onena; zer egin genezake, geron aldetik oŕela izateko burutzearena? Baña ara, emen datoŕ Mikel, azkaŕ egiñik bere erdutea, lasteŕena.

Antxe agertu zan, bai, amamiotaŕa, beste batzuek lagunduta; Yokin eta endorearengana jo zuen kezkatsu ta arduraz beteta.

—Mikel'ek: Nola ago, Yokin?, iri buruz kardabaturik oso nentxetoŕekan eta; zauririk edo miñik ez ote igana elduta? Bidean ori

esan zigutek, baña zaĩa niretzat egon lasaituta. Jakin ere ba-zekiat bost edo sei il zegozkiguala, barnean geratuta. Zer egin ditekek gorpuak lenbailen ikusteko aterata?

—Eguŕola'k: Orixe dugu begiko fitsa, bide egokirik ikusi gabe; zer edo zer dago oŕ sutan dagoena, tai barik ematen euŕez ke ta ke; ta kea beaŕa zaigu amaitu ala neuŕia naikoaz lortu bere gutxitze.

—Mikel'ek: Atetik dakust ke geyena dariola; ez ote zegozkik, Yokin, albo edo atzean beste ateak?, oyek idekitzeko ona edo ekin.

—Yokin'ek: Ba-zegozkik beste lau, ta ire iritzira zearo natxetoŕek irekin; guziak ideki ezkero, eŕazago kea ateratzea, areago beredin.

Besterik esan gabe, ara joan ziran gizon guzti ayek, lantegiaren alde bietatik, laisteŕ aurkitu ta idekitzeko ate guziek; bat bakaŕik ezin, barnetik moŕoĩoz edo langaz zegoelako itxi ta tinki, oŕela egindako norbaitek; aizkoraz apurtu beaŕ, eta orixe egin zuten zalantzik gabe, dangadak emanda, biziek.

Idekitako ate guzietatik kea ugari bereala irten zitzayen indaŕez, nonbait atxiki ta ertsaturik zegoelako, zulo edo bideren beaŕez; eta tupustean eta tuŕustaz irtenik, guziak artuta izan ziran ke-uiñez; atzera jo-egin beaŕ bertan ito ez geratzeko, baña oro zikinduta beltzez. Alkartu ziran guziak, gero, izututa bezela ta arnasa artzean nekez; alaz ere, pozik ikusi zuten ate ayetatik kea geyago irteten gal-galez, eta oŕela, berandu gabe, guzia aterako zala ustez.

Eta ala gertatu zan ain zuzen; zabaldutako ateen bideetan barna, aize-jokera sortu zan eta berarekin kea galgaraka irtenerazi zuen oldarka; lantegitik at begiratzen, ke-lañoa oso aunditurik agertzen zan goruntz eta baldarka; baŕuan guzia eŕe ta zuzituta geratu zala uste-izateko ta an geratzeko aztarna.

Guziak ate nagusi ondoan noiz sartu al-izateko urduri, emakumeak auenka beti, beren senaŕ eta semeak nayean ikusi; endoreak ayei eutsi gura ta esanez obe berak ez sartzeko geraturik zai; alaz ere eziña izango zalakoan lortu ori, baña gutxienez ayen oñazea ibitzeko nai; biotz-estura bera guziengan aŕetasunez zegozela erpai.

Bere lana egin zuen, azkenez, aize-lasteŕak, eta lantegia guztiz aizeztaturik egon baño lenago ere, ara guziak, leyaz beterik baŕura oldaŕ bizkoŕ batez begiratzeko gogoz oro txokoak; arnasa estu artzen kea baitzegoen oindiño ta eztulka egiten geyenak.

Yokin auŕetik, jausitako gizonak nun egon litezken zekielako; estu biotzean baña gogo aundienaz bide batez guziak lenbailen aurkitzeko. Lantegiko zola geyena urez estalita agertzen zan zabalean ordurako; labearen eztandak, eiki, ur-odiak apurtu egin zituelako; txipili-txapala auŕerantzean laisteŕ aurkitu zuen gorpu bat aoz gora eroritako; eta bigaŕena bereala lenengoaren ondoan eta jausita beraren antzeko; labe nagusiruntz zuzen gure gizona, ta ara irugaŕena urez erdi estalitako; guzia erdi-iĩuna egonaŕen, beingoan soŕ eta loŕ, ura Elortza jauna zalako; aren atzetik zijoazen Mikel eta Eguŕola'k jaso zuten ixiĩik gorpu ura arkutsean jartzeko; lenengo biak bezela lantegitik at aŕetaz baña iraduz eramateko; auŕera Yokin'ekin besteak eta beste bi gorpu aurkiturik ayen ondoko; seigaŕena geratzen zan biĩatzeko, iñun ala ere etzana ageriko; ba-zekien Yokin'ek nor zan, labe-zaña ta ari zer gertatu zitzayon eŕaz ulertzeko; labetik sutan sortutako zieŕa ta burni goriaz izan edo zan estalitako; ta gizonaren gorputza be an geratu zan galda egindako.

Oñaze aundi ta samiñenaz irten ziran guziak lekorera, tokirik ez ayen buru ta biotzetan ango zatikatzez egiteko oarkera; Yokin baitipat ondatu ta luŕ-jota, auengaŕiena benetan aren tankera; ta guziekin joan zan zuzen gorpuak ikustera.

An agertzen zan Elortza jauna arpegi erdia eŕeta; nonbait alde artatik izan zuen burni goriaz dangada artuta; alde bereko beso ta gorputzak ere beste ainbeste jasanda; eŕukaŕi, ziñez, ain bizkoŕ eta kemen ibiĩi oi zan gizona ikusiz autsa biurtuta; orobat beste iĩak ere ta ebaindurik ain zorigaitzez jausita; erdiragaŕiak ben-benaz, ayen sendien emakumeengan zinkurin, negaŕ eta erosta.

Arkutsak burusi banaz estali zituzten; eta eŕiruntz abiatu ziran guziak gorpuak eramaten; adiaka zijoazen emakumeak izanezik, ixiltasun osoaz besteak jeisten; arkutsak auŕetik, alargunak eta ondoan, gizonak atzetik jaŕaitzen; ura ibilkunde ituna, ura lazgaŕia zan jokera uŕatsak ematen; udaletxeraño, gero ta lagun geyagoz aunditurik, azkenez eltzen; an lenago eldutakoekin samintasunez alkartzen.

Udaletxea goitik bera gexotegi biurturik; areto nagusian, batez ere, zaurituta geratutakoentzat osorik; iĩak atarian jaŕi zituzten, ayentzat toki iĩunago ta obe izanik; sendagiĩeak lenengoak beŕiz sendatzen al zuen ongienik; gaizkien zegozen bi Gasteiz'era lenbailen eramateko esondaturik; eta idazkaritzan endore, ziñegotziak, Yokin eta Mikel alkarturik, ezinbestekoak ziran eginkizunak betetzeko erabakirik.

Lenengoz Erki'ko agintariai zeatzez gertatutakoa jakin-eraztea; gero, Elortza jaunak uŕuneko uri batean zeuzkan bi iĺobai berdin egitea; ta izpaŕingiai ere noranai zabal zezaten jazotakoa; Gasteiz'ko gexotegira il-bizian zegozen biak eramateko eskatzea; ta bi egun baŕurako iĺen iĺetak nun eta nola antolatzea.

Elkaitza eŕi osoarena zalako, iĺetak enparantzan bertan; Gasteiz'etik agintariak eta beste lagunak asko erdu ziran; apaizak beste batzuekin atondu zuen opa-maya udaletxe auŕean; gero, lenengo eŕenkadan, bost iĺak bakoitza bere zeŕaldoan; agintariak uŕengo, ta beste guziak auen atzean.

Beŕi mingotsa zabalduta, biotz-ondoko zaŕastadak bazteŕetan; ondorioz, iĺetara buŕustadaz agintari, izparkari ta gizakiak aunitz biltzean; Sabin, Eneko ta Xabier ere an Mikel'ekin alkartzean; Mikel'ek, egun iĺun ayetan, Yokin'en ondoan, bakaŕik ez uzteko nayean; noski, Yokin'entzat jausitako guziak bere sendikoak izan bailiran, guztiz erorita agertzen zalako, ari eusteko beaŕenezkoa zan; eldutako Elortza'ren bi iĺobak ere Yokin'en alboan.

Iĺetak unkigaŕi benetan otz-ikara soŕeraztekoak; apaiza bera ere biotz-dardaraz eta erdiragaŕi bere itzaldiaren itzak; lana ta langiĺeak goratuz eta aipatuz beren bizi-beaŕak; gogoratuz ere bizi ontan ustekabez eldu oi dirala zorigaitzak; unealdi artan Araya'koai biotz-biotzean ikutu zizkietenak, ba-zirala gogoŕ, itun, aundi ta, noski, lazgaŕienetakoak. Siñismena esondatu zuen egaritzeko gogo zabalez oñazeak; guziak alkaŕ lagunduz eta alkaŕenganako geituz maitasunak, elkaitza eroapenez jasan al-izateko Yainkoa'ri eskatuz oro kartsuak.

Isiltasuna ororengan, gero, enparantza lagunez zegoela beterik; apaizaren itz eta otoi ezik, etzan entzun iĺeta bitartean txintik; bildutako gizakiak oro norberaren baitan biotz-min berean bildurik; gaitz-asmorik ez iñorengan eta maitasun onenerako guziak makurturik. Geroko bizi-beaŕak, lipaŕ batzuetan giza-biotzean dagoen asmo onik, aldatzeko ezpalio zoritxaŕez emango ain saŕi beste norabiderik!

Obiratuak izan ziran iĺak azkenez alkaŕen ondoan; Elortza jauna, olaren jabea, iĺa, bere langiĺeekin an geratu zan; ayen artean, luzaro ta bere eraz ayenganako zuen maitasunean, bizi ondoren, eta zoritxaŕ berbera yasanik txit tankera berean; beste iĺak bezela egun ayetan batik bat guziek ukan zuten barnean; nagusia izanik ere lantzalea

ikusten zuten guziek arengan, eta oŕengatik batez be maitatua izan zan begi onez begiratzean.

Itzultzean, iĺobiratze ondoren, guziak itun eta ixiĺik ere, zaurituen gogorapena guziai eldu zitzayen besteena uzteke; ta ala beaŕik bizidunentzako, ia bizia gero nolakoa izango litzaken. Itxes aren ondorioak zeintzuk izateko, guziek urduri ezin uste. Giza-biotzaren giriña zoŕotza, elkaitz izugaŕienez izan bete; ta ororen gain biziaren beaŕak sortu beaŕ, iñoiz aizturik geratzeke.

Bizirik geratu ziranentzat, beaŕ-beaŕa gerokoari buruz galdera artu aintzakotzat; naiz berentzat, naiz beren sendientzat, auŕentzat eta eŕia zan guziarentzat; bete egin zituzten beren eginbideak iĺentzat, nola ari, gero, zer egin bizidunentzat?

Lantegia biŕinduta geratu zan; lan guziaren buru zana iĺa zetzan; nola beŕeraiki luŕ jota zegoena, era egokian?, nor jaŕi, nun ote zegoen, ororen beaŕean, lana beŕiz antolatzeko ta guzia zuzentzeko buruan? Galdera ta kezka ugari guzien baitan; estu ta urduri biarko egunari so-egitean.

Ausaz Yokin'engan, erstura aundienaz, jazo zanarekiko bere ustez zeukan yardespenaz, biotz erdian sartu ta kokatu zitzayon arantza zoŕotzaren antzekoaz, eten gabe jasaten zuen gogoŕ ziztakaz; eta gerorako, berarena baño begiratzen besteen beaŕaz. Bere bizi erdi-erdian ondiko izugaŕi arezaz egari beaŕ zuen elkaitz lazgaŕienaz; ziñak eta miñak benetan gazte arengan, biotza zeukala zearo zaŕaztatuaz.

Ongi ikusten zuen Mikel'ek bere adiskidearen egokera, ta oŕengatik ain zuzen antxe zebiĺen adeyez beterik aren ondora; argi atematen zuen Yokin'en barnean miñak zegion ardura, ta bakaŕik ez uzteko alegin guziak egiten, barnetik sortzen zitzayon bereziki gura.

Egiazko maitasunez lagundu nai zuen uŕats guzietan, ain aundiak izanik aren beaŕetan, beingo baten leporatu beaŕ-izan zituen ainbeste atsekabeetan. Ixiĺik alboan, lenengo unealdietan eta bete arte lendabizikoak ziran eginkizunetan; bere laguntza guzia eskeintzen gero, itz leun eta adoregaŕienetan.

Etzan izan Yokin'entzat alpeŕik Mikel'en adeya, ta ari oratu zion bere burua, bai ta ere bere leya; barnean zeraman iĺuntasunean amamiotaŕa ikusten zuen izateko argia, apika, ia ziuŕ, aterabidea emango zion ituŕia, ta arengan jaŕi zuen, etsita bezela, itxaropen guzia.

Iletak egin ondoko biaramonean Elortza jaunaren ilobaekin ukan beaŕ-izan zuen izketan, Mikel'i kartsuki eskatu zion bera ere egoteko bertan, bakaŕik yarduteko bere burua aski izango etzala ustean. Azaldu zien ayei gertatutakoa alik eta labuŕenean, yardespena nolabait bere gain artzean, bai ta bere oñaze ta kardaba ere argienik aurkeztean; eta zer egin beaŕ zuen galdetzen orduan eta auŕerantzean.

Etzuten nai ilobak Yokin'en yardespena onartu; ba-zekiten beren osabak mutil ura nola zuen maitatu; ta jazotakoa aduŕ txaŕaren ondorioaz zeukaten eroapenez leporatu. Garbi ikusten zuten Yokin nola zegoen estu, bai ta eŕi guzia nola geratu zan ondatu; ta gerorako ta guzientzat beaŕ-beaŕa zala zer egiteko oldoztu. Ezin ayentzat biderik nolakoa izan liteken aipatu, nai ezpaitzuten osabaren toki ta lana berentzat artu; ta ezinbestekoan guzia saldu edo egin beaŕ-izango zutela oartu.

Mikel'ek orduan, saltzeko asmoa bein-betiko artu ezkero, ezer egin baño lenago Yokin'en aburua eskatzea egokia izango zala esan zuen bero, ta aterabide onena aurkitzeko bere laguntza ere eskeiñi zuen yardutean aŕezkero, nori saldu beaŕ-izango zioten ikusteko baitzala adioneko, orduantxe ta unealdiero.

Ontzat artu zuten ilobek Mikel'ek esondatutakoa, baña beren ustez erosletzako sortuko zan edonori, beaŕ-beaŕezkoa ayen iritziz, lantegia beŕiturik eskeiñi, guzia ongienik antolatutakoa, bere eguneroko lanean yarduten erakustea edo ezinbestekoa.

Ortaz guziak etoŕi ziran bereala batera, ta egun bitan lantegi guzia begiratzen eta aztertzen ibili ziran goitik bera. Alde-alde bota zuen Yokin'ek alde-aldean noizko ta zenbatez el liteken beŕitzera, ta bide batez langileai ordaintzeko ere beaŕa izango zana, lanean ari-izateko ostera.

Egokia iruditu zitzayen Elortza jaunaren ilobai Yokin'ek burututako txosten guzia; orobat oni eskatu gero, beste xeetasun eta argibideak aurkezteko ere berai; ta irurak Mikel'i batera eskatu zioten bere laguntza emateko arazo guztiai, batez ere Yokin'ek, utz-eziña baitzuen ura ari ez izateko nolanai.

Bayetz erantzun zien Mikel'ek gogotik, eta oŕela lasayago joan ziran ilobak Araya'tik; nolabait Yokin ere jaŕaitzeko indaŕ-beŕiturik, Mikel'engan ikusten baitzuen bere burua zearo entzindurik.

Lendik, adiskide bezela Yokin maite bazuen, areago noski arekin gogoratuz zer izango zan Maḍalen; eta itxesa gertaturik egunero ta

ia aldioro aren alboan zebilen, bakaŕik utzi nai ez izatean leyaz eta biotzez laguntzen; egun ayetan Mikel'ek beste egiterik etzuela zirudien, oren guzietan eta orotarako arekin alkaŕ bat egiten.

Etzekien Yokin'ek bere eskeŕona nola azaldu, eta itsu-mustuan ez ibiltzeko, bere lan guzia alpeŕik ote galdu, ezinbestekoa zitzayon Mikel alboan eukitzea ta lagun zabaldu; osterantzean bakaŕik yarduten etzuen jakingo bere lana bide onetik bialdu.

Onela ari zitzayon egun ayetako batean:

—Yokin'ek: Mutil, ire laguntza gabe enindukek ongi ibiliko ezertan; ba-zirudik nire lana ondo dazagukala zeatzez benetan; eziña izango zaidak neuŕi añaz guzia iri biurtu ordainketan.

—Mikel'ek: Ago ixilik mutil, nire eginbidea duk zegiadana, anaya baitaut eta oraingoz zoritxaŕean etzana; egon adi lasai ta alkaŕekin alik eta ondoenik bete dezaagun lana, biotz suaŕez eta itxaropenez beaŕ guziak onarturik bana; egiñean-egiñean auŕera aterako gaituk, oro erakartzean gugana.

—Yokin'ek: Zuzperturik oso zekuskiat ene burua irekin, eta lantegia beŕiz antolatzeko ongi ere zer eta nola egin; baña gerorako, saldu ezkero, nola ari-izango nauk beste bat izango dukan nagusiarekin?, nola auŕerantzean ekin?

—Mikel'ek: Ez ezaguna diagu ori noski, baña ori gerokoa duk izaki, ta i buru aizelarik, ongi aterako aizela natxegok ni ziurki. Gañera, arazoak bidean jaŕi ezkero, eiki, ba-diat nik gerorako ere asmo bat bereziki...

Bazkun beŕiaren asmoa

Buru-belaŕi yardun zuen Yokin'ek uŕengo egunetan, lanaz leporaño okituta; lantzalezuŕian noski, baña unealdi ayetan ezinbestekoa ere zitzayolako. Jazotakoaren gogorapenak eŕuz betetzen zuten bere barna, bizia jasangaitza egiten ziotelarik, eta lanegitea ongi zetorkion oroipen ayek astandu-erazteko, orixe bide egokiena baita, norbera, edonor, irudimenaren pean ez egoteko; irudimenak ametsetara darama gizona, lanak, beŕiz, kera ta zeatzeko eginkizunetara; oŕa beraz, beaŕ danean odeyetik gora ez ibiltzeko, luŕ gañean uŕatsak sendo emateko baizik, aukerako norabidean ibiīi al izateko. Ondo ikusten zuen Yokin'ek ori, ta ibigaŕitzat artu ere bere burua lanaz betetzea, zin-ziñez eta buruz gañetik lanean osoro ari-izateko. Alaz ere, lana uzteko ta etxera sartzeko orena eltzen zanean, oŕen zai egongo bailiran, zaŕamaŕ eta naas-maas gomutapen itunak bere baitan sortzen ziran beŕiro ameskaitz aztunena bezela.

Lanean sartu ezkero, zain da muin eta beraren berariz yarduten zuen, antolatze beŕiarekiko oro ongienik gera zedin; baña antzelarizuŕian labe goi aren eztanda nola ta zergatik gertatu zan jakiteko egaŕi biziaz ari zan bere orma beŕiak egiteko ziardunean; aŕetaz aztertu zituen zutik geratu ziranak, beren ertzetan sumatzeko bederik ia zer ikusten ote zan begiratzean; geratutako zieŕ eta zaboŕetan ere arakatzen ibiīi zan axola aundienaz aztarnaren baten biīa. Alpeŕik alan eta guzti, etzan ezer agertzen eta ala beaŕik ura berarentzat izkutuki iīunena bezela geratu zitzayon eta oŕela utzi beaŕ-izan zuen bein-betiko, noski.

Gerorako kardaba ere zizti-zazta, barne-barnean xixtaka ari zitzayon sendoki; Elortza jaunaren iīobak bere osabaren tokian jaŕai zezaketeala nai-izango zukean ziñez, eta beste edonori saltzeko ayen erabakiak min ematen zion biziki; nor ote izango litzake lantegi ura ongi eramateko gai?; Elortza'rekin lan egitea on eta egokia izan zitzayon len; orain bakaŕik ikusten zuen bere burua ta etorkizuna iīun.

Iīuntasun artan, alaz ere, pindarño batek ñiŕ-ñiŕ zegion bein-banan bere laŕialdietan; Mikel'ek asmo bat ba-zuela esan zion Elortza'ren iīobaekin ukan zuten azken solasan, eta Yokin'entzat ere arenganako ainbeste edatu zan uste ona gogoan eukitzeko etzan gero nolanaikoa; ziuŕ zegoen mintzatzeagatik ala berari adorea piztu-erazteko be, ura esan etzuela, ta zalantzik ez, egundo ere, Mikel'engan usteren bat ba-zegoela. Zein ote zan asmo ura?; egun batzuk igaro ziran eta naiz egunero alkaŕekin egon, Mikel'ek etzion beŕiz ezer gañeratu; zer ote zera artan? Yokin etzan ausartzen ari galdetzea, ta artegarazita zebiīen jakiteko tiŕian; ba-zekien artaz Mikel mintzatuko zala beŕiro, baña oŕen zai luzeegi zeritzayon aren ixiltasuna, arean.

Bete izan zan azkenez bere itxaropena, bere eguna eldu zalarik; larunbata zan, aŕatsaldeko lanak bukaturik, eta Mikel, beste egun ayetan bezela, alboan zebiīelarik, onela itzegin zion onek gogotik:

—M.: Aizak Yokin, zein duk biar egiteko ire asmoa?

—Y.: Biar egiteko?, etzekiat, oldoztu ere egin ezpaitiat oŕezaz; ba-litekek aŕatsaldean edo Maďalen ikustera joan nindekek, baña, egitan, oraingo egokera laŕi ontan, ori ere egokia ditekeanik zalantzan nagokik.

—M.: Ara, ez al ukek biar gurekin bazkaltzera joan nai-izango?

—Y.: O!, Mikel!, geyegi edo izango litzakek ori, ta etzekiat iri nola eskeŕak eman; adiskidezuŕian, i bai, benetan, niretzat, onenean.

—M.: Gugana joateko asmoa eztuk izan, gero, nirea, ene amarena baizik; uste dezakeanez egun guzti auetan itzaz eta emen gertatutakoaz biziro mintzatzen gatzaizkik, ireganako zaletasunaz batik bat, eta atzo amari otu zitzayokan iri dei-egitea, ta guzioi oso ondo iruditu zitzaigukan; zer zeritzaik?

—Y.: Zer?, zer esango dikiat?, guztiz biotza ikuturik nagokikala; zer esango zioat ire amari? ta zuek guzioi?; niganako oŕenbeste adeya adierazten didazutenez, barne-barneraño ni naukan guzia erdiraturik geratzen zaidakala.

—M.: Orduan, ire etxekoenganako beaŕen bat ezpaduk, gurean izango augu biar, eztuk?

—Y.: Bai, bai, Mikel, nola zuenganako mukeŕ izan?, biar eguerdirako an izango nauzute.

—M.: Ederki mutil, Aintzane ere an izango diagu, ta ongi ba-

zeritzaik, geroari buruz guzion artean itzegin zezakeagu; lengo egunean esan nikianez, asmo bat zebilkidak buruan, eta oŕezaz mintzatzea, ene ustez, iretzat eta guziontzat egokia izango zaiguk.

—Y.: Adore ta itxaropena ire itz oyetan niretzat; eskeŕik anitz Mikel, biotz-biotzez; ene bizi guzian eztikiat ordaindu al-izango dagidakan ona, ziñez.

—M.: Tira, ez oŕezaz oldozpenik egin, eta goazemak alkaŕekin auŕeruntz; beraz, biar arte Yokin!

—Y.: Biar arte, bai, Mikel!

Oŕela aldendu ziran alkaŕengandik adiskide biak, eta Yokin'en gogoan egun guzti ayetan ukan etzuen alako itxaropen atsegiñik edatu zitzaion adoregaŕi, beroan; egun edeŕa argituko zan igandean, Mikel'en asmoaren beŕia izango zuen azkenez, eta gañera Maḏalen ere ikusiko, pozez.

Egun ayetako lan aundiagatik, egitan, nekatuta zegoen Yokin eta oŕengatik lo-zoŕoan igaro zuen gaua, baña goiztiaŕ izan zan gure gizon esnaturik; bereala bere baitan birundaka, auŕeko egunean piztu zitzaizkion itxaropen eta lera bultzaka. Arin oztu zuen oea ta alik eta ondoenik bere burua atonduta, jai-goizearen beaŕak bete ondoren, Amamio'rako bidea artu zuen gogoz gonburuta.

Epela zegoen eguratsa, urtezaroari zegokion eraz; baña Araitz aldetik aize ozkiŕitxoa zetoŕen, ibiltzeko biska ematen zuelarik, eta oŕela bizkoŕ abiatu zan goruntz. Araya ta Amamio bitarteko bide ura, ba-zirudien bere biziarena berbera zala, beaŕ aundiak lendabizi, ta gero maitasunak ere bultzaturik, bein eta beŕiro ibiltzeko baitzuela. Egun artan neuŕi aundiagoaz aren barna zijoan Yokin bere izate guzia asmo gozo ta onenaz mukuruturik.

Mikel'en etxera elduta, ara Maḏalen lenengoa lei biziaz atosten.

—M.: Yokin!, ba al atoŕ gizona?, zai nengokian estu, noiz ikusiko indudan gertu; iŕikaz gero, baña, mutil, argal ikusten aut, ez al ago ondo?

—Y.: Aguŕ Maḏalen, bai ongi natxegon, obeto oraintxe ire ondoan nagokiñalarik egon; egia dun, pizkat argaldu naun baña ba-dakin, jasandakoa niretzat oso gogoŕa izan dun.

Ez zuten jaŕaitu al-izan, an agertu baitziran, beren itzak entzunda, gurasoak, Mikel, Aintzane ta onen ama ere; guziak, mazalenak oro, abegi oso maitekoŕa egiteko ta aguŕ-egiten bero.

—Ama'k: Atoŕ, atoŕ, gizajoa!, ba-zekiagu, bai, nolako egun

txaŕak izan ditukan; ororena izan duk dangada gogoŕa, baña iretzako gogoŕena ziuŕ; beaŕa izango zaik, orain, zuzpertzeko alegiñak egitea zuuŕ.

—Aita'k: Ongi etoŕi, bai, Yokin, ba-genian guziok gogo bizia i gure artean ikusteko; auŕera, auŕera, ia egun on bat ote diagun gaurko; guziontzat, baña batez ere iretzat.

—Yokin'ek: Eskeŕik ainitz, biotz-erditik; nireganako ain onak zeratelarik, eztakit zer esan, eta ukan ere eztut nire eskeŕona egokiro azaltzeko erarik.

—Ama'k: Beaŕik ez eskeŕona aipatzeko; Yainkoa'ri eskeŕak, gogo on eta maitasunak egokienik alkartzen gatxiotealako, eta ia luzaroan alkartasun edeŕ ontan bizi al gaitezkekan. Gaur udan izan genian egun edeŕa beŕitu beaŕ diagu, gogoz eta benetan.

—Maḏalen'ek: Asmo ona orixe, ama; baña ia azken orduan Diaz jauna agertzen ez ote zaigun.

Baŕe-egin zuten guziek eta sukaldera abiatu ziran pozik. Dagoaneko emakumeek guzia zeukaten gerturik, eta bereala eseri ziran mai inguruan, bazkaltzeko jan-giro edeŕean.

Asean eta betean egin zuten bazkari osoa, mintzatzen ere bitartean; eta ezinbestekoa zanez, lantegiko lan eta goraberak izan ziran erabiḻitako gayak, ayen beŕiak lei bizienaz entzuten; eta beŕiz, antolatzeko lanak amaiturik, len bezela, lanean asiko zala jakin-erazi zuen Yokin'ek.

—Maḏalen'ek, kexuki: Ia beŕiro goi-labeak leŕ-egiten ez ote duen.

—Yokin'ek: Eztut uste; eztut jakin al-izan, jazotakoa nola edo zergatik gertatu zan; ba-dakizute nola esaten dan: beñere eztana bein da, ta labe oŕi bere bein ori izana zayo. Bestetik, oraingo gertaketak aŕeta aundienaz bete ditut, eta guzia ondo joango dalakoan nago; iñundik ere eztut gaitzuŕerik ikusten.

—Mikel'ek: Egia da ta oŕela uste dugu guziok, lantegian izandako matxura aduŕ gaiztoko gertapena izan dala; noski zioren bat izan da, baña ori zein ote jakitea oŕa zailtasuna. Dana dala, gertatu dana gertatu, beaŕezkoa da orain bizirik jaŕaitzea ta gerokoari buruz yardutea.

—Esan nikian, Yokin, ba-niala lantegiarekiko asmo bat, naiz eta bertan iñortxo ere ez izan; baña ba-litekek arazo ori guziok begiratzea egokia izan, eta ene aldetik eŕiaren onurako ta lan-biziari buruzko

nire iritziaz, oraintxe esango dikiat eta guzioi esango dizuet zer egin liteken.

—Ongi dazaguzute mota guziko lanetarako ta bizi osoari buruz nire ustea: orotarako gizonen alkartasunaren bidez antolatu ta yardutea. Egipenetan ere oŕ dugu «Azpaŕena'ko Elkargoa»'k nolako bizi mardul eta egokia daraman, eta nekazariak, beti alkartzeko ain uzkuŕ izan diralarik ere, pozik eta gogoz ditugu beren alkartasun oŕen barnean.

—Ezin egin ote genezake oŕen antzeko beste alkartze bat lantegiko langiīeen artean? Orixe duk, Yokin, nire asmoa, esanda labuŕean; zer zeritzaik?

—Yokin'ek: Lantegiko langiīeen artean elkargo bat irasi? Nola baña? Otu be ez niri oŕelakorik.

—Mikel'ek: Eztuk ori aŕitzeko; i beti antzelari bezela ari-izan aiz; burni, altzairu, ur-jauste, tximist-indaŕa ta lankayak izan dituk ire ajolaren gayak; oyetaz erabiīi duk ire adimena bai ta ire zolitasun guzia ere; ta ortik landa astirik ez edo beste arazoai buruz ari-izateko.

—Baña ez aŕitu nik, langiīeen artean be, ala nolako elkargo berezi bat ere egin ditekeala esaten badikiat. Ona nire asmoa, zeatzago, nolakoa dukan: lantegia salgai zegok eta, zergatik ez, gu izan gaitezkek erosleak; esango dikiat nola. Gero, erosi ezkero langiīeekin eratu beaŕ-izango diagu elkargoa; orain arte, beti, oyek egunaria baño besterik eztitek irabazi; ez ote ditek ontzat artuko lantegiko jabetasunean sartzea ta bide ortatik geyago irabaztea?; jabetasuna ororena izango ukek eta eztiat uste norberak, bere neuŕian egokirik, nagusitasunean bere burua ikustea uŕuñatzeko gauza dukalarik.

—Orixe duk, gañetik bederen, nire asmoa, egingaŕitzat diadana. Oŕi buruz yarduteko lenengo uŕatsa, ene ustez, erosleak nola izan gaitezkean ikustea da. Etzekiagu oraingo jabeak ipiñiko ditekan salneuŕia; baña txikia izango eztukala ziuŕ egon gaitezkek; diru asko beaŕ-izango duk, beraz, ik eta neuk etzeukaaguna; nundik atera orduan? Ara, ene iritziz Azpaŕena'ko nekazari guzien edo geyenengandik oberenean.

—«Azpaŕena'ko Elkargo»'aren batzorde zuzendarian dagozenai itzegin diet eta asieran ontzat artu dute nire asmo ori, jartzeko beaŕak izango diran baldintzak egokiak izan ezkero, noski. Beraz, ba-dugu bide bat gure auŕean zabaltzen bide dana; guri dagokigu, orain, asmoa guziok ontzat artzen badugu, bide ortatik nola joan gaitezken begiratzea.

—Oldoztu ezak, Yokin, oŕezaz; ene ustez beste bizikera beŕi bat antola dezakeagu gure aran ontan guzientzako ona izan ditekeana, ausaz; ta uŕengo egunetan jaŕaituko diagu ondoen, arloaren gorabera guziak begiratzen.

—Yokin'ek: Eztuk gauza makala egin nai dukana; ba-zekiat arloak burutzeko mutiīa aizela; beraz ori ire eskuetan artzea iñoren besteetan baño askoz obeto izango dukala enurarik ez niretzat. Baña ez zeritzaidak eŕaz egitea nai dukana; lenengoz baseŕitaŕak euki beaŕ dirua naikoa erosketa egiteko; gero ugazabak onartu beaŕ guri saltzeko; geroago, nola artuko ditek langiīeek ire asmo?; ta azkenez nork zuzendu al-izango dik erakunde guzia ondo?

—Mikel'ek: Guziaren zuzendaria ik izan beaŕ duk, ezinbesteko zeritzaidak ori; esan beaŕik ez, beti nire laguntza izango duk beaŕ-izan ezkero. Ba-zekiat ire lan berezia lantegian bertan egiteko dukala, baña landolarena ezin eraman al dik an len ere Elortza'rekin ari uanak onartuz egiñala?

—Yokin'ek: Bayetz uste diat eta ezinbestekoa duk ori, lantegiarena ta landolarena gizon batek bakaŕik ezin bete zitialako; orain landolan ari dukana, Alaiza jauna, oindiño gazte xamaŕ izanik, lan ori eramateko nor diagu ene iduriko, baña berarekin ere itzegin beaŕ-izango litzakek.

—Mikel'ek: Jakiña, baña goazemak astiro; nik itzegin zieadan nekazariai, oraindik arlo onezaz ixiīik egon ditezkala eskatu zieat; ik eta nik be oŕela jokatu beaŕ diagula uste diat asieran. Beraz, ene ustez, egiteko dukan lenengoa Elortza'ren iīobai idaztea izan beaŕ duk, bi gauza auek galdetzeko: ia emen egin dezakeagun elkargo bati, elkargoa nola izango dukan esan gabe, salduko ote lioketekan; eta, bayetzean, zenbat eskatuko liketekan; ustekoa duk emengoai saltzeko, salneuŕi obea jartzeko gerturik egongo ditukala.

—Yokin'ek: Bai, ala uste diat nik ere, ta ene iduriko eztitek ayek lantegia emengoai saltzeko eragozpenik izango, saldu nai-izan ezkero berdin izango zayek eroslea edonor izan; eta beren osabarenganako gomutaz, apika, nayago izango ditek guri edo saltzea ta salneuŕi obeaz gañera. Ontzat artzen dikiat ire asmoa, asieran bederen, eta oŕezaz asko oldoztuko diadala agintzen dikiat; eztuk txikia artze-

ko diagun lana, baña bein onartu ezkero bertan buru-belaŕi sartzea diagu ezinbestekoa.

—Mikel'ek: Ala beaŕik, noski; beraz gutun ori idatzi dezakek, ta erantzupenaren zai gagozkian artean, elkargo beŕirako oñaŕiak zeintzuk izan ditezkean begiratu beaŕ-izango diagu, gero, oyen gañean, araudia gertutzeko; azkenez bi bilkura ukan ditzaagun, bat nik lugiñekin eta bestea ik langīleekin, eta beaŕa baldin baduk eragozpenik ez ene aldetik bigaŕenean ere azaldu ta yarduteko.

—Yokin'ek: Bai, oso beaŕa izango diat langīleai alkaŕekin aurkeztea; ongi zekitek guzti oyek nekazariekin egin dukana ta oŕengatik etzayek gaizki irudiko ire laguntza beren alde ere jartzen dukala ikustea.

—Aita'k: Eztuzute lan tipia artu beaŕ duzutena, ta nork esango lizueke ortan ez sartzea? Jakiña erosoago izango litzaizueke zuentzako bide eŕazagoan barna ibiltzea, baña besteen alde lanegitea beti txalogaŕia izan beaŕ, eta ene ustez bigaŕen elkargo ori ibilbidean ondo jartzen baduzute, ezta geroko txaŕa gure Azpaŕena osorako antolaturik agertzeko dana. Ta nekazariena ongi dabīlela ikustean, bigaŕena ere oŕen antzera ikusiko dugula uste dezakegu. Auŕera, beraz!

—Ama'k: Baña langīleak ontzat artuko al dute egin nai duzuten elkargo ortan sartzea? Naiz eta berentzat ona izan, susmo txaŕak beti oyengan; berak beti besteentzat lanegin beaŕ duten asmoa barneraño sartuta daukate, ta oŕengatik ayerukoŕ eta goganbeartsu aurkituko dituzute; gañera arerioak ere sartuko dira, bat edo batzuk susmoai sua emango dietenak.

—Mikel'ek: Bai, egia diñozu ama, langīleen bizian susmo txaŕak eŕaz sortzen dirala ikus dezakegu, baña ongi dakigu susmo oyen ituŕia nun dagoen, dirudunen jokera berekoyan alegia; ta oso zaīa deritzait gaurko lanaren bizian susmo oyek kentzea, apika geuk egin nai dugun erakundearen antzeko egin litezken besteen bidez edo. Eiki, emen langīleek ezin ikus dezakete gure elkargoan orain arte bezela ugazabarik, eta lantegiaren arazoetan yarduteko bide ta eskubide onartzen zaizkiela atematen badute, ba-liteke susmo txaŕak orduan berez ezabatzea.

—Maīalen'ek: Eta noizko uste duzute zuen asmoa buruturik izango dana?

—Mikel'ek: Ezten orain galdera oŕi erantzun egokia emateko eŕaz, baña Elortza'ren īobak lasteŕ eta ongi erantzun ezkero, lenbailen sartu beaŕ-izango diñagu ekintzean; eztiñagu ori aiko-maikotan ari-izateko arlorik.

—Aintzane'ek: Dana dala, gai ortaz eta langīleen artean batik bat, beti auŕe-iritziak asko kentzea beaŕa izango zaizue, geyenetan mukertasun aundia osotzen dutenak; zoritxaŕez, edonun, baña langīleengan oŕelakoa bereziki sartuta dago indaŕez; bearbada ortan izateko zailtasun aundiena.

—Mikel'ek: Asieratik gogoratu beaŕ-izango diñagu oŕezaz eta aŕetaz yarduteko alegindu ere; izpidean ago ortan Aintzane.

Kardabaz beterik geratu ziran guziak erabīlitako arazoa zala kari, ta ardura artan bizi-izango ziran luzarorako, batez ere Yokin. Jasandako ezbeaŕak biotz erdian jo-egin zion gogoŕ, eta ura gauza txikia izango bailitzan, orain lan eta erantzupen aundiagoko geroko bat jartzen zitzayon bere uŕatsen auŕean. Len lana zuzentzeko bakaŕik artezkari ziardunean, bertan amaitzen zitzaizkion lan eta yardespena, ta erosoago bizi zan; baña orain auŕean aurkezten zitzayon jarduera etzan, noski, nolanaikoa ta bertan sartzeko zalantzak ugari bere baitan.

Nola esan, baña, ezetz Mikel bezelako gizonari?, lendik ere bera beste uŕats zaīetan sarturik zegoela gogoratzean? Gañera, izpidean zegoen Yokin'en ustez, ezbeaŕaren ondoren mugon edeŕa idekitzen zan zerbait on eta aundia egin al-izateko; eziña beraz ezetz esatea, egokiera ura ustiatu beaŕ zan, alik eta geyenez. Baña bere burua guzi ura arteztu al-izateko izango al zan nor?, oŕa beste kardaba; naiz eta Mikel'en laguntza izan, ez ote zan izango leporatzeko zuen lan guzia bere indaŕerako geyegi? Bere etxean eta Mikel'enean ba-zekien guziek adoretuko luketela, baña alan eta guzti onartu beaŕ-izango zuen zuzendaritza osoa Araitz baño aundiagoa agertzen zitzaion zeregin bezela.

Etzuen ia lorik egin gau artan Yokin'ek; arloa berea ta bere zeatz guziak zuŕunbīloka ari zitzaizkion barnean eta ezin begiak batu gau osoan. Irtera gabeko galmendi batean sartzera zijoala iruditzen zitzayon batzuetan, an bere burua zearo galduta izateko zuena; besteetan; eta amets eta oldozkun guziak bere izate oro latz eta gogoŕ astintzen zioten.

Buru astunaz eta zearo nekatuta jeiki beaŕ-izan zuen uŕengo goizean; eta beŕiz lanari lotu beaŕ, makaltasun guzien gain. Egun ayetan ia eri ote zegoen galdetzen zioten batzuek, ain argal, zurbil eta

itun ikusten zutenean; zer esango liokete orain betazpiz inguratutako begi ilunez ikusiko luketenean?; berak ere askotan uste zuen, eri, oso eri, jausi beaŕ zala. Baña barnetik ere auŕera jotzeko indaŕ ezezagun bat sortzen zitzayon eta arek bultzaturik bere zeregiña betetzera zijoan, bere almen guziak alkartzeko leyaturik.

Goize artan bere ordu-orduan ere jeiki zan, eta lantegira jo zuen oiturazko bidetik, nolabait Elortza'k egin oi zuen antzera; baña ango lanetan nola ari ziran begiratu ondoren, laisterka beruntz abiatu zan lengo bidean berean landolara nayean. An ere beste lanak begiratu beaŕ, idazlaria zan Alaiza'k zeramazkiena, ta ororenaz atemanik, egitekoa zuen gutuna idazten asi zan; aŕeta aundienaz, Mikel'ek eta berak zeukaten asmo osoa esan gabe, bazkun beŕia Araya'n egiten ari zala lantegia erosteko xedeaz, eta bazkunekoek azpaŕenataŕak izango ziralako, ia bazkun oŕi salduko ote zioten eta salneuŕi egokian ere galdetu zien oraingo jabeai; idatzi zuena bein eta beŕiro irakuŕi zuen eta ongi zegoelakoan, botatzeko zegozen beste gutunen artean jaŕi zuen berea, Mikel'i erakusteko, igeki bat gordetzean.

Lasayago oartu zuen baŕena, bere baitan naretsuago, bere bizirako bein-betiko uŕats gaŕantzitsuena eman bailuen; eta Mikel'en asmoa oindiño ongi mamitua ikusi ez aŕen, bere adiskidea zitzayon entzin eta adoregaŕiagatik, berarentzat oso-osorik onartu zuen, bere gerorako bizian erabateko ondorio sakona izango zala zeritzayolarik.

Eta eguneroko lanean sartu zan indaŕ beŕiaz; ordurarte, itxesa gertatu zanetik, beti atzeruntz begiratzen ari zan, naiz lana zegienean naiz buruari ematen zion beste edozein ardura betetzean; baña oren artan asi-ta, auŕeruntz asi zan beŕiz so-egiten gero ta indaŕago, gero ta azkoŕago ere. Bere oldozmena ta bere adimen guzia gerorako zeragoyozan; gerokoa edozein izan, ondoenik atematen zuen aren erdi-erdian bere yardespena kokaturik izango zuela, ta ezinbestekoa zirudion bere burua artarako aŕetaz atondu beaŕ-izango zitzayola. Dagoaneko, egun ilunak igaro ondoren, zuzpertzeko bidean sartu zan oartu barik.

Lantegiko labe ta lankayak beŕitzean, zain da muin ziarduen; iradu ibili gabe, etzuen unealdi txikiena ere galdu nai, beaŕenezko epe bat bere buruari eman bailion. Langileen artean beste langile bat zalarik, iñoiz etzien zuzendu bere lankideai gaŕatza izan zitekean itzik, ez eta ezezpenezko inki-minki txikiena ere auenganako agertu; ta lantzale puŕukatua zalarik langile guziek egiazko zaletasunaz lagunkidetzat zeukaten oso.

Gutuna bota zuenetik, bai egun luzeak berarentzat uŕengokoak. Mikel'i ondo iruditu zitzayon gutun ura ta bera ere zai zegoen bere asmoari jaŕaipena emateko bidea erantzunak idekiko ote zuenentz kordokan. Onentzat bide ura izan lekioke bere amets guzietarako betekoŕa, ta arbinduta zebilen, bera be artega ta urduri.

Egitan, geyegi berandu gabe erantzun zioten Yokin'i jabe gazteak. Iŕi-aŕa batean irakuŕi zuen Yokin'ek gutun osoa asazkaldi aundia bereganatzen. Ontzat artzen zuten ayek Araya'ko elkargo bati lantegia saltzea, bai ta pozik ere, ziñotenez, beste edonori egin baño pozago. Erosteko salneuŕia ere argi zematen eta arayataŕak erosle izanik, ordaintzeko epe ta eŕaztasunak emateko gerturik zegozela jakin-erazten zuten azkenez, beyondeizuela! esaten amaitzeko.

Iru bideŕ, gutxienez, irakuŕi zuen Yokin'ek erantzuna, guzia ongienik ulertu nayean, beŕi on ayei buruz atzipeturik edo ez izateko xedeaz. Mikel'i jakin-erazteko apeta biziaz, arengana bereala joateko gogoari eutsi beaŕ-izan zion; baña oldea ezita aŕatsalderako utzi zuen, oitura zutenez alkartuko ziran eta orduan egokitasuna.

Bere adiskidearen arpegian ikusi zuen Mikel'ek beŕi onak eldu zirala, arek ezer esan gabe, gutuna eman zionean; arduraz irakuŕi ala ere bereala ta pozez beterik geratu zan bera be.

—Mikel'ek: Ondo zegokiguk au, mutil! Salneuŕia ez zeritzaidak garestiegi ta eŕaztasunak eskeintzen zizkigutekanezkero, auŕera jotzeko bidea zabalduta zegokiguala esan dezakeagu. Ene ustez gure nekazariak ere arazoa oŕela ikusiko ditek; baña ori berak esan beaŕ. Beraz, auxe diagu orain betetzeko: lenengoz nekazariei galdetzea ta ori nire gain artzeko diat; batzaŕera dei-egingo zieat lenbailen alkartzeko. Ire aldetik, Alaiza jaunari arloaren beŕia eman dizayokek benazko gizona dukala uste baldin baduk; i, bera ta irurok langileekin ere egin beaŕ-izango diagun batzaŕa alkaŕekin antolatzeko. Nik, lugiñai, auŕera jotzeko onartzen baditek, oindiño guzia berentzat eta ixil gorde dezatekala eskatuko zieat, eta ire aldetik orixe bera eska dizayokek Alaiza'ri. Langileen batzaŕa, lendik ezer adierazi gabe egitea oso egokia izango zaiguk, auŕeko iritziren batek eraginda bilkurara joan gabe, bakoitzak zaŕastada zuzen aŕ dezakan.

Yokin'ek guzia onartu zuen, gogoz, eta uŕengo egunean Alaiza'rekin luzaro egon zan guziaren beŕia ematen; aŕituta geratu zan idaz-

lari ura asmoa jakin zuenean, eta bereala ikusi zuen bere bizirako ere artan zegoen gaŕantzia; alakotz eskeŕonez agertu zitzayon Yokin'i ta bere laguntza guzia ere eskeiñi zion, beaŕa izango zan arte iñori ezer esango ez ziola agintzen.

Mikel'ek etzuen ain lasteŕ bere eginkizuna bete al-izan; Elkargo Buru Batzaŕ'arekin bai, bereala egon zan, eta ura betetzen zutenai lantegiaren arazoa nola zegoen jakin-erazi ondoren, ayen aldetik auŕera joateko gerturik aurkituaŕen, egun berezi ta egokia biīatu beaŕ--izan zuten batzaŕ orokaŕa egiteko; guztiz beaŕa zan ori, ta lugin geyenak erdu litezken, jai bat aukeratu zuten egun onena bezela; ta egun ori eldu arte, bitartean, eŕi bakoitzeko ordezkaria bere eŕitaŕai mintzatzea erabaki zuten, oŕela batzaŕ naguzia eŕazagoa izan zedin.

Etzuten egin nai batzaŕa Araya'n, asmoa oindiño zabaldu etzedin alegintzean, eta Zalduendo'n egitea erabaki zuten; ba-zegoen an aspaldiko aundiki baten jauregi zaŕ bat, Oñate'ko jauntxoaren aidea ta beren aroko eraso-aldietan aren laguna izan zanaren jauregia.

An bildu ziran Azpaŕena'ko nekazariak, eta beren elkargoaz pozik zegozelarik, orain eskeintzen zitzayen beste ekintza zala-ta, oŕen beŕi zeatza ezagutzeko gogoaz eta bertan sartzeko gertukeraz, guziak begiluze ta beren laguntza eskatzen zietelako nolabait aŕoxko ere, Mikel'ek esondatua gañera, arloa aintzakotzat artzeko erdu ziran, batez be Mikel'enganako guztiz entzinduta egonik.

Aŕetaz eta adi-adi entzun zituzten arek eman zizkien zeatz guziak eta bereziki oniritzi zituzten azpegiak auetxek izan ziran: Lantegian, neuŕi batean bederik, jabe izatea, ta beren semeentzat, nai-izan ezkero, bertan lanera sartzeko eskubide berezia izatea bai ta eskubide ortan lenengoak izateko. Ondorioz, itza eman zuten geyen-geyenak, lantegia erosteko beaŕa zan aindoaren zati oso aundi bat emateko.

Beŕi on ori eramaten joan zitzayon uŕengo egunean Mikel Yokin'i; ta auŕera jotzeko erakunde beŕia antolatzeko zeukan asmoa, zeatzez ikustea beaŕa zalarik, noraezekoa zeukan Mikel'ek Yokin eta Alaiza'kin guziaren egitarau osoa gertutzea ta, batera eldu ezkero, azkenez langiīeai berai aurkezteko ta beren oniritzia eskatzeko.

Uŕengo egunetan irurak ari-izan ziran Mikel'en asmoari gogo-ematen, alde guzietatik begiratzen eta oro ongi egosita zegoela uste-izan zutenean, langiīeai nola, noiz eta nun aurkezteko oldozten ari-izan ziran. Mikel beti baikoŕa, Alaiza gartsuturik eta Yokin artegatsuago,

naiz eta lenengoaren asmoa bete-betean onartu; baña, guzia ongi gertaturik izan, eginkizun artan berarentzako yardespen aundiena ikusten zuen, eta guzia leporatzeko etzekien kemenik aski ukanen ote zuen.

Dana dala, Mikel'en laguntza beti izango zuela-ta, begiak itxi ta auŕera egiteko erabaki zuen. Tokia, endoreari udaletxekoa eskatuko zioten, eŕian beste oberik etzalako ta ura gañera oso egoki; noiz, jai baterako, joan al-izan gabe iñor ez geratzeko; ta nola, Yokin'ek saŕera egingo zuen, an agertuko ziran Azpaŕena'ko Elkargo'ko bi zuzendari ta Mikel zergatik zegozen azaltzeko, ta gero egin nai zuten lantegiaren elkargo beŕiari buruz Mikel'ek itzegingo zuen, asmoa berea zalako.

Endorearen baimena berealaxe lorturik, gogoz bai gogoz gañera, bilkura zertarako izango zan esan ziotenean, aziīaren lenengo iganderako dei-egin zieten langiīe guziai ororen batzaŕera joateko ta biīera lantegiaren gerokoari buruz ari-izateko izango zala jakin-erazten. Txunditzekoa izan zan dei ura askorentzat, oŕelako deirik iñoiz izan etzutelako; ez ala ere batzuentzat, Mikel'ek lugiñekin izandako autuetaen beŕiren bat zelan edo alan baŕeyaturik izan zalako, ta oŕengatik izki-mizki ta esamesak izan ziralarik.

Iŕiki ta aŕankuraz beterik, emandako ordurako Azpaŕena'ko udaletxean, bere areto nagusian, langiīeak oro samaldatan erdu ta alkarturik zegozen lei bizienaz, bertan esan beaŕ zietena entzuteko gogo aundienaz. Eta ayekin batera an agertu ziran, mai-buru, Yokin, endorea, Mikel eta Azpaŕena'ko Elkargo'aren zuzendari ziran nekazari bi ere.

Laisteŕ jeiki zan endorea, bai ta bereala guziak ixiīik eta adi-adi ari so, ta onela asi zan ura bere mintzaldia:

—Endorea'k: Aguŕ ene adiskideok, biotz-biotzetik aguŕ, izan zaitezte ongi etoŕita danok. Gaurko bilkura au etxe ontan dagigularik, lenengoz itzegiteko niri dagokit, eta oŕela dagit pozik zuek emen atosteko yoranez beterik. Biīera emen egiteko eskatu zidatenean aiko-maikorik gabe baimena gogoz nik eman; nola ez, eŕiko langiīeen biziaz ari-izateko izatean? Emen alkartzeko bidea emanik zuentzako nire laguntza dala uste baduzute, torizue osoa, barne-barnetik irtenda, bai ta nire eskeintza ere.

—Makuŕ gogoŕa, bai, izan duguna, ororentzako makuŕa, gertatu-

tako ustekabean eta gaitzuŕa; kalte aundiaz, bai, gure luŕa, guregana laisteŕ eldutako ezbeaŕ-aitzuŕa ta joateko astiro ibiīliko zaigun estali-eluŕa, guzia izango bailitzan zori-txaŕeko aduŕa. Gaitza zaldiz etoŕi ta oñez joan, diño gure esakun zaŕak, izanez zuguŕa.

—Baña joateko laguntzen guri dagokigu alegintzea, ta xede ortaz, ene ustez, batzaŕ ontara etoŕi gera gogoz egiteko gure alkartzea. Gerorako guzientzat ona izan dakiguken bidea aurkitzeko alegintzen; adiskide batzuk ari bide dira xede ortaz asmoren bat egozten; eta ori nolakoa dan jakin-erazteko, bereala izango zaizkigu mintzatzen. Zuei orain itza, Yokin eta Mikel, onela nire aldetik bukatzen.

Itxaro bizia entzule guziengan; lendik txutxu-mutxu izan baziran beren artean, orain zerbait bederen ala asko entzungo zuten egitan; bide beŕiak edo eramateko beren bizian; buru-belaŕi, oŕengatik, oro entzuterakoan; kezkatsu ere oso beren baitan, beaŕean eta ezinbestean.

Jeiki zan Yokin eta, barne-barnean txit ikuturik, onela asi zitzayen guziai mintzatzen, bere itzetan biotza oso jaŕirik:

—Yokin'ek: Aguŕ, gure lantegiko lankide zaituztedanok: Burutik eta batez ere biotzetik eŕaz joango etzaigun ezbeaŕak bildurik gauzka guziok; ene ustez gure bizi osorako gomuta itun oŕezaz geratu beaŕ zearo mindurik izan geranok, lanean eta elkaitzean batez ere, len eta orain lagun eta kide gagozenok.

—Sei lagun geratu zaizkigu, il eta gorpu, betirako yoanik, sei lagun onak ziranak galdu; beste batzuk, bizirik ere, zauritu; gaitz erdi auek gure artean ditugu zuzpertu; auek eta besteak ementxe gera guziok biotz-biotzean mindu ta gerorako oso urduritu.

—Utzi ezaidazute, jasandakoa oroitzean, lantegiaren jabea izan zana aipatzea bilkura ontan; ezkiñan eiki zuek eta ni arekin batera etortzen asmo batzuetan. Arentzat lantegiaren bizia zan ororen gain zerabiīena buruan; beste edozertarako tokirik ez, ausaz, bere baitan; lantegia baño besterik izango ezpailitzan Ludi'an. Ene ustez oŕelakoak ditugu lantegiak ezaŕi dituzten guziengan; beren gogo ta almen guziak ortarako jaŕita, beste zerbait dagoela otu ere ez oyen artean.

—Beste guziok bezela, ba-zituen Elortza jaunak on-gaitzak, onbide ta txarbide; bidezkorik ez arezaz genezagun guzia, ene ustez baitzala neuŕi aundiaz ororenaren erkide. Alaz ere, egokia deritzait auxe

nabaritzea, nola izan zan gureganako lankide, egunero ikusten genuenez, lantzale azkaŕa izanik, lana egitea zan bakaŕik berarentzat norabide; ba-zirudien iñor eta ezer etzala ori baño ez bere aide ez bere adiskide; ta bere lantzaletasuna izan zan berarentzat, zuzen, eriotzarako bide.

—Joan zitzaigun ura beste langiīeak bezela, seirak erorita, ororen ezbeaŕ berean, ura izanik ezbeaŕ zitala; bizirik irten giñanok umezurtz geratu giñala. Ayek maitasunaz gogoratu bai, baña gerokoaz ere oldoztea uste dut beaŕa dala, ta ortarako gaur emen alkaŕekin bildu gerala. Ezbeaŕaren erdian ere aitortu beaŕ buruak orixe eman zidala, ta kezka sakona, esango dizuet, barnean gogoŕ ziztatzen izan zaidala. Alde batetik Elortza jaunaren iīobak esanez emen zuzendari jaŕiko etzirala, ta berentzat egokiena guzia saltzea izango zala. Oŕa niretzako beste ziri-zara lenengoaren ondoren gañeratu zitzaidala; nor ote izateko jabe beŕia, apika bereala?, zeintzuk izango ziran egoki guretzat bere yite, jokera ta ala?, guzia auŕera eramateko, nolakoak bere buru ta egiñala?

—Oñaze, gogorapen eta kezkaz beterik, egun iīunak, ziñez, jasan beaŕ-izan ditut nik; oyetan barna, alan eta guzti, nire ondoan ukan dut lagun ona iñun baldin badago onik; laguna, adiskidea, anaya esan ere ezta izango niretzat geyegirik; bera gabe eztakit geratuko ez ote nintzakean guztiz eroturik; eta eztut nigan eskeŕak aski emateko almenik. Ba-dakizute nor dan, emen dugun Mikel, ainbeste zoŕ diodanik; baña esan dizuedana ezta izan berak egindakoa bakaŕik; adiskide ta lagunzuŕian, ez niretzako soiīlik, lantegiko guzientzat eta eŕiarentzat ere alegiñetan ari-izan zaigu zin-ziñez betetzen alegiñik. Eta niri ona deritzaidan asmoa buruak emanik, zuei ere jakin-erazteko emen dugu gugana eldurik; bearbada eziña edo, obe izan diteken biderik. Berak itzegin dizaigula orain, nik esateko ezpaitut besterik.

Nola esan batzaŕ artan zegozen guzienganaño berenganatu zitzayen ziraŕa nola sartu zan baŕuraño? Yokin'en itzai jaŕaitzen, ixiltasunak oro bildu zuen sakoneneraño; txintik ez ayengandik, arnasa bera entzuneraño; oro bat ziralarik alkaŕenganako orduan iñundik be laño, ta etzegoen ayentzat Mikel'ek esango zuenaren zai egotea baño.

Ondo ikusten zuen guzi ura Mikel'ek eta utzi nai-izan zuen, nareago izan litezken guziek, igarotzean ixil unealdi labuŕ batzuek. Asi zan azkenez, bere itzak nai zuela buruz eta biotzez guziei eskeiñi ongi tajutuak.

—Mikel'ek: Aguŕ bero ta biotzgaŕi, Araya'ko langīleok!: aiztutzeko eziña zaigun elkaitzak jo-ta gagoz guziok; eta nolabait beraren ondorioz, gaur emen aurkitzen gera bilduok. Orixe dala-ta, ildakoen gomuta indaŕ dezagun nik ere ta zeuok; ezbeaŕaren kaltedun geratu zerate lantegian lan dagizutenok, kaltedunago, alaz ere, zoritzaŕean bizia galdu zuten zuen lagunok.

—Alarik ere, ayen biziak itzali ziran gure artean eta betiko; ayei buruz gogoratzea dugu ta nai duenak otoi ere ayekiko; eztago beste zeregiñik egitea, baña oŕela gure biotza izango zaye ageriko. Biziari jaŕaitzea dugu orain, nai ta nai ez, gure eŕi ta lantegiko bizidunentzat, ezinbesteko yardutea ta auŕera jotzea buru-belaŕiko; ezin burua makurtu, īlak bezela geratzea izango bailitzake alkaŕekiko.

—Ortaz guziok, egun batez ere, aburukide oso geralakoan, Yokin'ek iragaŕi dizuena betetzera noa, naizena jartzen jokoan. Lanaren bizia ez bide da eŕaz ongi antolatzea beaŕa dan giñoan; naiz eta gogo onenaz ari, beti dirudi zerbait geratzen dala kolkoan; bearbada iñoiz ezta lortuko gizon guziak bizi-izateko erosoan; alan eta guzti eginbidea dugu guziok alegiñetan ari oso-osoan.

—Ba-dakizute, Elortza jauna il ondoren, bere īlobak ugazaba; oyek zer egingo luketen asieran ezin jakin eta ororengan kardaba; aurki, ala ere, Yokin'i esan zioten lanean jaŕaituko etzutela osaba; ta beren asmoa lantegia saltzea zala, jakin-erazi ere, oŕela bada.

—Orixe esan zidan gero Yokin'ek eta bereala nigan asmoa; niretzat izan zala ainbeste zioengatik guztiz bidezkoa. Ba-dakizute guziok Azpaŕena'ko nekazariok egin dugula elkargoa; zergatik beste oŕelakoren bat lantegian ez egin bere antzekoa?; lantegia edonori saldu ezkero, ugazaba beŕia emen, eta nolakoa?; ezin ote txoko ontan nekazari ta langīleak alkartu berenganatzeko jabegoa?; beste nagusirik ez oŕela ta ororen bizia obeki tinkotuko zan gurean osoa.

—Ene baitan asmoa egosi ta mamitzen ari zitzaidan beroki; Yokin'i esan nion Elortza'ren īlobai eskatzeko, oŕela zeritzayolako egoki, iñori saldu baño lenago bere iritzia galdetzeko ondo ta osoki; erostekotan, apika, emengo batzuekin alkartuta oso egokiroki, ororen bazkuna izan litekelako, erosle on izateko bidea naroki. Bai ta erantzuna laisteŕ, asmoa ontzat artzen zutela, gogoz eta maiteroki, emengoai saldu ezkero eŕaztasunak be emateko gerturik zegozela zearoki.

—Ara lenengo uŕatsa ongienik emanda; auŕera jotzeko, bidea zabalduta; asmoa borobildurik aurki Yokin'i erakutsita, bai ta nekazariai beren laguntza eskatuta; leyatsu ere Yokin'ek onartuta, langīleak be asmoari eusteko edo gertuta. Azken uŕatsa orain izango da emen esondatuta, zuen bayetza ere lortzeko leyatuta.

—Goazen, bada, astiro, ta asi gaitezen ikusten beŕiro, arazoa nola dagoen bere gaindiro. Lantegia salgai dago eroslea nor izan liro, ta saltzalea iñori saldu baño len gure zai dago lañokiro. Oŕela dugu, zorionez, arazo ontarako gure egin-giro.

—Zer egin dezakegu abagune au ustiatzeko?, zer azpaŕenataŕ guzientzako onura egokia ateratzeko?; zalantzik ez niretzat, gure alegiñak egin erosteko, langīle ta lugin guziok gureganatzean, jabeak izateko. Oŕa nire asmoa, ta ona emen zer egin al diteken ori burutzeko.

—Nola erosi, baña, galde dizaidakezute, nun ortarako dirua?, gaur egunean edozer erosteko dirua beaŕ baita, ori bide estua; uŕez, zidaŕez ala beste gayaz egiña izan, bera dugu aldiñen neuŕi ezagutua; eztu aurkitu gizonak beste bide oberik ogasunen artean erabiltzeko bere burua; beraz gaur dirurik gabe edonor geratzeko galdua.

—Alaz ere, ontzat artu beaŕ, jabetasuna lortzeko beste bidea; ene ustez gizonaren lana da bide oso egoki ortarako izatea; ta iritzi ortaz gaur emengo beaŕerako biak erabiltzea da nire xedea; ona izango zaigu ori nola izan diteken atemateko egon ernea; bide bi oyek, alakotz, aŕ ditzakegu, bat zuena ta bestea gurea.

—Zuen bidea, langīle zeratenokena bereziki, lanarena izan beaŕ; ta dagoaneko oso ibīlita duzute bide ori zuen lan-urteen zeaŕ; oŕengatik antolatu nai-izango genuken erakundean ezin zuek egon medaŕ; ta lantegian izango dan jabetasun beŕian zuen jabetza bidezkoa dugu onaŕ; lagun bakoitzarena lanean izandako urteen giñoan, ikusteko ta naikotzat aŕ.

—Gure bidea, lugin geranona, diruarena izango dugu; gaurko jabeai ordaintzeko beaŕa izango dana gure artean batzandu; apika, noraezekoa izango zaigun guzia biltzeko eziña edo eldu; baña eskeiñi dizkiguten eŕaztasunak ere ezin aiztu; ta azken beltzean txindietxetan aŕ genezake ezer peitzen bazaigu.

—Ikus dezagun, orain, zuen eta gure jabetasun-neuŕia; ene ustez, lantegi osoaren aldiña, ororen ogasuna izango dan guzia; ta danonen artean ain-bana izateko, zatikan ataltzea dugu egingaŕia; ta zati oyek guziontzako banandu, alkaŕenganako izaten opa aundia; egin dezakegu, beraz, ortarako on eta zuzen izan dakiguken antolaketa berezia.

—Ona emen nola izan liteken bat: geuk erosi dezakegun atal bakoitza onela izateko: langīle batek urtebeteko lanaren bidez irabaziko duenaren antza; irabazte oŕezaz, jakiña, urte guziko egunariaz lortuko duenaren gañetik egiteko zenbatza; arean, geron aldetik ontzat artzen ditugu, bakoitzari ta guzioi, betetako lan-urteak; beraz, urtez-urte langīleok irabaziko dituzute zuen jabetzaren zatiak.

—Jabetza oŕen agerkaya bezela, agiri berezia emango zayo bakoitzari; bertan urtero, urteari dagokiona azalerazteko jaŕi; oŕela, langīleok izango duzute betetako urte guzietarako sari; gero, urte bakoitzaren amayean lantegiaren kontuak eman ezkero irabazi, ororentzako banatzean emango zaye berea zati guziai. Orobat, giño ta era berean, geuk erosiko ditugun zatiai.

—Baldintza batzuk jartzeko, zati guziai buruz, bidezko; langīle bat il ezkero, bere zati-agiria bere emaztearentzat izango da ondorezko; edo emaztea ere īla badago, adiñez azpiko semeentzat berezko; auei, adiñera elduko diranean erakundeak erosiko dizkie beren zatiak, ala beaŕezko, ta beste edozeñi eziña izango zaye zatiak saltzea iñoizko.

—Beste oŕenbeste onartu beaŕ nekazarien zatiai buruz; eziña izango zaigu gure zatiak edonori saltzea gure kabuz; norbera il ezkero, alarguna ta semeak izango dira oñordeko arauz; baña alarguna īlen danean eta semeak adiñera elduz, oyen zatiak ere amaitu beaŕ-izango dira erakundeari salduz.

—Era ortan beŕiro artuko diran zatiak erakundearenak izango dira, ta gerokoan langīleai eman ala nekazariai saldu beaŕ zaizkienean, noraezekoak izango balira, aukerakoak eiki ororen jabetasunean egokiro emateko ogasun-jaŕaipideari bira.

—Beste aldetik, lantegiaren bizi guzia eratzea, gauza egokia izango litzakelakoan nago, lengoaren ordea; antolaketa beŕia egin beaŕ ortarako izanez bide obea. Baña nor onartuko genuke guziok ori egiteko izanez buru betea? Nik neuk gizonen artean edozelan yarduteko kidetasuna dut onena bezela bidea; ori izan zan eta izan ere ba-da, nekazarien elkargoa burutzeko, gotoŕ, nire xedea; ta lantegiaren gerokoari buruz orixe bera egiña dut ustea.

—Nola?; ongi baderitzaizue, batzorde berezia jaŕi genezake; bertan antzelariak, langīleak eta nekazariak egon gindezke; lenengoetatik bi, bigaŕenetatik sei ta irugaŕenetatik lau izan litezke; guzira

amabi ta ororentzat goiko agintaria izango lirake; ta antzelariak izanezik, besteak lau urtetik lau urtera beŕitzea egokia izango litzake.

—Batzorde ori bi īlebetetan bein edo, batzaŕean biltzeko gutxienez; eta iru batzorkidek eskatu ezkero beste edonoiz, ala beaŕez; lantegiaren ibiltzea begiratzeko ta guziarekiko erabakiak artzeko egokienez; lenengoz agian guzientzako lan-sariak jartzeko, ongi ta zuzenbidez; oyetan maīladi mugatu batean oro saŕerazteko xedez; esate baterako, batetik bostera izateko guzientzako muga, ene ustez; argibide ontaz, geyena irabaziko duenak ez du jasoko gutxiena artuko duena baño bost aldiz geyago, ezinbestez.

—Ortxe dituzute nire asmoaren azpegi nagusienak; eztut nai, ezin, orain bertan bayetz ala ezetz erantzun dizaidazutela guziak. Lenengoz, entzutez bakaŕik artutakoa, oso gutxi dalako artzeko erabakiak. Alakotz eta nire asmoa begiratzeko ta oŕezaz oldozteko, artu nai-izango duzutenok, auxe egin zenezakete arazoarekiko ematen lenengo uŕatsak: zuen arteko lau, sei edo zortzi lagun autatu, ororen izenean egiteko azterketak, eta ortarako nik emango dizkiet, gogoz, idatzita nire asmoak.

—Iraduz ibīli gabe, urtearen azkenerako jaŕi genezake epe; zuen aldetik nai ainbat bilkura egin al-izango duzute, ezpai gabe; ementxe bertan ausaz, guzirako endore jaunak eskeiñi baitigu orixe. Ta Gabon-aldian bīlera orokaŕa, bein-betiko erabakia artzeko, egin genezake. Baña bitartean nigana galdez etoŕi nai-izan ezkero, onezonean artuko dut edonor eta, jakiña, batzorde.

—Orain nor edo nork zerbait esan nai baldin badu, pozik entzungo diogu.

Ixil geratu ziran guziak, baña aurki Zelaya'k eskua luzatu zuen mintzatzeko keñuz, eta guziek erakutsi zioten, argi, entzuteko zeukaten gogoa zuduz.

—Zelaya'k: Ez nuen uste nik, ona etoŕi naizenean, Mikel'ek esan digunaren antzeko ezer entzuteko izango zan; eta guzia txit entzungaŕia izan dala aitortu beaŕ dut benetan. Ageŕerazi diguzun asmoa ezin nik bereala esan ona ala txaŕa dan; baña begiratzeko ta aztertzeko, bai, onartuko nuke nik osoan. Beraz, nire lankideak aburukide baldin badira, arean, zuk esondatu diguzuna ontzat artuko dut nik berealakoan; eta ari-izateko, ni gerturik nago guziekin alkartzeko beste batzaŕetan.

—Bai ta ni ere —entzun zan alde askotatik berealaxe.

—Mikel'ek: Ederki; eskeŕik anitz entzun didazutelako, ta zuen zai geratzen gera uŕengorako, naiz Yokin, naiz Alaiza ta ni, ta endore jauna ene ustez, eta, zer esanik ez, bai ta nekazarien elkargo. Lotu gaitezen lanari guziok eta bakoitzak buru-belaŕi gaurgero.

Oŕela amaitu zan batzaŕ ura, guziengan, eta eziña zan enura; itxaropena ororengan, bai ta era berean ere ayengan kardaba ta ardura.

Asaldura, itxaropen eta amets beŕiak

Berezia dugu, egitan, gizatasuna; bere inguruan eta berekiko batez ere sortzen diran gertakariak oyartzun sakona beti bere baitan; biotzaren giaŕean guztiz minduta edo ikututa geratzeko ta buruan amaika uste, amets eta oldozpenak birundaka ari-izateko. Minberatasun aundia gizonengan eta beren gogoan xaki aundi edo txiki egiteko beti edozein izan diteken jazokunak.

Jo-ta bezela geratzen da gizadia ezbeaŕen bat eltzen zayonean eta tipiŕi-tapaŕa ibiĺi beaŕ oŕen ondoren emateko izango dituen uŕatsetan, ikurka-makurka saŕitan; ezin aukerako artu biziaren bidean gañera etoŕ dakizkioken alditxaŕ eta ondamen guziak. Nun-nai ta noiz-nai ikusi beaŕ du gizakiak oro berebat, beti izari orokaŕean, orobatasunean guziak. Gizadi osoaren minberatasuna, beraz, guztiz etsita edo geratzeko aña.

Baña, arte edeŕean, eta ez luzaroan, gizakiari berari eltzen zayo aurki, bere eroralditik jeikitzeko ta bere aulduratik zuzpertzeko mugona. Izakera bereizia ori ere gizakiarena, len aipatu dugun besteareekin orekan edo egon al-izateko. Alde guzietatik ikusi beaŕ da gizakia minberakoŕ, bera eragiten duena ona ala gaitz izan; suma-bideak ugari norberarengana, gertapen guziak eŕaz darabilzkiten bideak. Oŕengatik aŕitzekorik ez gizakia aldizka oldean ala ez egotea, noski, eziña baita berarentzat sorayo bizi-izatea.

Bidezkotzat artzeko bi izakera oyek, beaŕezkotzat ere nonbait, bizian barna auŕeratzeko ta bizia be obeto ulertzeko; esan litekenez biziak arazteko beaŕ dituen bi ibilpideak dirala, ezinbestekoak ere biziak beti auŕeruntz jo al dezaken.

Aiztu ere egiten dira gauzak eta gogorapenak alkaŕen ondoan metatzen dira oroimenean, beŕien bidez zaŕagoak zokoratzen; eta gomuta txaŕak gizakiaren baitan zearo ayendu eziña izanaŕen, oso ezabaturik geratzen dira egunean-egunean eltzeu zaizkion beste go-

gorakizunen bidez, len esandako bi izakeraekin ondorio egokiak ongi soŕerazteko.

Oso ezbeaŕ aundia eldu zitzayon Araya eŕiari, bai ta Azpaŕena guziari, lantegian izandako labe-eztanda ta oŕen ondoko izugaŕiarengatik. Ilak, zaurituak, gizonen artean aunitz, lantegiaren ondamena gero, angoentzako bizi-ituŕia zana betiko agortuta geratzeko itxuraz; beŕiz ibiltzen jaŕi al-izan ezkero ere noren jabetasunaren pean ote izango? Eta labeak beŕiz be ez ote luke beste leŕen bat egingo? Nor ausartu an lanean beŕiro yarduteko? Baña an izanezik nun langileak aurkitu berentzat eta beren sendientzat beaŕ aña ateratzeko lana?

Zuzen eta zeaŕez ere begiratzean, oso kinka txaŕa langile-eŕi arek jasan beaŕ zuena; orduko zoritxaŕ aundia jasaten eta gerorako azpegiak ain ilun ikusten; zer jan be peituko balitz, gosea ote?, ta umeak ere, gosebera danak? Alkaŕekin mintzatzean guzti ori zan, ayen solasaldietan erabiltzeko gaya; ta min eta oñazeen gañetik, ori, gose, uŕialdi, beaŕ goŕi, eritasunak apika, guzia galdu ondoren iltzer; etsipen laŕia ororengan, alkaŕi mintzatzen geitu baño besterik egitea etzekitela.

Urliak agintariengana joan beaŕ zala esondatzen zuen; berendiak beste eŕietara lan-bila baŕeyatzea; sandiak luŕ-lanetan edo sartzea; baña bide oyek ezin guzientzat aski izan. Alkaŕ laguntzeko bai, gerturik agertzen ziran guziak, oso goratzekoa zan anaitasun batean bildurik.

Baña ez ote zuten ezer esango Elortza jaunaren ilobak, berak baitziran orduan lantegiaren jabeak? Zeintzuk ote ayen asmoak?; batek edo besteak ez al zuen berarentzat artuko beren osabaren tokia?; ta ori eginaŕen nor izango al litzake, zaŕena ala gazteena, lantegian lan eta bizia zuzentzeko?

Oŕelako bururakizunetan eta bilduŕean, egunak eta egunak igaroten ziran, beti zorigaitzaren pean, jasan-eziñezko egokera abailgaŕiak guztiz aulduta, iñundik irtera ona ikusteke, itxaropenik gabe, etsi-etsita.

Eta, ara!, egun ayetako batean zuŕumuŕu eŕiaren zeaŕ zabaltzen asi zala, akituta zegozen belaŕi ta biotzetan oyartzun igurigaŕia beingo-beingoan aurkitu zuena: gizonak deitzeko omen dagoz udaletxean alkartzeko ..., norbaitek edo lantegia erosi bide du ta ori ere bertan azalduko ere ..., eŕitik at beste nunbait lana edo dago, ara joan nai-izango duenarentzat ..., lantegia itxi beaŕ ezkero, Udala'k sorospenak

eskeiñiko dituela ...; amaika susmo, ustekizun eta irudipen, edozein asmo zein-nai usma ta zantzu, ortarako ain gerturik zegozen irudimen sukarti ayetan.

Ikustekoa izan zan lenengo usmoa egia biurtu zan egunean, eŕi osoan zegoen iguripena; urduritasunez beterik gizonak udaletxean, durdurika ta asaldatuta emakume, auŕ eta gazteak auŕeko enparantzan. Nortzuk sartzen ziran lenengoz begiratzen; barneko zurubian, areto aundiaren ateraño igota asko, baŕuan esaten zanaren zerbait entzun eta aditzeko yoranez beterik; galdezka gero beitik: —Zer diñote?, nor ote mintzatzen?; eta goitik: itzegiten ari da norbait, endorea edo asi da, Yokin ere ta Mikel; baña ezin diñotena jaso, itzik ere. Egoaŕirik ez emakumeen artean, aurki zai egonez aspertzen, eta etsita bezela: —Baña jakin beaŕ dugu zertan ari diran gizon oyek; zer dala-ta oŕen luzaroan ainbeste beŕiketa txortxoŕ, iñoiz amaitzeke? —batek; eta beste batek: —Emakumeak beŕitxu omen gera, kalaka ta laŕaŕa; baña oŕa oŕ gizonak ixiltzeke egun guzian...

Eta azkenez emakume guziak, burutik joanda, kaŕasika, abaŕoska ta oyu miñez, enparantza osoan ardaila izugaŕia soŕerazten. Egitan, iñork etzekien zergatik deadaŕik eman beaŕ zala, baña axanpa bera guziena izanik, etzan beaŕ ziri aundirik, bat asi ezkero, beste guziak berdin yarduteko; ta an sortutako istilu, iskanbil eta kalapita egundokoak izan ziran. Alaz ere, gizonak, emakumeen zalaparta zala zekitelako, ala mintzatzen zanari buru ta biotz emanak zegozelako, soŕ eta goŕ egin zioten enparantzako yasanik ezari osoro.

Etsi-etsian, gizonak bilduta zegozen aretoko atea indaŕez ideki ala botatzeko einean egon ziran emakumezko samalda sukardun artan deadarka ari ziranak; eta kinka artan mendeak añako orduetan ezinbestez egotean, eri ere jausteko bilduŕa askorengan, geyenak leŕ-eginda geratu arte.

Amaitu zan noizpait gizonen bilkura, ta irten asi ziran; baña naiz zurubia naiz ataria, auŕ, gazte ta emakumez beterik zegozelako, etzitzayen izan eŕaz bildutakoai udaletxetik at irtetzea; ta an emakume urduritsu ta laŕi ayek, nork bere senaŕari, nork bere aita edo nebari, batzuek edonori ere, besotik artu ta galdezka, zentzun gabeko jokeran. Gizonak aŕi ta zur eta mintzo gabe, ustekoa etzan eraso-aldi artan; ezin galde ta deadaŕ-zapaŕada aren pean erantzunik eman, ia ez eta itzik egitea ere; aŕamantza ura noizpait eta nolabait, alan-alan ibitu arte.

Iñork edo etzuen azalpen aundirik eman nai, ala eziña itz gutxitan argitasunik egin, eta itz etenen bitartez, guzia bide on batean sartzen asi zala, itxaropena ba-zeukatela, lasai egoteko, laguntza ona ba-zegoela, ta oŕelakoak esaten, alegiñak egin zituzten emakumeen eŕetasun ura zeredozer eztitzeko; ta alkaŕengandik baŕeyaturik oro, bakoitza bere etxeruntz abiatu zan, bertan obeto edo, biīeran entzundakoa lasayago ausnartzeko ta sendikoai zekiena azaltzeko.

Biaramondanik, lengo eŕan-meŕanak aldaturik, beste zentzunez jaŕaitu ziran aoz-ao ta belaŕiz-belaŕi, asmo, iritzi ta itxaropenezko usteak, alkaŕekin ongi nastuta, amets beroetan gatzaturik eta ezer argitu eziñean, eŕi guzia, beretik urtenda, burtzoroa egiñik agertzen zan. Noski, gizonak etxean emandako azalpenak, ondo ez ulertzeagatik ala norberarengan irudimenak bere lana egiten zuelako, amaika uste ta ayeru emakumeen artean beti, bakoitza bere ametsari emana.

Etzan eŕaz ayei entzunda, orduko arazo gaŕantzidun artan, egia zein ote zan jakitea, udaletxeko biīeran emandako asmoaĸ ere, uŕundik be ez, zer nolakoak ziran ikustea, ez eta zer antolatzen ote zan, ez eta nork edo nortzuek egingo zuten lantegi ta eŕiko biziaren zuzentzea. Baña asmo bitxia bai, ororengan mamitu zala zirudien bereziki: lantegiaren jabetasuna guziena ta bakoitzarena izango zala; ulertzeko zaīa izanik ere asmo ura norberarenganatu zuen bakoitzak, ayen baitan sendo ta indaŕez kokatzeko aña. Ta entzutekoak ziran emakume ayek alkaŕekin bildu ta alkaŕi bereala berenak eta bost buru gañetik jaurtitzen:

—Ño!, zorionak!, lantegiaren jabea augu gero?, onela izateko bederen bidean ari aiz bero?

—Neska!, i ere jabekide izateko aut ausaz?, ikusteko diñagu ori tipus-tapas?

—Ño!, auŕerantzean i andere noski, besteek aguŕ-egiteko lotsaz eta apalki.

—Emakume!, i ere bai agian, beste guziai agerian.

An agertu zan aspaldiko gure Justa, eta ayei entzuten, onela egotzi zien:

—Justa'k: Bai, zuek andere ta zuen gizonak jaunīo, batzuk besteak aña aŕoputz eta xoro-īoīo.

—Emakume batek: Zu, emakumeaaa... beti esatekoak aoan, besteen lepotik paŕe-egitekoan.

—Justa'k: Ez da nire eŕua besteak azaltzen badira paŕegaŕi, nire aldetik pozteko ibīliko al naiz laŕi?

—Beste emakume batek: Ba!, nai baduzu ta nai ezpaduzu, gaurgero gure gizonak lantegian eta nun-nai jaun; ondorioz gu andere, ta oyek bezela izango gera, oŕela, gau ta egun. Orixe esan omen du Mikel'ek eta ori ba-da gero zaldun.

—Justa'k: Ori bai ta, zaldun baño geyago, gizon; baña lelokeriak esatea ezin oŕentzat on. Eta besteak zoratuta binbilin-bonbolon!

—Ño!, jaramonik ez andere aundi ta jakintsu oni, bearbada eztin besterik, guganako ezin-ikusi ta iñartzi baizik.

—Justa'k: Aguŕ, andereskīla, i bezin senaŕa jaunskīla; lantegian izandako kea zuengan kokatu dun, ordea; ia noizpait beaŕ ez izatea ... leŕ-egitea, ta suduŕetik dindilizka lerdea...!

Zentzungabe ta zentzundunagoa, eŕian etzegoen itzegiteko beste gairik, urduri ta leyatsu batera guziak; nork jakin bakoitzaren buruan egosten zana orduan! Dana dala, auŕeko oñaze ta etsimena moteltzen eta ezabatzen, bai, neuŕi zabalean; sortutako asmo ta itxaropen beŕiak, gutxienez, lengo neke, loŕ eta akidura ibierazten ari ziran.

Gizonen artean arazo beŕia etzan guzien aldetik berdin begiratzen; batzuek, nekazariak zeukaten elkargoa gogoratzen, bai, aren antzeko beste bat eukitzea gogoz eta bereala onartu zuten; beste batzuk, ordea, uzkuŕ zebiltzaten; menpean bizi-izateko bearturik edo, auŕe-asmo ta goganbearturik, oso beti, aurkeztu lekieken edozein asmo beŕi auŕean lardeti, orixe nun-nai gertatzen dalarik, ugazabaen esanera bizi beaŕ dutenak izanik eta ezin oyentzat jaŕi bereala iñun siñismenik.

Baña orduko beren egokera ain txaŕa ta gerorako iīuna zitzayelako, guziak buruan birundaka zerabilten Mikel'ek esondatutako bidea; al eta ezin ororengan zudu ta kardaba alkarturik zegozela, beaŕenezko guzientzat asmo ura erabiīi ta ausnartzea. Ura zan eskeintzen zieten bide bakaŕa gañera, ta eziña zirudien beste obe bat aukeratzea. Lits batek eragiten zuen guzien baitan asmoa begikotasunez begiratzeko: guzien gain jaŕi liteken ugazabarik izango etzutela, ta ori ororentzat oso artzeko aintzakotzat.

Kezka, iritzi ta enurak «Azpaŕena'ko Langīeen Batasun»'era be eldu beaŕ, eta nola gañera ta nolako zuduaz. Bazkun aren zuzendariak batez ere beren biīerak saŕiago egiten ari-izan ziran, eta iñoiz amaitzen etziran eztabaidak beren artean. An erabiīi ziran, azpegi gu-

ziai milaka birunda ematen, Mikel'en asmoak, onek langileai idatzita emanda, udaletxean langile guziekin egiteko zeuzkaten bilkuraetan eragiteko asmoz.

Alde zegozenak, geyago irabaztea ta lantegiaren zuzendaritzan sartu al-izatea nabari-erazten zituzten, langileentzako aurerapen oberenak bezela. Baña aurka jarri ziranak, aurerantzean baserritaren pean geratuko zirala bilduŕez agertzen ziran eta etzuten uste irabazpen aundirik jasoko zutela ere. Ta bi alderdi bezela sortuko zirala zirudien, alde ta aurka ayetan sua ematen zutenak erazita jo ta ke yarduten.

Ba-zegoen bat aurkakoen artean, iñor baño sutsuago ari zana; gure irakaslea, noski, Diaz jauna. Berak ere astiro ta arretaz aztertu zituen Mikel'en asmoak eta bereala ateman zituen, bere elbururako ayetan zegozen gaitzuŕe ta eragozpen. Iñun esan ezpazuen ere, ongi ikusten zuen langileentzako asmo ayetan zegoen onuragarizko aurerapena; baña bere xedeetarako oztopo izugarria ere; ta berarentzat bidezkoa zanez, alegiñik aundienak egin zituen langileak ontzat ar ez zitzaten.

Nekazariak eta langileak guzientzako batasunean sartu ta bizi-izatea, berarentzat zearo kaltegarria zala oartu zuen, eta orelakorik ez burutzeko lanegitea ezinbestekoa zitzayon; bide artatik, nekazariak bezela, langileak ere Mikel'en elburuen alde eraz jariko lirakelako. Oso bearra, beraz, berarentzat batasun ura ez egitea, ta alde ortatik jo-egin zuen besteekin izandako eztabaidetan.

Noski, Patxiko jari zan lenengo unealditik bere alde, ta ikustekoa, ala entzutekoa zan beren ardantegian zegizkiten izkimizkiak; beti lari irakasle ura, lortu nai zuen egikera burutzeko zala agertzen zitzayolako; ta onela yarduki zien:

—Diaz'ek: Benetan arigarria da niretzat zalantzan nola ari zeraten ikustea; baña ez al dago, argi, zera ortan dagoen Mikel'en elburua?; lugiñak bere azpian eukitzea lortu ondoren, orain zuetaz berbera egin nai duela?; orela, alegia, bera Azparena guzian jabe ta nagusia izateko.

—Eta zer da eskeintzen dizuena?, ingizko jabetasuna, besterik ez, baña egiazko ezer. Lantegiaren zuzendaritzan sei toki ematea zer da, beste sei toki berarenak izanez?; orela langileak iñoiz beren egokierazko naya betetzeko biderik ez, eta aitzitik beti bere pean eukiko zaituzte. Egitan, nik eztut ikusten or zuentzako aurerapenik ez eta onuragari izan diteken ezer.

—Patxiko'k —gañeratzeko: Bai, gizonak, oren jokua argi agertzen da, bere alderdirako langileak ere irabaztea; baña eztut uste lugiñak bezin buru txikidun izango zeratela.

—Solozabal'ek: Beste aldetik ikusten dut nik argitasuna. Ba al dakik, Patxiko, itzaz Justa'k zer esango likek?, enurarik gabe «beti izaten da gaiztoa anka biko astoa»; ben-benetan gaizto aizenezkero, ta Diaz jaunari ilea leuntzea baño beste zeregiñik eztukala zirudik. Ziñez, ala ere, argi erakusten duk beste bide txaragoan be sartzen ari aizela, goroto-bidean ain zuzen, eta naiz Mikel naiz onek zegikan guzia ezkereko begiz begiratzen duk beti, naiz eta alde ortatik begi-ezkel izan.

—Diaz'ek: Oso iritzi okera duzu, adiskide, Patxiko'ri buruz, eta begietan ezpada buru barnean bai, ba-du onek ikusmen edera. Baña utzi dezagun ori, zuen artean batera iñoiz etoriko etzeratela-ta. Esan duzu beste aldetik ikusten duzula argitasuna gaurko arazo ontan; esan nai-izango al diguzu alde ori zein dan?

—Solozabal'ek: Bai, noski. Nik, lantegiarekiko Mikel'en asmoa, ona bakarik ez, ederenetakoa dala ikusten dut argi. Len, Elortza jaunarekin, egunaria zeukaten bakarik langileek beren lanaz ateratzeko; ta orobat gertatuko litzake aren antzeko beste jabea sortuko balitz. Mikel'en asmoaz, aitzitik, egunaria bakarik ez, lantegiaren jabetza-zati bat jasoko dute urtero, zati oren bidez obarietan bakoitzari yatorkiona ere artzeko. Gañera, ez jabetza-zatiak gerokoan emateko, orain arte lantegian egon diran urteena ere asieratik onartuko zaye. Geyago oindiño; lantegiaren artezkaritzan ere nor izango dira langileak erabakiak artzeko. Otian ez dira jabe baten pean egongo ta berak ere jabeak izango dira. Zer nai ote geyago? Nik, orko langilea izango banintz, itsu-itsuan eta eskeronez beterik onartuko nuke Mikel'ek esondatutakoa.

—Diaz'ek: Oso polita da zuk diñozun guzti ori, baña emen darabilzuten atsotitz arek diñoenaz gogoratu bear dugu: «urutiko eltzeak urez, bertaratu-ta lurez». Egi aundia dago esakun zar ortan, eta guk ere Mikel'en eltzeak lurezkoak ez ote diran ikusi bear dugu. Lenengoz, lantegiaren jabetza, onenean ere, ez da izango langileena bakarik, nekazariena ere baño, ta ba-dakizu, emengo lugin guziak Mikel'en jopuak baño besterik ez dira, ta egitan oyen jabetza Mikel'ena izango da gero ta geyago. Beste aldetik langileek beren zatien bidez irabaziko dutena nekazariena berbera izango da, baña ayena lan eta

izerdiaz lortutakoa ta besteena, ordea, diruaren bidez eta besterik egin gabe; uste al duzu oŕ zuzentasunik dagoela? Bestetik langīleenganako bidegabekeriren bat egiten bada, ezin oŕen aurka ezer egin; guziak jabeak badira, noren aurka jasoko dira ostetasunez?, nola lan-uzterik egin? Ikusi, gizona, gauzak aztertu ezkero, utzak ere agertu beaŕ.

—Solozabal'ek: Eztu zentzunik zuk diñozun guzti oŕek. Nola irudituko zayo iñori gaizki, lantegia erosteko beaŕ-beaŕa dan dirua emango duenak obarietan ere berea jasotzea?; ta nola erosi lantegia diruaren bidez izanezik? Eta auxe emen nabaritzeko: lugiñek beren diruz lantegia erostean, jabetza ez berentzat bakaŕik, langīleentzat ere lortuko dute; beraz, bidezkoena, ene iduriko, obariak guzien artean banatzea. Geyago esango dizuet; ontzat artzen badidate, nik ere nire dirua eskeiñiko dut zati batzuk erosteko ta oŕela nire laguntza be emateko. Beste gauza bat aipatu duzu, egin nai dan antolaketan lan-uzterik egitea eziña izango dala; baña, gizona, langīle guziak jabe badira nola soŕ diteke oŕ lan-uztea egiteko beaŕik?

—Zelaya'k: Danetara egon diteke gure arlo ontan beste guztietan bezela, baña, ziñez, Mikel'ek egin nai duena, guretzat auŕerapena izango dala ezin ukatu; beraz, nik neuk, lengoaren antzeko beste ugazaba bat egotea baño askoz obe ta egokiago izango zaigula uste dut udaletxean esondatu ziguten bidean ibiltzea.

—Diaz'ek: —guztiz goganbearturik eta laŕitasunez beterik—: Alakotz zu ere Mikel'en moŕoya izateko gerturik al zagoz?; mutil, uste nuen zentzundunagoa ziñala.

—Zelaya'k: Eztago oŕ iñoren moŕontzarik. Mikel okeŕ egon diteke beste edonor bezela, baña ongi egiztatu du bere gauza guzietan onez-onean ari dala.

—Patxiko'k: Eta beste langīleek zer diñote?, guziok makurtuko diozute Mikel'i zuen burua?

—Zelaya'k: Ixil ago, Patxiko, kaiku alen ori; oŕ etzegok buru-makurtzerik, oŕ eskeiñi digutena onartu ala ez izan beaŕ, besterik ez. Eta langīleok ukan ditugun bilkuraetan geyen-geyenak eta neronek be onartzeko asmoa dugu.

Ez irakaslea ez eta Patxiko ere etziran ausartu geyago esateko; mukeŕ eta muzin jeiki ta ardantegitik irten ziran. Asaŕe bizian mintzatzen kalean barna joatean beren naigabeari aterabide bat aurkitzeko beaŕean. Lenengoak bigaŕengan aurkitzen zuen asazkaldiren bat

izateko lagunabaŕ egokia; ta bigaŕenak ontzat artzen beti arek botatzen zituen ez-esateko guziak, berarentzat ain itzalgaŕia baitzan.

Eta egun artan botatzeko zana ta etzana bota-egin zituen Diaz jaunak. Langīleentzat larderi aundiko gizona, edo jauna, izatera eldu zalakoan zegoen, bide ortatik bere betekizunak lortzeko egokitasuna zeukala ustean; eta, ara!, bat-batez, itsumustuko, langīle ayek eskuetatik alde-egiten ziotela. Barnetik sortzen zitzayon suminduraz, gaŕatzak oso bere aotik jalgi-erazten zituen itzak.

Patxiko, irakaslea ain asaŕeturik ikustean eta nolabait ura ibitu nayean onela ari zitzayon:

—Patxiko'k: Ez izan, jauna, gizon eŕea, ez etsi. Egia da oraingoan Mikel'ek gaña artu digula, baña ikusiko dugu gerokoan oro ordaindu beaŕ-izango ez ote digun aŕoputz oŕek; egunen bidean abaguneak elduko zaizkigu gure apenaz ase gaitezen; oŕekiko iŕikitsean nagokio.

Ongi ikusita zeukan lendik ere irakasleak, mutil sepati, doloŕ eta maketx arengan nola ernatu ta mindu zan Mikel'enganako goŕotoa, gero ta areagotzen zijoakiola, ta asieratik eŕakunde ura bere elburuetarako ustiatzeko xedea artu zuen; eta ayeŕ ura beti berotu ta axukatu ta gaŕaztutzeko asmoz, onela erantzun zion:

—Diaz'ek: Ta ni ere, Patxiko, gure asmoetarako oztopo aundiena orixe dalako. Ikusi: len nekazariak līluratu zituen, ortarako ongi antolatu zuen bideaz, eta orain berebat egiten ari da langīleenganako. Etzitzaidan oso aŕitu lugiñak men egitea, emen eta nun-nai oyek buru-gogoŕ, ergel eta aztaputzak izaten diralako; baña eziña iruditzen zitzaidan askoz auŕeratuagoa dan beste gogaera duten ola-gizonak maŕoan berean atzipeturik izango lirakela. Baña oŕ dituzu oyek ere men egiteko berdin, alaber; alpeŕik oso ondo zuzentzeko egin ditugun alegiñak.

—Patxiko'k: Bai, oyek ere txanpon batzuen bidez beren burua saltzeko gerturik eta eŕaz ere, diru irabaztea baño beste betekizunik izango ezpailitzan.

—Diaz'ek: Ortxe, ortxe untzea; gutxi dira Ludi ontan, Patxiko, goragoko xedeak dituztenak; nayago dute geyenek luŕean eta autsan naŕastaka bizi-izatea; kemenik ez, eiki, biotzean goitik ari-izateko; zer egin gure aldetik gizonen arazoak bide egokiagoetan barna joan ditezen?

—Patxiko'k: Zuk duzu burua, jauna, ortarako ta geyagorako ere;

nire adimena zurearen antzekoa izango balitz!, baña ongi ulertzen zaitut eta, ori bai, zu laguntzeko aiduru izango nauzu beti.

—Diaz'ek: Eskeŕik asko, Patxiko, baña zu ere ba-zera nor ortan yarduteko; alkaŕekin lortuko dugu biok emen garaipena.

Onela alkartu ziran beŕiro bi gizon ayek, nagusi ta moŕoi, jabe ta jopu; burua, asmo gaiztoko burua, ta biotza, ayeŕez beteta zegoen biotza. Ta bikote ura Azpaŕena'rentzat izateko, ondorio txaŕen ituŕia.

Baña bi ayek izanezik Azpaŕena'ko guziek ontzat artu zituzten Mikel'en asmoak, eta langiīeen batzordekoak onekin eta Yokin'ekin izan zituzten bilkura batzuk, alde batzuetako argitasunak eskatzeko. Beste biīerak ere langiīeen artean egin ziran, eta ayetara langiīe bat ere joan gabe geratu etzala esan liteke eskiertasun aundienaz.

Azkenez, biīera ta bilkura ayetan iīebete luzea igaro ondoren, Gabon-aldian batzaŕ nagusi batera, guziai, naiz langiīe naiz nekazari guziai, deitzea erabaki zuten, Gabon auŕeko igandean ain zuzen; batzaŕaren elburua, jakiña, bein-betiko erabakia artzeko izan beaŕ-izango litzake, artaz ororentzako izango zan gaŕantzia nolako aundia zala nabari-erazten.

Eta eldu zan eguna, ura ere bai, eldu beaŕean. Garaiz iragaŕita, langiīe ta nekazariak buŕustaz udaletxeko areto aundian sartzen ordu-orduan. Asmo ta xedeak ororen ezagunak ziralarik, aran osoan bat ere etzala esan zitekean ayekiko zudu ta ajoladun izan gabe. Maipuru, lenengo biīeran izan ziranak eta Zelaya ere, langiīeen batzordearen izenean an agertzeko eskatuta.

Endorea jeiki zan lenengoa, ta guziai buruz mintzatzen asi zan:

—Endore'ak: Beŕiz ere emen gagoz alkaŕekin bilduta Azpaŕena'ko gizalagun guziok. Emen egin genuen lendabiziko biīeran, langiīeak izan ziran, arean, emen ikusi genituenak; gaur, ordea, langiīeekin batera gure eŕi guzietako nekazariak ere eldu zaizkigu. Alakotz, ezin geyegirik izan, gaur ororen udaletxe ontan Azpaŕena osoosoa agertzen dala esatea. Ongi-etoŕi guzioi! Ziñez uste dezakezute guziok, lugin eta langiīeen alkartze edeŕ au, niretzat, endorea naizelako ain zuzen eta bereziki, benetan atsegingaŕi zaidala. Orain arte ba-zirudien langiīeak alde batetik eta nekazariak bestetik ibiīi beaŕ zirala; egun, hatzuk eta besteak, guziok zagoze emen ororen elburu beterako alkartuta. Beyondeizuela! Ia alkartasun edeŕ au egiazko anaitasuna biurtzen ote dan, gure aran onen aspaldiko izena, ots, «Azpaŕena'ko Anaidia», bere zentzun sakon eta osoaz, gaurgero egiazko

egipen baten izen egokia beŕiz gureganaturik erabiltzeko egokiena ote dugun.

Gogotik txalo jo-egin zioten endoreari bildutako guziek, eta onela benetako giro adoregaŕiena edatu zan areto aundi guzi artan. Eta endore jaunaren itzak ideki zuten giro naro ta zabal artan, Mikel jeiki zan gero arazoaren azken zertzeladak aipatzeko.

—Mikel'ek: Ene adiskideok: Gaurko gure biīera oni izen egokia jaŕi nai-izango bagenio, ene ustez, gure endore jaunak esandakoa izango litzake egokiena: «Azpaŕena'ko Anaidia»; ezin obe nire iduriko, ta itz bi oyen zentzun sakonean guzioi dagokigu gogoz murgiltzea, gaur eta gerorako ere alkaŕenganako anaitasunean bizi-izateko gerturik.

—Pozgaŕia da, ta oŕela izan beaŕ alegia, niretzat lantegiarekiko nire asmoak zuen aldetik ain gogo onaz onartu dituzutela ikustea. Lenengo aldiz emen azaldu ondoren, laisteŕ, langiīeen izenean asmo ayek zeatzez begiratzeko izendatu zenuten batzordearen lagunak, iru edo lau bider guregana, Yokin eta niregana, erdu dira ta beren iritziak jakin-erazi dizkigute; oyei buruz astiro ibiīi gera arloak alde guzietatik begiratzen eta zorionez guziok batera eldu gerala pozik esan dizaizueket. Alaz ere, beren gaŕantzia berezia dalako, iritzi ta galdera oyetako bi emen aipatzea beaŕa dala deritzait.

—Ona emen lenengoa: Batzordean dagozenen aotik entzun dugunez, eta naiz Zelaya naiz beste lagunai asmoak ondo adierazten ezpaditut zuzendu dizaidatela eskatzen diet, lantegi-jabetasunaren zatiak, zein lanaz zein diruz jasoak izan, bakoitzaren sendiarentzat eskubide berberaz betiko gera ditezela uste-izan dute batzuek, beaŕ eta egokiena bezela.

—Batzorkideai erantzun nien bezela, orain ere beŕiz esatea dagokit; ezteritzait asmo ori ontzat artu beaŕ dugula, ain zuzen lantegiko langiīe guzien onurako, bai ta diruz jabetzaren zatiak berenganatuko dituztenen onerako ere. Ona emen zergatik:

—Zatiak, lendabizi, lanaz eta diruz lortuko dituztenentzat izan beaŕ eta oŕez gain, bidezkoa dalako, jabedunak il ezkero, beren alarguna ta beren seme txikientzat. Baña ez beste iñorentzat; semeak adiñera eldu ezkero lanegin beaŕ-izango dutelako ta beren lanetik obariak atera; ta beste senideak, bakoitzak berea, beren bizi-bidea ukan beaŕ-izango dutelako; ezpaitirudi zuzenbidezkoa lanetik eta ildakoengandik obari berberak batera jasotzea.

—Alarguna ilko danean ala semeak adiñera eltzean, Ola-Elkargo'ak oyen zatiak jaso beaŕ ditu, elkarkide guzientzat izan ditezen, lengo jabedunari zentzunezko salneuŕiaz erosten; osterantzean, zatiak edonoren eskuetara eldu ezkero, urteroko irabazkiñak langīleak edo diru-emaīle izango elirakenekin be banatu beaŕ-izango lirakelako ta neuŕi berean. Ori Elkargo'arentzat oso kaltegaŕia izango litzake, alegia. Ta esandako zatiak beŕiz jaso ezkero, urtero langīleai eman beaŕ-izango dienentzat beste zati beŕiak biurturik izango lirake. Orobat, beaŕ-izatean, beŕiz dirua emango zutenentzat ere.

—Orixe izan da, ene ustez, asieran batzuen batzuek onartu nai etzutenak; baña arazoa ertsiki begiratu ondoren, uste dut guziok esandakoa ontzat artuko duzutela. Ta langīleai buruz esandakoa berdin izan beaŕ zatiak diruz erosiko dutenentzat.

—Beste galdera ere egin ziguten batzorkideak. Ia, nekazariak izan gabe, Azpaŕena'ko beste norbaitek zatiak erosi nai-izan ezketiño, ontzat artuko ote litzayoken. Ortaz enurarik ez niretzat; azpaŕendaŕa izan ala ona bizi-izatera etoŕi, ta oyetxek izan beaŕ baldintza bakaŕak, edonor izan diteke zatien erosle, naiz langīle naiz beste bizi-bidekoa izan.

—Ta, azkenez, zioa edozein izan, edonork bere zatiak saldu nai baldin baditu, Elkargo'ak erosi beaŕ-izango dizkio zuzenbidezko salneuŕiaz; baña zatien jabedunak eztio beste iñori bat ere saldu al-izango.

—Nire gardiz, besterik aipatu nai ezpaduzute, onela buruturik utzi dezakegu gure «Ola-Elkargoa». Ta legeari buruz bete beaŕ-izango diran izapideak, Yokin, Alaiza ta batzordekoen ardurarako utzi ditzakegu.

Etzuen iñork besterik esan eta, aitzitik, txalo jo-egin zioten gartsuki Mikel'i guziek.

Eta oŕela jayo zan euzkal-txoko artan ororentzako, baña batez ere langīleentzat, bizikera beŕi bat, lendabizi guziek onarturik. Gerokoak esateko, gero, artutako bide beŕia, ororen bizirako ziñez, onuratsua izango ote zan. Eta, esan beaŕik ez, Mikel'en asmo guzietarako, ura beste uŕats sendo ta oldartsua izanez.

Lan-uzte orokaŕa

Lan-erakunde beŕia, urte beŕiarekin batera, beraz, Azpaŕena'n asi zana. Gauza ta arazo beŕi guziak bezela, ura ere bere asieran araneko biztanle ororen erpai ta urduriz arturik izan zan. Jasandako elkaitzaren ondorekoa zalarik, gañera, itxaron eta bilduŕaz ere; erakundea ongi antolatuta zegoela uste aŕen, ezaguna etzan geroko beŕi bateruntz abiatu beaŕ zutelako. Geroko ura guzientzat izango zan ala nolako berdin, eta alde ortatik arloa begiratuta, entzin egoteko bide berezia zan bakoitzarentzat eta eŕitaŕ guzientzat be.

Urtats egoki ta edeŕa ordukoa Azpaŕena aran osoarentzat: Urtebeŕi'arekin erakunde beŕia, amets beŕiak, adore beŕia ta itxaropen beŕia ere ororengan eta ororen bizirako. Itxaropenak batez ere angoen gogoari indaŕa ematen ziolarik eta biotz guziai egokienik eusten ziela, ura eskierki txoko artan igitzen ari zan gizadi-zati artegatsuarentzat ekintza guzietan zebīlen lei-arazle ta eraginkoŕ bereziena. Ta auŕeruntz oldarturik abiatu ziran gizaki ayek, idekitako bide beŕietan barna, elburu osoa betetzeko yoran bizienaz.

Langīleak batez bat biotzondoko berezi ta atsegiñaz asi ziran beren lana egiten, bide beŕi aren asikeran; etzuten oraindik ongi berenganatu lantegia ta bertan zegoen guzia, bere neuŕian, berenak zirala dagoaneko, ain oituta baitziran ordurarte, ugazabarena bakaŕik zala usteko ta onartzeko; ta beren buruari, orain eta gerorako, guziak eta bakoitza jabeak zirala bein eta beŕiz esanaŕen, ura ametsezkoa ta bakana bezela iruditzen zitzayen. Ausaz lendabizi ta yadanik egosi zutena, lantegian ugazabarik etzegoena izan zan, eta auŕerantzean ere egongo etzala, bat bakaŕik noski, ta len eziña irudiko zitzayekeana ta aipatzeko ere etzana, orduan egipen betea zeukatzen buruturik zorionez. Ongi egiaztu zuten guziek ori, erakuntza beŕiaz lanean ari-izan ziran lenengo egunetik, eta oŕek ematen zizkien asteko adore ta poz aundia benetan. Oso barneraño sartzen diran oiturak bezela txit ororenganatuta zegoen eŕi guzian ugazaba baten pean ego-

tearen asmoa ta, naiz ori atsegiña ez izan, ia ezinbestekotzat zeukaten guziek; oŕengatik asmo ori kentzea etzitzayen eŕaz izan, eta luzaro egongo ziran bizikera beŕiaren egia benbenetan berenganatu arte. Dana dala aldakuntza begien auŕean, lanean eta beren baitan ere argi atematen zutelarik, egipen arek ematen zien guziai biotzean poza.

Nekazariak ere, beren aldetik, zudu bizienaz bizi-izaten asi ziran lantegiaren antolatze beŕia zala kari. Len, berengandik oso uŕutian begiratzen zuten ola ura ta langiīeai buruz, noski, kardabarik gabe bizi ziran geyenak; beren semeren bat ara lanegitera baldin bazijoan, langiīe beŕiaren sendian bakaŕik aipatzen ziran, arinki gañera, lantegiaren goraberak. Berentzat ere an ugazaba zegoen, eta berena baño goragokoa zan maīean ari zan aundiki bezela begiratzen zuten begirunez beterik. Baña dagoaneko ugazabarik ez, eta ola erosteko beren dirua eman zutenezkero, ayek ere beren burua jabetzat eukitzea onartu zuten, aŕo gañera, ain zuzen beren eskeŕ aldakuntza aundi ura egitea lortu al-izan zalako. Auŕerantzean bat egingo zuten langiīeekin; oso ontzat artzen zuten betidanik, berak beren etxeetan lanegin eta yardutea, iñoren mende egon gabe, ta lana ta berena zan guzia beren aukerakoaz erabiltzean; eta nolazpait eŕukitu zituzten ayen lan-bizi lotuan ari beaŕ zutenak, eta berak, naiz lanegiteko naiz beren aldi osoaz ustiatzeko, beren eskuko ziralako, beren buruaz aŕanditsu ta iīaŕaindurik ari-izaten ziran maiz eta pozik. Baña aŕezkero ola-langiīeak ere beren gain lanegingo zuten eta oŕengatik kideagotzat artuko zituzten; gañera, ortarako beren laguntza eman zutela-ta, aŕoago ta pozago; ta beren jabetasuna etxetik at zabaldu zala ikustean, atsegiña ere, eta ez txikia, beren barnean; berak are lantegian jabe.

Ororen asmoak, beraz, batera zetozelako, guzien onuraz ere baturik, anaitasunezko giroa zabaldu ta edatu zan Azpaŕena osoan, gentza-giro edeŕa buruturik, eta guzien aŕemanetan entzinkoŕ agertzen ziran gogo zabalik alkaŕengan orok anaya ikustean. Ba-zirudien txoko ura zorion-arana biurtu zala, guzia baitzan siñismena, itxaropena ta alkaŕenganako ongi-naya. Betetzekoa izan liteken oso zori-onezko bizikera, ausaz, ura? Unealdi artakoa nolabait oŕela iruditu ta egitan oŕelakotzat artzekoa bazan ere, mota guziko amaika giriña ta apeta saŕi giza-biotzean, eta ontaz edo artaz, oyen menpeko izatera gizona beti gerturik. Egunen eta urteen bidean oŕelakorik an ere izango zala bidezko, batez ere beste xedeak zituztenak be an bertan bizi ta ari ziralako.

Dana dala, ezin ukatu antolatze beŕiaren asikera egoki ta onenetakoa izan zala, guzien edo gutxienez geyenen gogarako. Baña zabaldu ere, laisteŕ zabaldu zan eŕitik at bizikera beŕi aren izpaŕa. Lenengoz Mikel'ek berak «Eŕi-Deya»'ra bialdu zion txosten egoki bat, len «Azpaŕena'ko Elkargo»'az egin zuen antzera, onak zeritzaizkion ekin-bideak edagaŕitzat zeuzkalako, ororen aldetik ezagutuak izan zitezen.

Oyartzun sakona lortu zuen beŕi arek abertzaleen artean, eta «Euzko-Langiīeen Elkargo»'an lanean ari ziranak argi ikusi zuten bereala, beren xedeetarako Azpaŕena'n lortutako antolaketa bereziak nolako indaŕa zeukan; gañera ametsezko gauza etzalako, ekiñean bizi ta ari zan erakundea baizik. Eta aurki elkargo aren artezkari batzuek Araya'ra jo-egin zuten, an beren lagunartekoak ziranengana. Auek, noski, oso ondo artu zituzten, bai ta ayen galderai erantzun egokiak eman al-izan ere; baña Mikel'engana joatea esondatu zieten, bera baitzan Azpaŕena'ko elkargo aundi bien asmoa izan zuena, bai ta beren antolatzaiīea be.

Gogoz onartu zuten eldutakoek onua, ta Amamio'ra abiatu ziran azkaŕ, Araya'ko batek lagunduta. Alegia, Mikel'ek lañoki ta gogoz ere atotsi zituen, eta bere lan-gelara saŕerazi gero, nai aña ta lasai ayekin mintzatzeko.

—M.: Ia adiskideak, pozgaŕia da niretzat zuek emen ikustea ta ba-dut gogoa Bilbao aldetik ekaŕ dizaizkidakezuten beŕiak jakiteko. Baña etzerate ona etoŕi, jakiña, beŕi-emaiīe bezela ta oŕengatik zuen xedeai buruz ari-izango gera nai baduzute.

—Eldutako batek: Bai, benetan, ba-dugu gogo bizia emen, aran ontan antolatuta dagozen elkargoen beŕi zeatza ezagutzeko; len nekazarienaz ba-genekien zerbait, baña oraingoa dan langiīeena da geyen erakartzen gaituena. Ba-dakizu, gure Eŕi'an nekazarien bizia ez da ia ezer aldatu ta oŕengatik edo ba-dirudi ortan ari-izateko beaŕ aundirik eztagoela; baña langiīeen bizikera bereziago dugu gaur egun eta aunditzen, zabaltzen eta gorbizten ere ari zaigulako, ortarako zuzendu ta opetsi beaŕ ditugu gure aŕeta ta lan guziaak.

—M.: Bidezkotzat artzekoa da ori, baña nekazarien bizia guregan aspaldiko ta jatoŕagoa dalarik, beaŕezkoa zaigu bizi ori lagundu ta obetzeko alegiñetan sartzea. Gure Eŕi'aren muña ere baseŕi ta basetxeetan dugula nola ez ikusi ta gogoratu? Alaz ere argi atematen dut nik ere gaurko ola ta lantegien arazoak duen gaŕantzi aundia. Ori

dala-ta, ain zuzen emen, Araya'n asita daukagun eratze beŕia xede ortaz antolatuta dago.

—Beste batek: Orixe dalakoan etoŕi gatzaizue, ongi baderitzaizue eratze oŕen beŕi zeatza jakin nayean. Naiz dirudunengandik naiz gaurko langīleen erakundeetatik eskeintzen dizkiguten egitarauak, gure Eŕi-arentzat bederen eztugu uste egokiak dirala, ta beste zerbaiten bīla gabiltz gure «Euzko-Langīleen Elkargoa» irasi genuenetik. Eta oŕetxengatik zuek egindakoaren beŕia artu bezin laisteŕ zuengana etortzea erabaki genuen jakin-gura ta bīlaketa.

—M.: Ulertzekoa da ori, arean, eta nire aldetik nai ditzakezuten zeatz guztiak emateko gerturik natzaizue. Ara: nire ustez, gizonen arteko aŕeman guzietarako kidetasuna onartu beaŕ da eŕoz; ezin onaŕ diteke alkaŕenganako buŕuka bidetzat; gizon guziak anayak geranezkero, ezinbestekoa da beti asmo ontaz yardutea. Emen, naiz lugiñen naiz langīleen alkartasunerako oŕela jokatu dugu ta asmo ori guziek ontzat aŕ dezaten alegindu gera asieratik. Nekazarien elkargoaren beŕi ba-duzutelakoan nago, ta orain langīleena emango dizuet, orixe baita, gañera, zuek bereziki jakin nai duzutena; baña zeatz au ere emen nabaritzea ona izango da, ots, gure langīleen elkargoa, egitan, berena bakaŕik eztala, bertan aran ontako luŕ-langīle ta ola-langīleak bat eginda dauzkagula gaur zorionez.

Gero, ezagutzen ditugun erakundearen goraberak jakin-erazi zizkien Mikel'ek bere solastiaŕai zeatzez; eta etzan izan txikia entzule ayek berenganatu zuten atsegiña.

—Ayetako batek: Beyondeizuela! Pozez beterik entzun dizugu esan diguzun guzia ta bide edeŕ bat ideki duzutelakoan nago. Jakiña, beste bideak be soŕ ditezkela ezin ukatu guziok guztiz aburukide ezkeralako, ta beste aldetik lan-bizikera ere alda ditekelako; baña gaurko ontan zaīa deritzait zuena baño obea egin ditekenik, eta eredutzat aŕ dezakegu, ziñez.

—Beste batek: Orixe uste dut nik ere ta, uzten badiguzu, zertzelada batzuk idatziz artuko ditugu gure Buru-Batzaŕ'ean aurkezteko. Geyenetan, lantegien jabe ta beren langīleen arteko alkarbideak gero ta txaŕago, uŕi ta gorbiztuago egosten ari dira, ta bide egokiagoak bīlatzea beaŕ-beaŕa zaigu, auzi ain gogoŕ ori norabide obean saŕerazteko ta bide batez ororen arteko gentza be sendotzeko.

—M.: Eragozpenik ez ortarako, ta gogoan gogora gure aldetik,

zuen edeŕaŕen eta gure artean batik bat alkaŕ lagundu beaŕ dugula bete-betean nagoelako.

Bereala, lagun ayek artu nai-izan zuten guziaren beŕi zeatza eman zien adeitsuki. Ta argibide guziak idatzita geratu ondoren onela jaŕaitu zuen:

—M.: Ene ustez, emen sayatzen ari geran gure erakundea ta oŕen antzeko antola litezkenak ere, asteko bederen, ola ta lantegi txikietan jartzekoak dira bereziki; oso aundiak diranetan eztakit eŕaza izango danik berdin jokatzea. Baña gure Eŕi'an lantegi txikiak dira eŕuz dagozenak, aundiak baño askoz geyago, ta ola txiki guzti oyek era ortaz tajutuak izango balira, alde batetik lanbide ona izango litzake langīleentzat eta bestetik aundietan ere nolabait eragiteko egokiak, beren egiturak langīleen onurako aldatzea beaŕ-beaŕa bezela ikus zezaten.

—Solaskide batek: Izpidean zagoz, noski, ta xede oyetan bat gera zurekin «Euzko-Langīleen Elkargo»'an ari geranok. Eta gure arteko elkarbideetan jaŕaitu nai-izango genuke gaurgero zain da muin. Zuek emen bi elkargo edeŕ egiñak eta yardutean dauzkazute; apika, egunen bidean, ibiltzean ikasiko duzutenez, zerbait aldatu ta obetu beaŕ-izango duzute ta zuen atunean atemango duzuten guziaŕ oso jakingaŕia izan liteke guziontzat.

—M.: Bai, ortarako ere gerturik aurkituko gaituzute beti, ta ziuŕ egon zaitezkete gure kexutasuna, gure aran onen barnean mugatua bakaŕik eztaukagula; gure xedeetan Euzkaleŕi guzia inguratu nai-izango genuke.

—Ori dala-ta, urduri gagoz beste bazteŕetan eta Bilbao inguru artan jazotzen dana entzuten eta begiratzen; ene ustez lantegien ugazabak eta, izari orokaŕean, dirudunak an eta besteetan ere gorbizten ari dan ebazkizunaren eŕua dute neuŕi aundienetakoan; Lateŕi'aren babesean ari diralarik, mukeŕ beti naiz langīleenganako naiz gure Eŕi'aren biziarekiko.

—Beste solaskide batek: Oŕelaxe da ain zuzen eta ori bera salatzen ari gera geron aldetik eta eten gabe; baña gure Eŕi'ari buruz ajola gutxi langīleen artean be; alakotz gure egitarauan arazo biak, Eŕi'arena ta langīleena alkartu nai ditugu, egitan biak bidegabekeri baten pean jasan beaŕ dutelako.

—M.: Eta ez al da nabaritzen gaurko ugazabaen aldetik jokera aldatzeko zantzurik?; luzaroan ari dira gizarte-auzi ortan eztabaide-

tan eta buŕukan, eta ba-dirudi, guzien onurako, beren aldetik be zerbaitean amor-egitea edo bide beŕi ta obeak bīlatzeko alegintzea egokia izango litzakela.

—Lengo solaskideak: Bai zera! Oyek lengo lepotik burua beti. Langīleak, beren aldetik, ezin jasan eta jasan eten gabe bizi, ta beren alkartasunak egin dituzte beren eskubideen alde obeto lanegiteko. Deitoragaŕi guretzat alkartasun oyetan gure Eŕi'aren auziari buruz ajolik ez izatea; aitzitik zerbait ikutu ezkero aurka agertzen dira, ortaz ugazabaekin bat egiten, eta berdin jokatzen dute erlijioari buruz ere. Beraz, gai-bizian barna langīleen alde ekiten baldin badute be, gogo-bizian gizonen beaŕ aundienaren aurka jokatzen ari dira; geron iduriko kalte osoa dan au mail aundiagokoa da, gai-aldetik burutuko duten on guzia baño.

—M.: Bai, nik ere orixe oartu ta uste dut; zaīa deritzait auzi aundi ori zuzentzea; ausaz zeaŕetik edo, zuek esondatzen duzuten bideaz agian.

—Bigaŕen solaskideak: Orixe da gure xedea, euzko-langīlea dan gizonarentzat bide egoki, onuratsu ta gogozkoak idekitzea. Baña zaīa izango dugu beti ebazkizun au; egun ugazabak, dirudunak eta langīleak beren egokeraetan tinkoturik dagoz eta eziña edo gaurko ontan iñork bestearenganuntz uŕatsik be emateko nai-izatea; aitzitik alkaŕengandik gero ta uŕutiago. Orain galbidezkoa dan erabaki oso gaŕatz eta gaŕantzi aundienetakoa artu dute langīleen alkartasunak oro: lan-uzte orokaŕa egitea, Bizkaya'n bederen eta al baldin badute beste erkietan ere.

—M.: Bai, bide gogoŕa artu nai dutena, indarkerietara eŕaz eltzeko dana; langīleak beren burua bide oŕi lotzen badiote, bein asi ezkero Yainkoa'k daki noraño el diteken. Alan eta guztiz be, yardespen aundiena ugazabaena izango da, enurarik gabe. Ta noiz egingo dute lan-uzte orokaŕ ori?

—Besteak: Datoŕen īlearen amaseigaŕen egunean; oŕela iragaŕi dute dagoaneko. Guk ere, nai ta nai ez, bertan sartu beaŕ-izango dugu, bidezkoa baitzaigu beti langīlearen alde jokatzea.

—M.: Auzi latza ori gure Eŕi'arentzat, berez, bere barnean bilbatzen ari dalako ta berarena, Eŕi'aren biziarena, ez ezaguna bezela geratzen dalako; giro ortan aurkako artzen ezpada ere.

Jeiki ziran azkenez etoŕitakoak eta beren eskeŕona kartsuki beŕiro

ageŕerazten, aguŕ-egin zioten Mikel'i berarekin aŕemanetan jaŕaitzeko nayaz.

Ontzat artu zien ori Mikel'ek bere aldetik be, baña bakaŕik geratu zanean, bere baitan maiz sortzen zitzaizkion itzal aztunak unealdi artan beŕiro ayek menderaturik ikusi zuen bere burua. Bilbao aldean gizonen arteko buŕuka, anayak edo gutxienez lagunak izan beaŕ-izango liraken gizonen arteko guda beŕia, lengoen aldetik beste motazkoa, baña beti guda, gizonak alkaŕen aurkako soŕerazitako guda; ta gentzarako bideak, alde artatik ere, itxita, gero ta itxiago. Gizonarenganako neuŕi gabeko uŕikaltasuna Mikel'en baitan; bizi-ateka artan beŕiz ere alkaŕen aurka, anayen aurka jokatu beaŕ, gizonaren berezko jokera orixe ta ez besterik izan beaŕ-izango bailitzan. Gizonaren anaya gizonak izan beaŕ, alkaŕenganako maitasunak eskatzen duenez, eta biziaren barna gizona gizonaren etsai, eten gabe, beti.

Bere bizi guzian inguma beltza bezela aurkezten zitzayon Mikel'i ezin gaintzeko zirudien gizonen arteko eŕa, goŕotoraño ain eŕaz eltzen zana, guztiz gorbiztutako buŕuka ere biurtzekoa; ta edestiaren zeaŕ beti, tai gabeko eŕa, goŕoto ta guda, gizaki-anayen artean alkaŕ begietan arturik, ayeŕ eta ezin-ikustea, gentzarako bide guztiak ixteko aña. Ta orduan zabaltzen ari zan langintza beŕia, gentzarako erabīli beaŕ zana, eŕakunderako ere bide egokia; zer ote dagoen gizonaren izakeran, alde ta aldi guztietan oŕen gaizki jokatzeko!, nolako giriña edo doakabezko yitea alkaŕenganako maitasunari uko egiteko ta aberearen beko olde txaŕaren menpe yarduteko, zori-gaiztoko ta ezinbesteko jokerari jaŕaitzeko, ororen orok gaitzetsita izango bailitzan!

Goikoen berekoikerian ikusten zuen Mikel'ek, ain okeŕ eta txaŕa, gizonen arteko era askotan gertatzen zan geyegizko ezberdintasunaren eŕu aundiena. Geyago ala gutxiago, gizon guziengan agertzen da beti berekoikeriaren giriña, baña goiko tokietan dagozenai dagokie, ororen onaz gogoratuz, zuzentzarako ta alkaŕen arteko anaitasunerako, bide egokiak aurkitu ta zabaltzea; alaz ere, ori egin ordez, ba-dirudi ezberdintasunak aunditu ta gorbiztea dala beren xedea. Eŕi'arenganako ta gizadiari buruz yardespen aundi andi-mandiengan.

Eta gudatzeko beaŕean, oyek jaŕitako egokeraren aurka jokatzea agertzen zitzayon beaŕena bezela; ezinbestekoa zala ikusten zuen bidegabekeri beŕiari buru-egitea, ta oŕengatik bidezkoa zeritzayon Bilbao'n eta nun-nai langīleek beren bizi ta eskubideai buruz zeramaten

buŕuka; alan eta guztiz be ezin onartu zituen guda ortan eta langiīeen aldetik nastuta agertzen ziran bi jokera: bat, erlijioaren aurka, ta bestea, Euzkaleŕi'aren eskubideak nardatzen ari-izatea. Mikel'entzat etzegoen gizonari buruz okeŕ aundiagorik Yainkoa'gandik alde-egiteko gura-izatea baño; zergatik zapuztu beaŕ zuzentza bera dan Jauna ain zuzen, zuzenpideari eusteko uŕatsetan?; eta zergatik baztertzen zan abeŕiaren eskubidearena? Gizonari dagozkio naiz Yainkoa, naiz abeŕia ta bizi-beaŕa; zergatik aldendu arazo oyek alkaŕengandik?, batzuetan, saŕi, alkaŕen aurkako ageŕerazten? Oŕa okeŕ aundia oraingo gizaldiengan koskontzen eta gorbizten ari zana; ta oso nastuta ikusten zituen Mikel'ek iru asmo oyek bere eŕitaŕen artean; egitan abertzaleak ziran erakundeetan bakaŕik irurak zegozen alkarturik eta alkaŕen laguntzean gañera. Ori zala-ta, tinkotuago begiratzen zuen bere burua abertzaletasunaz idekirik zegoen bidean, eta oŕengatik ere atsegiña zitzayon oso «Euzko-Langiīeen Elkargoa»'k zeraman jokera; oŕela, pozik geratu zan zearo, oŕen ordezkariek egin zioten agertaldiaz.

Alan eta guzti, kardabaz beterik egon beaŕ langiīe geyenak, egitan, aŕotzak ziran beste erakundeetan kokaturik zegozela ikustean; langiīe oyek beren erakundeen zuzentzak jaŕaituko lituzkete, ziuŕ, eta gutxienez Eŕi'ari buruz ajolaturik ez, beren siñismena bide batez galtzean. Egipen ayek beste eragozpenak gañeratzen zizkioten abertzaletasunaren ebazkizunari, ta ezin oyen auŕean keko-meko edo ezer egin gabe geratzea. Eziñak legerik ezpadu-ta, etzuen iñoiz itz oŕen zentzunaz geldirik geratu beaŕ-izango. Kexutasun eta lana aunditzen zitzaizkion berari bai ta bere aburukideai ere, ta arpegia ematea baño beste biderik etzegoen. Ondorioz berarentzat eta guzientzat, Sabin'entzat be bereziki, alde artatik zabaltzen zan ebazkizuna oso aintzakotzat artu beaŕ zuten, gero ta geyago enurarik gabe.

Mikel'ek, bere aldetik, arazo ari aŕeta aundienaz begiratzeko erabaki zuen, «Eŕi-Deya»'n berari buruz idazteko xedeaz ere. Unealdi artan, bilbaotaŕek esan ziotenez, Eŕi guzian gertutzen ari zan lanuzte orokaŕa ajolaz oartzekoa zitzayon, eta naiz izpaŕingietan agertzen ziran beŕi ta zeatzak naiz beste bideetatik eltzen zitzaizkionak ongienik aztertzeko zituen auziaren auŕerabidea nola zijoan jakiteko. Azkenengo beŕi batek areago aundiagotu zion bere kexutasuna: langiīeen erakundeek lan-uzte ura matxinada orokaŕa biurtu nai zuten eta ortarako beren neuŕi ta antolabideak arduraz bai, baña kementsu-

ki artzen ari ziran. Zer gerta liteke langiīeen aldetik ori onartuko balute?

Arlo arekiko beste azpegi berezi bat agertu zan bereala, guzia galbidetsuago zegiena: Egoeŕi'ko agintariek lan-uzte ura debekatu zuten, bertan sartuko ziran guzienganako zemai gogoŕa iragartzen. Eta langiīeen erakundeen aldetik, ori zala-ta atzeratuko etzirala erabaki zuten; otian giroa goibeltzen ari zan eta ezin igaŕi auŕetik noraño elduko litzaken auzia.

Ain gogortuta biurtzen ari zan egiteko ura, dagoaneko ororen ezaguna zan langiīeen artean eta ayengandik at ere. Araya'ko langiīeai be autatutako egunean lan-uztea egiteko deya eldu zitzayen. Nola erantzun dei ari?; margo guzietako iritziak agertu ziran lantegi artakoengan; bayetz eta ezetz batzuen aldetik, ez nora ez ara inki-manka beste batzuek, geyenak apika auek. Ta erabakitako eguna uŕeratzen zalarik, ertsiago egiten zan erabaki bat artzea. «Azpaŕena'ko Langiīeen Batasuna»'n eguneroko bilkuretan eztabaidak beroturik gertatzen ziran; batzuek berak ugazabarik etzutelako, lan-uzte artan sartu beaŕ etzutela uste zuten; beste batzuek langiīe guzienganako alkartasunagatik bayetz ziñoten. Eziña zirudien batera etortzea, ta oŕengatik Zelaya'ri otu zitzaion «Ola-Elkargo»'aren batzordekoai biīera berezi batera deitzea.

Ondo iruditu zitzayen langiīeai ori egitea, baña an azaldu zan Diaz jaunaren iritzia aurka.

—D.: Baña nun duzute burua? Ez al dakizute Mikel, Yokin eta nekazariak zer esango dizueten? Oyek, zalantzik gabe, lan-uztea eztute iñoiz ontzat artuko; onenean, egin ezkero, alpeŕik izango da uŕats ori, ta oyen asmoen auŕean amor badagizute txaŕago, beren pean geyago ikusi beaŕ-izango duzute zuen burua.

—Z.: Ori ikustekoa da; edozein eraz emen eztago bat egiteko biderik eta zerbait egin beaŕ dugu erabakia artzeko, au ezinbestekoa da-ta. Beraz, zuei, geyenoi, ene asmoa ongi baderitzaizue, nik bereala beteko dut nire xedea.

Iñork etzuen aurka ezer esan eta asmoa ontzat artu zan; alakotz, onartze arezaz lagunduta, uŕengo egunean Zelaya Yokin'engana joan zan, bere ta batzordeko beste langiīeen izenean, batzordearen biīera berezia egiteko beren naya agerturik eta beaŕ-beaŕa zitzayela esaten. Yokin'ek beingoan bayetz, ayen beaŕa zein ote zan galdetu gabe; ta orduan berean Mikel'i ta batzordeko besteai dei-egingo ziela agindu

ere, ongi bazeritzayen uŕengo larunbaterako, egun egokiena izango zalakoan.

Esan eta egin ere. Alaiza'ren bidez aurki bialdu zien deya, albait laisteŕen erantzuna eman zizayotela eskatzen. Eta guziak, berandu gabe beren bayetza emanez, bilkurara erdu ziran leyatsu; zer ote liteken beren buruari galdetzen. Mikel'en baitan, alarik ere, susmoa piztu zan, lan-uzte orokaŕarena oroituz eta bilkurarako eskaria norengandik zetoŕen ikustean.

Alkartu ziran, geroz, batzordeko guziak, autatutako egunean eta oren-orenean. Yokin'ek guziei ongi etoŕi egiñik, bilkura Zelaya'k eta beste langiīeak eskatuta egin beaŕ zala esanez, Zelaya'ri beren asmoak agertzeko eskatu zion.

—Z.: Ba-dakizute guziok, noski, egun auetan eta Bizkaya aldean batez ere, nolako lan-giroa dagoen. Langiīe ayek jasan beaŕ dituzten lanerako baldintzak oso txaŕak diralarik, eta obetzeko orain arte egin dituzten alegiñetan ezer lortu eztutelako, lan-uzte orokaŕa egitea otu zaye, Euzkal-Eŕi guzian izateko; batzuek, lan-uzte ori matxinadazkoa biurtzea nai omen dute. Guk emen, matxinadarik aipatzeke, lan-uztea lagun dezagun, deya artu dugu. Gure langiīeen elkargoan arazoa begiratzen ari-izan gera egun batzuetan eta eziña izan zaigu guziok batera etortzea. Batzuek, eta oyen artean ni ere, laguntza ori emateko gerturik gagoz; beste batzuek, emen daukagun lanerako erakunde berezia dala-ta, ortan sartu beaŕ eztugula uste dute. Ta eztabaida ortan aterabiderik ikusten eztalako, niri otu zait zuekin oŕezaz mintzatzea; ori ondo iruditu zaye guziei, ta oŕa zergatik eskatu dugun biīera au egitea, zuei zer jazotzen dan esateko ta zuen iritzia eskatzeko.

—Yokin'ek: Egitan ezin otu zitzaidan gure batzorde ontan zuk agertzen diguzun arlo ori emen iñoiz erabiltzekoa izango zala; baña orain, aurkeztu ondoren, etzait gaizki iruditzen eta aitzitik ondo jokatu duzutela deritzait, naiz eta gure batzorde au ortaz ezer erabakitzeko, ene ustez, iñor ez izan. Alan eta guztiz be, ta ortarako bildurik gagozela, bi gauza auek begiratzeko ditugulakoan nago: lenengoz, lan-uzteaz gure lantegiarentzat izan ditezken kalteak, eta bestetik ia lan-uztearen egokitasunagatik kalte oyek leporatzea ontzat artu beaŕ ote dugun; eta uste ortan batera eltzen bazerate ni ez naiz aurka jaŕiko.

—Nekazari batek: Zeintzuk izan litezke zuk aipatu dituzun kalte oyek?

—Y.: Alegia, egun batean burutu litekena egin gabe geratzea; jakiña, jai-egunetan egin oi duguna egun ortan ere badagigu; ongi dakizutenez, egun oyetan labezai bi geratzen dira labeak geldi ta itzali eztitezen eta beaŕ dan bezela pizturik jaŕaitzeko. Eztut uste ortarako iñork eragozpenik jaŕiko duela.

—Z.: Ori bai ene iduriko, ta gañera guzioi zaigu egokia, ta ez gutxi, labeak ondo zaintzea.

—Y.: Bidezkoa da, bai, oŕela ustea; otian, izan diteken kaltea onartzea geratzen zaigu erabakitzeko. Zuri zer deritzaizu, Mikel?

—M.: Bilkura ontarako deya artu dudanean, ziñez, enukean iñundik uste-izango emen aurkeztu diguzuten arloa zio izango zala, ta zerbait aŕituta geratu naiz jakin-erazi diguzutenean. Egia esateko, orain eztago lantegian bertan beste tokietan ikusten dan lan-uzterako zergaitikorik, eta ustekoa da auŕerantzean be oŕelakorik sortuko eztala. Beraz, esandako lan-uztea emen ere egiten bada, beste tokietan lan dagiten langiīeenganako laguntasuna ageŕerazteko bakaŕik izango da. Ta ori, iñolaz ere, ezteritzait gaizki; langiīeen alkartasuna ontzat artu beaŕ da beti ta berari eustea egoki ta beaŕezkoa izango dugu berdin. Baña ori zuei, langiīeoi dagokizue bakaŕik erabakitzea; ni ortarako enaiz nor eta ezin zuei esatea zer egin beaŕ duzuten; lan-uztea egitea ontzat artzen baduzute, guztiz onartzekoa izango da niretzat, eta eztizuet eragozpenik jaŕi nai-izango zuen xedea bete dezazuten. Oŕengatik, ene ustez, emen lantegian izan diteken kaltea ontzat artu beaŕ dugu; ta ori langiīe guzienganako gure laguntza bezela ematea izan diteke, gogoan-gogora emanda gañera.

—Z.: Eskeŕik ainitz zuei, ageŕerazten diguzuten adeyagatik; nire ustez nire lagunai zuen iritzia jakin-eraziko diedanean, uzkuŕ dagozenak ere aburukide biurtuko zaizkigu.

Oŕela amaitu zan biīera, ta azkenez, Zelaya'k uste zuen bezela, guziak batera eldu ziran iragaŕitako egunean lan-uztea egiteko, naiz eta Bilbao aldetik zetozen beŕiak guztiz gogo-berotzekoak ez izan. An langiīeen buru ziran batzuek lan-uzteari matxinadazko jokera eman nai zioten, eta lateŕiaren agintariak, oŕengatik ala ori aitzakiz artuta, lan-uztearen aurka egingo zutela gaztigatu zuten. Erabaki oŕek su ta gaŕ eman zizkien langiīeai ta, okildu ordez, buru emateko agertzen ziran sendoago.

Iguripen bizian zegoen Euzkaleŕi guzia iragaŕitako egunaren auŕe-

koetan. Zer jazoko ote zan? Esakizunik iñoiz izan bazan, orduan amaika ta margo guzietaz. Auŕera irtengo al lirake langiīeak?, ez al ziran gibeleratuko laŕi-unean edo lenago bearbada? Agintariek ertzain eta gudalari ere, Bilbao aldean auŕeko egunetik jaŕiko omen zituzten ageŕaldi guziak banantzeko xedeaz eta ortik indaŕezko gataskaren bat sortuko ote zan bilduŕez bazteŕetan.

Eta larderiak, zoritxaŕez, alpeŕik izan etzirala, argi, samin eta auengaŕizko ondorioak biurtu zirala ikusi beaŕ-izan zan. Bilbao aldameneko eŕi batean bildu ziran langiīe geyenak, iragaŕita zegoen bezela, ta ara ertzain eta gudalariak ayen gañean jauzi zirala gogoŕ eta ankeŕ. Aurka langiīeak, kemen eta gogo aundiaz beren elbururaño eltzeko oldartsuki, baña gudalariek laisteŕ zanpaka, ta langiīeen odola ixuri-erazi zuten ankerkienik.

Odol-eguna egin zuten ura agintariek beren indaŕaren bitartez; sei langiīe juasi ziran orduan betiko ta ogetamaŕ baño geyago zaurituta. Garaipena, beŕiro, indaŕ utsarena, kaleratu ziranak izpidean zegozenentz begiratu gabe. Goitik eldutako agintza ororen gañetik bete beaŕ, eta bete egin zuten, bai, mukuŕuka.

Etzan, oŕela, alaz ere, ezer zuzendu; langiīeen artean amoŕu ta goŕotoa biziki gorbiztu ziran, eta beren iīak lurperatzean zin-egin zuten guziek buŕuka gero ta isitiago auŕera eramango zutela. Gizartean gentzarik ez, eta zirudienez goŕotoak azken itza bere.

Azpaŕena'n Bilbao'ko beŕi itunak eldu ziranean, mindurik eta ortzak aoan geratu ziran. Berak, langiīeak, beren kale-agertaldia egin zuten eragozpenik gabe, baña besteen ezbeaŕa berena bezela artu ere. Erkatzeko zeuzkaten beren eŕian eta Bilbao aldean gertatutakoak; an buŕuka, goŕoto, ezin ikusi, artega, bilduŕ eta laŕitasun; beren artean, ostera, naretasun, alkaŕenganako adeya, itxaropena ta gentza. Ayentzat, eta ororentzat be, egun artan gertatutakoa ikaskizun edeŕa, Azpaŕena'koentzat alpeŕik izan etzana: gizonentzako bide egokienak laguntza ta lankidetasuna zirala, ayerkunderik gabe alkaŕekin adiskidetasunez eta gentzan bizi al-izateko. Guziek asmo ta xede oyek Mikel'enak zirala gogoratu zioten alkaŕi, ta berarenganako eraspena aunditu ta mamitu zan guziengan, begi onez gero ta geyago begiratzeko.

Mikel'entzat ikaskaya ere gertapen ayetan, baña auŕetik eta betidanik uste artan zegoela-ta, auŕeruntz jaŕaitzeko tinkoago ikusten zuen bere burua. Azpaŕena'n geyen-geyenak aburukide zeuzkala pozik

ikusten zuen, eta bere jokera beste eŕietara, Euzkaleŕi osoan edatzeko xede bizia borobildu zan bere baitan; nola ortarako jokatu? «Euzko-Langiīeen Elkargo»'ren bitartez apika. Dana dala, bide artatik joan beaŕ zala usteko, enurarik ez berarentzat, eta bide artan jaŕaitzeko, gogatsu ta itxaropenez beterik, xede goŕoŕ, berezi ta sutsuena berarengan indartu zan, norabide ura, on, tinko ta guztiz egokia zala ikustean.

Asmo ta xedeak betetzen

Bizian barna azi-oŕaziak ugari nun-nai ta noiz-nai ere; bizidun guzientzat eta edonorentzat; geyago, bearbada, ekintzetan ari dan gizonarentzat, eta asieran ustekoak etziranak egunen bidean sortzen dira maiz, ustekabean ere alde edo aurka eragiteko goraberak; eta eragite oŕen bidez batzuetan ondore on eta kausitu, besteetan ondore txaŕ, ondapen, poto ta zula.

Zer ote da gizonen egite, langintzan eta eginkizunetan, beren uŕatsetan tarteratzen dana eta norabideetan besteratzen duena? Ausaz ezinbestekoa zana ta asieran gizonaren adimenak ateman al-izan etzuena, edo agian arazoen lekorean, lendik ezin ikustekoak ziran eginkariak eraginkoŕ azaltzea. Dana dala, ekintza guzietan ustegabeko gertakerak saŕi ta ez uŕi sortu beaŕ.

Oŕengatik, eiki, oŕ edo an, adua dala uste-izaten da guzia ebazten dana; beste nunbait gizonaren almenak aduŕ eta patu guziaren gain yardun dezakena dala irizten da. Alabeartaŕak ditugu, beraz, batzuk edo batzuk, ugarienak apika; adimen-zaleak beste batzuk, gutxiago agian, baña noizbeinka, aŕokeriz edo, beren burua guziaren nagusitzat artzen dutenak.

Mikel'ek etzuen maite adu-asmoa onartzea, adimenez jokatzea zuen egokiago, beti, alan eta guzti, guzia jakin lezakela uste gabe; ta berebat ere bere eginkizunetan poto-egitea eziña etzala gogoratzen zuen bein baño geyagotan. Ondorioz naimena zerabilen egipen guzietan, oro ongienik eramateko xedeaz, beaŕ-izango zana zuzentzeko ala egokitasuna indartzeko, ta oarkabeko gertakeraren bat bere bidean sortzen zanean, ikaskizuna bezela artzen zuen, gerorako arezaz ustiatzeko asmoz.

Orixe gertatu zitzayon lan-uzteari buruz langileak ageŕerazi zuten jokera nabaritzean. Etzuen lendik ondo ikusi, lantegien ugaritzetik giza-mota berezia gizadian sortu zala, ta ugazaba dirudunen jokatzen itsuagatik, giza-mota beŕi ura, bere biziari eusteko beaŕean, jakiña, gizartean beste buŕuka sortzeko taldea eratu zala. Ezaguna zuen lantegi edo beste ekintza batean bidezkoak ziran ezberdintasunak sortu-beaŕa, baña langile guziak alkaŕ laguntzean, indaŕ aundia lortuko zutela ikusten zuen orduan, eta gizadian eragiteko almen gotoŕaz.

Lankidetasuna agertzen zitzayon, beŕiro, lan-mota guzien bizi ta antolaketa onenean jartzeko bidea bezela, ta olan alako poza sortzen zitzayon barnean, bere ekintzetan oŕela zuzenduta zijoala oartzean. Baña, bestetik, goikoak garaiz amor-egiteko nor izango ezpalira, gizonen arteko ezin-ikusia, eŕa, goŕoto ta buŕuka, enurarik ez, Yainkoa'k zekien noraño aunditu ta edatuko ziran, ain beaŕa zan gentza pikotara joan-arazteko; ta goganbeaŕ aundia bere baitan.

Gaŕantzi aundienetako ebazkizuna gizadian eta Euzkaleŕi'an, bereziki eraginkoŕ beti ari-izango zana; ta ezinbesteko zeritzayon an izan liteken gaitzuŕa ere ongi atematea, langileak beren arteko alkartasunagatik, Eŕi'ak bizi-izateko zeukan beaŕa baztertu al-izango luketelako, ta, nork zekien?, ayek ere adiskide izan ordez, arerio biurtzea, agian.

Barne-barnean zeraman sartuta ebazkizun ori Mikel'ek, eta egun ayetan beste asmo ta ekintzak baño, oŕek eragiñago ikusten zuen bere burua. Berez zan ura egiazko ebazkizun ertsia, baña lantegi ta ola gero ta geyago bazteŕ guzietan idekitzen, langileen kopurua areago aunditzen zalarik, eta ororen antolaketa lengoenaren antzeko jaŕi ezkero, zalantzik ez, ebazkizuna gero ta gorbiztuago, ta gizonen arteko guda ortan agertzen zan bide beŕian eraman beaŕ-izango zalako, bidezkoa zan buŕuka beste lits beŕi batean gertatuko zala, eta ez, iñola ere, auŕekoak baño bigunago izateko; azkenez, gizonai ain beaŕa zitzayen gentza berengandik uŕutiratzeko ere.

Norberatutako gogoetaldi artan guztiz murgilduta zegoelarik, oldozpenak aldarazteko eragile bezela, Bizkaya'ko bi burukideen gutuna artu zuen uste-bagarik. Uŕengo ilean urteroko batzaŕ nagusia egin nai zutelarik, beraren iritzi ta onartzea eskatzen zizkioten. Ori, beste urteetan bezela, beranduago egingo zalakoan zegoen, baña bereala erantzun zien bere bayetza emateko; ta ayek batzaŕa Gasteiz'en egin nai zutela-ta, ainbat obe berarentzat izanik ere, naiz biltzeko toki naiz egun'erako gayai buruz guzia edeŕesten; eta eguna erabakitzeko be berai utzi zien, berari zein-nai ona izango zitzayolako. Bide batez,

Araba-Buru-Batzaŕ'ari ere idatzi zion beŕi ori ematen eta batzaŕa antolatzeko lanak onaŕ zitzala eskatzen.

Oŕela bere gogoetatik nolabait irten al-izan zan, batzaŕerako kardabagatik; ez osoro, alarik ere, bere kezka ta urduritasunak besteai jakin-erazteko mugona bīlerarekin zetorkiolako; ta Gasteiz'en egiteagatik, bilkura zuzentzea bere gain utziko edo zutelako, ura ustiatzea erabaki zuen bere baitan. Eta alkaŕen ondoan bezela, Araya'n egindako langīleen elkargoaz mintzatzen astean, beste arloa, berez, aukera-maukeran zetorkion. Apika, Sabin'i zegokion arloan sartzea izango zan, baña berarena bezela be aŕ liteke, ain zuzen, berak sortutako ekintza bat zalako ta asieratik nekazariekin egindakoaren ondoretzat ere aŕ litekeleako; ziuŕ zegoen, gañera, Sabin'ek guzia onartuko ziola.

Oŕezkero, bere ajola guzia batzaŕerako zuzendu zuen, bide batez bere azken burutapenak artarako egokitzen; Azpaŕena'ko gogaideai ere bere oldozpenen beŕi eman zien ororen asikiña bezelā. Gero bīleraren oren arte igaro beaŕ-izan ziran egunak, luzeenetakoak iruditu zitzaizkion, bidean sortutako oztopo bat izan bailitzan, eta ura be gaintzeko beaŕean bizi-izan zan urduritasunez beterik.

Ororen buruan batzaŕ-egunaren txanda eldu zan eta auŕeko egunetik Gasteiz'en zegoen bere zinkideen zai lenengoz, baña beste guziai ere bere ongi-etoŕi beroa emoteko xedeaz. Eta bere iru adiskideekin egon al-izan zanean, alako naretasuna sortu zitzayon barnetik; ba-zeritzayon ayen ondoan kemen eta adorea bere baitan aunditzen zitzaizkiola. Egin zuten, alakotz, lau adiskideak, beren batzaŕ txikia, ta bereala bere kezkaen beŕi eman zien Mikel'ek besteai. Sabin'ek erantzun zion berealaxe:

—Sabin'ek: Izpidean ago, Mikel; nik ere ortaz oldozturik, azken lan-uzte orokaŕa gertatu ondoren, birundaka zerabilzkiat asmo oyek ene baitan; ondo zeritzaidak oŕezaz itzegin dezakala, baña ene aldetik ere, ontzat artzen badidazute, zerbait esango diat, arloari bere gaŕantzi guzia emateko.

Gero, Sabin'ek ere, bere auzitik ongi xamaŕ atera al-izan zala esan zien, eŕi-epaīleen eskeŕ. Lenengoa izan zan auzi ura, baña ziuŕ zegoen, atzetik, beste batzuk ere, asko, sortuko zirala. Asitako guda etzan eŕaz itzaliko ta, aitzitik, ustekoa zan areago edatuko zala.

«Eŕi-Deya»'ri buruz ere beŕi onak zekarzkien Sabin'ek; gero ta

geyago saltzen zala jakin-erazi zien besteai, ta asteroko bezela, berez bakaŕik bizi al-izateko ainbat jasotzen zuela.

Batera zetozen laurak alkaŕi zekarzkioten beŕiak artzean, beren asmoak bazteŕetan zein ontzat artzen zituzten adierazteko. Oŕengatik, beŕiz ere, bide onean zijoazela oartzean, poztu ziran biziro, ta auŕera jotzeko adoretsuago edo ikusten zuten beren burua.

Beste beŕi bat eman zien Mikel'ek bere adiskideai; berak ere lentxeago jakin zuena: Batzaŕa egin beaŕ zuten egun berean jai berezi bat antolaturik zeukatela gasteiztaŕek Estibalitz'en, «Estibalitz'eko Irain-ezeztatzeak» deitzen zutena. Aspaldian bertan egiten ziran azkaŕien antzeko beste batzuk izango ziran oraingoak, eta oso ikusgaŕia izango zala uste zuten antolatzalēak.

—Eneko'k: Baña, mutīla!, zuek beti daukazute jairen bat ona gatozenoi eskeintzeko; ta geron aldetik, onartu ta eskertzeko, noski.

—Mikel'ek: Eskertzeko... eztut uste. Emen ertilari bi sortu zaizkigu, gure asmoak ontzat artu dizkigutenak eta oŕengatik edo, beren erti-lanak Eŕi'aren gunaz iñutu nai dituztenak. Beraz, oŕela, egiazko euzkal-elerti ta euzkal-eresertia izango ditugu zentzun egokiz egiñak; ia gero margoerti ta beste erti-mota guziak ere euzkal-eŕoetatik eratuak ote ditugun.

—Sabin'ek: Oso ondo ikusita zegok ori, Mikel, eta gure Eŕi'ak bein-betiko bere burua jaso al dezakan abertzaletasuna diagu euzkal-bizi-zentzun guzietaraño eldu beaŕ dikana bere indaŕaz eragiten.

—Orain lotara joan gaitezke ta ia biar gure batzaŕa, auŕekoak bezin ona ote dugun.

Oŕela egin zuten alkaŕi aguŕ-egiten, eta uŕengo egunean bīlerarako bidea artu zutenean, amaika lagun eta gogaide eurekin alkartu ziranak oro jo-ta-su ta gogatsu bertara zijoazenak.

Biltokia, laisteŕ, lagunez beteta, lengo beste batzaŕetan izanda geyenak, ezagun eta alkaŕi agurka. Maipuruan lau zinkideak, Gexan eta erakunde guziaren agintari ziranak, Mikel batzaŕa zuzentzeko.

—Mikel'ek: Alkartuta gagoz, beŕiro, bazteŕ guzietako abertzaleok, eta beŕiz ere niri dagokit guzioi aguŕ sutsuenak zuzentzeea; eztizuet esan beaŕ nolako atsegiñez betetzen dudan nire eginkizun au.

—Egun'erako gayetan bi agertzen dira berezienak ikusteko, ain zuzen auŕeko bīleran ontarako utzita izan ziranak: Eŕi'arentzako izen beŕia ta Europa'ri buruzko arazoa. Baña ontzat artzen badidazute, oyetaz yardun baño lenago, ta ni mintzatzen asi naizelarik, gure

lendabiziko uŕatsetan neronek zaintzeko edo begiratzeko leporatu nuen arloaz zerbait esan nai dizuet, naiz eta oŕi buruz zuek guziok beŕiren bat euki.

Azpaŕena'ko elkargo bietaz zeatz egoki batzuk eman zizkien batzarkideai, labuŕ, onela gero jaŕaitzeko:

—Mikel'ek: Ikusi al dezakezutenez, gure elkargoak ororen kidetasuna oñaŕiz arturik eratuak ditugu. Gizonen arteko aŕemanak gentzaz eta ongi zuzendu al-izateko, ez dut esango beste biderik eztagoela, agian bai, baña ene ustez alkaŕenganako kidetasuna izango da beti lenengo baldintza, anaitasunean eta maitasunean egokiro ari-izateko.

—Gaurko ontan eztirudi Ludi'an barna oŕelako jokera erabiltzeko asmorik dagoela; aitzitik, eta batez ere orain ainbat zabaltzen ari diran mota guziko ola ta lantegiengatik, sortu dan auzi gogoŕean beste mutuŕetara joan beaŕ. Oŕ ugazabak edo antolatzaīleak alde batetik eta langiīleak bestetik agertzen dira alkaŕen aurkako guda latzean, gero ta geyago gogortzen ari zayen buŕukan. Ba-dirudi alkaŕenganako beaŕean bizi diran talde bi oyek, alkaŕ laguntzeko alegiñetan yardun beaŕ-izango luketela, baña iñundik ere ezta ikusten ortarako xede txikiena iñorengan dagoenik.

—Gurean be ebazkizun aundi ori daukagu goŕi, bizi ta gori-gori, bi aldetik oso galgaŕi zaiguna, gizonari ta Eŕi'ari buruz alegia; batetik eztira ontzat artzen gizonaren eskubideak eta langiīe geyenak, guziak ez esateagatik, guztiz menperatuta bizi beaŕ dute; ta bestetik, buŕuka ortan ari diranak beren Eŕi'arenganako ajolik ez, naiz alde batekoak naiz bestekoak. Eta ezin uka diteken egipen au gure Eŕi'aren bizirako kaltegaŕi oso. Zer egin genezake geuk mota-buŕuka ortan sarturik dagozenak gure elburuetarako lagun izan ditezken? Oŕa oŕ euzkal-abertzaletasunari aurkezten zayon arlo zaīa, ta oŕela dala bete-betean nagokizue. Arestian «Euzko-Langiīeen Elkargoa» irasi da, ta zorionez, oŕezaz oso kexu ari da lenengo uŕatsetatik; ba-dago ortan yarduten dutenengan, ziñez, itxaropena, baña ezteritzait ori aski izango danik, eta abertzaleak diran gure gizon eta erakunde guztiak berentzat be artu beaŕ-izango lukete ebazkizun oŕi aterabide egokia emateko xedea, ta ene iduriko lankidetasuna artu beaŕ dugu guziok ortarako ta guzirako atzalburu ta jokeratzat.

—Barka ezaidak, Sabin, ik artu uan gizarte-gaya iretzat bereziki, ta ona emen ire espaŕuan sartu naukala. Baña egitan gai guziak zi-

tiagu guztionak eta azken aldian batez be gizarte-arazoetan leporaño sarturik bizi beaŕ-izan diat. Guzi ori dala kari, oŕezaz mintzatzeko ausartu natzaizue; ta, barne-barnetik, oŕ dagoen gaŕantzi aundia zuen baitan ausnartu dezazutela eskatzen dizuet, naiz gizona naiz abeŕiari buruz.

Biziki txalotu zituzten guziek Mikel'en itzak, eta bereala onek Xabieŕ'i esan zion ia ezer ageŕerazi nai ote zuen. Bayetz erantzuten, onela:

—Xabier'ek: Niretzako lanean auŕera noala uste dut, beste batzuen batzuek lagunduta; dakizutenez, lan oŕen zeatz batzuk gure asterokoan argitaratzen dira noizean bein. Gure azken bilkuran, gure auŕekoek edestian barna okeŕak, eta ez gutxi, egin zituztelakoan nengoela esan nizuen; eta gaur zerbait gañeratu nai dut gai berbera ortaz. Ez dizuet esango beti, baña bai oso saŕitan Eŕi'aren arazoak zaindu ta zuzendu beaŕ-izan zituztenen artean, okeŕ ayek egitean zabarkeri aundiaz jokatu zala, ta egitan utzegite ori, len bederen, ororena izan dala aitortu beaŕ dugu. Zergatik, galdetzen diot askotan ene buruari, euzkaldunak, berari bakaŕik dagozkion arloetan, etxea ta sendiarenetan ere, ain zuurki ta gurbiltasunez jokatzea dakielarik, bere ta ororenak diran euzkera, eŕiketa ta Eŕi'ari dagozkion beste arazoetan, zergatik eztu berdin yarduten? Nagikeriagatik?, anayak diran besteengan entzindu ta uste ona ez izateagatik?, itxutasunagatik? Eztut, egitan, erantzun egokirik aurkitzen, baña erantzun beaŕa edozein izan, ororenak ziran arlo guzietan, euzkaldunak beti ajolarik gabe jokatu zuela argi dago, ta ortatik eldu zaizkigu, neuŕi aundienetakoaz, gaur jasan beaŕ dugun egokera txaŕa. Ondorioz guri, guzi ortatik, ikaskizun au atera beaŕ nire ustez: gure abeŕiaren ebazkizun guzietan buru-belaŕi sartu beaŕ dugula, azpegi guzietan gure Eŕi'aren bizia berarenak eta beaŕenak zaizkion bideetan barna eraman al-izateko. Orixe duzute, bereziki, gaur zuei esan nai nizuena, ta onelaxe amaitu nai dut gaurko nire tartetasuna.

Txaloak ere, ta ugari, Xabier'en itzak entzun ondoren. Eta:

—Mikel'ek: Ire txanda orain, Eneko, nire ustez; eta ain zuzen bilkura ontarako auŕekoan utzi genitian bi gayetako bateaz erabaki beaŕ-izango diaguna: Gure Eŕi'arentzako len esondatu uan Euzkadi izen beŕia, noski.

—Eneko: Egitan, auŕekoan esan nizuenari eztut gaur besterik gañeratu beaŕ, auxe baño: Ene aldetik arlo oni miīa birunda ene bai-

tan eman dizkiot eta gero ta egokiago deritzait neronek esondatutako izena. Beste aldetik adiskide batzuekin oŕezaz itzegin dut eta guziari on eta egokia iruditu zaye iñork ere aurka ezer yarduki gabe; ta gure azken bilkuran izandako lagun batzuek ere oŕekiko idatzi didate asmoa zearo onartzen dutela esateko. Ene ustez asti aski izan dugu guziok oŕezaz iritzi bat mamitzeko, ta oŕela izan dalakoan, emen ezta ezer geratzen, alde ala aurka, erabakia artzea baño. Alaz ere, oŕezaz zerbait esatea iñork nai baldin badu, nik adei onenaz entzungo diot.

—Entzule batek: Barka ezaidazute, mintzatzeko jaikitzen banaiz, baña Euzkadi izena ain egoki, edeŕ eta begikotzat dudalarik, emen izen ori guziok ao batez onartzen dugula adierazi beaŕ dugu, ene ustez.

Eta oŕela egin zan; bat ere etzan eseririk geratu ta guziek txalo buŕunbatsuaz asmoa ontzat artzen zutela bayeztu zuten. Amaitzerakoan:

—Mikel'ek: Emen eztago zalantzik eta gaurgero izen beŕia erabiĭi al-izango dugu ororen naimena jaŕaitzean. Izena, beraz, onartuta dago. Ia Sabin, i orain, uste diat zertxobait edo dukala guri esateko.

—Sabin'ek: Naiz eta gure asterokoan nire auziari buruz zeatzez idatzi, emen ere oŕezaz zerbait esatea egokia dala uste dut. Lateŕi' arenganako ogenaz salatua izan nintzan eta Egoeŕi'ko epaiĭeak, gogorkienez yarduten, espetxera sartzeko eskatu zuten; baña, ta gaitz erdi, ziñez-epaiĭeak ere, ta zearo erabakitzeko, beren itza zutelako, isun bateaz bakaŕik azke geratu al-izan nintzan; eta ziñez-epaiĭe ayen artean ba-ziran euzkaldunak etziranak ere; oŕengatik, neuk bederen, oso aintzakotzat artu nuen beren epaya.

—Gizarteari buruz, auŕeko bilkuran «Euzko-Langiĭeen Elkargoa» antolatzen ari zala esan nizuen, eta Mikel'i entzun diozutenez, ba-dakizute irasi ta lanean ere ari dala. Ta ez izan ardurarik, Mikel, gai onezaz ari-izateagatik; nik bederen, gogo aundiaz, esan dukana entzun dikiat eta ire aburukidea nauk bete-betean. Bai, ola ta lantegien bidez lagunarte beŕi bat sortu zaigu gurean besteetan bezela; bere eskubideen alde jokatzen ari da ori, ongi dakizutenez, baña olaen jabeak soŕ-goŕ geratzen dira langiĭeen eskariak aipatzen diranean. Oŕengatik ezta aŕitzeko ayek indaŕ-bideetara sartzea; gaŕantzi aundiko bide oyetako bat, arestian egin dan lan-uste orokaŕa izan dugu, ta guziok dakizute nolako ondorio auengaŕietaz. Jazotakoaren eŕu aundiena ugazaba ta aundikiena izan da, ortaz niretzat ezpairik ez; eta

Azpaŕena'n egin dan bezela, geron aldetik langiĭeen alde jokatu beaŕ dugula uste dut.

—Ori lenengoz, egiazko eskubideen alde jokatzeko, baña gañera, gero, langiĭeen artean ere gure Eŕi'aren bizi-arloa ontzat arturik izan dedin. Esan dugunez, dagoaneko ba-dugu lanean asi dan «Euzko-Langiĭeen Elkargoa»; alaz ere ezta ori naikoa ene iduriko, ta guziok eta bakoitzak lan-biziaren beaŕetarako lankidetasuna, nun-nai oñaŕiz jaŕirik izan dedin alegindu beaŕ-izango dugu. Gure elburuetarako ta gure abeŕiaren onurako, ori ezinbestekoa dala deritzait. Batera natoŕ Mikel'ek esan duenarekin eta guzia ontzat artu ta zuen baitan irabiatu dezazutela barne-barnetik eskatzen dizuet.

—Oŕenbestez amaitu nai dut ene aldetik gaurkotz, esandakoan gaŕantzi aundiko arazoa dagoelakoan; eta beste aldetik bilkura ontan ikusteko dagoen beste arloaz ari-izateko astia ere ukan dezagun.

Ongi adierazi zuten bildutakoek, Sabin'en itzak nolako zuduaz artu zituztela, bero aundiaz txalotzen. Eta gai arezaz iñork besterik aipatu etzuelako, orduan:

—Mikel'ek: Orain Europa'ri buruzko gaya geratzen zaigu begiratzeko ta ortarako emen dugu Gexan gure adiskidea. Baña orduak auŕera joan zaizkigu ta, ondo baderitzaizue, bazkaltzera joan gaitezke aŕatsaldean ori ikusteko ta gure batzaŕ au burutzeko.

Esandakoa ontzat arturik, guziak jeiki ta kaleratu ziran bereala, beren abertzaletasunean azkarturik eta beren asmoak sendoki tinkotzen eta zabaltzen ari zirala ikustean. Eiki, asmo guziak ayen baitan birundaka beti, baña bilkura-egunetan askoz areago; ta gogaideak biltzen ziran guzietan bezela, beren arteko solasak, atsegiñez, ain gogozkoak zitzaizkien asmo ayei buruz ekitean. Bazkaltzerakoan eta jaten ari ziralarik berdin, iñun beste gairik izango ezpailitzan, abeŕiarenganako kexutasuna ayengan nolako bizia zala erakusten.

Asti gutxi bazkaldu ondoren iñora lasai joateko, ta oŕengatik, astiki baña zuzen, guziak bilgura beŕiz, jaŕaitzearekiko iŕikiz beterik.

Ordu-orduan bilgua bete-beterik, eta Mikel asteko jeikita.

—Mikel'ek: Emen gera, beŕiro alkarturik, gure bilkuran lanaz jaŕaitzeko. Gure ain lagun ona dugun Gexan'ek Europa'ko arazoari buruz bere izpaŕak emango dizkigu; baña bera asi baño lenago zuei jakin-erazteko dudan beste zerbaiteaz itzegin nai dizuet.

—Gaur gabean, iĭunabaŕean esatea obe ausaz, jai berezi bat dago

Estibalitz'en emateko antolaturik. Araba'ko edestian, aspaldin, egiten zan gentza-uŕats goragaŕia beŕizteko asmoz izango dugu.

—Bai, aspaldian arabaŕak Estibalitz'era omen zijoazen urtean bein, alkaŕi egin zizkioten irain eta laidoak aitortzeko, guziak aiztuta gera zitezen gogoaz eta gerorako alkaŕi ere gentza osoa opa-izateko.

—Ain egoki ta aipagaŕia zan ekandu ura nolabait gogoratu nai da orain, eta mendeetan barna Euzkal-Eŕia dan Araba'ri, zabarkeriz ala itxukeriz, bere semeak egin dizkioten kalteak aitortu, lengo bideak utzi ta egokiagoak izan ditezen besteen zeaŕ joateko naya ta asmo sendoa oyuztatzeko.

—Lengo egipen ayei irain-ezeztatzeak deitzen zizkieten, ain zuzen alkaŕenganako egiten ziran irañak aiztuta geratzeko egiten baitziran. Oraingoan, egiz, ez aiztutzeko bereziki, baña bidea ongi zuzentzeko izango da egin nai dana. Gure olerkaria dan Madinabeitia aberkideari otu zayo auxe egitea, ta Oses ereslariak eresi egokia jaŕi die bestearen bertsoai; ta gure Araba-Buru-Batzaŕ-ekoai guzia ondo iruditu zayolarik, gaur emengoa da lenengo aldiz guzien ustez oso edeŕa izango dan ikuskizuna. Beraz, ori ikusi nai-izango duena Estibalitz' era joan diteke, batzokitik irtengo diran belbiletan.

—Goazen orain gure batzaŕa jaŕaitzen. Nai duzunean, Gexan, zure txanda auxe baita.

—Gexan'ek: Aguŕ aberkideok! Beŕiro zuekin emen alkartuta, benetan poz aundia niretzat; eta gogoz ere, zuei zoŕ dizkizuedan azalpenak ematera yoranez beterik erdu naiz ona.

—Nire xedea zanez, Paris'en, Bretaña, Gales ta Eskozia'ko ordezkari bana ta laurok bilkura berezi bat ukan dugu. Lenengoz arpegiz alkaŕ ezagutu dugu ta laurontzat oso gogokoa izan zaigu ezagutze ori. Luzaroan egon giñan gure Eŕi'etan gaurko egokera begiratzen eta beren biziari eutsi al-izateko zer egin genezaken aztertzen. Ezin onaŕ dezakegu egun gagozen bezela auŕeruntz jaŕaitzea, batez ere gure gogo-bizian, gañean ditugun lateŕien izkuntza ta gogo-lantzeak indaŕez egiten diguten eragiteagatik, ori guretzat eriotzarako bidea dalako. Orixe dala-ta, argi-argi dago, Eŕi bezela bizi nai baldin badugu, gure bizia, gure izkuntza ta gure gogo-lantzearen barna, antolatu, zaindu ta indartzea ezinbestekoa zaigula.

—Ori egin al-izateko, azkatasun osoa zaigu beaŕ-beaŕ, oztoporik gabe gure Eŕi-biziari eutsi al-izateko. Nola lortu, otian, gure azkatasuna? Egi-egia dan oñaŕi ontatik astea izango zaigu noraezekoa: Ludi ontan, zoritxaŕez, eziña izango zayo edozein eskubideari, eskubide aundienari ere, bizi ta irautea, berari eusteko indaŕ egoki ta naikoa baldin ezpadago. Ondorioz indaŕa da biīatu ta aurkitu beaŕ duguna.

—Nun baña ta nola? Bi toki ta norabidean gure ustez. Lenengoa Eŕi'aren naya izan beaŕ da; Eŕi'ak nai ezpadu, alpeŕik izango da ezer egitea. Baña nai ori eten gabe jokatzen ari beaŕ-izango da, ta naiz naya bera izateko naiz jokatzeko, tai gabeko zabalkundea egin beaŕ--izango da, batik bat idatziz egin ditekena. Bigaŕena, gurea bezela dagozen Europa'ko beste Eŕi'ekin alkartasuna izan beaŕ da. Alkartasun au egin ezkero, gaur eun miīoe gizalagun baño geyago bildu ditezke, ta argi dago ortan indaŕ aundi bat izan genezakela. Gaŕantzi aundienetakoa, geroz, alkartasun ori egitea, beti, baña batez ere edestiak ekaŕiko dizkigun mugonak gure beaŕetarako ustiatzeko. Auŕeko bilkuran abagune oyetako bat zein izan liteken ikusi genuen, naiz eta bere lazturagatik iñoiz eldu ez dediīa nai-izan.

—Esan dudanez, etsi-etsita nago alkartasun ori egokienetakoa izango zaigula; ta ibiltzean jartzeko, Paris'en edo Luxemburgo'n edo Bruxelles'en, idazkaritza bat idekitzea oso egokia izango da, bai ta guzien idazkari bat, landola ta egin beaŕ-izango litzaken aldioroko aldizkari berezia zuzentzeko. Alakotz, alkartasuna eragiten ari-izateko, idazkaritza, idazkaria ta aldizkaria ditugu noraezekoak.

—Alegia, guzi ori ordaindu beaŕ-izango da, Eŕi guzien artean eta bakoitzari egokia izango zayon neuŕiaz. Asteko, Bretaña, Gales, Eskozia ta Euzkadi Eŕi'ak asi litezke; ta naiz idazkaritza naiz aldizkaria lanean egokiro yarduten dutela ikusi ezkero, bidezko ta ustekoa da beste Eŕi'ak ere gureganatuko ditugula.

—Paris'en nirekin bildu diran adiskideak beren erakundeai, nik emen dagidan bezela, asmo oyek aurkezteko geratu ziran, eta gero egingo dugun beste bilkurarako erantzunak eraman beaŕ-izango ditugu laurok, bai ta bayezkoak izan ezkero, guziari eutsi al-izateko, zenbat izango dan beaŕa, nun idazkaritza jaŕi ta nor lenengo idazkaria izendatzea erabakitzeko; jakiña, lenengo erabaki ori geuk artuko dugu, baña bein-betikoa izan dedin, emengo ta beste Eŕi'etako erakundeak ontzat artu beaŕ-izango da.

—Alakotz, gaur emengo batzaŕ ontan asmoa auŕera eramateko

lenengo ta bein-beñeko erabakia aŕ ditekela uste dut. Orain zuek esateko, guzia zer iruditzen zaizuen.

—Entzule batek: Onartzen badidazute ona emen nire iritzia: Bete-betean ontzat artzen dut nik Gexan'ek aurkeztu digun asmoa, ta bi gauza auek esondatu nai ditut: lenengoa, egin beaŕ-izango dana lenbailen egitea, gerorako ezer utzi gabe; ba-dakizute «gero diñoenak bego diño» ta gure aldetik beti «ekin» esan beaŕ dugulakoan nago; bigaŕena, Gexan eta bere adiskideen erabakia bein-betikoa izan dedin, beaŕa izango eztala guretzat beste batzaŕ orokaŕa egitea, ta gaur Euzkadi-Buru-Batzaŕa dei dizaiokegun gure agintari nagusiari orain bertan, ororen almena eman dizaiokegu, guzion izenean zeatz guziai bere onetsia eman dizayen ala ez.

—Gexan'ek: Guzti ori zuek erabakitzekoa da eiki; baña ene aldetik eztut uŕatsik emango zuen baimenik gabe, ta oŕela izango da beti nire jokera.

Txalotu zituzten, asko ta luze, Gexan'en itzak, eta beste iñork ezer esan etzuelarik:

—Mikel'ek: Uste dudanez, naiz Gexan'ek esan diguna naiz beste lagun oŕek eman duen iritzia ontzat artzen dituzute; alaz ere, oyetaz alde naiz aurka norbaitek zerbait esan nai baldin badu, gogoz entzungo diogu edonori ere zer-nai.


Etzan iñor jeiki, ta iñork ere etzuen ezer esan. Oŕengatik, beraz, beŕiro:

—Mikel'ek: Orduan, batzaŕ orokaŕ onek, bai Euzkadi izena bai Europa'ri buruzko Gexan'en asmoak, ao batez, onartzen ditu. Onela amaituko dugu batzaŕaren betekizun nagusia. Baña beste edozein gayaz norbaitek besterik esan nai ezkero, berarentzat itza.

Etzuen iñork ezer aipatu, ta guzia bukatzeko, guziek, zutik, euzko-ereserkia abestu zuten gogoz.

Kaleratu ziran orduan eta Estibalitz'era joateko geratu ziranak batzokira joan ziran, andik, gertuta zegozen belbil aundi ta txikietan, ara erduteko asmoz; eta ortarako ordua eltzen zan bitartean zerbait jan zuten apari txikia bezela egiteko. Orobat gure lau zinkideak, beŕiz alkarturik eta alkaŕi su-ta-gaŕ mintzatzen.

—Sabin'ek: Mutiłak!, batzuetan aŕituta geratzen naiz gure asmoak, ain epe motzean, nola zabaldu diran eta nola artu dituzten bazteŕ guzietan barna ain bero ta gogatsuki. Euzkadi izena onartua izan



da bete-betean; zorionak iri, Eneko, bere sortzaiĺea izan aizelako. Gexan'ek Europa'rekiko asmoak ongienik daramazkiela uste dut eta guziei ere ondo iruditu zaizkie. Azkenez, ik, Mikel, ageŕerazi digukan arloa, nolabait beŕia bezela artu beaŕ diaguna, ene ustez, oso egokitzat artu ditek guziek. Alakotz, jaŕaitzea da, gaur egun, betetzeko geratzen zaiguna. Oŕela pozik joan gaitezke Estibalitz'eko irain-ezeztatze oyek ikustera.

Ta orixe egin zuten iĺunabaŕa asten zanean, Gexan, Aŕoyabe anayak eta Biana'rekin onek gerturik zeuzkan belbil txiki bietan.

Estibalitz'era eltzean, ikusleentzako tokiak ia bete-beterik zegozen, ikuskizuna gozatzeko iski aundiaz, goiz eldutako giza-lagunez; laisteŕ berentzako tokiak ere aurkitu zituzten eta berandu gabe ikuskizuna asi zan.

Elizaren «Ate-Edeŕ» auŕean dagoen landan guzia zegoen antolatuta. Lenengoz, Ate'aren urbil, beitik zerbait jasotako oltz zabal bat jaŕita. Bertan eta atze-aldean zutikako ate-zamau ondoan, Araba'ko aldunen antzeko amabi gizaki eserita, sei zaŕ eta sei gazteé, zegokien apaintasunez jantzita, gaŕantzidunezko egokeraz eta igitzeke. Ate-zamauan Araba'ko ikurdi aundi agertzen zan erdi-erditan ipiñita. Oltza-buruko alde batean eta bi leŕokadan abeslariak ziran gizonezkoak baltzez jantzita; beste aldean eta era berean abeslariak ziran emakumezkoak jantzi zuritan. Eta ikotikan zebiĺen nor zan batek ororen soak bereganatzen zituen; bidezkoa alajaña. Oztiñezko jantzi bakan batean sarturik, txano berezi bat eta oñetakoak ere margo bereaz, guziak izaŕ goŕi batzuetaz adelatuta eta eskuan alako arbaztatxo bat zeramana ta onen erpiñean purpuxeta aundi xamaŕ bat dindikizka, margo askotako xingoletaz egiña; ta xingolaen artean txintxilin batzuk ere zeramazkiela. Jauzketan zebiĺelarik arbaztatxoa buru gañean biraka zerabiĺen, xingolak aizean ega-eragiten eta txintxiliñak soñuka. Oyularia zan ura, banatu zituzten ingietan esaten zanez eta nolabait guzia zuzentzen ari-izango zana. Gero, ikusleen auŕean, Araba'ko amalau batzetako ordezkariak zegozen txandaka ari-izateko.

Alako aldiune batean oyularia oltzaren erdian gelditu zan, belaun bat luŕean, burua makurturik eta oldozkoŕ edo aikolo-maikolo egongo bailitzan; eta bat-batean, jauzi aundi bat egiñez, oltzaren auŕeko aldera jo zuen deadarka:

FIRIRI-FIRIRI-FIRIRIKA!...
Entzun!, entzuleak oro!
Entzun!, aditzaiĺeak!
Ikus!, ikusle aboro!
Ikus!, so-egiĺeak!
Entzun eta ikusi ondo
Irain-ezeztatzeak!

Atzekaldera jauzi zuen gero, beti bere arbaztatxoa buru gañean eraginda, ta elizaruntz arpegia ematen, beŕiro:

FIRIRI-FIRIRI-FIRIRIKA!...
Estibalitz'en dago, bai,
Gure Ama Neskutsa.
Maitasuna zabaldu nai,
Au Bere emari utsa,
Gaitezen Bere seme-gai,
Erdu gogoz onuntza.

Berdin oltzaren ezkeŕ aldera, jokera berean beti:

FIRIRI-FIRIRI-FIRIRIKA!...
Anbiolan bexelaxen,
Egun ere yoranez.
Okeŕ guziak zuzentzen,
Argi garbia ikustez.
Goŕotoa menperatzen,
Goi-gogoaren bidez.

Len bezela beti, eskuma aldera uŕengo:

FIRIRI-FIRIRI-FIRIRIKA!...
Aspaldian arabaŕak,
Bat-banaka zetozen.
Norberaren utz-irañak,
Txit apalki aurkezten.
Besarkatzeko etsayak,
Lengo eŕak aiztutzen.

Azkenez, oltzaren erdian eta ikusleai buruz :

FIRIRI-FIRIRI-FIRIRIKA !...
Ayen eŕokoak egun,
Okeŕak zuzentzeko,
Erduten zaizkigu aleun.
Zuzen abiatzeko,
Egi utsaren oarkun,
Eŕi'ari eusteko.

Ostera, oltzan barna jauzi ta birundaka, arbaztatxoa beti erabilkatzen eta len lez deadaŕez :

FIRIRI-FIRIRI-FIRIRIKA !...

Eta deadaŕa amaitzerakoan, abestaldeko guziek, ao itxita abesten :

U-u, ..., U-u, ..., U-u, ...

Emakumeak soilik gero :

I-i, ..., I-i, ..., I-a, ...
Aize firfiri-farfara, ...

Gizonak berdin :

U-u, ..., U-u, ..., U-o, ...
Ipaŕaizea yo ta yo, ...

Eta guziek beŕiro ; ao itxita, len bezela :

U-u, ..., U-u, ..., U-u, ...

Abeslariak ari bitartean, oyularia jauzika oltzan ; bere arbaztatxoa beti biraka buru gañean.

Naiz oyulariak, naiz abeslariak eta irain-ezeztatzeak oyuztatzen zituztenak abestutakoa, guzia, eresi-abeskeraren doñuaz oguzi ta abesten zan, bakoitzak bere soñu eztiaz.

Abeslariek amaitu bezin laisteŕ, beŕiro gelditurik :

Oyulariak :

FIRIRI-FIRIRI-FIRIRIKA !...
Ubaŕundi'koak emen,
Lenengoak agertzen !

Bereala, zortzi gizon, lau zaŕ eta lau gazte, oltzara, launaka alde bietatik, jauzka batez ; ta ikusleai buruz jaŕi ziran auŕe-aldean tinki-eraz geraturik. Aurki abesten asteko.

Ubaŕundia - Zaŕak : Ubaŕundia'tik gatoz,
Artzain zaŕak damurik.
Aŕokeriz egindakoz,
Okeŕak aurkezturik.
Eŕi'ari egin ukoz,
Iltzer geneukalarik.

Ubaŕundia - Gazteak : Okeŕa zuzendu naiz,
Ona emen gazteok.
Goratzeko Estibalitz,
Uzteko bide zaŕok.
Eŕi'ganako iŕikiz,
Gaizkatzeko guziok.

Era berean jaŕaitzeko gero batz bakoitzerako txandaka :

Abestaldea - Guziek : U-u, ..., U-u, ..., U-u, ...

Emakumeak : I-i, ..., I-i, ..., I-a, ...
Oñaztargia zirtaka, ...

Gizonak : U-u, ..., U-u, ..., U-o, ...
Tximistak eŕetzen oro, ...

Guziek : U-u, ..., U-u, ..., U-u, ...

Oyulariak : FIRIRI-FIRIRI-FIRIRIKA !...
Ganboataŕak uŕengo
Kartsuki areago !

Ganboa - Zaŕak : Nekazari giñalarik,
Sendikoen artean,
Goŕoto genun pizturik.
Gaitz arezaz damuan,
Emen gera azaldurik,
Nayez maitasunean.

Ganboa - Gazteak : Goŕotoak egin kalte,
Guziz zuritu beaŕ.

Ortarako gera gazte,
Bero-bero ta zangaŕ.
Ez dediĪa gero beste,
Gerokoan arabaŕ.

Abestaldea - Guziek : U-u, ..., U-u, ..., U-u, ...

Emakumeak : I-i, ..., I-i, ..., I-a, ...
Oŕ dugu erauntsi-zema, ...

Gizonak : U-u, ..., U-u, ..., U-o, ...
Ekaitzak gero iĪerazo, ...

Guziek : U-u, ..., U-u, ..., U-u, ...

Oyulariak : FIRIRI-FIRIRI-FIRIRIKA! ...
Aŕazua'ko mandazañak
Erdu gogoz beteak!

Aŕazua - Zaŕak : Gure utza, zabarkeri,
Eŕi'arenganako.
Ajolatuz beti gutxi,
Ala bizi-izateko.
Gaur dakusgu oso argi,
Okeŕa zuzentzeko.

Aŕazua - Gazteak : Zabarkeria astindurik,
Mandoak azpiratu.
Auŕeruntz abiaturik,
Eŕi'az ajolatu.
Ta geureari eutsirik,
Euzkaldunak goratu.

Abestaldea - Guziek : U-u, ..., U-u, ..., U-u, ...

Emakumeak : I-i, ..., I-i, ..., I-a, ...
Ara an, antxe, aintzigaŕa, ...

Gizonak : U-u, ..., U-u, ..., U-o, ...
Estaltzean landa oso, ...

Guziek : U-u, ..., U-u, ..., U-u, ...

Oyulariak : FIRIRI-FIRIRI-FIRIRIKA! ...
Malizaeza'ko argin,
Eltzen zaigula arbin!

Malizaeza - Zaŕak : Iñartsiaren eria,
Yasan beaŕ genuen.
Txutxu-egin alegia,
Uŕats okeŕ ematen.
Aiztuta utzi Eŕia,
Beaŕa gaur damutzen.

Malizaeza - Gazteak : Ezta bekaitzarik beaŕ,
Giriña alpeŕa baita.
Yo dezagun Eŕi zeaŕ,
Mazalaz biurtuta.
Alegiñetan su ta gaŕ,
Beste guziz aiztuta.

Abestaldea - Guziek : U-u, ..., U-u, ..., U-u, ...

Emakumeak : I-i, ..., I-i, ..., I-a, ...
Ona emen kaskabaŕa, ...

Gizonak : U-u, ..., U-u, ..., U-o, ...
Ondamendia zearo, ...

Guziek : U-u, ..., U-u, ..., U-u, ...

Oyulariak : FIRIRI-FIRIRI-FIRIRIKA! ...
Iruzaeza'n eiztari
Izanik saloberi!

Iruzaeza - Zaŕak : Saloberiok aspaldin,
Izanagatik kalte.
Eŕi osoari egin,
Isiati ainbeste.
BiĪatu beaŕ da orain,
Ateratzeko ate.

Iruzaeza - Gazteak : Galgaŕi dala sabelkoi,
Yan-uŕi dugu ona,
Neuŕi berean guzioi,
Eiztari on izana.
Abeŕiaz sutsu oroi,
Egiz dagokiguna.

Abestaldea - Guziek : U-u, ..., U-u, ..., U-u, ...

Emakumeak : I-i, ..., I-i, ..., I-a, ...
Zapaŕadaka euria, ...

Gizonak : U-u, ..., U-u, ..., U-o, ...
Luŕa blai-blai izateko, ...

Guziek : U-u, ..., U-u, ..., U-u, ...

Oyulariak : FIRIRI-FIRIRI-FIRIRIKA!...
Egiraz'tik datozenak,
Itaulari alpeŕak!

Egiraz - Zaŕak : Alperkeria izan len,
Ogen aundi ta txaŕa.
Guziongandik ezin ken,
Itzainen gogo-gaŕa.
Nai ez lanari egin men,
Galera orokaŕa.

Egiraz - Gazteak : Ardura izan dagokigu,
Onartzeko gaurgero.
Lengo yokera ayek aiztu,
Bide on artuz bero.
Eŕi'arentzat jokatu,
Buruz eta ez ero.

Abestaldea - Guziek : U-u, ..., U-u, ..., U-u, ...

Emakumeak : I-i, ..., I-i, ..., I-a, ...
Kaŕanka egin izotza, ...

Gizonak : U-u, ..., U-u, ..., U-o, ...
Oztutzen gaitu aboro, ...

Guziek : U-u, ..., U-u, ..., U-u, ...

Oyulariak : FIRIRI-FIRIRI-FIRIRIKA!...
Atxurlari Baŕundia'tik,
Uŕuingaŕi ibiīirik!

Baŕundia - Zaŕak : Uŕuinkeria izan zan,
Noizpaiteko eŕua.
Ortaz itsutu gintzazan,
Etsayen bide artua.
Gurea ezezpenean,
Geu benetan alua.

Baŕundia - Gazteak : Uŕuintzerik ez iñori,
Utsalkeria baita.
Gutxiago geureari,
Yokatuz ergelduta.
Goazen auŕeruntz isi,
Izanik berpiztuta.

Abestaldea - Guziek : U-u, ..., U-u, ..., U-u, ...

Emakumeak : I-i, ..., I-i, ..., I-a, ...
Ura dala, sargoria, ...

Gizonak : U-u, ..., U-u, ..., U-o, ...
Aŕaitzen du gure solo, ...

Guziek : U-u, ..., U-u, ..., U-u, ...

Oyulariak : FIRIRI-FIRIRI-FIRIRIKA!...
Euntzaiīeak Langares'en,
Izandako yardespen!

Langares - Zaŕak : Eundu egin genun oyal,
Baldarkeriz yosia.
Eŕi-soña ezin estal,
Otzez ala utzia.
Eziña norinai azal,
Gure erokeria.

Langares - Gazteak : Oyal uŕatua yaso,
Yosteko goitik bera.
Eŕi'ari eskeintzeko
Beroturik baŕena.
Yaŕai dedin bere eskuko,
Bizi batez zabala.

Abestaldea - Guziek : U-u, ..., U-u, ..., U-u, ...

Emakumeak : I-i, ..., I-i, ..., I-a, ...
Ortzantzaz bai, izutia, ...

Gizonak : U-u, ..., U-u, ..., U-o, ...
Geratzekorik txit geldo, ...

Guziek : U-u, ..., U-u, ..., U-u, ...

Oyulariak : FIRIRI-FIRIRI-FIRIRIKA! ...
Murieles otargile,
Biurtuz eragabe!

Murieles - Zarak : Andikeri gure baitan,
Eziña bear zanez.
Ari gure yardunetan,
Ondatzen zoritxarez.
Burugabekerietan,
Gure euzkera tamalez.

Murieles - Gazteak : Gazte berri datorkio,
Gure izkuntzari agur.
Bilbatu nai ondorio,
Ta bururik ez makur.
Etzayo elduko erio,
Geuk gaizkatzeko zugur.

Abestaldea - Guziek : U-u, ..., U-u, ..., U-u, ...

Emakumeak : I-i, ..., I-i, ..., I-a, ...
Gain-gañean or odeya, ...

Gizonak : U-u, ..., U-u, ..., U-o, ...
Baztergetan goibel dago, ...

Guziek : U-u, ..., U-u, ..., U-u, ...

Oyulariak : FIRIRI-FIRIRI-FIRIRIKA! ...
Lotzaturik ei Oxingain,
Ezin aurkitzerik zain!

Oxingain - Zarak : Arantzaleak izanda,
Uraturik sarea.
Iguinkeriz ibilita,
Usteltzeko gurea.
Gaur benetan damututa,
Orixe gure elea.

Oxingain - Gazteak : Sare guziak teinkatuz,
Erabiltzeko gertu.
Ez izanen zaratatuz,

Gure araintza lortu.
Gero ta geyago indartuz,
Betirako yoritu.

Abestaldea - Guziek : U-u, ..., U-u, ..., U-u, ...

Emakumeak : I-i, ..., I-i, ..., I-a, ...
Bildurgari iñusturia, ...

Gizonak : U-u, ..., U-u, ..., U-o, ...
Dardarka zaigu umezaro, ...

Guziek : U-u, ..., U-u, ..., U-u, ...

Oyulariak : FIRIRI-FIRIRI-FIRIRIKA! ...
Fornelo iñoiz suminkeri,
Gaur datorkigu ibi!

Fornelo - Zarak : Zulatzaile betidanik,
Zilkatuz aberia.
Gerok guztiz eroturik,
Kalte txit galgaria.
Zuzendu bear yadanik,
Okeria dan aria.

Fornelo - Gazteak : Gaurko gaztedi beria,
Okerak zuzentzeko.
Indarik artuz aundia,
Gartsu dagoeneko.
Berpizten ari Eria,
Betiko gaizkatzeko.

Abestaldea - Guziek : U-u, ..., U-u, ..., U-u, ...

Emakumeak : I-i, ..., I-i, ..., I-a, ...
Neguan mara edura, ...

Gizonak : U-u, ..., U-u, ..., U-o, ...
Iñun eztagola bero, ...

Guziek : U-u, ..., U-u, ..., U-u, ...

Oyulariak : FIRIRI-FIRIRI-FIRIRIKA! ...
Layalariak Ibita'n,
Bizibide lugintzan!

Ibita - Zaŕak :
Ari-izan giñan gogorki,
Luŕa iraultzen indaŕez.
Burutu sorayokeri,
Aiztuta zoritxaŕez,
Utzi baikenuen Eŕi,
Aitortzeko gaur lotsez.

Ibita - Gazteak :
Lazakeri guzi utziz,
Yo dezagun auŕeruntz.
Itxaropen edeŕ aundiz,
Yarduten beti goruntz.
Izanik ororen gardiz,
Nai on alkaŕenganuntz.

Abestaldea - Guziek : U-u, ..., U-u, ..., U-u, ...

Emakumeak : I-i, ..., I-i, ..., I-a, ...
Mendien zeaŕ iluna, ...

Gizonak : U-u, ..., U-u, ..., U-o, ...
Nun-nai edaturik laño, ...

Guziek : U-u, ..., U-u, ..., U-u, ...

Oyulariak : FIRIRI-FIRIRI-FIRIRIKA! ...
Oi!, Aŕaya izan ikazkin,
Oi!, Igan dukala min!

Aŕaya - Zaŕak :
Gure ogen aundiena,
Zekenkeria nonbait.
Kaltedun Eŕi'arena,
Egon gaudela gogait.
Auxe gure aitorpena,
Otoi onartu noizpait.

Aŕaya - Gazteak :
Bide okeŕaz uztea,
Ori dala bidezko.
Ezin obe oldoztea,
Erabakia uŕezko.
Asmo yaukala gaztea,
Zaŕenaren ordezko.

Abestaldea - Guziek : U-u, ..., U-u, ..., U-u, ...

Emakumeak : I-i, ..., I-i, ..., I-a, ...
Urolde, izugaŕia, ...

Gizonak : U-u, ..., U-u, ..., U-o, ...
Iltzer gagozela ito, ...

Guziek : U-u, ..., U-u, ..., U-u, ...

Oyulariak : FIRIRI-FIRIRI-FIRIRIKA! ...
Nun ibīli aiz Ibina,
Ez yoteko aintzina?

Ibina - Zaŕak :
Mukerkeriz zeramaan,
Egurgīlek barnea.
Ez gure onerakoan,
Ikusi ez bestea.
Ez Eŕi'an ez guregan,
Guztiz buru gabea.

Ibina - Gazteak :
Gaztearengan ikusmen,
Pizturik obe, eskeŕ.
Bildu beaŕ orain almen,
Ez izateko mukeŕ.
Aitzina-aldira oarmen,
Aŕetaz beti ageŕ.

Abestaldea - Guziek : U-u, ..., U-u, ..., U-u, ...

Emakumeak : I-i, ..., I-i, ..., I-a, ...
Emen gaur ateŕaldia, ...

Gizonak : U-u, ..., U-u, ..., U-o, ...
Estibalitz'en ezkero, ...

Guziek : U-u, ..., U-u, ..., U-u, ...

Oyulariak : FIRIRI-FIRIRI-FIRIRIKA! ...
Araba'n oŕ azkaŕia,
Aldunen ageria!

Aldunek - Zaŕak :
Aspaldian itxukeri,
Mamituz gure baitan.
Ezin alaxe nabari,
Ez oartu egitan.
Naiz ekiten gogonduri,

Egokiena zein zan.
Okeŕ aundietan ari,
Arabaŕok orduan.
Zuzentzea dela kari,
Emen gera aitortzean.
Bein-betiko Eŕi'ari,
Norabide eman nayan.

Aldunek - Gazteak : Ulertzeko etzan eŕaz,
Asabaen yarduna.
Sendiko uŕuñatuaz,
Etxetik at uŕuna,
Nayago zutela, beraz,
Ura bai gaiztasuna.
Damutzearen yokeraz,
Egia ikusi duna.
Okeŕa zana aipatuaz,
Bideratu alduna.
Galdu zanaren gomutaz,
Gaur Euzkadi'n zentzuna.

Abestaldea - Guziek : U-u, ..., U-u, ..., U-u, ...

Emakumeak : I-i, ..., I-i, ..., I-a, ...

Oyulariak : FIRIRI-FIRIRI-FIRIRIKA! ...

Abestaldea - Gizonak : U-u, ..., U-u, ..., U-o, ...

Oyulariak : FIRIRI-FIRIRI-FIRI OSO! ...

Abestaldea - Guziek : U-u, ..., U-u, ..., U-u, ...

* * *

Abestaldeak oŕela zegielarik, oyulariak, bere arbastatxoa eragiten eta beti jauzika, aguŕ-egiñez, oltzatik at egin zuen bere azken jauzia, ikuskizuna amaitu zala adierazten. Eta ikusleak oro, zutik eta txaloka, berokienez eta luzaroan. Gero bat-banaka guziek alde-egiten, ikusitakoaren egokitasuna alde batetik eta jokalarien artezia bestetik goratzen.

—Sabin'ek : Ikusgaŕia benetan antzerkizun au; ongi ikusten da, asmo, bertsoen itzak eta guzia egin eta antolatu dituztenak ere, gure xedeen jaŕaitzaīe yaukalak ditugula; ta oartzekoa ere ertilarien artean be nola mamitu diran; zera oŕek, noski, indaŕa emango die gure asmoai, ta bide ortatik gañera gure elburuetaruntz sendokiago joango gerala ziuŕ egon gaitezke, ene aburuz. Zorionak!, arabaŕei ta arabaŕak diran ertilariai! Ia beste oŕenbeste Euzkadi osoan ere ikusi al ote dugun.

Batera zetozen bere adiskideak ortaz, eta guzientzat, Estibalitz'en ikusitakoa, batez ere, ororen gentzarako bide onenetakoaz artzea, egoki ta atsegin aundikoa izan zan. Beste aldetik, egiteko ezinbestekoa zitzayen buŕukaren ordez, uraxe izan beaŕ zan, beren iduriko, Eŕi'ari eskeiñi lizayoketen jokera obea. Ulertuko ote lukete eŕitaŕak egitarau edeŕ ura?, bide artatik auŕeratzea ontzat artuko?, ta batik bat ura egiazko beren bidea zala? Oyetxek zinkideen artean alkaŕi zegizkioten galderak, Gasteiz'eruntz itzultzen ziranean.

—Xabier'ek : Edozein eraz, gure asmoak bide ortatik eramateko alegiñak egin beaŕ-izango ditugu beti, gentzarako arduraz.

—Sabin'ek : Enurarik ez, alegia, baña bide batez ba-dago beste zerbait guretzat aiztutzeko eziña dana : Gure arerioek, gure aurka, orain arte bezela, beti beren indaŕa erabīliko dutela, ta indarkeriaren auŕean buru-eman beaŕ nai ta nai ez eta oyekin buŕukatu. Beraz, gure naya bat da, baña gure beaŕa beste bat, eta bien artean jokatzeko bearturik, ezta guzia guretzat atsegiña izanen.

Artegatasun oŕen pean lotara joan ziran eta uŕengo egunean, alkaŕengandik aguŕ-egin zutenean, orobat, beste biderik aurkitzeko eziña izango litzayekela ikustean. Laurak batera zetozen beti asmo guzietan, eta laurenak ziran beti ere beren asmo ta egipenetatik eltzen zitzaizkien itun eta alaitasunezko ondorioak.

Bateratasun ori Mikel'entzat leunbide ta eusle bikañena, gentzarako bere kezka neuŕi egoki xamaŕean biguintzen ziona. Ta oŕi atxikiturik etxeratu zan orduan be, naretasunik ala ere bere baitan mamitu eziñean.

Eztai ta eztayondoa

Eztaya, jazokun alaya, aldatze sakona egiteko garaya, gizonarentzat naiz emakumearentzat biak bat burutzeko jaya; aŕandiz ospatzeko elizkizun banaya. Sendi ta gizadiari buruz bete-beaŕ gaya, ezkongayak alkaŕi beren burua eskeintzeko naya. Oŕa eztayaren goyeneko gogaya, ta maitasunezko agerkaya. Ezkontzaren jaya dan eztaya.

Biziarekiko dugu ezkontza egoki ta beaŕezkoa dan bidea, bizia beŕitzeko gizadiari eman zayon eskuartea, bizira eltzeko ororentzat ongi jaŕita dagoen atea ta guziai dagokien gogo onez onartzea; landareai, abereai ta gizalagunai ere, bakoitzaren eraz, emandako bizi-oldea; Ludi'an barna betidanik eta betidaño yarki-eziñik ari zaigun oldargunea.

Ezkontza, maitasunezkoa dan gertakizuna; ezkongayen artean maitasunez gertutzen dan eginkizuna; ezkontza betetzean, maitasuna yardutean ari zaiguna, ezkontza dugu bizi-indaŕ iturburuduna, maitatasuna burutzeko almen-guna; azmen eta azkormenez ornitutako men indarduna; biziaren barna biziari eusten dion eragīlea dan maitasuna.

Ezkontza da itxaropenaren ezti gozoa, gizadiarentzat piztuten duen gerorako argi-jarioa, ezkongayentzako itxaron aundi ta sendoa, sendiaren oñaŕia kirmen tinkotzen duen bide gain-gañekoa, ezkontzen diranen biotzak alaitzen dituen arnoa, ororentzako itxaropen osoa ta orobat sormena dan guziaren itxaroa.

Eztai ta ezkontza ezkongayentzako goi-amentsa; —txoriek ainbeste arbasta ta sorgin-lumaz dagiten oantza—; līlurazko margoaz gazteentzako zorion-antza; bizi-betearen gogozko oturuntza; alkaŕengandik eta alkaŕi artu ta ematen dan ontsa; ezti-ordi aldian pulunpatzen dan maitakuntza; bizi beŕi baterako idekitzen dan igarantza; maitasun-edontzi, beterik eta zoraldian, yoranez edaten dan oŕits-dantza.

Biziaren zeaŕ ain edeŕak diran aita ta ama izenak; eztai ta ezkontzan bīlatu beaŕ oyek irabazteko bide beaŕenak; giza-maīlean goyeneko galgara eltzeko ematekoak diran uŕats egokienak; bizi-sortzean la-



gunkide on al-izateko onartu nai diran yardespen aundienak; bizi ta izena gerokoan jaŕaitzeko izan ditezken bitarte onenak; sendi beŕia garaiz burutzeko yarduten izango diran lei arduratsuenak.

Iragaŕita zegozen Amamio'n eztayak, Mikel eta Aintzane zirala ezkongayak; lendik erabakitako zegozen betetzeko ezkon-itz goretsigaŕiak; gazte maitaleentzako biotz-isiak eskatzen zizkieten unealdi alayak; bizi guzirako iraungo litzaizkieken oroipen eztiak; naimenez onartzeko betekizun beŕiak, zintzoki onartuz eginbeaŕak ziran eskeintza siñisgaŕiak; ororentzako Amamio'n egingo ziran eztai gogoangaŕiak.

Eginbide betetzen dan edeŕa, biotzari atsegin zayonean eskeŕa, ta iñundik, iñola oartzen ez danean eŕa; zalantza txikienik ez Mikel'engan egingo ote zuen okeŕa; orobat Aintzane'ren baitan, etzuen izango senargaya landeŕa. Ta bientzako Amamio izan beaŕ beren zorionaren bazteŕa. Etzegoen, beraz, egiteko bilduŕik zoritxaŕerako leŕa. —Egan arin zijoala epeŕa!—

Gogo-ametsak ezkongayentzat bidezko; alkaŕengan ziuŕ entzindurik egoteko gogozko. —Beazunik gabe, ikotikan bildoxko; maŕoa izan balitz, aitzitik, aŕoxko—. Oro ezkongayentzako ametsezko; beren buruai eusteko barne-barnetik naimenezko; semeengan bizi-itxaropenak jaŕirik auŕezko; guzia berentzat argi, garbi, distiratsu, liĩurazko.

Burutzeko zegozen Amamio'n udabeŕi artan eztayak; Mikel eta Aintzane'rentzat izango ziran beren ezkontzarako jayak; lendik alkaŕi eman zioten itza betetzeko, egokiak zitzaizkien asiak; ezkonduta izateko uŕats berezia yoranez emango zuten ezkongayak; orduan ametsak ikusteko biurtutako egiak; gogo ta biotzarentzat benetan egun alayak.

Zer ote zan ezkontza Mikel'entzat?, lenengoz emakume ona eukitzea emaztetzat; aitatasunean sartzeko bide egokitzat; sendi beŕia irasi bera ta besteentzat; semeengan bere burua bizian beŕitzeko bidetzat; gizon-zuŕian bere gizontasuna izateko osotzat; guraso, senide, eŕi, abeŕi ta gizadiari buruz betetzeko zeukan eginbidetzat.

Aintzane'ren aldetik senaŕ sendoa izateko egokitasuna, neskaren ametsak benetan gozatzeko eltzen zitzayon zoriontasuna; bere biziari norabide edeŕa emateko zuen zentzuna; emakume guziak bezela ama biĩakatzeko zeukan zaletasuna; Eŕi'arenganako ere onena edo zan berarentzat betekizuna; baita Goiko Jaun'ari buruz biotz eta gogo zalarik siñistuna.

Mikel'en gurasoak eta Aintzane'ren amak ere, ezkontza artan ikusten zituzten beren elburu aundiak bete; seme-alaba, semeso-alabasoen bitartez sendia jaŕai-erazteko xede; beren bizia oŕela osotasunean izango zan buruturik beren eginbide; zartzaro zoriontsua gozatzeko ura izan beaŕ berentzat gogo-ase; beren lan guzien ordañez zoriondun izateko berak be.

Orduko egun guziak emakunde bailiran, naiz Amamio'n batez ere naiz Araya'n, emakume, neska ta neska zaŕen artean, amaika solas, izki-mizki ta esamesak guzien aoan, ba-zirudien ezkongayak sortuak zirala bakoitzaren sendian, senargai ta emaztegaya goratzen ao-betean, biei zorionak aunitz gogotik opatzean; etzegoen ayentzat beste arazorik eŕian.

—Ño!, entzun al dun?, ba-diñagu laisteŕ eztayak ikusteko egun.

—Bai —beste batek— sayets bat ausi bide nun edo nun; —beste batek: sayets-ezuŕa emen norbaitek autsi diñala ezagun; —lenengoak: eztayetara joanen al aiz ezkongayen lagun?; bigaŕenak: etzekiñat, apika deituak izango gaitun; —irugaŕenak, agian bai, agian ez, oraindik gatzatzeko zaigun ezkongaitasun.

—Neska ayetako batek: Zer deritzaizu, Justa, senargaya? —Justa'k: zer?, aukerakoena, benbenetan gizon, buru azkaŕ eta biotz alaya. —Beste neskak: Eta nolako, zuretzat, emaztegaya? —Justa'n: Ona oso ori ere, gatzaren ardura artzeko egokia. —Irugaŕen neskak, puŕustadaz: ezkon-miñik nonbait ugaria. —Justa'k: Ez zera!, ire antzeko min, gose ta egaŕia!

Ezkontza arekiko mintzatzen Azpaŕena osoan; zein nekazari zein langiĩe ororen aoan; geyenak izanik Mikel'en zale biotz eta gogoan; eŕi-zilo batzuek, luŕ-zulo besteek aditzen zuten mazalezkoan; ongi irabazita zegoen aran guziko biotzondoan; oŕela izateko, ausaz, orduan bezela be gerokoan; txit maitagaŕia azpaŕenataŕentzat, bakoitzari oŕela izanik bere kolkokoan.

Argitu zan eztai-eguna, alai eta edeŕ; aukeratzeko izan bailitzayen basoko maitagaŕier; ezkongayentzat zetorkienez keŕ-keŕ; beren etxekoentzat ere, ia, ia, alaber; senaŕ eta emaztegai poz-bete ta poz-lagun maitasunaren eskeŕ; ezteiliaŕ oro atsegiñez ageŕ; Azpaŕena'ko eguratsan etzegoen yaukaltasuna baño ezer; eta gura ayentzat etzirudien izadi osoan izan zitekeala bururakizunik okeŕ.

Ara!, Mikel'en zinkideak ere eldu zirala; beren uŕats gaŕantzi-

tsuetan, batena laurena izango balitz bezala; ezteiliaŕ izateko deya artu ta ortarako bidean sarturik bereala; zorion-agurka ezkontzeko zegozenai, sutsu, bizi, ..., ayen anaitasun leyala; oro atsegiñez atosten eta barnean gozatzen Amamio'ko bikote yaukala; bere onaldia beretzat gañezka ta pozez osotzen zala.

Bat edo bat izango zan, noski, guzien poza onartzen etzuena, eiki; aipa genezake, ziuŕ, nor egongo zan mukerki; beaŕik ez, ala ere, orokaŕa zan alaitasunean gaŕatzik ez jartzeko gurbilki; bildots bakunean alan ola beti kapaŕaren bat ziztaki; ezin kendu xalotasunari ezertxo ere egiazki; ta Umandi pean, egun artan, guzia zan zoriona, aundi ta goraki; ezti, sakon, alai ta on, mukuŕuki.

Elizara sartzean, Mikel'en aitak zeraman Aintzane lagun; Aintzane'ren amak, Mikel berdin eta legun; opa-mai nagusiaren auŕean belaunikaturik, biotza pilpiradun; alkaŕen ondoan ezkongayak, bakoitza bere baitan oparidun; Yainkoa'ri deika ta otoi, zearo siñistun; onespena artzean barne-ukaldi gozoa dardaradun; senaŕ-emazte biurturik, gero, atsegiñezko gentza berengan aldun.

Dantzariak gerturik ataurean, auŕesku txairoa aŕaitsuki eskeintzean; ezin-esan-ala, poza, zabala, guziengan; ezkon beŕi ayek beren seme-alaba, senide edonola, izango bailiran; ezkondutakoen zoriona ororenganaño baŕeyatzean; agurka, besarkada, ororen aldetik anaikoŕ eta sutsuan; abesti, txalo, topa ta goraka ezteiliaŕak eztegu-mayean; egun edeŕ benetan ura guzientzako, alaitasunean.

Ba-doaz, azkenez, ezkonduak, beren eztai-bidaldiruntz; eztayondoa astean abiaturik gogoz aruntz; lendik Mikel'ek esondatuz, Euzkaleŕi osoarenganuntz; beren biotz-aguŕa emateko nayean euzkal-bazteŕ guzietaruntz; lendabizi sortalderuntz, Napaŕoa'ko uribururuntz; jaŕaitzeko ipaŕalderuntz, oŕen uŕengo sartalderuntz, egoalderuntz; amaitzeko, etxeruntz.

Burunda ta Sakana zeaŕ oŕa oŕ elduta Iruña'ra, eztayondoaren lenengo egunak bertan gozatzeko argitara; —ara, Aintzane— Mikel'ek auxe gure bizi beŕiaren asiera, gure zorionaren eztiaz geron burua betetzeko eldu zaigunan egokiera; edan dezanagun zori-edontzia naroro, bordal-beŕiok gaitunan arabera; zorion-arnoa zuŕupatzen oso geron gogara.

—Aintzane'k: Iruditzen zaidak, Mikel, ene Mikel, jeiki zaidakala, nire bizia estaltzen zidakanan tinko, alako kukutu-oyala; ta ire ondoan zoriontsu noakialarik, ikuspegi beŕi auŕean diadala, alai ta



yaukala. Nola Yainkoa'ri eskeŕak eman niganatu zidakan ontasun au dukalarik onen edeŕ eta zabala?; ikotika diat biotza, egin ala; edatzen ari ene gogoan, esateko eziña dukan alako zori garatzazala.

—Mikel'ek: Mukuŕuz zeukanat barnean igandik zetorkidanan atsegiña; egokiena ezkontzeko biok egin diñagun alegiña; ezkongayak gindunan atzo, ezkonduta begiratzen diñagu gaur alkaŕ egiña; gure euzkal-indaŕak bildu gatxion ertsiki ta diña; zaindu dezanagun gure batasun au geron baitan oso ta liraiña; bizi gaiteznan maitasunezko gentzan, beti ta edozein izan adiña.

—Aintzane'k: Gozoenak niretzako ire itzak; barneraño sartzen zaizkidak txeragiĪe guziak; berak eta i aizen oro, niretzat, eztiz eta oso betegaŕiak; bat egiña zitiagu bioken biziak; liĪurazkoak benetan, garden eta argiak; ez ote zizkigutek eman oŕela geron sendiak?; izanen algaituk eten gabe berentzat seme-alaba maitatiak; izan gaitzaala berdin ere oŕela gure Euzkaleŕi'ak.

Iruña'ko kaleetan barna zijoazen alkaŕenganako yoran biziaz; nun zebiltzaten ere ondo jakin gabe gartsu ta leyaz; berdin egon zitzaketean beste edonun ibiĪiaz; amets goxoenaz ziardutela beren gogoeta guziaz; aiztuta izango bailiran, berak izanezik, ororen oroyaz; alkaŕen barnean bakoitzak egoteko nayaz; betetzean ikusten biotzen gurariaz; zorionez okiturik mamin eta kutunezko iskiaz.

Alaz ere amor-egin beaŕ-izan zioten Xabier'i, an agertu baitzitzayen adiskide ura leyatsuki; ta bere etxera eraman zituen guraso ta etxekoek ezagun zitzaten nai; eurekin bazkaltzeko ere bein bederen erdu-erazi; bai ta orobat Iruña'ko asmokide batzuekin ere, auek eskeiñitako bazkari. Guziengandik zabal artutako opari; ura zan eztitan eta atsegintasunez bizi.

Iruña'tik Napaŕoa'n barna leku berezi batzuk ikusten; Olite'ra, Napaŕoa'ko eŕegeek an zeukaten gazteluan agertzen. —Mende batzuetan barna —Mikel'ek gogoratzen— indaŕ egokiaz izen aundia zitenan omen; Biana'ko eŕege-seme bat zegokiñan edo emen, elertiari buruz oso emana erdal-elertia izanaŕen; damurik orduan euzkeraz ez yarduten; deitoragaŕi ere beste Eŕi'etakoak eŕegetzat noizpait onartzen.

—Mikel'ek: Euzkera, beren izkuntza, guzirako ez erabiltzeagatik ain zuzen, ez itunan beaŕ zitzayenanera eldu, gure Eŕia endeŕia unala atematen; beste izkuntzak beren arazoetarako artzean, asmo ortatik

noski uŕuntzen, eta beste endeŕienganuntz abiatu itunan, ayek gogoŕ erakartzen; oŕa nire iritziaz, euzkaldunak mugon artan zergatik ez itunan izan alkarganatzen, eta aitzitik, beste mintzayeraen indaŕez itsututa, zergatik ez zitenan Euzkaleŕia euzkaldunen abeŕia unala ikusi, gurean izan diñagun okeŕ aundiena betetzen.

Oŕeaga'ra jo zuten beste egun batean txangoz; aspaldiko edestia gogoratzean gogoz; an, aldameneko mendietan, euzkaldunak bein nola jokatu zuten oroitzean beroz; eta orduko Europa'ko kaisaŕ ospetsuenaren gudaroztea nola biŕindu ere osoz. Ba-zegoen indaŕa euzkaldunengan mende batzuetan geroz; zer zala-ta indaŕ ura ustiatu ez euzkaldun guzien elkargo altsu ta eraginkoŕ eratzeko betikotz?

Baztan aran eztitsuan barna be gozatu zuten amamiotaŕek beren zoriona; orobat Obanos'en, angoek saŕi eŕegeai, berak aña zirala gogoratzeko zeukaten almena; ta Xabier'en, bertako jaunak ukan zutela beren eŕegearenganako leyaltasuna; beren seme txikia, Yatsu'taŕa aundienetako done izateko ukan zuen kemena; ta orobat gogoratuz done aren ama, etxe gañean jausi ziran ezbeaŕengatik, deitua izan zala Azpilikueta'taŕ Miren ituna.

Lizaŕa'raño be eldu ziran egun batean, bertan dagozen elizak erakusten duten ertia edeŕetsi ta aundiestean.

Ezkon beŕiak, gero, ipaŕalderuntz jo zuten Eŕonkari'aren zeaŕ, almadiak ibai beruntz nola jetxi-erazten zituzten ikusi zutela azkaŕ. Ori mendi goratuaren ondotik eta Irati baso itzal urbiĪetik, Zuberoa'ra eldu beaŕ; an etxean daukaten etxegain berezia ta elizetako doŕeak, iru gurutzedunak zirala, bereziki oaŕ; eta Ataŕatze'n jai batean Pastuala egoki ematen, eŕitaŕ guziak abesten eta dantzan ikusi, oro su ta gaŕ.

Benapaŕoa'n barna ere, Xabier Deun'aren aita sortua zan eŕixkara, sendi aren oroimena biotzez gogoratzeko beŕiz ayen ospatzera; berdin Donibane Garazi'n azaldurik, ango eliza polit ondoan dagoen Yatsu'taŕen etxera; nabari-nabari Deun ura izan zala alde guzietatik benetan napartaŕa.

Eŕobi aranetik jaŕaitzeko ondoren sartaldera, itxasertz ondora, Ustaritz ikutuz, an aspaldian laburditaŕen Eŕi-batzaŕa.

Ipaŕaldeko jo-mugaz Bayona, ta an poz-arazteko Gexan'ek egin zien aŕera ona, bai ta berarekin batera batzaŕetara joaten ziran lagunak eta beste asko, ezagutzeko nabaritzen yorana; guziek zorion-aguŕik kartsuena emateko, Mikel eta Aintzane'gana. —Zer duk au?— galde-

tzen zion emazteak senaŕari —guziak zetozkik bat-bana; —geitzeko asmoz zirudin —senaŕak erantzuten— ire ta nire zoriona.

Bayona inguruko muru orlegi ta luŕ-bizkaŕ-mazelaen artean, Eŕobi'ko ibayak bere ur-lasteŕa amaitzen du Atuŕi beste ibaya besarkatzean, uria edertzen duten zubi batzuen petik igarotzean. Edeŕ-izan zitzayen Bayona ezkon beŕiai ta pozik ibiĪi ziran ango kale ta arkupetan, bai ta eŕialde askotako itxasontziak ikusten bertako portuan; pozaŕen pozez arabaŕak ango bazteŕetan.

Eliza Nagusia batez ere, ayentzat benetan edeŕ eta ikusgaŕia; lekorez eta barnetik aŕiz egindako gogo-eresi liĪuragaŕia; bere bi doŕe lirain eta zoŕotz goruntz jasotzeko edo otoi gartsu ta barnekoya; uriaren adelu egoki ta apaingaŕia; antziñan, beste tokietan bezela, siñismenak eraikitako oroitaŕi gogoangaŕia; Yainkoa'ganako siñismen biziak bakaŕik egin lezaken gogozko ta aŕi-irudizko agiria.

Miaŕitze'ra eldu ziran eta itxas-bazteŕeko beste leku edeŕ batzuetara be; baŕa ospetsua ikusiz orduan zegoela lañorik gabe. Urdazubi ibai-mugan txairoki kokatuak dagozen Donibani Loitzun uri ximena ta Ziburu itxas-aterpe; azken au bere txikitasunean aŕantza-ontzien kabi bero ta polita bexelaxe, baña anbiolan, bestetik, itxas-lasterkariak urteteko zulo egokia ta itzultzean bertan egokiago gorde; itxas-gizon ayek omendun bilduŕ gabe.

Erakustetxeak ere Bayona'n eta bertan ikustaldi bat eman zuten; euzkal eta margo-erakustetxeak ain zuzen; lenengoa atsegiñago Eŕi'aren bizi osoa baitzuen erakusten. Oro izan zitzayen Laburdi'n ikusgaŕi ta beren laketsiz aundien; ba-zeramaten bertatik guztiz begikoa zuten gogorapen. Amaitu beaŕ azkenez ango egonaldi gozoa, ta Gipuzkoa'runtz abiatu eztayondoa jaŕaitzen.

Donosti'ra zuzen-zuzen, beren ibiĪaldian geraldi zitzayen irugaŕen. Atsegiña benetan uri edeŕ aren zeaŕ ibiltzen eta egurasten; guzia agertzen zan txoko polit artan poza jasotzeko, ao-betez gozatzen; ona jo, ara jo, ezin iñun aspertzen ez eta ibiĪi ta ibiĪiaŕen nekatzen; mendiak itxas-ondoan jeikitzen, ala itxasoa mendi tartean sartzen, edertasunerako bata ta besteak egokienik alkartzen.

Itxasoa izan zan, alaz ere, geyen erakartzen zituena; bare-barea egun ayetan, baña gelditzeke ari-arian azaltzen zana; noraño eltzen ote ain aundia agertzen zan zabaltasuna?, ta bere sakontasuna?; begiaz ikusi-ala begiratzen eta ezin oartu arena izango zan amaikuna;

nunbait, ortzi-muga ala itxas-muga, biak, ba-zirudien, ortzi ta itxasoak zegitela alkartasuna, bata ta bestea izanik oztinduna.

—Ez al zeritzain, Aintzane —Mikel'ek— itxaso ontan ba-diñagula, gure biziarentzat aŕ genezakenan eredu edo bezela?; eztun gelditzen, eten gabe ari zaigun yarduten agirian jaŕita bere egiñala; ta bide batez geldiro, baketsu, baretasunean zegokinala. Ez ote dun izan beaŕ gure biziak ere oŕela?, eginkizunetan beti ari-izateko gogoz eta erabat gentza osoan be tai gabe egoteko giro yaukala?

—Aintzane'k: Bai, eztuk guretzako irudi txaŕa, orain zegokian bezela artzen badiagu; baña ba-zekik onek noizean bein eta gogoŕ asaŕetu, ta orduan gentzarik ez, ezin bertan oŕelakorik begiratu; oŕela dardaraturik, gudarako eredu obea, kalte ta oñazeak egin eta zabaldu; sumiñez eta eŕe-eŕetan guzia astindu, abaŕikatu ta uzteko biŕindu; ez al duk uste, Mikel, zegokiguala, ori dukala-ta, onartzeko eredu, baretasunean bakaŕik oŕezaz gogoratu?

—Mikel'ek: Zalantzik ez ortaz ene emaztea...; ta biotz-atsegiña iri ire izen beŕi au ematea: nire emaztea. Ortzi ta itxasoaren zabaltasunaz diñat edeŕ gure maitasuna begiratzea, gentza-margo egokiaz beti adelaturik ikustea. Yainkoa'k nai dezanala gure bizi-aldi guzian guretzat oŕela gordetzea; gure zorionerako bai, noski, baña besteentzako ere opari ona bezela al-izatea. Gure etorkizuna, uste diñat oŕela izango zaigun on antolatzea.

Euzkal-itxas-bazteŕ artan aurkitu beaŕ, gogoz ere, beste zinkide; ta bereala aurkeztu zitzayen bere laguntza emateko Eneko adiskide; bere etxekoak ezagun-erazteko aŕerazi zien arek bide; bai ta bertako lagun batzuengana eramateko egokiena izan zitzayen abagune; guziak arabaŕak gozarazteko itz eta opariak eskeintzean leikide; ororengan ikusten zirala egiazki senide.

Ezkon beŕientzat oro ikusgaŕi, Pasai itxas-ate, itxas-ziŕituan atosle ideki, ta aruntzago uri zaŕ Ondaŕabi; sartalderuntz beste itxas-ate edeŕaz eta egoalderuntz Azpeiti ta Azkoiti, Loyola ospetsua beren erdi. An Eneko Deuna gogoratu zuten gartsuki, euzkal-deuna bazan, eurentzat goi-goyeneko gizon eta deun aundi. Uŕengoan Beteŕi ta Goyeŕi zeaŕ Arantzazu'raño eltzeko iŕiki; Iziar eta Aŕate'ra Gipuzkoa uzteko azken yoaldi.

Ba-zegozen geroxeago Bizkaya'n, erdia baño geixeago egiñik beren ibiĪaldian; alde artan idekita zegozen Ondaŕoa ta Lekeitio itxas-atetan, itxas-gizon ospetsu askoren kabian; egoalderako txango txikian

Mikel Deun'aren Aŕetxinaga ikusi ta edeŕestean. Itxasaldera beŕiro beste itxas-ate batzuetan barna igarotzean, ain aipu aundikoa dan Bermeo'raño eltzean; bizkaitaŕ utsak ziran ainbeste eŕi, uri ta txoko atsegiñez beterik ezagutzean.

Gernika'ra ere eltzeko gero; an ainbeste gogorapen eta amets beŕitzeko bero —Ona emen —ziñoen Mikel'ek— oneraño eldu gaitunanezkero, ikusteko diñagun bizkaitaŕen areitz ospetsua goraipatzeko diaguna egunero; onen adaŕen itzalpean biltzen itunan aspaldian Bizkaya'ko aldunak beren legeak emateko, zuguŕ eta ez ero; gure Eŕia azke bizi unan aldi edeŕ ayetan, beti izango bailitzan olentzero; nork orduan esan jausiko unala onenbeste ta ortarako oro lero.

—Aintzane'k: Eztuk ez eŕaz ulertzeko gurean jaso dukana; ez ote zitean gure arbasoak azkatasunaren aldeko gogo beroz yorana?

—Mikel'ek: Etzekiñat, apika erbesteko distira aizuna izan aundikiak itsutu zitiñana, ta eŕi xeak, buruzagi onik izan gabe, erbestekoa onartu ziñana.

—Aintzane'k: Alaz ere, Gernika ta bere areitza beti izan dituk azkatasunaren ikuŕa, nun-nai onartua izan dukana.

—Mikel'ek: Oŕela izan dun, bai, baña itz ozenen neuŕian bakaŕik, ene ustez besterik ez izana.

—Agurtzane'k: Edozein eraz, ikuŕ oŕi eustea egokia izan beaŕ guretzat; nonbait ortxe baitzegokik gure Eŕi'ak bere baitan dukan iŕika azkatasunarentzat.

—Mikel'ek: Izpidean ago, Aintzane, baña ez ote dun ori izen bat, eta besterik ez, ororentzat?, eta ba-dakin, izenak izana ez zegiñala iñorentzat. Alan eta guzti be, izena erabil dezakenagu, oŕen bidez izana ere indartzeko abeŕiarentzat; eŕautspetik orobat txingaŕa ateratzean su aundia egin diteken asmo ta xedeentzat, gogoa piztu ta goratzean onartzeko aintzakotzat.

—Aintzane'k: Ta ez al duk ori, ain zuzen, egiten ari zeratena, obeki esango nikek ari gaitukena?, ire ta zuen xedeak nireak be egin nayean bainabilkik, ortan jaŕita gogo beroena?

—Mikel'ek: Enurarik ez ortaz bioken burutzeko batasun kartsuena.

—Aintzane'k: Ori zirudik gure zorionerako zetorkiguala biotzean ematen zidakan atsegin yaukalena.

—Mikel'ek: Bat egiñik gaitun guzian, Aintzane, Yainkoa'ri eskeŕ. Bera izanik onena ta gure bizirako eusle indardunena.

Gogo ta biotz beroturik irten ziran andik zearo; ta Bilbao'runtz abiatu gero, beren bideari jaŕaitzean ibiltzeko zegoelarik bidaro. Bertan sartzean aurki ikusi uritzaŕ artan berentzat izango etzala abaro; baseŕitaŕentzat, eiki, zarata ta aŕabots geyegi bizi-izateko maro-maro. Baña ura zan abeŕiaren uri aundiena, baku-uri aberatsa, lanerako naro; ta biziari indaŕ gotoŕa ematen ziona galgaro. An ere abeŕia garatu beaŕ zan sendoki ta oparo.

Ango itxas-adaŕ luzea alde bietatik itxas-ontziz betea; Ludi'ko bazteŕ guzietatik oro artaraño eltzea; nolako antxe entzun beaŕa zan elea!; ango ura izan ezpalitz ain aŕea! Ibaizabal ibayak ematen zion bere ur gardena antxe biurtzeko uaŕea; biziaren eredu ote, garbi dana zikintzeko uri aundiak dirala bidea?; mendi-aldean nabaski, ekandu onen oatzea; be aldean edo, gizaketan, ustelkerirako oro andea.

Ezkeŕ-aldeko ta itxasoruntz leŕokatzen ziran mendiak, asko, zugaitzez muŕizturik agertzen ziran, beren mazaletan goŕiztatuak, gizonari oparo eman ondoren beren burni-menastak, eta odol-margo ayek izan bailiran gizonak ankeŕ, egindako zauriak; betetzeko, uŕe-gose, ain aundiak ziran iŕitsak, eta gutxientzako aberastasunaz suntzitzeko euzkal-bizia ta oiturak, zikindurik uzteko bazteŕak.

Bein eta beŕiro amamiotaŕak eltzean itxasoraño, aŕituta geratu ziran, ari ziralarik xalo ta laño, abazkatuta ikustean nola zegozen ainbat lantegi aundi ta olaño, mendien eta itxas-adaŕaren arteko luŕaldea betetzen leporaño; ezagutzen etzuten bizikera beŕi ura alde guzietatik agertzen zala nabarño; ta eguratsa, ke ta autsez beterik ere, kirastun eta zikinkeriz okiturik ikusi etzutela egundaño.

—Nola bizi ditekek emen —Aintzane'k ziñoen— ain usai txaŕeko inguru ontaz?; barnetik gogoratu beaŕ leyatsu Kukuma'koaz, ba-zegokik tartea emengo ta ango eguratsaz. —Eta Mikel'ek erantzuteko: —Bai, baña alaz ere bizi gotoŕa auxe, burututako lanaz, burniaren eskeŕ egiña ta eŕe izandako ikatzaz; oŕela edo gogortu ta zikindutako aberastasunaz, eta bidenabaŕ gogoa txirotuko ezpalitzan gaitz erdi esateko ontaz.

Etzuten, beraz, andik gomuta gozoa jaso, ta beste nunbaitera jo-egin beaŕ leyatsu oso. Ain zuzen Sabin'ekin egoteko eldu zitzayen unealdi gozo; maitekoŕa benetan adiskide ura ayentzat eta berarekin egoteko eroso. Aren aideengana eraman zituen arek ezagutzeko batik bat guraso; ta gero egun bat eman zuen ezkonbeŕiekin anaitasunean igarotzeko laso.

Begoña'ra igo ziran azkenez, ain omenduna dan Ama Neskuts' aren irudia ikusteko yoranez, bai ta alkaŕekin otoi bero bat egiteko nayez. Zenbat aren antzekoak Euzkadi'n barna mendietan sortzez, Ama berberaren irudiak, beren artean aizpak bezelaxe izanez. Orixe oartu zuen Mikel'ek, gañeratzen: —Ori guretzat eta Eŕi'arentzat eskeŕ aundi ta zabala, zorionez.

Uŕengoan Urkiola'ren zeaŕ Araba aldera, lenengoz Legutiano'ra, laisteŕ eltzeko uri-burura. Ba-zegoen an amaitzeko beren eztai-ondoko, naiz eta oindiño ukan eŕiak ikusteko.

Eztibalitz lenengoz, ara joanda biak gogoz. Arabaŕen Ama berentzat beti guztiz laztana. Eskatu nai zioten, bere oñean, tai gabe bizi-izatea Aren maitasunean. Beren biotzetan egiazko atsegin osoa, eliza zaŕ edeŕ artatik ateratzean, ezpañetan iŕiñoa. Arabaŕ- zuŕian ala izan beaŕ kirian-kirian.

Dulantzi'n Ama Neskuts'aren beste baselizan, ezberdiñak saŕerako atean iru uztai izan. Oro mendi gañean gero, Zuya'ren Ama Zaindari'ari egiteko aguŕ bero. Angosto'raño uŕengoan Neskuts'aren beste irudi alazgīlea an baitago; ta Biaizteri'ra ere, bertako Miren Deun' aren eliza edeŕa ikusteko, bere ataria batez ere ain ikusgaŕia dalako; ta orobat Agurain'en, beste ainbeste edeŕesten. Ezin alarik ere, Araba osoan Miren Ama'ren omenean dagozen eliza ta baseliza guzietaraño eldu, ortarako ez ukanez beaŕa zan aldian. Baña pozik ayetan agertzen dan arabaŕen siñismena nolako aundia izan zala oartzean.

—Ba-zegokiñan, bai —esaten zion Mikel'ek bere emazteari— siñismena gure Eŕi'an, gaurkoa baño aundiagoa aspaldian. Ba-zirudin eŕi bakoitzak euki nai zitiñala bere eliza ta baselizak eta gurutz-tokiak. Baña, gañera, ikustekoa dun nolako eliza edeŕak egin zitiztenan guziak; aŕigaŕiak agertzen zaizkigun gaur geyenak; nola aintziñan zeuzkatenan indaŕ eta bide gutxien bitartez burutu al-izan zitenan oŕelako ainbeste lan; gaurko ontan, indaŕ eta bideak askoz aundiago izanik ere, ori bezelakorik egiteko gagozkin eziñean; nola ez ikusi lan ayetan, egiteko indaŕa aurkitzen unala siñismenean. Eta ori ez bakaŕik gurean, bai ta ere Europa ta Ludi'ko beste Eŕi'etan; eta mota guziko eraiketan, gure Eŕi'an berariz eŕomataŕ eta godotaŕen erti ta tankeretan. Esan beaŕ diñagu, ala beaŕean, siñismen, lan eta ertian ari gaitunala galtzen.

—Aintzane'k: Izpidean agoela aitortu beaŕ, zoritxaŕez, bereala;



gizadia gero ta jakitunago, ta gogoz ain zuzen atzerago; nola zuzen litekek jokera, oro itzultzeko lengo siñismenera?

—Mikel'ek: Etzekiñat, baña esan genezaken aduŕ gaiztoa zegokiñala bere lana egiten, ororen gañean oŕela; edo senik gabeko biurturik, gizonak oro ezinbestez beruntz zitiñagula abiaturik.

—Aintzane'k: Eta ori ere gure xede ta asmoetarako eragozpen eta oztopo izateko; nundik elduko zaiguk indaŕa naikoa, guzia garaitzeko?

—Mikel'ek: Siñismenari lotu beaŕ zionagu geuk gure burua estu, alegiñak beñepein betetzean azku. Geu lenengo ta gure Eŕi'arena gero, ibiīi ta erabiltzeko bero; gure aburukideak ba-zitiñagu gero ta geyago..., Yainkoa'k nai dezanala guziok bide onean joatea alik eta zuzenago.

Gasteiz'en egun batzuetarako geraturik, ango adiskideak egin zieten edeŕenetako abegirik. Beren omenez zerbait berezia eskeindu nai, ta an agertu ziran Madinabeitia ta Oses ertilariak opaesten gai.

Ba omen zegozen Araba'n aspaldin, toki batzuetan bederen, sorgin eta lamin, basojaunak, gizotso ta ieltsuak, momo ta iratxo. Lamiñek beren gizotso ta ieltsuekin kokatu ziran Lamiñuri'n eta an bizi ziran alkaŕekin. Iīargiaren alabatzat zeukaten beren burua, ta Luŕ' eraño eltzeko aurkitu ei zuten bide izkutua; gero emen bizi-izateko toki egokiena edo, Lamiñuri'ko aran estua.

Urtean barna lau bideŕ bakaŕik irteten ziran andik; ilbeteetan, Itxogane ta Idigane mendietan, beren amari aguŕ-egiteko xedeetan. Ayetara igoten omen ziran gabaz, beti erabiltzen aŕeta aundienaz; oiīarite eldu arte, dantzan eta abestiz iīargiarenganako beren maitasuna ageriz.

Aldameneko eŕietan ba-zuten guzi oŕen beŕi, ta gazteak batik bat lamiñak ikusteko iŕiki; xede ortaz, ayek ere iīunaz mendi gora leyaz, goiztirian ayen urbil egoteko gogoaz. Baña ieltsuak eta gizotsoak aurka irteten zitzaizkien kemenaz; eta lamiñak, laguntza arezaz ziuŕ, leputzuritaŕai lasai ixekaz.

Ipuin ayen mamiak bertsoz jaŕi zituen Madinabeitia'k, bai ta Oses'ek gañera, eresi berezia bere erara. Ta neska-talde bat gerturik zegoen guzia abesteko, andik edo emendik.

Ez Lamiñuri'n ez eta Leputzuri'n, baña aldameneko eŕi batean

obeto, emengoan edo angoan berdin. Eta egun ayetan Gauna'ko jayak ospatzean ara joateko erabaki zuten azkenean.

—Mikel'ek: Baña, gizonak, zuek beti duzute zerbait eskeintzeko, dana egoki. Miīa eskeŕ zuei ta pozik joango gera, ikusi ta entzuteko gogoz beterik.

Ta Gauna'ra amamiotaŕak, Gasteiz'koak ziran abeslari ta beste asko lagunak, alkaŕekin guziak.

Gauna'n pozaŕen pozez suztaturik, eskeintzen baitzieten usteko eziña zuten jairik; eta beren aldetik, antolatzaleak zuzenduz, ekintzarako adelatu zuten tokia egokienik.

An agertu ziran amabiren bat neska, zuriz jantzita, mazal eta iŕi-paŕeka. Aldamenean Madinabeitia, ikusleai emateko ipuñaren beŕia; oŕela orok ongi ulertzeko bertsoen mami guzia.

Ta bereala, argi-argi eresia, eman zuten onela Lamiñen abestia:

1. Aguŕ Argizari ama!
Aguŕ gure ama laztana!
Gaur zure alaba dana
Erdu nayean zugana!
Lamiñuri'tik (1) yorana
Zuretzat, biotz, emana
Gogoa zeroŕengana,
Maitasunak naramana,
Zurea nik al dudana!

2. Lamiñuri, Lamiñuri!
Gure oantze, gure kabi,
Lamin-eŕi, lamiñ-iri,
Gure egoitza zoragaŕi.
Basoan areitz ugari,
Udan abaro egoki,
Udagoyan giro ezti,
Neguan aterpe itxi,
Udabeŕiz amets zoli!

3. Ortxe baikiñan jayorik,
Bertantxe bizi alairik,
Ez guretzat beste pozik
Ez ta ere zorionik.
Eztugu nai guk besterik
Antxe ola igarotzerik,
An bertan bizi osorik
Azken orena eldurik
Betiko atsa emanik.

4. Urtean barna lau aldiz
Irteten gera ibiīiz,
Iretargiaren zuriz
Ama dugularik egiz.
Maitasunak ekin biziz
Goiko ama gaur ikusiz,
Iīargi betean garbiz
Bera gurtzera etoŕiz
Barna txit beterik antsiz.

(1) Lamiñuri (erderaz Laminoria), Araba'ko aran txiki bat.

5. Itxogane'tik (2) egaka
Idigane'ra (3) ĩatoka
Ĩazki amari dantzaka
Biotz guzia punpaka!
Berari dagiogu deika
Berari be lekayoka,
Abesti alai amaika,
Eskeŕak ematen eunka
Arentzat aintza beteka!

6. Eskuan uŕezko oŕaze
Adats orailtsu edatze
Ozkak txairoki apaintze
Oro berari eskeintze.
Etzegon guretzat bertze
Ez argi bai argi eltze,
Artean ari opatze,
Ezagun gabe oñaze,
Gure baitarik goratze.

7. Ez iñor gugana eldu
Ezin ori iñork lortu,
Alpeŕik nayez urbildu
Uŕuti beaŕ geratu.
Gu iñorekin ez nastu
Orixe nai dugu estu,
Ĩargiari eskeindu
Arengandik gera sortu
Arengana nai biurtu.

8. Leputzuri, Leputzuri! (4)
Lokatzetan txeŕi ari,
Bizi beaŕ duk urduri
Lupetzan til-til igari.
Azaltzen aiz iguingaŕi
Apo ta igel dituk sendi,
Koŕoka kun-kun abesti
Loyaz bete-bete busti
Satsu, zikin igan guzti.

9. Ta guganaño igo nai?,
Iŕiz, ijiajaz, aldai,
Oxiñean ago anai
Betiko, gañera, to, bai.
Gutxirako aiz beti gai,
Ixtiĩean ote dirdai?,
Etzegok oŕ ezer alai,
Ago, ago, uaŕez blai,
Besterik ez ire garai.

10. Noizko ire seme zikin
Ari-izateko gurekin?,
Eta dantzan alkaŕekin?,
Eziña uan aspaldin.
Orain eta gero berdin
Ba-zekiagula, jakin,
Oro ditukala buztin,
Ezin oinkatu iñoiz erpin,
Apo egazkada ezin.

11. Ikasi uan gaiztoño
Mendi-gaĩuŕetaraño
Igotze genian laño,
Gure ama onganaño.
Egiteko al aguŕño
Ĩa-betean to ta ño
Oĩaŕite arteraño
Ikusi nai gure iŕiño
Mendiz gora oneraño.

(2) Lamiñuri ondoan dagoen mendi bat.
(3) Lamiñuri ondoan dagoen beste mendi bat, lenengotik urbil.
(4) Leputzuri. Araba'n aspaldin zegoen eŕi txikia. Bera ta Lamiñuri artean, Itxogane mendia. Gaur baseliza bat geratzen da bakaŕik.

12. Ire mutiĩak alpeŕik
Naiz eta izan jantzirik
Alkondara egokirik
Egueŕi-ariz eyorik.
Ieltsuak egaturik
Argi mokoa zabalik
Ĩun mokoa itxirik,
Gazteak atzipeturik
Uzten zitiztek osorik.

13. Gure gizotsoak ere
Malda zeaŕez gora be
Tinko zeramatek kate
Jokatzean gure alde.
Mutil iñozoak uste
Laŕ dituala ta ote
Ta txitxoak oartzeke,
Auek beren lana bete
Gu geu gordetzeko azke.

14. Axut!, kuku!, Leputzuri!
Ep!, ep!, iri, iŕi-xuri!
Iretzako gu aupari!
Oso baitaiz nazkagaŕi!
Bai ta ere uŕuingaŕi!
Beti txit arbuyagaŕi!,
Guganontz igoten ari?
I ezin, geu iñakari!
Gogoz iji-aja ta iŕi!

15. Onaŕ, ama, gure aguŕa!
Alaba duzu zuuŕa!
Iñorentzat ez makuŕa!
Ez ortarako gaitzuŕa!
Zurekin on gure aguŕa!
Zuretzat eztugu eluŕa!
Zure omen ezin uŕa!
Zuregan beti gaĩuŕa!
Maitalea duzu auŕa!!

Guztiz txalotua izan zan dana; ura ere Mikel eta Aintzane'rentzat benetan atsegiña. Besteen artean ertilariai beren zorion-aguŕa eman zieten alai. Uŕengo egunean, an zijoazen etxerako bidean.

Ororen poza Amamio'n guziekin alkartu ziranean, ezkon beŕiak bertan jaŕaitzeko bizi beŕian.

—Mikel'ek: Ba-goazkin auŕeruntz, Aintzane, nire ustez ongi, azal eta barne; autatua diñagun bizi ontan alkaŕekin ari-izateko asmotan. Biokenak zitiñagu ametsak, gogo ta xedeak, guretzat eta guzientzat berdin, opa-izateko gentza ta beste, onenak. Onartzeko al dun oŕela bizia?

—Aintzane'k: Biotz-biotzetik, Mikel; irekin guzia!

Zabalkunde betean

Ilabete luzea Mikel eta Aintzane, beren eztayondoa egin ondoren, etxeratu ziranetik; beren ibilaldiaren gomuta onak miazkatzen eta etxekoai ikusitako ta gozatutako guziaren berri ematen. Beren eguneroko bizi berian pozik eta gogoz ari ziralarik.

Naiz lugiñen «Azparena'ko Elkargoa», naiz langilleen «Ola-Elkargoa», bakoitza bere bidetik, ongi zijoazela atsegiñez oar lezake edonork, areago noski Mikel'ek.

Lenengoan arautzak eta txitak, aindo aundian izateko, olategi bereziak jarita zegozen eri batzuetan, Mikel'ek ere esondatutako eraz; eta guzirako sortu zan lana, beara zanez burutzeko, lau langile berezi ari ziran bildegian, bertan jaritako lankayak erabiltzeko yarduten.

Orela zabaltzen eta ekoizpenak geitzen lortu zala ikustean, nekazariak adoretsu ta itxaropentsu, beren etxe ta luretan zegizkiten lanak, bildegi ta elkargoan, ondorio etekintsuak ematen zituztelarik, guzia bakoitzaren eta ororen erakunde egokitzat artzen zuten, gero ta indarago ta gogozkoago.

Uraxe ain argi ta onuratsua agertzen zitzayelarik, oso ontzat eta bidezkoa zeukaten luraren langile ayek, aurerapenak egiteko ta oyen bidez beren obariak geitzeko ere, etzutela iñora joan bear, beren etxe ta luretan zegozen almenak erabili ta ustiatzeko ongi ezagutzea baño. Ta asmo ura ayen baitan mamitzea zeukan Mikel'ek an iritxitako aurerapen aundi ta onena.

Asmo oren eskeri eta ondorio bezela eri guzietan asi ziran Udala'k zugatzak landatzeko eman zuen onua betetzen; zeintzuk, nun eta nola egokia ote zan guzien iritziz erabaki ondoren. Orobat mendietan ere, areitz, pago, lizar, urki, gaztañondo ta besteak, pizkanaka- pizkanaka jaraitzean. Ortarako, gañera, Araya'ko «Ola-Elkargoa»'ren laguntzaz, onek be Udala'ren xedeak onarturik.

Ba-zegoen lan guzi ayetan bizi beria, bai ta alkartasunak zeman indara egoki erabiltzea ere. Ororen beri ematen zuen Mikel'ek noi-

zean bein «Eri-Deya»'n, eta bere aranari buruz aipu edera borobiltzen zijoan lortutakoaren eskeri. Orela, Euzkadi guzitik zetozkien azparendarai beste lugiñak, bertan egiten ari zana eredutzat artzean, bakoitzak berean beste ainbeste egitea al-izango ote zuen ikusteko.

Alde artatik, beraz, guzia zan Mikel'entzat pozgaria, ta bide artan bertan jaraitzea agertzen zitzayon guztiz egokia bezela. Etzan arean an molokot-eginda ezer, eta lenengotik ongi abiatu zala ta oro bere gogara betetzen ari zitzayola atsegiñez beterik begiratzen zuen arek.

Aberiarekiko zeuzkan xede ta asmoetan beste ainbeste lortzea ere nai zuen barne-barnetik, baña zoritxarez ororen landa zabal artan oso zala bezela agertzen zitzaizkion betetzeko arloak, eta ebazkizun aundi arekiko, txikiak etziran buruausteak bere baitan.

Berdin etziran iritziak ugari bateretan, iñola ere batera etzetozenak; aitzitik alkaren aurka ari-izateko zerabilzkitenak. Guzirako bezela, alkartasuna zeukan Mikel'ek bide egokiena, ta asmo ori sartu nai zuen ororengan sendo. Bidezkoa zan, bere abururako, iritziak berdin ez izatea, baña ez bakoitza bere aldetik ibiltzeko, auzokoarena ezagutzeko zirkiñik ez egitean, ta besteen aurka burukan sartzeko.

Orengatik alkartasunaren asmoa zan Mikel'ek erein nai zuena, ortarako bere almen guziak erabiltzen, ebazkizunai aterabide onena emateko eskuarte egokiena bezela. Ta Azparena'n lortutakoa egiztapenez aurkezten zuen al zituen bide ta aldi guzietan leyaz. Eta era berean jokera aren ondorio onenaz bezela ain bearatzat zeukan gentza, Eri'an ezartzeko bere barneko lei nagusia beteko zalakoan.

«Ola-Elkargoa» ere bide onean abiatua zala zirudien. Alde batetik, lanean jarita zegozen lau tximistola oso ondo zebilzten, eta berak sorerazitako indar aundi ta bereziaz beste lau altzairu-labe egokiro eragiñik, altzairu ona ateratzen lortu zan, bai ta burni-muger eta burni-manganes ere Yokin'ek auretik antolatu zuen egitamua jaraitzen; eta lortutako guzia eraz saldu zan berandu gabe.

Guzientzat izan ziran lortze ayek ondorio onak; eta Yokin'ek orela adoreturik, ba-zuen asmoa urengo udazkenean boskaren tximistola lanean jari beste altzairu-mota bat sayatzeko.

Ta udan, agoraldia zegoelako ta orengatik tximistola guziak erabiltzeko ura asko gutxitu zalako, anteparak garbitu ta urengo lanaldirako beriz antolatzen; aurekoan arail batzuk sortu ziran eta ura ez galtzeko bearezkoa zan zipoztea. Bide batez anteparaen arteko zuga-

tzak ere zaindu ta ia geitzeko al-izango ote zan begiratu, ortarako aro berezian beaŕ ainbat landatzeko asmoz.

Beste aldetik, langīle guziak lanean gogoz ari zirala zirudien elkargoarekiko zaleturik eta era beŕian atondutako erakundean zearo entzinduta, beren bizia itxaropenaz beterik. Guzien yarduera, Yokin' en iduriko, ona zan, naiz berarenganako naiz guzien artean alkaŕekiko lagun eta kidetasun adoregaŕiaz.

Noizean bein guzi oŕezaz Mikel'ekin mintzatzean, pozik nabari--erazten zituen Yokin'ek bere oarpenak baikortasun oberenaz. Ura ere pozik, berak ainbat maite zuen lankidetasunak, Azpaŕena'ko bigaŕen elkargoan ere ondore ain goga-betegaŕiak ematen zituela ikustean.

Alde guzietatik, beraz, Mikel'entzat, ipi-apan eta bere gogara azaltzen zan oro berarengan eta inguruan, eztai ta eztayondoan eskeiñitako bezuza ta adiguri auta, bikain eta ezin-obea bezela. Alakotz zorionez beteta begiratzen zuen bere burua, ta orixe oaŕerazten zion bere emazteari gogoz.

—M.: Ikus, Aintzane, inguru ontan eta gure batasunean guzia diñagu pozgaŕi, guretzako berariz antolatua izango bailitzan; nola Yainkoa'ri aski eskeŕ eman? Oŕezaz gozatzea zegokigun, alegia, ta urteetan barna oŕela bizi al-izateko izango uken leyatzea.

—A: Oŕela zekuskiat nik ere gure bizia oraingo ontan; iri buruz «lantze onak uzta onak» esakuna gogoratzekoa duk.

—M.: Alaz ere, eztiñagu gerekoikerietan geratu beaŕ eta gure Eŕi'arekiko arazoaz ere ezin geron aldetik aiztu; ta alde ortatik guzia orain eta gerorako ere eztun izango margo garden eta atsegiñezkoa. Ezin zorion utsa gizonaren bizi ontan.

—A.: Bai, oŕelaxe duk, betidanik eta usteko betidaño ere izango dukala; alakotz, biziarena izanik ta ori bete-betean bizian bertan diagularik, onartzea zegokiguk, besterik eziñean gañera.

Otian, egun ayetan bederen, Mikel'en gogamen eta arduraetan batera etzetozen bi ikuspegi: bera ta bere sendiari buruz onena bezela agertzen zitzayona; abeŕiarekiko ta gentzarako, aitzitik, txaŕa ta urduritasunez okitua. Ta bi ikuspegi ayetan barna, gure gizona ibīli ta auŕeratzeko nayean nasaitasunik ez, ezin bere buruari edeŕetsi.

Bere emaztearen azken itzak bidezkotzat artzen zituen eta dana dala, beste askotan bezela, orduan be auŕera jotzeko erabakia artu beaŕ eta gogoz artu, ziñez.

Ba-zijoazkion egunak bere eguneroko lanetan murgildurik zebīlela; ta ara, ia batera, bere zinkideen iru gutun artu zituela, ororen arteko asmoai buruz irurak eginda.

Eneko'k, gutunarekin, euzkal-elizti-gai bat bialtzen zion, bein--betiko idaztia egin baño len bere iritzia galdetzen. Beste ainbeste Xabier'en aldetik, Iruña'n atondu zuten edestiari buruzko beste idazti-gai antzeko idazki luze xamaŕ igortzen zion bere oniritzia lortu nayean. Eta Sabin'en gutunean egingaŕi ta egiteko beaŕa zeukan asmo bat aurkezten zion arek bere aburua be eskatzen.

Eldu zitzaizkion Mikel'i, iru bialtze ayen ondorioz, bere oldozmena lanean jartzeko beste iru bide, batez ere irugaŕenari zagokionaz. Eta bere gogoa beroturik, ezarian bayarian ibīli gabe, burutan artu zituen bereala bere adiskideen asmoak, oso ta bizi ta gogoan gogora; bere erantzunak emateko, alaz ere, atsaren gañean ari-izateko xedeaz.

Astiro irakuŕi zituen Eneko ta Xabier'en ekeyak. Asimasiak bezela artzeko ziran biak, gero zerbait zabalago ta sakonago egiteko oñaŕia bezela; baña gai biak lenbailen agertzeko beaŕean zegozelakoan, ongi iruditzen zitzayen ayei, asikera bezela, beren idazkiak argitaratzea.

Oso gutxi zan, lenago izkuntzaren eliztiari buruz egindakoa, ta ura ere, nolabait, erderaz geyegi kutsutua. Beste bide bat artu zuten Eneko ta bere lagunak, eta jatoŕagotzat zeukaten egikera zerabilten beren lanean. Beraz, asteko lenengo bide bezela oso ongi iruditu zitzayon Mikel'i donostiaŕek aurkezten zutena.

Ba-zeukan Xabier'ek igoŕitako lanak oso egokitzat artzeko erakusten zuena; euzkal-edestiaren laburgo baten antzera agertzen zan guzia, gaŕantzi aundiko egipen guziak ala geyenak bederen labuŕ xamaŕ aipatzean. Baña bereziak ziran edespenetan, ondorioa bera ateratzen zan, ots, euzkaldunak betidanik eta izari aundian beren eŕuz, erabīlitako jokera txaŕa, abeŕiaren egokera deitoragaŕiaren zioa zala garbi nabaritzen, agian, ororen abeŕi-zentzunik gabe ta bakoitza bere aldetik ibiltzea, anaya zeukan auzokoari buruz axol eta adeitasunik izateke, anayen arteko buŕukan sartzen etziranean edo batzuetan anai baten aurkako gudatu zuen atzeŕitaŕari beren laguntza ematean sutsu jokatu zutenean; euzkal-zentzunez anai guziak alkaŕekin elkargo sendo ta egokia egin ordez.

Oso ondo aurkeztuta zegoen ura Mikel'en ustez, beren xedeetarako egoki-egokia, ta oŕela adierazi zion Xabier'i lenbailen argitara-

tzeko eskatzen. Artaz, Eneko'ren asmoaz bezela, zalantzik ez Mikel'en baitan.

Sabin'ek esondatutakoaz, asieran ongi ere onartuáren, ba-zegoen astiroago begiratzeko gaya, arek onela azalduta: Beren asmoak auŕera zijoazen; etzegoen Euzkaleŕi guzian, alderdikideren bat etzeukan bazteŕik eta dagoaneko euzkaldun geyenak abertzaletu zegozela bete-betean bayeztu liteke. «Eŕi-Deya» asterokoa biurtuta zeukaten eta arpidedun asko izanik berez bizi al-izateko naikoa ateratzen zuen oyengandik; eta ori lengo bayetza egiztatzeko bide argia zan.

Udala batzuetan, ez gutxitan, abertzaleak sartzea lortu zuten, ortarako egiñak izan ziran auteskundeen bidez. Mail goragoko aldundietan ere beste ainbeste egiteko asmoa, laisteŕ apika, auŕera eramateko zeukaten.

Beste aldetik, etsayak, egoeŕitaŕ eta beren lagunak, aurka jotzeko alegiñetan ari ziran gero ta gogoŕago; ta aldizkaria amaika bideŕ salatua zeukaten epayen auŕean, noski ixil-arazteko xede biziaz.

Guzi ori egipenen bilduma bezela aurkezten zuen Sabin'ek, beste asmo baten ataria lez jartzeko; ta asmo ori bere lagunai erakusten zien, beren iritzia eskatzen, naiz asmo berari buruz naiz egipena biurtzeko aal eta bideak begiratzean ere. Onela ageŕerazten zuen Sabin'ek bere asmo ura:

—Ba-goaz auŕera alkaŕekin autatu genuen bidean barna. Onezkero uste genuen baño askoz geyago auŕeratu gera. Aldi labuŕean, egitan, gure asmo nagusia gure Eŕi'ko bazteŕ guzietaraño elerazi dugu; eztakit obe izango ez ote litzaken, asmo oŕen zai edo zegoelako, Eŕi'ak berak, onartzean, oso bereganatu duelako, zabaltzearen egiazko egīlea bera izan dala esatea. Dana dala, egipena oŕ dago zutik eta ibiltzen. Zer dagokigu ori dala-ta geyago egitea? Ene ustez jaŕaipenean alik eta geyen guziz iraungaŕi egitea. Nola?; noski, beraren alde eten gabe jokatzean; ortaz laurok batera gatozela ziuŕ nago; baña ori esatea, gauzak oso gainditik begiratzea izan diteke bakaŕik, eta oŕengatik, beaŕ-beaŕezkoena bezela, gure asmoetarako gaztedia irabaztea iruditzen zait ezinbestekoa, ta ortarako bere goizeko izaŕaren antzekoa izan dedin alegindu beaŕ-izango dugu.

—Orain, eta noiz-nai, gaztediaren jokera uŕengorako oso egingaŕia izan diteke; belaunaldi beŕiak lengoen bidezko jaŕaipenean ibīliz, bizia bere bidetik auŕeruntz joango zaigu oi bezela; baña lengo arauetatik at jokatzen badu, Eŕi'aren bizia etendurik gera diteke,

auŕerako beste bide ezezagunetik nola abia diteken kordoka ta bide beŕi ortan zer elduko ote zayon jakin eziñean urduri.

—Ene ustez gaztediari bide egokiak aurkeztea txit beaŕa zaigu, gure asmoak gogoz onaŕ ditzan eta berarenak bezela onartzean. Zer egin genezake xede ortaz? Naiz eta oso ona izan, ezin uste dezakegu egipen bat bakaŕik naikoa izango zaigula; gaurkotz egokiena izan ditekena ba-liteke biarkotz indaŕik gabe geratzea; beraz, aldi ta aldea nolakoak izan, bakoitzean ikusteko egintza egokiena zein izan diteken.

—Begira dezagun, otian, gaurko ontan zer izango ote litzaken ona. Ene ustez aitaturik utzi dudan gure elbururako, gazte-biltze aundia antola genezake, gazteai bereziki eskeintzean baña ororentzako deya egiten, bertara joateko bidea guzientzat zabaldurik izatean. Eta lenengoz gaztediarentzat izanez, mendi batean egitea, apika, onena. Zer irudituko litzaizueke datoŕen iraīlaren jai batean Aralar mendian egitea?; mendi ortara alde batzuetatik igo diteke, ta oŕengatik ain zuzen alde guzietako lagunak, bakoitzak bere egokitasunezko bidea aukeratzen, eŕazago erdu litezke.

—Ori leku ta aldiari buruz; baña aŕeta aundienaz begiratzekoa, an goyan bildu ezkero, gure asmoekiko nola egokienik itzegin genezaken ikustea da. Nire iduriko guk, laurok, izan beaŕ dugu an izlari, bakoitzak gai bat arturik eta gai oŕi buruz, unkigaŕiena izan diteken eraz ageŕeraztean, gayaren abestia bezela ororí ageŕ dakioken tajuz aurkezturik.

—Asmoa ongi onartzen badidazute, ik, Mikel, iri bereziki zegokianez, luŕa ta berarenganako maitasuna aŕ itzakek; Eneko'k euzkera; Xabier'ek bizia ta biziaren bitartez egiten dukan edestia; ta nik azkatasuna edo abeŕia artuko nitikek niretzat.

—Otoi, ongi ta sakon gogoetatu ezazute guzti au; lenengoz asmoa onargaŕia ote dan ikusteko, ta gero bilkurarako esondatzen dizuedan era; ta, esan beaŕik ez, buruak emango dizuen edozein aldaketa guztiz gogoan-gogora artuko dizuet. Baña iraīlerako bi īlabete ozta-ozta geratzen dira ta egokia izango zaigu zuen iritziak ezagutzea, bein-betiko egitaraua gure erakundearen agintariai aurkezteko ta egin beaŕ-izango dan guzia garaiz antolatzeko; jakiña, guzien aldetik asmoa onartu ezkero.

Oso bidezkoa, ta beaŕa ere, iruditu zitzayon Mikel'i Sabin'en asmoa; alaz ere esondatutako bilkuran erabiltzeko gayai buruz nola-

bait inkimanka geratu zan; eta arazoari mīla birunda emanda bi egun joan zitzaizkion aŕapaladan.

Baña eziña zitzayon Sabin'i erantzuteko geyago luzatzea, ta arek burutara emandakoa alik eta geyen ustiatzeko xedeaz, ari, Xabier eta Eneko'ri idatzi zien bere ustea gayekiko nolabait zedaŕitzen; egitan arek idarokitakoa ontzat artzean, zabal eta sakondu nai zuen Mikel'ek; onela:

Berak oso ontzat artzen zuen luŕaz mintzatzea, baña bide batez gentzaz ere, gai biak alkartzeko, gañera, oso egokiak ziralarik.

Eneko'k, euzkera ta euzkal-gogoaz itzegin lezake, bi gai oyen artean aŕeman estua zegoelako.

Xabier'ek, euzkal-bizia ta euzkal-edestiaz, aurkeztua zegoen bezela; baña egiazko bizia nola izan beaŕ zan esanez eta len okeŕ egindako edestia zuzentzeko beaŕa aipatuz.

Eta Sabin'ek, azkatasun *edo* abeŕiaz baño obeto, azkatasun *eta* abeŕiaz egitea esondatu zion Mikel'ek ari; asmoak alkaŕenganako betegaŕiak ziralako, ta gañera beste asmo guziak ongi alkartzeko oso egokiak.

Oŕela, bakoitzak alkaŕenganako egokituak zegozen bi gai erabil litzake, ta bilkurarako egitaraua zabalago ta sakonago osotu liteke. Esatekorik ez, beste aldetik, bai, beaŕa izateko guziek sutsu-sutsuki ari-izatea, gaztediari batez ere buru ta biotzean iŕikimaŕaka egokiro egiteko.

Bide batez, Gasteiz'ko idazkariari ere idatzi zion, bīleraren asmoa burukideek ontzat artu ezkero, Araba'ko bazteŕ guzietara zabaltzeko ta bertara joateko gogoa suztatzeko, arabaŕak eŕuz erdu zitezen.

Bost egun baŕu guzien erantzuna jaso zuen Mikel'ek, bere asmoak zearo ontzat artzen eta eginkizunerako beaŕak ziran aintzin-bideak egiten asi zituztela esaten. Sabin'ek, gañera, «Eŕi-Deya» berezi bat aterako zala jakin-erazi zion, bilkuraren beaŕa ta xedea iragartzeko ta bere gaŕantzia be goraipatzeko.

Eta eldu zan eguna..., ta bera gozatzeko iŕikitzen euzkalduna. Ongi antolaturik, iñun ortarako zabarkeririk. Ororen betekizuna, an bat egiñik zaŕ eta gaztetasuna. Guziak alkaŕen leyan, gizakumeak, ainitz, bildurik mendian. Naiz Uarte-Arakil, naiz Madoz, Baraibaŕ eta Lekunbeŕi'tik, mendi-aldapa guziak gizakiz beterik, goruntz xede berean igoten leyaturik.

Goiz-goizetik mendigoizaleak, eldu nai zutelarik lenengoak; eta ayen atzetik, neska, emakume ta gizonak. Taldeka zijoazen geyenak, ikuŕiñak buru zitzaizkienak, bai ta iragartzen ondo beren eŕien izenak.

Ura zan, ura, goratzeko bilkura! Yoran biziena guziek ageŕerazten zutena; asmo baten atzetik ainbeste lagun alkarturik; bildu al ziran Euzkadi'n iñoiz euzkaldunak berdin? Berpiztu al zan, azkenez, Eŕia, biziari eusteko aurkitzean bide argia? Esnatu al zan, ondorioaz, andik abiatzeko ta jaŕaitzeko kemenaz? Betekizun nagusia ikusi ta nabaritu, enurarik gabe ta garbia?

Oŕela zala zirudien, dei bati erantzuten, bazteŕ guzietatik eŕuz erduten, amets berberak euzkaldun geyenak biltzen. Bereizitasunik egin gabe, bizkaitaŕen artean arabaŕak ororen alkartasunean bete; orobat ayekin gipuzkoaŕ eta napartaŕak ere; bai ta, berebat eta bereziki gañera, Laburdi, Benapaŕoa ta Zuberoa'tik eldutako talde edeŕa; an etzegoen iñundik euzkaldunengandik tarterik. Oro bat egiñik, Eŕi osoa zan, maitasunean, anditasunean, ekinburu batean zuzenduta, siñismen batez batuta, berbera zan yoranean biotz-biotzeko alegiñetan, bete-betean.

Mīlaka ta mīlaka lagun, euzkal-bazteŕ guzietatik erduta siñestun, alkaŕengan euzkal-anaya aurkitzean bioztun; ozte artan guzia zan gentza legun. Alaz ere jo-muga berberaruntz ekiteko, guztiak gerturik beti jotzeko auŕeruntz.

Meza bat eman zan bilkuraren asieran eta aots batez amaitzean gogotik oro abestean: «Mikel, Mikel, Mikel gurea, zaindu, zaindu Euzkaleŕia»; gaīuŕ artan aspaldidanik otoitzen dan eran; Mikel Deun' ari eskari kartsuan.

Eta an agertu ziran, mintzatzeko gerturik zegoen itz-leku goi ta berezian, buruzagi batzuk eta gure lau zinkideak ayen artean; entzungaīu egokiak banaturik zegozela, guziak bilduta agertzen ziran landan.

Oarpidez emandako adi-ots batzuen atzetik, ororen erakundearen burua asi zan mintzatzen gogotik:

—Aguŕ euzkaldunok!, aguŕ abertzaleok!, aguŕ Euzkadi-alde guzietatik ona erdu zeraten anayok! Bai, euzkaldun, abertzale ta anai, orixe bera baikera emen alkarturik gagozen guziok, pozik, sutsu ta alai.

—Ondi dakizute, noski, zertarako etoŕi geran ona bereziki. Guzion artean betetzen dugun gure Eŕia, gartsuki ageŕ dediīa ororena dugunez abeŕia; bipilki gerturik dagoela esateko, kemenez eusteko bere bizia; ta ortarako zin-egitean, aleginduko duela almenez, buruz, biotzez betetzeko ekintzetan, egitarau batez oro argi ta garbia.

—Eztago zalantzik, ez, nigan lanegiteko gogoaz egun guziok bat gerala bero-bero geron baitan. Ortan biotza da jartzeko egokiena benetan, eta biotza izan beaŕ, ekintza guziai su ta gaŕ ematean, egiteko dan guziaren eraginkoŕ beaŕena, egokiena be izateko bidean.

—Ezin, ala ere, biotzari lan guzia eman; laguna izan beaŕ zayo burua ibiltzeko diran uŕatsetan. Gure betekizunean, berdin beste edozeñetan, biotz eta buru beti ta ertsiki alkartasunean.

—Biotzarena beterik daukagula uste dut zearo; zuek emen ikusteak ori egiztatzen baitigu argiro; zerk ekaŕi ote zaituzte oneraño biotza izan ezpada, gero? Buruarena geratzen zaigu beraz ikusteko aboro; ibiltzeko, yarduteko, norabideak beaŕ ditugu oro; argi, zuzen, ziurtasunaz auŕeratzeko, ta ez iñoiz zoro.

—Nun ikusiko ditugu ala nork emango dizkigu norabide egokiakaz ibiltzeko?, zeintzuk on ote zaizkigu?

—Edonor izan diteke, alegia, oyek emateko gai, ta edonori entzun dizayokegu gogoz zer-nai; gura-izango duenak aukera dezala ortarako egokiena garai; bere eskubidea izango du ori, ez ukan iñork ezpai; ta alkaŕi entzuteko ororengan eginbide ertsi be bai.

—Egun eta une ontan, alaz ere, ori egiteko egokienak bezela, auxe gure xede: gure ekintza guziaren asiera eman zutenengana jotze, beren iritzi ta laguntasunaren eske; ta beren bayetza lorturik, emen dauzkazute, guzioi mintzatzeko erne, ta beren eginbeaŕa be, alik eta ondoenik uzteko bete. Onartzen al duzute ori, ote?

—Bai, bai! —guziek, eta txaloka gogoŕ.

—Buru zanak: Ongi bada ta ona emen asteko Ezeolaza'taŕ Mikel jauna, arabaŕa ta nekazaria.

—Mikel'ek: Barne-barnetik ene aguŕik beroena guzioi, pozik! Ageri-erazi nai dizuet, uŕengo, biotzeko atsegin aundia baŕengo! Giza-tirlu au betetzen duzutenengan, egiz, gure Eŕia berpizturik ikusteko baita benetan. Eta ongi ezaguna dan zin-egitean alkartu giñanok gure ametsa dugu emen egiña, bete-betean gañera begiratzen emen zagozenok.

—Piztu da, bai, abeŕia, aurkitu du bere argia, ta bein bete, bein betiko, gogotik artu du bere bide beŕia; elburu egokiena atemanik, bere izaera zabaldu ta indartzea dalarik. Piztu beraz, eta bide ortan abiatua dugu Eŕia yoranaz, norabidea beaŕena ta egokiena zayolako, ortan barna jaŕaitzea izan beaŕ guziontzat ezinbesteko.

—Orixe, itz gutxitan Eŕi'arentzat eta gu guziontzat eramateko jo-muga orokaŕa ororentzat; azkatasunaz eltzeko bakaŕik izango zaiguna egingaŕitzat. Azkatasuneruntz jo-egin beaŕ dugu guziok oŕengatik almen eta kemen guzia erabiltzen gogotik. Eta gurea dan bidean barna auŕeratzeko, zeatzago ditugu uŕats egokiak ikusteko.

—Ene aldetik uŕats oyetako bi, nire buruan diran bezela eskierki, zuen adimen eta burubide auŕean nai ditut ezaŕi: Luŕa ta Gentza izenaz izaki.

—Luŕa!, biotz-biotzetik maite beaŕ dugun euzko-luŕa! Zer ote da ala zer ez ote da euzko-luŕa guretzat? Zer ikusi beaŕ, luŕ ontan, on-egoki izateko Eŕi'arentzat? Guzia, enurarik gabe, niretzat. Luŕ onen gañean bizi da Eŕia, bizian barna igarotzean. Noizdanik? Eta nork esan?; apika betidanik eta beti bertan jaŕaitzean.

—Emen, luŕ ontan jayo al zan gure Eŕia, ala beste nunbaitetik eldu zan ona bideetan zeaŕ ibiīia? Eztut uste oso eŕaza izango dala ortaz ikusteko egia. Baña bost ajola eusteko ta auŕera eramateko bizia.

—Gaur eta jakin eziña dan noiztik, emen gure-gurea dan luŕean bizi da Euzkaleŕia. Luŕ onen gañean egon eta ari, ongi, naiz eta luŕa bezela oso aberatsa ez dala nabari; bertan aurkitu du Eŕi'ak bizi-izateko janari, bertan gogotsu ematen gogoari, alegiñetan beti ari ta ari.

—Ba-dakigu, luŕetik datoŕ gizona, euzko-luŕetik noski euzkalduna; luŕari eskeŕ dago euzko-gorputza azkuŕiz biziduna; amaika etekin bertatik ateratzen lanik egiten gau ta eguna. Luŕ onen gañean euzkal-sendia zabaltzean, ekin eta yardutean; belaunez-belaun len, orain eta betierean. Luŕean atseden artzeko il ondoan.

—Nola eztugu maite beaŕ euzkaldunok gure luŕa! Bere zabalean toki guzietako izenak nabari-erazten baitituzte bere mami ta ezuŕa. Bertan barna gure asabak eŕuz erein eta ebakitako eguŕa. Gizona luŕaren seme, gizona luŕaren yagole, luŕetik sortutako ale, luŕerako bidezkoenik gale. Euzko-luŕetik egin badu alde euzko-gizona iltzera doa berarena dan gunaren gabe.

—Oŕengatik luŕ ontan bertan izango zaigu beaŕa jaŕaitzeko bizi-

-izatean; emen bakaŕik yardun al-izango du gure Eŕi'ak, nai ta nai ez, noraezean. Alakotz, guzioi dagokigu ementxe bizi-izateko gogoŕenik jokatu alegiñean; beti ta beti gure abeŕiak iraun dezan.

—Baña Eŕi'aren bizi ori, ororena izango dugun bizi, gentza-biziera izateko bereziki. Oŕa biotz-biotzetik ere maite beaŕ dugun beste asmaki. Biotz eta buruaren jabe izanda gizona, nola eztu ontzat artu beaŕ ori bizi-izateko ona? Alkaŕenganako zabal dedin maitasuna, orori opaesteko zoriona. Ba-dakit, jakin ere, batzuetan buŕuka egin beaŕ duela gizasemeak, ezinbesteko eltzen zayonean mugona; oŕa gaurko ontan gure beaŕa, latz eta sakona.

—Orixe gure zoritxaŕa garai ontan; baitezpadakoa zaigu su ta gaŕa piztu besterik eziñean. Gentza maite, gentzaren alde ekin nai, naiz eta sartu beaŕ buŕukan. Eztago, ziñez, iñola ere ez eŕurik gugan, gure eskubide ta eginbide baitira ortan sarturik jokatzean; eta oŕela yardun beaŕ gogotik egiñalean. Baña beti, bein eta beŕiz, gentzarako yoranean.

—Eskeiñi dizayegun gure arerioai gentza, buŕukan sarturik ariaŕen aurkeztu beti gure eskeintza. Izan dezagun beti gure artean, lenengoz eta eten gabe anaitasunezko ereintza, jasotzeko beti ere gerontzako uzta edeŕa, oŕela emateko gerturik okuntza.

—Maite dezagun luŕa, gure luŕa!; maite dezagun beti gentza, euzkal-gentza! Bizi gaitezen bizian barna gure luŕean, Eŕi'aren luŕ ontan! Bizi gaitezen beti gentzan, gizonen gentzan! Izan bedi beti ere gure eginkizuna gizadiarentzako maitasuna!!

Onela amaitu zuen, sutsuki, Mikel'ek bere itzaldia, bere barneko yoran guzia itzen bidez aurtikia, guzien aldetik txalo ta txaloka eutsia.

—Buru zanak: Egokiak benetan Ezeolaza adiskidearen itzak, zerok oro oŕen beroki onartu dituzutenak. Eta emen duzute orain bigaŕen izlaria, Galparsoro'taŕ Eneko, gipuzkoaŕa, gizon argia.

—Eneko'k: Aguŕ kartsuenak ororentzat neronek ere dagizkizuet, atsegiña dalarik, noski, niretzat.

—Euzkal-gogoaz itzegin nai dizuet orain, eta bere eusle bakaŕik izan diteken euzkeraz be, auxe dalarik onen bikain.

—Gai ta gogoaz egiña dugu gizona, lenengoari bigaŕenak bizia damoyona; edeŕa da benetan gure Eŕi'aren gaya, miĺa bideŕ edeŕago gogoa, alegia; ta gure gogo onek eutsi ta indartu beaŕ du, ezinbestez, Eŕi-soña guzia; bien artean osotzeko abeŕiaren bizia.

—Oŕengatik, guziok geronena egin beaŕ dugu beti beaŕezkoena zaigun gogo ori, Eŕi'arena, bereziki. Naiz gizon naiz Eŕi, gurean, oŕela gaitezke bakaŕik egiazki bizi. Baitezpadako guziontzat Eŕi'aren gogoa ulertu, maite ta onartu, guretzat, ororentzat. Eta gizonarentzat bezela Eŕi'ari buruz ere gogoa erabiĺi beaŕ nagusitzat oŕela. Izan bedi, beraz, gure artean euzkal-gogoa gizon eta Eŕi'arentzako eusle yaukal osoa.

—Gogo ori zaintzea dagokigu orori, biotz osoz eta zintzoki; zaindu ta gure bazteŕetan ere zabaldu, goraki aldaŕikatu ta gartsuki indartu; oŕa guziontzat eginbide, oŕela onarturik egitan izateko alkaŕenganako aberkide.

—Nola baña gogo ori zaindu, nola egokiro edatu? Bide bakaŕa dugu ortarako beaŕa; ezin ori gabe iñun piztu al-izateko gaŕa; bera da bidea, bera bakaŕik yagoelea, ezin iñoiz aurkitu obea. Orixe dugu euzkera!

—Ateman dezagun argi, begira ere guziok garbi. Edozein Eŕi'an eta orobat gurean, Eŕi-gogoa ta Eŕi-mintzoa alkaŕenganako dirala betegaŕi osoa; ba-liteke noizpait bigaŕenaren sortzaiĺea izan zala lenengoa; oŕa argi eztagoen arazoa. Baña bein izkuntza yardutean asi ta geroa, berarena gogoari eusteko indaŕa bakaŕ eta naikoa.

—Oŕela dalarik eta ortaz ezin iñun zalantzik, euzkera dugu ben-benetan beaŕik eta gure gogoari eusteko bakaŕik. Euzkera, beraz, beste izkuntza guziak lez, ezta gizonak alkaŕi mintzatzeko soiĺik bidetzat aŕ dezakeguna, ziñez. Ba-ditu izkuntzak, ba-ditu euzkerak emen aundiagoak diran beste eginkizun eta almen: Eŕi'aren gogoari eustea, osorik eta garden.

—Aŕ dezagun guziok egia dan asmo au, ororentzat izan dedin egiazki egitarau. Mendeetan barna etzuten ori gure arbasoek ikusi, ta oŕengatik edo jokatu ain sorayoki, betetzen gaur siñiskaitza dan zabarkeri. Urteetan barna, bazteŕetik bazteŕ, izkuntza galtzean guganaño eldu zaigu iltzeŕ; eta galtze oŕen atzetik geratzeko gogoa bereber, bein eta aleun bideŕ.

—Eta gure Eŕia ezin bere gogo gabe bizi; ezin ere oŕengatik ain zuzen, gogoaren euslea dan euzkera utzi. Ikus eta ateman dezagun guziok ori argi; ta jo dezagun ondorioz euzkeraz eta euzkeraren alde ekiteko gartsuki. Jaŕi dizayogun orok geure buruari ortarako eginbidea oso ta ertsiki, orixe baita gure Eŕi'aren bizirako bide onena, garbi.

—Sakondu beaŕ guzion aldetik euzkera zaigun altxoŕa; gogo-lantzearen gayetan erabiĭi gabe geratzen ari da elkoŕa; baña ba-dauka bere baitan zitu edeŕak emateko zozko gotoŕa; ezinbestekoa zaigu guzioi gure alegin guziaz egiteko lan gogoŕa; ta ekintza ortan iñori ziĭegi al-izan geratzeko soŕ-goŕa.

—Noraño el diteke gure izkuntza ongi ta sakon erabiltzean ariz bakoitza?; oŕa emateko eziña zaigun erantzun zoŕotza. Baña bidezkoa da ustea, bere oñaŕietan izanik aberastasun aundiaren jabea, sumatu be bederen, ordea, ari-arian bere almena beaŕ dan bezela erabiltzea, guziok ontzat artzen badugu bide ortan jokatzea, eda ditekela lortzeko iñork igaŕi ezin dezaken garai goituago ta obea.

—Oartu auxe orain guziok, ongienik atematen: erdera sartu digute baŕuraño indarkeria erabiltzen; asi lenengo ikasketan eta goiko ikasketaraño zabaltzen, barne-barneraño digute sartzen; eta oŕengatik gure gogayetarako, geurez erderaz ari gera oldozten. Ortxe argi ikusteko noraño jopu gaituzten; eta menperatze ortatik ateratzeko guziok yardun beaŕ alegintzen. Oŕelaxe egunero ta geron baitan, ain zuzen, eten gabe eraman beaŕ dugun guda gogoŕen, gure gogoa gero ta azkeago izan dedin jokatzen.

—Ortxe gure gudaren azpegi gaŕantzitsuena, bakoitza ta guziontzat ezinbesteko duguna, orixe jaŕaitzeko bide beaŕena; ez dediĭa iñor geratu bide ori ibiĭi gabe, baldin bada, izan ere, zaĭena; tai gabe gogoratzen abeŕiarentzat dala ezinbestekoena. Orixe bai egunero betetzekoa zaigun lan egokiena. Arazoa argi ikusi ondoren, nor geratuko da abertzale-zuŕian bidetik at, ertzean jolasten?; nor soŕ-goŕ Eŕi'aren beaŕean burua makurtzen, besoak utzirik jausten?

—Ernai guziok! Gogo-eman dizayogun orok! Eutsi euzkerari zaŕ eta gazteok! Zaindu aiko-maikorik gabe euzkal-gogo-lantzea, lagunok! Indartu geron baitan euzkal-bizia sendo, aberkideok!

Itz oyek Eneko'ri azkenak izan zitzaizkiolarik, eta entzule-saldoa bero-berotuta zegoelarik, txalotua izan zan izlaria gogotik, ezin izateko, alegia, besterik.

—Guzia zuzentzen zuenak: Auxe giro edeŕa gaurko gurea, ezin usteko iñoiz gertatuko litzaken obea. Goazen auŕera, entzun eta gureganatzeko irugaŕen zinkidearen jokera. Napartaŕa dan Etxeguren'daŕ Xabier'engan orain erabiltzeko mintzoera.

—Xabier'ek: Biotz-biotzeko aberkide zaituztedan guzioi, ene barneko aguŕik sutsuena ta leyakoi!

—Euzkal-bizia dut erabiltzeko gaya, edestian barna nola izan dudan ikusia, nola eldu zaigun gaur egoteko onen jausia; bizi oŕen bilbakuntza ta aldakuntzak eotu digutelarik gure edestia. Senide ditugu, beraz, eta guztiz alkarganaturik euzkal-edestia ta euzkal-bizia.

—Edestian sartu baño lenago ba-zegoan euzkal-bizia gure luŕ ontan berean eta ez asagoan. Gure toki-izenak ementxe dauzkagu, ongienik jaŕita, antziña-antziñatik oro izendatzen ongi ta egokiro; oŕa egiztabidea, izen oyek jaŕi zituztenak gure asabak izan zirala atemateko ta orixe dagokigu bayeztea; bai ta ementxe lenengo biztanleak euzkaldunak ukan genituela ustea. Ta ordudanik, iñork ezin esan dezakela noizdanik, eta egun arte, emen bertan izan dugu Euzkal-Eŕia eten gabe jaŕaitzean bizirik. Ainbeste etsayen artean, ainbeste gogoŕenetako erasoak jasatzean, emen dugu gaur oindiño gure Eŕia, bere biziari eustean, eta ongi nabaritu beaŕ dugunez, auŕeruntz beti jaŕaitzeko nayean.

—Naimen ori adierazteko alkartu gera egun emen, eta gure biĭera ontatik ororen baitan naimena bera indartuago txertatuta eraman beaŕ egokienen, gureganatuago ere gordetzeko ta elikatzeko abeŕiarenganako siñismen, bizia ta bere edestia tai gabe ta beaŕa danez bilbatzen.

—Ez alaz ere buru ta begiak itxuturik, ez edozein eraz gerokoa lantzean ibiĭirik; buruz eta biotzez bai, baña euzkal-sena itxarturik, orixe baldintza, oŕela beaŕik. Txikikerietan oyertu bagarik, elburu nagusiruntz beti almen eta naimena tinkoturik; orixe ezinbesteko biderik.

—Ortarako gure Eŕi'aren edestia ezagutzea beaŕenezko; edesti ori nola eratoŕi zaigun jakitea dugu bidezko, mendeetan barna ongi ikusteko zer izan dugun zuzen eta zer okeŕezko; beŕiz okeŕetan ez jausteko nola jokatu beaŕ dugun oaŕezko; ardura aundienaz, buruz eta adimendunez jardutea, oŕa gure jokabide beaŕa nai ta nayezko.

—Okeŕ eta okeŕ aundiak izan baitira euzkal-biziaren zeaŕ; erki batekoak anayak ziran beste erkietakoak aintzakotzat ez onaŕ; askotan, aitzitik, alkaŕen aurka deitoragaŕiro jokatu beaŕ; edo ororen etsayak itxutuki laguntzen, anayen kalterako uzteko iltzeaŕ; artu bailuten zoroki edenezko bedaŕ.

—Gure Eŕi'aren bizi guziko edestia, egiña dago orain arte, egia; baña egitekoa dugu gerorako alegia, gure egunetan betetzen lan egokia, ta yarduten beti jokera ongi erabiĭia, bide zuzena autatzen argi ta

garbia. Gure eskuetan dagoz beraz, eta egon beaŕ, abeŕiaren edesti ta bizia.

—Alakotz, aundienetakoa izan beaŕ gure yardespena; egiazko abertzaleak baldin bagera eginbideari emateko gure erantzupena; lana egiteko dugu aundi ta gogoŕa, bai ta ere edeŕena; bertan buru ta biotza jartzeko erabiltzen oso almena; ortan onartzeko eginbide ertsiena; eginbeaŕa izateko norberarena ta ororena.

—Maite dezagun orok euzkal-bizia bereziki; indaŕ dezagun egunero bizi ori gotorki; zabaldurik izan dedin gure baztеŕetan leyatsuki; eustean beti guzion aldetik kementsuki; geron baitan lenengoz eta nagusiro sutsuki; inguruan edatzeko ere gerturik egotean zintzoki; neuŕi aundienean azkorturik, ukan dezagun lan guzia burutzen gogo-beroki.

—Maite ere, maite dezagun euzkal-edestia, bera baita gure biziaren ageŕaldia; bertan ikus baitezakegu bizi oŕen betetasun argia; bai ta egindako okeŕak be, zoritxaŕez gure Eŕia; guziagatik izateko guretzat gaŕantzi aundiko ikastaldia; ta gaurtik eta gerorako edestia nola egin beaŕ-izango dugun jaŕaitzeko bide garbia.

—Euzkal-bizia ta euzkal-edestia maitatzean, gure Eŕia izango da guziok sakon maitatzeko era egokienean; eta Eŕia ongi maitatuz, gogoz ari-izango gera beti adoretsu edozein lanean; elduko zaigula, ziuŕ, beaŕa dan zitua bere egunean; abeŕiaren zorionerako ta gure poztasunerako gure lan guzien ondoan.

—Oŕa bada, gure asmo ta xedeak argi; oŕa oyen alde euzkal-edesti!, oŕa Euzkal-Eŕi!, oŕa euzkal-bizi!, oŕa Euzkadi!

Bizi-bizirik eta goraka erantzun zioten Xabier'i mendizale guzti ayek txaloka, gogoŕ eta ugari; luzaroan gañera orok eta isituki; iñoiz amaituko etzutelakoan egoteko laŕi-laŕi. Baña amai gabekorik Ludi'an barna ezer eztalarik, bero-aldi ura ere noizpait ibitu zan azkenik; eta ororen zuzendariak bearealaxe sutsuenik:

—Lan eta neke guziak onartzeko izango lirake, emen eta unealdi edeŕ auetan gozatzen duguna ezerengatik uzteke; orok bat gagozela ikusten, nor biotz unkiturik gabe egon liteke?, ta nork atsegin aundiagorik iñoiz asma lezake? Goazen, beraz, auŕera, geldirik geratzeke, ta emen dugu Artetxe'taŕ Sabin bere ekiñaldiari asi ta betetzeko azke.

—Sabin'ek: Ene gogaide ta adiskide, abeŕiarengan guziok zaituztedala senide! Nire lenengo itzetan doakizuen aguŕ kartsuenean bete, biotz osoa nai dut guzioi eskeiñi, orixe nere barne-barneko xede!

—Auxe guzion artean osotzen dugun egiazko anaitasuna!; nola besterik izan, guziok abeŕia bera dugularik, ain ona!; ama dugu, bai, abeŕia, ta ain zuzen oŕengatik abertzaleak anai izateko zoriona! Orixe geron baitan beti geldiro oldozteko egi sakona!

—Luŕa ta gentza, euzkal-gogo ta izkuntza, edesti ta euzkal-bizitza; oŕa nire auŕetik mintzatu diran lagunek egin digutela beren asmoen eskeintza; zuek egokienik onartu duzutela esan beaŕ, izanik ori ororentzako aintza. Beyondizaizuela, beyondizaigula guzioi, egokienik emen baitagigu abeŕiarentzako ereintza!

—Abeŕiaren alde jokatzeko ona etoŕi geralako; guziok abeŕia kartsuki ta maitasunez daramagulako; biotz-erdian maitasaŕez opa-mai edeŕena opaesten diogulako; abeŕiaren biziari ongienik eustea ezinbestekoa zaigulako; bere onura osorako gure almen guziak jokuan ipiñi nai dugulako.

—Eztut uste gure egun itun auek eldu arte, euzkaldunen artean iñoiz, ororen abeŕiaren ustea izan dalarik, ez aitortu ez eta oartu ere, itsua izanik gure gizarte; oŕengatik edo euzkaldunak sakabanaturik beti; alkartzeko euki gabe abeŕiaren bitarte. Itsutasun aŕigaŕia euzkaldunena, mendeetan barna oŕela bizi-izateko, beren anaitasuna ez ikusteko, jasaten oŕen zabarte.

—Gaurko ontan ulertzeko zaĺa duguna, mendez-mende eguneroko egokera ituna. Lotan edo egon dira betidanik gure auŕekoak, oŕa gure aldi iĺuna; gaur Eŕia itxartu dala begiratzen dugu, argi egin zayolarik edeŕ eta biguna; ta argitasun ortara jo-egiten duela gogoz eta indarduna. Bi epe aundietan ikusteko, beraz, muga batek erdibitzen duna; euzkaldunak ukan gabeko abeŕiaren zentzuna; orixe lenengoa gaur oŕen nabaria zaiguna; bigaŕena zentzun zeatzez gugan piztu danetik zabaltzen doakiguna.

—Egiz beaŕ-beaŕa zaigu zentzun ontan sakontzea; guziok euzkaldunak geranez, ezinbestekoa noski gu geu oro batutzea; Eŕi bezela edozer egitekoan, baña Eŕi bezela be, batik bat, bizi-izatea; len, mendeetan barna, zoritxaŕez izan zan gure auŕekoan sakabanatzea; gaur egun argi dakusgu Eŕi'arentzat zetoŕen eriotzea.

—Beraz, bakoitza bere aldetik ibiltzea, enurarik ez, Eŕi'arentzako kaltegaŕi; bidea aldatze ta zuzentzea da baitezpadakoa ta zuzpergaŕi; itz gutxitan guretzat baŕeyaturik ala alkaŕen aurka jokatzea, iltzeko bidea zaigu eramangaŕi; ta Eŕi bezela bizi nai baldin badugu, alkartzeko zentzuna geron baitan tinkoturik euki beaŕ egingaŕi.

—Nola, baña, guziok alkaŕ bat egin?, nola bereziki guzion barnea, guzion gogoa, zentzun berean ari-izateko berdin?, nola euzkaldunok bat noiz-nai ta edozertarako asmo gotoŕa izan dedin? Ene iduriko auxe bide argi ta ausaz bakaŕa izateko, beti yardun dezagun alkaŕekin: abertzaletasuna, egiazko abeŕiaren zentzuna, biotz-biotzean indaŕ osoz eukitzeko ta buruzkin.

—Orixe bidea: abeŕia, abertzaletasuna; ororen ama dugu Euzkaleŕia dan gure abeŕia, oŕa egiazko zentzuna. Izan gaitezen guziok eta bakoitza ama oŕen seme leyal eta bioztuna; maite dezagun seme-zuŕian ama dan abeŕia, berarentzat opaetsita osorik gure zaletasuna; gertu dezagun geron burua beraren alde alegin aundienak egiteko, xede zintzo batek ukan dezaken betetasuna.

—Abeŕia izan beaŕ beraz, gure arteko lokaŕia; zin-egin beaŕ diogu berari, norbera seme ona izateko buru-ukazale sutsugaŕia; bera izan dedin bere aldetik guziontzako euskaŕia; ororen elburu nagusia izan dediĩa Euzkadi dugun abeŕia; betidanik gure-gurea izan dan Euzkal-Eŕia.

—Bizi-eragin beaŕ dugu abeŕia bere bizi bedegaŕaz, ori gure eginbide ertsia, bete egin beaŕ duguna ezinbesteaz; nola ori ere burutu oso ta neuŕi aundienaz?; ezmezik ez bidea zein dan adierazteko, zalantzik gabe azkatasunaz. Oŕa baitezpadakoa zaigun jokatzeko eraz.

—Azkatasuna!, gizonarentzat dugun bizi-alduna; gizon bakoitzarentzat iŕikiduna, ta gizona gaztea baldin bada miĩa bideŕ areago leiduna; izan ote diteke azkatasuna maite eztuen gaztetasuna?; ezin ene iduriko, oŕelakorik izango ezpailitzake bioztuna.

—Barne-barnetik maite du gizonak bere esku izatea; yarei bizi nai du yoran aundienaz izanik batik bat gaztea; gogoz eta biotzez gozatu gura azkatasunaz yardutea; azkatasunik gabe gizonarena baita abere maĩaraño jeistea; azkatasuna gorde ta indartu, beraz, norberak ukan beaŕ duen bizirik gosetea.

—Eta gizonarentzat azkatasuna oŕen lei aundikoa baldin bada, nola eztiogu berdin gure abeŕiari ori bera opa?; euzkal-gizonen alkartasuna dugu euzkal-abeŕia osotuta; nola ez opa ere alkaŕi ta ororena dan multzoari beste ainbeste eskeiñita?; bai, bakoitzarentzat eta guziontzat azkatasuna izan beaŕ ezinbesteko apeta.

—Ertsiki zaigu beaŕa, gañera, azkatasuna gurean; azkatasunaz bakaŕik eraiki ta eutsi al-izango baitugu abeŕia bere egokitasunean; eta azkatasunik gabe beti egongo baikera gure euzkal-bizia zaintzeko

eziñean. Bizia da abeŕiarentzat azkatasuna betierean, eta azkatasunik gabe laisteŕ amaitzeko zearo eriotzean.

—Azkatasuna zaigu beaŕena abeŕiaren biziari eusteko; gure eskubide osoa da abeŕia bizirik izaten ikusteko; ta beste elbururik gabe orixe gañezka aski onartzeko. Baña gizadiari buruz dugun eginbidea azkatasunaz ere obeki betetzeko. Aŕetaz ari beaŕ geron aldetik gerekoikeririk ez izateko; ta gure ekintzetan abeŕiarentzat eta gizadiarentzat era berean lanegiteko.

—Azkatasunaz indaŕ dezakegu bakaŕik abeŕiaren bizi osoa; abeŕiaren bizia, ots, euzkal-bizia igo-eraziko dugu yarei, goragoa; euzkalgizona bide batez goratzeko ere aboroa; gizadiari be izango dalako gero ta zitu geyago ematekoa. Xede guzi oyen bitartez eratzeko gotoŕ geron gerokoa.

—Yareikeririk ez iñun gure bideetarako; garden gorde beaŕ dugu beti azkatasuna guzirako; norberarena ta abeŕiarena era berean eta osotarako; beti onuragaŕia izan dakigun ori zaintzea izan beaŕ baitezpadako; eskubide ta eginbide berak guziontzako.

—Goratu daigun, beraz, abeŕia!, goratu, bide batez, azkatasuna, alegia!; goratu gentza, euzkera ta euzkal-bizia!; goratu gure-gurea dan Euzkal-Eŕia!!

Amaitu zuen oŕela Sabin'ek bere izkintza bizia; txaloz eta goraka giza-tirlu ura, guzia; iñoiz amaituko etzanik zirudien ayen sukaŕaldia; biotz eta eŕayetaraño sutsuturik agertzen zan lagundia.

Buru zanaren keiñuetara men-egin zan azkenez, eta deadaŕen yabaltzean, oindiño guziengan buŕunba oyartzunez; giro kartsu aren egokeran jaŕaitzeko isi ta biotzez; besoak goratzeko, ezpañak dardaraz idekita beŕiz goraka asteko yoranez; odola irakiten zañetan barna bero aundienez.

—Buru zanak: Guziok entzun ditugu, pozik, lau zinkide zintzoek eman dizkigun norabideak ezin egokiagorik; bakoitzak bi, lauren artean zortzi, gure ekintzarako egitaraua osotzeko berezirik; luŕa ta gentza, euzkal-gogoa ta euzkal-izkuntza, edestia ta euzkal-bizitza, abeŕia ta azkatasunaren bikoitza; iraŕi ditzagun zortzirak geron baitan, leyaturik guziok eta bakoitza. Ta amai dezagun gure biĩera, orok abesten gure ereserkia, ematen batera gure abotsa.

Izlariak berak asi-ta, biĩera osoaren deadaŕa eginda, euzkal-ereserkiaren soñu eraginkoŕa goruntz yalgi zan, izango bailitzan Eŕi gu-

zia otoika; ta azken ereskiñak amaiturik, guziek ao batez gora ta goraka.

An zegoen, ezpairik gabe, Euzkadi osoaren lei bizia. Aralar Eŕi' aren mendia, gurena bezela onartzeko edo, egokia; euzkal-gunaz aseturik gori ta galgara guzia; an anaitasuna, abertzaletasuna, alkaŕen leya; bertan ekintzarako indaŕez betetako naya; gañeraturik oso edozein zabarkeria; antxe berpizturik, eta nola!, Euzkal-Eŕia.

Etxeratzeko ordua eldurik, beruntz saldo guzia uyu-uyuka, iŕintzika, bizirik; biotza pil-pilka, atsegiñez beterik; buruak ametsetan, gerorako asmo bikañak bildurik; oro alkaŕi zorion-agurka ta laguntza aundiena eskeindurik; guziek bat adore egokienaz egiñik.

Orobat gure lau zinkideak, iñoiz baño alkaŕenganako leyatuak; gero ta geyago anaitasunean ziñez eta ertsiki bilduak. Itz motz ayen artean orduan emanak; beren baitan arian egunaren goraberak; mintzatzeko beaŕik ez, alkaŕ ulertzeko laurak; antxe bertan baitzuten ondorio edeŕa beren lanak; ameslari ta adoreagoturik biotz eta buruak.

Aldendu beaŕ azkenez, alkaŕengandik Burunda'n; Donosti ta Iruña'runtz Eneko ta Xabier lenengoan; Sabin eta Mikel Gasteiz'eruntz bigaŕenean; eta azkenez Mikel bakaŕik Araya'ra eltzean.

Gure gizonak, Aintzane alboan zeramala, etxerako bidean sartu zan beŕiz ere ta bereala. Emaztearen maitasunaz atsegindurik, barnea zabala; egunaren gogorapenaz orobat pozik eta suztaturik zijoala. Egun artan sortu gabe Mikel'engan susmo txaŕik; gentzarako uŕats sendoa ustez eman zuelarik. Oro berarengan, aŕastiri aren iīuntzean, gentza gozo osoa maitasunean gozaturik.

Atsegiñak eta atsekabeak alkaŕen uŕengo

Alaraŕ'en egindako bilkurak, ondorioak ugari, onak eta txaŕak batzuentzat eta besteentzat ekaŕi. Lenengoz eta oyartzun sendo baten antzera, alde guzietara zabaldu zan an jazotako guziaren beŕi. Abertzaleak eta beren lagunentzat ura eztitan murgiltzekoa izan zan noski, obe beaŕez ere ezin oberik abeŕia goratzeko ain zuzen eta ain egoki.

Arerioentzat, ostera, buruz oso gañetik ikusteko abertzaleen jokera, auek iñoiz gelditzeke ta jotzean beti auŕera. Ayen ustez Alaraŕ'en burututako biīera, Egoeŕi'ri aupada gogoŕena edo, jasateko eziña zana goitik bera; ta bereala asi ziran ostetasuna ageŕeraztean, eta erabiīirik edozein era; artan izango bailuten guziari buruz galera.

Gurenda aundienetakoa bezela, bilkura ura abertzaleek goratu zuten astirik galtzeke ta bereala; «Eŕi-Deya»'k aldiz-ateko zenbaki bat atera zuen betetzen egiñala, ta alkartze-jayaren beŕi zeatza ematen ezezik, nayez ororentzat agertzen zala ta asmoen ereintza egokiena egiteko aurkitzen bide zabala, lau zinkideen itzaldiak oso-osorik eskeintzen zituen bala-bala, xedez eta ustean ala uzta edeŕena eman zezakeala.

Zeatzago begiratu ta aztertu askoren aldetik asmo gaiztoz, salatu al-izateko zerbait biīatu nayean beren beretik gogoz; eŕaz aurkitu ere, naiz eta ibiīi ezpalira beren xedeetarako ain zoŕotz. Guzia ayentzat salagaŕia ta gaitzesteko alakotz, eta oŕela egin zuten azkaŕenik yardutean oso beroz.

Sabin'en itzetan batez ere ayentzako eden aundiena; ez ainbeste besteen esanetan ikusi ta aurkitu zutena. Baña, edozein eraz batera baitzetoŕen zuzen-zuzen laurena, laurak izan ziran epaiīeengana salaturik, gora-goraka erabiltzen bide lasteŕena; bai ta epaiīeen aldetik guzia ontzat artu, egiteko asmoz epaiketa gogoŕena.

Aŕitzekorik ez ortan gure lau adiskideentzat, eta lortutako gurenda ain aundia izanik ayentzat eta abertzale guzientzat, etzien eman

egin nai zieten auziak buruausterik, artu gabe aintzakotzat. Eta ain ondorio onak jasotzeko baitziran ayen asmoentzat, gañean ezaŕi zitzayen zema lasai berenganatu zuten, eta iñola ere ezin zalatariek bezin alakotzat.

Biotzari-egin zion Aralaŕ'eko bilkuraren ekoizpenak, eta bere tokian gogoa beroturik bakoitzak, auŕeruntz jo zuen lanean, zaintzen eta zuzentzen norberaren arloak. Oŕelaxe, Mikel'ek Amamio'n, auŕera zijoazela begiratzen Azpaŕena'ko Elkargo biak; ayek ziran berarentzat bere elbururako bide egokienak, eta begi-niñiak bezin arduraz zaintzen zituenak.

Baña, oso burukoi arerioak, benetan buruzkin; mergatz eta zakarki, auŕera zeramaten auziaren arloa orok berdin. Alkaŕi ematen zizkioten ayek su ta ozpin; buruz belaŕi ta yoranez aitzina guziak zigoŕa eman nayean gordin, isituki alde guzietakoak gaizkin.

Eldu zan azkenez, eldu, auzia ikusteko eguna, berandu gabe ta egoeŕitaŕentzat izateko edo zan zoriontasuna. Iruña'n burutzeko guzia Napaŕoa'ko mendi batean izan baitzan ayentzako irauna. Ta ara erdu ziran, bearturik, zinkideak, bakoitza noski bioztuna; epaikarien auŕean salaketak entzuteko norbera arduraduna.

Salatzaīea asi zan gaindiroki lateŕiaren eskubideak aipatzen; ororen abeŕia zala-ta, guzien aldetik men-egiteko beaŕa goratzen; beraz, ari meneko izatea guziai noraezeko zitzayen. Eta, aitzitik, bere batasuna ta bere bizia apurtzeko edozein xedea, ara arenganako ogen, egokiro zigortzeko neke aundienak zirala uŕi ta ez geyen.

Gero, bat-banaka arturik, bakoitzaren auzi-gaya, iruri zegozkionak, berez, zigorgaŕi ezpaziran, alegia, laurentzat azken elburua berdin-berdin zala argia, Sabin'ek esandakoan adierazita zegoela nabaria, ots, zearo apurtzeko guzien abeŕia; ta oŕengatik laurentzat jartzeko beaŕa zala zigoŕ bera berezia.

Sabin'enganako izan ziran aren eraso gogoŕenak; berak garbienik bayeztu baitzuen egoeŕitaŕ etzirala euzkaldunak; ori izan zalarik ororentzat laido ta irain aundienak; abeŕiarekiko geren eta alke nazkagaŕi ta iguingaŕiak. Ogen ura ordaintzeko, gutxienez, espetxean jasatzeko ogei urteak; eta elburuan laurak batera zetozelako, beste irurentzat ere beste ainbeste jartzekoak.

Ayen aldezlariari etzitzayon izan zaīa aldezpena egitea. Legea, esan zuen lenengoz, egipenak eta ez ariak ikusteko zala zegokion aipatzea. Oŕela zalarik, Mikel, Eneko ta Xabier'ek esandakoetan iñorentzat etzan agertzen kaltea, ta bidezkoa izateko edonork ura onartzea, lasaitasunez ere bete-betea. Sabin'en itzetan be, egiz, etzuen aurkitzen lateŕiari buruzko laidogaŕitzat arteko oldea; Euzkadi'ren alde izan zan guzia ari-izatea, ta lateŕiaren aurka arengandik ezer etzegoela iñorentzat entzutea.

Eŕi-epaīleak bitartekoturik, lenengo irurak azke geratu ziran, eman gabe zigoŕik; eta lateŕiarenganako edo lotsaturik, Sabin'i espetxean iīabete igarotzeko eman zuten auzi-epaya azkenik. Onek etzuen egin nai-izan gora-jotzerik, eta espetxera joan zan aŕo ta gogoz beterik.

Lateŕizale ta lateŕikoi mota guziko gurtzaīleak etzuten ontzat artu epai ura naiz eta bera emanda izan eŕi-epaīleak; eta ostetasunetan gogoŕ adierazi zituzten beren asaŕe ta sumindurak; izpaŕingietan, bilkuretan, oŕien bidez, beren agintariei bialdutako idazkietan, oro bat egin zuten asko ta asko gizakiak. Eta ez Egoeŕi'an bakaŕik egoeŕitaŕak, zoritxaŕez Euzkaleŕi'an ere ayen lagunak ziran aunitz euzkaldunak.

Azken jokera oŕek ematen zion bakaŕik miña Mikel'i, bai ta bere lagunai ta abertzaleak ziran guziai, ain atsikita zeudela ikusten ainbeste ororen abeŕiaren arerioai; nun begiak, nun burua ta nun biotza, okeŕean ibiltzeko oso aldeŕai?; itsutasuna eiki, ta ez txikia, amaika eŕitaŕengan ala yarduteko uste ta nai; nola odolaren aurka jartzeko ta oldaŕez ari, uŕuñatzen anai?

Sabin'ganako adeyaz eta berarekin bat zegitela adieraziaz, «Eŕi-Deya»'n eman zuten Eneko, Xabier eta irurak, aitorpen beŕi bat beren iritziaz; berenak egiten Sabin'en itz eta egipenak, laurak bat ziralarik guziaz. Asmokide ororentzako aintzakotzat onartzen eta etsayak amoŕuz beterik utziaz; eta auen erasoaldietarako bertan aurkitzen oñaŕi sendo ta ageriaz.

Laurenganako agertzen ziran zuzenduta, goŕoto aundia ta agiraka, ayerkunde nayez beteta, laurentzako eskatzen zigoŕ aundia bera deadaŕez eta oyuka, erabiltzen leyaka bide oro ta beta. Eŕa gorbizturik ezagunak ziran ayek lateŕi osoan eta izari ortaz batuta; ba-zirudien beste etsairik etzegoela egoeŕitaŕentzat ain aundi ta berezita.

Aŕitzekorik ez ortaz gure zinkideentzat, eta bidezkoa iruditzen zitzayen ala gertatzea berentzat; Eŕi'aren bizirako, ura emateko beren aldetik oparitzat; bai ta eredu bezela agertzeko beaŕa beren aburukide ta eŕitaŕentzat. Alakotz, egokia zitzayen bidean barna zijoazela, artu zuten ura egiztabidetzat, eta auŕera berdin jotzeko zuten oso adoregaŕitzat.

Irten zan azkenez Sabin espetxetik an ilabete egon ondoren. Maitasunez ageri zioten zinkide ta abertzale guziek laguntasun kartsu ta garden; aren aldetik ororenganako sutsu ta adoregarri agertzen. Abertzaletasuna bazterretan beroturik areago, guziengan tinkotzen; Sabin eta bere lagunak aintzindaritzat enurarik gabe onartzen; eta ayengan entzindurik, berak nai ezean ere, beste oro geratzen.

Orra adiskideengan eta arerioengan gertutako, alkarren aurka ziran bi ondorio; ara nola kokatzen ari zan Euzkadi osoan bere bizirako ezinbestekoa zan buruka jario; gentzarako ain eragozpen aundia zana ta arerio; bietara jotzeko bearean, beti bezela, Mikel'entzat kardabaz eta minduta geratzeko beriz ere orixe zitzayola zio.

Bere naigabea arintzeko ez aski beren asmoak zabaltzen zijoazkiela ikustea; naiz eta asieratik orela uste-izan, ain argi ustea; zorigaitzez eta ala-bearez egonaren bekoz-beko ari-izango zirala jakitea; oldozpen guzien erdian beti zuelako onez-onean yarduteko itxarotea; asmo ori bere aldetik oratu ta ametsa bazan ere biotz-biotzez nai atxikitzea.

Luzaroan egon zan orduan atsekabeturik, besterik eziñean; murgildurik zearo bere lanean, gozatuz ere sendiaren maitasunean; bere kezka, alarik ere, beste guzia gañeratzean; egun, aste ta ilеak alkaren ondoren alperik ibiltzeko joatean. Esateko edo, gero ta menperatuago zegoela bere ardura aundiaren pean.

Alan eta guzti, urak beti bide dagielarik, jazokuntza zoriontsua agitu zitzayon udaberi betean eldurik; bai Mikel'i bai ta sendi guziari ala bearik; eta ez iñolakotz otoz-otoan, biziak bere bidean sorerazitakoa baizik; baña, auretik zai egonaren, nolabait eta egitan biotza barneraño iñarosi ziolarik.

Ordu-asekoa eldu zitzayon bere emazteari, ta ara egun batean aurtxoa, bere seme, jayo-beri; egun eguzkitsu, izadiaren ninikatzean betean etori; zer izan ote zan ura gure gizonarentzat bereziki?; ororenaz aiztuta, nolako begi-argia egin zion bere semetxoari! Ara, bere ta Aintzane'ren altsumatxu gori!; ara bere gizatasuna jarai-eraziko zuen lurean bertan bizi!; ara sendiarentzat itxaropen aundia biurtutako egi!

Lenengo aldiz umetxoa besoetan artu zuenean, bera ta bere ama, adi gabe bezala, begiratzen ari-izan zan bein-banan; eta beste edozein asmoari aretarik eman eziñean, biak batera begi-ezurra bezain maite zituela onetsi ta nabaritu biotzean. Eziña edo zitzayon mintzatu egokian; bi maite ayek so ta so egitean bera zan guzia barneraño unkitua osoan; egundoko zorionean murgildurik bete-betean.

—Aintzane'k: Ona emen gure semetxoa, Mikel; ez ote duk polita?; ba-naiz ama, ba-aiz aita, ta bizi beri au gure umetxoa; ez ote diagu ontaz biokentzat zorion aundia?; bearik izan bauk, auxe egokienik gure batasun egitekoa; berbera duk, Mikel, ire semea, barnetik eskeintzen dikiat osoa, ta bera maitatzean alkar ere maiteago-izango diagu, auxe asmo beroa!

—Mikel'ek: Enaun nor orain ezer mintzatzeko, zala baitzaidan barnean ari zaidanana zer nolakoa diñadan adierazteko; Goikoa'k emana diñagu biokena dunan seme izateko; seme, gure seme, i amatua, ni aitatua, zer gozoagorik yastatzeko? Auxe gure maitasunaren muskil edera izateko!, onengan eta aurerantzean i ta biok bizi-izaten jarraitzeko. Bai gure ondasun aundia biziari indar beria emateko!

Lilluraturik guraso beriak unealdi gozo ayetan; ez gutxiago guraso zarak ere semesoa laztantzean: orobat Madalen be ilobatxoa mastakatzean. Etxe ura zorionez beterik agertzen zan aurtxoaren inguruan; alaitasun eta pozez guziak leyaka gogoz ikotikan; etzan ayentzat oren artan beste zerik begiratzeko, arean. Beste amoña, Aintzane'ren ama txoraturik ere beste guzien alkartzean.

Iñor Ludi'an onarturik izan bazan iñoiz, umetxo ura Amamio'ko etxe artan eta orduantxe goiz; ba-zirudien berarekin zorion eztitsuena zekarela itxaropenaren oroiz; ausaz erantzun egokiena izateko amak len egindako otoiz; eta etxekoak oro aurtxoaren maitasunean pulunpaturik bakoitz; guziak bat izanik arenganako zaletasunean umekoitz.

Ikustekoa zan egunean-egunean gabero, amoña biak berentzat artu zuten lana gero; lotara baño len amarengandik artzen zuen umetxoak bere azkuria bero; ta orduan amoñaren txanda berai zegokienezkero; artu besoetan, batek edo besteak, aurtxoa, ero-ero; seaskatxoan jartzeko emeki ta biak alkarenganako lero; iñola ere eliokete iñori utziko lan ura, ta berak bete bear maitero.

Bein aura bere oyaletan egokiro etzanda, amoñak elukete tolestura txikiena utziko, bear zanez usteko teink-eginda; ta usu-usu ta aiduru seaskaren albo bietan jartzeko eserita. Lo-eragin bear zuten semesoa bereala; ura berentzat bete-bearra zan eginkizuna; abestitxo xamurez alkarren leyan burutzen zutena; ziur ayentzat laguntza aren gabe aurak etzuela artuko loa; ta beste askoren artean onela:

Batek : Abo-abo maiteño,
Ez izan, ez, gaiztoño;
Nenez bete niniño;
Egiteko bai ñoño.

Besteak : Tupa-tupa kulunkun
Au amoñaren kutun;
Ain edeŕik ez iñun;
Abutzeko amestun.

Batek : Bolon-bolon egiñik,
Atsedenez beterik;
Amoñak laztandurik;
Gotzontxuak zaindurik.

Besteak : Seintxo zoragaŕia;
Gurasoen ñiñia;
Amoñaren eztia;
Aititaren bizia.

Batek : Txalopin-txalo, txa-txa;
Miñiñi su ondora;
Mai azpian taturá;
Gure umetxo oña-oña.

Besteak : Buba-buba ene txatxan;
Txiliña din lin- dan dan;
Izebatxoak pa-pan;
Bitxiakaz xostakan.

Batek : Nauna datoŕ argitzen
Neiñatxoa laztantzen
Izarñoak ondoren
Ematen lo goxoen.

Besteak : Ikotikan antzume
Bizarñoaz okozpe,
Punpaka gure txetxe
Seaskan oŕelaxe.

Batek : Belaŕidun untxitxo
Tapa-tapa bizkortxo,
Begiak gure aurtxo
Ariñago bobotxo.

Besteak : Txoriño tatez-tatez
Aizean be egalez,
Umetxoa kun-kunez
Lolotan oso eŕez.

Batek : Puŕa-puŕa ario
Titoño pio-pio,
Kiskili au abio
Lo goxoz, pozkario.

Besteak : Ene ume kutuna
Ñaña txit zoriduna,
Lo, lo, atseginduna
Oakoan kunkuna.

Batek : Ene altzoan len lez
Seaskatxoan abes,
Doñu goxoen otsez
Amatxi onen babes.

Besteak : Gotzontxu zoragaŕi
Ementxe ameslari,
Pa goxo aurtxoari
Gero, maite, lo ari.

Batek : Binbili ta bonbolo
Oraintxe oŕ momolo,
Ixil, ixil, maikolo
Aurñoa bai lo ..., lo ..., lo ...

Onelaxe amaitzeko aŕeta aundienaz, Mikel'ek deitzen zuen amoñaen bikonde abestuaz. Eta bien artean seaska oso geldiro kulunkatuaz, aldi batez erkiña ezpain luzatuen gañean jaŕiaz, orori agintzean txintik ez egiteko arduraz; Mikeltxo'ren loa zaindu beaŕ zan guziaren auŕetik axola berezienaz.

Guraso beŕiak seaska-buruan, aitona ta izeba beste aldetik oako-oñean; auŕa, guziek inguraturik, erdian ..., ura zan ura, maitagaŕi edeŕenek oberik antola eziñean, ikusi ta gozatzekoa zan oso zorion aundia, egitan.

Amoña biak agintari, egunerokoa zan beren unealdi, ayen menpean egon beaŕ oro ixil eta geldi; eliokete iñolaz ere eginbeaŕ ura utzi iñori, ta arduraz eta maitasunaz betetzen zan berentzat eginbide berezi. Etxean iñork etzien ortarako oztoporik txikiena ere ipintzen, noski.

Umetxoa zan etxeko guziari ematen ziena zoriona, ta bera begiratzeko baño ezer ez egoteko, ez gurasoak, ez amoñak, ez eta izeba ere ta aitona; bera zan guzientzat gogoz gozatzeko zeukaten bizikera ona. Egunak alkaŕen ondoren auŕera zijoazen oŕela, arin, ia oartzeke batetik bestera igarotzeko beaŕa zela.

Zorion-aldi luzetxoa Mikeltxo'ren jayotzak soŕerazitakoa; egun eta iīebeteetan barna iraundurik, ba-zirudien betikoa; eztitasun edeŕenaz luzaroan edo nai gozatzekoa; iīargia nonbait labe-gañean beti argitzen izatekoa; ezti-bitsetan etxeko guziak gaindiro ta yoritasunean pozikara ta alai-aldi betean egotekoa.

Alaz ere, Luŕ gañean betikoa ezer ez; ezin iñorentzat iñun eten gabe bizi-izateko zorionez; alaitasun eta ituntasuna alkaŕen uŕengo bizian barna azaltzeko beaŕez; apika ez erotzeko lenengoan ez eta etsipenari emateko bigaŕenez; bizian zentzunezko oreka egokia jartzeko edo, zuzenbidez.

Udabeŕi ta uda, bai ta udazkenean geyena, biotz-atsegiñez beterik aldi zoragaŕia joan zitzayena; aldiune txaŕ eta otza asi ziran gero, aro latz izateko eguraldiena; iīuntzea askoz lenago egun guziena; bai ta luzeago goizean ere argia egiteko goiztiriena; ta eguzkia agertu ezkero oso motelago bere dirdariena.

Giza-zartzarorako bildurgaŕi benetan negu; otz, eze ta aize zakaŕaz ibiltzeko beti estu; agure naiz atso beren ibilkeretan bidezko ajolatu; aulago ikusi beaŕ beren burua, ta oŕezaz noski ez aiztu; etxetik at eki-begirik ez eta irten ezkero aldabea beaŕ biīatu; ta aitonak «otz laŕegia zaŕen ilgaŕia ta gazteen zargaŕia» oi zuen maiz aipatu.

Bere buruarekiko iragarle ote esakun zaŕa aipatzen?; ustekoa izatea ori, eritasun batek ez-ustean bera menperatzen. Zer ote zan ezin jakin zerbaiteaz asi zanean ayenekatzen; —enaun ondo— esan zion emazteari aŕatsalde batean, bazkaldu ondoren; —otz-dardara

burutik oñetara diñat oartzen; —ez edo dun ezer baña; edozein eraz, obe banaun oeratzen.

Egitan iñor etzan geratu ura zala-ta kezkaturik; otzen bat edo bereganatu zuela, oŕ-nunbait, uste-ezik; eta guziak batera zetozen, oean egun batean egonez, oso izango zala zuzperturik. Baña uŕengo egunean berdin zegoela esan zuen goizetik, eta, balitz-balitzate, Mikel'ek sendagiīea deitu zuen, ongi aztertzea, ausaz, beaŕa izango zalarik.

Erdu zan ura berandu gabe ta aiduru, eriagan begiratu zuen zeatzez naiz soña naiz buru; ta biri-odiak zerbait anpatuta zeuzkala esaten eman zuen aburu; baña geroxeago Mikel'i aŕetaz zaintzeko zala esan zion, orixe izanik lenengo elburu.

Ajolaz beterik orduan gure mutiīa, ta ama ta besteai berdin ez jartzeko geratu zan, lenengoz, ixiīa; oitura zuanez gaŕantzidun arloetan ari-izateko sotiīa; ta guziengan sendagiīeak agindutakoa zeatzez betetzeko xede bera biribiīa.

Bi egun baŕu beŕiro sendagiīea ikerle; etxekoak aren esanaren zai ertsiki entzun-gale; itzak gutxi, alaz ere, lana egin ondoren azterle; ta, ala beaŕean, Mikel'i jakin-erazi zion bakaŕik nola zegoen artegale; biriketan barna edatu zala anpatzea, gaizkitzeko edo zale; ta sukaŕa ere aunditzeko, apika, zegoela erasale.

Eritasuna luzatzen zala-ta, emakumeak ere laisteŕ laŕi ta estuta. Amaitu ziran amoñaen abesti ta jai, geraturik jausita; umea uzteko, ia aiztuta; etxagunganako biurtzeko urdurituta. Eŕi'an barna beŕia zabalduta, aurki azaldu ziran adiskideak zeatzen keta, beren artean Lauren apaiz jauna ere adierazteko bere biozkada-eta.

Apaizak be etzuen ondo ikusten eria ta Mikel'i jakin-erazi zion bere iritzia; bere laguntza eskeintzean apaiz-zuŕian alegia. Baña beaŕik ez etxagunari ezer esondatu ori zala gaya, ta berak, bere burua gaizki ikustean edo, apaizari eskatu zion gogoarentzako argia; bai ta eman eta artu ere Eliza'rena lagungaŕia.

Oŕen bidez indarturik edo geratu zan etxeko jauna; ta bi egun baŕu berarengana dei-egin zien sendiko guziai, dei maitekoŕ ura ta biguna. Bein guziak alkarturik, asi zitzayen mintzatzen bare ta biztuna.

—Aita'k: Ene maiteok, ba-dirudi nireak egin duela; ta emen nauzute gerturik onartzeko Yainkoa'ren nai ta ala. Ba-dakizute, jayo

ezkero eriotza zoŕ, nik ere guziak bezela; ortarako ordua ikusten da eltzen ari zaidala.

—Al baduzute ez negaŕik egin, uŕats ontan guziok baikera berdin; ene aldetik nerea ontzat artu nuen aspaldin, orobat egin beaŕ urbil dagoelarik orain. Eta Yainkoa'ri eskeintzen dizkiot gogoz, buruz, biotz eta adin, unealdi ontan jasan beaŕ ditudan oñaze, estualdi ta min.

—Emazte maitea, i izan aiz nire bizian lagun zintzo ta on; ik eman dizkidan urteen bidean maitasun eta zorion; nola agertuko natzain iganako egitan eskeŕon? Goikoa'k sarituko au mukuŕuka ta adiñon.

—I, Mikel, nire seme ona, onik baldin baduk semeengan; entzinduta nagokik oso, gure sendia dukala-ta, igan; aita izatera ere ba-aiz iragan; semetxoa izan dakiala i niri bezin esaneko sendiagan; onesten aut, mutil, gogoz eta biotzez eragiñik nigan.

—I ere, Maḋalen, semea bezin alaba ona izan aiz gurasoentzat; beti izan dun eta orain be aitaren maitasuna iretzat; ezkontzeko bide onean ikusten aut, artzeko ontzat; nire onespena ere ire ta Yokin'entzat, bai ta biengandik soŕ dakizkizuen auŕentzat.

—Orobat iri esateko, Aintzane, semearen emazte yaukala; Mikeltxo'rekin batera onaŕ nire onespena, besteak bezala; alaba beŕia atzaidan etxe onen zorionerako leyala; ordu onenean elduta betetzen ire aldetik egiñala; izan ire amarentzat ere beti maitasun-itzala.

—Orain nire gogoari buruz ari-izango natzaizue; deitu biarko edo Lauren apaiz jauna, bera baita on, adiskide; ta berarekin gertuko dut ene buruaren azken bide; otoi-egin zuen aldetik ortarako izan ditzadan gogo ta biotz erne; ta Yainkoa'k ukan dezan niretzat eŕukizko xede.

Guzien oñaze-erdian agureak egindako itzak ala nolako jasapena ta eramena edatu zitzaizkien barnean biotz-lagungaŕiak; erdu zan apaiza uŕengo egunean gogoz eta buruz gañetik betetzeko bere eginbeaŕak; bare geraturik eria, egokera txaŕaren erdian goruntz abiaturik bere asmo ta yoranak.

Etxekoak ari so ordu ta unealdi guzietan; nolabait ibitu nayean zera nimiñoenaz ere laguntzen aren jasanaldietan; ontzeko ezertxo be ikusten beren itxaropenetan; aitzitik jausten nola ari zan oartzen bere azken orduetan; eta besterik eziñean guziak biotz beroz eten gabe otoyetan.

Bi egun luze oŕela ta biaramonean etxagun mazalaren azken atsa; sendiko guzien erdian bizia amaitzean, beraganaturik oso gentza; Mikel'ek itxi zizkion maitasunez begiak, adierazten ere biziki lotsa; il beŕiaren begitarte, atz-begiak, lotan geratu bailitzan nagusi ta garaitasunaren antza.

Beste bi egun uŕengo, iĺeta, Azpaŕena'ko alde guzietatik lagunak aunitz erduta; bai ta iru zinkideak Martin'ek beŕia jakin-erazita. Lugin bat ere etzan, erdu gabe, etxean geratuta; langiĺe geyenak ere, ortarako lantegia geldituta. Naiz ildakoari, naiz sendiari ta batik bat Mikel'i, orok beren samin-aguŕak erakutsita.

Lauren apaiz jaunak gogoraturik, etxeari zegokion bidetik eraman zuten gorpua, elizara etxetik, bai ta gero iĺeŕira elizatik, betidanik «andabide» deitzen zan bidetik; etxe ta basetxe bakoitzak berea zuenetik, «il-bidea» edo «gorputz-bidea» izenakaz ezagutzen zutelarik; oso oitura zaŕa zalarik, oituraz eta legez bide oyetan ezer eraikitzea eragotzita zegoelarik; eta iñoiz ezinbestez beste bidea erabiltzeko beaŕa izan sorturik, bide beŕi ori, lenago, noraezekoa zan geratzeko onetsirik.

Gero apaiza beraren aŕebak, ezkongaya zanak «iĺoedun», iĺeŕitik etxera eraman zituen agaetako oyalkiak; eta oŕelaxe beteŕik geratu ziran oitura zaŕak.

Guzien aoetan euzkaldunen esakera zaŕa: «Jayotzen danak iltzea zoŕ» esatean, joandakoaren alde beste egiterik etzegoela, gogoratu bai, kartsuki, norberaren otoitzean.

Etxean etxagunak utzitako utza betetzeko eziñik ororen iritziz, zail gutxienez eta latza. Sakon eta biotz-erdian itun eta nekegaŕi aitaren oroitza; zeregin guzietaz aiztuta bezela bakoitza, ura gogoratzeko bakaŕik bere oldozpen eta okuntza.

Mikel'en biziari ura izan zitzayon ildo sakona; galdutakoa izan baitzan berarentzat, aita, adiskide ta etxagun ona; ba-zekien aitaren tokia berak artu beaŕ zuela, nai ta ez ura zitzayolarik mugona, baña alako mukertasuna bere baitan sarturik izan balu barneraño azkona. Ta aita il ondoko lenengo egunetan, barne-barnean, ezer ez adiñona.

Goŕoto-ekaitza

Ĩebete baŕu edo, ta amak eskatuta, aitaren ingiak begiratzen asi zan Mikel, gogo aundirik gabe bazan ere. Ba-zekien lan ura berarentzat beaŕa zala, etxeko arazoak bai ta ama ta aŕebarenak ere ikustea ezinbestekoa baitzan irurentzat. Eta an aurkitu zituen aitak egindako idatz-oaŕ guziak, argi ta garbi aurkeztuta, aŕetaz eta zeazki egiñak.

Idazki ayetan agertzen zan egokienik, bere sendiarenganako aitak ukan zuen ardura aundi ta maitekoŕa; oaŕ liketen zeatz egokia, naiz txikiena izan, an zegoen bere giñoan jaŕita; etzuen ikusten Mikel'ek aitari aiztu zekiokean ezer, eta aitarenganako eraspena aunditurik izan zitzayon barnean, aren gomutari gero ta begi obea eŕakusten. Txikitatik lotsa ta begirunez beterik bizi-izan beti arenganako, ta oraingo ontan guzia gutxi izan zitzayolakoan zegoen.

Bizian barna maiz oartu zuen bere aitagan, lenago ikusi etzuen ona zan zerbait; il ondoren arena izan zan on guzia, biotz-eragiñez, eskeŕonez eta maitasunez, erabat eta batean ikusten zuen oso gora aren giza-maĩan, egin-egiñean lortua ta adiuŕ onekoa izan zalarik; beti ere ari oneko gizona izan zala gogoratzen zuen Mikel'ek atsegiñez; eta guziengatik mingaŕia zitzayon aita etxean ez ikustea. Bein eta beŕiz gizonaren bizia atsa zala gogoratuaŕen eta jayotzen danak, beti ta edonor izan biziduna, iltzea be zoŕ duelarik, nekegaŕi oso berarentzat edonor ori bere aita izatea.

Etxeko goraberak bide beŕian ipintzea etzan berarentzat gauza zaĩik izan, eta aurki eŕakutsi al-izan zizkien ama ta Maďalen'i. Ziuŕ zegozen irurak an korapiĩorik sortuko etzala, aita nolakoa izan zan gogoratzen; eta ontzat artu zituzten emakume biek Mikel'ek emandako azalpen guziak.

Gure gizonak, gero ta beŕiro be, bere arazoak oro begiratzen asi zan, biotzari indaŕez emanik. Lugiñen elkargoa auŕera zijoala laisteŕ ateman zuen, bai ta langiĩeena, olarena, ere, Yokin'ek jakin-erazi zionez; bere gogoaren ibiltzerako, beŕi on biak egokienetakoak zitzaizkiolarik. Azpaŕena osoan zeuzkan bere bizirako azpegi bereziak,

sendiarena lenengoz eta lanarekikoak gero, ezin obeak auŕera jaŕaitzeko laguntza edeŕa bezela.

Euzkadi'rena, aitzitik, etzan, ez, margo berberakoa. Etxean piĩatuta zeuzkan azken asteetako «Eŕi-Deya» zenbaki batzuk, ideki gabe noski; ta abeŕiaren beŕiak artzeko, asi zan ayek uŕenez-uŕen begiratzen; bereala geyenak beŕi onak etzirala ateman al-izan zuelarik. Asitako buŕuka gero ta geyago gorbiztuta; egoeŕitaŕak, erotuta lez, euzkalduna zan guziaren aurka, ulerkaitza zan jokeraz ari ziran lateŕi osoan; ortaz guziak bat egiñik eta alkaŕen leyan.

Euzkaleŕi'an be, uri aundienetan bizi ziran etsayak, besteak baño amoŕatuago agertzen ziran, lateŕiko agintariai neuŕi gogoŕenak artzeko eskatzen. Baña Mikel'entzat mingaŕiago zitzayona, ayen artean euzkaldunak ere agertzen zirala ikustea zan. Bein eta beŕiz bere buruari galdetu beaŕ-izan zion, zoratze aundienean bezela: —Nola, gero, izan diteke gure artean oŕelako itxukeririk?; eta orixe izanezik, nolako bekoikeri izugaŕia ote norberaren Eŕia'ren aurka jartzeko, ta beraren etsai aundienen alde? Ez ete zegoen batzuengan odolezko anayaren osteturik azaltzeko, alako giriña itxusi ta gaiztuna? —Baña erantzunik zeatza aurkitu gabe egon beaŕ zalarik, etsita bezela geratu zan ainbeste bideŕ gertatu zitzayon antzera.

Zema ta salaketak amaika, batez ere bere iru adiskideentzat; auek uri aundietan bizi zirala-ta, aldamenean zeuzkaten erasozale amoŕatuenak eta oŕengatik ayenganako zuzendurik agertzen ziran azkon edentsuenak. Bera, Mikel, mendiko txoko batean edo zegoelako, askotan ezezaguna bezela zeukaten ororen etsayek; ez zearo, alarik ere, ta Gasteiz'en bederen baten batek eta geyagok be eŕakundez aipatu ta aotan artuta, azalerazita izaten zan maiz bertakoek salaturik.

Azpaŕena'n, ordea, bospasei kendu ezkero, beste guziak gogaide edo adiskide; ta aurka zegozenak ere berarenganako lotsaz zebilzten, naiz eta gogoaz bestera izan; baña aran osoan Mikel'ek irabazitako garaitasuna ain aundia zalako, bertako etsayak ere itzal arek ikututa bizi beaŕ zuten. Alaz ere Martin etzegoen bere adiskidea bezin lasai, ta batzuetan Araya'ko irakasle ta Patxiko'renganako susmoz beterik zegoela esaten zion.

Beraz, «Eŕi-Deya» irakurtzeko ezpaleuka, Mikel'en biziak legun eta kezkarik gabe iraun zezakean, atsegiñezko bizi-toki edeŕ, naro ta eztitsuan egon balitz bezela. Baña bere adiskideak jasan beaŕ zutena

ikustean berenganako nolabait eŕudun bezela begiratzen zuen bere burua; ta besterik eziñean irurei idazten zien bere barneko kardabak jakin-erazteko ta edozertarako bere laguntza eskeintzeko. Ayek, ostera, lasai egoteko erantzuten zioten eta eurekin bat egiña zegoela ondo zekitela bayezten.

Bein, ayen gutun bat zekaŕela ama uŕeratu zitzayon, eta egun ayetan gutun batzuk eldu ziralarik bai ta igorleak nortzuk ziran sumatuz, semeari galdezka:

—Ama'k: Zer, Mikel, beŕi onak ire adiskideengandik?

—Mikel'ek: Bai ta ez, ama; osasunez eta adorez ayek bai, ondo dagoz, baña asko jasan beaŕ dute arerioen erasoengatik, beti zemaz, salaketaz, irañez artzen, aleun, gero ta geyago; ni, aitzitik, emen lasai, gentza gozoan murgildurik; batzuetan alkez beterik nagoela enekiko.

—Ama'k: Baña, mutil, ortaz iregan eŕurik ez, ezin eŕurik ez eta yardespenik ere ikusi beaŕ ire aldetik; eta ziuŕ nauk iregánaño be jasaten diteanaren zerbait eltzen zaikala.

—Mikel'ek: Orixe bera diñote ayek nire kardabak dirala-ta, erantzuten didatenean, eta ba-dakit izpidean zagozela ayek eta zu; baña on eta gaitzetan egokiago laurok bat izatea; oŕengatik ayenganako ogenean nagoela uste dut askotan; zaĺa asmo au ene baitan menperatzea.

—Ama'k: Tira, tira, Mikel, ertsikiegi begiratzen dituk arazo oyek eta biotzari eutsi beaŕ-izango diok, noski; ba-zekiat oso eŕaza izango etzaikala ori, baña bidezkoa zeritzaidak ire aldetik ortarako alegintzea.

—Ongi bazeritzaik, nik beste arazo bateaz itzegin nai dikiat gaur. Aita galdu ondoren ba-zekiagu guziok etxeko arazoak ongi ta aŕetaz begiratzen asi aizela arek zegian bezin ondo, ta alde ortatik lasai gatxeudek oso. Baña ba-zegokik gauzatxo bat ik eiki gogoratu eztukana, buruak ere eman ez, alegia.

—Mikel'ek: Zer ote duzu ori, ama?, nik alegiñak egin ditut izan ditezken guziak aztertu ta begiraťzeko, ta egitan eztut ikusten zer izan ditekenik.

—Ama'k: Ez estutu mutil, egitan utza baituk; aspaldiko oitura zaŕa, baseŕitaŕen artean egun arte bederen bete izan dukana. Etxagun bat iltzen dukanean, bere alargunak, beren semea etxagun beŕia



jaŕi dukala erleai jakin-erazten ziek; gaŕantzirik ez ortaz, jakiña, baña nire aldetik ere oitura polit ori bete nai-izango nikek.

—Mikel'ek, ia paŕezka: Egia duzu, ama, nik gogoratu be ez; ezaguna dut oitura txotil ori ta oso ondo deritzait zure asmoa; alakotz nai-izango duzunean egingo dugu ori ere, gogoz beterik ene aldetik.

—Ama'k: Ziuŕ nengokian ontzat artuko idakala; orduan uŕengo igandean edo, bazkaldu auŕetik alkaŕekin joango gaituk gure erle maitagaŕiengana, beste zerbait egiteko ezpaduk beñepein.

—Mikel'ek: Ezertxo ere ez, ama, ta oso ona deritzait unealdi ori.

Eldu zan jai-eguna, ta esandako orduan ara joan ziran ama ta semea, beren burua ta eskuak txano ta jantzi bereziakaz ongi estalpeturik.

Erlauntzara elduta, ama asi zan erleai deika:

Andere, andere,
Anderedeŕ,
Ongi bizi ote?,
Ez edo okeŕ?

Ongi ere erlama
Ta lan-erle?
Goraintzi erlaita
Berdin beste.

Atera, atera,
Erlakume,
Oro entzutera
Ene albiste:

Zuen etxaguna
Itzali da,
Agurea zana
Gaur zendua.

Bizirik zanean
Zuek yagon,
Bai maitasunean
Emen egon.

Guziok umezurtz
Gera egun,
Ez alere muŕuts
Baizik lagun.

Erdu, erdu, ona,
Erle zintzo,
Entzun, gaur mugona,
Nere mintzo.

Ura gogoratuz
Txit buruan,
Guziok maitatuz
Biotzean.

Ez negaŕik egin,
Uŕup malko,
Ez oñaze, ez min,
Aŕ utsalko.

Zuen edeŕaren
Bizi, bizi,
Beste izpaŕ on emen
Ematen ni.

Ona jabe beŕi
Aren seme,
Ongi bere toki
Nai du bete.

Ura bezin kartsu
Yarduteko,
Zuengana adeitsu
Izateko.

Onaŕ ezazute
Gogo onez,
Izan bedi maite
Oi!, biotzez.

Guzion aldetik
Gaur ta gero,
Zearo barnetik
Oso bero.

Aguŕ anderedeŕ
Aguŕ t'erdi,
Jaun beŕi alaber
Ta goraintzi.

Entzun ziotelarik zirudien, erleak multzoka ta samalda, buŕun-buŕun, erlarots, erlategitik at irtenda, ikerleen inguruan, alkaŕen leyan bezela, gora ta bera ta buŕundaka zebilzten, erotuak bailiran.

Etxeruntz ama ta semea, alkaŕekin astiro, ta bidean :

—Ama'k : Ba-zirudik esanera etoŕi zaizkiguala aberetxok. Ikusi al duk nola irten ditukan nire itzak entzunda edo?

—Mikel'ek : Bai ama, esan liteke ori ao betean ere; ta nolabait gañera, gure gozakari bat bezela onaŕ dezakegulakoan nagokizu.

Egitan oŕela izan zan amarentzat batez ere, ta bere alabai erleenganako eman zuten uŕatsaren goraberak edestu zizkien alan olan adoreturik.

Mikel'en baitan, beŕiz, bere eguneroko lanetan sarturik, ezin berenganako egoeŕitaŕen jokerak ematen zizkion kardaba ta miña gañeratu. Ezinbestekoa bezela ikusten zuen bein eta beŕiro ayekin buŕukatzea, gero ta gogoŕago ere, ta buŕuka artatik, geyenetatik bezela, goŕotoa agertzen zitzayon mamu izugaŕiaren antzera, guzia baño indardun eta aldunago ere, ta guzienganako zematzale.

Beste ainbestetan lez, gentzarako asmoa birundaka bere barnean, goŕotoa nola kamustu liteken ikusi nayean, nola arerioei beren izpideak ageŕerazi, ayetan zegoen oñaŕia oaŕ zezaten. Erokeria iruditzen zitzayon auŕean zegoenari entzun bederen ez egitea; okeŕ egon diteke edonor, baña berarena dalakoan oŕen alde isituki ta era onean atera ezkero, bertan oñaŕi dagoela uste beaŕ-izango luke nork-nai.

Etzegozen alaz ere ortarako oso gerturik egoeŕitaŕak eta beren erasoaldietan barna zala ikusteko noraño eldu nai zuten. Araláŕ'en ainbeste euzko-abertzale bildu zirala ikustean eta poliki-poliki udaletan ere sartzen ari zirala atematean, berentzako ebazkizuna gero ta zalago iruditzen zitzayen beren elburuak lortzeko. Ta lenbailen ekin

beaŕ zala oyuka ari ziran alde guzietan eta mota guzietako lagunak alkaŕen leyan.

Nola yardun baña? Amaika asmo izpaŕingietan, bilkuretan, idazkietan eta gogayak adierazteko zegozen bide guztien bitartez; batzuek euzkera mintzatzea gebendu beaŕ zala uste zuten; beste batzuek, apaizai eŕu aundiena egozten, apaiz guziak ego aldera eramatea ta beren ordez euren aldeko izango liraken beste batzuk jaŕi nai zuten; abertzaleak udaletan sartzen ez uztea bide egokia izango zala ziñoten besteak; batzuen iritziz, apaizak bakaŕik ez, euzkaldun guziak ego aldera alda-erazi beaŕ zituztela; ta ba-zegoen, argi ta garbi, euzkaldun guziak erailtzeko oyuka eskatzen zuena.

Etzetozen batera egiteko egokiena zer izango litzaken ikusteko; ekin beaŕ zala bai, ordea. Ba-zirudien beste ebazkizunik etzegoela ayentzat, euzkaldunak zearo menperatzea baizik; eta auen asmoak ain ulerkaitzak eta ororen abeŕiarenganako ogen izugaŕiena iruditzen zitzaizkielako, aŕokeri ta goŕotoa aipatzen zituzten guziaren eŕo ta zioa bezela; iritzi ori yalki-eziña zan, ain argi agertzen baitzitzayen egi utsa bezela, ta ukatzekorik etzegoen artan ayentzat. Ondorioaz, erdeiñuzko albo-izen irauntsu ta itsusgaŕienak eurez eta piri-para zerabilzkiten euzkaldunai buruz, ia egunero oŕelako beste beŕiren bat asmatzen. Albo-izen ayek, ainbat ziralako, «Eŕi-Deya» batean jaso ta biltzea noribait otu zitzayon, bilduma bakan eta iŕigaŕia betetzeko.

Udabeŕía auŕera zijoan eta ara nun agertu zan bat edo bati buruak eman zion betetzeko egipen durundatsu izan litekena, lateŕiko ororen aldetik euzkaldunenganako beren ataŕaldi guzia adierazteko; ia, lateŕi oso-osoa aurka zutela oartzean, gutxienez lotsatzen ote ziran, eta oŕela beren xedeak uzteko bidean bederen abiatzen ere. Zer ote zan asmo ura? : Jai-egun autatu batean, lateŕiko uri-buruetan gutxienez, eta beste uri ta eŕi aundietan ere, bakoitzean erabakiko zanez, kale-ageri orokaŕ bat egitea, euzkaldunenganako ororen etsaitasuna adierazteko, ta azken ondorio bezela Jaurlaritza'ri neuŕi gogoŕenak aŕ zitzan eskari bereziak egitea, al-izan ezkero geyenen izenpetzeaz orniturik bialtzeko.

Ontzat artu zan ura alde guzietan, baña *ori gutxienez* aldaŕikatzen eta buruzagiak bederen il edo beren bizi guzirako espetxean sartu beaŕ zituztela gañeratzen, ayen jokera guztiz zigorgaŕitzat artu

beaŕ zala eskatzen eta lateŕiaren aurka egindako ogena, ain izugaria zalarik, bidezkoa zan bezela, ordaintzea ezinbestekoa zalako.

Agintarien aldetik begi onez begiratu zuten asmoa, ta beren iritzia agertu gabe, pozik eman zuten kale-agirirako baimena, iñungo eragozpenik jartzeke. Beraz, eguna uztaīlaren bigaŕen igandea izateko erabaki zan, bai ta toki guzietan ageri beaŕ-izango zituzten txartel aundiak berak ere, iru izateko auek: 1—«Lateŕi'an endeŕi bat eta bera Egoeŕia»; 2—«Lateŕi, endeŕi ta abeŕi, irurak bat ezinbestez onargai»; 3—«Bera Lateŕi'aren etsayak, il abeŕiaren azpi-suge ta etoyak». Oyen gañetik, toki bakoitzean erabakiko zituzten beste guziak ere, baña esandako irurak agerkundeko lenengoak eramateko, batasun goтoŕ lez oro azaltzeko.

An etzegoen txantxetan ibiltzeko gogorik eta asmoa ongienik burutzeko xedeaz, zabalkunde ikaragaŕia alde ta leku guzietan, ororí bipil agertzeko eragiten, ororengan euzkaldunenganako goŕotoa ereintzen eta suztatzen. Eta bazteŕ guzietan, ondorioz, oyartzun ozenena bezela erantzuten, bereala ta gogoŕ, orok bat egiten. Ba-zirudien Egoeŕia ilzorian zegoela ta eriotz oŕen egīleak euzkaldunak berak zirala; oŕengatik berak arerio aundienak eta bidezkoena berak ere goŕotatzea. Ala nola egoeŕitaŕ guziak oŕela jokatzeko batera zetozela, ta beren artean iñoiz batasunik izan bazan unealdi artakoa egiazkoena, gogoŕena. Alakotz, autatutako egunean yarduteko oro gertutzen eta ari-izateko iŕikitzen.

Deadaŕ eta zema guzietan barna, lau zinkideen izenak aipatzen ziran bereziki, euzkaldunen buruzagitzat salatzen eta yardespen aundiena berena zala nabaritzen. Gizon zitalenak lez aurkezten zituzten zabalkunde guzietan eta goŕotoa ayenganako bereziki zuzen-erazten zuten isituki, iltzera zigortuta izan beaŕ ziranak. Il, il, il!; orixe izpaŕingi askotan ayen aurkako zerabilten lanen idazpurua, lan guziak deadaŕ ura eutsi ta zabaltzeko egiñak.

Ba-zegoen, alakotz, gaitzuŕe aundia zinkideentzat, eta ondo ikusten zuten ura berberak eta beren erakundearen artezkariak; oŕengatik, kale-ageri aren egunean eta naiz auŕeko naiz geroko beste egun batzuetan ere, izkututa egon zitezela agindu zieten ayei ertsiki, batez ere uri aundietan bizi ziranei; Mikel'entzako galtzoria ez bide zan besteena bezin aundia. Etzuten ayek nai oŕelakorik egitea, baña zentzunezkoa zala onartu beaŕ-izan zuten eta gañera aginduz ari-izateko

izanda; zuurtasunez jokatzea, gero, bidezkoena zalarik orduan abertzaleak ziran guzientzat.

Euzkadi'n bizi ziran egoeŕitaŕak, ostera, pozaŕen pozez, euzko-abertzaleen ekintza ta jokera ayentzat ain iguin eta goŕotogaŕiak ziralarik. Eta zer esanik ez, Araya'n irakasle ari zan Diaz jauna ezti ta bitsetan, betetzeko zegoen asmo ura azaldu zan lenengo unealditik. —Ba-zan ordua— bere buruarekiko gogoz beterik ziñoen; —ba-zan, bai, emengo asmo ero ta gogaikaŕiak zapaltzeko ordua; eroapen aundiegia, eiki, egoeŕitaŕengan lateŕiaren aurkako jokera lotsagaŕi ura ain luzaroan jasatzeko. Baña zirudienez Egoeŕi'an dagoaneko ontzia bete-beterik zegoen eta noiz edo noiz gañezka egin beaŕ.

Gogo-beroz, su-ta-gaŕ bere barne guzia egiñik, asmoa bereganatu ta berealaxe, bere aldetik ura nola lagundu lezaken xedeaz, birundaka buruan amaika gogoeta. Ona izango litzake, bere ustez, Araya'n bertan ere kale-agiri bat egitea, uri aundietan bezela, baña zaīa iruditzen zitzayon ango giroa nolakoa zan gogoratuz; oŕengatik, obe ausaz, bildu litezken gogaide ta lagunekin Gasteiz'era joatea ta an egin beaŕ zan ageŕaldian ororen artean sartu iragarki berezi bat eramaten, bertan arayataŕak besteen lagun izateko erdu zirala aipatzean; nork esango luke iragarki aren atzetik bi ala beŕeun ote zegozen—, eta Araya'ren izena lateŕiaren aldekoa bezela ageriko zan.

Dana dala, emeki ta legun, larunbateroko langīle ta lagunen bilkuretan, asmoa aipatuko zuen, eta ageriko liraken iritziak nolakoak izan, azken erabakia artuko luke.

Ardantegiko beren txokoan agertu zan gure gizona lenengo larunbatean, gogaltsu ta baikoŕa, bere-beretik asieran ele-meletan ari-izateko baño beste xederik izango ezpailuen; baña ezin gorde, gizonak, barnean zeramen irakidura, ta aurki oartu beaŕ bere lagunak; eta Solozabal'ek zearka-mearkarik gabe, galdetu ziola:

—Solozabal'ek: Zer duzu irakasle jauna?, ba-dirudi gogaldi onean eldu zerala; poztasunez beterik zagozela esango nuke; zure atz-begiak asean eta betean zagozela adierazten dute; zer dala-ta ezin guretzat jakin?

—Diaz'ek: Bai adiskidea, ezin ukatu, barneraño atsegindurik nagokizue, ongi igaŕi didazu, egin-egiñean; eta eragozpenik ez niretzat zerik zetara nagoen jakin-erazteko. Ara: ...

Anpurutsu asi zan mintzatzen; an zegozen guziak, begiluze, berari so ta ixil geratu ziralarik atematen.

—Diaz'ek: Ez al duzute izpaŕingietan lateŕi osoan zer gertatzen ari dan irakuŕi?, datoŕen uztailean bazteŕ guzietan batera egin beaŕ dana? Zala deritzait onezkero oŕen beŕirik gabe iñor egotea, iñun ere ez.

—Solozabal'ek: A...!, jakiña, ori ere igaŕi beaŕ-izango nukean. Bai, Euzkaleŕi'aren aurkako, lateŕiaren naimen zitala ageŕerazteko dana; bidezkoa deritzait zure asmoa nolakoa dan ezagutu ezkero, eztitan, txitxi-papetan zaitugula ulertzea. Baña zer atera beaŕ duzute gure Eŕi'aren aurka oŕen gotoŕ azaltzean?

—Diaz'ek: Adiskidea, zeatz eta meatz ikusi beaŕ dira arazoak; egitan ez ene aldetik ez eta lateŕiaren xedeaz, eztugu nai Euzkaleŕi'aren aurka ezer egitea; Euzkaleŕia edeŕa da Eŕi bezela, lateŕiaren zati autatuenetakoa izateko, ta guziok maite beaŕ duguna.

—Solozabal'ek: Itzak dira oyek, gunik gabeko itzak; egipenak dira begiratzeko bakaŕik; eta beste motazko itzak agertzen dira oraingo ontan egoeŕitaŕen ezpañetan eta idazkietan ere, goŕotoa baño besterik adierazten eztutenak.

—Diaz'ek: Adi, adi, gizona!; ba-dakit mokorki ari dala aspaldi ontan askoren aldetik; baña ez iñoiz *gure* —ta emen oso goraki asi zan— Euzkaleŕi'arenganako sumindurik agertzen, *gure* Eŕi au ondatu nai dutenai buruz baizik; ongi dakizute guziok oyek nortzuk diran.

—Solozabal'ek: Bai, bai, beren Eŕi'aren alde bipil eta zin-ziñez lanegiten ari diranekiko, oroz gain Mikel eta bere lagunenganako.

—Patxiko'k: Oyek, oyek ain zuzen, oyena baita gertatzen danaren eŕu guzia; oyetxek il beaŕ dituztela diñote Egoeŕi'ko bazteŕetan, eta izpidean dagozela esan beaŕ; geyegi da onezkero oyek egin dutena, ta beren buruaz begiratu beaŕ-izango dute bidezkoa dan goŕotoaren pean jausi eztitezen.

—Solozabal'ek: Patxiko, Patxiko, zorigabeko Patxiko!, ik bai, ba-duk iñork baño goŕoto aundiago Mikel eta bere adiskideenganako; ta oŕela jokatzean eztuk ikusten zurea dukan odolaren aurka ari aizela, ezin gizon batentzat zoritxaŕik aundiena. Uste diat ik begiratu beaŕ dukala geyago ire burua.

—Diaz'ek: Zuk, arakin alakoa, eztuzu iñoiz ulertuko, Patxiko'k bezela, lateŕiaren garayeneko asmo aundia; baña, zoritxaŕez, ez eta obeki beren burua jakintsutzat daukatenak ere; guztiz itsututa bizi zerate gaurko bizian barna; aipatutako zuen buruzagiak atzera eraman nai dituzte gauzak, emen Euzkaleŕia gaurko norabidetik sayestua

ta atzeratua gera dedin; eta egiazko auŕerapenak lateŕi aundien bitartez bakaŕik burutu al-izango dira, enurarik gabe.

—Solozabal'ek: Beti bezela, itzak eta itzak; eztezakezute iñoiz besterik aurkeztu, goŕotoa ezpada beste egipenik eztaukazutelako. Ideki ditzagun zabal begiak, eta begira dezagun auŕe-auŕean daukaguna, ain zuzen Azpaŕena ontan eta gure artean, egiazko egipenak, eta egipen onak, ongi buruturik dagozela ikusteko.

—Diaz'ek: Ba-dakigu, adiskidea, zer aipatu nai duzun, emen Mikel'ek egindakoa; baña ori zeren xedeaz duzu egiña?, ez al da, bereziki, bere asmoari indaŕa emateko?; oŕa untzea, ta ori ezta ukatzekoa, gero.

—Solozabal'ek: Bai, orixe da zure azalpena, Mikel'ek egin duenari gaŕantzia ez emateko; okeŕ zagoz arazoa oŕela ikusten baduzu, baña ongi dakit, ziuŕ, egitan oŕela danik uste eztuzula. Zeroŕek eta guziek ere, ongi dakizute Mikel'ek egindako ikasketaen eskeŕ edozein uri aundian bizi-toki edeŕ eta eroso lortu al-izango zukeala; baña etxean geratzea nayago-izan du, ain zuzen eŕia ta luŕa benetan maite dituelako; ta bereala bi zera oyen alde, gogoz beterik, eta ondoenik ere, lanean ari-izan da, edonorentzat oso gogoŕa dan lanean. Galde ezayezu emengo lugiñai, galde langileai ere, ia zure aburukideak ote diran. Mikel'ek egindakoak egipenak dira, ez zuk bezela itz utzak.

—Diaz'ek: Naiz eta zuk diñozun guzia ontzat artu, ta nik beñepein eztut iñola onartzen, ez didazu ukatuko, Mikel'en eta bere aburukideen jokera lateŕiaren aurka dirala zuzenduta; beraz, orixe da beste guziaren gañetik begiratu beaŕ duguna. Zergatik edo zertarako nai dute oyek lateŕia zatikatu?, zer dala-ta lateŕiko besteengandik alde nai-izatea?, zerik zetara anayen artean goŕotoa ereintzea?

—Solozabal'ek: Zuk diñozun eta galdetzen duzun guzi ortan zentzunik ez. Lenengoz Mikel eta beste abertzaleen jokera ezta, iñundik ere, lateŕiaren aurka, Euzkaleŕi'aren biziari eusteko baizik; lateŕia da gure Eŕi au poŕokatzen ari dana, ta ezin ori gure aldetik ez onartu ez eta jasan ere; euzkaldunak geranezkero, biziarena da, gure eukal-biziarena dugu uka ezin diteken eskubide osoa; ta niri dagokit zuri galdetzea, zergatik nai duzute, lateŕiak eta bere aldeko guziok, gure bizia il?

—Diaz'ek: Baña nundik ateratzen duzu, gizona, guk euzkal-bizia il nai dugula?; mila bideŕ esan dut nik emengo edozein semeak aña Euzkaleŕia maite dugula, nola otian maite duguna il nai-izatea?

—Solozabal'ek: Esan bai, baña zuen egipenak alderantziz beteta dagoz; esan ezaidazu, esate baterako, zergatik eztuzu uzten zure ikastolan euzkeraz mintzatzea?, zergatik darabilzu eraztuna, euzkeraz itz bat bakaŕik egin dutelako auŕ gizajoak zigortzeko? Ori al da Euzkaleŕia maitatzea?

—Diaz'ek: Bai noski, zuk ulertu ezin badezakezu ere; auŕentzat euzkera eragozpena izango da gaurko bizian ari al-izateko; beraz beaŕa zaye erdi-izkuntza ori uztea ta lateŕiarena ondo ikastea.

—Solozabal'ek: Ori zuen aitzakia da, besterik ez; egiz, guzi ori gure Eŕi'arenganako zuen goŕotoa asetzeko jokera da bakaŕik, eta ba-dugu geuk eroapena, ta ez txikia, zu ta zu bezelakoak emendik ostikoka ez botatzeko.

Geyenetan baretsua zan Solozabal arakiña, itz oyek esatean zearo sumindu zan, bere euzkal-biotzean sastada gogoŕ bat edo artzean, eta irakasleari astinketaren bat emateko gerturik ondorioz.

Irakasleak etzuen iñoiz tankera artan ikusi, ta uzkurtu zan, ixilīk geraturik; baña an zegoen Patxiko bere adiskide aundia lagundu naiean.

—Patxiko'k: Baretu adi, arakiña, Diaz jaunak esan dikiana ezpaituk, gero, asaŕatzeko; ez al duk atematen, irakaslea dukanezkero, asko zekiala ta ziñoana oñaŕirik gabe eztikala esaten?

—Solozabal'ek, asaŕe jaŕaitzean: Ago ixilīk Patxiko, azpi-suge ori; gaiztoagoa aiz i, milā bideŕ geyago, arean. Irakaslea gure etsaya izatea eztuk aŕitzeko, bere eŕitaŕ guziak lez izanik; baña i, alde guzietatik euzkalduna izan eta ire odolaren aurka irten?; endekatua aiz zearo ta listu-egiteko gai nazkagaŕia. Izan adi aŕetaz nigaz; orain arte iganako eroapen aski izan baitikiat, baña etzekiat oŕela beti iganako jokatuko naukala.

Ixilīk ere Patxiko, Solozabal'en gizakeraren auŕean, eta orobat an zegozen guziak; unealdi loŕ eta gogaikaŕia ura ororentzat. Azkenez Zelaya mintzatzen:

—Zelaya'k: Tira adiskideok, ezta aŕitzeko gizonen artean noiz edo noiz asaŕea sortzea, iritziak batera eztatozenean; baña ori gaintzea gizonari ere dagokio; ta uzten badidazute zerbait galdetu nai-izango nioke Diaz jaunari.

Itz ayek giroa nolabait bigundu zuten eta guzientzat, zertxobait, asazkaldia zabaldu zan, naiz eta izari aundian ez izan; eta guziak galderaren zai urduri.

—Diaz'ek: Esan, esan, adiskidea, ta al badut pozik erantzungo dizut.

—Zelaya'k: Irakuŕi dugu, bai, lateŕi osoan egun batez egin nai dana, ta ziuŕ nago zure aldetik, emen ere, zerbait antolatu nai-izango zenukela, alde guzietakoekin bat edo izateko; ez al diguzu esan nai zure xedea zein dan?

—Diaz'ek, nolabait pizkorturik: Bai, noski, ta ain zuzen zuekin oŕezaz mintzatzeko gogoaz etoŕi natzaizue. Ona: nire gogarako onena, eŕi ontan, aukeratuta dagoen egunean eta guzien era berean, kale-agertaldi bat egitea izango litzake; baña ba-dakit ortarako emen eta Azpaŕena osoan be lagunak aski erdutea eziña izango dala; lugiñen artetik bat ere elitzake etoŕiko, ta langilleak oso gutxi oberenean ere. Alakotz, asmo ori zokoratu egin beaŕ eta beste bide bat bilatu; bide ori bakaŕa da nire ustez: emendik talde bat eratu ta Gasteiz'era erdu, lateŕiaren ikuŕiñarekin eta txartel aundia eramaten, bertan Araya' koak gerala iragartzen.

—Zelaya'k: Eta uste al duzu talde aundi bat eratzea eŕaz izango zaizula?

—Diaz'ek: Ortxe arloa. Nire asmoa zuei, langilleoi, oŕezaz mintzatzea zan, egin beaŕ danaren gaŕantzia nolako aundia daŕ aurkeztuz. Ba-dakizute, ta eztut ori nik iñoiz ukatuko, lateŕizalea naizela ezuŕetaraño, bertan ikusten baitut guziontzat ea Euzkaleŕi'aren bizirako ere, bide zabal eta egokiena, bai ta ororentzako babes aundiena. Gizadian barna oŕela antolatzen ari da bizia oraingo ontan, eta gerorako be iñork eztu ukatzen bide ortatik bertatik auŕeratuko dala.

—Berebat langilleen bizia, gaur bertan eta uŕengoko urteetan, aunitzetan gero, lateŕi osoaren barnean edatuko da neuŕi aundienean, zalantzik gabe. Ikus ezazute emen eta Euzkaleŕi guzian zer gertatzen dan: lantegi beŕiak sortzen ari dira ta zaŕak ere zabaltzen gero ta geyago, langilleak aboro be kopuratzen. Lantegi oyetan eta langille oyen lanaren eskeŕ ola-ekoizpenak geitzen eta ugaritzen ikusiko ditugu izari oso aundiaz; baña ekoizpen oyek saldu ere egin beaŕ, eta lateŕi aundi baten zeya baldin ezpadago, nun egiteko ezinbestekoa dan saltze ori?

—Zelaya'k: Ba-dago aintzakotzat artzeko zerbait zure itzetan, baña lantegi ta beren ekoizpenak neuŕi gabe geitu ezkero, lateŕi aundienaren erosteko aalmena aski izango al da guzia eskuratzeko? Ustekoa da ori be gerta ditekela, ta orduan lateŕitik at beste zeyak

biīatu beaŕ; otian, lateŕiaren babesa ezin guzietarako naikoa izan.

—Diaz'ek: Gerta diteke, bai, zuk diñozun ori, baña noiz?, ez geurtz ez eta urte luzeetan barna ere; izatekotan urte ta urteen baŕu eiki, ta ori eltzen dan bitartean oso luzaro lanegin al-izango dute lantegiak lateŕiaren zeya zearo ustiatzen.

—Solozabal'ek: Salerosketan, bakoitzak saldu ta erosten du beaŕa zayona bakaŕik; ori da betiko legea, aldatzeko eziña; oŕengatik lateŕiak ere beaŕ-izango duena erosiko du ta besterik ez, eta bere babesa mail ontan bakaŕik emango du; ez, alakotz, emengoa ala angoa laguntzeko, bere beaŕa betetzeko baizik.

—Diaz'ek: Ortan ere ba-dago egia dan zerbait; baña auŕetik laguntzeko xedea ezpadago ere, lateŕiaren erakundea da, berez, babesten duena; oŕelaxe da, adiskideak, eta bidezkoa izan beaŕ guziontzat erakunde oŕi indaŕ aundiena ematea. Ta orixe da, ain zuzen, gertutzen ari dan uztaīleko alkaŕ-agertzearen bidez egin nai dana. Beraz, bidezkotzat artzeko, arean, langīleak ere bertan azaltzeko lenengoenetakoak izatea.

—Solozabal'ek: Ori ez da egia, iñundik ere, irakaslea; ez zuzen ez eta zeaŕez ere, uztaīlerako gertutzen ari dana ezta xede ortaz antolatzen, gure Euzkaleŕia suntzitzeko baño; ni beñepein ez nauzu atzipetuko, ez eta eŕi ontan lagun asko ere. Aŕ ditzagun gauza guziak berak diran lez.

—Zelaya'k: Bai, orixe egin beaŕ beti; ta nik bederen, arazo ortan, etzaitut lagunduko Diaz jauna; egin dezatela besteak bakoitzak nai-izango duena.

—Patxiko'k: Nik bai, ordea; naiz eta beste iñor irten ezpada, ni zure ondoan izango nauzu irakasle jauna, orain eta beti, zure bidea onena baita, gaur muzin dagozenentzat ere.

—Solozabal'ek: Oŕa yopu zindoa; oŕa bere anayen aurka jotzeko beti gerturik dagoena; okaztagaŕia aiz Patxiko, benetan; kalitzeko pizti egokia.

—Diaz'ek: Okeŕ zagoz, adiskidea, ta ongi dakust nik eŕi ontan Patxiko'k beste guziak baño adimen zoŕotzagoa duela.

—Solozabal'ek: Ederki!, oŕa jabe ta zakuŕa, bikote yaukala ... guziok gaitzetsi ditzagun, arean.

Jeiki ta alde-egin zuen Solozabal'ek, nardatu ta sumindurik oso. Besteak ere, aren atzetik, bakoitzak bere bidea artzean, eta ia beti bezela irakaslea ta Patxiko kalean zeaŕ alkaŕekin.

—Diaz'ek: Ez ajolik izan, Patxiko, arakiñak esan dizunagatik; neuk be uŕuñatzen ditut, ezinbestez, oŕen eta beste atzeratuen iritzi ta itzak. Lanegin dezagun biok gure egi-bidean, eta ia orain zenbat lagun lortzen ote dugun Gasteiz'ko kale-agiri aundira joateko. Ene ustez iragarki aundi bat egin dezakegu, Araya'ren izena ta lateŕiarenganako zaletasuna bertan, itz motz batzuen bidez, ageŕeraztean; eta beaŕ bada lateŕiaren ikuŕiña eramaten.

—Patxiko'k: Ontzat artzekoa da guzi ori, ta gogoz aleginduko naiz alik eta lagun geyenak irabazteko.

Eldu zan azkenez egoeŕitaŕentzako egun aundia, beren ayerkundea ordu onean ageŕerazteko unealdi egokia. Ta ara, gure irakaslea, Patxiko ta beste bi lagun Gasteiz'erako bidean argoiki zijoazela. Bi lagun, Patxiko'k lortu zuen uzta osoa; alarik ere, bere ta Diaz jaunaren xedea betetzeko naikotzat artu beaŕ-izan zituztenak; alegia, bi lagun oyen artean Araya'ren iragarkia eramateko, Patxiko'k beren ikuŕiña, ta irakaslea buru, jakiña.

Egun artan Egoeŕi guziko gizakien jokera beingoz ikusi al-izan balitz, ororen yainko altsua yauresteko, Eŕi osoak bere siñismenaren arau nagusia betetzeko yarduten zuela uste-izango zitzakean. Itun-Zaŕ' ean edesten zaizkigun Eŕi'en bilkura aundi ayen antzera edo; ala, gogo beroturik, zoraldi batean, iritzi ta biotz batez, axanpa berberak jota edo giriña orokaŕak kutsuturik, orori era berean ekiteko beaŕa ezinbestez eldu zitzayola, unealdi berean ere. Zer izan ote zan ura?

Uŕengo egunetan alde guzietako beŕiak bildu al-izan zanean, egoeŕitaŕ guziak, goŕoto berberak elikaturik ondorio ero batean azaldu zirala jakin al-izan zan, alkaŕen leyan oro, euzkaldunen aurkako eŕa adierazteko. Nola baña!

Agerpen aundi aren antolatzaīleak uste-izan zuten baño neuŕi askoz aundiagoan erantzun zieten bazteŕ guzietan. Berak esondatutako iru iragarkiak agertaldi batean ere etziran azaldu gabe geratu. Baña ayezaz gañera, bestaldez, amaika iragarki toki bakoitzean, bertako giriña, ayeŕa, kexu, apeta, aŕankura, iŕika, iski ta kiŕika, okada, asaŕe ta sumin, beazun, gaŕaztasun, ezin-ikusi ta naska, ..., gogo edendun, zitaltsu ta doīoŕenak aurki litzaken ayerkune ta gaitzondo sakonenak adierazteko, era ta itz zakaŕenen bidez, goŕoto berean guztiak eotuta.

Iragarki aundiak bestez, gizonek beren txapel edo kapeletan, emakumeak papaŕean, auŕak besoetan, zaŕ eta gazteak era askotan eta

txakuŕak ere beren lepo-ustayetan, beste amaika iragarki txikiak, norberak antolatu ala otutako idazkunak bertan jaŕita agertzen ziralarik; oro xede berberaz eginda, euzkaldunen, beren Eŕi ta izkuntzaren eta guziaren aurka, alegia.

An agertu zan Eŕi oso bat, eŕa berean bere seme ta alaba guziak alkartuta. Iñork, zer da Egoeŕia?, galdetu balu, antxe erantzun egokia: Orok bat Euzkaleŕi'arenganako etsaya. Ortaz ezin zalantzik izan; ba-zirudien ororen goŕoto artatik ziñotsoela Egoeŕi'arentzako bizi osoa; bai, bizi ala il jokuan, nai ta nai ez, ezinbestekoan, ari beaŕ zutela esango litzake edo esan liteke. Batzuetan paŕagaŕi, baña geyenetan negargaŕi, benetan, Eŕi oso bat ain ergelki jokatuz, ao batez gañera, ikustean. Ez jakiñez ala txartasunez, eŕitaŕ guziak, goiko ta beko, eŕakunde izugaŕian alkarturik.

Zer ote zuten, baña —bere buruari buruz Mikel mintzatzen— gure aurka ain oldaŕ eta bizkortasunez, ain isituki ere, yarduteko? Geron aldetik ez diegu kalte txikiena egin, ez eta itzez be; berak bai, ostera, euzkal-gogo ta biziari zegokien guzia zapaltzen ari ta ari, beren osasunerako izuŕi kaltegaŕiena izango baikiñan. Eta edestiari buruz atzokoa zan garayan gure Eŕia bere esku bizi zala gogoratzean, bai ta egoeŕitaŕak ain zuzen, ipaŕeŕitaŕen laguntzaz, indaŕez eta maŕoz, menperatu ginduztela oroitu ezkero, nor ote asaldatu beaŕ zuena, ain ertsiki jasatzen duen egokera zapagaŕi ta gogoŕaren aurka?

Baña egoeŕitaŕen artean oldozketarik ez, astirik ez, zer zegiten ongi atemateko ere; orokaŕa zan jokera yauzkoŕean sartuta, oldarkunde berak zeramazkien guziak, asko ta asko nola etzekitelarik, bein artu zuten elburu berberarekiko. Egun guzian zoroen antzera oyu ta deadarka ibiĺi ondoren, etxeratu ziran gabaz, atseden artzeko beaŕean, baña lasai ta pozik, eginbeaŕ aundi ta gaŕantzitsuena bete bailuten. Egun gogoangaŕia ura bakoitzarentzat eta Eŕi osoarentzat ere.

Egoeŕi'an etzan deadaŕik baño besterik izan. Ez, ala ere, oŕela Euzkaleŕi'an; euzkaldunenganako goŕotoaz, bertan kalera irten ziranak, naiz egoeŕitaŕak naiz beren aldeko zegozen euzkaldunak ere, uste baño geyago auek zoritxaŕez, deadarka ari ondoren, euzko-abertzaleen batzokietara jo zuten gogo zitalenaz aseturik; eta ate ta leyo guziak ertsiki itxita aurkituaŕen, itxu-itxu, laisteŕ apurtu al-izan zituzten saŕ-leku guziak; eta baŕuan iñor aurkitu gabe, oro sukarturik, naiz eŕedizeak naiz lauki, idazti ta aurkitu zuten guzia ebaindu ta abaŕikatu zuten, zorakeri izugaŕiak bultzaturik. Eta gaitz-erdi esan beaŕ

oindiño, etxe ayetan, orduan, notiñik ez egotea; bilduŕ izateko, osterantzean, bertan zer gerta zitekealarik oldoztean.

Ĩlundu zan egun ura ere, iñoiz argitu beaŕ-izango ez zitzakeana; ta iĺuntasunez ixildu beaŕ deadaŕak, amaitu beaŕ jokerak, etxeratu beaŕ guziak. Uŕengo egunetan, egoŕitaŕak pozez beterik agertzen, berentzat egun gogoangaŕiena bezela gogoratu ta ospatu zutelarik, gogoz eta atsegiñez. Bat ere etxean geratu gabe —berak ziñotenez—, guztiak kaleratu ziran abeŕiarenganako sukarturik eta beren biziaren alde bipil jokatzeko. Ongi erakutsi zieten euzkaldunai beren gogo ta naya zeintzuk ziran; argi ta garbi zematu ere, gañera, gerorako. An etzegoen txantxetan ibiltzeko biderik, eta biuŕiak men-egin nai-izango ezpalute ... uŕengoan txartoago berentzat, bidezkoa izango litzaken zigoŕ aundiena jasan beaŕ-izango lukete enurarik gabe.

Diaz jauna, bere iru lagunekin, pozik itzuli zan Araya'ra, bere atzean, Gasteiz'en ere, indaŕ aundia zegoela ikusi ondoren. Eta eŕian sartzerakoan, Patxiko'k eupadako deadaŕak jo-ta-su bota zituen, egun artan bereganatutako kaŕ eta berotasunaz beterik. Atsegiñezkoa ura irakaslearentzat, begi-bakarduna beti bere esanera izango zala ikustean eta edozertarako gañera. Ongi erabiĺiko luke berak aren menpetasuna.

Euzkaldunen aldetik, jasan beaŕ-izan zituzten kalte guziak epaikariai salatu zizkieten naiz eta alpeŕik izango zan uŕatsa eman zutela jakin. Epe txiki baten baŕu, beŕiz asi ziran beren bidean barna ibiltzen, eta jazotakoaren beŕia ematen aurki atera zan «Eŕi-Deya» guziaren idazpuru au ageŕerazten: «Goŕoto-ekaitza». Oso argi ta garbi adierazten zuten idazleek, goŕotoaren bidea, guzientzat, bide txaŕa zala; gizon eta Eŕi'en eskubideak beti aintzakotzat artu beaŕ zirala; edonorekin eta gizonki beren ebazkizunari buruz mintzatzeko gerturik zegozela; beren xedea Euzkaleŕi'aren biziari eusteko baño besterik etzala, ta ori berentzat, eskubidea baño eginbide ertsia zala; ta ezin-eziña zutela eginbide ura bete gabe geratzea.

Ba-zekiten, ala ere, ayek, bururakizun egokienak ezertarako izango etzirala, ta beste goŕoto-ekaitza be noiznai elduko zitzayela; baña iñola ere etzuten atzera egingo iñoiz.

Ekaitzaren ondokoak

Izadian gertatzen dana, gizadiarengan ere askotan, berdin-berdin ezpada, antzekoa bai bederen. Noski, gizadia izadian baitago ta bere zati nagusia bezela gañera; bidezkoa ere, alakotz, gizadia izadiaren azpegi berezia dala esatea; ala gizadiaren baitan izadia, bere edadura bedegaŕaz agertzen dala ere. Itzetan bertan ia berdin diralarik, asmo berbera edo adierazteko dugu, bigaŕenean lenengoa pizkat aldaturik eta onen xarmenean bestea egokiro kokatua; gizadia, alegia, izadiaren barne-barnean dagoelarik.

Otz eta bero, argi ta ilun, distiratsu ta zurbil, alai ta itun, loŕ eta arin, ..., alkaŕen antzera ikusteko izadian eta gizadian, orobatsu, aldi, une ta egunetan barna; zio berberagatik batzuetan, kari ezberdiñen ondorioz besteetan, baña beti iduri aundia erakusten. Gizadia, izadian sortuta, sortzaile baten sorkaria izanik, beraren eite izan beaŕ, eta gertakizunetan ia ainbateko agertu ere; sortzaile ta sorkariaren arteko antza, arean. Itzak berak, beren egituran be, orixe adierazten edo dutelarik.

Izadian gertatzen diran ostagien artean ekaitza da bildurgaŕiena; uda betean sorturik ere, eguraldia erortzen da, goibel, ilun-ilun biurtu arte; aizea zakarturik ia guzia eŕotik atera ta noranai eramateko aña, toki batzuetan saŕi oŕela gertatzen danez; euria zapaŕadaka odeitzari diñotso, bazteŕetan ura gaindika ta uaŕez doalarik; eta ikara ta saŕakio soŕerazten dituzten tximista, iñuzturi ta ortzantza, ikusi, entzun eta jasan beaŕ nun-nai. Itxasoan gertatuz, bildurgaŕiena edo, ta laŕi beti oŕen zeaŕ igaro beaŕ duten itxasontziak; baña legoŕean ere izututa gizaki ta izaki zentzundunak oro. Ta kalte negargaŕirik gabe igarotzen danean, argi ta baretasuna gero, yoranez beteta pozik gozatzeko.

Ba-dagoz gizadiaren bizian barna antzekotzat aŕ ditezken beste ekaitzak gizonaren soñari naiz gogoari erasoten dietenak; batzuk gizon bakaŕa danarekiko ta beste batzuk aundi edo txikiagoak diran gizonezko taldeai buruz sortzen diranak, zioak aunitz diralarik.

Oyetako bat izan zan, eta ez txikia, Egoeŕi osoan auŕeko uztailean zart-egin zuena; ez otoz-otoan, gero, lentxoagotik eltzen zala ikustean, ez eta berez sortua ezinbestekoa zan zerbaiten ondorioa bezela ere, oso auŕetik zeatzez eta ajolaz antolatutakoa baño; ez iñolaz zoro-moro nor edo nor erasotzeko asmatua gañera, zuzen eta bereziki Euzkadi'ren aurka baizik.

Lateŕi osoa alkarturik agertu zan, bat eginda, Euzkaleŕia areriotzat artuta, gizaki guziak ekaitz artako aize, zapaŕada, tximist eta ostots biurturik. Oso egokiro izendatua izan zan «Eŕi-Deya»'n «goŕoto-ekaitza» deitzean; goŕotoa izan baitzan nagusi eztanda ura eragiteko; bere sorburu, ta gizakien jokera ondorekoa, kari ta ondorioa bezela.

Egun zaratatsu aren uŕengoetan, ari buruz idazten eta idazten ari-izan ziran bazteŕ guzietan, Egoeŕiko izpaŕingi guziak; lateŕiaren garaipena odeyetaraño goratzen, edestian barna ordurarte lortutako gurenda aundiena izan zala bayezten, etxean bertan sortutako etsai amoŕatuena betirako zapalduta utzi zuela nabaritzen. Endeŕi'ak bere sumindura sakon eta zuzena ageŕerazteko beaŕ-izan zuelarik, bere eginbidea bete zuen egokienik, eta ala bein-betiko suntzitu ere, bizia azpi-jaten ari zitzayon pipi goŕotagaŕia.

Oro ta betiko buruturik geratu zalakoan, lasotasun zabala guzien baitan, beren aburuz lan aundia betetzen eta izerdiz ondo nekatuta, ororen uzta yoria axe zala ustean; beraz, auŕerantzean kexutasunik ez, itzalik ere ez lateŕi ta lateŕitaŕ guzien bizian. Beyondeyola! alkaŕi esateko aña. Beren antustean, ua beaŕezko ondorioa izateko; nola ez?, endeŕi osoak, garaitasunez beteta, bere epaya eman ezkero! Etzegoen besterik, ezin.

Euzko-abertzaleentzat, egokia benetan burgoikeri ura, epe baterako bederen arerioentzat aiztuta bezela geratu ziralako; alaz ere etzan oso luzerako izango; eta bitartean aldi onuratsua beren lanean auŕera jo al-izateko; etzuten, ez, alpeŕik galdu, lengo zema guziak uŕuñatzen eta batik bat beren abeŕiaren ebazkizunari eustean, norberarena bezela orok guztiz onarturik zeukatelako. Eŕi'aren beaŕean, bere biziari buruz siñismen-beterik ari-izateko, ezinbestekotzat arturik zuten aututako bidean barna zingun-zangun beti auŕera jotzeko.

Egoeŕitaŕen lasai-aldi zabal artan, etzan Araya'ko irakaslea izan atsegin gutxiena bereganatu zuena, ta bere-berekikoa zan izakiaren alde ta azpegi guzietatik poza zeriola euŕez; batez ere Gasteiz'etik

itzuli ondoren lagunengana lendabiziz agertu zanean, azalak ere ez eban ondo artzen; eldu ta bereala asteko mintzatzen:

—Diez'ek: Aguŕ adiskideok, emen nauzute beŕiz ere, beti bezela, zuekin atsarte on bat igarotzeko gogoaz; ongi guziok?, ba al duzute beŕi onik?

—Solozabal'ek: Aŕatsalde on irakasle jauna, ongi etoŕi; baña egia al da beti bezela zatozela?; zure atz-begiak ikustean, ezetz esango nuke nik bederen; eta ba-dut susmoren bat beŕiak entzuteko baño, emateko eldu zerala. Ez ote egia?

—Diaz'ek: Ai, ai, ai, arakiña; zu beti zirikatzen ari beaŕ, baña bost ajola. Bai, bai, ba-dauzkat beŕiak ugari ta ez ene baitan bakaŕik gordetzeko asmoz, arean. Uste ere, ongi uste dezakezute nundik eta nolakoak izan ditezken nire beŕiak; eta bearbada entzuteko iŕikaturik edo zagoze.

—Ango lagun batek: Bai, ene aldetik beintzat, egia diñozu; badakigu Gasteiz'en egon zeratela, zerori, Patxiko ta beste bi adiskide, ta alde ortatik edo sortu beaŕ zeroŕek eman nai dizkiguzun beŕiak.

—Diaz'ek: Bai ba!, nundik obeagorik? Egia diñozuet, ene bizi guzian izan dudan alaitasun aundienetakoa joan dan igandean nireganatua izan da; ta oindiño poztasun ori auznartzen ari natzaizue gozotasuna bera laket-arazten didalarik; eta ni bezela nirekin egon eta ibiīi ziran guziak ere, zalantzik ez ortaz.

—Zelaya'k: Ondo ibiīi zeratela argi erakusten diguzu, bai; ta ez al dizkiguzu ango beŕi batzuk zeatzez emango?

—Diaz'ek: Noski ta pozik ere, jakiña zuek entzun nai baduzute.

Maltzurkeriz esan zuen ori, ingurukoak entzun baño berak yaulkitzeko gogo aundiagoa zuelarik; eta guziak ari so zegozela ikustean, iīaŕainduta, onela jaŕaitu zuen:

—Bai mutiīak!, ikustekoa izan zan Gasteiz'ko kale-agiria; miīaka lagun bertan zijoazela, beren iragarki aundi ta txikiak asko, beren ikuŕiñak eŕuz, lateŕiarenak geyenak, eskuetan, jantzietan itsatsita batzuk, ..., zeramazkitela; eta deadarka, abesten, ..., guziak xede berbera adierazten; lateŕiari eutsi beaŕ zayola aldaŕikatzen eta bere etsai guziak araokatzen. Ordu luzeetan barna guziok alkaŕen leyaz jokeraetan, bat agertzen giñalarik; eta gero jakin dugunez lateŕiko uri guzietan orixe bera, orok berdin, nun geyago ala gutxiago izan zanentz esateko ezin. Eta baitezpadako ondorioa, auxe: lateŕiaren aurka jokatzea edonori eziña izango zayola, oŕekiko uŕats txikiena ere lateŕi

guziak zapalduta izango dalako; ustekoa da ortan ari ziranak beinbetiko ixilduta geratuko dirala.

—Solozabal'ek: Eta guzia zuk diñozun bezela gentzaz igaro al zan?; ez ote buŕuka edo indarkeriren bat iñun?

—Diaz'ek: Nik dakidala buŕukarik ez, baña uste diteken indarkeritxo bat edo bat bai. Gasteiz'en bertan eta Euzkaleŕiko beste uriburuetan ere, gazte sutsu batzuek euzko-abertzale oyen batzokietan, itxita aurkitu zituztelako, indaŕez sartu ziran eta, nork geldi-erazi gazte oldarkoŕak? ..., toki ayetan sartuta, baŕuan gauzatxo batzuk apurtu omen zituzten.

—Patxiko'k: Gauzatxoak ez, Gasteiz'en bederik al-izan genuen guzia abaŕikatuta geratu zan zearo, ta gaitz-erdi berentzat, an iñor aurkitu etzala, osterantzean...

—Solozabal'ek: Zemakoŕ ari aiz, Patxiko; zer? iñor eraiīen ote zenuketean leku artan egon ezkero?

—Bilkurako beste lagun batek: Oŕen bilduŕ izan litekek zoritxaŕez; nork esan giza-talde sumindu batengandik zer jazo zitekean; baña eztiat uste Patxiko'k iñor ilko likeala; zer diñok euk?

—Patxiko'k: Eztikiat bayetz erantzuten, baña ez eta ezetz ere, etzekiat...

—Solozabal'ek: Ai! kankaīu ori, alen ori!, nola oŕezaz eta ire buruari buruz zalantzan egotea?; baña oso bera jausita ikusten aut eta bilduŕ nauk iñoiz igandik ankerkeriren bat sortzea. Ta zuk Diaz jauna, zer diñozu?

—Diaz'ek: Egitan iñor eztala il beaŕ; baña batzuetan ori egiteko kinka txaŕean egon diteke gizon bat, eta...

—Solozabal'ek: Eta zer?; ontzat artuko al zenuke, esate baterako, orain soŕerazi duzuten giro ortan, Patxiko'k edo zeuk edo beste batek erailtzea? Lateŕia yainkotzat artu duzutenok, lateŕia dala-ta, oŕelakorik egingo al zenukete?

—Diaz'ek: Neuk ere, Patxiko'k bezela, eztakidala darantzukizut, baña lateŕiaren aurkako ekitean, ortarako zioa, ta zio aundia ba-dagoela, nork ukatu? Ta yardespena jokera ori soŕerazi dutenengan, noski.

—Solozabal'ek: Bein eta beŕiro ta miīa bideŕ beaŕ bada ere, gurean lateŕiaren aurka iñor be ari eztala esango dizut. Euzkaleŕi'an sortu ta indartu dan oraingo jokera gure Eŕi'aren biziari eusteko bakaŕik yardutean dugu, ta ori oŕela eztala esango duen edonor gezurti

aundia, gizatxaŕ aundiagoa ezpada. Ta entzun ondo, irakasle jauna, ementxe, gure eŕi ontan, edo beste batean, onen zorigabekoa dan Patxiko onek gaiztakeriren bat egingo balu, erantzukizun guzia zurea izango litzake bete-betean, onen gaña artu duzulako, zuk eratu duzulako ta zeroŕek bakaŕik bizi ontan gizarajo onengan eragin dezakezuna zeralako. Aintzakotzat artu guzi ori, egi utsa baita.

—Diaz'ek: Geyegikerietan ari zera, adiskidea; ez bilduŕ-izan, ez Patxiko'k ez eta neuk be eztugu iñor erail beaŕ; eta zuk ere ez aiztu lateŕiak ba-duala indaŕa naikoa ta geyago ere, bere aurkako egin ditekena poŕokatzeko, ta ziuŕ egon oŕela enurarik gabe egingo duela.

—Solozabal'ek: Zuk diñozu ori, baña eztakit zure baitan zer dagoen. Eŕan: zuen kale-ageri guzietan ez al duzute yardun il beaŕ dala esaten? Ez ote iñor orixe egiteko gerturik ere dagoela? Oso bilduŕ naiz bayetz erantzuteko beaŕa izatea. Baña au ere entzun ondo, zeroŕek eta besteok: Ludi ontan iñork eztu beste iñoren bizia erailtzeko eskubiderik, ez eta epaīlari aukerakoenak ere. Orixe da guziok barnebarnean onartu beaŕ dugun oiñaŕia.

Iñork etzien arakiñaren azken itzai ezer erantzun, eta besterik gabe bīlera ura amaitu zan, besteetan bezela bakoitza bere aldetik joateko.

Etziran ayek izan ez eta egoeŕitaŕak ere, kale-agertze aren ondorioak aztertzen ari-izan ziranak soīlik. Euzko-abertzaleak ere aŕeta aundienaz ondo begiratu zuten, gertatu zan guzia lenengoz, eta beren jokera gero, egokiena nola izango zitzayen aztertzeko; xede ortaz beren erakundearen artezkariak lau zinkideai ta Gexan'i dei-egin zien, egun bat edo bitarako Gasteiz'era erdu zitezen, guzien artean batzaŕ txiki bat egiteko; etzitzayen iruditzen erakunde osoaren batzaŕ aundi bat bereala egitea egokia izango litzakela, baña auzia azterkatzea lenbailen egiteko beaŕa zegoela ustean, berak asi litezke lanean, eta lortu al-izango lituzketen erabiltzeko erabaki-gayak gertu litzakete uŕengoan deituko zuten batzaŕ orokaŕean aurkezteko.

Guzien bayetza artu zuten bereala, edozein egunerako ere; beraz, aurki autatu zuten alkartzeko eguna, ta an agertu ziran guziak zindo-zuŕian, leyaz beterik; amabiren bat bilduta, Biana idazkari izateko.

Erakundearen lendakaria asi zan mintzatzen, guzioi ongi etoŕi bero bat zuzendurik, onela gero jaŕaitzeko:

—Gertatu dana gertatuz eta Egoeŕi lateŕiak gure aurka egin duena nolakoa dugun begiratuz, baitezpadakoa iruditu zaigu bilkura on-

tara zuek deitzea. Ziñez, batzaŕ orokaŕ berezia egiteko, ba-dagoz gai ta zio, baña alde batetik astiro ta aŕetaz ibiltzea ta bestetik berandu gabe egin beaŕ-izango dugun batzaŕ ori ongienik gertutzeko, noraezekoa iruditu zaigu erakundea zuzentzen ari geranok biltzea, zuekin, zinkideok eta Gexan'ekin, gaur gure arazoa nola dagoen ikusteko ta auŕerako ongienik nola jokatu beaŕ dugun aztertzeko; ta esan beaŕik ez, guziok auŕera jotzeko gerturik gagozela, ziuŕ, zema guziak aintzakotzat artu eziñean. Begira ditzagun, alakotz, gure iritziak erkatzeko ta gero ia batzaŕ orokaŕean aurkezteko egitarau egoki bat burutu ote dezakegun.

—Sabin'ek: Oso ongi deritzait egin duzutena, ta eskeŕik ainitz, zuen asmoa dala-ta, nitaz gogoratu duzutelako. Benetan, gure bidea zakartzen ari zaigu gero ta geyago, bidezkoa danez; lateŕiak eztigu iñoiz ontzat artuko gure elburua, naiz eta ori gure eskubide osoa dala guztiz ongi jakin; baña jakin ere ba-daki, ta geuk be, indarduna dala ta, eskubide guzien gañetik, indaŕ utsaz jokatuko du, jakiña, Euzkaleŕi guzia alik eta geyen bereganatzeko. Geroz, ene iduriko, bi egipen auek auŕean jartzea dagokigu: lateŕiaren xede ta indaŕa, bat, eta gure eskubide, beaŕ eta naya, bestea; ta elkaŕen aurka dagozen bi jokera oyen artean, ezinbestez, buŕukatzeko beaŕa sortzen zaigula.

—Lendakariak: Zurekin nago erabat ortaz, osoro, ta ene ustez berdin zagoze beste guziok ere. Orain, gure buŕuka nola eraman beaŕ dugu?, gaur arte bezela ala jazotakoarengatik nolabait aldatuz?

—Xabier'ek: Beaŕ-izan ezkero, egokia izan diteke gutxi ala asko aldatzea, baña nola?, zertan?, zeri buruz?; alde ta aurka izan ditezken azpegiak sakonetik aztertzea beaŕ-beaŕa zaigu.

—Mikel'ek: Eztakit gure ekintzetan ezer aldatu beaŕ-izango dugunik. Gurekiko bai, arazoaren ikusguneak aldatu dira, zemak len baño aundiagoak ditugu gañean eta egoeŕitaŕen eŕakundea ere geitu zaigu; baña auŕera jo-egiteko noraezean geron aldetik eztut uste ezer aldatu beaŕ dugula; alaz ere jazotakoak eraginda, egokia izango zaigu beste zerbait geyago egitea. Zer izan diteke ori?, oŕa nire iritziz ajolaz ikusteko duguna.

—Eneko'k: Izpidean agoela uste diat Mikel; egia da giroa gorbiztu zaigula ta ez gutxi, baña alan eta guzti ez dugu gure ekintza ezertan moztu beaŕ, ene aburuz. Dana dala zuek besterik erabakitzen baduzute nik ontzat artuko dizuet guzia.

—Sabin'ek: Gure jokera aldatu ala ez, gure aurka egindakoari erantzun egokia ematea niri ere beaŕezkoa deritzait; otian, emen ere bi gauza ditugu begiratzeko.

—Landakariak: Bai, egia diñozu Sabin, baña zuei entzunda bat bakaŕik geratzen dala dakust nik, Mikel'ek aipatu duena, ekintzetan aldatzea ontzat artzen eztuzutenezkero. Barka ezaidazute, alarik ere, aldaketaren bat egitea, apika, egokia izango litzakela esatea; ez, noski, ezer moztutzeko, geitzeko baño. Ona emen nire asmoa: naiz izkuntzari buruz, naiz edesti, eresi ta euzkal-gogo-lantzearekiko, ez al genitzake lanak geitu ta zabaldu al-izan? Ene ustez ontzat artuko lirake bazteŕetan, eta oyen bidez egoeŕitaŕengan ezer lortu ezpadezakegu, eŕitaŕen artean bai ene iduriko; ta bide ortatik, nork esan?, gogaide beŕiak soŕ litezke. Ori guretzat irabaztea izango litzake, ta gure etsayentzat, aitzitik, galtzea.

—Sabin'ek: Ontzat artzekoa da ori ta eztut uste naiz orain gure artean naiz gero batzaŕ orokaŕean, asmo oŕen aurka iñor irtengo danik. Alakotz, ia egoeŕitaŕek egindakoari nola erantzun beaŕ diogun geratuko zaigu erabakitzeko.

—Lendakari'ak: Erantzutea ezinbestekoa dala deritzait, bi eratan gañera: lenengoa, auŕeko gure bidean barna jaŕaitzea izango dugu ta ortaz batera gatoz guziok. Bigaŕena, orain lateŕiko toki guzietan egindakoari ertsiki erantzutea izateko. Nola egin erantzun ori?, oŕezaz be eztut zalantzik, onela: idaz-azalketa, al diteken labuŕena, baña zabal naikoa egitea; lendabiziz zuzen lateŕiaren jaurlaritzari bialtzeko, baña bide batez Euzkadi'n ateratzen diran aldizkari guzietara ta lateŕiko uri aundietan agertzen diranai ere. Ta azalketa ortan, gure asmo ta egipenen azalpena ematen eta auŕera jotzeko gure gogo sendo jakin-erazten.

—Xabier'ek: Oso ontzat artzekoa da ori, niretzat beñepein, eta guziontzat berdin baldin bada, azalketa ori gertutzea geratuko zaigu betetzeko lan beaŕa.

Bildutako beste guziak berenak egin zituzten Xabier'en itzak, eta orduan:

—Lendakari'ak: Ederki, goazen, bada, orain azalketa ortan ageri beaŕ diran asmoak ikusten, eta gero Biana adiskideak eta zuenetako bat edo bestek, idazkia ongi atondu dezakezute; oŕela biarko gure biĺeran osoki amaituta ondo dagoenentz begiratuz, beaŕ-izan ezkero zuzenketaren bat egiteko ta ontzat artzeko gero; zer esanik ez, uŕengoan egin beaŕ-izango dugun batzaŕ orokaŕean aurkezteko; ta an be ontzat artzen bada, bereala bidean jartzeko. Beaŕezkoa zaigu, ene iduriko, uŕats oyetan ari-izatea; ta oyen aurka ezer esateko ezpaduzute, oraintxe bertan, idazkian ageŕerazi beaŕ ditugun asmoak zeintzuk izan ditezken azteŕ ditzakegu.

Oŕi buruz ere guziek bayetz erantzun ondoren, beŕiz:

—Lendakari'ak: Ausaz, ene ustez, lenen-lenengoa, lateŕi osoan gure aurka egindakoagatik, gure *yardukitzea* izan beaŕ, ain zuzen lateŕiaren aurka dagigula salatu zaiguna *egia eztala* nabari-erazten; eta gure elburu nagusi ta bakaŕa gure Eŕi'aren *biziari eustea* dala bayezten. Ia zuek, nai baduzute, beste asmoak, nirea ontzat artzen baduzute.

—Sabin'ek: Ondo deritzait oŕezaz astea, baña oŕen uŕengo, beaŕbeaŕena auxe: Orain ogetamaŕen bat urte, gure Eŕia *bere esku* bizi zala gogoratzea, ta orduan Ipaŕeŕi ta Egoeŕi'k alkaŕ lagunduz, *menperatu ginduztela, beren izkuntzak, gogo-lantze, lege ta oiturak indaŕez, guri onaŕerazten.*

—Xabier'ek: Bai, baña biziarekiko *beren antolabideak* ere aŕerazi zizkigutela gañeratzen, *gureak ziranak baztertzeko*; guzia indaŕez ere.

—Eneko'k: Izari ortan, *izkuntzaren jazarpena* bereziki nabari-erazten, ene iduriko.

—Mikel'ek: Nire iritziz, gure Eŕi'ak Ludi'ko beste Eŕi guziak bezela, *bizi-izateko*, ta bere *bizi bedegaŕaz bereziki bizi-izateko, eskubide osoa daukala* nabaritzea beaŕ-beaŕezkoa izango da; bizi oŕen bidez, gañera, euzkal-gizonaren *goratze aundiena lortu al-izateko*, ain zuzen, oŕela, bere Eŕi'arentzat eta gizadiarentzat ere, *onuratsuena* izan dedin. Eta, esan beaŕik ez, ortarako Eŕi'aren *azkatasuna ezinbestekoa* dalarik.

—Sabin'ek: Egokiak ditut zuek esondatutako asmoak; baña oyek guri ta edonori buruz aurkeztekoak dira; ene ustez, gure Eŕi'ari dagokion biziaren alde jotzea, guretzat *eskubidea bakaŕik* eztala esan beaŕ da, euzkaldun-zuŕian *eginbide ertsia* ere dugularik; eta eginbide ori dala gure ekintzetara baitezpadakoz bultzatzen gaituena.

—Lendakari'ak: Ongi goazela uste dut, eta ia au ere gañeratzea zer deritzaizuten: Gurea bezelako *ebazkizunetan*, ez *indaŕez* ez eta gutxiago *indarkeriz, aterabiderik* aurkitzea eziña dala; ta bide onena *solas zintzoak* egitea egokitzat artzekoa dalarik. Ortarako, naiz Egoeŕi,

naiz Ipaŕeŕi'ko yaurleekin, ta edozeñekin ere, *mintzatzeko gerturik* gagozela; berdin *bakarka* ta *bereziz* edo *eŕi-auŕean, agirian.*

—Mikel'ek: Oso ondo guzi ori ta, apika, oŕen betegaŕia izan liteken beste asmo au ere adierazi genezakelakoan nago: Gure bideak, *gentza-bideak* izan ditezela nai dugula; ororentzat *gentza aundiena* opa diogula bayezten. Eta gure euzkal-biziari eutsi al-izateko azkatasuna lortu ondoren, ipaŕ eta ego-aldean dagozen Eŕi'ai buruz *auzoko on eta zintzoak* izateko gogo biziz gerturik gagozela.

—Gexan'ek: Bakartu, ene aldetik oso ontzat artzen ditut esondatzen dituzuten asmoak, baña batez ere *Ipaŕeŕi'ari buruz ekiteko xedea* agertzen duzutelako; egitan ori oso beaŕa baita, angoak ere *gure aurka aztoratzen eta sumintzen* asi diralako. Ba-nuen asmoa ene aldetik orixe emen eskatzeko, baña beaŕik ez orain, ongi erakutsi baituzute ipaŕaldeko gure bazteŕaz aiztuta ez zagozela. Ta zuen poztasunerako, ango udala batzuetan ere gure asmokideak sartzen asi dirala jakin-erazi nai dizuet; eta oŕela Euzkaleŕi guzian gure jokera berdin dala nabaritzea, benetan, atsegiña niretzat.

—Lendakari'ak: Eta guretzat ere, Gexan, enurarik ez. Baña esandakoa naikoa edo dala uste dut, idazki egoki bat osotzeko; beraz, nai baduzute, bilkura au amai dezakegu. Biana ta zuenetako bati edo biri aŕatsaldea utziko dizuegu bein-betiko idazkia egin dezazuten; eta biar osorik onartzea ala beaŕik izan ezkero egokia izango dan zuzentzea egiteko.

Bidezkoa iruditu zitzayen ura guziei ta uŕengo egunean beŕiro bildu ziran, Biana ta Xabier'ek atondu zuten idazkia begiratzeko. Bilkura asi bezin laisteŕ, lendakariak Biana'ri idazkia irakurtzeko eskatu zion, eta bereala idazkariak onela egin zuen:

Euzkaleŕi'ari, Ipaŕeŕi ta Egoeŕi'ko jaurlaritzai ta endeŕi oyen gizaki guziai, adei-onez beterik, Euzko-Erakunde-Abertzale'ak zuzendu nai dien mezua:

Joan dan uztaïlean Egoeŕi lateŕi osoan burututako gure aurka izan zan ageŕaldian nabari-erazi ziran asmo ta xedeai buruz gure erantzuna ematea beaŕ-beaŕa zaigu; alde batetik asmoetan egia agertu etzalako, ta bestetik gure buruari eustea, eskubide ta eginbide, batera, ezinbestekoa dugulako.

Emen diñogunez, adei-onenaz eta gentza aundienaz yardutea da gure barneko xedea, ta era berean gure idazki au onartzea, orori, gartsuki eskatzen diogu. Ona emen gure izpideak:

1. Ez da egia gu lateŕiaren aurka ari gerala; guk Euzkaleŕi'aren biziari eutsi nai diogu bakaŕik.
2. Urteak asko joan eztirala gure Eŕia bere esku bizi zan.
3. Zoritxaŕez gure arteko liskaŕ eta izka-mizka zirala-ta, ura ustiaturik, Ipaŕeŕi ta Egoeŕi'ak alkaŕ lagunduz, menperatu ginduzten, gure Eŕia bi pusketan zatituz eta beren artean zati bana banatzen.
4. Gu zearo menperatzeko, beren izkuntzak, gogo-lantzeak, legeak eta oiturak, indaŕez, onaŕ eragin dizkigute, gurea zan guzia bazterturik uzteko. Orotan beren antolabideak gotorkienez ezartzean.
5. Lenengo egunetik gure Eŕi'ak oyen jazarpen aundiak jasan beaŕ izan ditu, ta, zalantzik gabe, aundiena izkuntzari buruz egindakoa dugu.
6. Gure Eŕi'ak, Ludi'ko beste guziak bezela, bere bizi bereziaz bizi-izateko eskubide osoa dauka.
7. Bizi ori egitan izateko, azkatasuna zaigu beaŕ-beaŕena; bizia geuk atondu ta zaintzeko, euzkal-biziaren eskeŕ euzkal-gizona al diteken guzia goratzeko, ta goi-mail ortara elduta, naiz berarentzat, naiz Euzkaleŕi ta gizadiarentzat ere onuratsuena izan dedin.
8. Guretzat elburu oyetara eltzeko eskubide osoa dugu, ta ortarako alegiñak egitea eginbidea ere, utzi ezin dezakegun eginbide ertsia.
9. Gurea bezelako ebazkizunak, ezin ebatzi ditezke indaŕez, gutxiago indarkeriz, solas zintzoen bidez baizik.
10. Gure aldetik naiz lateŕien yaurleekin naiz edonorekin mintzatzeko gerturik gagoz, berdin bakarka berdin agirian.
11. Guzirako gentza-bideak erabiltzea nai dugu, ta gentza da guziei opa dieguna.
12. Gure Eŕi'aren azkatasunean, auzoan ditugun beste Eŕi'ekin batez ere auzoko onak izateko naimen osoa dugu.

Ontzat artu zituzten bildutakoek Biana'k irakuŕitako amabi izpideak, auŕeko egunean aipatutako guzien asmoak ondo bilduta zegozelakoan. Eta aŕezkero, euzkaldunenak bezela, nun-nai oŕela ere «amabi izpideak» deituak izango ziran.

—Lendakari'ak: Geroago antolatu beaŕ-izango dugun batzaŕ orokaŕera eramateko gai gaŕantziduna borobildurik daukagu; ta an ere ontzat artzen bada, bereala lateŕi bietako jaurlaritzai ta aldizkarietara bialtzeko asmoz.

—Orain, gure bideetan barna nola jaŕai gaitezken begiratu beaŕ dugu; alde batetik, noski, gure zabalkundea egiten, gure eŕitaŕak gero ta geyago gureganatzeko xedeaz, ta, oŕela, Eŕi'aren naya nabari ta indartsuago ageŕ dedin; ori izango dugu beti beaŕ-beaŕezkoa zaigun lenengo indaŕa. Baña gero bigaŕena ere gureganatzeko alegiñak eten gabe betetzen ari beaŕ-izango dugu, Europa'ko Eŕi menperatuekin alkartzean eta edozein mugonerako antolaturik eukitzeko asmoz. Zu zera, Gexan, lan ori zure gain daramazuna ta oŕekiko guri esateko zer edo zer ba-duzula ustekoa dut, ez orain bertan baña gure batzaŕ orokaŕean bai, ene iduriko.

Gexan'ek oŕela zala erantzun zuen, naiz batzaŕ aundian naiz txikian ere, beaŕa izan ezkero.

—Lendakari'ak: Ez da beaŕa, ez, orain oŕezaz geyago esatea, ta uzten banauzute beste zerbait aipatu nai-izango nuke emen, gure lan guzien artean eman beaŕ-izango dugun beste uŕats bateaz nire iritzia ageŕerazteko.

—Guziok ongi dakigunez, ba-goaz ariz-ariz, udaletan gure gizonak sartzen eta onezkero uri aundi batzuetan ere abertzaleak dagoz gure asmoen alde jokatzen. Bide ortatik jaŕaitzea ezinbestekoa zaigu, baña ez al genuke beste ainbeste egin beaŕ gure Aldundegi'etan ere? Ori be beaŕa zaigulakoan nago ta ortara jo-egin beaŕ-izango dugu, naiz eta egoeŕitaŕek ezkeŕeko begiz begiratu. Ain zuzen datoŕen urtean, udabeŕian edo, toki oyetarako auteskundeak izango dira ta ustiatzeko mugona izan diteke guretzat. Ez al duzute uste oyetan geu ere azaltzea egokia izango dala?

—Sabin'ek: Enurarik ez zuri bayetz erantzuteko, ta nire gardiz ezinbestekoa izango zaigu beti al-izan ditezken oŕelako toki guzietan sartzeko alegin guziak egitea; orixe gure xedeetarako bidea dugularik. Uŕun xamaŕ dagoz oindiño zuk aipatu dituzun auteskundeak egiteko egunak, baña oso egokia izan beaŕ lenbailen zera ortarako uŕatsak ematen astea.

Aburukide agertu ziran guziak ortaz, eta beŕiz:

—Lendakari'ak: Ziuŕ nengoen ortaz ere oro bat izango giñala. Ni oŕezaz oldozten ari-izan natzaizue saŕi, ta aldundegietan geurtz leku

guziak aldatzekoak izango diranezkero, leku ainbat autagaŕi aurkeztea egokiena edo guretzat, eta lau erkietan noski. Barka ezaidazute orain, zinkide onak zeratenoi beste lan bat eskatzeko ausartzen banatzaizue. Zuek asmokideentzat eta Eŕi osoarentzat, ain izen ona ta aipu aundia irabazi dituzutenezkero, oŕen ongi irabazita gañera, autagaŕi ere aurkeztea ontzat artuko bazenute, guretaŕentzat pozgaŕi ta sugaŕia izango litzake, ta arerioentzat, aitzitik, amoŕagaŕia. Ta ziuŕ uste dezakegunez, auteskundeak irabazi ezkero, bidezkoena zuek, laurok, aldundegien lendakariak izan zindezkete; ta beste egokitasunetatik at, ura izango litzake, bai, gure arerioei emateko erantzun bikañena.

Nolabait aŕituta geratu ziran gure lau adiskideak, eta etzuten bereala ezer erantzun. Baña ixil-une luzetxo baten buruan, zerbait esan beaŕ eta:

—Sabin'ek: Egitan, buruak eztit iñoiz eman oŕelakorik sortuko zitzaigula, baña nola ukatu, lendakari adiskidea, izpidean zagozela? Lenengoz, len esan dudanez, beaŕezkoa izango zaigu auteskunde guzietan gure erakundeak bere autagaŕiak aurkeztea; baña autagaŕi oyek ondo autatzea baitezpadako arloa izango dugu, ta oyen artean ni baño beste obe bat biīatzea oso egokia izan beaŕ. Ona izango litzake, zuk esan duzunez, etsayei beste erantzun egokia ematea, baña ori baño lenago aldundegietan bete beaŕ diran lanak ongienik burutzeko asmoa da lendabizi ukan beaŕ duguna; beraz, arloa alde ortatik begiratu beaŕ dugu guziaren gain eta xede ortaz gure artean egokienak biīatu. Dana dala, esanekoa izango natzaizue beti, ta, guzia ondo oldoztu ondoren, ni ere sartzea erabakitzen baduzute, orduan niretzat zuek esango didazutena onartzea geratuko zait bakaŕik.

Gutxi gorabera beste iru zinkideak erantzun berbera eman zuten, eta ondorioz arlo beŕiarekiko ari beaŕ guziek.

—Lendakari'ak: Zalantzik ez ene baitan len, zuen erantzunai buruz, eta zuen bayetzarekin dagoaneko bidean auŕeratuta gagozela esan beaŕ. Eiki, erki bakoitzean bertakoek erabakiko dute autagaŕien izendatzea; baña oraindik uŕun gagoz eta gaurkotz gure asmoak eta izenpetu beaŕ dugun idazkia batzaŕ orokaŕena noiz aurkeztu beaŕ-izango ditugun erabakitzea geratzen zaigu gure lana amaitzeko. Ongi baderitzaizue uŕengo iīean, iraiīean, egin genezake ori, ta emen bertan, Gasteiz'en,zuek beste aldi ta alde nayago ezpadituzute.

Ontzat artu zuten guziek lendakariaren asmoa, ta biīera oŕela amaiturik, uŕengorarte aguŕ egin zioten alkaŕi.

Etxerako bidean Mikel kexu ta gogoanbeartsu, bere baitan arazo batetik bestera ziri-mara, urduri. Lenengoa zala-ta, zaĪa iruditzen zitzayon naiz egoeŕitaŕ naiz ipaŕeŕitaŕengandik erantzun egokia lortzea, ta, jakiña, ori barik buŕuka len bezin gorbiztuta jaŕaitu beaŕ, eta ondorioaz gentzarako asmoa lurpean geratzeko, gero ta lurperatuago zirudienez. Bigaŕena etzan berarentzat oso gogoko, naiz udaletan naiz aldundegietan ari-izateko zaletasunik gabe betidanik zegoelako, ta bere asmo berezietarako, toki oyetan aldia galtzeko bidea baño besterik izango etzalakoan; alaz ere, bere lagun eta erakundearen agintarienganako begirunez bayetza eman zuen; benetako poza berarentzat bere ordez Araba'ko erakundeak beste bat izendatuko balu, baña ba-zekien ori oso zaĪa izango zala ta zorigabeko bidean edo abiaturik zijoala iruditzen zitzayon.

Alegia, bere ikuspegi beltza, etxean gozatzen zuen maitasunaz, zerbait argitu zitzayon aurki, ta eguneroko lanetan sarturik, beste zantzunak nolabait zokoratuta geratu zitzaizkion, egunerokoari so-egiteko beaŕez.

Il-gaua

Udaren amayean iraiĪa eldu zitzayen guziai, ta deituta zegoen batzaŕa egiteko eguna ere abertzaleai. Oitura zutenez, eŕuz erdu ziran lagunak, antsi aundiaz gañera, uztaiĪean gertatutakoaren ondotik lenengoa zalako; ta eztabaida aundirik gabe ao batez onartu zituzten batzarkideek aurkeztu zizkieten gai biak, guziengan kexutasuna piztu bazan ere. Dana dala, asmo berean jaŕaitzeko gogoaz guziek, beti edozeri buru-egiteko gerturik.

Bereala banatu zuten batzaŕean onartutako idazkia, lenengoz Ipaŕeŕi ta Egoeŕi'ko jaurlaritzai bialdurik, baña ez batetik ez bestetik erantzun egokirik etzan iñoiz izan. Bigaŕenak, bere agiri batean eta beste arazo batzuen artean iraitzean, zerbait esan zuen ari buruz, baña zearo uŕuñatzeko. Izpaŕingietan, ordea, Euzkadi'n ateratzen ziranetan batez be, bai, idazkia artu zutela esaten eta mota askotako iruzkiñak ematen, bitan bakaŕik idazki osoa eman zutelarik. Lateŕi'ko izpaŕingi batzuetan, artu zutela esan eta beren iruzkiñak arbuyoki ematen, eta Euzkaleŕi'an ere, egitekoa edozein izan, lateŕiaren legeak ematen zituzten bideetan barna burutu beaŕ zala gañeratzen, bai ta ari buruz ari-izatea gogaikaŕi zitzayela adierazten.

Edozein eraz, indaŕez jaŕitako lege ayen bidetik jaŕaitu zuten, ain zuzen, euzko-abertzaleak beren ekintza auŕera eramaten; eta ia oartu gabe, iĪebete batzuk laisteŕ atzean geratu zitzaizkielarik, aldundegietarako auteskundeen auŕean aurkitu ziran, bat-batean izango bailitzan. Eta azken batzaŕean artutako erabakiaren arauz, garaiz jakin-erazi zituzten «Euzko-Deya» beren asterokoaren bidez, erki bakoitzerako aurkezten ziranen izenak. Eta bereala egoeŕitaŕen artean amoŕua sortu ere, zinkideen izenak emateak lateŕiari aŕokerizko eupada egiten zala oyuka salatzen. Baña guzia beren legearen bidetik aurkeztuta zalako, nai ta nai ez, meleka-meleka ta gogo gaitzez, autesgai guziak onartu beaŕ-izan zituzten.

Baña nolako buŕuka ondorioz sortu zana; egoeŕitaŕ guziak eta beren euzkal-lagunak ere, ayen aurka jaŕi ziran bereala, atera etzitezen alegin aundienak betetzeko xedeaz. Beren elburu nagusia etzan berak nai zituztenak ateratzea, biraogaŕi zituzten beste ayek beren naya ez lortzea baizik. Eta zearo gorbizturik edatu ziran Euzkaleŕi osoan auteskunde ayetarako zabalkundeak, batzuetan aurka zegozenen artean liskaŕ deitoragaŕiakaz amaitzen ziralarik.

Oso mingaŕia guzi ura Mikel'entzat, eta ala beaŕean, umea izan zalarik bere etxetik ikusi beaŕ-izan zuen buŕuka izugaŕi ura oroimenean beŕizten zitzayon, bere biotza guztiz naigabeturik geratzean, eta iragaŕitako aztarna izan bailitzan, mamu beltzaren itxuraz bere baitan. Alan eta guzti, gogoz ari-izan zan Araba'ko eŕietan barna agirian mintzatzen auteskundeetarako beren zabalkundea argi ta garbi egiten.

Autarkiak emateko egunak gutxi geratzen ziran; zabalkundearen azken bilkura Mikel eta bere lagunak Gasteiz'en egiteko zeukaten, egitarauaren arauz, atzenuŕena, ordea, Azpaŕena'ko Araya'n; eta ain zuzen, aren luŕa zalako, ara bildu ziran aldameneko eŕi guzietatik entzuleak ugari, enparantza mukuŕuz betetzen, izlariei entzuteko iŕikaz, oro.

Bi izlari agertu ziran Mikel'ekin, bera baño lenago mintzatzeko, ta ongi burutu zuten beren eginbeaŕa, Eŕi'arentzat auteskunde ayetan jokatzen zana zeatzez adierazten. Eta Mikel auŕeratu zan gero bere aldia betetzeko gartsuki. Berak eta bere lagunek Aldundegi'an egiteko zeukaten egitaraua argi ta garbi azaldu ondoren, onela jaŕaitu zuen alde guzietan aldaŕikatzen ari-izan zan gentzaren alde bero-bero itzegiten:

—Mikel'ek: Ene eŕitaŕ maiteok!: Nai ta nai ez buŕuka batean sarturik gagoz guziok auteskundeak dirala kari; ezinbestekoa zaigu ortaz buŕukatzea, noski, talde batzuk alkaŕen aurka aurkezten geralako; baña buŕuka erdian ere alkaŕenganako adei-onez ari-izatea dagokigu, auŕean daukaguna gu bezela arabaŕa ta euzkalduna dalako, baña batez ere, gu bezela ere giza-laguna zaigulako, ta gure ezberdintasun guzien gañetik alkaŕ maite beaŕ dugulako; ukan ditzagun asmo auek gure baitan beti nagusi izan ditezen, eta oŕela ere gentzan...

Etzuen geyago esan; zunpada bat entzun zan eta aldi baten Mikel tanpaka erortzen ikusi zuten guziek.

Zer izan ote zan ura? Entzule guzi ayek lipaŕ batez txundituta geratu ondoren, auŕeruntz jo-egin nai-izan zuten, berez eta oldez,

jausitakoa ikusteko gogoaz edo, ta ororen aoan: Mikel!, Mikel!, Mikel!, ... —oyu bera, eŕi osoaren deadaŕa izango bailitzan; beste asmorik ez ayengan, Mikel ikusi nai, Mikel goratzea gura, Mikel beren buru ta biotzeko asmo, xede ta yoran guzia; ta ezin, arean, arengana guziak urbildu; baña, orduan, gaŕazika beti, aren beŕia eskatzen, biziki, ertsiki, biotz guzia aldaŕiaren erdian ipiñita.

Iñori buruak eman laŕialdi artan, zunpada nork bota zuen galdetzea, Mikel'ganako baitzituzten beren lei bizien guztiak zuzendurik. Eta, gero ateman zutenez, zorabio egokia ura, eraīlea edo eraīleak izkīua gordetzeko ta guzien artean beren burua nastutzeko, alde-egiteko izan ezpazan. Oŕela edo guzia gertatuz, iñoiz etzuen iñork arezaz al-izan ezer jakin. Agintariek uŕats batzuk eman zituzten, gogo aundirik gabe ta bīlakatzen ari zirala doi-doyaz erakusteko xedeaz bakaŕik; batzuen batzuk, eta beren artean Patxiko ere, atzituta egon ziran egun gutxitan, baña egiztabiderik gabe, guziak azke kalera ta... auŕerantz bizia, ezer gertatu ezpailitzan.

Mikel ondoan zegozenak jaso nai-izan zuten gauza aundia etzalakoan, baña bere bulaŕa odolez beterik ikusita, bereala sendagīle ta apaizaren bīla jauzi-egin zuten ayetako bi lagunek. Laisteŕ eldu ziran deitutakoak, eta berealaxe ikusi zuten Mikel zendu zegoela; sendagīleak esan zuenez, iraizkiñak biotz-erdian jo-egin zion. Sendagīlearen itzak bala-bala guzienganaño arin, eta aŕabotsa, iskanbīla ta oyuak esan-eziñezkoak enparantza osoan, ororentzako zorigabe izugaŕia izan zala guzien aldetik adierazten.

Ziŕi-paŕa ta zuŕu-buŕu ikaragaŕi artan, Martin zegoen an, īlaren ondoan belaunikaturik, ezer esateko gai izan gabe, oñazeak jo-ta zeukala, ezeztaturik oso, ozta-ozta itz etenak ateratzen zitzaizkiolarik: Mikel, Mikel, biotzeko anaya, emen īla, ..., enetzat betiko īla, ..., enetzat eta guzientzat, ..., au bai zorigaitza, ...; baña —ta jauzi batez zutunik—, nork il au? —ortz-kaŕaska ta ukabīlak ertsiki tinkotuta goruntz jasotzean, bein eta beŕiz: —nor?, nor izan duk eraīlea?— sumindurik oso ta oyuka.

Aren aldamenean apaiza ta sendagīlea alkaŕi mintzatzen, zer egin beaŕ zan erabakitzeko; Eguŕola jauna ere ara erdu zan, lazturaz beterik. Iruren artean Mikel'en gorpua bere etxera eramatea erabaki zuten, orixe onena izango zalakoan, eta Martin'i ere orixe esan zioten.

—Martin'ek: Ondo, bai, baña nork eman beŕi izugaŕi au bere amari, Aintzane'ri, Maḍalen'i?

—Apaizak: Gogoŕa izan beaŕ ori, bai, Martin, baña utzi ori niretzako; Amamio'ra joango naiz bereala ta Lauren ango apaizarekin lan latz ori beteko dugu biok; ori izango da bide onena. Bitartean —sendagiĺe ta endoreari buruz— zuek alik eta ongienik gorpua atondu, al bada odol-aztarna ezabatu ta poliki-poliki ara eraman; eta zuek eldu baño lenago gure lana beteta izango dugu, ene ustez.

Oŕela egin zan guzia, ta apaiz biak etxera eldu ziranean, aŕituta lenengoz emakume ayek, baña izkutatzeko eziña izan zitzayen beren arpegi iĺun eta itunak ikustean, Aintzane'k, biotzak bereala ayeru txaŕa emanda: —Zer dakarzute?, zer?, ..., Mikel?, ..., zer jazo zayo? Itzegin, jaunak, Yainko'aŕen... Mikel!... —deadaŕez, bera zan guzia dardaraturik eta upa bete negaŕ, ero bezela oyuka: —Mikel!, ..., Mikel!, ... —Eta beste emakumeak berdin.

Ura apaizak bete beaŕ-izan zuten lan mingotz eta gogoŕa.

—Apaiz batek: Laisteŕ izango duzute emen Mikel... zauritúa izan da, zoritxaŕez eta ona ekartzea erabaki dugu ori onena izango dalakoan.

—Beste apaizak: Bai Aintzane, bidezkoa da negaŕ-egin dezazula, zorigaiztoa guziontzat izan bada, aundiena zuretzat, noski. Bai, negaŕ-egin zazu, emakumea, baña ez aiztu ororen gain Yainkoa dugula, ta guziaren gañetik gure biotzak A'rengana zuzendu beaŕ ditugula oraingoa bezelako ezbeaŕetan batez ere.

—Lauren apaizak, amari buruz: Zuretzat ere, emakumea, zoritxaŕa eldu zaizu; ba-dakit ongi zure semea nola maite duzun eta ama zeran aldetik ezinbestekoa da biotza uŕatua eukitzea; malkoak izan ditezke zuretzat be legungaŕi bearbada, beraz, negaŕ-egin, bai, negaŕ, saminki bada ere.

—Beste apaizak: Ene uŕikalmen guzia zuentzat, emakumeak, oñaze bizian ikusten zaituztet-eta. Jaso dezagun guziok gure biotza Yainkoa'ganuntz, beaŕ-beaŕa zaigu ori egitea guzioi. Siñestun osoak zerate etxe ontan guziok, ongi dakigu ori, ta gure Mikel ere oŕelaxe zan...

—Aintzane'k: Zań? ..., zan? ... —deadaŕez— zer esan nai duzu apaiz jauna?

Eta auŕe-auŕean jaŕi zitzayon, begiak begi-koskoetatik ateratzen zitzaizkiola, zuŕundurik, itzegin eziñean, eta ozta-ozta, apaizari buruz:

—Zan?, ..., zan?...

—Apaizak: Yainkoa'ren naya duzu, ziuŕ, Aintzane gaxua; Mikel bai, siñestuna zan, eta... zu orain... alarguna. Gogora ezazu, aŕen, gureganako maitasunaz Yesukristo gurutzean il zala ...; eta aren antzera, zure senaŕa ere, orain, zuen eta Eŕi'aren maitasunaz.

Ura, bai, gogoŕa, emakume arek artu zuen dangada; dardaraka oso, gorputza, ..., zearo lañoturik gogoa, ...; semetxoa artu zuen, barneko oldez eta indaŕez besarkaturik...

—Mikel!, ..., Mikeltxo!, ..., Mikel!, ..., Mikeltxo!, ... —iĺak bezela zeuzkan bere ezpañetatik deitzean, malkoak ibaika, uyolka zeriozkiolarik ...; eta bera zan guzia lausoturik lez geratuz.

Orobat Mikel'en ama; zuzen artu zuen aldi baten, semearen beŕi samiña, ta biotz guzia uŕatu zitzayon oñazez; aldamenean zegoen beste amoñagana, euskai baten biĺa, uŕatsak eman zituen, eta negaŕez ere biak besarkaturik..., nola baña! Eta Maḍalen gaxua, oñaze berean murgildurik, ama besarkatzera joan ondoren, Aintzane'gana jo zuen beste ainbeste egiteko naimen biziaz... bera ere ezer esan eziñean.

Apaiz biak ixiĺik eta nekez atsekabe-aldi aundi aren auŕean, eta emakume ayenganako begirune ta uŕikalmenez beterik ..., une mingaŕi artan itz onenak ere alpeŕik izango zirala ongi zekitelarik.

Baña Mikel zekartenak laisteŕ elduko zirala-ta, beren burua ere indarturik, Maḍalen'i itzegin zioten, gorpua jartzeko tokia antolatu beaŕ zala adierazten. Eta beste emakumeak ortarako ezer etzirala-ta, aŕeba gaxuak bete zuen lan ura, bere nebaren gelan. —Zaindu, otoi —esan zioten apaizak— zaindu Aintzane, Mikel eltzerakoan!; Yainkoa'k eman dizaizula ortarako beaŕa izango duzun indaŕa.

Aurki eldu ziran, zetozenak. Maḍalen'ek, bere ezkon-aizta besarkaturik, eta apaiz biak, lenengoa eldu zan Martin'ekin, esi antzeko bat egin zuten, Mikel bere oe gañean jaŕi arte. Baña nork eutsi emazteari orduan?; semetxoa Maḍalen'en besoetan utzita, zer zegien ere ateman gabe, biotzeko oldez senaŕaganaturik, nola besarkatu zuen, aren arpegia muñez betetzen; eta negaŕ-zotinka, asayaz dardaratzen, biotz-biotzez nolabait mintzatzen:

—Mikel!, ene biotzeko Mikel!, zer duk au, laztana?, zer eldu zaik? Yainko maitea!, eraman nazazu ni ere berarekin!, ...; zer, baña? ... guzia niretzat iĺuna ..., itxartu adi Mikel!, ..., emen duk emaztea!, ..., emen ire Aintzane! ...; esnatzeko ordua duk, mutil, ..., ez aiz betiko lotan geratuko, ... —burtzoraldian jo-ta zegoela zirudien.

Ama ta aŕeba ere, oe ondoan belaunikaturik..., mintzatu eziñik... negaŕari oso emanda. Eta aldamenean gure Martin, bere izate guzia ere uŕaturik, zer egin etzekiela, gizona.

Noiz arte egon ziran ala, alkaŕ ainbat maite zuten gizakume ayek? Nork esan? Zearo ondatuta geratu arte, alegia. Auzoko emakume lagun batzuek lortu zuten uŕengo argiaren beŕian gelatik ateratzea, guztiz akituta izan ziranean, eta alpeŕik izan bazan oean sartzeko egin zuten alegiña, zertxobait, akeitesne beroa aŕ zezaten beñepein, bai, eragin al-izan zieten. Baña oso indargeturik, eserita geratu ziran, mintzul, bakoitzak bere samintasuna birundaka barnean, ia igitzeke.

Martin, egunaren argiaz nolabait iñaŕotsita, zer edo zer egiteko ba-zegoela ustean, ura zer ete liteken garbi ikusi gabe, bere etxera joan zan bere burua pizkat garbitzeko xedeaz, eta ur otzak erne-erazi zuen alan-olan. Orduan Lauren apaiz jaunarengana jo zuen laguntzaren biīa.

—Martin'ek: Apaiz jauna, oraintxe eldu naiz Mikel'en etxetik, an gau guzia igaro ondoren, zerbait egin nayean eta eziñean, adimena zearo kamustuta neukalarik. Ango emakumeak berdin, goizerarte; arestian lagun batzuek gelatik atera al-izan dituzte, baña sukaldean geratu dira, sorgoŕ, bizi gabe. Ayek eztira oindiño ezer egiteko gai, ta lagundu beaŕ ditugu ziñez. Lenengoz, oraintxe eman dit buruak, Sabin eta beste bi adiskideai, bai ta Gasteiz'koai ere jakin-erazi beaŕ diegu gertatutakoa...

—Lauren apaizak: Ori egiña dago, Martin; bart ain zuzen, Yokin, Eguŕola, Araya'ko apaiza ta laurok itzegiten ari-izan giñan eta endore jauna geratu zan bart ori egiteko; beraz, ene ustez, ayek gaur bertan elduko dira. Gero, iīetak biar edo egingo ditugu, ta ia zer deritzaizun zuri, Eguŕola'ri otu zayon au: gaur gabean, iīaren etxean, guziok alkaŕekin agurtza otoi-egin ondoren, aspaldian oitura zan bezela, il-gaua ere egitea; guri, Mikel gure ekanduai ain atxikita zegoela gogoratzean, ondo iruditu zitzaigun; bai ta, bide batez, ainbat irabazi zuen gorestea egin al dizaiokegu.

—Martin'ek: Niri ere ondo iruditzen zait esan duzun guzia, baña emakume ayei esan beaŕ zaye ia ontzat artzen duten, bai ta berak beste zerbait egiteko asmorik ote daukaten galdetu ere. Ta il-gaua egin ezkero, nor bertan mintzatzeko?

—Lauren apaizak: Bai, noski, Martin, eta ni joango naiz berea-la ayengana, elizako gauzak atondu ondoren, ta alegiñak egingo ditut

berenekin guziaz mintzatzeko. Gaxuak emakume oyek! Beste aldetik, il-gauan nor ari-izateko galdetu didazu; ene ustez, egokienak, Mikel' en iru adiskideak, eta ziuŕ nago ortarako eragozpenik ipiñiko ez dutela; ta, lenengoz, zerori, Martin, arenganako beti anaya bezela izan baitzera.

—Martin'ek: Ongi deritzait ori ere, baña eztakit ni ezer esateko gauzik izango naizen.

Apaiz jaunak, agindu zuena betetzera aurki joan zan, berarengana eldu zan Araya'ko beste apaizarekin. Biek, Mikel'en gogoaren alde Meza bana eman zutela esan zieten zorigabeko ayei; ta onela jaŕaitu zuen gero Lauren apaizak:

—Ongi baderitzaizue, orain ementxe bertan, sendikoak alkarturik zagozela-ta, agurtza bat otoi genezake, aren alde guziok batera Yainkoa'ri aŕenka; ene ustez ori egitean, gañera, zuentzat eta guziontzat adoregaŕia izango zaigu.

—Bai —erantzun zioten ozta-ozta emakume itun ayek; baña, gero, nolako sua otoi-egitean, gogo ta biotz osorik itz bakoitzean.

Iīetak eta il-gaua egitea ere ontzat artu zituzten, negaŕari beŕiz emanda, besteetarako indaŕik gabe baitzegozen; orobat Mikeltxo ere, ayen antzera gizajoa. Atsekabe legoŕ artan, bakoitzak saniña bera bere baitan bira ta bira, ura gainditu eziñean, ez eta nayean be; unealdi iīun eta gogoŕ artan, beaŕa bezela zeukaten azaz beren gogoa elikatzea, beste guzia zokoraturik; eta yoran biziaz artzen zuten ura, aren goseturik oso, arean.

Aŕatsaldeko lenengo orduetan Xabier eldu zan, Eneko ta Sabin ere geroxeago; apaizarengana zuzendu ziran lendabiziz eta berarengandik jazotakoaren beŕi zeatza artu zuten. Gero laurak Mikel eta sendikoengana, ta emakumeai buruz:

—Sabin'ek: Gure maiteok!, zuengana gatoz biotza zirtzikaturik, oñaze berean zuekin alkarturik, geuk ere anai onena galdu baitugu. Onaŕ ezaiguzute, otoi, gure laguntza osoa, barne-barnetik eskeintzen dizuegu-ta.

—Maīalen'ek: Bai, Sabin, ongi dakigu gurekin bat eginda zaituztegula, bai ta gu ere zuekin. Etoŕi, ziuŕ nago Mikel ikusi nai duzutela.

Sartu ziran laurak gelara ta atzetik ama ta Aintzane be. Emakumeak beŕiz negaŕ eta zotinka, ta iru zinkideak Mikel'gana makur-

turik ..., ixil ... eta barnean oñaze-ekaitza azkeneraño txastatzen ..., ari begira, begira ..., ezpañak estuturik eta luzaroan igitzeke ..., ezinbestean ondatuta.

Noizpait amaitu zan egonaldi nekegarri ura, Yokin adiskide ayek agurtzeko eldu zanean, eta guziak alkarekin aurkitu ziran berriro sukaldean. Bertan, geroago, bazkal-aparia eskeiñi zieten eldutakoai, ta auek ere etzuten lortu emakumeak ezer jatea, doi-doya akeitesne pizkat, egariagatik edo.

Bitartean, apaizak, Martin, Egurola ta beste lagun batzuek alkar laguntzean, il-kutxan jarri zuten Mikel'en gorpua, ta atarian ipiñi, bertan agurtza ta il-gaua gabaz egiteko. Ta ori izango zala eritarak jakitean, ara asi ziran urbiltzen, bai ta eurekin erietatik eta Gasteiz' etik erdu ziranak ere. Tokirik ez baruan guzientzat eta etxetik at geratu beari; alaz ere ixiltasun aundian murgildurik oro, atsekabe artan guziak bat egiñik.

Ilundu zan ordukotz, eta emakumeak bakarik negar-zotiñka entzuten ziralarik:


—Lauren apaizak: Etxekoak, adiskideak, asi gaitezen, Mikel'en inguruan, bere gogoaren alde gure otoitzak egiten; bera zan bezela, geu ere siñistunak gera ta otoyaren bidez berarekin bat egingo dugu. Ta izan bitez etxekoentzat gure laguntza ta batik bat gure otoya aringari egokia, Yainkoa'ren naya beti ontzat arturik.

Asi zan apaiza agurtza esaten; eta ororen erantzuna, ao batez eta biotz-beroz eginda, gauaren altzoan, eri oso baten erosta bezela goruntz igoten zan, kartsu, antsiz beterik, su-ta-gar, lei bizi-biziaz, guziek gogo, biotz eta almen osoa ezpañetatik adierazten otoyaren bidez.

Amaitu zan otoya. Mikel'en inguruan tarte bat utzirik, etxeko emakumeak eta eriko lagun batzuk ere alki txikietan eserita; beste guziak zutik, oituraren arauz ixil eta entzuteko adi-adi, ayen atzean.

—Lauren apaizak: Eman dizayogun asiera Mikel'en omenezko gaurko il-gauari, antziñan gure asabak egiten zuten bezela. Asi nai al duzu zeuk Martin?

Aureratu zan gure arotza, il-kutxaren ondo-ondoan jartzeko; ta bere buruari indar aundia zegiolarik, itz etenen bidez, bere besoak jausita, ukabilak estuturik eta burua ilarenganako zerbait makurturik, onela ari-izan zan:



Unealdi laŕi ontan,
Ikara biotzean,
Zer beaŕ dut orain jasan
Uŕaturik barnean?

Adiskidea osorik
Izanda txikitatik,
Iñun ez iñoiz oberik
Niretzako izanik.

Geyago nik esateko,
Lagun ona egizko,
I geyago enekiko,
Anaya biotzeko.

Galdu aut orain zearo,
Ezin niregan bero,
I gabe iluna oro,
Auenka egunero.

Mendian zauriturik bein,
Bizirik an beñepein,
Eutsirik indudan berein,
Ez izan i edozein.

Gaur ementxe augu zendu,
Nola bizia galdu?,
Nork bera baña iri kendu?,
Zergatik ori eldu?

Eŕia maite uan sendo,
Luŕa ere oso ondo,
Orixe ogenen aindo,
I ez intzan, ez, geldo.

Iruditzen zaidak, egiz,
Ezin diadala iñoiz,
Bizirik irauten oroiz,
Bakaŕik nola otoiz!

Biotzari min dario,
Auxe, bai, saŕakio,
Buruan be zorabio,
Euk sortua, erio.

Aguŕ Mikel, betiko aguŕ,
I gabe oro uzkuŕ,
Ni bezela eŕi ta luŕ,
Aguŕ, anai on, aguŕ!

Atzeratu zan Martin, amaitu ondoren, eta orduan Eneko izan zan auŕeratu zana, eskuak, buru ta soña, ilaren alderantzean, eta zailtasunez mintzatzen :

Gabea otza da,
Oŕela gu,
I orain galduta,
Oso oztu.

Auxe galtze aundi,
Jasan beaŕ,
Bai gu bai ta Eŕi
Oro negaŕ.

Ituntasunean
Bizi baña,
Geron biotzean
Oroi gaña.

I gogoraturik
Bai indaŕa,
Eredu izanik
Gure gaŕa.

Euzkaldun gogoa
Uan maite,
Baŕu aŕagoa
Azaz bete.

Euzkerarekin bat
Eraginkoŕ,
Biei alkaŕentzat
Eutsi gogoŕ.

Lankide yaukala
Eu indugun,
Ekiñetan ala
Beti yardun.

Ez augu aiztuko
Gure baitan,
Ez geuk egiteko
Suzko-lanan.

Zin zegiat bero
Barne unkituz,
Jaŕaitzeko gero
Naya gertuz.

Ori nire aguŕa,
Tori, aŕen,
Biotz diat uŕa,
Auxe azken.

Aren uŕengo ta era berean, Xabier'ek bete zuen bere il-eresia :

Mikel, adiskide,
Nora ote?,
I ta ni senide,
Nola uste?

Utzi gindukala
Onen laisteŕ?,
Usoa bezala
Egaz edeŕ?

Soin da muin izan aiz
Ire lanaz,
Yarduteko garaiz
Ta yoranaz.

Bizia maitatzen
Gogo-gogoz,
Urkoa ain zuzen
Sutsu ta poz.

Euzkal-biziari
Eusten berdin,
Euzko-lagunari
Ona egin.

Oŕa ik egiñak
Oberenik,
Langile-lugiñak
Alkarturik.

Lankidetasuna
Goiburu on,
Eta ekoizpena
Yori berton.

Zin-egin genian
Bein guk alkaŕ,
Gogaide-zuŕian
Gogoz, azkaŕ.

Nik gaur ire ondo
Beŕiztu nai,
Ziña bera sendo
Opari gai.

Gero arte, lagun,
Aguŕ Mikel,
Gogo-biotz itun,
Oso goibel.

Eta gero Sabin, kirmenago baña guzien biotz-zaŕastadaz oñaze bera berdin adierazten :

Egunaren zabalean,
Ideki betetzean,
Bizi obe jaŕaitzean,
Buruturik bekoan.

Ire baitarik gartsuki
Zin-egin len zintzoki,
Burua ukatu ongi,
Bete-egin duk osoki.

Abertzale izanik ziñez,
I lenen ziñopa lez,
Orixe bera aizenez,
Geuk goratu omenez.

Atsa izan gure bizia
Irautean txikia,
Areitzak itzal aundia,
Zituaz ugaria.

Oŕen antzera izanik,
Igan zintzotasunik,
Ire baitan beroturik,
Noranai zabaldurik.

Abeŕi osoan bete
Ire asmo ta xede,
Onuragaŕiak erne,
Kalterik egin gabe.

Lagun ona izan atzaigu,
Guziontzat aiduru,
Ukaturik ire buru,
Besteentzat eredu.

Zinkideak izan gaituk,
Itza eman i ta guk,
Ik ongienik bete duk,
Orixe egiteko geuk.

Beste adiskide biak
Biŕeman beren ziñak,
Berebat nire biotzak
Bildurik bere indaŕak.

Iganako nire zoŕa
Betetzeko ez loŕa,
Iñoiz bazaidak gogoŕa
Izanen nauk euskoŕa.

Aguŕ adiskide miña!,
Menperatuz zotiña,
Bete nayez alegiña,
Emen duk nire ziña!

Amaitu zuen bilbaotaŕak eta orduantxe, guziak il-ospatze ura buruturik zegoela ustean geratu ziranean..., ara Aintzane, eserita zegoen tokitik jauzi batez jeikita, Mikeltxo besoetan zeramala, azka ta puzka ere zegizkielarik, il-kutxa-buru-aldean jaŕi zan, bere senetik at izango bailitzan. Aren azalkera, ia gorpuaren antzera, ta bere zurbilduran malkoak distiratzen ziran jaustean, argi-zayen argitan. Guziak aŕi-egiñik, ixil-ixil eta ari so-egitean.

Nundik atera zuen emakume arek, yasaten zuen oñaze ikaragaŕian, bere il-eresia abesteko indaŕa? Nola jakin! Baña asi zan, ilotz-doñuaz, abotsa kordokaz, azkuago bere itzak yalgitzearen izarian, gora-goraka azkenean. Ezkeŕ-besoan semetxoari sendo eusten, eta eskuma senaŕaren buruan imiñita :

Aŕanoa, bai, goi-goyan
Ega-bidez igoa,
Nire gizon goragoan
Gogo-indaŕez jasoa.

Gayetan baño gogoaz
Naimenak bultzatuta,
Ukan uala antsiaz
Bizi oso beteta.

Gentza maite uan oso
Gentza-beaŕean il,
Irea duk orain oro
Ekin ondoren bipil.

Ororenganako zale
Gogo biziz emana,
Naiz etsai naiz adiskide
Guzientzat yorana.

Nire bidean laguna,
Ene senaŕ yaukala,
Adiskide on kutuna,
Iñor ez i bezala.

Maite ninduan barnetik,
Maite aut biotz osoz,
Irea nauk biotzetik,
Yoranez eta gogoz.

Pozaŕen pozez irekin
Egunak igarota,
Gaur ene baitan oro min
I bayauat galduta.

Maitasunak eragitez
Eman nikian seme,
Aragia izan bidez
Ementxe duk, bai, ire.

Baña gogo-izarian
Emanen diiat beŕiz,
Naimen ori biotzean
Zaidakala iŕikiz.

I bezin on izateko,
Ire bidetik jaŕai,
Bere aitaren antzeko,
Gogatsu ta bai alai.

Orixe nire beaŕa
Ire oroiz gaurgero,
Betetzeko deadaŕa,
Zin dagikiat bero!

Eta Aintzane'ren azken aldaŕia,

aize ta lañoaren zeaŕ edatu zan laŕia,

Abeŕiarentzat eskeintza bizigaŕia,

betetzeko oso-osorik Euzkaleŕia!

Maitasun-oyu ta gaŕ!
Itxaropen-deadaŕ!

AMAYA

AURKIBIDEA

	Orialdea
Aitzin-Solas	5
Amamio'ren deya	7
Gogorapen, asmo ta gogo-ametsak	23
Maitasunak	41
Araya'ko jayak	62
Sabin'en beŕiak	90
Aro gaitzerako zantzuak	100
Zinkideen lenengo biĺera	117
Mendian sua	150
Eguŕ bakoitzak bere ezpala	168
Baŕandan eta zelatan	186
Neguan alaitasunak	201
Buŕuka ta gataska beŕien asiera	217
Neguko biĺera	238
Ekintzetan	257
Bizi, ekintza ta gentza'ren alde	273
Laugaŕen biĺera	299
Gizonak lanean, auŕak abestean	320
Ezkon-itza betetzeko bidean	340
Batzaŕ nagusia	357
Bizi-guda ta giza-guda	378
Labearen eztanda	394
Bazkun beŕiaren asmoa	410
Asaldura, itxaropen eta amets beŕiak	429
Lan-uzte orokaŕa	441
Asmo ta xedeak betetzen	454
Eztai ta eztayondoak	480
Zabalkunde betean	498
Atseginak eta atsekabeak alkaŕen uŕengo	517
Goŕoto-ekaitza	528
Ekaitzaren ondokoak	546
Il-gaua	559

KARDABERAZ BAZKUNA